

Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko ezinak eta eginak

Gipuzkoako Foru Aldundiko
governantza sareak aztergai (2011-2015)

Doktore-tesia **Andere Ormazabal Gaston**

Zuzendaria: **Iñaki Bárcena Hinojal**

erman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Ikerketa taldea | Research group

Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko ezinak eta eginak

Gipuzkoako Foru Aldundiko
gobernantza sareak aztergai (2011-2015)

Tesi honek Euskal Herriko Unibertsitateko Ikertzaileen prestakuntzarako laguntza jaso du 2007ko maiatzetik 2011ko apirilera.

Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitateko mugikortasuna susatzeko eta ikerketaren emaitzak hedatzen laguntzeko diru-laguntza jaso du, 2010eko urritik 2011ko urtarrilera.

Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko ezinak eta eginak

Gipuzkoako Foru Aldundiko
governantza sareak aztergai (2011-2015)

Doktore-tesia **Andere Ormazabal Gaston**

Zuzendaria: **Iñaki Barcena Hinojal**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Facultad de Ciencias Sociales
y de la Comunicación
Departamento de Ciencia Política
y de la Administración

Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fakultatea
Politika eta Administrazio
Zientzia Saila



Aurkibidea

1. Ikerketaren aurkezpena	13
1.1. Sarrera	15
1.2. Helburuak	19
1.3. Ikerketa galderak	21
1.4. Doktorego Tesiaren hezurdura	23
2. Marko teorikoa	27
2.1. Herritarren eta erakunde publikoen arteko harremana demokraziaren pentsamendu arautzaileen begietatik	29
2.1.1. Demokraziaren pentsamendu arautzaileak	29
2.1.2. Pentsamendu arautzaileetatik demokrazia ereduaren praktiketara	35
2.1.3. Herritarren eta erakundearen arteko harreman ereduak	48
2.1.4. Herritarren partaidetza eta demokratizazioa	49
2.2. Herritarren partaidetza eta demokratizazio-prozesuen eragileak: gizarte mugimenduak, ezkerreko alderdiak eta ezkerreko gobernuak	53
2.2.1. Herri mugimenduen funtzio demokratizatzailea	55
2.2.2. Ezkerreko alderdiak: bitartekaritza funtzioa ezbaian	65
2.2.3. Ezkerreko alderdien eta herri mugimenduen arteko harremana	70
2.2.4. Ezkerreko gobernuak eta gobernugintza-eredu berrietarako baldintzak	72
2.2.5. Demokratizatorako prozesuen eragileen ezaugarriak	77
2.3. Erakunde publikoen eta herri mugimenduen arteko lankidetzaren esparrua: sare gobernantza eta partaidetza instituzionala	81
2.3.1. Gobernantza sarea politika publiko komunitarioetan sakontzeko tresna	83
2.3.2. Herritarren parte-hartzea politika publikoetan	90
2.3.3. Parte hartzearen mugak eta arriskuak	107
3. Azalpen metodologikoa	111
3.1. Diseinu metodologikoaren abiapuntua	113
3.2. Aztergaiaren kokapena	117

3.3. Erabilitako teknikak	119
3.4. Laginaren aukeraketa	123
3.5. Dokumentazio lana	127
4. Ikerketa kasuak	131
4.1. Gipuzkoari begiratu bat	133
4.1.1. Gipuzkoako herrialdearen testuingurua.....	133
4.1.2. Gipuzkoako antolaketa instituzionala	136
4.2. Herri mugimenduak eta parte hartzearen kultura	139
4.2.1. Mugimendu feministaren bilakaera Gipuzkoan.....	143
4.2.2. Mugimendu ekologista Gipuzkoan	145
4.3. Ezkerreko koalizioa gobernuan.....	147
4.4. Berdintasun Zuzendaritzaren gobernantza sarearen ezinak eta eginak	151
4.4.1. Gobernantza sarearen sakontasun demokratikoa aztergai	157
4.4.2. Agertoki berri baten abiapuntua eta elkarrekiko aitortza	159
4.4.3. Gobernantza sarearen osaketa eta elkarlanerako disposizioa: ertzetatik erdigunera.....	162
4.4.4. Parte-hartze espazioen eta elkarlanaren joko arauak: botere harremanak eta baliabideen banaketa ..	167
4.4.5. Gobernantza sareen gatazkak eta botere harremanak kudeatzeko tresnak	175
4.4.6. Lankidetzaren indartu eta ahuldu zuten faktoreak	179
4.4.7. Ingurunea –administrazioa eta komunitatea– eraldatzeko gaitasuna	186
4.4.8. Sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa elikatzen jarraitzeko desafioak	189
4.5. Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren gobernantza sarearen ezinak eta eginak	195
4.5.1. Elkarlanaren analisia eta gobernantza sarearen sakontasun demokratikoa aztergai	210
4.5.2. Hasierako kokapena eta elkarlanerako aukerak: bide orri argirik gabeko lankidetzaren	211
4.5.3. Sarearen osaketa: konfrontazio logiketatik elkarlanera.....	215
4.5.4. Parte-hartze espazioaren joko arauak eta botere harremanak	220
4.6. Gatazka eremuak eta horiek kudeatzeko tresnak	227
4.6.1. Lankidetzaren indartu eta ahuldu zuten faktoreak	232
4.6.2. Ingurunea –komunitatea eta administrazioa– eraldatzeko gaitasuna	237
4.6.3. Sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa elikatzen jarraitzeko desafioak	244

5. Ondorioak	249
6. Erreferentziak	261
Liburuak	263
Txostenak eta ikerketak	277
Berriak	279
7. Eranskina	283
Sakoneko elkarrizketarako gidoi orokorra (Herri mugimenduei zuzendua)	285
Sakoneko elkarrizketarako gidoi orokorra (Erakundeetako ordezkari politikoei zuzendua)	287
Sakoneko elkarrizketarako gidoi orokorra (Erraztatzaileei/teknikariei zuzendua)	289

Taulen aurkibidea

1. taula: Doktorego tesiaren hezurdura	24
2. taula: Herritarren parte-hartzea eremu publikoan, ikuspegi liberaletik	31
3. taula: Herritarren parte-hartzea eremu publikoan, ikuspegi neoerrepublikarretik	33
4. taula: Herritarren parte-hartzea eremu publikoan, ikuspegi autonomotik	34
5. taula: Demokrazia ereduaren ikuspegiak eta harremanak	48
6. taula: Ekintza Kolektiboen Analisia	61
7. taula: Herri mugimenduen posizioa erakundeekiko	64
8. taula: Alderdi politikoen bilakaera	68
9. taula: Demokratizaziorako balizko subjektuen tipologia	78
10. taula: Gobernantza sareen sakontasun demokratikoa	88
11. taula: Gobernantza sareen sakontasun demokratikoa eta elkarreraginaren dimentsioak	89
12. taula: Sistemak dituen hiru aktoreen eragiteko moldeak	94
13. taula: Parte-hartzearen eta sakontasun demokratikoaren bereizgarriak	96
14. taula: Partaidetza politikak eremu teknikoan txertatzeko ibilbide orriak	99
15. taula: Parte-hartzearen lan arloak: zer aztertu talde batean?	103
16. taula: Berdintasun Zuzendaritza	120
17. taula: Ingurumen politikak	121
18. taula: Ikerketa honetan aztertu ditugu txosten eta memoriak	127
19. taula: Gipuzkoako biztanleria eskualdeka, 2014an	134
20. taula: Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuen bilakaera	137
21. taula: Gipuzkoako elkarten izaera	142
22. taula: Eremuaren araberako sailkapena	142
23. taula: Gipuzkoako talde feministen kronologia	144
24. taula: 2011ko Foru Hauteskundeen emaitzak	147
25. taula: 2011-2015 GFAREN legegintzaldiaren organigrama	149
26. taula: Berdintasun eremua Aldundiko legegintzaldietan	152
27. taula: Gunearen aurre prozesuaren diseinua	154
28. taula: Gobernantza sareen analisirako tresna	158
29. taula: Gunearen partaideen aniztasuna	166
30. taula: Berdintasun Zuzendaritzaren gobernantza sareen sakontasun demokratikoa	184
31. taula: Erraustegiaren inplementaziorako eman ziren urrats instituzionalak	199
32. taula: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Aholku Batzordearen osaketa	202
33. taula: Udalerrietan hondakinen bilketa sistemarekin zerikusia zuten prozesuak	204
34. taula: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren osaketa	208
35. taula: Gobernantza sareen analisirako tresna	210
36. taula: Ingurumen eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren gobernantza sareen sakontasun demokratikoa ..	242

Irudien aurkibidea

1. Irudia: Demokrazia ereduen pentsamendu arautzaileak	35
2. Irudia: Parte-hartze mailak demokrazia sisteman	49
3. Irudia: Demokratizaziorako prozesuen subjektuak	53
4. irudia: Gizarte mugimenduen portaera politikoa erakunde publikoekiko	62
5. irudia: Demokratizazio prozesuen aktoreak	65
6. irudia: Demokratizazioaren aktoreak	72
7. irudia: Gobernantza sarea.....	82
8. irudia: Estatu/merkatu dikotomiatik botere publikoen, merkatuen eta komunitatearen arteko harreman konplexuetara.....	83
9. irudia: Eremu instituzionalean partaidetza lantzeko sakoneko helburuak	92
10. irudia: Partaidetzaren agerpena politika publikoen fase ezberdinetan	97
11. irudia: Prozesuen faseak eta erantzun beharreko galderak	102
12. irudia: Batzar nagusietako eskuduntzak	136
13. Irudia: Berdintasun Zuzendaritzaren gobernantza sarea.....	157
14. irudia: Mugimendu eta elkarteen portaera politikoa Aldundiarekiko	161
15. Irudia: Berdintasunerako gobernantza espazioaren aurre prozesua	164
16. Irudia: Berdintasun Plana diseinatzeko gogoeta prozesuaren urratsak	168
17. Irudia: Gunearen lan eremuak	172
18. Irudia: Lankidetzaren esparruetatik sortutako gatazka eremuak	175
19. irudia: <i>Gure genealogia feministak</i> liburuaren azala eta liburuaren aurkezpenarekin batera antolatu zen erakusketaren aurkezpena	187
20. irudia: Sakontasun handiko demokratizaziorako aurre baldintzak.....	190
21. Irudia: Erakunde eta sare kritikoaren elkarlanaren baitan agertu diren posizioak	193
22. irudia: Hiri hondakinen politikarako kudeaketa ereduak	197
23. irudia: Gipuzkoako 50 herrietako alkateen agerraldia	200
24. irudia: Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren gobernantza sarea.....	209
25. Irudia: Oñatiko irudia, atez atekoaren kontrako protesta	219
26. irudia: Gobernantza sarearen gatazka eremuak	232

**Nire eskerrik beroenak, modu batean
edo bestean, ikerketa lan honetan
lagundu didazuen guztiei, eta bereziki
Parte Hartuz Ikerketa taldeari.**

1. Ikerketaren aurkezpena

1.1. Sarrera

Azken urteotan, merkatu liberalaren hegemoniak demokrazia ordezkatzaillearen krisia hauspotu du, erakunde publikoen gobernagarritasuna ezbaian jartzeraino. Autore ezberdinen esanetan (Santos, 2005; Della Porta, 2017; Rauber, 2006; Subirats, 2012), Estatuak gizartea erregulatzeko duen gaitasuna pixkanaka ahulduz joan da, eta krisi horren aurrean, erreforma demokratizatzailearen aldeko ahotsak ugalduta egin direla esan dezakegu. Horien artean, asko dira ordezkagarritasunaren krisiari aurre egiteko herritarren partaidetza eta gobernugintza irekiagoak proposatuko dituzten formulak (Parés, 2009; Harnecker, 2013).¹ Instituzio publikoen zilegitasun ezak ateak zabaldu dizkio, beraz, berrikuntza demokratikoaren aldeko diskurtsoei, eta politika egiteko molde berriei.

Marko diskurtsibo horiek posizio ideologiko ezberdinetako alderdien artean ikus daitezke, baina batik bat ezkerreko alderdi¹ eta pentsalarien artean nabarmentzen direla esan dezakegu. Hor kokatu ditugu gure erreferentzia teorikoak eta azterketa kasuak. Berrikuntza demokratikoaren ekinbide nagusiek eragileen arteko harremanen dimentsioari (Ibarra, 2011) egingo diete erreferentzia, eta horien baitan eragile ezberdinen arteko lankidetzak sareak eta partaidetza politikak nabarmenduko lirateke. Helburu politiko ezberdinak topa litezke neurri multzo horien baitan: erakundeen eraginkortasuna hobetzetik, botere guneetatik kanpo dauden ahotsak integratzeko borondateraino (Blas eta Ibarra, 2006; Martínez-Palacios, 2015). Azken helburu horri dagokionez, komunitatea osatzen duten gizarte sektore baztertuei eta herri mugimenduei² protagonismoa berezia aitortu nahi izango zaie. Era horretan, alderdien ordezkartza politikoetatik harago doan gobernugintza edota gobernantza (Kooiman, 1993³) parte-hartzaile gisa ere definitu izan da. Usu bazterrean egon ohi diren subjektu eta kolektibitateak erdigunera ekarriz.

Bestalde, kontuan izan behar dugu ezkerreko alderdiak sarritan gobernura heltzen direla, gizarte mugimenduen edota herritarren protesta-ziklo baten ostean (Della Porta eta Diani, 2011; Tarrow, 1997). Horren erakusle dira, adibidez, 2003an Brasileko Langileen alderdiak⁴ osatutako gobernuak, Boliviako Sozialismo-

1 Ezkerra definitzeko, Norberto Bobbioaren lanean oinarritzen gara: «Derecha e izquierda no significa solo ideologías; reducirlas a la pura expresión de un pensamiento ideológico sería injusta simplificación, pues también indican programas contrapuestos respecto a muchos problemas cuya solución pertenece habitualmente a la acción política. (...) El carácter distintivo de la izquierda es el igualitarismo, se puede deducir que uno de los temas principales, sino el principal. Las descripciones utópicas de las sociedades ideales, que se mueven sobre una aspiración igualitaria, describen y a la vez prescriben, una sociedad colectivista.» (1995:136)

2 Ikerketa lan honetan, *herri mugimenduak* eta *gizarte mugimenduak* terminoak baliokide jo ditugu. Marko teorikoan jasotzen da kontzeptu honen definizioa. Dena dela, esan nahi dugu *Herri mugimenduak* Euskal Herrian mugimenduen aurka autodefinitzeko erabiltzen duten terminoa dela, eta horregatik kasu batzuetan, lehenengo adiera lehenetsi dugu *gizarte mugimenduen* ordez. Biek kontzeptu politiko berari egingo liokete erreferentzia.

3 Kooiman, J. (1993): *Modern governance*, Londres: Sage. Marko teorikoaren hirugarren atalean jorratzen dugu sakonago gobernantzaren kontzeptua, bere argi-ilunekin.

4 Emir Saderrek *Lula y Dilma diez años de gobiernos posneoliberales en Brasil* izenburu duen liburuan dioen moduan, «Los gobiernos progresistas latinoamericanos representan un fenómeno único a escala mundial y en América Latina. Fueron elegidos debido al fracaso de los gobiernos neoliberales y el rechazo popular mostrado contra ellos» (2014:9)

ra Mugimendua⁵ alderdiarena, 2006an; edota Greziako Syrizen⁶ kasua, 2015ean. Horietan guztietan, ekintza politikoaren partaidetzak eragina izan zuen gobernuen aldaketan. Ezkerreko indar politikoek hauteskundeak irabazi eta gobernura heltzen direnean, beraz, hainbat sektoreen aldetik itxaropen ugari sortzen dira, batik bat indar horietatik hurbil sentitzen diren herri mugimenduen eta herritarren artean. Izan ere, hainbat kasutan ezkerreko alderdiek gizarte mugimenduen aldarriekin bat egin ohi dute hauteskunde kanpainako programa definitzerako momentuan edota oposizioan dihardutenean. Baina zer gertatzen da ezkerreko indar politikoak —eraldaketa sozialaren edo demokratizazioaren alde kokatzen direnak— gobernura heltzen direnean? Nolako da bi aktore politiko horien arteko elkarrizketa? Gizarte mugimenduek azaleratzen dituzten defizit demokratikoak gobernu aldaketarekin batera landuz doaz, ala harremana aldatu egiten da? Nola uztartzen dira hauteskundeen aurretik hurbil kokatzen diren eragileen arteko jardunak agertoki politikoa aldatzen denean? 'Gobernu aurrerakoiek' (Machado eta Zibechi, 2016) gizarte mugimenduen lana baliatzen dute demokratizazioan sakontzeko eta instituzionalitate berriak sortzeko? Ala bien arteko urruntze bat suertatzen da? Nola artikulatzen da aktore horien arteko ekintza politikoa, ahalik eta praktika eraldatzaileena edo demokratizatzaileena izan dadin, eta aldi berean, herri mugimenduen logika desitxuratu gabe?

Posizio ezberdinak ageri dira bi eremu horien arteko balizko zubigintza lanaren inguruan: batetik, mugimenduen autonomiaren aldekoak ditugu, zeinak balizko lankidetzarekiko oso jarrera kritikoa azalduko duten (Machado eta Zibechi, 2016), Estatuaren logikak komunitatearena irensteko —kooptazioa, burokratizazioa, zatiketa eta bestelako joeren bitartez— dauden arriskuengatik; hortaz, posizio horren aldekoek eremu instituzionalaren joko-arauetatik kanpo kokatuko diren antolaketa ereduak lehenetsiko lituzkete. Bestetik, ordea, elkarlanaren premia azpimarratzen dutenak leudeke (Chávez, Rodríguez, Barret, 2008; Ibarra, Gomá eta Martí, 2002); erakundeen demokratizazioa parte-hartze politiken eta gobernantza sareen bitartez formulatuko dutena. Arestian aipatutako berrikuntza demokratikoak eragile ezberdinen arteko elkarlan sareen bidetik jorratu behar direla pentsatzen dutenak, alegia. Gizarte mugimenduen eta hurbileko indar politikoaren gobernugintzaren arteko bidegurutzean, beraz, ahots eta posizio ezberdinekin topo egiten dugu. Agerikoa da eztabaida ugari sortu dituztela ezkerreko gobernuen praktika instituzionalen eta herri mugimenduen arteko harremanek. Horixe da ikerketa-lan honetan hizpide izango dugun gai nagusia, batzuen eta besteen arteko harreman sarea aztertu nahi baitugu. 'Gobernu aurrerakoien' (Zibechi, 2011) lankidetzaren esparruen ezinak eta eginak aletu nahi ditugu tesi honen bitartez.

Eskuartearen duzun ikerketa lanaren atal enpirikoak, Euskal Herrian⁷ kokatzen den tokiko administrazioaren esperientzia bat du aztergai; Gipuzkoako Foru Aldundiarena, hain zuzen ere. 2011tik 2015era luzatuko zen

5 Luismi Uhartea eta Unai Vazquezek koordinatutako *Herri borrokei begirada analitikoak. Irabazitako hamarkada Latinoamerikan argitalpenean*, Gonzalo Gosálvez Sologurenek aztertzen du Boliviako kasua, eta autoreak halaxe deskribatzen du MAS alderdiaren garaipena: «En enero del año 2006, era posicionado como el primer Presidente Indígena de la historia de Bolivia Evo Morales Ayma, que había ganado las elecciones gracias a la estrategia que había construido desde la bases. MAS fue una instancia organizativa que surgía del seno de las organizaciones sociales, de los sindicatos, de los cocacoleros etc.» (Sologuren, 2015:204)

6 «Se ha de resaltar que la victoria ha sido el resultado de las duras luchas del movimiento contra las políticas de austeridad. Entre los años 2010 y 2012 Grecia atravesó más de treinta huelgas generales, tres de las cuales fueron de 48 horas de duración, así como ocupación de edificios públicos (entre ellos el Ministerio de Finanzas y el Ministerio del Interior), el movimiento de los indignados (Aganaktismenoi) con las ocupaciones de plazas, y el movimiento "yo no pago" (desobediencia masiva al pago de peajes en autopistas, etcétera).» (Martalis, 2015:39)

7 Euskal Herria aipatzerakoan, Harluxet Hiztegi Entziklopedikoaren definizioa kontutan eduki gugu: «Europako nazioa, Frantzia eta Espainiako Estatuetan banatua; 20.864 km² eta 2.920.123 biztanle (euskal herritarrak). Hiriburu historikoa: Iruñea. Zazpi probintzia edo lurralde historiko ditu: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Espainiako Estatuetan eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa Frantziakoan» <<http://www1.euskadi.net/harluxet>> (Kontsulta: 2018.06.03).

legegintzaldian, Bildu koalizioak⁸ herrialdeko gizarte eragileekin izan zuen harremana zein izan zen ikusiko dugu jarraian. Bereziki, berdintasun eta ingurumen politiken eremuan.

Amaitzeko, esan nahi dugu ikerketa ugari egin direla partaidetza mekanismo zein prozesuen inguruan (Espiau, Saillard eta Ajangiz, 2006; Ajangiz eta Blas, 2008; Martínez-Palacios, 2018), eta baita Euskal Herriko gizarte mugimenduen demokratizazio prozesuen eremuan (Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 1996; Zubiaga, 2007; Martínez eta Blas, 2008), baina kasu honetan, mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko hartu emanean sakontzen da; eragile ezberdinen kokapen eta elkarlanaren emergentzietan eta gabezietan jarriko dugu fokua.

8 Bildu koalizioaren lehenengo parte-hartze politikoa, 2011ko udal eta foru hauteskundeetan izan zen, Espainiako Auzitagi Nazionalak legezlatu ondoren. Orduan, koalizioa osatzen zuten alderdiak hauek dira: ilegalizatutako ezker aberatzea —edo gaur egungo Sortu—, Eusko Alkartasuna eta Alternatiba, gerora Aralar alderdia bat zitzaien.

1.2. Helburuak

Ikerketa lan honen helburu nagusia ezkerreko gobernuen eta herri mugimenduen arteko harremana aztertzea da, hau da, herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko elkarlana ahalbidetzeko partaide-tzarako espazioak zein gobernantza sareak eta beraien sakontasun demokratikoa xehetzea. Sakontasun demokratikoa⁹ diogunean, partaidetza eta lankidetzan oinarritutako gobernugintzaren eraldaketa sozialerako gaitasunari egiten diogu erreferentzia. Alegia, ea herritarrek zein gizarte mugimenduek erakunde publikoen erabakietan eta funtzionamenduan eragiteko ahalmena izan ote duten, zelai demokratikoa zabalduz. Beste era batera esanda, iragazkortasun demokratikoaz ari gara, komunitateak erakunde publikoen funtzionamendua baldintzatzeko duen gaitasunaz. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundian, Bildu koalizioak gidatutako legegintzaldiaren —2011etik 2015era—, esperientzia baliatu dugu kasuen analisirako; aurrerantzean, Berdintasuneko Zuzendaritzan eta Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Sailean zabaldu ziren lankidetzarako espazioak izango ditugu hizpide; finean, eremu horietan, erakundeen eta mugimenduen zein elkarleen arteko elkarriketarako espazioen demokratizaziorako aukerak edota ezintasunak aletzea izan da lan honen xede nagusia.

Jarrian, arestian aipatutako esperientzia zehatz horietatik abiatuta, hurrengo helburu zehatzak formulatu ditugu:

- 2011tik 2015era doan agintaldiaren hasieran, gizarte eragileek eta Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak eta Ingurumeneko eta Lurraldeko Antolaketa Sailak zituzten hasierako espektatibak, elkarren aitortza eta elkarlanerako irekitasun maila aztertzea. Aldaketa politikoa nola bizi izan zuten ere ikusi dugu; demokratizaziorako eta elkarlanerako aurrebaldintzak zeuden ala ez.
- Gipuzkoako Foru Aldundiako Berdintasun Zuzendaritzaren eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa Sailean baitan abian jarri ziren elkarlanerako espazioak deskribatu, eta sareen osaketa nola eman zen aztertzea; hau da, elkarlanerako mekanismoen sorrera nondik eta nola sortu ziren ikusi, nortzuk parte hartu zuten eta elkarlanerako prestutasuna aztertzea.
- Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuaren arteko lankidetzaren espazioen lanerako baldintzak eta horien sakontasun demokratikoa aztergai izango dugu. Partaideen arteko botere harremanak aztertu, eta gatazka zein aniztasuna kudeatzeko baliabideetan arreta jarriko dugu. Era berean, protagonismoen pertzepzioan —politikariak, teknikariak eta herri mugimenduetako kideak— oinarrituz, partaidetzarako espazioen indargune eta ahulguneak identifikatuko dira.
- Berdintasunaren eremuan zein Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa, abian jarri ziren gizarte eragileen partaidetzarako mekanismoek izan zituzten eraginak edo inpaktuak aztertuko ditugu bi eremutan: batetik, gizarte eragileen eremuan, eta, bigarrenik, erakundeen lan esparruan. Zehazki, gobernantza sarean parte hartu duten kideak erakundeen funtzionamendua baldintzatzeko gai izan diren ikusi nahi genuke.
- Azkenik, ezkerreko indar politikoen arteko gobernantza sareen sakontasun demokratikoa areagotzeko desafioak zeintzuk diren aztertuko dugu. Alegia, elkarlanaren erronka nagusiak identifikatu, instituzionalitateari dagokionez zein ekintza politikoaren esparruan.

9 Sakontasun demokratikoa neurtzeko erabili ditugun aldagaiak aurrerago zehazten ditugu. Marko teorikoaren 2.3.1. atalean.

1.3. Ikerketa galderak

Arestian aipatu ditugun ikerketa helburu horiek oinarri hartuta, gure atal enpirikoa ardaztu edota gidatu duten ikerketa galderak formulatu ditugu. Helburuetan jarraitu dugun ordenaren arabera multzokatu ditugu:

- 1. Nolakoa izan zen, 2011etik 2015era, Bildu koalizioaren eta gizarte eragileen arteko harremana, Berdintasun Zuzendaritzaren eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Sailin? Zer nolako sakontasun demokratikoa zuten orduan sortu ziren gobernantza sareek? Demokratizazitzailleak izan ziren aktore politiko horien arteko harremanak?**
2. 2011ko maiatzeko udal eta foru hauteskundeetan, Bilduk Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernu eskuratu zuenean, herri mugimenduen eta Bilduren arteko elkar aitortzarik bazegoen? Mugimenduen jokamoldea aldatu egin zen? Koalizioaren eta gizarte mugimenduen aldetik elkarlanerako borondateirik bazegoen? Finean, nola bizi izan zuten gobernu-aldaketa mugimenduetako kideek, teknikariek eta Bilduko arduradun politikoez?
3. Zeintzuk izan ziren herri mugimenduen partaidetzarako eta gobernantza sareetarako abian jarri ziren espazio eta lan baldintzak? Nondik eta nola sortu ziren? Mekanismoen izaera eta funtzioak elkarrekin adosteko aukera egon zen? Nortzuk ziren partaidetza instituzionalean jardun ziren gizarte eragileak?
4. Partaidetza eta lankidetzarako espazioen sakontze demokratikoa sustatu zutela esan daiteke? Espazio horien iragazkortasun demokratikoa handia zela esan daiteke? Hau da, herri mugimenduen eragiteko ahalmena areagotu egin zela? Nola kudeatu ziren botere harremanak eta elkarlan espazioetan sortutako gatazkak?
5. Zeintzuk izan ziren herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko lankidetzaren espazioen emaitzak? Elkarlanak eraginik izan al zuen administrazioaren logika burokratikoetan? Elkarlanerako espazioek ehundura soziala indartu edo ahuldu zuten? Partaidetza kultura indartu zela esan daiteke? Espazio horietan parte hartu dutenak gai izan dira erakundeen funtzionamendua baldintzatzeko eta eraldaketa prozesuen zerbitzura jartzeko? Gobernugintza irekiagoa eta komunitariagoa izan zen, bi eremuetan sortu ziren partaidetza politikorako dispositiboen bitartez?
6. Eta azkenik, aurrera begira, demokratizazio prozesuetan sakontzeko zeintzuk dira ezkerreko gobernuen eta herri mugimenduen arteko elkarlanaren desafioak? Zer nolako instituzionalitatea sortu beharko litzateke eta zein izan beharko litzateke herri mugimenduen funtzioa agertoki horietan? Eta herri mugimenduen partaidetza non eta zertan gauzatu behar da gobernu aurrekoia izan dadin?

1.4. Doktorego Tesiaren hezurdura

Doktorego tesi hau bost ataletan banatzen da. Lehenengo atalean, ikerketaren oinarria zehazten da. Bertan, gaiaren testuinguratze orokorrarekin batera, ikerlanaren helburu nagusiak eta zehatzak jaso ditugu; era berean, doktorego tesia bera ardaztu duten ikerketa galderak ere bildu dira.

Bigarren atala marko teorikoaren garapenari dagokio, eta bertan hiru kapitulu nagusi bereizten dira. Lehenbizikoan, herritarren partaidetza espazio publikoan ulertzeko pentsamendu eredu ezberdinak aztertzen dira; hau da, demokrazia eredu pentsamendu arautzaileen ikuspuntutik, herritarren eta erakundeen arteko harremana ulertzeko modu ezberdinak (Della Porta, 2017; Viejo, Martí-Costa, Parés, Resende eta Vilaregut, 2009; Held, 1987) daude. Eredu normatibo bakoitzaren bereizgarri nagusiak bildu ditugu, partaidetzari dagokionez. Hiru ikuspegi arautzaile jasotzen dira: ordezkartzazko demokrazia edo demokrazia liberala (Sartori, 1988), partaidetzazko demokrazia (Santos, 2005; Harnecker, 2011) eta, azkenik, demokrazia erradikala (Hardt y Negri, 2004). Horietan guztietan, gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko harremana nondik eta nola ezaugarritzen den ikusi eta nagusiki, bigarren ereduan sakondu dugu. Izan ere, eredu horretatik hurbilen baitago doktorego tesi honen atal enpirikoan jasotzen diren esperientziak. Bigarren kapituluak, herri mugimenduen, ezkerreko alderdien eta gobernuen praktika demokratizatzaileen inguruan jardun dugu, eta baita horien arteko harremanaz ere. Hiruen arteko hurbiltasunak eta urruntasunak izan ditugu hizpide. Eta bigarren atalaren hirugarren kapituluak, herri mugimenduak eta erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoak eta tresnak jorratzen dira. Nagusiki sare gobernantza eta partaidetza instituzionalaren xehetasunak aletu ditugu bertan. Lankidetzaren espazioen sakontasun demokratikoa neurtzeko baliabide ezberdinak ere aipatzen dira. Atal enpirikoan darabiltzagun tresnak deskribatu ditugu. Izan ere, horien bitartez, partaidetzarako mekanismoen kalitatea neurtu nahi izan dugu, edo beste era batera esanda, partaidetza politiken dimentsio eraldatzailea zertan den ikusi.

Bestalde, hirugarren atalean, ikerketa lan honen azalpen metodologikoa aurkezten da. Aztergaiaren kokapenarekin batera, erabilitako teknika eta tresnen deskribapena egin dugu. Landa lanaren nondik eta norakoak ere bertan topa daitezke.

Laugarren atala doktorego tesi honen atal enpirikoari dagokio. Gipuzkoako Foru Aldundiko bi kasuen —Berdintasun Zuzendaritza eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Saila— deskribapena eta analisia egiten da. Sakoneko elkarrizketen eta dokumentazio lanaren analisisien bitartez, Bilduren legegintzaldiko gobernantza sareak xehatu ditugu, horien sakontasun demokratikoa neurtuz, eta elkarlan dinamikaren ezinak eta eginak bistaratu.

Azkenik, bosgarrenean, ikerketaren ondorioak azaltzen dira. Beraz, tesiaren egitura ondorengo irudian jasotzen da.

1. taula: **Doktorego tesiaren hezurdura**

I	<p>Sarrera</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikerketaren kokapena • Helburuak eta ikerketa galderak
II	<p>Marko teorikoa: Gizarte mugimenduen partaidetza ezkerreko alderdien gobernuetan</p> <p>2.1. Partaidetza eta gizarte zibilaren zein erakundeen arteko harremana demokraziaren pentsamendu arautzaileen arabera</p> <p>2.2. Aktore politikoen arteko harremana, demokratizazio prozesuetan</p> <p>2.3. Instituzioen eta herri mugimenduen arteko lankidetzak esparruak: gobernantza sarea eta partaidetzarako tresnak</p>
III	<p>Diseinu metodologikoa</p> <p>3.1. Ikerketarako teknikak</p> <p>3.2. Landa lanaren diseinua</p>
IV	<p>Analisi enpirikoa</p> <p>4.1. Gipuzkoari begiratu bat</p> <p>4.2. Herri mugimenduak eta parte hartzearen kultura</p> <p>4.3. Ezkerreko koalizioa gobernuan</p> <p>4.4. Berdintasun zuzendaritzaren gobernantza sarearen ezinak eta eginak</p> <p>4.5. Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako departamentuaren gobernantza sarearen ezinak eta eginak</p>
V	<p>Ondorioak</p>

Iturria: Egileak berak egin

2. Marko teorikoa

Hiru dira tesi honen atal teoriko nagusiak: batetik, sarrera gisa, demokrazia ereduaren pentsamendu arautzaileetatik abiatu duguna, herritarren edota komunitatearen eta erakundeen¹⁰ arteko harremana ulertzeko dauden eredu nagusiak azaltzeko, eta era berean, egungo gobernagarritasun krisiari aurre egiteko formulatzen diren igarobide ezberdinetan sakontzeko. Bigarren atala, demokratizaziorako bide orrien subjektuen edo eragileen ezaugarritzean datza, alegia, herri mugimenduen, ezkerreko alderdi eta gobernuen bereizgarri nagusiak eta elkarrekiko dituzten posizioak aztertzen dira, horietako bakoitzaren bereizgarri nagusietan sakonduz. Azkenik, hirugarren atalean, herri mugimendu zein herritarren eta erakundeen arteko harremana ahalbidetzen duten mekanismoak aztertu ditugu, sare gobernantza eta partaidetza instituzionalean sakonduz.

¹⁰ Marko teorikoan erakundeak orohar jorratzen dira, baina oin-ohar honen bitartez, azpimarratu nahi dugu gure ikergaiaren soilik ezkerreko gobernuak zuzendutako instituzionalitateak izan ditugula aztergai.

2.1. Herritarren eta erakunde publikoen arteko harremana demokraziaren pentsamendu arautzaileen begietatik

2.1.1. Demokraziaren pentsamendu arautzaileak

Arestian esan bezala, ikerlan honen xedea ekintza kolektiboaren aktore politikoen eta ezkerreko gobernuen arteko harremanen analisisian datza, hau da, ezkerreko alderdiek gobernatzen duten testuinguruetan, ekintza kolektiborako sare kritikoaren eragina eta partaidetza aztertuko ditugu, gobernuen erabaki prozesuetan eta politika publikoen diseinuan. Dena den, eremu horretan sakondu aurretik, ezinbestekotzat jo dugu begirada zabaltzea, demokrazia eta partaidetza ez baitira adiera bakarreko kontzeptuak; aldatuz doaz korronteen arabera. Demokrazien pentsamendu arautzaileen ikuspegitik, herritarren eta erakundeen arteko harremana ulertzeko moduak ezberdinak izango dira; alegia, erabakitze prozesuak eta herritar antolatuen zein ez antolatuen partaidetza politikoa era ezberdinean definituko da. Beste hitz batzuekin esanda, aktore politiko batzuen eta besteen arteko distantzia eta elkarreragina handiagoa edo txikiagoa izango da begirada bakoitzaren arabera.

Era berean, zaila da demokrazia garaikideen argi-ilunetara hurbiltzea, jatorria aztertzen ez badugu. Ereduen oinarrian dauden pentsamendu politikoei lagun gaitzakete eztabaida kokatzen (Held, 1987; Ibarra, 2011; Sousa, 2005; Chávez, 2008; Harnecker, 2013; Della Porta, 2017), eta egungo demokrazien krisiaren faktoreak hobeto identifikatzen eta aztertzen. Diseinu instituzionala eta komunitatearen antolaketa sozial eta politikoa erabat ezberdina izango da, pentsamendu arautzaile bakoitzaren arabera. Hortaz, aletu ditzagun lehenik demokraziaren sorreran ezberdintzen diren balio eta arau sistemak, eta horietako bakoitzak herritar eta erakundeen arteko harremana antolatzeko duen ikuspegia.

Demokraziaren oinarritzko pentsamendu politikoei dagokienez, Viejo, Martí-Costa, Parés, Resede eta Vilaregut-en (2009) esanetan, hiru ikuspegi teoriko arautzaile ezberdinak daitezke. Hiru begirada, hiru pentsamendu politikoen korronteeetatik eraikiak izan direnak: liberalismoa, errepublikanismoa eta autonomia. Horietatik guztietatik eratortzen dira gaur egun ezagutzen ditugun demokrazia eredu ezberdinak. Pentsamendu bakoitzaren ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu, jarraian; eta azpimarra berezia egingo dugu, horietako bakoitzak herritar eta instituzioen arteko harremanaz diotenari, eta baita ere, esfera publikoan, partaidetza politikoa iragotzen dioten esanahi edota funtzioari.

Pentsamendu bakoitzean sakondu aurretik, aipatu nahi genuke horietako bakoitza ikuspegi androzentriko batetik eraikia izan dela, eta berrikusketa teoriko azkar honetan, genero ikuspegia txertatzen saiatu gara. Hurrengo korronte arautzaileak eremu publiko eta pribatuaren banaketan oinarritzen dira, eta eremu publikoa ardatz hartuta eraiki izan direla. Patemanek (1995) dioen moduan, demokraziaren pentsamendu arautzaileak, neutraltasun eta unibertsaltasun faltsu batean eraiki dira, eremu pribatu eta publikoaren arteko harremana ikusezin bihurtuz. Halaber, demokrazien jatorrian dagoen kontratua ez dela Jean-Jacques Rosseauk izendatu zuen kontratu soziala; aurretiazko beste kontratu batean oinarritzen dela dio egileak, kontratu sexuarean, alegia, zeina emakumeen zapalkuntzan oinarrituko den. Honela dio autoreak:

«El contrato social es una historia de libertad, el contrato sexual es una historia de sujeción. El contrato original constituye, a la vez, la libertad y la dominación. La libertad de los varones y la sujeción de las mujeres se crea a través del contrato

original, y el carácter de la libertad civil no se puede entender sin la mitad despreciada de la historia la cual revela cómo el derecho patriarcal de los hombres sobre las mujeres se establece a partir del contrato. La libertad civil no es universal. La libertad civil es un atributo masculino y depende del derecho patriarcal» (Pateman, 1995).

Ezinbestean aipatu behar ditugu, teoria politika feministaren baitan, demokrazia erduei egin zaizkion berrikusketa kritikoak, aurrerago ikusiko dugun moduan. Jarraian, jorratuko ditugun ikuspegi arautzaileetan, hainbatetan emakume eta gizonen arteko ezberdintasun sozialak auzitan jarriko dira; besteetan, ordea, sexu generoaren dominazio sistema ez da ezbaian jarriko. Edonola ere, genero zapalkuntzarekin zein klase edota arrazarekin lotutako egiturazko ezberdintasunak aintzat hartzeko ahalegin teoriko ezberdinak egin dira, korrante bakoitzaren baitan. Ez dugu elkarriketa teoriko horietan gehiegi sakonduko, ez baita ikerketa honen lerro nagusia. Halere, irakurketa ezberdin horien aipamena egin eta horien garrantzia azpimarratu nahi genuke.

Ikuspegi liberala litzateke egungo gizartean nagusi den demokrazia ereduaren jatorrian dagoen pentsamendua. Kasu honetan, gizabanakoa Estatu bakoitzaren lehenago egongo litzateke, eta bi horien arteko banaketa zurruna izan behar dela azpimarratzen du ikuspegi liberalak. Horren arabera, askatasunak ardatzuko du Estatuaren zeregina, gizarte zibilaren aurrean; askatasuna eragile politiko batek bestearengan ez eragitean datza, pentsamendu liberalaren esanetan:

«La situación en la cual un sujeto tiene la posibilidad de obrar, sin ser obligado a ello o sin que se lo impidan otros sujetos» (Bobbio; 1993:97).

Horrekin batera, Estatuak ahalik eta gutxien parte hartu beharko luke bizitza sozialean, eskubide eta askatasun indibidual horien mesedetan. Estatuaren botereen zeregina litzateke herritarren bizitza, jabetza, askatasuna eta osasuna babestea (Larrinaga eta Barcena, 2004:54). Beraz, pentsamendu liberalarentzat demokraziak funtzio zehatza izango du, norbanakoaren askatasunaren defentsa. «Askatasun negatiboa»-ren ideiak egituratuko du pentsamendu politiko liberala, eta indibidualismo posesiboaren korrontean oinarrituko da; Bobbiok dioen moduan (2008), liberalismoa ideia mugimendu bat da, eta bertan hainbat autore topatuko ditugu, besteak beste Lokce, Montesquie, Adam Smith, John Stuart Mill, Tocqueville. Autore batetik bestera doktrina liberala azaltzeko modua aldatu arren, funtsezko bi alderdi dituela dio italiarrak: batetik, alderdi ekonomikoa eta, bigarrenik, politikoa. Izan ere, liberalismoa, teoria ekonomikoa den neurrian, merkatu ekonomiaren alde azalduko da, eta ondorioz, Estatuak ahalik eta gutxien gobernatzean datza. Pentsamendu horren esanetan, jabetzadun gizabanakoa edota *homo economicus*-a litzateke ikuspegiaren ardatz nagusia, eta gizabanakoen arteko harremanak meritokrazian eta merkatuak banatuko litzatekeen baliabideen arabera arautuko lirateke. Liberalen ahalegina gizarte zibila esku-hartze politiko-tik askatzean datza, eta era berean, Estatuaren autoritatea mugatzen saiatuko dira. Horrela jasotzen du David Held soziologo britainarrak demokrazia ereduak aztergai dituen lanean:

«El liberalismo se asoció a la doctrina según la cual los individuos deben ser libres de seguir sus propias preferencias en los asuntos religiosos, económicos, y políticos —de hecho, en todo a lo que afecta a la vida cotidiana—». (Held, 1987:58).

Pentsamendu liberalak Estatu tresna gisa irudikatzen du gizabanakoaren eskubide eta askatasunak bermatzeko. Estatuaren botere subiranoaren bitartez, kontratu sozialean oinarrituz, gizabanakoaren boron-

date askea baldintzatuko da, ordenu publikoaren mesederako. Halere, agertoki idealenean, Estatuaren esku-hartzea ahalik eta txikiena izan beharko litzateke, eta ez luke inondik inora eragin edo parte hartu behar herritarren eremu pribatuan.

Bestalde, arestian aipatu bezala, kontratu sozialaren aitzindariak askatasuna eta berdintasuna eskubide natural gisa proposatu zutenean, ikuspegi baztertzailak batetik abiatu ziren. Izan ere, emakumeak, txiroak eta beltzak eskubide horietatik at zeuden. Jatorrian pentsalari hauen ekarpenak planteamendu unibertsalistak izan arren, zehaztasun politikoetan baztertzailak izan zirela diote pentsamendu politiko liberalaren berrikusketa kritikoan diharduten pentsalari feministek (Pateman, 1995, 1970; Phillips, 1996; Valcarcel, 2008), askatasun eskubideak soilik jabetzadun gizonezko heterosexual eta zurientzako aldarrikatzen baitzituzten, eta politikaren esanahia zabaldu nahi izango dute, ordezkaritza politikoan oinarritzen diren definizio hertsia alboratuz.

Pentsamendu liberalaren arabera, Estatuaren eta gizarte zibilaren zein herritarren arteko harremana erabat instrumentala izango da:

«La relación del individuo liberal con la institución no responde a la relación de nuevos valores particulares de la segunda, sino que es básicamente instrumental del primero» (Viejo, R. et al. 2009:32).

Soilik herritarren eskubideak eta askatasuna zalantzan jartzen direnean esku-hartu beharko luke Estatuak. Esan dezakegu, beraz, ikuspegi honek ordezkaritza politikoa lehenetsiko duela parte-hartze politikoaren aurrean (Held, 1987). Alegia, Estatuak eta gizarte bereizi nahi izango dira, ordezkaritza politikoa bitartez. Ordezkaritza politikoa interes orokorraren defentsan jardungo dira, eta herritarrek, aldiz, rol pasiboa izango lukete esfera publikoan. Viejo et al. -ek (2009) era honetan laburtzen dute, pentsamendu liberalaren begietatik, eremu publikoan herritarren parte-hartzea arautzeko modua:

2. taula: **Herritarren parte-hartzea eremu publikoan, ikuspegi liberaletik**

Herritarren arteko harremanaren erregulazioa	Herritarrek euren oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzen dituzten bitartean, herritarren arteko harremana era askean antolatu ahal izango da. Eta beraz, Estatuak soilik esku hartu beharko luke herritarren arteko interes talka ematen denean, eta euren oinarrizko eskubide eta askatasunak ezbaian jartzen direnean.
Erakunde publikoen arteko harremanaren erregulazioa	Herritarrek euren artean antolatzea erabakitzen badute, prozedurazko arau ez demokratikoen baitan, eta erakunde gisa demokrazia liberala onartzen badute, Estatuak ez luke eragotzi beharko. Beraz, pentsamendu liberalak erakunde neofaxistak onar ditzake. Ilegalizazioa aurreikusten da, soilik erakunde horien helburua herritarren oinarrizko eskubide eta askatasunen kontra dihardunean.
Herritarren eta erakunde publikoen arteko harremanaren erregulazioa	Herritarren eta erakundearen arteko harremana, aldiz, erabat instrumentala izango litzateke. Oraingoan ere, erakunde batek herritarren oinarrizko eskubide eta askatasunak zalantzan jartzen dituenean bakarrik esku hartuko du Estatuak, eskubide eta askatasunak betearazteko. Eta erakundeak herritarren oinarrizko eskubide zein askatasuna zalantzan jartzen ez duenean, Estatuak erakunde horren jarduera onetsi beharko du.

Iturria: Egileak berak egina Viejo et al. (2009:32) oinarri hartuta

Pentsamendu liberalarekin amaitzeko, aipatu nahi dugu gizarte zibilaren eta erakunde publikoen arteko harreman instrumentalak bidea zabalduko diola merkatu-ekonomiaren beharrei; bereziki kontuan izanik Estatu liberalen zeregin nagusia dela jabetza bermatzea eta merkatuaren funtzionamendua eragotz lezaketen trabak ezabatzea (Larrinaga, 2004:56). Finean, beraz, pentsamendu liberalen Estatu formek produktio modu kapitalistaren egitura politiko bilakatuko dira.

Bestalde, eztabaidagai dugun bigarren pentsamendu arautzailea, ikuspegi neoerrepublikarra litzateke. Besteak beste, Ciceronek, Maquiavelok eta Rousseauk ezaugarritutako pentsamendua; pentsalariok Estatuaren eta herritarraren arteko botere oreka bilatzen saiatuko dira, eta zenbait konstituzio garaikidetan begirada honen eragina nabaria dela diote (Held, 1987). Ezaguna da Philip Pettitek (1999) edota Quentin Skinnerrek (1995) tradizio errepublikarra gaurkotzeko egindako lana. Hori dela eta, bigarren begirada hau neoerrepublikar gisa izendatzen da. Korronte honetan, liberalismoaren antzera, askatasunaren ideia gailenduko da, baina esanahi erabat ezberdina izango du oraingoan. Lehenengoan, esku-hartze ezarekin lotzen den bitartean, neoerrepublikanismoan askatasuna dominazio ezarekin lotuko da. Eta hortik dator kio «askatasun positiboaren» adiera. Izan ere, herritarrak parte-hartze politikorako eta komunikaziorako eskubidea duten subjektuak lirateke.

Hortaz, liberalismoa ez bezala, neoerrepublikanismoa Estatuaren esku-hartzearen alde lerrokatuko da, horrek bermatuko baitu, sustatzaileen esanetan, askatasun errepublikarra deitu izan zaiona. Alegia, neoerrepublikarren aburuz, esku-hartzea ezinbestekoa da zapalkuntza edo dominazioa saihestu nahi bada.

Bigarren pentsamendu korronte honen aitzindariantzat ere, parte-hartze politikoaren subjektuak posizio ekonomiko ertain eta altuko gizonezko zuri eta heterosexualak izango dira. Feminismoetatik, oraingo honetan ere, kritika ugari egin dizkiote pentsamendu neoerrepublikarrari, bereziki interes unibertsalari ematen dion garrantziagatik, eta publiko zein pribatuaren arteko banaketari jarritako arretari. Begirada zapaltzaile horren aurrean, Mary Wollstoncraftek ezbaian jarriko du, Rousseauaren hiritartasunaren begirada, *Emakumeen Eskubideen Aldarria* (1792) izenburu duen lanaren bitartez:

«Se han esgrimido infinidad de argumentos ingeniosos para explicar y excusar la tiranía del hombre y demostrar que los dos sexos, en su búsqueda de la virtud, deben tender a formarse una personalidad totalmente diferente, o más explícitamente, a las mujeres no se les concede fuerza suficiente para adquirir eso que merece recibir el nombre de virtud (...) a las mujeres se les dice desde su infancia, y el ejemplo de su madre lo refrenda, que para conquistar la protección de un hombre no necesitan más que un cierto conocimiento de la debilidad, en otras palabras: astucia y un temperamento dócil, una aparente obediencia y un cuidado meticuloso en adoptar un comportamiento pueril. Y además, ser hermosas, todo lo demás sobra, al menos veinte años de su vida». (Wollstoncraft, 1792: 198)

«Si se pretende que el mundo quede libre de la tiranía, no solo debe cuestionarse el derecho divino de los reyes, sino también el derecho divino de los maridos». (aipatua Held, 1987:104)

Ilustrazio garaian gorpuztu ziren askatasun, berdintasun eta anaitasunaren printzipioei kritika zorrotza egin zien Wollstoncraftek, hiritartasunaren ideia auzitan jarritz.

Herritar eta erakundeen arteko joan-etorriari dagokionez, liberalismoan ez bezala, neoerrepublikanismoaren kasuan, erakundeak ez dira mugatuko ordenamendu konstituzional demokratikoa aplikatzera. Pentsamendu honen aburuz, instituzioen baitan dominazio harremanak suertatzen diren kasu guztietan, Estatu errepublikarrak esku-hartu beharko luke eskubide urraketan aurrean, eta horretarako, Estatuaren legitimitatea aitortuko dute politika publikoen eraketan eta bereziki askatasunaren defentsan. Honenbestez, herritarren jokamoldeak Estatuak arautu eta kontrolatuko dituzte, eta erakunde publikoek nahi beste esku har lezaketek, baldin eta askatasun errepublikarra auzitan balego. Era berean, prozedura demokratikoaren beharra formulatuko da dominazioa saihesteko, eta prozesu legegilearen bitartez, demokraziak arazoaren eta soluziobideen definizio publikoa zehaztuko du. Prozesu horretan, deliberaziorako, partaide-tzarako eta erabakiak hartzeko mekanismoak eskainiko dira zapalkuntza eta ezberdintasun sozialak eragiten dituzten egoerak identifikatzeko eta soluziobideak eskaintzeko (Viejo et al. 2009:36). Igarobide horietan, Habermasek (2005) dioen moduan, parte-hartze politikoak eta herritarren elkarrizketak erdigunean egongo lirateke:

«La jurisdicción de la existencia del Estado garantiza un proceso inclusivo de formación de la opinión y la voluntad política, en el que ciudadanos libres e iguales se entienden acerca de qué fines y normas redundan en interés común de todos. Con eso a los ciudadanos republicanos parece estárseles pidiendo bastante más que una mera orientación por sus intereses privados» (Habermas, 2005:3)

Hortaz, neoerrepublikanismoak prozedura demokratikoa lehenetsiko du, eta bien arteko lotura ezinbestekoa bilakatuko da. Herritarren arteko gatazkak prozedura demokratikoen bitartez bideratu beharko liratekeela diote, eta askatasunaren bermea litzateke demokrazia.

Bigarren pentsamendu arautzailearekin amaitzeko, neoerrepublikanismoak era honetan ulertuko du, herritarren arteko, erakundeen arteko eta herritar zein erakundeen arteko harremana:

3. taula: **Herritarren parte-hartzea eremu publikoan, ikuspegi neoerrepublikarretik**

Herritarren arteko harremanaren erregulazioa:	Askatasun neoerrepublikarraren esanahia aintzat hartuz, herritarren arteko harremanak zapalkuntzarik gabeko harremana behar luke izan. Kontrako kasua emango balitz, askatasuna berrosatzen lagunduko duen esku-hartzea baimenduko litzateke. Estatuari dagokio botere harreman horren neurketa.
Erakunde publikoen arteko harremanaren erregulazioa:	Gerta liteke erakundeen arteko zapalkuntza egoera. Kasu honetan ere, aurrez aipatu bezala, neoerrepublikanismoaren aburuz, Estatuak erakundeen arteko harremanean bitartekari gisa jardun beharko luke, askatasunaren defentsan.
Herritarren eta erakunde publikoen arteko harremanaren erregulazioa:	Herritar eta erakundeen arteko harremanei dagokionez, liberalismoak ez bezala, neoerrepublikanismoak dio erakunde guztiak ez direla onargarriak izango, eta, beraz, erakunde baten baitan zapalkuntza harremanak atzematen badira Estatuak esku hartzeko ardura izango luke.

Iturria: Egileak berak egina Viejo et al. (2009:36) oinarri hartuta

Begirada autonomoa litzateke aipatzeko dugun hirugarren ikuspegia. Aurreko bien zenbait aspektu barnebiltzen dituena, baita marxismo eta giza anarkismoarenak ere. Korrante honen pentsalari ezagunen artean

ditugu Rosa Luxemburgo, Emma Goldman, Nicolas Maquiavelo, Mijail Bakunin edota Karl Marx. Ikuspegi gaurkotuago batekin ditugu, aldiz, Zibechi (2007), Hardt eta Negri (2004) eta Gutierrez (2016). Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko banaketa ezberdinduko ditu korronte autonomoak, liberalismoarekin bat eginaz. Autonomiaren korronteak neoerrepublikanistotik menderakuntzarik gabeko askatasunaren kontzeptua hartuko du maileguan, eta, era berean, burujabe izatea ikusmolde horren gakotzat hartzen da.

Askatasun liberalari kontrajarriz, pentsamendu autonomoaren aldekoek Estaturik gabeko askatasunaren alde lerrotatuko dira, Estatu askatasunik gabeko espazio gisa definituko baitute, eta gizarte zibila, aldiz, askatasunean oinarritu beharko litzatekeen eremua. Hori dela eta, Estaturik gabeko gizartea posible dela diote.

Autonomiaren ikuspegiak dio askatasuna soilik lor daitekeela bere aldeko borroka antagoniko baten baitan. Orobat, demokrazia eta autonomiaren arteko harremana erabatekoa litzateke. Demokrazia zuzenaren bitartez, herritarrak Estatuaren bitartekaritzarik gabe erabakitzeke gai direla azpimarratuko dute, eta gatazka, beste bi korronteetan ez bezala, gizartearen berezko ezaugarri gisa definituko dute. Laclairen eta Mouffe (2001) esanetan, demokrazia gatazken prozesu amaigabea datza. Eremu publikoa soilik herritarren partaidetza ematen den kasuetan gorputzuko da, zeinetan arazoak identifikatzeko eta soluziobi-deak adosteko gai izango diren.

«Dado que la sociedad civil dispone de la capacidad para decidir sus propias normas y gestionar sus propios conflictos sin la mediación del Estado como “tercero entre iguales” la democracia directa, esto es, aquella en la que el demos no encuentra mediación alguna en la toma de decisiones, sería el procedimiento mediante el cual se podrían resolver todos los contenciosos». (Viejo et al., 2009:37)

Azken perspektiba honen arabera, erakundeak herritarren eskaeren zerbitzura egon beharko liriteke; hala ez balitz, ez ginateke erakunde baten aurrean egongo, dominazio egoera baten aurrean baizik, eta, ondorioz, kasu horretan, instituzioen zeregina egiturazko harreman zapaltzaileen aurka aritzea litzateke.

4. taula: **Herritarren parte-hartzea eremu publikoan, ikuspegi autonomotik**

Herritarren arteko harremanaren erregulazioa:	Gizartean ematen diren botere harremanak zein gatazkak ez badira prozedura demokratikoen bitartez bideratzen zapalkuntza egoerak sorraziko dituzte. Legeak berdintasun juridikoa garatu dezake, baina soluziobideak adostasuna eta aitortza eskatzen ditu gatazkaren parte direnen aldetik.
Erakunde publikoen arteko harremanaren erregulazioa:	Erakundeen arteko balizko gatazken kudeaketarako ez litzateke Estatuaren bitartekaritzarik behar. Kasu honetan ere, elkarren aitortza eta adostasuna ezinbestekoak liriteke.
Herritarren eta erakunde publikoen arteko harremanaren erregulazioa:	Autonomiaren ikuspegitik, erakundea osatzen duten kideen aspirazioa errespetatzen ez denean, zapalkuntza ematen da. Dominazio egoera baten aurrean, erakunde autonomoen zeregina litzateke botere egiturekin gatazkan sartzea.

Iturria: Egileak berak egina Viejo et al. (2009:38) oinarri hartuta

Laburbilduz, hiru pentsamendu arautzaile hauen errepasoarekin ikusi ahal izan dugu, nola eredu batetik bestera herritar eta erakunde instituzionalen arteko harremana ulertzeko eta antolatzeke modua erabat

ezberdina den. Begirada bakoitzaren arabera, herritarren partaidetza politikoak protagonismo maila ezberdina izango du. Pentsamendu horietako bakoitzak bide emango dio, beraz, gaur egun ezagutzen ditugun demokrazia eredu ezberdinei, hurrengo atalean sakonago azalduko ditugunak. Gaur egun, pentsamendu liberala nagusi den arren, arestian aipatutako hiru ikuspegietatik gehien interesatzen zaiguna bigarrena da, horixe baita herritar eta erakunde publikoen arteko elkarlan dinamiketan gehien sakonduko duena.

1. Irudia: **Demokrazia eredu**en pentsamendu arautzaileak



Iturria: Egileak berak egina

Atal honetan aztertu ditugun pentsamendu arautzaileak, ikusi dugun moduan, abiapuntu zeharo ezberdina dute. Aktore politikoaren arteko harremanak modu ezberdin batean ulertu eta definituko dituzte. Erabaki politikoak hartzeko oinarrian dagoen ikuskera horretatik abiatuko dira jarraian aztertuko ditugun demokrazia ereduak.

2.1.2. **Pentsamendu arautzaileetatik demokrazia eredu**en praktiketara

Aurrez aipatutako pentsamendu arautzaile horien baitan eraikiko dira Europan, k.a. V. mendeko Atenasetik gaurdaino ezagutu diren demokrazi eredu ezberdinak, era askotara sailkatuak eta aztertuak izan direnak (Held, 1987; Pateman, 1995; Lijphart, 2000; Sartori, 1988; Bobbio, 2008); kasu batzuetan, teoria eta praxiaren arteko aldea nabarmenduko dute, eta norabide horretan jorratu dugu, hain zuzen ere, hurrengo atala; hau da, teorikoki formulatzen diren planteamenduak bainoago, gaur egungo praktika demokratiakoetatik abiatzen diren hainbat gogoeta edota kezka izango ditugu mintzagai. Ondoren, gure ikergaia-

rekin lotuta, herritarren eta erakundeen arteko hurbiltasun eta urruntasunaz diharduten eztabaidetan jarri dugu fokua. Oraingoan, hortaz, pentsamendu arautzaileetatik demokrazia ereduen praktiketara salto egin dugu, eta horretarako, oraingoan ere, Viejo et al.-ek (2005) proposatzen duten sailkapen eredia izan dugu oinarri.

Ondoren deskribatzera goazen demokrazia ereduen gaineko eztabaidak aurreko atalean aipatutako hiru pentsamenduen arabera multzokatu ditugu: batetik, demokrazia ordezkatzaille eta liberala; bigarrenik, demokrazia parte-hartzailea¹¹ —demokrazia deliberatzailea, harreman demokrazia, demokrazia feminista eta zuzena barnebiltzen dira bigarren honetan— eta, azkenik, demokrazia erradikala edo autonomian oinarritutako korrontea.

2.1.2.1. Demokrazia liberala: ordezkari-tza helburu duen partaidetza

Lehenik eta behin, pentsamendu liberaletik eratortzen den ordezkari-tzazko demokrazia edo demokrazia liberala aipatuko dugu; Bobbiok (2008) halaxe definitzen du: erkidego osoari dagozkion erabakiak berariaz aukeratu diren hainbat pertsonak hartuko dituzte, erkidego osoko kideen ordezkari. Eredu honek herritarren askatasun eskubideak¹² babestu nahi izango ditu. Oinarriko printzipioa herri subirautea litzateke (Held, 1991; Sartori, 1987), gobernuaren eta ordezkarien legitimazioan oinarritutako dena; hau da, gobernuko ordezkariak herritarren onarpena behar dute erakunde publikoetan jarduteko, eta horregatik antolatzen dira hauteskundeak. Erabakiak hartzeko moduari dagokionez, kasu honetan, gehiengoaren araua da funtsezko araua, halaxe nabarmentzen du Bobbiok: «erabakitzeko ardura dutenetik gehienek behintzat onartzen dituzten erabakiak dira erabaki kolektibotzat, eta, beraz, talde osoarentzat bete beharrekotzat hartzen direnak» (2008:29). Hauteskunde lehiakor eta aldi behingoen bitartez, herritarrek ordezkari politikoak baztertu edo babestuko litzuzkete, komunikabide edota bestelako iturrietatik jasoko duten informazio libre eta independenteari esker. Hauteskundeak ordezkari-tzazko demokrazien ardatz garrantzitsu bilakatzen dira. Berme nagusia hau litzateke, beraz, herritar orok modu askean parte hartzeko aukera izatea, eta era berean, hauteskunde lehiakor, justu eta maiztasun batekin errepikatzen direnak:

«Un sistema representativo no puede existir sin elecciones periódicas adecuadas al fin de hacer responsables a los gobernantes respecto a los gobernados (...) un sistema político se califica como representativo cuando prácticas electorales honestas aseguran un grado razonable de consonancia entre gobernantes y gobernados (Sartori, 1990:230, aipatua Della Porta, 2017:22)

Korronte honen baitan kokatzen diren zenbait autorek (Sartori, 1962; Schumpeter, 1966; Dahl, 1993) diote herritarren partaidetza politiko handiak sistemaren hondamendia lekarkeela, herritarren gehiegizko eskaerengatik, eta horrek ezegonkortasuna eta arauen gaineko adostasuna zalantzan jarriko lukeela. Beraz, ikuspegi horren arabera, herritarrek ez dute parte hartu behar erabaki politiko instituzionaletan, ez baitute denbora eta ezagutza nahikorik horretarako. Ordezkari-tzazko demokraziaren alde dihardutenentzako, hortaz, gobernu eliteek gidatu behar dute, eta euren arteko lehiak bermatuko luke ordezkari egokiaren aukeraketa. Era berean, herritarren partaidetza soilik mugatuko da hauteskundeetara eta alderdi politiko edota elkarte zibilen eremura. Alderdiek funtzio erabakigarria izango lukete kasu honetan, mobilizazioa-

11 Pentsamendu neoerrepublikarren oinarri duena.

12 «La libertad para el liberalismo es siempre una libertad negativa (libertad como no interferencia) Por libertad negativa se entiende, en el lenguaje político, la situación en la cual un sujeto tiene la posibilidad de obrar o de no obrar, sin ser obligado a ello o sin que se lo impidan otros sujetos.»(Bobbio, 1993: 52)

ko eta gizabidezko kulturaren sustatzaile nagusi modura. Finean, ez da herritarren inplikazioa sustatuko eremu politikoan, hauteskundeetatik harago.

Nolanahi ere, eredu teorikoak alde batera utzita, demokrazia sistema horrek Europako mendebaldeko kultura politikoetan legitimazio sozial (Montero y Morlino, 1993:29) handia izan du orain arte. Azken hamarkadetan, ordea, ordezkartzeko demokraziaren zilegitasuna geroz eta txikiagoa da. Planteamendu teorikoetatik urrun egon direla esan daiteke sorreratik gaur arte, Subiratsek gogorarazten digun moduan:

«El sector de excluidos políticos crece, porque crecen las situaciones de exclusión social (que conllevan la reducción del ejercicio de ciudadanía), y porque crece la sensación de inutilidad del ejercicio democrático-institucional en esa “democracia de baja intensidad”». (Subirats, 2005:4)

Ibarrak ere dio (2011:24), norabide beretik jarraituz, gobernu eliteen gidaritzapean dagoen bitartean, herritarren inplikazioa soilik mugatzen dela hauteskunderen eta alderdi zein elkarteetan partaidetzara. Erabaki politikoak, geroz eta modu nabarmenago batean, irizpide teknikoaren baldintzapean leudeke, herritarren nahietatik urrunduz, eta agenda politikoa desitxuratuz. Kezka nagusia hortik dator, herritarren eta erakunderen arteko harremana geroz eta makurragoa dela; ez hori bakarrik, erabakietatik urrun egoteaz gain, horien gaineko kritikak eta kontrolak zaildu edota zigortu egin dira. Funtsean, demokrazia ordezkatzailerak dakarren botere delegazioak —inperatibozko agindua— geroz eta gehiago urundu ditu herritarrak zein gizarte mugimenduak erakundeetako ordezkariengandik:

«Los políticos acaban defendiendo proyectos sectoriales sin que se contemplen todas las minorías, permanecen casi inmunes a intentos sociales de influenciar sus decisiones y fallan en promover debates permanentes sobre la agenda pública, promoviendo más bien ocasionales pugnas electorales» (Parés et al., 2009:42)

Demokraziaren eta bereziki gobernagarritasun krisi honen jatorrian faktore ugari aurkitzen dira. Aipatueneren artean, batetik, legoke neoliberalismoaren hegemoniak botere legegilean, exekutiboan eta judizialean duen eragina; izan ere, erakunde instituzionalak gizartearen ongizatearen zerbitzura baino, merkatuaren logikatik hurbilago daudela diote azken hamarkadetan gaia aztertu duten zenbait ikerketa lanek (Ibarra eta Ahedo, 2007; Fraser, 2011; Sousa, 2005; Goikoetxea, 2017; Zubiaga, 2008). Era berean, merkatu ekonomiak administrazioaren funtzionamenduan duen eragina frogatzen duen beste adierazle bat litzateke presio taldeena. Blasek (2012) dioten moduan presio taldeek erakunde instituzionaletan sarbide pribilegiatua dute, eta zenbait enpresaren interes ekonomikoak ondo baino hobeto ordezkaturik daude tokian tokiko instituzioetan. Sarritan ezkutuan gelditzen diren harreman sareak dira; Chávezek Hego Ameriketako ezkerreko gobernuen esperientzien ikerketa lanetan dioten moduan, agerikoa da zenbait erakundek duten eragiteko gaitasuna:

«El Fondo Monetario Internacional no vota pero si veta, para mantener las reglas del juego de la economía global»(Chávez, 2008:52).

Della Portak ere (2017:42) nazioarteko erakunderen eragiteko ahaleman eta berauen 'defizit demokrati-koa' azpimarratuko du. Nazioarteko erakundeek nagusituz doaz nazioen subirautezaren kalterako:

«Numerosas investigaciones han certificado también una creciente influencia de las organizaciones gubernamentales internacionales, lo que es visible por su

creciente capacidad de imponer sanciones, decidir sobre controversias y adoptar procedimientos de decisión por mayoría. En particular, el Banco Mundial y el Fondo Monetario Internacional han aumentado su poder de intimidación, por las cláusulas sobre liberalizaciones, privatizaciones y desregulaciones de impuestos a los países morosos en los programas de ajuste estructural. (...) Estas OGI han sido sobre todo acusadas de concretar políticas neoliberales que dan ventajas a ciertos Estados poderosos. Asimismo, han sido criticados los procedimientos decisionales poco visibles a la opinión pública.» (Della Porta, 2017:42)

Bestalde, zilegitasun eza ez datorkio soilik merkatu logikaren eraginaren ondorioz; izan ere, demokraziaren jatorritik gaur arte, gizarte sektore ugari bazterrean uzteak ere eragina izan du krisi horretan. Gene-roak, klaseak, arrazak edota jatorriak eragindako bazterketaren bueltan antolatu diren gizarte mugimenduek zapalkuntza horien berri ematen dute. Mugimendu feminista horren lekuko zuzena litzateke, eta Martínez-Palaciosek (2015) dioten moduan, demokrazia eredu hutsuneak aspaldi utzi zituen agerian:

«El feminismo, como movimiento, viene interrogando a la democracia desde su primera ola, experiencias como la del movimiento sufragista han puesto en jaque la supuesta praxis democrática de los primeros experimentos políticos modernos. No extraña, en consecuencia, que distintas autoras que han trabajado sobre las relaciones entre feminismo y democracia, incluso desde corrientes filosóficas antagónicas, hayan subrayado el hecho de que la aparentemente reciente crisis de la democracia no sea tan nueva. Tanto las filósofas de la diferencia sexual, como las filósofas no esencialistas consideran que la democracia moderna nació en crisis.» (Martínez-Palacios, 2015:156)

Hortaz, aspalditik datorren krisiaz dihardugula esan genezake. Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko mugimenduak demokraziaren jatorria bera auzitan jarri zuen, eredu baztertzailer eta zapal-tzaile gisa sortu zela argudiatuz.

Demokrazia ordezkatzailerekin amaitzeko, ikuspegi arautzaile horren partaidetzaren definizioa herri-tarren askatasun indibidualean ardatuzko da. Honenbestez, borondate indibidualean oinarritu beharko litzateke eta ez jardun kolektibo edota erantzunkizun gisa. Sistema politiko honen arabera, Estatuak ez du inolako esku-hartzerik izan behar lurralde horretako hiritarren partaidetzaren eremuan. Askatasuna inter-ferentzia eza baita. Gizarte zibilaren eta Estataturen arteko harremana, hortaz, ahalik eta txikiena izatea komeni da. Ordezkaritza politikoa lehentsiko da partaidetza politikoaren aurrean. Hauteskunde proze-suetan gorpuztuko litzateke ordezkartza politikoa. Edonola ere, partaidetza eta ordezkartza ulerkera ere modu ezberdinetan definitu da pentsamendu liberaletik eratorriko diren ereduetan. Ordezkaritzaren ulerkera, Ibarrek dioten moduan (2011:11), ikuspegi minimalistetatik eraiki dira; Schumpeter (1976) edota Sartori (1987) lirateke ikuspegi hori akademikoki landu dutenak, beste hainbatekin batera. Edonola ere, ikuspegi zabalagoa dutenak eta herritar zein ordezkarien arteko hurbiltasunaren alde kokatuko direnak ere badira. Arestian aipatutako ordezkartza krisiaren aurrean, indar handia hartuko dute partaidetza eta deliberazioan sakontzeko bideorriak barnebiltzen dituzten bestelako demokrazia ereduak. Horiek jarraian landuko ditugunak. Della Portak gogorarazten digun bezala (2017:19), ordezkartza demokrazia beste ikuspegi askoren bitartez desafiatur izan da, batik bat partaidetzazko demokraziaren ekarpenei esker. Kritika horiek guztiek agerian utzi dituzte gizartean dauden sakoneko gatazkak eta ezberdintasunak.

2.1.2.2. Partaidetzako demokrazia: gobernagarritasun krisiari aurre egiteko jardunbidea

Askotariko krisi horien aurrean, komunitatearen eta herritarren erabakitzeko ahalmena berreskuratzeko parte-hartze politikoa bilakatu da gabeziei eta ezintasunei aurre egiteko tresna aipatuenetako bat (Santos, 2002; Subirats, 2012). Ordezkaritzako demokraziaren aurrean, partaidetzaren aldeko posizioak indartzen ari direla esan daiteke. Izan ere, azken hamarkadetan, hauspotuz joan da herritarren ahotsa nabarmenduko duen demokrazia ereduaren aldeko planteamendua, demokrazia parte-hartzailearena, alegia. Atal honetako, bigarren multzoa litzateke hauxe.

Herritarren eta gizarte zibilaren eragiteko eta erabakitzeko ahalmena indartu nahi izango dute eredu honen sustatzaileek (Rauber, 2013; Santos, 1998; Ibarra, 2012). Politika instituzionala eta herritarren arteko harremana hurbiltzeko eta lehenengoan legitimazioa areagotzeko bideak plazaratuko dira. Asko idatzi da demokrazia parte-hartzailearen inguruan azken urteotan, bai nazioarte mailan, bai Euskal Herrian ere (Martínez-Palacios, 2015; Ahedo eta Ibarra, 2007; Martínez eta Blas, 2008), eta proposamen ugari ditugu demokrazia parte-hartzailearen aterkipean, besteak beste: *Harreman Demokrazia* (Ibarra, 2011), *Demokrazia Birbanatzailea* (Santos, 2005), *Demokrazia Deliberatzailea* (Harbermas, 1998), *Demokrazia Feminista* (Miyares, 2003) edota *Demokrazia zuzena*.

Proposamen gehienetan herri mugimenduen eta herritarren protagonismoa eta parte-hartzea nabarmenduko dira, eraldaketa sozialerako edota demokratizaziorako estrategia gisa, eta zelai demokratikoa zabaltzen lagunduko duten erakundeen birsortzeko beharrari egingo zaio erreferentzia behin eta berriro.

Zenbaitzuk argi-fokua jarriko dute bereziki gizarte zibilean, eta beste hainbatek, berriz, eremu instituzionalean. Ibarra (2011), adibidez, *Harreman Demokraziaren* proposamena landuko du; demokrazia deliberatzailea gainditu nahi izango duena, eta, era berean, demokrazia parte-hartzailearen baitan kokatzen den eredia, eta espazio deliberatzaile berriak zabaltzea ezinbestekoa dela dio autoreak. Horien bitartez, herritar eta ordezkarien artean egun dagoen distantzia murriztuz joango litzateke. Era berean, espazio horien sakontasun demokratikoei azpimarra egingo die, horietan neurtzen baita kalitate demokratikoa:

«La democracia es una forma de gobierno en la que existen una serie de condiciones, de normas y procesos que articulan y desarrollan un conjunto de relaciones entre gobernantes y gobernados deliberada y adecuadamente dirigidos a lograr la coincidencia entre, por un lado, las decisiones políticas y por otro las reivindicaciones y decisiones formuladas desde la sociedad» (Ibarra, 2011:4)

Ibarra proposamena, Telleriak (2012:80) dioen moduan, ekarpen teoriko interesgarria da, aldaketa prozesu sozial eta politikoak testuinguratzen baititu, erakundeen kudeaketa eta ekintza kolektiboaren arteko harremanekin lotuz. Autoreak parte-hartzezko demokraziaren baitan eraikiko du honako proposamena. *Harremanezko demokrazia* lanaren egilearen esanetan, demokraziaren eztabaida teorikoa sinplifikatu beharko balitz, sakoneko eztabaida batekin laburtuko luke hark; hau da, aurrez aurre topo egiten duten bi kontzeptu nagusien arteko tirabiran legoke: ordezkaritza eta partaidetza (Ibarra, 2011:10). Beste hitz batzuekin esanda, herritarren parte-hartzea eta alderdien elitismoa kontrajarriko lituzke. Autore honen ustetan, ohiko mekanismo demokratikoak ez dira gai herritarren interes orokorrari erantzuteko, eta parte-hartzea ezinbestekoa bilakatzen da ezberdintasun sozial nabariak ezaugarritzen dituzten egungo inguruabarretan. Proposamen honen bitartez, helburu nagusia litzateke egiazko botere demokratikoa lortzea, berdintasuna eta justizia sustatuz. Horretarako, ezinbesteko bilakatzen dira herritar aktiboak eta kontzientzi neorrepublikardunak.

Bestalde, *harremanezko demokraziak* eskatzen du herritar eta ordezkarien arteko hurbiltasuna, hau da, erabaki politikoak herritarren aldarriekin bat etortzea, eta, horretarako, deliberaziorako espazioak beharrezkoak dira. Espazio horien baldintzetan eta funtzionamenduan arreta jarriko du Ibarak (ibid.:39). Honako espazio hauek aztertuko ditu: hauteskunde prozesua, gizarte mobilizazioa, espazio mediatikoak, gobernantza eta tokiko parte-hartezko demokrazia. Gure kasuan, gizarte mobilizazioa, gobernantza eta tokiko parte-hartezko demokraziaren dimentsioak interesatzen zaizkigu, horiek baitira atal enpirikoan hurbiletik aztertuko ditugunak. Aurrerago, hirugarren eta laugarren ataletan sakonduko dugu horietako bakoitzean; dena dela, Ibarak elementu bakoitza nola definitzen duen, labur bada ere, azaldu nahi genuke.

Lehenik eta behin, gizarte mobilizazioei dagokionez, autoreak honela definitzen ditu:

«Puede definirse un proceso o un espacio de movilización como el conjunto de acciones colectivas, habitualmente no convencionales, organizadas por ciudadanos, a su vez, mayoritariamente asociados, que mediante prioritariamente estrategias de conflicto y confrontación con autoridades e instituciones, exigen a las mismas que tomen determinadas decisiones políticas o que abandonen aquellas que habían previsto tomar.» (ibid.:215)

Proposamen honen baitan, gizarte mobilizazioa bultzatuko duten aktoreak nagusiki herri mugimenduk dira, eta deliberazio prozesuetan mobilizazioak behar bezala funtzionatzeko, adierazle multzo bat proposatuko da.

Gobernantza eta tokiko parte-hartezko demokraziari dagokionez, bietan ematen dira eragile, talde eta herritarren arteko deliberaziorako prozesuak, eta bai batean zein bestean parte-hartzaileen erabakiak barneratzeko borondatea legoke erakundeen aldetik. Gobernantzaren kasuan, erakundeetako ordezkariak deliberazio espazioetan presente egongo dira; tokiko parte-hartezko demokrazia prozesuetan ez, ordea. Horrela jasotzen du autoreak:

«Lo habitual es que la institución política correspondiente ponga medios para poner en marcha ese proceso deliberativo, pero luego el proceso adquiere autonomía frente a la institución política respecto a los que allí deliberan.» (ibid.:251)

Halere, antzekotasun handiak leudeke bien artean. Esan bezala, bietan erabaki prozesuekiko aitortza legoke, eta erakundeek prozesuan adostutako erabakiak kontuan hartzeko konpromiso agerikoa egingo lukete. Beharbada, ezberdintasunen artean, aipatzen da gobernantzaren kasuan erabakiak kontsultiboak izan ohi direla sarritan, eta partaidetza prozesu edo espazioetan, aldiz, konpromiso maila handiagoa nabari dela.

Atal teorikoaren amaieran sakonduko dugu gehiago bi dimentsio horietan. Nolanahi ere, interesgarria suertatzen da, Ibarren ekarpenak bat egiten baitu gure ikergaiarekin. Gure kasuan hurbiltasun ideologiko eta gertuko harremana duten herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen testuinguruan, deliberaziorako espazio horien bilakaera eta balio demokratizatzailea aztertu baitugu. Elkarlanean aritzeko zabaldu diren espazio horietan herri mugimenduen eragina nolakoa izan den ikertzen saiatu gara.

Ildo beretik, partehartezko demokraziaren baitan, emankorra eta esanguratsua izan da ere Boaventura de Sousa Santosek (2005) egindako ekarpena. Portugaldarrak *demokrazia birbanatzaileaz* hitz egingo du, eta neurri zehatz ezberdinak proposatuko ditu. Santos en aburuz, demokraziaren demokratizazioa gauzatzeko, Estatu eta komunitate printzipioen arteko artikulazio berri bat beharko litzateke. Alegia,

Estatuaren berrasmatea proposatuko du, hirugarren sektorean¹³ eta Estatuaren beraren erreforman oinarrituko dena:

«Solo la convergencia entre estos dos procesos de democratización permite reconstruir el espacio público de la deliberación democrática». (Santos, 2005:367)

Autoreak dio gaur egungo Estatuaren erreforma konplexua bezain kontraesankorra dela, «Estatuaren berrasmatearen» ideiarekin baita bi ikuspegi kontrajartzen baitira: batetik, enpresa Estatuarena eta, bestetik, *Estatua mugimendu sozial berri gisa* definituko duena. Bigarren horretatik abiatuko da bere proposamena garatzeko. Horren abiapuntua litzateke, Estatuak eta komunitateak euren kabuz ezin dutela sostengatu merkatu logikatik at dauden elkarrekiko menpekotasunak. Azken horiek gabe, bizitza giza faxismoan bihurtuko litzatekeela dio (ibid.:331). Eta Estatuaren eta komunitatearen printzipioen arteko artikulazio berri bat proposatuko du, komunitatearen nagusitasunean ardaztuko dena. Osaketa berri horrek ahalbidetuko luke Estatuak egun duen *kutsu liberala* indargabetzea. Izan ere, merkatu liberalaren aginteek Estatuaren funtzionamendu logiketan eragin zuzena izan dute, eta Estatuaren arautze sozialerako gaitasuna galduz joan da. Bestalde, hirugarren sektoreak ere bere kabuz ezingo luke Estatu demokratizatu. Hori dela eta, bi eremuen arteko lankidetzak eta horietako bakoitzaren erreforma ezinbestekoa izango dela dio:

«Solo la simultanea reforma del estado y el tercer sector, mediante la articulación entre democracia representativa y participativa puede dar efectividad al potencial democratizador de cada uno de ellos frente a los fascismos pluralistas que intentan apropiarse del espacio público no estatal. Solo así podrán alcanzar credibilidad los isomorfismos normativos entre el estado y el tercer sector; los valores de la cooperación, la solidaridad, la democracia o la prioridad de las personas sobre el capital» (ibid.: 333)

Dena dela, bi eremuen arteko artikulazioak ez du esanahi batak bestea ordezkatu behar duenik. Testuinguru politikoaren arabera, lankidetzak konfrontazio edo oposizio gisa irudikatu daiteke. Finean, Santosen esanetan (2005), gaur egun, politika aurrerakoiak gauzatu nahi badira, eremuen arteko lankidetzan pentsatu beharra dago, zeinean komunitatearen eta Estatuaren berezko logiken arteko mihizatzea sustatuko den.

Era berean, *demokrazia birbanatzailearen* proposamenean, herritarren partaidetza ezinbesteko tresna bat da demokratizaziorako, eta horrek kontratu sozial berri baten beharra dakarrela dio Santosek (2005); ondorioz, orain arte kanpoan gelditu diren gizarte sektoreak barnebilduko dituen hitzarmen berri eta integrazzaileago bat formulatuko luke. Honela jasotzen du autoreak haren proposamenaren helburua:

«El objetivo final es la construcción de un nuevo contrato social, muy distinto al de la modernidad. Debe ser un contrato mucho más inclusivo que abarque no ya sólo a los hombres y a los grupos sociales, sino también a la naturaleza. En segundo lugar, será un contrato más conflictivo porque la inclusión debe hacerse siguiendo criterios tanto de igualdad como de diferencia. En tercer lugar, aunque el objetivo

13 Santosen (2005) arabera hirugarren sektorea litzateke, Estatu eta merkatua ez den eremua, hau da, herri mugimenduak, gobernu kanpoko erakundeak, herritarrak eta abar. Horren erakusle ondoren go pasartea: «Tercer sector es la denominación, residual e imprecisa, con la que se intenta dar cuenta de un vastísimo conjunto de organizaciones sociales que se caracterizan por no ser ni estatales ni mercantiles, es decir, todas aquellas organizaciones sociales que, siendo privadas, no tienen fines lucrativos y que, aunque respondan a unos objetivos sociales, públicos o colectivos, no son estatales: cooperativas, mutualidades, asociaciones no lucrativas, ONG etc.» (2005:318)

final del contrato sea la reconstrucción del espacio-tiempo de la deliberación democrática, este contrato, a diferencia del contrato social moderno, no puede limitarse al espacio-tiempo nacional y estatal: debe incluirse los espacios tiempo local, regional y global. Por último, la deliberación democrática, en cuanto exigencia cosmopolita, no tiene sede ni forma institucional específica» (Santos, 2005:360)

Nolanahi ere, Martínez-Palaciosen (2015) arabera, Santosen *demokrazia birbanatzailearen* hitzarmen berriak ez luke emakumeen zapalkuntza agerian utziko, hau da, gizarte sektore baztertuetara zabaldu nahi den kontratu sozialak zapalkuntza ezberdinen sakoneko irakurketa egin beharko luke, eta batik bat, kontratu sexualak eragindako bereizketa edo ezberdintasun sozialak landu beharko lituzke:

«El hecho de que las teorías generalistas de la democracia participativa no enuncien la ausencia del principio de individualidad de las mujeres entre los elementos que obligan a pensar en nuevas formas de contrato supone, en la práctica, dejar de lado las necesidades específicas de este grupo social. Este hecho tiene especial relevancia en un mundo en el que todo es susceptible de ser contratado; enunciar reactualizaciones más justas para todos los seres humanos pasa por no exportar nuevamente la sujeción de unos sobre otros.» (Martínez-Palacios, 2015:158)

Horrez gain, Martínez-Palaciosek (2015) bi aldagai aipatzen ditu demokratizazioa oztopatuko dutenak; batetik, parte-hartze politikoaren neutraltasuna, eta, bestetik, espazio publikoa eta pribatuaren arteko banaketa. Demokrazia parte-hartzaileak begirada feminista barnebiltzen duela pentsatzeko joera dagoela dio, eta ohartarazten gaitu esanez parte-hartze handiagoak ez dakarrela nahitaez kalitate demokratiko handiagoa. Aintzat hartu behar baita partaidetzak ere sexu generoan oinarrituko dominazioa birsortzen duela, eta, beraz, egin diren ikerketa¹⁴ ezberdinek agerian utzi dute partaidetza politikoaren aldeko estrategia demokratizatzaileek ikuspegi feminista txertatu beharra dutela. Hori egin ezean, genero ezberdintasunak birsortzen jarraituko lirarteke. Ikuspegi honekin bat egiten dute Nancy Fraserren eta Miyaresen lanek.

Bestalde, Fraserrek justizian oinarritutako demokrazian sakonduko du, parekidetasunaren printzipioan oinarrituz (aipatua Avedaño, 2012). Mugimendu feministen aldarrei erantzungo dien justiziaren ideia garatuko du estatubatuarrak. Era berean, esan dezakegu Santos-en kontratu sozialaren ideiarekin bat eginaz, Fraserrek ere esfera publikotik at gelditu diren «kontra publiko»¹⁵ deritzenen bazterketa agerian utziko du, birbanaketa eta aitortza publikotik kanpo geldituko direla azpimarratuz. Gizarte sektore baztertuei, ordea, diskurtso hegemonikoa ezbaian jartzeko ahalmena aitortzen die, eta horrekin batera praktika sozial berri eta eraldatzaileen sustatzaile gisa definituko ditu. Azken batean, deliberazio publikoaren esanahia berrasmatu behar dela dio, eta izaera ireki eta amaigabea erantsi.

14 Jone Martínez-Palaciosek koordinatu eta zuzendu duen argitalpena aipatu nahi genuke. *Innovaciones democráticas feministas* (2018: 87-274) liburuaren baitan, bada atal bat espreski Euskal Herriko egoerari begiratzen diona berrikuntza demokratiko feministak xede dituen. Ikerketa lan honetan agerian gelditzen da berrikuntza demokratikoak ikuspegi feminista barnebildu behar dutela, hori egin ezean ez sexu-genero sisteman oinarritutako dominazioa eraldatzeko gaitasunik ez dutela. Halaxe jasotzen dute ikerlariak: «Las innovaciones democráticas feministas (IDF) son necesarias para no reproducir por medio de procesos democratizantes el sistema de dominación que es el SSGDM (sistema sexo genero de dominación masculina). Por otro, que las IDF no son una ilusión o un proyecto. Ya existen y llevan existiendo de una u otra forma desde que la primera mujer resistió a lo que considero un atropello de la libertad para poder realizar su proyecto de vida y de participación.» (Martínez-Palacios, Ahedo, Suso, Zuriñe, 2018:241)

15 Nancy Fraserrek «kontra publikoaren ekimen subalternoak» kontzeptua era honetan definitzen du: «arenas discursivas paralelas en las que los miembros de grupos sociales subordinados elaboran y difunden contra-discursos con el fin de formular su propia interpretación de sus identidades y necesidades» (Fraser, 2001:138, aipatua Martínez-Palacios, 2018:106)

Ikuspegi duala proposatzen du estatubatuarrak, eremu soziokulturalaren aitortzan, eta birbanaketa ekonomikoan (Fraser, 2008) oinarrituko dena. Beraz, justizia soziala bi eremu horietan ardaztuko da, eta ondorioz, gizarte sektore baztertuen aitortzak halaberrez birbanaketa ekonomikoa ere eskatzen du. Orduan hitz egin daiteke, autoreak aipatzen duen *parekidetasunezko partaidetzaz*:

«La paridad participativa es entonces la forma de una justicia desde y para la democracia que implica la definición de las situaciones de injusticia mediante procesos y procedimientos deliberativos en que todos/as y cada uno/a puedan ejercer su autonomía en la vida social, puedan transformar las condiciones de injusticia económica y de reconocimiento.» (Avendaño, 2011:65)

Hortaz, partaidetza horrek ezinbestean eskatzen ditu deliberaziorako espazio zabalak, generoa, sexualitatea, klasea edota arraza bezalako aldagaiengatik baztertuak izan diren gizarte sektoreei ahotsa emango dietenak eta, era berean, euren zapalkuntza ekonomiko eta soziala eraldatzen lagunduko dutenak.

Martínez-Palacios (2015) eta Fraserren (2011) gogoetek lotura dute Miyaresek 2003an argitaratu zuen *Demokrazia feminista* liburuan plazaratu zuen proposamenarekin. Izan ere, lan horretan, boterearen auzia jorratzeaz gain, *demokratizazio bikoitza* proposatuko du autoreak: gizarte zibilarena, batetik, eta Estatuarena, bigarrenik. Gizarte zibilaren kasuan, bizimodu liberaletatik eratortzen diren balioak—lehia, eraginkortasuna, lidergotza eta abar— eraldatzeko bide-orria jorratuko du, eta, bigarrenik, Estatuaren botere moldeak auzitan jarriko ditu. Ikuspegi honen arabera, parekidetasunak emakumeen eskubide zibil eta politikoak bermatuko lituzke:

«La democracia feminista entiende la paridad como un derecho que asegura la representatividad proporcional de los sexos. La paridad garantiza el derecho civil de las mujeres a ser elegidas para representar políticamente a la ciudadanía. La paridad no es una concesión a la representatividad de las mujeres que dependa del voluntarismo de los partidos políticos, es un derecho que no puede ser alterado dependiendo de las circunstancias políticas...» (Miyares, 2003:186)

Demokrazia feministak bat egingo luke partaidetzazko demokraziarekin, jendarte autoantolatua protagonismoaren alde lerrotatuko baita, demokrazia liberalaren hutsune eta gabezien aurrean. Herritar eta erakundearen arteko komunikazio bideak indartu eta zabaldu behar direla dio. Era berean, Miyaresen esanetan, feminismitik eraikitako demokrazian gizarte zibilaren parte-hartzea ezinbestekoa da, eta horrek nahitaez asignazio sexuala eraistea dakar. Finean, sexuaren kategoria ardaztuko duen gizarte zibila eraldatzeko beharra dagoela azpimarratuko du. Benetako herritartasunak bete beharko lituzkeen baldintzak hauek liriateke: aukera berdintasuna, partaidetza, aberastasunaren birbanaketa eta aitortza. Ikuspegi feminista batetik, horietako bakoitza aztertuz gero, emakumeen herritartasunak hutsune nabariak dituela azpimarratzen du autoreak.

Orain arte modu oso laburrean jaso ditugun proposamenek agerian utziko dute teoria politiko feministak ordezkarietazko demokraziaren berrikusketa kritikoaren sustatzaile izan direla, pentsamendu arautzaileen sorreratik, partaidetzazko demokrazia jorratu duten teorilarietara batera. Guztiek proposatuko dituzte printzipio eta tresna politiko berritzaileak gobernagarritasunaren krisiari aurre egiteko. Edonola ere, Martínez-Palaciosek, Ahedok, Susok eta Rodriguezek (2018:110) dioten moduan hainbat proposamen politikotan bat etorri arren, diagnosietan ez dute bat egingo, aurrez aipatu ditugun proposamenetan ez baita kontuan hartzen sexu-genero sistemaren zapalkuntza, hiritartasuna, partaidetza edo Estatuaren demokratizazioaz dihardutenean.

Berrikuntza demokratikoen diseinuari dagokionez, batzuen eta besteen ezberdintasunak neurtzea edo sailkatzea zaila egiten da, baina beharbada deliberaziorako eta partaidetzarako mekanismoen (Martínez-Palacios et al. 2018:111) arteko ezberdintasuna nabarmendu daiteke beste batzuen gaitetik. Orain arte, jaso ditugunak bereziki parte-hartzezko demokraziaren baitan multzoka gaitizake.

Demokrazia deliberatzaileak, berriz, taldeen arteko elkarrizketan jarriko du argi-fokua; Joseph M. Bes-settek 1980ean jorratuko duen proposamena litzateke honakoa; halaber, beste hainbat autorek¹⁶ sakondu dute deliberazioaren erudian, haien artean ezagunenak, Fishkin (1997) edo Habermas (1987) ditugu erreferentziatzko autoreak korrente honen baitan, eta azken horren arabera, elkarrizketaren amaierako helburu nagusia litzateke eragileen arteko lankidetzeta eta adostasun maila indartzea:

«La deliberación se basa en los flujos horizontales de comunicación, múltiples productores de contenidos, amplias ocasiones de interactividad, comparación sobre la base de argumentaciones razonadas y propensión a la escucha recíproca (Habermas, 1996;1997). En este sentido, la democracia deliberativa es discursiva.» (Della Porta, 2017:75)

Beraz, kasu honetan, erakunde publikoek harreman horri begira jardungo dute. Eredu honen baitan, kokatuko lirateke elkarrizketan sakontzeko Fishkin-en galdetegi deliberatzaileak, minipublikoak, zein elkarrizketarako zein adostasunerako espazio berrien sorrera. Azken finean, deliberaziozko demokraziaren oinarritzko osagaia litzateke elkarrizketaren bitartez —eta persuasiorako gaitasuna handiena duten argudioen nagusitasunari esker—, herritarrak erabaki adostuetara helduko dira.

Partaidetzazko demokrazia ereduarekin amaitzeko, demokrazia zuzenaren inguruko aipamen bat egin nahi genuke, eredu honen arabera (Lipset, 1995), herritarrek ordezkariak hautatu beharrean legeak eurak egingo litzateke. Atenaseko adibidea erabili ohi da usu eredu honen aitzindari gisa, horixe baita demokrazia hitzaren jatorria. Atenaseko asanblada herritarrek —emakumeei eta esklaboei ukatuko zaie eskubide hori— osatuko dute, Estatuaren organo gorentzat jotzen da (Viejo et al. 2009:45). Asanbladako kide guztiek, aipatutako gizarte sektoreak salbu, parte hartzeko eskubide bera zuten, eta baita gaiak proposatzeko aukera; hortaz, erabakiak hartuko ziren organoa osatzen zuten kideen gehiengoaren arabera. Partaidetzazko demokrazia demokrazia zuzenaren hainbat ezaugarri berreskuratu nahi izan ditu. Hori dela eta, esan beharra dago Politika Zientzien esparruan demokrazia zuzena eta parte-hartzailearen arteko mugak aspaldi lausotu direla. Izan ere, sarritan *continuum* gisa irudikatzen da parte-hartzearen intentsitatea edo sakontasun maila.

Laburbilduz, amaitzeko esan genezake, herritarren partaidetzari protagonismoa emango dioten teoria horiek guztiek, ordezkartzazko demokrazian ez bezala, gizarte zibilaren inplikazioa bilatzen dutela eremu publikoan. Ordezkaritzazko demokraziaren krisiak eragindako hutsuneak osatzea eta eraldatzea bilatuko dute orain arte deskribatu ditugun proposamenek, partaidetzeta politikoaren presentzia handiagoarekin edo txikiagoarekin. Arestian aipatutako gobernagarritasunaren krisiari —neurri handi batean neoliberalismoaren hegemoniak eraginda— eta hasierako planteamendu baztertzailerei erantzun gisa sortuko dira partaidetzazko demokraziatik eratortzen diren ikusmolde anitzak. Herritarren eta gizarte antolatuen protagonismoa —intentsitate maila ezberdinekin— bilatuko dute. Batik bat ordezkartzazko demokrazia bazterrean utzi dituen gizarte sektoreena, hau da, generoa, klasea, jatorria, erlijioa eta bestelako kategoria

16 80 eta 90. hamarkadan deliberaziozko demokraziaren ereduak jorratu zuten autoreen artean ditugu: Bernard Manin, Sheyla Benhabib, James Bohman, Amy Gutmann y Dennis Thompson.

sozialengatik bazterrean utzi diren sektoreen ahotsa edo Fraserrek (2000) dioen moduan *kontra publiko subalternoak* erdigunera ekarri, eta horien bizi-baldintzak hobetzeko proposamenak direla esan daiteke. Horrek gaur egun herritarren inguruan dagoen ikuspegia eraldatzea eskatzen du, hau da, politika publikoen hartzaile pasibo izatetik, protagonista gisa irudikatuz. Inplikazio horren bitartez, eremu publikoaren gaineko interesa areagotuko litzatekeela diote bigarren multzo honetan aipatu ditugun autore askok, demokraziaren eta erakundearen zilegitasuna handituz, eta jendartearen autoeraketa sustatuz. Merkatuaren logika lehiakorraren aurrean, Estatuaren eta komunitatearen dimentsioak indartzea eskatzen dute.

Bestalde, arestian aipatutako planteamenduen arabera, alderdi politikoek orain arte jokatu duten rola eraldatzea ere eskatuko luke, hau da, ez dira erabakiaren gune pribilegiatu izango; herri mugimenduen eta herritarren protagonismoa handitu ahala, alderdi politikoen jarduna moldatzen joango litzateke, deliberaziozko eta partaidetzazko espazioen premietara.

Atal honekin amaitzeko, laburtu ditugun gogoeten arabera badirudi ordezkartzaren eta partaidetzaren arteko osagarritasuna ere aipatu beharko litzatekeela. Izan ere, ez dira kontzeptu baztertzailak. Eskutik helduta doazen forma politikoak baizik. Horrela, Viejo et al.-en (2009) esanetan, sistema demokratiko baten kalitatea eremu instituzionalak ordezkartza eta partaidetza konbinatu eta integratzen dituen mailaren arabera neurtu daiteke. Zenbat eta gehiago sakondu bi bide horietan, orduan eta sakontasun demokratiko handiago izango luke sistema demokratiko horrek. Ereduetatik harago diote demokratizazioa partaidetza eta ordezkartza uztartzen eta garatzen diren neurrian gertatuko dela.

2.1.2.3. Demokrazia erradikala: gatazka eta horizontaltasuna ardazten duten eredu

Demokrazien tipologiarekin amaitzeko, demokrazia erradikala dugu hirugarren eta azken eredu multzoa. Kasu honetan ere, proposamen eta ahots ezberdinak jasotzen dira, hala nola demokrazia erradikala eta anitza, municipalismoa edota jendetzaren demokrazia dira guk ondoren laburbilduko ditugunak. Dena dela, horietako bakoitzaren ezaugarriak aipatu aurretik, eta ikuspegi orokor batetik definituta esan genezake, hirugarren ikuspegi honen baitan, partaidetza eta harreman demokratizatzaileak ez direla mugatzen erakunde instituzionaletara, bizitzaren esparru guztiak zeharkatuko litzatekeelako. Hein handi batean, bizimodu gisa irudikatzen den demokrazia ereduaz dihardute multzo honen baitan kokatzen diren autoerak, jarraian ikusiko dugun moduan. Demokrazia erradikala eta liberalaren arteko ezberdintasun nagusia hau litzateke: lehenbizikoak hasieratik aitortuko du herritarrak ezberdintasun sozialen testuinguruan jaioko direla, eta, horren ondorioz, nabarmenduko du erakunde publikoen printzipio nagusiak ez direla homogeneizazioan eta unibertsalitatean ardaztuko, baizik eta ezberdintasun horien aitortzan:

«La democracia radical exige que reconozcamos la diferencia –particular, lo múltiple, lo heterogéneo–, o sea todo aquello que el concepto abstracto de hombre excluía. No se rechaza el universalismo, se lo particulariza; lo que hace falta es un nuevo tipo de articulación entre lo universal y lo particular». (Mouffe, 1999:33)

Eredu erradikalak bere gain hartuko du askatasunaren eskubidea; era berean, ez da jabetza pribatuaren eskubidearen menpe egongo, eta, beraz, interes orokorraren izenean malgutzea eskatuko luke. Orobat, subjektuen identitate anitzak aitortuko ditu, eta identitateak gurutzatzeaz gain era dinamiko batean eraldatzen direla diote.

Bestalde, Laclau eta Mouffen esanetan (2001) jendartearen nagusi diren zapalkuntza sozial eta ekonomikoak gutxitzeko, herritarren parte-hartzeko gaitasun eta aukerak handitu beharko lirateke. Bi autoreek

argitaratutako *Hegemonia eta estrategia sozialista* (1987) saiakera ezkeraren pentsamendu politikoaren erreferentzia ezaguna bilakatu zen 80ko hamarkadan. Lan honen bitartez, marxismoaren sakoneko krisia aztertu zuten, eta iraultza demokratikoen erronkei aurre egiteko sozialismo tradizionalaren ezintasunak agerian utzi zituzten. Azken batean, marxismo tradizionalaren oinarriko kontzeptuak deseraikitzea eskatzen zuten, eta modernitatearen proiektu politikoaren erradikalizazioa. Finean, proiektu berri bat, *demokrazia erradikal eta anitza* modura definitu zutena. Sozialismoaren helburua erdiesteko, artikulazio politiko berriak formulatuko dituzte:

«El proyecto de una democracia radical va ligado a esta pluralidad de lo social; y la posibilidad de crearla emana directamente del carácter descentrado de los agentes sociales, de la pluralidad discursiva que los constituye como sujetos y de los desplazamientos que tienen lugar en el seno de esa pluralidad. Las formas originarias del pensamiento democrático estaban ligadas a una concepción positiva y unificada. (Laclau eta Mouffe, 2001:227).»

Era berean, Mouffek (2003) politikaren dimensio gatazkatsua azpimarratuko du, deliberabazioaren ikuspegiarekin kontrajarriz. Gatazka demokraziaren osagai nagusi gisa ulertuko du. Ez hori bakarrik, gatazka ikusarazi behar dela dio, emantzipaziorako bidea baita. Eredu honen arabera, partaidetza gatazken sorrera eta soluziobiderako ezinbestekoa da, eta ez da eremu instituzional zehatzen baitan kokatuko, demokraziaren sakontze eta erradikalizazioaren testuinguruan gauzatuko litzateke.

Hari beretik, politologo belgikarraren aburuz, demokrazia garaikidearen funtzioa antagonismoa agonismo bilakatzea litzateke. Agonismo horren baitan, arerio politikoek erregimen demokratikoaren berdintasun eta askatasun printzipioak onartuko litzukete, baina aurkari izaten jarraitzen dute. Demokraziak, beraz, gatazka legitimatu behar du, eta soilik antagonismoa agonismo bilakatu, aniztasuna bermatu ahal izango da, eta aldaketa horrek demokratizazioan sakontzeko aukerak zabalduko litzuzke.

Bestetik, autonomiaren ikuspegian oinarrituko den bigarren eredu *munizipalismoa* litzateke. *Munizipalismoa* Estatu zentralizatzailearen kontra eraikitzen den antolaketa soziala da. Antolaketa eredu honen arabera, erakundeek izaera asanblearioa lukete, eta tokian tokiko bizilagunen partaidetzan oinarrituko dira. Autogobernuaren ideia honen jatorria Bookchin (2003) estatubatuarren munizipalismo libertarioan kokatzen da. Callek (2015), Bookchinen erreferentzia kontuan hartuta, era honetan definitzen du gaur egungo munizipalismoa:

«Bajo la etiqueta de municipalismo situamos aquellas perspectivas que insisten en los procesos de democratización y gestión directa de los territorios (pueblos, comarcas, ciudades descentralizadas, barrios) persiguiendo el bienestar de sus habitantes. Son procesos amplios, que abarcan prácticas cotidianas de apoyo para poder sobrevivir, para construir tejidos de solidaridad, en estos tiempos de crisis, o para abrir las agenda a candidatura locales.» (Calle, 2015:15)

Ikuspegi honek garrantzi handia emango die, batetik, behetik gora eraikiko diren antolaketa ereduak, eta, baita ere, tokian tokiko lurralde ikuspegiari. Partaidetza mekanismo formaletatik harago doazen demokratizazio prozesuak formulatuko dituzte, autoeraketa bizitzaren esparru ezberdinetara zabalduz: kontsumo eta ekoizpen sareak, eskolak, finantzak, osasunaren kudeaketa komunitarioa eta abar.

Finean, munizipalismoa edo udalgintza demokraziaren erradikalizaziorako (Calle, 2015:21) estrategia gisa irudikatzen da. Planteamendu honen jarduera praktikoez komunitatea, demokrazia, lurraldea eta sostengarritasuna dute ardatz. Kasu honetan, ekintza kolektiboaren sare kritikoen jarduna ezinbestekoa litzateke, eta, horregatik, herritarren antolaketa sustatzeko espazioak eta moduak proposatuko dituzte. Herri boterea litzateke, finean, autoeraketa hori definitzeko modua:

«Las visiones del poder popular, que encontrarían con este municipalismo desde abajo, se caracterizarían por enfatizar la importancia de las experiencias autónomas de autogobierno a la hora de gestionar diferentes aspectos de nuestra vida, en territorio dado.» (ibid.:25)

Bestalde, begirada honen jarraitzaileek, Estatua aliatu eta aurkari gisa irudikatzen dute, behetik gora eraiki nahi izango diren politika berritzaileen bilaketan. Aurkaria litzateke batik bat botorea zentralizatu nahi dutenen aurrean, eta aliatua, berriz, erakunde publikoen boterearen joera deszentralizatu nahi dutenean, beti ere, autoeraketarako baliabideak eta babesa eskaintzen diren bitartean. Horretarako, instituzionalitate berriak sortzea proposatuko dute, herri boterean oinarritutako autoantolaketaekin batera. Erakundeei erraztaile rola esleituko diete eta ez hainbeste sustatzailearena.

Azkenik, demokrazia erradikalaren atalarekin amaitzeko, *Jendetzaren Demokrazia* aipatu behar dugu. Michel Hardt eta Antonio Negri dira ikuspegi horren erreferente nagusiak; *Multitud. Guía y democracia en la era del Imperio*, 2004an argitaratu zuten lanaren azken atalean jasotzen da euren proposamena; *Demokrazia* izenburu duen kapituluak, hain zuzen. Klase borrokaren berrirakurketa berri bat dela diote, non inperioa kapitala edota botere ekonomikoa sostengatzen dituen egitura bezala definituko duten, eta jendetza, aldiz, langileria. Hardt eta Negriren (2004) esanetan, langileria industrialak jada ez du jokatzeko paper erabakigarria egungo ekonomia globalean, eredu zapaltzaile berri bat nagusi dela diote: «ekoizpen biopolitiko». Jendetza modura definituko duten subjektu berri hori alternatiba demokratiko berri bat eraikitzeko gai dela diote.

Azken proposamen honetan ere, herri mugimenduek paper garrantzitsua dute, bereziki trantsizio demokratikorako indar sustatzaile gisa. Izan ere, demokrazia birpentsatu beharra dagoela diote, jendetzaren indar demokratiko eratzailea globalizazio armatu eta kapitalistari aurre egiteko gai dela nabarmenduz. Horretarako, jendetzaren batasuna eta helburu komunak ezartzea ezinbestekoa litzateke bi autore hauen aburuz. Euren proiektu demokratikoa jendetzaren elkarlanerako gaitasunean, eta egunerokoa eta sare produktiboaren denborak eta bizitzak uztartzeko gai diren neurrian garatuko litzateke; horrela jasotzen da liburuaren azken kapituluak, *La democracia dela multitud* izenburu duena:

«La futura estructura institucional de esa nueva sociedad está incorporada a las relaciones afectivas, de cooperación y comunicación de la producción social. En otras palabras, las redes de la producción social proporcionan una lógica institucional capaz de sustentar una nueva sociedad. Por lo tanto el trabajo social de la multitud conduce directamente a la proposición de la multitud como poder constituyente.» (Hardt eta Negri, 2004:398)

Beraz, *Jendetzaren Demokraziaren* bitartez, defendatuko dute sistemaren ezberdintasun sozialak eta injustiziak eraldatzeko modu bakarra jendartearen esku edota horren baitan dagoela. Izan ere, kapitalismoaren hazkundera elikatu duten bezala, sistema berarekin amaitzeko eta berri bat sortzeko ahalmena horri dagokiola uste dute.

2.1.3. Herritarren eta erakundeen arteko harreman ereduak

Orain arte ikusi dugun moduan, ikuspegi arautzaileetatik, demokrazia eredu edo praktika ugari teorizatu dira azken hamarkadotan. Horietako bakoitzak Estatuaren eta herritarren arteko harremana era ezberdin batean definituko du. Ondorengo koadroan, orain arte jaso ditugun ikuspegi, eredu eta autoreen ezaugarri nagusiak laburbildu ditugu:

5. taula: **Demokrazia ereduaren ikuspegiak eta harremanak**

Ikuspegi arautzailea	Demokrazia ereduak	Harremanaren ezaugarriak	Autoreak
Liberalismoa	Demokrazia ordezkatzaila	Esku-hartze instrumentala Hauteskundeak	Sartori (1987) Schumpeter (1966)
Errepublikanismoa	Parte-hartzearen demokrazia Demokrazia deliberatzailea Demokrazia zuzena Harreman demokrazia Demokrazia feminista	Parte-hartze mekanismoak Elkarrizketa Erabakia Parte-hartzea Parekidetasuna	Fraser (1992) Harbermas (1987) Lipset (1995) Ibarra (2011) Miyares (2003)
Autonomia	Demokrazia erradikala Demokrazia agonistikoa Jendetzaren demokrazia	Munizipalismoa Gatazka Mugimendu artikulatuak	Calle (2015) Mouffe (2003) Hardt eta Negri (2004)

Iturria: Egileak berak egina, Viejo et al. 2009:51 oinarri hartuta

Arestian jaso dugun sailkapena laburbilduz, esan nahi dugu gaur egun indarrean dagoen demokrazia ordezkatzaila eta liberalaren krisiarekin bat egiten dutela errepublikanismoaren eta autonomiaren pentsamenduetatik formulatu diren proposamen ezberdinek. Sarritan aipatzen dute merkatuaren logikaren nagusitasunak eragin dituela ordezkartzeko sistemaren hutsune eta gabeziak, baina era berean, gogoan izan behar dugu, besteak beste, Fraserrek (2000), Della Portak (2017) eta Subiratsek (2012) dioten bezala, aldagai ekonomikoez gain, aldagai politikoak ere egon badirela; izan ere, eskubide zibil eta politikoak gutxi batzuen pribilegioak izan baitira.

Edonola ere, demokrazia eredu bakoitzak era ezberdin batean ulertuko du erakundearen eta herritarren arteko harremana, eta are anitzagoak dira egungo gabeziei aurre egiteko formulatzen dituzten proposamenak, arestian ikusi dugun moduan. Partaidetza politikoaren begirada eta testuingurua zeharo aldatuko da pentsamendu arautzaile batetik bestera. Liberalismoarentzat gizarte zibilaren autonomia Estatuaren interferentziarik gabe definitzen den bitartean, neoerrepublikanismoak Estatuaren esku-hartzea sustatuko du zapalkuntza saihesteko tresna gisa. Autonomiaren ikuspegiak, aldiz, herritar antolatuei erabateko zentralitatea emango die, partaidetza politikoa lehenetsiz. Azken batean, pentsamendu edo antolaketa eredu bakoitzaren arabera, herritarren eta eragile sozialen rola ezberdin ulertuko da, rol pasiboetatik aktiboetara mugituko den *continuum* bat irudikatu genezake Viejo et al. -en sailkapena oinarri hartuta gurera ekarri dugun analisian. Horrela jasotzen du Blasek (2005) ere demokrazia sistemaren baitan parte-hartze mailak irudikatzen dituenen:

2. Irudia: **Parte-hartze mailak demokrazia sisteman**

Demokrazia ordezkatzailerak

Demokrazia zuzena



Iturria: Blasek sortua (2005)

Bestalde, ikerketa lan honetan, herri mugimenduen zein herritarren eta erakunde instituzionalen arteko harremana aztertuko dugunez, bereziki demokrazia parte-hartzaile eta erradikalaren ikuspegietatik eratorzen diren proposamenei eskaini diegu protagonismoa. Era berean, atal enpirikoan jorratzen ditugun kasuak ordezkartzeko demokraziaren marko juridiko politikoaren baitan garatu diren arren, esperientziak demokrazia parte-hartzaile edota erradikaletik hurbilago daudela esan dezakegu, formulatu diren elkarlanerako edota sare gobernantzarako prozesuengatik bereziki, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Sailkapenak sailkapen, gizarte zibilaren eta erakunde instituzionalen edota Estatuaren arteko harremana auzitan dagoela dirudi. Ez da gai berria, aspalditik datorrena baizik, baina demokrazia berrasmatu, berrikusi, birpentsatzeko proposamenak gaur egungo eztabaida teoriko eta politikoan ere presente daudela esan dezakegu. Batik bat, ezkerreko ikuspegi batetik, sozialismoa gaurkotzeko egin diren ahalegi-
nen perspektibatik (Laclau y Mouffe, 2001; Santos, 2005; Calle, 2015). Demokratizazioarako estrategiak adiera ezberdinak dituela ikusi dugu aurreko atalean, baina antzekotasun handiak nabarmentzen dira parte-hartzezko demokraziaren aterkipean kokatzen diren ikuspegiaren artean. Santos (2005) eta Miyaresek (2003) adibidez, prozesu bikoitza aipatzen dute, batetik Estatuaren logikarekin lotuta, eta, bestetik, gizarte zibila edo komunitatearen demokratizazioari erreferentzia eginaz. Bestalde, Ibarrek (2011) dio bi eremuen arteko lankidetzaren espazioak zabaltzea ezinbestekoa dela, partaidetza politiko konbentzionala zein bestelakoek ahalbidetuko dituztela egun herritar eta erakundearen arteko urruntasuna eta gobernuen elitizazioarako joerak. Azken batean, aurrerago egingo dugun bezala ekintza kolektiboa eta partaidetzak protagonismo berezia dute ekarpen gehienetan. Badirudi herri mugimenduen praktikak eta parte-hartze politikoak oro har demokratizazioarako joerekin lotura dutela, hau da, sare kritikoen ekintzak erabakitze espazioetan eragina izan ohi dutela, herritarren interes orokorraren defentsan.

Sakondu dezagun zertxobait gehiago legitimitate krisiari aurre egiteko formulatzen ari diren prozesu demokratizatzailetan eta horiek aurrera eramango dituzten eragileen mapan.

2.1.4. **Herritarren partaidetza eta demokratizazioa**

Aipatu bezala, demokraziaren bilakaera oso lotuta egon da borroka sozial ezberdinetara, hau da, neurri handi batean ekintza kolektiboak demokraziaren itxuraldatzea ekarri duela diote McAdamek, Tarrowk eta Tillyk (2005). Martí i Puig eta Ibarrek¹⁷ esanetan, autore horien lanaren berritasuna ekintza kolektiboa aztertzeke darabilten ikuspegiaren legoke. Izan ere, ordura arte nagusi ziren begirada analitikoaren zurruntasuna kritikatu dute, ekintza politiko konbentzionala (batik bat, hauteskundearen parte-hartzea) eta ez

17 McAdam, Tarrow eta Tillyren (2005) liburuaren gaztelarazko bertsioan, Martí eta Ibarrek egiten dioten hitzaurreari erreferentzia eginaz.

konbentzionalaren (mobilizazio eta protestak) arteko banaketa hertsia auzitan jarriz. Ekintza kolektiboaren analisirako elkarreraginaren ikuspegia formulatuko dute, eta aipatu ditugun bi eremu politikoen arteko harremanaren garrantzian legoke ekarpen teoriko horren berritasuna:

«Dinámica de la contienda política se constata que la interacción de –y éntre– las “dos contiendas” supone una dinámica consustancial a la actividad política y de su evolución (de la misma forma que el concepto “Política” muchas veces se define a partir de la tensión conflicto regulación) y, por tanto, como los generadores de procesos históricos complejos como la democratización de regímenes, la creación de naciones-estado, la independencia de colonias, las revoluciones o las olas de protesta.» (Martí i Puig eta Ibarra, 2005:4)

Beraz, ordura arte nagusitzen zen bi eremu politikoak aztertzekeo begirada klasikoa, hau da, ibilbide paraleloak zituzten dimentsioak zirela ziurtatzen zutenen posizio teorikoa auzitan jarriko dute. Eta autore hauen aburuz, politikaren analisiak bi horien arteko harremana aztertzea lekarke halabeharrez. Begirtzeko moduari, hortaz, erreferentzia egingo diote, harremanean argi fokua jarriz, eta eragile eta eremuen arteko elkarreragina erdigunera ekartzea proposatuko dute. Bidegurutze horietan leudeke demokratizazio eta desdemokratizazioen gakoak. Hau da, alderdiak, herri mugimenduak zein presio taldeek eremu instituzionalean zein ez instituzionalean dituzten harremanek eraldatuko dituzten testuinguru politikoak. Finean, eremuen arteko iragazkortasunak hartuko du protagonismoa eta horien baitan suertatu ohi diren jarduerak aztertzea beharrezkoa litzateke McAdam, Tarrow eta Tillyren (2005) esanetan.

Demokratizazioaren eta desdemokratizazioaren jatorrian zein ondorioetan sakondu zuen Tillyk (2010); prozesu jarrai gisa aztertu behar direla nabarmenduko du, eta ez urrats simple edo mekaniko moduan. Beraz, prozesu horien harreman irizpideak kontuan hartzea proposatzen du soziologo estatubatuarrek. Demokrazia prozesu errealean zein gatazkatsua litzateke, eta ez prozedura formal bat. Halaber, Estatuaren eta herritarren arteko harreman eredu bati egingo dio erreferentzia. Harreman eredu horrek ezaugarri hauek lituzke:

«La democratización es el aumento de la amplitud y la igualdad en las relaciones entre agentes del gobierno y los miembros de la población súbdita de dicho gobierno; de la consulta vinculante a la población súbdita del gobierno respecto al personal, los recursos y las políticas del gobierno; y de la protección de esa misma población (especialmente de las minorías presentes en su seno) frente a actuaciones arbitrarias de los agentes de gobierno.» (Tilly, 2007:13)

Demokratizazioa prozesu politiko moduan ulertzeak hiru dimentsio hauek ezberdintzea dakar: politika publikoak, kontienda politikoa eta eragile-herritarren arteko harremana. Politika publikoaren esanahia ikusgarriak diren eragile politikoen arteko elkarreraginari deritzo, gobernuko eragileak barne. Kontienda politikoa, berriz, politika publikoen baitan kokatuko da, eta eragileen arteko aldarrikapen oro barnebilduko ditu. Eta eragile-herritarren arteko harremanak gobernuaren eta horren mendekoen arteko elkarrekintza oro barnebiltzen ditu.

Tillyren (2007) esanetan, demokratizazioa herritar-eragileen arteko harremanaren baitan ematen diren aldaketa zehatz hauetan oinarrituko da: *hedapena*, *berdintasuna*, *babesa eta kontsulta lotesleak*. *Kontsulta loteslea* izan behar dela dioenean esan nahi du Estatuak beteko dituela herritarrek hartutako erabakiak. *Hedapenak* Estatuak bere jurisdikzioarenpean dauden herritar guztiak barnebilduko dituela esan nahi du.

Babesak herritarrei bidegabekeriaren aurrean eskaini beharreko zaintzari egingo dio erreferentzia, eta *berdintasuna* eskubideen unibertsaltasunarekin lotzen da. Aldagai hauek guztiek Estatuaren demokratizazio eta desdemokratizazio maila adieraziko lukete.

Era berean, aurrez aipatutako politika publikoa, kontienda politikoa eta herritar eragileen arteko harremanak bereiztea garrantzitsua dela dio Tillyk (2007), demokratizazioa herritar eragileen arteko harremanen baitan ematen diren aldaketetan gorpuzten baita. Eta aldaketa horiek politika publikoa eta kontienda politikoa sortuko dituzte. Demokratizazioa lotura duten hiru eremu hauetan gauzatuko litzateke: politika publikoetan, kategorien arteko ezberdintasunean eta konfiantza sareetan. Soziologoaren aburuz, demokratizazioa gauzatuko da, batetik, politika publikoetan parte hartzeko aukera berdintasuna dagoen neurrian; bestetik, herritarren parte-hartze politikoan kategorien arteko ezberdintasun sozialak (generoa, etnia, erlijioa, klasea..) murrizten diren neurrian; eta, hirugarrenik konfiantza sareetan integrazio mailaren arabera. Demokratizazioa emango da, hortaz, hirugarren guztiak kontuan hartzen dituen partaidetza politikoa ematen denean.

«Solo allí donde cambios positivos en la integración de las redes de confianza, el aislamiento de las desigualdades entre categorías y la transformaciones internas relevantes de la política pública coinciden, aparece una democracia efectiva y duradera» (Tilly, 2007:13)

Estatubatuarraren esanetan, demokrazia prozesu dinamikoa bezain konplexua da, atzera egiteko arriskua duena, eta, honenbestez, demokratizazioa eta desdemokratizazioa azalduko dituzten prozesu eta baldintzen gakoak identifikatu nahi badira, kategorien ezberdintasunak, konfiantza sareen integrazioa eta herritar eragileen arteko harremanak eraldatzen dituzten prozesu kausalak aztertu beharko genituzke. Norabide horretan, parte-hartze politikoaren –konbentzionala eta ez konbentzionala– irekitasuna erabakigarria izango da, demokrazian sakontzeko. Hau da, aurrerago aztertuko ditugun mekanismo deliberatzaile eta parte-hartzaileek ahalbidetuko lukete, erabaki politiko eta herri eragileen nahien arteko hurbilketa (Ibarra, 2011). Harremanak gatazkatsua zein konfluentziatzatko izan daitezke, baina soilik herritar eta ordezkarien arteko elkarlanak eragotziko dituzte demokrazia-aren desitxuratzeak edota desdemokratizazio prozesuak.

Ikerketa lan honetarako, McAdamek, Tarrowk eta Tillyk (2005) proposatzen duten begiratzeko modua lagungarria zaigu, gobernu eta sare kritikoaren arteko harremana era dinamikoa eta elkar eraginean sakonduz aztertzeko asmoa baitugu. Alegia, ekintza kolektiboaren sustatzaileek hurbileko gobernuarekin duten hartu-emanen azpimarra eginez. Dena dela, elkarreragina aurrerago azaltzen dugun moduan sare gobernantzak eskaintzen dizkigun analisirako adierazleak bitartez jorratu dugu. Marko teorikoaren hirugarren kapituluaren sakontzen dugu gai horretan.

2.2. Herriaren partaidetza eta demokratizazio-prozesuen eragileak: gizarte mugimenduak, ezkerreko alderdiak eta ezkerreko gobernuak

Jarraian, tesiaren marko teorikoaren bigarren atalari hasiera emango diogu. Oraingoan, aurrez aipatu ditugun herriaren partaidetza eta demokratizazio estrategien baitan agertzen diren eragileengan jarriko dugu fokua. Izan ere, gure ikerketaren helburu nagusia gizarte mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko harremana aztertzea bada, harreman hori osatzen duten eragileen definizioa eta elkarren arteko harremanarekiko dituzten posizioak eta jokabideak aztertzea beharrezkoa ikusten dugu. Hori dela eta, atal honek, herri mugimenduen, ezkerreko alderdien eta ezkerreko gobernuen kokapena eta ezaugarritzea du helburu. Beriziki sakonduko dugu herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko elkareraginean. Eragileen harremanen ibilbideetan eta elkareragineetan sakondu nahi genuke, bigarren dimentsio honek bat egiten baitu bete-betean atal enpirikoarekin, hau da, ez zaigu hainbeste interesatzen aktore bakoitzaren ibilbidea eta horietako bakoitzaren ikuspegi teorikoan sakontzea, baizik eta bata bestearekin izan duen edo izan dezakeen eragin eremuan. Finean, demokrazia ereduen eztabaidarekin batera, subjektu lidergotza eta artikulazio politikoaren eztabaidari ere tarte eskaintzen diogu. Hiru aktore politikoaren arteko harremanak hari-mutur asko ditu, eta elkarren arteko eraginak edota harremanek zer esanik ez. Edonola ere, esan bezala hiruki horren baitan bereziki mugimendu eta ezkerreko gobernuena litzateke guri gehien interesatzen zaiguna:

3. Irudia: Demokratizaziorako prozesuen subjektuak



Iturria: Egileak berak egina

Aipatzekoa da ezkerreko mugimendu eta gobernuen esperientzien artean, Hego Ameriketako azken hamarkadetan eman diren kasu ezberdinak —Bolivia, Venezuela, Ekuador, Brasil eta abar—. Chávezek, Garavitok eta Barrett-ek (2008) argitaratutako liburuan aztertzen dira norabide horretan emandako esperien-

tziak. Ikerlariok hainbat herrialde aztertuko dituzte herri mugimendu, ezkerreko alderdi eta gobernuen ikuspegitik, eta horixe da gure analisia burutzeko erabili dugun perspektiba nagusia. Hego Ameriketako esperientzien gogoetan diharduten ezkerreko pentsalarien (Harnecker, 2013; Rauber, 2010; Zibechi, 2007; Garcia, 2016) artean, asko aipatzen da, norabide ezberdinetan noski, gizarte mugimenduen eta erakundeen arteko harremana, bereziki ezkerreko alderdiak gobernura heltzen direnean. Agerikoa da aspaldidanik eremu ezberdin horien arteko lankidetzaz ezaugarriak dagoela. Ezagunak dira eraldaketaz sozialerako historikoki formulatu diren bi bide nagusiak: *iraultza* eta *erreforma*. Santosek (2005:311) dioten moduan, lehenengo aukera Estatuaren aurka aritzeko bide bezala formulatu zen, eta, bigarrena, aldiz, Estatuak berak sustatu beharko lukeena litzateke. Bigarrenak hartu dio nagusitasuna lehenengoari. Gure ingurura begiratzea besterik ez dugu, horixe baita Europan bereziki nagusitzen dena. Portugaldarrak dioten moduan, beraz, Estatuak litzateke erreformaren objektu eta subjektua aldi berean. Erreformaren inguruabarrean aztertuko ditugu atal honetan herri mugimenduak eta ezkerreko alderdi zein gobernuak.

Era berean, demokratizaziorako subjektu ezberdinen arteko elkarrizketa (Chávez et al. 2008; Monedero 2008) beharrezkoa dela dirudi. Ekintza politikoaren aktore nagusien arteko ezaugarriak eraman gaituzte lehenik eremu bakoitzaren gaineko analisia egitera; ondoren, horien arteko elkarlana modu egokiago batean aztertu ahal izateko. Eragile politiko horien arteko harreman ereduak edo moduek ezaugarrituko dute demokratizazio prozesuen gaineko gogoeta.

Aktore hauen arteko harremana interesatzen zaigu, eta aurrerago ikusi ahal izango dugun moduan, ezkerreko indar politikoaren diskurtsoak eta praktikak lotura izango dute mugimenduek zehaztuko dituzten agenda gaurkotuekin, hala nola gutxiengo etnikoak, sexismoa, arraza, sexualitatea, aniztasun funtzionala, klasea eta bestelako *cleavage*ak edo haustura larriak azalduko baitira eremu publikoan, eta baita tokian tokiko ezkerreko gobernuen esperientzia ezberdinekin. Atal honetan, beraz, ezkerreko mugimenduen ezaugarriak akademiko eta politikoaren sintesia jaso nahi dugu. Eragileen arteko lankidetzaren argi-ilunak hobeto ulertzen lagunduko gaituelakoan gaude.

Hurrenez hurren, horietako bakoitza aztertu aurretik, aipatu nahi dugu hiru aktoreetatik demokratizazio prozesuetan esanguratsuenak (MacAdam, Tarrow eta Tilly, 2005) herri mugimenduenak litzatekeela, ez soilik zapalkuntza eta esplotazioaren aurkari gisa dihardutelako, baita ere kasu gehienetan demokratizazioaren sustatzaile nagusiak direlako. Bestalde, Estatuak, arestian aipatu bezala, erreformismoaren objektu eta subjektua dugu; hainbat kasutan, ezkerreko gobernuen esperientzia demokratizaziorako eremu bilakatu da. Eragile ezberdinen arteko partaidetza sarea eta gobernuaren irekitasuna (Ibarra, Salvador, Martí, 2002:12), Estatuaren erreformaren bereizgarrietako bat bilakatu dira. Elkarrizketak eta elkarlanak, dena dela, forma eta bide ezberdinak abiatu zituzten demokraziaren krisiari aurre egiteko bideorri gisa.

Beraz, mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko harremana era dialektiko eta dinamiko batean uler dezakegu. Era berean, alderdiek ere paper garrantzitsu bat joko dezakete. Chávezen, Garavito eta Barrett-en (2008) esanetan, adibidez, mugimendu sozialen jardunen zerbitzuetara dauden beso politikoak izan daitezke. Aurrerago ikusiko dugun moduan, badirudi alderdien bitartekaritza-funtzioa krisian dagoen garaiotan, herri mugimenduen ekintza politikoak presentzia handiagoa hartu duela, ezaugarriak teorikoe-tan behinik behin.

Jarraian, eragile bakoitzaren ezaugarritzean sakonduko dugu. Lehenik eta behin, herri mugimenduetatik hasiko gara, eta ekintza kolektiboaren analisen errepaso egin ondoren, mugimenduek eremu instituzionalarekiko duten jarrera ere izango dugu mintzagai. Bigarrenik, ezkerreko alderdiak aztertuko ditugu, eta horiek mugimenduekin izan dituzten hurbiltasun eta urruntasunak, eta azkenik, ezkerreko gobernuen begirada jorratuko dugu.

2.2.1. Herri mugimenduen funtzio demokratizatzailea

Lehenik eta behin, herri mugimenduen¹⁸ edo gizarte mugimenduen definizioetatik abiatuko gara, oparoa baita eragile horien inguruko teorizazio akademikoa. Era askotara definitu izan dira herri mugimenduak Gizarte Zientzien eremuan; korrante akademiko bakoitzaren arabera azpimarra egingo zaie subjektu horiek barnebiltzen dituzten dimentsio ezberdinei: antolaketa, identitateari edota mobilizazioari esaterako. Larañak (1999) dioen moduan, eragileon definizioa edo zedarritze teorikoa oso eztabaidatua izan da.

Zibechik (2007) dio, adibidez, herri mugimendu orok gizartearen inertzia apurtu nahi izango duela, eta historikoki antolaketa sozialaren baitan egokitu zaien kokapena ukatu, eta leku aldaketa izango dutela helburu. Riechmanek (2001), bestalde, eraldaketa sozialean esku hartuko duten eragile kolektibo gisa definituko ditu gizarte mugimenduak:

«Parece haber un consenso a la hora de señalar que los movimientos sociales suponen tanto un fortalecimiento de espacio público como una revitalización de la sociedad» (Riechman eta Buy, 2001:46)

Tillyren ustez, berriz, gizarte mugimenduak duintasuna, batasuna, kopurua eta grina adieraziz, botere harremanak ezbaian jartzen dituzten mobilizazio oldartsuak lirateke (aipatua Zubiaga, 2012:19). Finean, azpimarratzen dute herri mugimenduak indarrean dauden botere harremanak zalantzan jartzen dituzten eragileak direla; errealitatearen irakurketa kritikoa egingo dutenak, era askotako asimetriak erroetik aldarazteko asmoz.

Euskal Herrira etorrita, Martínez, Casadok eta Ibarak (2012) diote, gizarte sektore baztertuen egoerarekiko jarrera kritikoa azaltzeaz gain, egunorokoan beste logika batzuen arabera bizitza birsortzen saiatuko direla; hau da, praktika politikoaren bitartez, harreman, antolaketa eta elkarbizitza eredu berriak sustatu nahi izango dituztela, eta ondorengo hiru ezaugarriak esleituko zaizkie:

«1) Se trata de una forma de acción colectiva protagonizada por una variedad de organizaciones que, siempre que la represión, el control o la infiltración no lleven a funcionamientos clandestinos o semi-clandestinos, suelen ser de fácil acceso y estructura poco formalizada y jerarquizada. Organizaciones y colectivos que, manteniendo su autonomía, comparten un sentido de pertenencia o identidad colectiva en torno a un modo crítico e inconformista de comprender y estar en el mundo; denunciando y des-naturalizando determinadas estructuras de poder establecidas; 2) Expresan, por ello, mediante su capacidad creativa de discursos, mensajes y esquemas cognitivos, una serie de demandas y necesidades colectivas de interés general. Y lo hacen desde una lógica política de conflicto, señalando responsabilidades políticas e identificando adversarios a través de prácticas de movilización en ocasiones confrontativas y transgresoras; 3) Además, desarrollan propuestas y prácticas alternativas en construcción con voluntad de reclamar y prefigurar un horizonte emancipatorio sin subordinaciones, y por lo tanto inclusivo para todos los pueblos, para todos los grupos sociales y para todas las personas» (Martínez, et al., 2012:34)

¹⁸ Ikerketa lan honen hasieran aipatu bezala, herri mugimenduak eta gizarte mugimenduak erabiliko ditugu zapalkuntza ezberdinen subjektu askatzaile gisa, eta Martínez, Casadok eta Ibarak (2012:9) dioten moduan, menpekotasunei aurre egiteko formulatu dituzten ekarpen kognitiboak, harremanezkoak eta materialak aintzat hartuz.

Esan bezala, ikuspegi teoriko bakoitzak azpimarra egingo dio herri mugimenduen dimentsio zehatz bati. Dena dela, ikuspegi edo korrante ezberdinen artean adostasun handia dago Dianik egiten duen definizio honekin:

«Los movimientos sociales son procesos sociales diferenciados consistentes en mecanismos a través de los cuales actores comprometidos en la acción colectiva: 1) se involucran en relaciones conflictivas con oponentes claramente identificados; 2) se vinculan en densas redes informales; 3) comparten una identidad colectiva diferenciada.» (aipatua Della Porta eta Diani, 2011:43)

Definizio horretan, hiru kontzeptu hauek nabarmenduko dira: *ekintza kolektibo gatazkatsua*, *sare informal trinkoa* eta *identitate kolektiboa*. Ekintza kolektibo gatazkatsua dimentsioan diote herri mugimenduak gatazka politiko eta kulturetan inplikaturik daudela, eta aldaketa soziala sustatuko dutela edota gatazkari aurre egingo diotela. Gatazka horrela definituko dute: objektu ekonomiko, politiko edota kulturala kontrolatu nahi izango duten aktoreen arteko aurkakotasuna. Beraz, zehaztasun honek esan nahi du gizartearen arazoak formulatzeak edota zenbait baloreekiko adostasuna azaltzeak ez duela esanahi herri mugimenduen jarduerarekin bat datozenik.

Sare informal eta trinkoak ere aktore horien beste bereizgarri bat lirateke. Halaxe jasotzen dute:

«Un movimiento social tiene lugar en la medida en que actores tanto individuales como organizados, se comprometen en intercambios continuados de recursos en la búsqueda de metas comunes sin perder su autonomía e independencia.» (ibid.: 44)

Eta azkenik, identitate kolektiboari dagokionez, diote mugimenduak bereizten direla talde izaerak sarezen diren heinean, hau da, jarduera edota ekintza zehaztatik harago doazen atxikimenduak sortzen direnean. Beti ere, helburu komun batek eragiten duen zentzua eta konpromiso partekatuak eragingo duena. Talde bakoitzaren baitan ere partaide sentitzeko irizpideak oso aldakorrek direla nabarmendu nahi dute.

Eta herri mugimenduen definizioarekin amaitzeko, ezin ditugu aipatu gabe utzi kontramugimenduak. Izan ere, Ajangiz eta Barcenak (2001:11) dioten moduan, herri mugimenduen artean kasu gehinetan euren ekimen politikoak ikuspegi askatzaileetan oinarritu arren, gertatu ohi da ere aldaketa politiko, sozial edo kulturalari kontra egitea, eta horren adibide ditugu mugimendu tradizionalistak edota gaur egun Europa osoan zabaltzen diren neofaxistak. Della Porta eta Dianiren (2011) aburuz, kontramugimendua mugimenduei lotuta sortu zen terminoa da. Halaxe diote:

«Los contramovimientos surgen como una reacción al éxito obtenido por los movimientos sociales. A partir de entonces, ambos se mueven en una dependencia simbólica a lo largo de la movilización. En general, la relación entre movimientos y contramovimientos ha sido definida como una relación de conflictos vagamente conectados donde las partes rara vez se encuentran cara a cara.» (Della Porta eta Diani, 2011:268)

Herri mugimenduen kontra aritu diren mugimenduak ere egon badira. Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren, abortuaren edota homosexualen eskubideen aurka aritzen direnak adibidez. Ikerketa-lan

honetan, kontramugimenduak presentzia baduela esan dezakegu. Atez ateko sistemaren kontra sortuko zena, bertan kokatuko genuke. Ikerketa honen lan enpirikoan kontuan hartu ditugun arren, gure arreta nagusia herri mugimenduan kokatuko da nagusiki. Kontramugimenduen baitan ere koka daiteke, aurrerago gehiago garatuko dugun *Nimby-en –Not In My Back Yard*, ez nire etxeko baratzean edo patioan esanahi duena— fenomeno, interes partikularren defentsan antolatzen den mugimendu gisa definitu dena.

2.2.1.1. Ekintza kolektiboaren analisisiekiko hurbilketa

Jarraian, behin mugimenduen definizioa eginda, mundu akademikoan herri mugimenduen analisisen ibilbide historikoetatik formulatu diren planteamendu ezberdinen laburpena egiteko asmoa dugu. Korrante bakoitzaren ezaugarri nagusien sintesia egiten saiatu gara. Atal honetan, lau korrante ezberdin bereizten dira: ikuspegi arrazionalista, prozesu politikoen begirada, analisi kulturalista eta ikerketa ekintzaren ikusmoldea.

80 eta 90eko hamarkadetan bi ikuspegi analitiko gailentzen dira, batetik *ikuspegi instrumentala edo pragmatikoa*, amerikarrek garatuko dutena, eta bestetik, dimentsio kulturala eta identitarioa, korrante europarra aintzakotzat hartu zuena.

Batetik, *ikuspegi instrumentalaren* baitan, 70eko hamarkadan, soziologo estatubatuarrek ekintza kolektiborako mobilizatzen ziren baliabideen prozesuak aztertzen hasi ziren. Haien ustetan, mugimenduok ekintza politikoen forma konbentzionalak lirateke. Alegia, aktoreek euren interesen arabera, era arrazional batean konpromisoa hartuko dute, eta, beraz, antolaketeak eta mugimenduek ekintza kolektiboaren baitan protagonismo handia hartuko dute (Della Porta y Diani, 2011:36). Gizarte mobilizazioen analisisan, ikuspegi horri Baliabideen Mobilizazioaren Teoria—*Resource Mobilization Theory RMT*— deritza (Gamson, 1990; McCharty, Zald eta McAdam, 1996), eta, aipatu bezala, mugimenduen nolakotasunari egingo zaio erreferentzia.

Arrazionalisten ikuspegitik, gizarte mugimenduak ondo hausnartutako helburu politiko eta zehatzak dituzten eragile arrazionalak lirateke, eta ez dira izango, beraz, bat bateko protesta hutsak. Honenbestez, euren eraginkortasuna behar adina baliabide bildu eta erabiltzeko ahalmenean ezaugarrituko da, «teoria horrek, hasieran behintzat, hautaketa arrazionalaren teoriaren eragin handia izan zuen eta arreta berezia eskaintzen zien pizgarriari (materialei eta sozialei), funtsean kostuen eta onuren kalkulu utilitarioen arabera jokatzeko duten gizabanakoak ekintza kolektiboan parte hartzeko erakarri, mobilizatu eta bertan eusteko beharrezkoa den baliabide horri» (Ajangiz eta Barcena, 2001:12). Ikuspegi honek, mugimenduen jatorrian dauden arazoak ez ditu kontuan hartuko, identitatearen dimentsioa salbuetsiz.

90eko hamarkadan, aldiz, Prozesu politikoen teoriak sortuko dira. Ikuspegi honetan Baliabideen mobilizazioaren teoriak ekintzaren inguruko ikuspegi arrazionalarekin bat egingo du, baina arreta handia eskainiko dio mugimenduek diharduten inguruabar politiko eta instituzionalari. Della Portak eta Dianik (2011) dioten moduan, Prozesu politikoen teoriaren fokuak aktore instituzional eta protesta sustatzen dutenen artean kokatuko dira.

Korrante honen baitan, Aukera Politikoen Egituraren—*Political Opportunity Structure; POS*— teoria (Tarrow, 1997) mugarririk bilakatuko da, aurrekoaren osagarri izango dena. Ekintza kolektiborako aukeren jatorrian dauden faktoreei arreta berezia jarriko die teoria honek; horren arabera, sistema politikoen irekiera eta itxiera mailaren arabera, mugimenduek mobilizazio estrategiak eta baliabideak doitu egingo dituzte.

Tarrowk (2004) ikuspegi hau jorratu zuen Italiako protesta zikloa aztertzeko, aldagai hauek hartu zituen kontuan: sarbide politiko formalerako irekiera edo itxiera maila, aliantza politikoen egonkortasun edo eze-

gonkortasun maila, hurbileko aliatuen kokapen estrategikoa eta eliteen arteko gatazkak. Ikuspegi honek arrakasta handia izango du herri mugimenduen analisian.

Prozesu politikoen ekarpenen baitan, esanguratsua da McAdam-ek, Tarrow-k eta Tilly-k egindako ekarpena. *Dinámica de la Contienda Política* (2003) liburaren bitartez, aktore, erakunde eta kontienda edo gatazka politikoen arteko harremanak aztertuko dituzte, eta horien bitartez, prozesu eta mekanismo kausalak identifikatzen saiatuko dira; demokratizazioan handitu eta murriztuaraziko dituzten prozesuak liriateke, hain zuzen. *Dynamics of contention* izenburu duen liburuan, ordura arte gizarte mobilizazioak begiratzeko eta aztertzeke modua ezbaian jarriko da. Ikerketa horrek borroka politikoen ikuspegi dinamikoak proposatuko du, politika konbentzional eta ez konbentzionalaren artean, eta bereziki prozesu sozialen baitan ematen diren sekuentzia eta mekanismo kausalen konbinaketan sakonduz (McAdam et al., 2003). Iraultzak, nazionalismoak eta estrategia demokratizatzaileak aztertuko dituzte. Gure ikerketaren ikuspegitik, hirugarren hau litzateke interesgarria.

Oro har, prozesu politikoen teorien bitartez esan dezakegu, azterketa eremua politika molde konbentzional eta ez konbentzionalen arteko harreman esparrura mugiaraziko da, ikuspegia zabalduz; gizarte mugimenduen gaineko bazterreko begiradatik aldentzen joango dira.

Bestalde, aipatu nahi dugu, ikerketa honen begirada zein den kontuan hartuta, McAdamek, Tarrowek eta Tillyk (2003) herri mugimenduak aztertzerako momentuan, azpimarratzen duten ikuspegi dinamiko, el-karreraginezko eta harremanezkoa. Autore hauek proposatzen duten tresna analitikoak erabili ez arren, euren planteatzen duten begirada interesgarria iruditzen zaigu, batik bat, ezkerreko gobernugintza espazioetan mugimenduek izan duten presentzia, parte-hartzea eta eragina aztertzerako orduan.

Bestalde, ikuspegi arrazionaleri kontrajarriz, proposamen kulturalista edota konstruktibista gisa definitu izan direnak ditugu. Horien artean, Gizarte Mugimendu Berrien (GMB) teoria kokatuko litzateke. Aktore hauen jatorria aztertzean legoke ikuspegi honen berritasuna. Mugimenduei leku ezberdin batetik begiratu zaie: diskurtso dominanteak desafiatzeko gai izango direnak eta errealitatea interpretatzeko eta definitzeko ezagutza berriak sortzeko subjektu gisa. Korrante honen baitan kokatzen diren autoreek (Melucci, 1999; Touraine, 2011) aktore berrien sorrera ikertuko dute. Ikuspegi honek, hortaz, arreta berezia jarriko du mugimenduen jatorrian dauden faktoreetan eta identitateen eraikuntzan:

«Si la RMT da por supuesto que los movimientos sociales son otra forma normalizada de comportamiento político, el enfoque de los Nuevos Movimientos entiende que son una forma distinta, un forma alternativa de conducta política colectiva». (Martínez, Ibarra, Casado 2012:12)

Azken batean, identitatea litzateke ikuspegi honen ardatza. Autore hauen esanetan, gizarte mugimenduak sortu dira jendartean ematen diren zenbait egiturazko krisien ondorioz, ekintza politiko ezberdinei bide emanaz. Finean, mugimenduen dimentsio sinbolikoa, adierazpenak eta hausturak nabarmenduko dira, eta esanguratsuen herri mugimenduen egunerokoa eta bestelako mundu ikuskera eta bizimodua sortzeko duten gaitasuna litzateke. Horrela laburtzen du begirada honen aldaketa Meluccik:

«hay que superar el legado dualista del siglo XIX (estructuras frente a representaciones, sistemas frente a actores sociales). Es necesario volver a plantearse la acción social a partir del proceso por el cual su significado se construye en la interacción social. (...) Son los actores sociales quienes producen el sentido de sus actos a través de las relaciones que entablan entre ellos» (Melucci, 1994:127)

Mugimendu berrien eta zaharren artean –bigarrenak batik bat langile mugimenduari erreferentzia eginez– ezberdindu beharko litzatekeela diote kulturalistek. Gatazkak eremu ekonomiko-industrialetik kulturalera eramatea proposatuko dute eta horrek identitate kolektiboa eraikiko duela diote.

Bestalde, herri mugimendu berrien (HMB) izendapena 60-70eko hamarkadan jaio zen; ikusmolde berri honek langile mugimenduaren zentralitatea ezbaian jarri zuen, eta, era berean, mugimendu feministak ordura arte bizi izan zuen gutxiespena agerian utzi zuen:

«Tal y como nos plantea Boaventura de Sousa Santos, el debilitamiento político de la identidad obrera y por ende del movimiento obrero, tanto en sus expresiones más espontáneas como institucionalizadas, permiten emerger la denuncia de formas de subordinación más allá de las relaciones de producción» (Martínez et al. 2012:16)

XIX. mendean kokatzen da mugimendu feministaren jaiotze-data, eta, beraz, ez litzateke mugimendu berriak hartu beharko. Nabarmena da, hortaz, herri mugimenduen analisian emakumeek gorpuztutako borrokek bizi izandako ikusezintasuna. 60ko hamarkadara arte garatutako analisietan langile mugimenduen protagonismoa erabatekoa da, eta HMBek kuestionatuko dute etengabe. Mugimenduen ikusmolde berri horrek gatazka sozial berriak azaleratuko ditu, eta ondorioz, marxismoaren analisi ideologikoetatik aldenduko dira, langile identitatea ez diren bestelako *cleavage*ak (etnizitatea, generoa, sexualitatea, ekologismoa..) aintzat hartuz.

Beraz, autore hauen arabera, mugimendu berrien sorrerak egunerokoaren birpolitizazioa dakar. Ekin-tza politikoa Estaturen egituraz gaindi doan perspektiba mahaigaineratuko dute, bereziki zapalkuntza eta botere asimetriki bizitzaren esparru guztiak zeharkatzen dituela dioskutenean. Eragileok politikoa zer den eta zer ez den eztabaidaren perspektiba zabaltzeko aldarria egingo dute, eta, horrenbestez, horien ustetan, eremu instituzionalera mugatzen den definizioa gainditzea (Melucci, 1999) ezinbestekoa litzateke.

Mugimendu berrien teorialarien arabera, eragile politiko eta sozial hauen sorrera modernitatearen krisiarekin eta egonezin kulturalarekin bat dator. Mugimenduok egitura kultural eta sozial baten aurka dihardute, patriarkatuan, produktibismoan eta militarismoan (Chihu y Lopez, 2007) zizelkatzen diren bizimoduaren kontra, alegia. Bestalde, MBek ere agerian utziko dute aro modernoak parte-hartze politikorako dituen ezintasunak eta gabeziak. Hutsune horien artean ere aipatzekoa da alderdi politikoena, aurrerago garatuko duguna.

Amaitzeko, sarreran aipatu bezala, *ikerketak ekintzaren ikuspegia* izango genuke. Begirada honek, aurretik gizarte mugimenduak aztertze modua auzitan jarriko du. Ikerlari eta ikergaiaren arteko harremanari kritika egingo zaio, *ikerlari subjektu* eta *ikertu objektuen* arteko asimetria arbuatuz. Ikerlariaren posizioa eta begirada kolokan jarriko da, alegia, ezagutzaren sakoneko helburuak bistaratu behar direla, eta ikerketok gizartearen duten ondorioen argi ilunak mahaigaineratu. Harawayk dioen ezagutza testuinguratuaz hitz egingo dute (aipatua in Letamendia, 2015:45). Ikerketa ekintza ikuspegiaren planteamendu dialektikoak bat egiten du herri mugimenduen praktikaren analisiarekin. Subjektuen ahalmena azpimarratuko dute, hausnarketa eta ekintza-prozesu kolektiboen bidez, ezaguera sortzeko, jakintzaren hierarkizazioa saihesteko eta merkatu logiketatik kanpo dauden prozesuak eraikitzearen gaitasuna nabarmenduz (Pereda eta Prada, 2015:14). Norabide horretan, epistemologia feministak eta dekolonialak ekarpen interesgarria egiten ari

dira gizarte mugimenduen ikerketaren eremuan¹⁹. Larrinaga eta Amurriok (2017:151) dioten moduan, orain arteko hurbilketa nagusiek, batik bat 70 eta 80ko hamarkadan nagusitu zirenek, ez zuten genero ikuspegia landu euren analisisetan. Alegia, ez zuten aintzat hartu genero kategoria, gizarte mugimenduen analisisan:

«Aun constatando los fenomenos reiterados de la infrarrepresentación de las mujeres en determinados campos participativos y militantes y su sobrerrepresentación en otros, estos no recibieron ni una atención sistemática ni una explicación verosímil, más allá de la problematización de la participación de las mujeres y de la atribución de la desigualdad a las “especificidades femeninas”, es decir, a la excepción de la norma.» (Larrinaga eta Amurrio, 2017:152)

Bi soziologoek dioten moduan, ekintza kolektiboa eremu publikoan zedarritzean, emakumeen partaidetzaren ikusezintasuna zekarren herri mugimenduetan. Izan ere, 80ko hamarkadara arte, ez da genero ikuspegia barnebiltzen duen ikerketa lerrorik ezagutuko. Ikusezintasun horrekin apurtu zuten bi erreferentzia aipatzen dituzte Larrinaga eta Amurriok (2017): batetik, Frantzian, Danièle Kergoat-ek argitaratutako lanak, eta, bestetik, Estatu Batuetan, Joan Acker, Verta Taylor eta Nancy Whittier. Epistemologia feministak agerian utzi du zientziak oinarri izan duen eta oraindik ere ikerketa askoren atzean dagoen jite sexista ezkutatzako ahalegina (Emagin, 2018:44). Norabide horretan azpimarragarria da SIMReFek²⁰ egindako lana; ikerlari talde honen esanetan, epistemologia feministak ikerketa prozesuetan kontuan hartu beharreko oinarriparrak hauek dira (aipatua Emagin, 2018:46):

- Ezagutza-subjektuaren eta ezagutza-objektuaren arteko harremana ezbaian jarri du.
- Ikerketa-prozesuan zehar gorpuzturiko botere-harremanak ikusgarri egin, eta irauli ahal izatea, edo lausotu ahal izatea
- Ikerketa-prozesuari buruzko gogoeta etengabea sustatzea, ikerketa-prozesua irekia izan dadin, birpentsa dezagun une oro.
- Ikerketa-prozesuan sorturiko kontraesanak onartu, eta horiei garrantzi epistemikoa aitortzea
- Ezagutza balioztatzeke prozesuak birdefinitzea.

Beraz, hurbilpen teorikoekin amaitzeko, ikusi dugun moduan, gizarte mobilizazioak aztertzeke, korrante bakoitza errealitatea ulertzeko mundu ikuskera ezberdin batetik abiatuko da. Instrumentalistek ekintza kolektiboa gizarte ereduaren ikuspegi eboluzionista eta itxi gisa ulertuko dute; prozesu politikoetako begiradek mugimendu eta erakundearen arteko harremanari eta mekanismo kausalei emango diete garrantzia, eta kulturalistek, aldiz, ikuspegi arrazionala baztertu eta gizarte mugimenduak errealitatea ezbaian jartzeko gaitasuna balioan jarri nahi izango dute. Azkenik, ikerketa ekintza parte-hartzailearen ikuspegitik, gizarte mugimenduen balio epistemikoa nabarmenduko dute, errealitatearen eta ezagutzaren esparruan izan duten trataera auzitan jarriz.

19 Ikuspegi horretan sakontzeko ondorengo lan honetara jo daiteke: *Ikerkuntza feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak*. (2015) Barbara Biglia, Ochy Curiel, Mari Luz Esteban. Bi Lan-Koadernoak/Cuadernos de Trabajo Hegoa, 67. zbk., 2015. Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

20 SIMReF (Seminario interdisciplinar de Metodología de Investigación Feminista) Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat ikertzai-leek osatzen duten ikerketa eta gogoetarako gunea da, eta ikerketa eraldatzailea helburu duten metodologiak eta epistemologiak dituzten aztergai. (ikus <<http://www.simref.net>>)

6. taula: **Ekintza Kolektiboen Analisia**

Ikuspegiak	Ezaugarri nagusiak	autoreak
Ikuspegi arrazionalista	<ul style="list-style-type: none"> • 70eko hamarkadan • Ekintza kolektiboen baliabideak aztergai • Mugimenduak ekintza kolektiboaren forma konbentzionalak 	McCarthy eta Zald (1996) Olson (1992)
	<ul style="list-style-type: none"> • Baliabideen mobilizazioaren teoria 	Gamson (1990)
Prozesu politikoaren begirada	<ul style="list-style-type: none"> • 90eko hamarkadan • Arreta jarriko dute mugimenduen inguruabar politiko eta instituzionalen. • Protesta eta erakundeen arteko eremua aztergai 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Aukera politikoaren egituraren teoria 	Tarrow (1997)
	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazka politikoaren dinamika 	McAdam, Tarrow eta Tilly (2003)
Analisi kulturalista	<ul style="list-style-type: none"> • 60-70eko hamarkada • Gizarte Mugimendu Berrien Teoria (GBT) • Diskurtso dominanteak desafiatzeko eta errealitatea interpretatzeko ezagutza berriak • Identitatea ikuspegi honen ardatza 	Melucci (1999) Touraine (2011)
Ikerketa ekintzaren ikusmoldea eta epistemologia feminista	<ul style="list-style-type: none"> • Ordura arteko begirada ezbaian jarriko dute • Ezagutzaren sakoneko helburuak bistaratzeko beharraz dihardute • Ezagutza kokatua • Hegoaldeko epistemologiak 	Santos (2005) Haraway (1991) Emagin (2018)

Iturria: Egileak berak egina

2.2.1.2. Herri mugimenduen portaera politikoak eremu instituzionalaren aurrean

Jarraian, ehundura sozialaren eragin-esparruan arreta berezia jarri nahi genuke. Aurrerago, herri mugimenduen eta instituzioen arteko elkarlanerako egitura eta mekanismoak izango ditugu mintzagai. Orain, ordea, herri mugimenduek eremu instituzionalarekiko dituzten posizio ezberdinak bilduko ditugu. Abiapuntu horrek era batean edo bestean baldintzatu baitezake aktore politikoaren arteko hartu-emanak.

Gurean posizio bat bainoago, bi begirada bildu nahi izan ditugu: batetik, instituzioen birjabetze prozesuaz arituko direnak. Hauen esanetan, herri mugimenduek protagonismo berezia izan beharko lukete, eta instituzioen gobernantza eredu berriak formulatu beharko liriateke; esate baterako, lehenengo atal teorikoan aipatu dugun moduan, parte-hartezko demokraziaren baitan zein erradikalean multzokatu ditugun proposamen gehienek, gizarte zibilaren protagonismoa eta sare anitzak barnebilduko dituzten gobernugintza ereduak proposatzeko dituzte. Aipatutakoaren artean dugu Santos-en (2005) *demokrazia*

birbanatzailea edota Calleren (2015) *demokrazia erradikala*. Kasu hau litzateke gure ikergaiarekin lotura duen perspektiba. Izan ere, atal enpirikoak aztertuko ditugun ikerketa-kasuetan, batik bat erakundeekin elkarlanean aritu diren herri mugimenduen partaidetza sarea aztertu baitugu.

Beste muturrean, aldiz, herri mugimenduen autonomia aldarrikatu duen korronea legoke. Demokrazia garaikideei kritika zorrotza egingo diete, eta herri mugimenduek behetik gora eraikitako espazio autonomoen defentsa sutsuan oinarrituko dira. Komunitatean, eremu txikian, autonomoki eta herri mugimenduen berezko logiketan autozentratuko den estratagiaren alde lerrokatuko dira.

4. irudia: **Gizarte mugimenduen portaera politikoa erakunde publikoekiko**



Iturria: Egileak berak egina

Bigarrenek, garrantzi handiagoa emango diote autonomoki sortuko diren estrategia askatzaileen erai-kuntzari, hau da, komunitatea sortu eta birsortzen lagunduko duten planteamenduei. Merkatu eta Estatu liberalaren logika arautzaile nagusietatik urruntzeko beharra azpimarratuko dute, interlokuziorako auke-rak baztertuz. Zibechik (2007) dioen moduan, ikuspegi honen arabera, Estatuak ez lirateke instrumentu egokiak izango harreman askatzaileak sortzeko. Hego Ameriketako hainbat esperientzietatik zer ikasia badugula ere mahaigaineratzen du pentsalari uruguaiarrak:

«En algunos países el ascenso al gobierno de fuerzas progresistas ha conseguido debilitar los movimientos a través de la cooptación de unos sectores y el aislamiento de otros. No podemos pasar por alto estas experiencias sino extraer de ellas enseñanzas para evitar la desarticulación de los sectores de lucha. En estos momentos en todo el continente va cobrando forma una coyuntura pautada por el acceso al gobierno de fuerza de izquierda progresista, lo que constituye un desafío inédito para los movimientos sociales» (Zibechi, 2007:25)

Oro har, ikusmolde honen baitan kokatzen diren praktikak, aktibista eta pentsalarien ustez (Holloway, 2005; Guitierrez, 2017; Batzorde Ikusezina, 2007; Hardt eta Negri, 2009), herri mugimenduek logika ad-ministratibotik urrundu beharko lukete, berezko botere eraldatzailea galtzeko arriskua baitute bestela. Instituzioen logika arautzaileak eta goitik behera markatutako agenda politikoek euren lan jarduna eta izana desitxuratzeko arriskua handiegia dela diote. Mugimenduen ekintza politikoari —mobilizazioa eta protesta— esker gobernu aldaketak eman arren, logika instituzionalarekiko mesfidantza ugari izango di-tuzte. Finean, demokratizazioa desitxuratzeko arriskua dagoela diote.

Era berean, Estatu edo aginpideen burujabetza geroz eta zalantzarriagoa dela diote, egitura institu-zionalak merkatuaren zerbitzura dauden egitura politikoak direla nabarmenduz, eta, hortaz, elite ekono-mikoak zuzendutako amaraun instituzionalean eragin baino, zapalkuntzarik gabeko komunitate berrien sorreran jarriko dute indarra. *Kontraboterea* eraikitzen lagunduko duten eragile multzo gisa definituko

dute euren burua. Begirada edo posizio honen aldekoen esanetan, espazio horiek izango lirateke modu bakarra bizitzeko eta harreman askeak izateko. Asko dira, Hego Ameriketara zehar bereziki, komunitatea eta kontraboterea sortzeko dinamika autonomoak abian jarri dituzten mugimenduak. Zapatismoa litzateke horren erreferenteetako bat, nahiz eta, gaur egun Mexikoko 2018ko²¹ hauteskunde presidentzialisteara hautagai indigena eta emakumea (Diagonal, 2016.10.15) aurkeztu. Boliviako zenbait borroka indigena edota Hego Ameriketako komunitate indigenen autoeraketa komunitarioak korrante honen adibideak ere badira. Gurean, aldiz, kontsumo taldeak, mugimendu feminista autonomoa edota okupazio mugimendua lirateke pentsamendu korrante horren isla.

Azken batean, bigarren ikusmolde honen arabera, egunerokoan eta txikitasunetik sortzen eta egiten diren komunitate hauetan elkartasunean oinarritutako harremanak erdigunean egongo dira, eta espazio komunaren jabetza kolektibizatzearen alde azalduko dira; era berean, pertsonen arteko harreman eta lotura berriak eraiki nahi izango dituzte.

Arestian aipatu dugun lehenengo posizioa bueltatuz, zenbait mugimenduren artean ezkerreko gobernu edo instituzioekin lan egitearen alde dagoen posizioa topatzen dugu. Hurrengo lerrootan, ikuspegi honen inguruko xehetasunak laburbiltzen saiatu gara. Dena dela, korrante honen baitan kokatzen diren autoreek diote (Zibechi, 2008; Hardt eta Negri, 2004), ezkerreko alderdien lorpenek kasu gehienetan zerikusirik handia dutela herri mugimenduen borrokekin, eta, era berean, eragile horien garaipena ere badela alderdi aurrerakoien garaipen elektoralak. Ibilbide horien bueltan asko idatzi da, bereziki Hego Ameriketako Bolivia, Venezuela eta Ekuadorreko ezkerreko gobernuen osaketaz geroztik.

Ibilbide horien analisisian, Zibechik (2009) adibidez bi genealogia ezberdindu ditu: batetik, egonkortasun testuinguru batean, aldaketaren indarrak gobernura helduko diren kasuak, esperientzia duten gobernu taldeekin —Brasil, Chile eta Uruguay—, eta, bestetik, egitura instituzionala osorik zalantzan jarriko duten mobilizazioek eragindako aldaketa —Bolivia, Ekuador eta Venezuela—.

Elkarlanaren alde kokatzen diren aktibistek zilegi eta beharrezkoa ikusiko dute ezkerreko instituzioekin lankidetzan jardutea; gobernantza partekatuen alde kokatuko dira, *policy making*aren alde lerrotatuz (Ibarra, Gomá eta Martí, 2002). Deliberazio espazioetan parte hartuko lukete, beraz. Boliviaren kasuan adibidez, «herri mugimenduen gobernu» gisa izendatzen du Moira Zuazo (2010) Boliviako analista politikoak. Azken batean, lankidetzaren eremu hori logika instituzionalaren eraldaketa gisa planteatuko du autoreak. Erabakimen prozesuak zabaltzeko eta jendarteari protagonismoa emateko bide moduan irudikatzen du autoreak, ehundura sozialaren jarduna.

Ikuspegi batean zein bestean, herri mugimenduen funtzio demokratizatzailea nabarmenduko da, erakundearen eremuan zein hortik kanpo, eta arestian aipatu bezala, azken hamarkadotan, demokratizazioaren planteamenduen artean, azpimarra berezia egingo zaio gizarte mugimenduen lan jardunari. Demokrati-zaziorako oinarritzko aldagai gisa aurkeztuko da. Logika instituzionala birsortzearen aldeko ahotsak direla esan dezakegu. Arestian aipatu dugun partaidetzako demokraziarekin bat egingo dutenak.

Ondoren, arestian aipatutako posizioen inguruko xehetasunak jaso ditugu, jakinda sailkapeneko oro har dituzten mugak eta sinplifikaziorako joerak:

21 «A propuesta del EZLN se aprueba durante el quinto Congreso Nacional Indígena (CNI) una consulta a los pueblos originarios para la creación de un Consejo Indígena de Gobierno y una candidata indígena independiente a las elecciones presidenciales mexicanas de 2018». Diagonal. <<https://www.diagonalperiodico.net/global/31874-dia-zapatismo-volvio-proponer-cambiar-mundo.html>>

7. taula: **Herri mugimenduen posizioa erakundeekiko**

Lankidetzaren aldeko jarrera		Autonomiaren aldeko jarrera
Artikulazio eta lankidetzaren esparruak eraikitzea	Estrategia	Erabateko autonomia lantzea ekimeneren baitan
Sare gobernantza eta demokrazia erradikala	Helburua	Komunitatearen autoeraketa eta bizimodu askeen eraikuntza
Herri mugimenduak, herritarrak eta ezkerreko gobernuak	Eraldaketa-erako subjektuak	Herri mugimenduak eta herritarrak
Ezkerreko instituzionalitateak	Erakundetzea	Komunala
Mugimendu feminista (emakume kontseiluak) Mugimendu ekologista (Agenda 21)	Esperientziak	Zapatistak Okupazio mugimendua
Santos Rauber Ibarra Harnecker	Autoreak	Zibechi Holloway Hardt Negri Comite invisible.

Iturria: Egileak berak egina, Bartolo (2015:18) oinarri hartuta

Beraz, erakundeekiko posizioei dagokienez, kasu honetan ere, *continuum*aren ideia ekarri nahi dugu gogora. Eta horietako hertz bakoitzean daudenak dira goiko koadroan jasotzen direnak. Batetik zein bestetik dituen tarteko kokapena egon arren, muturretan hauek leudeke: batetik, eragileen arteko lankidetzaren alde dihardutenek eta, bestetik, taldeen autonomia estrategia eta izaera gisa irudikatzen dutenak.

Amaitzeko, beraz, badirudi ezkerreko indar politikoen artean, herri mugimenduen jarrera lankidetzaren aldekoa edo kontrakoa izan, euren jardunaren garrantzia goraiatu egiten dela, eremu horren indartze estrategiak hauspotu behar direla jasotzen denean bereziki. Ezberdintasun nabariak daude, ordea, herri mugimenduen, alderdi edo ezkerreko gobernuen arteko artikulazioaren eztabaidari heltzen zaionean. Herri mugimenduen baitan, badira posizio ezberdinak ezkerreko alderdi politiko eta ezkerreko gobernuekiko harremanaz dihardutenean. Batetik, autonomia osoaren aldekoak leudeke, hau da, artikulazioaren arriskuez jabetun, herri mugimenduen borroka lehenetsiko duten posizioak. Zibechik (2007) dio Estatua ez dela tresna egokia harreman askatzaileak sortzeko, eta hainbat herrialdeetan, non indar aurrerakoiek gobernura heltzea lortu duten, herri mugimenduak indargabetu dituzte.

Azken batean, autonomiaren aldekoek diote herri mugimenduak mugimendu demokratizatzailea izaten jarraitu nahi badu, autonomia ezinbestean mantendu behar duela, eta bere eremua beste hauteskunde logikatik eta balizko burokratizazio zein dependentzietatik babestu beharko lukeela. Arestian esan bezalaxe, Zapatistak edo, Euskal Herrira ekarrita, okupazio mugimendua edo kontsumo taldeak lirarteke posizio horren adibide bat:

«Son redes que tienden a la constitución de espacios al margen de la organización social generalizada, que pretenden construir un espacio propio de consumo, de ocio, de ideología, al fin al cabo de vida» (Ibarra, Martí eta Gomá, 2002:252).

Bestalde, kontrako muturrean, herri mugimenduen eta ezkerreko alderdi zein gobernuen arteko artikulazioaren aldeko posizioa legoke. Berrikuntza demokratikoetan, gizarte eragilei ahotsa eta protagonismoa ematek datorrela uste dutenak, hain zuzen ere. Gobenuz gisa erabiltzea era partekatuta batean edo sare gobernantza gisa ulertuko litzateke kasu honetan, eta horretarako, parte-hartze instituzionalerako mekanismo edo dispositibo berriak formulatuko dira. Kokapen honen adibideak lirateke Boliviako sindikatu eta alderdiaren arteko aliantza, Brasilgo Langileen Alderdia edo Uruguaiako Fronte Zabalaren kasuak.

2.2.2. Ezkerreko alderdiak: bitartekaritza funtzioa ezbaian

5. irudia: **Demokratizazio prozesuen aktoreak**



Iturria: Egileak berak egin.

Jarrian, demokratizazioaren aktore politikoaren atalean aipatu bezala, bigarren eragileari helduko diogu. Hamarkadetan partaidetza politikoa ezaugarritu duten antolaketa moldeak aletzen saiatu gara. Halere, ezkerreko alderdien inguruan sakondu aurretik, aktore horien hurbilpen orokor bat egitea komeni dela uste dugu. Izan ere, Estatuaren eta gizartearen artean diharduten bitartekari nagusiak izan dira orain arte. Azken batean, sistema demokratikoaren baitan, jendartearen iritzi eta premiak erakundeetara bideratzeko funtsezko eragile politikoak dira. Nahiz eta, aurrerago ikusiko dugun moduan, gaur egun, bitartekaritza funtzioa auzitan dagoela dirudien. Della Porta (2017:37) dioskun moduan, alderdien bilakera ikertu dutenek diote II. Mundu Guerra geroztik alderdiak erakundeetara hurbiltzen joan direla, gizarte zibiletik urrunduz.

Kasu honetan, herri mugimenduen alorrean bezala, alderdien definizio eta ezaugarritzean erreferentzia ugari topatu ditugu (Sartori, 1997; Panebianco, 1995; Katz y Mai, 2002); Sartorik era honetan definitzen ditu alderdi politikoak:

«Cualquier grupo político identificado por una etiqueta oficial que presenta a las elecciones y puede sacar en elecciones (libres o no) candidatos a cargos públicos» (Sartori, 1980).

Edonola, Barcenak (2004) dioten moduan, alderdi politikoaren kontzeptualizazioa denborarekin aldatuz joango da, zeharo ezberdina izango da adibidez Frantziako Iraultzan emango den definizioa, hurrengo hamarkadetan esaterako Max Weberrek ematen duenarekin alderatuta, hark honela definitu zuen: alderdi politikoa helburu jakin batekin, modu objektiboan —programa bat burutzeko— edo pertsonalean —mozkinak eta boterea lortzeko— antolatzen den elkarte litzateke (aipatua Martínez Sospedra, 1996:18).

Definizio guztien antzera, ikuspegi analitikoaren eta inguruabar historikoaren arabera, indarra emango zaie faktore ezberdinei. Nolanahi ere, guztietan nabarmenduko da gizarte zibilaren eta Estatuaren artean zubi lana egiten duten erakundeak izan direla. Azken finean, alderdien funtzio nagusiarekin lotuko dituzte. Birtartekaritza bi norabideetan emango da, batetik, ordezkatu eta ordezkarien artean, eta honen baitan, hiru zeregin nagusi aipatzen dira: jendartearen premiak egituratzea, bozka bideratzea eta sozializazio politikoa sustatzea. Bestetik, ordezkari eta Estatuaren artean, beste hiru funtzio nagusi identifikatzen dira: ordezkari politikoa biltzea eta aukeratzea, politika publikoaren diseinua eta, hirugarrenik, politiken jarraipena.

Esan bezala, ikuspegi ezberdinetatik jorratu izan dira alderdi politikoak. Saillkapenetan ere ez dago adostasunik. Oñatek (2005:125) dio, adibidez, alderdien jatorria eta bilakaera aztertzen duten teoriak hiru multzo nagusitan bereiz daitezkeela: teoria instituzionalak, gertaera historikoei lotutako teoriak eta azkenik, modernizazio prozesuekiko zerikusia dutenak.

Alderdien bilakaera kontuan hartzen badugu, badirudi gaitasun handia izan dutela testuinguru bakoitzera egokitzeko. Sistema sozial ezberdinen aldaketa sozialetara moldatzen jakin dutela esan daiteke. Azken urteotan eragileon krisiaz edo gainbeheraz diharduten analisiak ugaritu dira. Aurrerago aipatuko ditugu gainbehera horren hainbat aldagai.

Bilakaera horretan, 60ko hamarkadara arte, esan dezakegu alderdiek euren afiliatuei identitate zehatz baten arabera bizimodua eskaintzen zirela, elkartasun espazioa, kode eta balio zehatzetan oinarrituta. Ez ziren bozka edo afiliazio kuotaren eskaerara mugatzen, baizik eta bizitzako esparru gehienetan eragina zuen identitate kolektiboa eraikitzeko gai ziren:

«Durante una buena parte de su historia los partidos absorbieron y satelizaron otras formas de participación —como diversas practicas asociativas que, en cierto modo, se legitimaban por el hecho de vincularse a una organización partidaria—. Así, con el objetivo de integrar a las masas, los partidos (se caracterizaban por tener los rasgos propios de los llamados “partidos de masas”) desarrollaban redes y asociaciones que cubrían los más diversos aspectos de la vida cotidiana de los ciudadanos.»
(Ibarra, Gomá eta Martí 2002:26)

Alderdiek gizartearen intereseko gaiak jorratu eta eraldatzen zituzten agenda politikoa ordenatuz. Beraz, identitatea eraikitzeko baliabideak eskainiko zituzten, bai haien oinarri sozialei, eta baita eliteei ere. Garai hauetan, alderdietan parte-hartzeak mundua ulertzeko perspektiba bat ahalbidetzen zuen, alegia, gizarteratze prozesu bat, non jendartearen bizirik zeuden gatazkei eta eskaerei bide ematen zitzaion:

«Los partidos sirven para hacer elecciones, pero no nacen para hacerlas. Weber tuvo muy en cuenta ese hecho al proponer su definición de partido; los partidos son formas de socialización que, descansando en un reclutamiento formalmente libre, tienen por fin proporcionar a sus dirigentes dentro de su asociación y otorgar por este medio a sus miembros activos determinadas probabilidades ideales o materiales.» (Martínez, 1996:18)

Esan bezala, sufragismoarekin batera garatzen joan diren taldeek, balore multzo baten arabera bizimodu eskaintzen zuten, non kideen arteko errekonozimendua eta elkarrekiko zaintza zegoen. Era berean, alderdietan parte-hartzea gizarteratze mota zehatz batekin lotzen zen, non prozedura demokratikoen bitartez, gatazka eta herritarren premiak bideratzen ziren, batetik, eta, bestetik, identitate kolektibo zehatzak indartuko zituzten mundu ikuskera ezberdinak birstortuz.

Gaur egun, ordea, errealitatea bestelakoa da. Alderdiak oinarri sozialetatik geroz eta gehiago urruntzen ari dira, eta, ondorioz, jatorrizko funtzio integratzailea desagitzen joan doa, dimentsio instituzionala leheneztuz. Modernitate berantiarreko demokrazia ordezkatzaileretan, alderdi politikoen zeregin nagusien (Ibarra et al., 2002:27) artean hauek leudeke: politika publikoak formulatu, aldi behingo hauteskundeak antolatu, elite politikoak bildu eta abar.

Finean, hamarkadaz hamarkada eremu instituzionalera mugatzen joan da euren lan jarduna, eta joera horrek erraztu egin zuen 60ko hamarkadan gizarte mugimendu 'berrien' sorrera; alegia, alderdiek integratzaile funtzioa galtzen joan diren neurrian, mugimenduek jaso dituzte funtzio berri horiek: parte-hartze politikoa, agenda gaien formulazioa, identitatearen eraikuntza eta herritarren mobilizazioa.

Bestalde, alderdi politikoak era askotara definitu izan dira, kasu gehienetan, demokrazien bizkarrezurra direla diote askok. Herritarren aukera politikoak gorpuzten dituzten formak direla esan dezakegu. Gure kasuan, irizpide ideologikoen arabera saillapena hartuko dugu kontuan. Izan ere, bereizketa horren baitan eremu zehatz batean kokatzen direnetan testuinguratu baitugu ikerketa.

Katz eta Maier-ek adibidez, alderdien eraldaketak aztertu dituzte, eta haien arabera, alderdi guztiak eurek definitutako alderdi sistemaren 'kartelizazioaren'²² baitan leudeke. Kartelizazio horren adierazle nagusiak hauek lirateke: baliabide politikoen dispersioa, politikagintzaren profesionalizazioa, alderdiaren ikuspegi enpresariala, Estatuari lotutako finantziario zuzena edo ez zuzena, desitxuratzeko ideologikoa, kanpainen diseinuan militanteek galdutako protagonismoa, baliabide ekonomikoen aurrean eta beste hainbat aldagai aipatzen dituzte. Alderdi politikoen bilakaera era honetan deskribatuko dute:

22 Kartelizazioa era honetan definitzen du Monederok, Katz eta Maierren kontzeptuari erreferentzia eginaz: «En otras palabras, la política institucional ha generado una lógica cartel, con fuertes normas que hacen que quien no las cumpla queda expulsado del juego electoral (base del juego político). O dicho de otra manera, todos los partidos políticos están, de una manera y otra, "dentro" del juego, de forma que el castigo que los votantes pueden infligir a los malos gobernantes es siempre relativo.» Monedero, J.C. (2011:172)

8. taula: **Alderdi politikoaren bilakaera**

Ezaugarriak	Eliteen alderdiak	Masen alderdiak	Catch-all alderdiak	Kartel alderdiak
Epea	XIX. mendea	1880-1960	1945	1970
Barneratze soziopolitiko maila	Sufragio mugatua	Sufragioaren hedatzea	Sufragio unibertsala	Sufragio unibertsala
Baliabide politiko nagusien antolaketa	Oso mugatua	Kontzentratu samarra	Ez hain kontzentratua	Lauso samarra
Politikaren helburu nagusiak	Pribilegioen banaketa	Erreforma soziala	Hobekuntza soziala	Alderdia lanbide gisa
Alderdiaren kokapena Estatu eta gizarte zibilaren artean	Muga lausoa Estatu eta gizarte zibilaren artean	Alderdia gizarte zibilaren parte da, hasiera batean gizartearen sektore esanguratsuen ordezkari gisa	Estatu eta gizarte zibilaren arteko ordezkariaren lehiatuko da	Alderdia Estatuaren parte da

Iturria: Egileak berak egina, Monedero, 2011:173 oinarri hartuta

Bilakaera horretan esanguratsua iruditu zaigu batik bat alderdiaren kokapena Estatu eta gizarte zibilaren artean. Alderdiak bitartekaritza edo zubigintza funtzioa izatetik, Estatuaren parte izatera igarotzen dira, eta bilakaera horretan gizarte mugimenduek alderdiek zutena ordezkatzeko dutela esan dezakegu. Hainbat mugimenduren jatorria metamorfosi horretatik sortzen dela esan dezakegu. M15²³ mugimendua litzateke horren adibide bat.

Bestalde, adostasun handia dago (Weber, 1992; Duverger, 1981) alderdiak botere kuota bat bilatuko duten eragile direla aipatzen denean. Ikerketa-lan honetan, alderdia mugimenduetatik hurbil dagoen kasua aukeratu dugu; sozialdemokrazia klasikotik harago kokatzen direnak, edota beste era batera esanda, euren hautu ideologikoa kapitalismo edota *establishment*-a gainditzea helburu dutenak, bestelako sistema ekonomiko zein politiko baten norabidean urratsak emanez. Ezker eta eskuin ardatzen inguruan eztaba da ugari sortu dira. Gure kasuan, banaketa ideologiko hori baliatu dugu, atal enpirikoan jorratu ditugun kasuak aztertzerako momentuan. Bereziki, ideologikoki hurbil egon daitezkeen aktore politikoaren arteko harremana aztertu baitugu. Autoidentifikazio maila altua duten eragileen eremua dugu xede. Ezker politikoak erreferentzia eremu politiko zehatz bati egingo dio erreferentzia. Berdintasunaren alde eta kolektiboaren eskubide sozialekin bat egiten duena.

Ezker terminoaren jatorria Frantziako Iraultzan jaio zen, erregearen botere absolutuaren alde zeudenak eskuinaldean esertzen ziren, eta kontra zeudenak, berriz, ezkerrean. Era horretan definituko ziren bi posizio horiek. Gerora, berdintasun ekonomiko eta sozialak ezaugarrituko du ezker politikoa. Hasierako kapituluaren ikusi dugun moduan, berdintasun ekonomiko eta soziala, hasiera batean, soilik gizon zurien artean emango da, eta baztertuak izan ziren gizarte sektoreen borrokei esker, ikuspegi hori zabalduz joan zan. Ezkerrearen ikuspegi garaikideago batera jotzen badugu, esan dezakegu ezkerreko alderdiak oinarri edo aurrekari historiko sozialista edo komunista dituzten antolaketa politikoak direla, gizarte

23 M15 mugimendua, Espainian 2011ko maiatzaz geroztik gorpuztuko den mugimendua da. Hasiera batean, Estatu mailako hiriburu nagusietan antolatuta ziren kanpaldiak antolatuta zituzten, eta demokraziarekin lotutako aldarriak egin zituzten.

mugimenduen borroketatik hurbil daudenak. Alderdi-mugimendu²⁴ eran ere izendatua izan dena. Aipatutako lotura edo harreman horren ondorioz. Arestian aipatu bezala, ezkerreko alderdien baitan kokatzen ditugu sozialdemokraziatik haratago kokatzen diren alderdi politikoak, eta kapitalismoaren aurrean, justizia soziala ahalbidetzeko politikak abian jartzen dituztenak.

Bestalde, aipatu nahi dugu, Ibarak, Martík eta Gomak (2002) dioten moduan, alderdien funtzioen bilakaeran agenda politikoaren osaketak ere bizi izan dituen moldaketak. Izan ere, orain arte aipatutako faktoreen ondorioz, iritzi publikoa osatzen laguntzen duten ubideak alderdietatik harago doaz. Orain arte, alderdien kontrolpean bazeuden prentsan argitaratzen ziren edukiak, eta pixkanaka eragile politikoen eragina geroz eta mugatuagoa dela esan daiteke. Komunikabideak kudeatzen dituzten enpresari talde handien²⁵ esku gelditu da iritzi publikoan eragiteko gaitasuna (Serrano, 2010). Alderdien logikatik urrundu dira komunikabideak eta indar handia lortu dute, ideien aniztasuna mugatuz, eta horrek guztiak ere eragina izan du gaur egun politika espektakuluaren mundutik geroz eta hurbilago dagoela diotenean. Aurrez aipatu ditugun faktoreek eta ziurrenik aipatu gabe utzi ditugunek eragin zuzena dute politikarekiko dagoen atxikimendu sozial ezarekin, eta alderdiek bizi duten gainbehera edo krisiarekin.

Gurean horren adibide ditugu azken urteotan, Eusko Jaurlaritzako Soziometroak argitaratu dituen datuak. Alderdien inguruko gizarte pertzepzioa oso eskasa dela dirudi orokorrean (37. Soziometroa, 2008; 42. Soziometroa, 2010; 46. Soziometroa, 2017²⁶). Ikerketa hauetan, jarrera eta balio politikoen atalean, dimentsio ezberdinak aztertzen dira; arreta jartzen badugu politikarekiko interesaren emaitzetan ikusiko dugu nola gehiengoak ez duela batere interesik edo oso gutxi erantzun duen. Eta sinpatia politikoen neurketan, EAEko alderdi guztiak bostetik beherako balorazioa jasotzen dute. Horrek guztiak ez du esanahi alderdiek demokrazia ordezkatzailaren tresna nagusi izateari utzi diotenik, baina geroz eta nabarmenagoak dira bitartekoekiko egiten diren kritikak. Jarraian, Monederok (2011:175) aipatzen dizkigunetatik esanguratsuenak jaso ditugu:

1. Barne demokrazia eskasa, eta hierarkizazio nahiz lidergotza oso markatuak;
2. Erabaki politikoetan eragiteko gaitasuna geroz eta mugatuagoa da, gobernuaren nagusitasuna alderdi parlamentarioen aurrean;
3. Militantziaren parte-hartzearen gainbehera eta daudenen funtzionarizazioa;
4. Hauteskundeetan gastu ekonomiko handia eta ustelkeria sareen parte-hartzea; eta bozka gehien biltzeko asmoarekin alderdiaren ideologia bigarren maila batean gelditzen da;
5. Herriarren eskaera berriak barnebiltzeko zailtasunak;
6. Ekonomiaren internazionalizazioak eraginda eragiteko ahalmen mugatua
7. Eta azkenik, dio alderdiek enpresen antzera funtzionatzen dutela eta hauteskunde eremu bat helburu dutela. Faktore hauek guztiak alderdiak urrunaraziko dituzte jendearen premia eta errealitatek, eta krisi horrekin lotu ohi da herri mugimendu berrien sorrera.

24 Alderdi-mugimenduaren definizioa: gizate mugimenduen eta alderdien arteko loturari egiten dio erreferentzia. Horren adibide gisa aipatu litezke: 80ko hamarkadan sortu zen Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (ENAM), alderdi eta mugimenduen arteko hurbiltasunagatik. Eta bestetik, M-15 mugimendua eta Podemos alderdiaren artekoa. Bigarren adibide horren laburpen egokia burutzen du Josep Loberak, *De movimientos a partidos. La cristalización electoral de la protesta*. RES n.º 24 (2015) pp. 97-105. artikuluan.

25 Interesgarria da eremu horretan, Pascual Serranok, 2010ean argitaratu zuen *Traficantes de información: la historia oculta de los grupos de información españoles* izenburua duen liburua.

26 Aipatutako Euskal Soziometroetan honako galdera hau jasotzen da: Oтик 10erako eska erabili, Oak inolako sinpatiarik ez eta 10ak sinpatia handia esan nahi dutelarik, zenbateko sinpatia sortzen dizute ondoko alderdi politikoek? Aztertu ditugun erantzun guztietan ez da Seko maila gainditzen. Eusko Alderdi Jeltzalea da kasu gehienetan balio altuena jasotzen duen alderdi politikoa 4.8ko puntuazioarekin eta gutxien Alderdi Popularra, 1.5 inguruko baliorarekin.

Bestalde, esan behar dugu alderdien krisia eskuineko zein ezkerrekoen²⁷ artean ematen dela. Della Porta eta Dianiren esanetan (2011:274), 1980ko hamarkadatik aurrera ezkerreko alderdien kasuan aldaketa nabarmena izan zen, barne antolaketa ereduari dagokionez; aldetaren norabidea —aurrez esandakoarekin lotuta— profesionalizazioaren ondorioz emango da. Izan ere, afiliatu eta militantzia oinarritzen zen lan jardunetik, beste eredu hierarkizatuagoetara igaro dira alderdiak oso denbora laburrean, eta komunikabideek garai batean alderdikide zein jarraitzaileek betetzen zuten funtzioa izango dute. Militantzia soilik une zehatzetan aktibatuko delarik. Ezkerreko alderdien artean ere, ideologiaren lausotze bat emango da, hauteskunde logikaren mesederako. Beraz, alderdiek euren funtzioak hustu dituzten bitartean, gizarte mugimenduek bete dute hutsunea, eremu publikoan eztabaida formulatuz eta identitate kolektiboak indartuz.

2.2.3. Ezkerreko alderdien eta herri mugimenduen arteko harremana

Edozein kasutan, ezkerreko alderdien eta mugimenduen arteko harremana aldatuz joan da denboran zehar. Kasu batzuetan, gertuko edo hurbileko jarrerak artikulazio politikoak ahalbidetu dituzte, eta beste askotan, aldiz, autonomia lehenetsiko da edota konfrontaziorako joera egongo da. Della Porta eta Dianiren (2011) aburuz, ezkerreko alderdien eta herri mugimenduen arteko gertutasuna frogatzen duten ikerketa ugari daude, eta eragileon arteko hurbiltasunaren adibide hauek ematen dituzte: mugimendu ekologista eta alderdi berdearen arteko harremana, mundu osoko alderdi sozialisten eta langile mugimenduen artekoa, mugimendu etnikoen eta alderdi abertzaleen artean eman izan dena. Ez hori bakarrik, autore horien esanetan, ezkerreko alderdiek gizarte mugimenduen premia dute:

«Los intercambios potenciales entre movimientos sociales y partidos de izquierda son variados y numerosos. Como mediadores entre la sociedad civil y el estado, los partidos de izquierda necesitan movilizar presión procedente de los movimientos sociales. De hecho, los programas y miembros de la izquierda institucional, sea el Partido Laborista, los socialdemócratas alemanes, los socialistas franceses o los comunistas italianos, se han visto a menudo alterados por la interacción con los movimientos sociales (e.g. Maguire 1995; Duyvendak 1995; Koopmans 1995; Koelble 1991).» (Della Porta eta Diani, 2011:271)

Alabaina, badirudi ezkerreko alderdiek gizarte mugimenduekiko izan duten harremana aldakorra eta gorabehera handikoa izan dela, konfrontaziotik kooptaziora joan daitekeena. Atal enpirikoan ikusiko dugun moduan, guk aztertutako kasuan ere, herri mugimenduetan jardun zutenetik pasa ziren Bildu koalizioaren gobernugintzan ardura postuak izatera. Era berean, aipatzen dute ezkerreko gobernuen osaketa gizarte mugimenduentzat oso garrantzitsua dela, bi eragileen arteko elkartrukeak ugariak eta anitzak izan baitaitezke. Ezkerreko alderdiek gizartearen hainbat sektore eta Estatuaren artean jokatzeko duten bitartekaritza funtzioa kontuan hartuta, diote herritarrak eta euren boz-emaleen iritzia mobilizatzeko premia izango dutela. Eta horren erakusle dira ezkerreko alderdien programen osaketan gizarte mugimenduek duten eragiteko gaitasuna.

Orobat, bi autoreek galdera honen inguruan egiten duten gogoeta laburbildu nahi genuke jarraian: Nola azaltzen da alderdiek herri mugimenduekiko duten jarrera? Bost aldagai darabilte jarrera aldaketa azaltzeko. Horien gaineko aipamen laburra egingo dugu jarraian.

27 «Mi tesis de que el elemento que mejor caracteriza las doctrinas y los movimientos que se han llamado 'izquierda', y como tales además han sido reconocidos, es el igualitarismo, cuanto esto sea entendido, lo repito, no como la utopía de una sociedad donde todos son iguales sino como tendencia, por un parte, a exaltar más lo que convierte en desiguales, por otra, en la práctica, a favorecer las políticas tienden a convertir en más iguales o desiguales» (Bobbio, 1995:152)

Lehenak, gatazka politikoeekin edo *cleavagesekin* du lotura. Ezker eta eskuinaren arteko zurruntasunak mugimenduen sorrera geldotzen dutela aipatu izan da, eta beste hainbaten arabera, alderdi komunista indartsuek ugaritzeko baldintzak ahalbidetu dituztela pentsatu da. Orokorrean diote, 'ezker zaharra' gizarte mugimenduei babes handiagoa eskaintzeko prest azaldu dela, ezker eta eskuin posizioak hurbiltzeko zailtasunak egon diren kasuetan.

Bestetik, alderdiek herri mugimenduekiko duten jarreraren eragina izan dezakeen bigarren aldagaiak ezkerreko alderdi tradizionalen banaketekin zerikusia duela diote. Hau da, alderdi komunista eta sozialdemokraten arteko banaketak eragina izan du bereziki langile mugimenduaren bozkan, horren garrantzi handiagoa baita; aldez, globalizazioaren aurkako mugimenduak badirudi aldarri tradizionalak eguneratzeko gai izan direla eta Italia, Frantzia edo Espainiar Estatuan eragin handia izan dutela dioskute, alderdi troskita edo erradikalen aurrean.

Hirugarren aldagaia, hauteskunderen lehia litzateke. Gizarte mobilizazioekiko babes eta hurbiltasuna hauteskunde logikaren eraginpean egongo da, zalantzarik gabe. Ezegonkortasun politikoak gizarte mobilizazioak elikatuko lituzke, eta ezkerreko alderdien nahiz mugimenduen arteko harremana hurbil lezake autoreen arabera. Aldagai horren erakusle, adibide hau aipatuko dute:

«En Italia, España y Francia, la esperanza de captar a gran parte del electorado que había apoyado a los movimientos pacifistas y a los muchos activistas que habían participado en las manifestaciones por una justicia global empujó a la izquierda intitucional a hacia posiciones más críticas en cuestiones como la privatización de los servicios públicos, la desregulación del mercado de trabajo o el envío de tropas a Irak.» (Della Porta eta Diani, 2011:243)

Ezkerreko alderdiak gobernuan egoteak ere eragin zuzena izan dezake herri mugimenduekiko duten harremanean. Horixe litzateke italiar politologoek aipatzen duten laugarren faktorea. Aitzitik, honetan gehiago sakonduko dugu hurrengo atalean.

Eta azkenik, bosgarren aldagaiak arestian aipatutako ezkerreko alderdien desideologizazioarekin zerikusia izango luke. Azken finean, alderdien profesionalizazio eta burokratizatorako joerak ere eragina izan du ezkerreko alderdien artean eta, honenbestez, gizarte mugimenduekin izan duen harremanean. Autoreen arabera, Italian eta Alemanian egindako konparaketa ikerketa baten arabera, 1970 eta 1990eko hamarkada bitartean, Italiako Alderdi Komunistak eta Alemaniako Alderdi Sozialdemokratak erdigunerantz norabidetzeak herri mugimenduen aldarrikapenak bideratzeko zailtasunak areagotu zituen, erabakiak hartzeko prozesuen baitan. Era berean, aipatuko dute gobernuaren osaketan parte hartuko duten alderdiek ere eragina izango dutela urruntasun edo hurbiltasun mailan. Agerikoa da, ezkerreko alderdiek bakarrik gobernatzen dutenean, askatasun handiagoa dutela erabakiak hartzerako momentuan. Ikerketa honen kasuan, alderdien koalizioak eragina izango du.

Bestalde, Della Portak eta Dianik aipatzen ez duten beste aldagai bat gehitu nahiko genuke, ikerketa lan honetan ere atal enpirikoan elkarriketatuek asko aipatu dutena: gutxiengoan edo gehiengoan gobernatzea. Izan ere, gure kasu-azterketa gutxiengo batean kokatzen da, eta horrek ere asko zailtzen du gizarte mugimenduen eskakizunak bideratzeko erraztasuna. Gobernugintza neurri batean baldintzatuta egongo da, ez soilik koalizio osaketagatik; gutxiengoan edo gehiengoan ere beste aldagai gisa funtzionatuko du ezkerreko alderdien eta gizarte mugimenduen arteko hurbiltasunean.

Behin eta berriro aipatzen ari garen alderdien gainbeherari aurre egiteko, gogoeta ugari plazaratu dira azken urteotan. Della Portak eta Dianik ere bat egiten dute (ibid.:274), alderdien krisiarekin. Batik bat diote 1980ko hamarkadatik aurrera, ezkerreko alderdiek antolaketa ereduari dagokionez izandako aldaketek

ahuldu dutela ordura arte hainbat alderdien artean zegoen hurbiltasuna; horren adibide garbia litzateke langile mugimendua eta alderdi sozialisten artekoa edo mugimendu etniko eta alderdi etniko edo abertzaleen artekoa. Alderdien bitartekaritza funtzioaren ahuldadeak areagotu du, neurri batean mugimenduen autonomia eta identitate politikoak birsortzeko gaitasuna.


Gure ikuspegitik, interesgarriak dira ere Hego Ameriketatik datozen gogoetak, zeinetan esperientzia zehatzetatik eratorzen diren gogoeta eta proposamenak egiten diren. Harneckerrek, Rauberrek, Saderrek, Zibechik edota Chávezek ezkerreko mugimendu eta alderdien arteko auziaz asko idatzi dute. Chávezek (2008), esate baterako, hiru zeregin esleitzen dizkie ezkerreko alderdiei. Batetik, dio herri mugimenduen beso politiko gisa aritu daitezkeela, agertoki politikoan euren boterea eta ahotsa biderkatuz. Bigarrenik, alderdiak posizio pribilegiatua dutela, proiektu politiko eta sozial zabala garatzeko. Eta azkenik, erakunde instituzionaletan norabide bat markatzeko balio dezakeela. Arriskuez ere ohartarazten gaitu, hauteskunde logikarenak, lehenik, eta bestetik, herri mugimenduen logika alderdienera bideratzeko arriskua. Haren esanetan, oreka etengabeko tentsio bilakatuko da, eta ezkerreko alderdiek alde aurretik adostu duten programa betetzeko indarra egin beharko lukete. Horretarako, Chávezen arabera (2004) ezinbestekoa dirudi alderdien barne antolaketa eraldatzea:

«Cambios intrínsecos en el seno de los partidos de izquierda hacia propuestas políticas más horizontales y participativas y hacia prácticas y estructuras internas más democráticas» (2004:20)

Norabide horretan, Harneckerrek (2013) eta Rauberrek (2006) ere diote alderdiak behetik gora eraiki behar direla, beti ere herri mugimenduak ordezkatu gabe, «alderdiek ezin dute ordezkatu herri mugimenduen protagonismoa. Soilik artikulazio zabal eta indartsu batek zabalduko dizkio ateak eraldaketa sozial eta politikoari. Boterea ez baita lortzen, eraikitzen baizik» (2006:13). Eta bi pentsalari hauentzako behetik gora eraikitzeak zera suposatzen du: prozesu klabeen lan egitea, eraikuntza eta artikulazio kolektiboa, zubiak eraikitzea, parte-hartzea, formakuntza eta egunerokotik abiatzea.

2.2.4. Ezkerreko gobernua eta gobernugintza-eredu berrietarako baldintzak

6. irudia: **Demokratizazioaren aktoreak**



Iturria: Egileak berak egina, Monedero, 2011:173 oinarri hartuta

Azkenik, demokratizazioaren aktore politikoekin amaitzeko, ezkerreko gobernuen eremua jorrazteko asmoa dugu jarraian. Azken hamarkadetan, ezkerretik formulatu diren proposamen ezberdinek Estatuaren demokratizazioaz dihardute. Era berean, ezin dugu aipatu gabe utzi, eremu instituzionalak ezkerreko mugimenduaren baitan eztabaida ugari piztu dituela, askorentzat ez baita eraldaketa sozialerako ardatz erabakigarria. Halere, kasu honetan, ezkerreko gobernu osoaren aldeko ahotsak bildu ditugu. Horiexek baitira gure ikerketa lerroarekin lotura zuzena dutenak. Horrek ez du esan nahi beste posizioaren garrantzia eta protagonismoa gutxiesten dugunik²⁸.

Atal honetan, eremu instituzionalean sakonduko dugu. Santosek (2005) aipatzen duen erreforma eta iraultzaren binomio horren baitan, erreformaren bidea jorrazteko dugu. Eta horretarako, ezkerreko gobernuen eskala tokiko administrazioan kokatzen bada ere, gure kasu analisian, Estatuaren eskala ere aipatu nahi genuke, elkarloturik baitoaz. Guk eskala txikia jorrazteko dugun arren, Estatuaren definitioetik abiatzea egokia iruditzen zaigu. Administrazioa bera definitzeko modu bat ere badelako. Beraz, Estatuaren demokratizazioan sakondu aurretik, Estatuaren definitioa dugu. Oraingoan, García Linerak (2010) proposatzen duen definitioetik abiatuko gara:

«Lo que llamamos Estado es una estructura de relaciones políticas territorializadas y, por tanto, flujos de interrelaciones y de materializaciones pasadas de esas interrelaciones referidas a la dominación y legitimación política. Esta relación-Estado siempre es un proceso histórico político en construcción, en movimiento» (Linares, 2010:10)

Estatuaren, beraz, Linerak dioen moduan, mugimenduan dagoen amaraun instituzional bat da, eta bertan hiru dimentsio nagusi hauek nabarmendu nahi izango ditu:

«Entendiendo el Estado, por una parte como una correlación política de fuerzas entre bloques y clases sociales con capacidad de influir, en mayor o menor medida, en la implementación de decisiones gubernamentales o, si se prefiere, como construcción de una coalición política dominante; por otra, como una maquinaria donde se materializan esas decisiones en normas, reglas, burocracias, presupuestos, jerarquías, hábitos burocráticos, papeles, tramites, es decir, como institucionalidad. (...) Y en tercer lugar, el Estado como idea colectiva, como sentido común de época que garantiza el consentimiento moral entre gobernantes y gobernados.» (Linares, 2010:12).

García Lineraren definitioa aukeratu dugu, lehenik, esperientzia zehatz batetik eraikitako definitioa delako, eta, bestetik, ezkerreko pentsamenduetatik egindako irakurketa dela uste dugulako. Indar korrelazioan, burokratizazioan eta ordezkari nahiz herritarren arteko harremanari erreferentzia egingo dion definitioak laguntzen digulako erakundearen eremua zedarritzen. Definitio horretan bigarren dimentsioa nabarmendu nahi genuke: 'erabakiak, arauak, burokrazia, hierarkiak eta *habitus* burokratikoak eta tramineak gorpuzten diren makinaria' dionean. Makinaria horretan ezkerreko gobernuaren lan jarduna zertan ezaugarritzen den aztertuko baitugu ikerketa lan honen atal enpirikoan.

28 Aurreko atalean jasotzen dira elkarlan horre kontra eta mugimenduen autonomiaren alde kokatzen diren erreferentzia teoriakoak eta horien gaineko xehetasunak. Ildo horren erakusle dira Raquel Gutierrezen Horizontes (2017) Comunitarios-Populares producción de lo común más allá de las políticas Estado-Céntricas edo aurrez ere aipatu dugun Raul Zibechiren lanak.

Estatuaren definizioaren ondotik, tesi honen lehenengo kapituluaren esandakoak gogoraziz, esan behar dugu ezkerreko pentsalarien artean Estatuaren berrasmatzearen aldeko formulazio ugari egin izan direla. Santosek (2005), Ibarrek (2011) edo Linerak (2010) berak, Estatu berrasmatzeko beharra nabarmenduko dute. Proposamen gehienetan gainera, herri mugimenduen ekarpena erabakigarria bilakatzen da, eta Estatuaren demokratizatorako ibilbideetan deliberaziorako eta partaidetzarako formula ezberdinak proposatzen dizkigute. Proposamen horiek, erakunde publikoen egiturari, giza baliabideei, erabakiak hartzeko eta antolatzeko moduari eta, oro har, zerbitzu publikoa eskaintzeko moduari egingo diote erreferentzia.

Proposamen horien xehetasunetan sartu aurretik, aipatu nahi genituzke, ezkerreko indar politikoek gobernura heltzen direnean topatu ohi dituzten zailtasunak. Izan ere, erakunde instituzionalen logika ezkerreko indar politikoaren helburuen norabidean jartzeko erresistentzia ugari daudela diote esperientzia horiek hurbiletik aztertu dituztenek. Erresistentziak ez dira bakarrik barne mailakoak izango, aurrerago aipatuko ditugu ere herri mugimendu eta ezkerreko gobernuen artekoak. Esate baterako, Marta Harneckerrek dio (1999) Hego Ameriketako ezkerreko gobernuen ikerketek azpimarratzen dutela, ezkerreko alderdiak gobernura heltzeak ez duela suposatzen, inolaz ere, demokratizazioa emango denik, bereziki aipatzen ditu eremu instituzionalak ezartzen dizkien erresistentziak, eta horren ondorioz, asmo politiko ugari bidean gelditzen direla dio. Harneckerrek Venezuelako kasua aztertu du sakonki, eta eremu instituzionalaren erresistentzien aurrean, berau gainditzen zuen beste antolaketa administratibo paralelo bat abian jarri behar izan zutela nabarmen du. Euskal Herrira etorrita, Larraitz Ugartek, Bilduko Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaileak 2011-2015ean, ere norabide horretan halaxe zioen legegintzaldian zehar gobernatzeko izan zituzten oztopoen inguruan ziharduenean: «gobernura heltzeak ez du esanahi benetako boterea duzunik²⁹»,

Zailtasunen artean ere aipatzekoa litzateke Estatuak beste antolaketa instituzionalekin partekatu ohi dutela burujabetza; hau da, parlamentu eta gobernuen eskumenak hamarkadaz hamarkada murriztuz joan dira, merkatuek eta nazioarteko egitura instituzionalek (Nazioarteko Diru Funtsa, Europar Batasuna, adibidez) bere egin baitituzte garai batean soilik Estatuaren esku zeuden hainbat eskumen. Greziako kasua litzateke hurbileko adibide bat. 2015ean, Siryza³⁰ alderdiaren garaipenak ezkerreko mugimenduen artean itxaropena zabaldu arren, Europako Banku Zentralak, Europako Batzordeak eta Nazioarteko Diru Funtsak gobernuaren erabakitzeko ahalmena baldintzatu zuten, finantza zorrak zirela eta politika guztiei eragingo zien murrizketak aplikaraziz:

«El poder del Gobierno nacional se demuestra insuficiente para plantar cara al poder establecido a nivel nacional y supranacional. A pesar de la dura negociación, el nuevo gobierno ha vuelto de Bruselas con un nuevo plan de austeridad que complicará muchísimo la puesta en marcha de su “plan de salvación social” anunciado durante la campaña electoral». Theodoros Karyotis. (Diagonal, 2015.03.07)

29 2015eko azaroan, Parte Hartuz ikerketa taldeak antolatu zuen kongresuan egindako hitza hartzea: Análisi Politiko Kritikoaren III. Nazioarteko Kongresua: "POLITIKAREN ITZULERA? +DEMOKRAZIA +POWER + SOBERANIA". 2018ko abuztuaren 14an berreskuratua: <<https://www.ehu.es/documents/2450856/0/Egitaraua-Programa-Politikarenitzulera/fa5379eb-9bee-4684-8863-c3ea8bce7572>>

30 Siryza Greziako Ezker Erradikalaren Koalizioa izena duen alderdia da. Ezkerreko 13 alderdi ezberdinek osatzen dute koalizioa. 2004ko hauteskundeetan parte hartzeko sortu zen.

Halaber, kasu gehienetan, ezkerreko alderdiak gobernura gutxiengoan heltzen dira, 2011an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan bezala, eta horrek, oposizioarekin hitzartzeraz eramango ditu. Kasu hauetan ere, *establishmentak*, hau da, botere faktiko zein mediatikoek ere ezkerreko gobernua presionatzen dituzten lehen eragileak ere direla diote. Hain agerikoak ez diren presio taldeek eta komunikabideek ezkerreko gobernuen lan jarduna zailtzen saiatuko direla diote. Beste era batera esanda, eskuinak ezkerreko gobernuaren ezegonkortasuna bilatuko du, mekanismo ezberdinen bitartez.

Bestalde, erakundeen barne burokratizazioa eta administrazioaren funtzionamendu logikak ezartzen dituen zailtasunak maiz aipatzen dira. Lan egiteko joera burokratizatzailea, departamentalizatua eta elitista nagusitzen da administrazio publikoan, eta horrek zailtzen du politika eta administrazioa birsortzeko neurrien inplementazioa. Ezagunak dira Europar erakunde publikoen erreformen bilakaeran egon diren paradigma ezberdinak: burokratikoa, gerentzial eta erlazionala; 70 eta 90eko hamarkadetan zehar eredu weberiar-burokratikoaren krisiak ateak zabaldu zizkion Gerentzia Publiko Berriari³¹, ekonomian, eraginkortasunean eta efizientzian oinarritu zena. Merkatuaren logika aplikatuko da, beraz, eredu burokratikoaren ezintasunei aurre egiteko. Erreformekin batera Estatuaren ahuldadea ere aipatzen da, merkatu ekonomia-aren mesederako. Halaxe definitzen du Santosek Estatuaren egoera:

«La debilidad del Estado no es un efecto secundario o perverso de la globalización de la economía, sino el resultado de un proceso político que intenta conferir al Estado otro tipo de fuerza, una fuerza más sutilmente ajustada a las exigencias políticas del capitalismo global.» (Santos, 2005:315)

Erakundeetan nagusi den gobernatzeko modu burokratizatua gainditzeko, ezkerreko gobernuen lidergotzaz gain, herritar antolatuen edo gizarte mugimenduen jarduna ere garrantzitsua dela diote. Hor kokatzen da Santosek (2005:311) Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren beharra merkatuaren logikari aurre egiteko. Horretarako, Estatuaren eta hirugarren sektorearen erreforma beharrezkoa dela dio:

«La idea de que ni el principio de Estado ni el de comunidad pueden garantizar aisladamente, vista la hybris avasalladora del principio de mercado, la sostenibilidad de las interdependencias no mercantiles –ausencia de las cuales la vida en sociedad se convierte en una forma de fascismo societal–. (...) Solo la simultánea reforma del Estado y del tercer sector, mediante la articulación entre democracia representativa y democracia participativa, puede dar efectividad al potencial democratizador de cada uno de ellos frente a los fascismos pluralistas que intentan apropiarse del espacio público no estatal.» (Santos, 2005:333)

Portugaldarraren esanetan, beraz, Estatuaren eta komunitatearen erreformek eta bi eremuen arteko elkarreraginak ahalbidetuko lituzkete demokratizazio prozesuak. Eraldaketa horri 'Estatuaren elkartasunezko eta partaidetzazko berrasmatzea' deituko dio.

Bestalde, Estatuaren demokratizazioan azpimarra egiten zaion beste dimentsio bat ekarri nahi dugu gura: eskalaren garrantziarena, hain zuzen ere. Chávezek (2004) dioten moduan, Estatuaren dimentsioa gutxietsi gabe, tokian tokiko administrazioak sakontasun demokratikorako oso baliagarriak dira, berezi-

31 Gerentzia Publiko Berriari gehiago sakontzeko, ikus: Brugué, Q. y Subirats (eds.). (1997): *Lecturas de Gestión Pública*. MAP.

ki aurrez aipatu ditugun deliberaziorako eta partidetzarako mekanismoen aplikapenerako. Are gehiago, 70eko hamarkadatik aurrera, tokikotasunak presentzia handiagoa lortuko du, eta olatu horren hedapenean zeresan handia du Porto Alegreko Langileen Alderdiak sustatu zuen aurrekontu parte-hartzaileak. Blasen (2005) esanetan, ezker postautoritario berriarentzako udal maila ezinbesteko borroka bilakatzen da. Masen abangoardiaz harago, gizarte zibilak³² protagonismoa berezia jasoko du. Eta gizarte zibilaren baitan, nola ez, gizarte mugimenduek.

Ezkerreko gobernuek artikulazio politiko berriak sortu nahi izango dituzte euren sare kritikoeekin, eta hortik datoz lidergotza politiko partekatuen inguruko aipamenak. Ibarrek, Gomak eta Martík (2002) erakunde publikoen, izan Estatu edo tokiko administrazioen, lidergotza partekatuan, autoeraketa komunitarioan eta parte-hartze prozesuetan jarriko dute instituzioen biziberritze prozesuen begirada. Izan ere, gobernuen jarrera elitista eta lehiakorra gaitzetzeko urrats estrategikoak kontsideratuko dituzte.

Hari horretatik tiraka, azter dezagun sakonago zein izan den ezkerreko gobernuek herri mugimenduekin izandako harremana. Horretarako, gogora ekarri behar dugu orain, aurreko azpiatalean Della Portak eta Dianik aipatzen zuten bosgarren aldagaia (2011:272), hau da, mugimendu eta ezkerreko alderdien arteko harremana baldintzatzen duen elementua: ezkerreko alderdiak gobernuan egotea. Bi autore hauek harreman horren inguruan aipatzen dutena jaso nahi genuke ondoren, eta eurak era berean Kriesik egindako ikerketei egingo diete erreferentzia. Izan ere, Krisieren esanetan (1991), sozialdemokrazia³³ oposizioan dagonenean mugimendu sozialen jardunaz jabetu eta baliatzen da, baina erakundeetan gobernatzen dabilenean, ordea, mugimenduekiko harremanak moteldu edo zaildu egingo dira, hauteskudeen interesak direla eta. Halere, Della Portak eta Dianik diote beti ez dela horrela izango, eta horren adibide modura aipatuko dute Alemanian eta Italian ezkerreko alderdiek mugimenduekiko izan duten hurbileko jarrera. Kriesiren ikerketa enpirikoek ere ez dute argi azalduko zein den gizarte mobilizazioek ezkerreko gobernuen aldetik jasoko duten babesa edo urruntasuna.

Era berean, kontuan hartu behar dugun beste eztabaida bat da ezkerreko gobernuek koalizioa osatzen dutenean ere zein ondorio dituzten. Ezaugarri honek bat egiten du bete betean gure kasuarekin: izan ere, Bildu hiru alderdiz osatutako koalizioa baitzen 2011 eta 2015 bitartean —Alternatiba, Eusko Alkartasuna³⁴ eta ilegalizatutako Batasuna—. Autoreek diote gobernu koalizioan, ezkerrekoa ez den beste indar politiko bat dagoen kasuetan herri mugimenduekiko harremanean eragina izango duela:

«Los partidos de izquierdas son más libres si gobiernan solos. Si lo hacen en coalición con partidos de derecha se verán forzados a adoptar políticas menos favorables a los movimientos sociales de izquierda» (ibid.:274)

32 Gizarte zibilaren kontzeptua era askotara definitua izan da, korrante liberaletatik zein ezkerreko ikuspegietatik. Gure kasuan, bigarren korrante horretan kokatuko ginateke, eta bat egingo genuke, Ibarrek proposatzen duen definizioarekin, halaxe dio hark: «La sociedad civil como el conjunto de asociaciones, grupos, organizaciones movimientos, etc. que se unen, o de hecho actúan unidos, para lograr la satisfacción de diversos intereses; intereses del conjunto de miembros o intereses colectivos situados mas allá de los miembros del grupo. Estos intereses pueden ser de orden: religiosos, culturales, sociales, asistenciales, políticos, laborales, de ocio etc. (...) Se incluyen en esta descripción aquellos grupos que se constituyan con el objetivo de defenderse de aquellos efectos injustos provenientes de las relaciones con el mercado o de reformar o equilibrar la logica de actuación y su protagonismo en la vida económica. (2005:36)

33 Kontuan hartu behar dugu Krisiek sozialdemokrazia gobernuan egon diren kasuak ikertu dituela, baina gurean sozialdemokratik haratago kokatzen diren indar politikoak izan ditugula aztergai.

34 Bildu koaliziotik Eusko Alkartasuna litzateke alderdi sozialdemokrata gisa definitzen den bakarra.

Aldiz, ezkerreko alderdiez osatutako koalizioa ematen denean, harremana errazagoa izango litzateke. Adibide modura aipatzen dute Frantzian, Francois Mitterrand lehendakari zen garaian (1981-1995), alderdi komunistarekin eman zen koalizioa; izan ere, orduan mugimenduen proposamenekiko irekitasun handiagoa azaldu zen ondorengo gobernu osaketekin baino. Alemanian ere antzeko kasuak topa daitezkeela diote, non ezkerreko koalizioek mugimenduen eskaerekiko irekitasun handiagoa azaldu duten.

Bestalde, Della Porta eta Dianik (2011) diote ere ezkerreko gobernuen agintaldian ezkerreko mugimenduen protesta eta mobilizazio maila apaldu ohi direla; aipatzen duten arrazoietakoa bat da: horretarako prest dauden herritarrek jardura horietatik urrun mantentzen dituela. Era berean, ezkerreko sektoreak ere neurri batean erlaxatu egiten direla esan dezakegu, hurbileko gobernuetan eragiteko ahalmena handiago izango dela pentsatuz.

«Al enfrentarse a gobiernos que sienten cercanos, los movimientos sociales tienden a incrementar la presión directa y a reducir la protesta. Por otro lado, el riesgo asociado a un gobierno políticamente opuesto les lleva a considerar la movilización como algo inevitable. No es casualidad que la participación en las marchas por la paz el 15 de Febrero de 2003 fuera masiva en países (como reino Unido, Italia y España) con gobiernos que habían apoyado la guerra de Irak. En cambio, la postura contra la guerra de los gobiernos francés y alemán redujo el número de manifestantes en esos países.» (ibid.:276)

Edozein modutan, aipatu behar dugu ezkerreko alderdiak gobernuan daudenean ere hauteskunde logiken eraginpean ere funtzionatzen dutela, eta horrek ere eragin zuzena duela balizko lankidetzaren espaziotan. Eta ondorioz, gobernuan daudenen proposamenak ere moderaziorako joera izaten dutela.

Jaso diren ikerketatik harago, nabarmendu nahi genuke, ezkerreko gobernuak inguruko herri mugimenduekin izan ditzaketen harremanak baldintzatuko dituztela, ordura arte alderdi horrek gobernuan egon aurretik izan duen harremanagatik. Alegia, gobernura heldu aurretik hurbileko harremana bazuen, zaila izango da gerora hurbiltasun horrekin haustea, eta kontrako egoerak, ezkerreko alderdien eta mugimenduen arteko distantziak ere ezkerreko gobernuen eta gizarte mugimenduen arteko lankidetzaz zaildu egingo luke. Gainera sarritan ikusi dugu herri mugimenduetako hainbat kide ezkerreko alderdi politikoetan ordezkari lanetan; zer esanik ez Hego Euskal Herrian eman diren ilegalizazioen ondorioz. Izan ere, 2003an, Herri Batasuna, Euskal Herriarrok eta Batasuna legez kanporatuak izan ziren eta Ezker Abertzaleak marka ezberdinak —Hego Euskal Herrian: Autodeterminaziorako Bilgunea (AuB), Herriarrok zerranda (HZ), Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunistak (EHAK) eta Abertzale Sozialisten Batasuna (ASB)— erabili izan ditu udal eta foru zein Euskal, Espaniar Estatuko eta Europar Parlamentuetako hauteskundeetan.

2.2.5. Demokratizaziorako prozesuen eragileen ezaugarriak

Ondoren, marko teorikaren bigarren atal nagusiari itxiera emango diogu. Orain arte ikusi dugun moduan, agerikoa da mugimenduek, ezkerreko alderdiek eta gobernuak logika ezberdinen arabera funtzionatzen dutela. Horietako bakoitzak besteak beste, egitura, esku-hartze eremu, estrategia edota baliabide ezberdinak ditu, ez baitute zerikusirik ezkerreko gobernu batek izan ditzakeen baliabide ekonomiko edo bestelakoek gizarte mugimenduak dituenarekin; edo arestian aipatu bezala, eremu instituzionalaren funtzionamenduak herri mugimenduen lan jardunarekin. Esku-hartzeko eremua ezberdina da, nahiz eta guztiek jendartean eragin. Eragile bakoitzaren jatorria eta izan duen bilakaera ere ezberdina da, ikusi dugun

moduan, eta bakoitza nondik datorren eta egungo eragin esparruen ingurukoak jasotzea garrantzitsua deritzogu. Hurrengo koadro honetan laburbildu nahi izan ditugu eragile bakoitzaren ezaugarri nagusiak:

9. taula: **Demokratizatorako balizko subjektuen tipologia**

	Herri mugimenduak	Ezkerreko alderdiak	Ezkerreko gobernuak
Egitura	Informala, asanblearioa, aldakorra, sarea	Formala, egonkorra, bertikala	Instituzionala, hierarkikoa, departamentalizatua
Diskurtsoa	Sektoriala	Globala	Globala
Esku-hartze eremua	Gizartea	Sistema politikoa eta Instituzioak	Instituzioak
Boterearekiko orientazioa	Aldaketa, antagonismoa, aurkakotasuna	Gauzatu, eskuratu	Gauzatu, eskuratu
Estrategia	Gatazka	Hauteskunde lehia	Lehia, gobernu programaren araberakoa
Baliabideak	Militantzia eta auto finantzaketa	Militantzia eta finantzaketa publikoa/pribatua	Sektore publikoaren giza baliabideak eta aurrekontu publikoa

Iturria: Egileak berak egin Ibarra et al., 2002:25 oinarri hartuta

Koadroan aipatzen den banaketa sarritan ez da hain argia, errealitatean mugak lausatu egiten dira, bereziki herri mugimendu eta ezkerreko alderdien artean, baina antzekotasunak izan arren, bakoitzaren logika eta eremua zedarritzeak kontienda politikoan gertatu ohi diren fenomenoak hobeto ulertzen eta interpretatzen lagun gaitzake. Izan ere, arestian aipatutako ikerketek dioten moduan, hiru eremu horien arteko harremanak elkarlanean edo konfrontazioan eraiki daitezke. Jorratu ditugun ikerketa gehienek esanetan, badirudi hurbiltasuna nagusi izan dela orain arte, baina azken hamarkadetako alderdien gainbeheregatik eta erakundeek kudeaketetan egon diren joerengatik, mugimenduen eta ezkerreko alderdien nahiz gobernuen artean urruntzeko joera nagusitzen da.

Nolanahi ere, gu bat gatz Chávez-ek (2004) dioenarekin, ezkerreko agertoki ideala litzateke borroka esparru ezberdinen arteko artikulazioa edota elkarlana, ezkerreko demokratizatorako gaitasuna handitzen lagunduko duena eta «*statu quo*» aldatzeko gai izango dena. Horrek ez du esan nahi gatazkarik gabeko elkarlana izan behar duenik, kontrakoa baizik; Mouffek (1999) dioen moduan, gatazka aldatzeko oinarritzko osagaia litzateke.

Agertoki politiko ezberdinetan, gizarte mugimenduek presioa, indarra eta aldarrikapenak azalduko dituzte, alderdiek programa garatzeko beharrezkoak izango dituztenak, eta, aldi berean, ezkerreko gobernuen itsasargiak lirakeenak. Baina nola artikulatu hiru aktore hauen arteko ekintza politikoa, ahalik eta praktika eraldatzaileena edo demokratizatzaileena izan dadin, eta era berean, herri mugimenduen logika desitxuratu edo indargabetu gabe?

Amaitzeko, esan nahi dugu, guri bereziki interesatzen zaigula eragileon arteko harremanek edota lankidetzaren esparruek demokratizazioan sakontzeko zabaltzen dituzten aukerak aztertzea. Uste baitugu elkarlan

eremuetan eman ohi diren oztopoak, erresistentziak eta bestelakoak aztertuz gero, demokratizatorako baldintza egokienak zeintzuk diren ikusteko aukera izango dugula. Finean, eragile ezberdinen arteko gobernugintzaren sakontasun demokratikoa hauspatuko dituzten aldagaiak ikertu nahi ditugu.

2.3. Erakunde publikoen eta herri mugimenduen arteko lankidetzaren esparrua: sare gobernantza eta partaidetza instituzionala

Jarrian, tesi honen marko teorikoaren hirugarren atal nagusiari ekingo diogu. Aurreko atalean, demokratizazioaren sustatzaileetan eta aktore politikoetan sakondu dugu; orain, eragileen arteko elkarrekintzan mugilduko gara, erakunde publikoak eta herritar zein herri mugimenduen arteko harremana ahalbidetzen duten tresnak aztertuz; hauteskundeetatik harago, erakunde publikoen demokratizazioaren igarobideetan arreta berezia jarri nahi genuke. Izan ere, arestian aipatu bezala, Estatu eta komunitatea birsortzeko ahaleginek borondate instituzional berritzailea eskatzen dute, zeinak elitizazioarako joera saihesten ahaleginduko diren, komunitatearekin elkarlana ahalbidetzeko.

Agerikoa da demokratizazioaren eta partaidetza instituzionalaren bide orriek ertz ugari dituztela. Halere, ikusi dugu nola orain arte barnebidu ditugun erreferentzien artean, gehienak gizarte zibilaren parte-hartzearen baitan egituratuko duten euren diskurtsoa. Partaidetzazko edo deliberazioarako demokraziek partaidetzan ardaztutako erabakitzeko-prozesuak proposatuko dituzte, eta horren adibide dira azken hamarkadetan erakunde publikoetatik zabaldu diren prozesu ugari. Esperientzia horien abiapuntutzat jotzen dira, 1988an, Porto Alegren martxan jarritako partaidetzazko aurrekontuak, baina mundu osoan zehar zabaldu dira herritarren inplikazioa eta erabakitzeko ahalmena bilatu nahi izan dituzten esperientziak. Europan ezagunak dira, Britaina Handian NIP/IGP³⁵ak (Font, 1996; Ibarra, Zubiaga eta Barcena, 1995) edo Frantzia edo Estatu Espainolean Tokiko Agenda 21a³⁶, edota komunitate planak. Esperientzia horiek guztiek erabakien deszentralizazioa eskatzen dute, eta baita erakunde ezberdinen arteko koordinazioa ere, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Nolanahi ere, partaidetzaren nondik norakoetan sakondu aurretik, aipatu nahi genuke partaidetza politikoak elkarrekintzan diharduten bi eremu nagusi dituela: instituzionala eta ekintza kolektiboarena. Atal honetan, lehenengoari heldu nahi genioke, gizartearen eta administrazio publikoaren arteko hartu-emanetarako eraikitzen diren lankidetzaren espazioei erreparatuz, alegia. Kudeaketa publikoan herritarren eta gizarte eragileen ahotsak eta premiak kontuan hartzeko zabalteko mekanismo edota prozesuetan.

Era berean, jakitun gara partaidetzarako mekanismoak ez direla soilik ezkerreko mugimenduen *leitmotiva*; sozialdemokraziaren, eskuinaren zein nazioarteko erakunde ekonomikoen diskurtsoetan ere ageri dira kudeaketa parte-hartzailearen aldeko posizioak. Aurrerago ikusiko dugun moduan, partaidetza helburu

35 NIPak gaztelaraz nucleos de intervencion participativa. Joan Fonten definitzioa ekarri dugu gurera: «Los NIP son una técnica para la intervención de los ciudadanos en los procesos de toma de decisiones públicas. Su origen intelectual se encuentra en un grupo de sociólogos alemanes que, tras algunas experiencias exitosas en su país, ha empezado a exportar el producto a otros contextos. Además de aplicaciones en Gran Bretaña, Japón o Israel, los NIP han sido experimentados en Guipúzcoa y son objeto de escrutinio por parte de otras administraciones españolas. Los NIP son grupos, organizados y moderados por técnicos externos, de unos 25 ciudadanos escogidos aleatoriamente, que tras un período de información y debate a tiempo completo sobre un tema que exige una respuesta pública, emiten un dictamen que tendrá un carácter formalmente no vinculante para la institución pública que lo ha encargado.» (Font, 1996:143) Euskal Herrian, Itziar Izurzaeren arabera, batik batik Gipuzkoan abian jarri den mekanismoa dugu IGPa, udalerrri hauetan: Idiazabal, Astigarraga, Aretxabaleta, Tolosa eta Oñati. Euskonews, 9.zenbakia. Berreskuratua: 2018.08.10 <<http://www.euskonews.com/0009z/bk/gaia0904es.html>>

36 Tokiko agenda 21a, garapen sostengarrirako plan orokor batetik sortuko da. 1992an, Rio de Janeiron, ospatu zen Nazio Batuen Konferentzian, 173 herrialdek onartu zuten. Garapen eta ingurugiroaren gaia jorratzen zen bilgune hartan. (Aguado, Barrutia eta Etxeberria, 2007:176)

ezberdinetarako tresna gisa definituko da; gurean, demokratizazioan sakontzeko edota ezberdintasun sozialei³⁷ aurre egiten lagunduko duten helburu multzoen artean kokatzen dugu.

Era berean, eremu instituzionalean kokatzen diren partaidetzarako mekanismoak eta prozesuak berrikuntza demokratiko gisa irudikatu izan dira. Azken batean, aldaketa bat suposatzen duten gobernatzeko modu tradizionalen aurrean, ez baita goitik beherako egitura eta prozedura administratibo zurruna jarraituko. Kasu hauetan, norabidea aldatzea planteatzen da, politika publikoen fase ezberdinetan herritar eta eragileei erabakitzeke ahalmena aitortuz. Berrikuntza demokratikoek herritarrentzat ez ezik, gizarte mugimenduentzako aukerak zabalduko dituzte. Neurri handi batean, eragileon aldarrien bultzadak ere eragina izan du mekanismo horien sorreran. Horiek izan baitira administrazioaren zurruntasuna eta urruntasuna ezbaian jarri dutenak.

Gobernantza³⁸ sarea administrazioaren kudeaketaren berrikuntzarekin lotzen da, eta horretarako, ezinbestekoak ditu partaidetzarako mekanismo eta prozesu ezberdinak. Kontzeptu horren aterkiapen garatzen dira arestian aipatutako partaidetzarako era ezberdinak. Kontuan hartu behar dugu, beraz, gizarte zibilaren eta ezkerreko instituzioen arteko harremana ahalbidetzen duten egitura eta mekanismo ezberdinak³⁹ daudela, bi eragileon arteko lankidetzaren esparrua era ezberdinetan antolatu baitaiteke; kasu honetan, nagusiki bi kontzepturen arabera egituratu nahi izan dugu hartu-emanaren nolakotasuna: batetik, sare gobernantzaren bitartez, eta, bestetik, edo lehenengo horren baitan, parte-hartze instituzionalarekin. Bi kontzeptu hauetatik eratortzen diren proposamenak erabili ditugu, landa-laneko kasuak aztertzeke; bi disositibo edo neurri horien bitartez, sarritan forma hartzen baitute herri mugimendu eta ezkerreko erakundearen arteko lankidetzarako esparruek.

7. irudia: **Gobernantza sarea**



Iturria: Egileak berak egina

Hirugarren kapitulu honetan, beraz, bi azpiatal nagusi jasotzen ditugu. Batetik, gobernantza sarearena eta, bestetik, partaidetza instituzionalarena. Batzuen eta besteen arteko harremana antolatzeko eta aztertzeke tresna egokiak direla uste dugu. Hortaz, aletu dezagun jarraian horietako bakoitza.

37 Imanol Telleriak bere tesian aipatzen duen moduan: «A muy grandes rasgos son tres estos objetivos: i) legitimación, ii) mejora de la gestión pública y iii) transformación de la sociedad (Blas e Ibarra, 2006: 7). (...) El último modelo participación es el que persigue la transformación social porque hace un análisis de las relaciones de poder que no sólo constata las diferencias y desigualdades, sino que además pretende cambiarlas dotando de más poder a quienes menos tienen (empoderamiento). Pocas son las veces en las que las administraciones públicas ponen en marcha procesos participativos con estas intenciones, y más en las que este tipo de procesos tienen un origen irruptivo; es decir, son procesos puestos en marcha desde la sociedad civil, bien sea por un grupo social concreto, bien sea con la conjunción o confluencia de varios.» (2012:111)

38 Aurrerago sare gobernantza kontzeptuaren definizioa eta horren bilakaera aztertuko dugu.

39 NIPak, aurrekontu parte-hartzaileak, kontseiluak eta abar.


2.3.1. Gobernantza sarea politika publiko komunitarioetan sakontzeko tresna

Arestian aipatu bezala, azken hamarkadetan, gobernatzeko beste molde batzuk zedarritzen joan dira, modu tradizionalen aurrean. Ibarrek, Gomàk eta Martík (2002) dioten bezala, gobernu ordezkatzailerean gizarte sektore ezberdinen parte-hartzea ahalbidetu nahi izan duten gobernu egiturak itxuraldatuz joan dira. 'Gobernantza' deitu izan zaio politika publikoak eta erabaki politikoak eragile askoren artean hartzeko moduari. Aldaketa hori eman arte, gizarte industrialetan nagusitu izan diren politikak alde bakarreko erabaki prozesuetan eta erakunde publikoen funtzionamendu zurrungoetan egituratu izan dira. Eremu publikoa, ordezkari politikoak gidatutako goitik beherako kudeaketa-ereduan oinarrituko da:

«Cristalizan procesos de gobiernos delegativos, unidimensionales, apoyados en formas de acción política más adscriptivas que reflexivas generadoras de rendimientos estandarizados a escala nacional-estatal». (Ibarra, Gomà eta Martí, 2002:58)

Delegazio eta teknifikaziorako joera nagusi izan da gobernu tradizioaletan. Hala eta guztiz ere, erabakitzeko ahalmena eragile gutxi batzuen esku egotetik zabalduz joan da gobernantza agertoki berriei bide emanez. Merkaturia, Estatua eta Komunitatearen arteko elkarreaginak eta presioek harreman konplexuagoi atea zabaldu die, hurrengo irudian jasotzen den moduan.

8. irudia: **Estatu/merkatu dikotomiatik botere publikoen, merkaturien eta komunitatearen arteko harreman konplexuetara**



Iturria: Egileak berak egina

Ikuspegi berri honen bitartez (Ibarra et al., 2002; Blanco eta Gomá, 2002), politika publikoen jatorrian egon den estilo burokratiko⁴⁰, lehenik, eta Gestio Publiko Berriarekin, bigarrenik, eredu neoenpresariala

40 Administrazio publikoaren bilakaeran kudeaketa eredu ezberdinak bereizten direla esan dezakegu: jatorrian sortu zen eredu burokratikoak, 90eko hamarkadan Gestio Publiko Berriara igaro zen, eta azken fase gisa gobernantzarena dela esan daiteke.

gainditu nahi izango da. Eta horren kontra, sare kritikoa parte-hartze eta eztabaidarekin batera osatuko duten erabaki eta ildo politikoei bidea zabaldu nahi izango zaie (Parés et al., 2009). Aztertzeke dagoena da sare horren sakontasun demokratikoa edota demokratizaziorako duen ahalmena, eta horixe da, hain zuzen ere, gure ikergaiaren eremuan edota atal enpirikoan aztertu duguna. Baina horretarako, lehenik, gobernantza eredu ezberdinen eztabaida argitzea beharrezkoa ikusten dugu. Gobernantzaren ideiak eztabaida ugari sustatu baititu, bai eremu ekonomikoan, bai instituzionalean.

2.3.1.1. Partaidetza sareak eta gobernantza ereduak

Aurrez esan bezala, hortaz, gobernantza eragile ezberdinen harreman sarean oinarritzen den erabaki politikoak hartzeko moduari deritzo. Adostasun maila handia dago, Stokerrek aipatzen duen gobernantzaren definizio honekin: «Gobernu estiloen garapena, zeinetan sektore publiko eta pribatuen arteko muga lau-sotzen den» (aipatua Parés, et al. 2009:369).

Kontzeptu honen jatorrira jotzen badugu, kontuan hartu behar dugu ekonomia neoklasikoaren baitan kokatzen den ideia dugula, non enpresen eraginkotasun eta errentagarritasunarekin lotzen den. 1937an, Ronald Coase britaniar jatorriko ekonomialariak ezaguna egin zuen, eta beranduago Oliver Williamonek zabaldu zuen, bere lanaren bitartez (aipatua Monedero, Jerez, Ramos eta Fernandez, 2013:10). Laster hedatuko zen beste eremu geografikoetara zein ezagutza esparruetara eta baita gizarte zientzien baitan, erakunde publikoen eremura, eta batik bat politika publikoen diseinuetara. Erakunde publikoetara salto egiten duenean, gizarte zibilaren mesedetan bainoago, merkatuaren onurarako izan zela diote hainbat aholkariak:

«En el desarrollo de la gobernanza se pasa principalmente a articular formas de gobierno que den mayor prioridad al mercado —convertido en la variable independiente e incuestionable—, a formas burocratizadas de representación de intereses, a los organismos internacionales, a un tipo de justicia centrada en garantizar la propiedad privada, a algunos Estados hegemónicos y a partes de la sociedad civil de los diferentes países que asumen una representación que, en verdad, no pueden ejercer al estar ausente la identidad de intereses entre esos supuestos representantes y los representados». (ibid.:11)

Gobernatzeko era berrietan, beraz, kritikoei diote eragile ekonomikoek komunitateak edo sare kritikoei baino eragiteko ahalmen handiagoa izango dutela, eta azken batean, ezkutuan dagoena litzateke legitimitate edo gobernagarritasun krisia. Begirada kritiko horien aurrean, dena dela, badira gobernantza berrikuntza demokratiko gisa definitu izan dutenak. Hala nola Subirats, Parés, eta Blancoren (2009) aburuz, gobernatzeko era ezberdin horiek partaidetza mekanismoak integratuko dituzte, herritarren eta eragile ezberdinen ahotsa erabaki prozesuetan kontuan hartzeko asmoz. Izan ere, politika publikoen diseinuan partaidetza eta deliberaziorako praktikak liriateke ezaugarriak esanguratsuenak gobernugintza tradizionaletatik gobernantza sarerako trantsizioan. Beste era batera esanda, estilo monopolista, hierarkiko eta zurrunetatik eragile mapa zabal batek osatutako erabaki prozesuetara emango litzateke aldaketa, eta eragile horiek guztiek sare gisa antolatuta leudeke.

Katalanek diote gobernantzak Politika Publikoen Analisisian ikuspegiekin zerikusi handia duela, bereziki *policy network*arekin edota politika publikoen sarearekin, zeinak politika publikoen garapena oinarrituko duen eragile ezberdinen elkarrekintzan. Aitzitik, bi ikuspegiak —governantza eta *policy network*arena— ezberdindu nahi izango dituzte. Autore hauen esanetan, lehenak gobernua osatzeko moduen aldakete-

tan sakonduko du, globalizazioak eragindako testuinguruan, *policy network*ak, ordea, ez; eta, gainera, sareen jatorriaren irakurketa ezberdinak egingo dituzte. Izan ere, *policy network*aren arabera, sareak berez sortzen diren bitartean, inplikaturik dauden eragileen arteko dependentziagatik, gobernantzaren paradigmatik gatazka baten kudeaketan du jatorria; hau da, eragileen artean suertatu ohi diren gaizki ulertzeek partaidetzaren ikuspegiari bide emango liokete. Hori horrela delarik, autore horien esanetan, gobernantzaren ikuspegiak arazo kolektiboak erantzuteko ezinbestekoa luke aktore publiko, pribatu eta sozialen arteko elkarlana. Are gehiago, sare gobernantza burokratizazioaren zurruntasunak eta merkatuek eragindako ezberdintasun sozialei aurre egiteko baliabide gisa erabili izan dela azpimarratuko dute. Era berean, Subiratsek, Parések, eta Blancok (2009) diote sareen osaketak zilegitasun demokratikoa eztabaidaren erdigunera ekarri duela.

Azken batean, gobernu tradizionalen ezintasunek abian jarriko lituzkete, neurri batean, sare gobernantzaren jardunbideak; Gomá eta Blancoren (2002) arabera, ezaugarri hauei egingo diete azpimarra:

- Prozesu politikoaren berezko konplexutasunen aitortza, onarpena eta integrazioa.
- Sare anitzen testuinguruan eragileen parte-hartzearen bitartez osatuko den gobernu sistema.
- Gobernu prozesuetan botere publikoen posizio berri bat, rol berrietara egokituko dena eta bitarteko berriak darabiltzana.

Hiru baldintza horiek, halere, ez dituzte automatikoki gobernu tradizionalak zituzten arazoak konponduko. Ikusteko dago oraindik, bai funtzionaltasunaren eremuan, eduki berrien lanketan zein zilegitasun eta sakontasun demokratikoan, Estatuaren legitimazio edota gobernagarritasun krisiari aurre egiteko gai diren.

Badirudi, beraz, ikuspegi ezberdinak daudela, sare gobernantzaren eremuan. Grau-Solések, Iñiguez-Ruedak eta Subiratsek diotenez (2011), gobernantzaren irakurketa teorikoen artean bi mutur topa daitezke: ikuspegi baikorra eta ezkorra. Lehenengoak, eraginkortasunean argi fokua jarriko dutenak, eta, bestea, berriz, sareen kalitate demokratikoari erreferentzia egingo diotenak.

Bestalde, Eva Sorensen eta Jacob Torfing (2005) bigarren begirada horretan kokatuko dira eta sare gobernantza are gehiago definitzen lagunduko diguten bost oinarrizko elementu nabarmenduko dituzte (aipatua Subirats, Parés, Blanco 2009:370):

- Elkarren menpekoak diren aktore sare horizontal eta egonkorra, eta, era beran, modu autonomoan funtzionatuko dutenak.
- Elkarrekintzan egongo direnak negoziazio, elkarrizketa eta botere borroka ezberdinen bitartez.
- Alor instituzional baten testuinguruan jardungo dutenak, arau, ezagutza eta iruditegi sozial ezberdinetan artikulatu daitezkeenak.
- Zehaztuta dauden mugen baitan autoarautzen direnak.
- Izaera publikoa helburu duen asmo bat ahalbidetzeko gai direnak, ikuspegi, ideia, proposamen eta arautegi anitzen erdian.

Hortaz, sare gobernantzak praktikan forma ugari har ditzake. Jatorria ere askotarikoa izan daiteke. Izan ere, sareen osaketa Estatuaren edo gizarte zibilaren ekimenez sustatu daiteke. Eta gure kasuan, ezkerreko gobernutik edota eremu zehaztetako herri mugimenduetatik abiatutakoak aztertuko ditugu. Herrigintza aintzat hartuko duen gobernu gintza amaraun instituzionalak ezkerreko gobernuaren asmo demokratiza-

tzailak erdiesteko eraginkorrak izan diren ikusteko dago. Sare parte-hartzailea edo sare kritikoaren presentziak, finean, arestian esan bezala, *statu quo*a eraldatzeko eraginkorrak diren aztertzeke dago. Beste hitz batzuekin esanda, gobernantza sareak herri mugimenduen aldarrientzako aukera politikoen agertoki gisa (Tarrow, 1997) irudikatu daitekeen. Finean, Easton (1969) politologo kanadarraren ereduari jarraiki, sistema politikoarentzat komunitatearen premia eta gizarte eragileen aldarrien inputak erabaki publikoetan indar handiagoz barnebiltzeko aukera dagoen.

Izan ere, hasieran esan dugun moduan, ahots kritiko ugari azaleratu dira gobernantzaren eta gobernantza sareen alde ilunaz ohartarazten gaituztenak. Hardt eta Negri (2000), adibidez, diote gobernantza eredu horrek azken urteotako olatu neoliberalaren ezbaian jartzea eragozten duela, ez baitira gai merkatu ekonomia sustatzeko bideratzen diren politikak eraldatzeko. Beste kritika bat eratortzen da sare horietan parte hartzen duten eragileen profiletatik, sarritan erakundeetako ordezkariak osatutako sareak eratu ohi direla, aktore kritikoetan kritikoaren parte-hartzea zailduz, ez baita jartzen eragileen arteko baliabideen desorekarako neurririk. Ahots kritiko horiek guztiak eredu horren arriskuez ohartarazten gaituzte. Hor-taz, aintzat hartu behar ditugu ere ikuspegi kritikoetatik plazaratzen diren gogoetak, gobernantza sarea berrikusi eta birpentsatzeko beharra dagoela diotenean. Horrela azaltzen dute ere Monederok, Jerezek, Ramosek eta Fernandezek (2013), Hego Ameriketako partaidetza esperientzien berriskuketa kritikoan:

«La gobernanza, en definitiva, se convierte en una forma de legalidad neoliberal, preparada incluso para ofrecer respuesta al colapso del neoliberalismo, ocultando una vez más con cuestiones de gestión crítica de raíz al modelo capitalista. Se calla la idea de transformación social, de una participación social no cooptada, de justicia social, de poder, de conflicto y por supuesto, de explotación y superación del marco capitalista.» (Mondero et al. 2013:12)

Ikuspegi kritiko horretatik abiatzen direnek galdera hauek mahaigaineratuko dituzte: Gobernantza demokratizazioa sustatzeko baliagarria da edo ihesbide bat besterik ez da? Jatorrian testuinguru ekonomikoaren kontzeptua eraldaketa sozialerako baliagarria izan daiteke? Gobernagarritasun edo legitimazio krisiari aurre egiteko edo ezkutatzeko tresna bat da? Bob Jessopek (2009) ere metagobernantzaz diharduenean, arrisku horiek ere agerian uzten ditu. Estatuaren burokratizazioa eta merkatuen logika gainditzeko 'governantza heterarkikoa' da britaniarrak proposatuko duen alternatiba; sare sozialen auto antolakuntza litzateke merkatuari eta Estatuaren logikei aurre egiteko bidea. Egungo testuinguru konplexuetan, dio Estatuak eta merkatua ez direla gai arazo sozialei aurre egiteko, eta gobernatzeko logika ezberdinetan pentsatu beharra dagoela azpimarratuko du:

«La metagobernanza supone la definición de nuevos papeles y funciones que desbordan sus límites, la creación de dispositivos de unión, el patrocinio de nuevas organizaciones, la identificación de las organizaciones adecuadas para liderar la coordinación con otros socios, el diseño de instituciones y la generalizaciones de visiones que faciliten la auto organización en diferentes campos» (Jessop, 2009:281)

Alabaina, ahots kritikoaren artean, ikusi dugu nola desitxuratze eta ahulgune horien guztien jabe izanda ere, badirela diotenak tresna baliagarria izan daitekeela eragile ezberdinen arteko lankidetzaren esparrua aztertzeko. Alta, demokraziaren ikuspegi kritikoaren aldekoek, berrikuntza eta aldaketaren beharra nabarmenduko dute gobernuaren eremuan, eta partaidetzak edo eragile ezberdinen hartu-emanak pisu handia izango du berrikuntza demokratikoaren aldeko ikuspegiaren. Horrek ez du esanahi arriskuak eta

ahulguneak kontuan hartu behar ez direnik. Aztertu beharko lirateke sare gobernantzak demokratizazio-rako eskaintzen dituen aukerak eta erresistentzia edo oztopo nagusiak. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, atal enpirikoan egin duguna. Gipuzkoako Foru Aldundian ezkerreko indar politikoak egon diren bitartean eman diren sare gobernantza esperientzien sakontasun demokratikoa edo elkarlanen partaidetza maila zein izan den aztertu nahi dugu, hau da, azken batean, gizarte mugimenduen eta herritarren ekarpena ahalbidetzeko edota zailtzeko abian jarri diren gobernatzeko moduak. Eta era berean ikusi ea gobernuen zein gizarte eragileen edo sare kritikoen⁴¹ asmo eraldatzaileak erdiesteko baliagarriak izan diren, edo sareak eskaini dituen eragiteko aukerak. Eztabaida ez da, hortaz, sare gobernantza eraginkorragoa izateko gai den, baizik eta amaraun horren sakontasun edo balio demokratikoa. Alegia, politika publikoen osaketan herritar eta gizarte eragileen inplikazio, eztabaida eta adostasun maila, eta era berean, demokratizazio-rako baliagarriak diren ala ez ikustea, alegia, ea demokrazia ordezkatzailaren mugak gainditzeko balio izan duen, harreman horizontalagoak ahalbidetu dituen, herritarren ahotsa aintzat hartua den, eta nola ez, gizarte eragileen partaidetza eta eragiteko ahalmena areagotu diren. Sare gobernantza ebaluatzeko irizpideak ezinbestekoak ditugu neurketa honetan.

2.3.1.2. Gobernantza sarearen sakontasun demokratikoa

Norabide horretan, oso baliagarria izan zaigu, Subiratsek, Parések eta Blancok (2009) proposatzen duten tresna analitikoa, hurrengo koadroan jasotzen duguna. Bertan, lau dimentsio ezberdineko analisisa proposatuko dute sare gobernantzen sakontasun demokratikoa neurtzeko. Dimentsio bakoitzean aldagai ezberdinak neurtuz. Gu begirada analitiko honetatik abiatu gara, gure kasuak aztertzeko, eta tresna horri zenbait egokitzapen egin dizkiogu. Aurrerago deskribatuko ditugu biak.

Autore hauen esanetan, gobernantza sarearen balio edo sakontasun demokratikoa neurtzerako orduan, elementurik garrantzitsuenak da politika publikoetan herritarren eta gizarte eragileen partaidetza sustatzeko eta barnebiltzeko duen gaitasuna. Izan ere, gobernugintza espezifiko honek ez du zertan partaidetza mota hori bermatzen. Halaxe jasotzen dute:

«La redes de gobernanza no siempre aseguran la implicación de la ciudadanía en las políticas públicas (Lowndes y Suvillan, 2004), por lo que se requieren criterios específicos para evaluar su participación en estas redes.» (Subirats et al. 2009:375)

Begirada zorroztea ezinbesteko bihurtzen da, beraz, kasu hauetan. Katalanek sakontasun demokratikoa aztertzeko ikuspegi ezberdinetatik egin daitekeela diote; haien artean, Sorens-en eta Torfing-en (2005) ikuspegi nabarmenduko dute. Autore hauen arabera, gobernantza sarea demokratikoa izango da baldintza hauek ematen diren bitartean: sareak demokratikoki aukeratuak izan diren ordezkariak kontrolatzen dituztenean; partaideek euren taldeen borondatea ordezkatzeko dizkietenean; sareaz gaindiko herritarrei kontuak ematen dituztenean; arau demokratikoen arabera funtzionatzen dutenean. Subiratsek, Parések eta Blancok, aldiz, beste adierazle multzo bat proposatuko dute. Sare demokratikoaren eta parte-hartzailearen balioa lau dimentsio ezberdinen analisisan ezaugarrituko dute: sarearen osaketa, barneko botere harremanak, interes eta joko arauen banaketa, sarearen ingurukoekiko harremana.

41 Sare kritiko edo ekintza kolektiboen sareak Ibarrek, Gomak eta Martík (2002) politika publikoetan eragitea helburu duten eragile edo gizarte mugimenduez osatutako sareak definitzeko.

10. taula: **Gobernantza sareen sakontasun demokratikoa**

Gobernantza sarea	Aldagaiak	Sakontasun demokratiko eskasa	Sakontasun demokratiko altua	Herritarren parte-hartzea ahalbidetuko duten osaketak
Oinarrizko sarearen osaketa	1. Aktoreen dentsitatea 2. Konplexutasuna 3. Harremanen intentsitatea	Kopuru mugatu Homogeneoa Puntuala	Kopuru handia Heterogeneoa Sistematikoa	Zenbat eta dentsitate eta konplexutasun handiagoa, orduan eta aukera gehiago parte hartzeko
Barneko botere harremanak	4. Botere harremanak 5. Nagusitzen diren baliabideak	Asimetrikoa Materialak	Simetrikoa Harremanak	Harremanek indarra badute, eta berdintasunean oinarritzen badira, aktoreentzako aukera gehiago zabaltzen dira
Interes eta joko arauen banaketa	6. Hasierako posizioa 7. Barne estrategiak	Akordioa Negoziazioa	Gatazka Elkarrizketa	Elkarrizketak parte-hartzea errazten du
Sarearen ingurukoekiko harremana	8. Eragina politika publikoetan 9. Iragazkortasuna 10. Eragina komunikabideetan	Apala Apala Mugatua	Altua Altua Handia	Eragiteko ahalmenak, iragazkortasunak eta presentzia mediatikoak parte-hartzearen eremua zabaltzen dute

Iturria: Subirats, Parés eta Blancok egina (2009:376)

Lehenengo dimentsioari dagokionez, diote sarea zenbat eta trinkoagoa eta konplexuago izan, orduan eta aukera handiagoak emango direla partaidetzarako. Era berean, azpimarratuko dute sarean eragile askotarikoak eta anitzak badira, aldagai demokratiko garrantzitsu baten aurrean geundekeela. Izan ere, aktore gutxiak parte hartzen duten kasuetan, eta, horrez gain, gizartearen konplexutasuna eta aniztasuna ordezkatzen ez badute, sare baztertzailagoak eta ez oso parte-hartzaileak izango lirateke; finean, balio demokratiko gutxiagoak.

Sarearen osaketarekin batera, barne mailan ematen diren botere harremanak ere kontuan hartu behar direla diote. Beste hitz batzuekin esanda, begiratu beharko litzateke harreman horien asimetriak eta baliabide materialen arabera kudeatzen diren edo ez. Norabide horretan, baliabide materialen aurrean harremanezkoak nagusitzen badira eta berdintasunean aritzeko gai badira, orduan eta aukera gehiago zabalduko dira eragile eta herritarren inplikaziorako.

Azpimarratu nahi izango duten beste elementu bat litzateke kontsentsu edo gatazken logikei dagokiena. Aniztasuna eta gatazka demokraziaren jatorrian dauden elementuak direla aitortzen dute, baina era berean ezberdintasunak kudeatzeko modu ireki eta inklusiboak hobetsiko dituzte. Horrela:

«Entendemos que una red de gobernanza será más democrática en la medida en que permita las posiciones de disenso y contemple todas las alternativas posible, sin ninguna exclusión de partido y sin límites normativo ideológicos. Sin embargo, también creemos que las redes de mayor calidad democrática serán aquellas capaces de plantear estrategias de diálogo entre las diferentes posiciones y, en la medida de lo posible pero sin forzar las posiciones de cada actor, producir soluciones colectivas. Así, una red tendrá mayor calidad democrática cuando

permita posiciones iniciales de conflicto y promueva estrategias internas basadas en el diálogo» (Subirats, Parés eta Blanco, 2009:377)

Azkenik, balio demokratikoa neurtzeko erabiliko duten dimentsioak zerikusia izango du sareak eta be-
 rau osatzen duten kideek inguruarekin duten harremanarekin. Finean, inguruarekin iragazkorra den
 sarea balio demokratiko handiagoa izango du, testuinguru zehatzetako arazoak, diskurtso berriak eta
 ordura arte parte hartu ez duten aktoreak integratzeko gai direlako. Ildo beretik, politika publikoetan
 eragiteko gaitasun egiazkoa duten sareak eta komunikabideetan presente egongo direnak balio han-
 diagoa izango dute.

Begirada hau baliagarria izan zaigu gure azterketa eremua doitzeko eta herri mugimenduen eta erakun-
 deen arteko harremana aztertzeko. Dimentsio horiek guztiak kontuan hartuta, gure analisisan atal hauek
 aztertu nahi izan ditugu:

11. taula: **Gobernantza sareen sakontasun demokratikoa eta elkarreaginaren dimentsioak**

GOBERNANTZA SAREA AZTERTU BEHARREKO DIMENTSIOAK	ALDAGAIK
1. Agertoki berri baterako abiapuntua eta elkarrekiko aitortza	1.1. Elkarlarrerikotasuna edo elkarren aitortza 1.2. Elkarlanerako irekitasuna 1.3. Elkarlana ulertzeko modua 1.4. Aliantzak (mugimenduen artean edo mugimendu eta ordezkarien artean)
2. Gobernantza Sarearen osaketa	2.1. Sarearen sustatzailea edo jatorria 2.2. Informazioa eta espazioaren definiziorako gaitasuna 2.3. Aktoreen dentsitatea eta aniztasuna (genero ikuspegitik) 2.4. Harremanen sakontasun maila
3. Partaidetza espazioen eta elkarlanaren joko arauak: botere harremanak eta baliabideen banaketa	3.1. Elkarlanerako joko arauak, botere harremanak eta baliabideak 3.2. Barne eta kanpoko botere harremanak 3.2.1. Gatazka eremuak eta horiek kudeatzeko tresnak 3.2.2. Lankidetzaren ahuldu eta indartu duten faktoreak 3.3. Baliabideen banaketa
4. Komunitatea eta administrazioa eraldatzeko/ demokratizatze gaitasuna	4.1. Administrazioaren eremuan: 4.1.1. Politika publikoetan eragiteko ahalmena 4.1.2. Erakundearen funtzionamendu burokratizatua komunitariora eraldatzeko gaitasuna 4.2. Arlo komunitarioan: 4.2.1. Herri mugimenduen jarduna elikatu, saretu eta indartzeko gaitasuna 4.2.2. Partaidetza kultura indartu 4.3. Eragin mediatikoa

Iturria: Egileak berak egina, Subirats, Parés eta Blanco (2009:376) oinarri hartuta

Koadroan jasotzen den moduan, Subiratsek, Parések eta Blancok proposatzen digutenari, analisirako zenbait dimentsio gehitu dizkiogu. Lehenik eta behin, elkarlanerako jarrera eta kokapena aztertu nahi izan dugu, eta horren baitan: elkarren arteko aitortza eta elkarlanerako irekitasuna eta berau ulertzeko modua. Hasierako kokapena garrantzitsua iruditu zaigu, bereziki hurbil sentitu daitezkeen aktore politikoaren artean, gure kasuan: ezkerreko gobernuak eta herri mugimenduak. Bigarren dimentsioaren baitan, zenbait aldagai berri erantsi ditugu: espazioen definiziorako gaitasuna eta ekimenaren jatorria, edo beste era batera esanda, sarearen sustapena. Espazioa elkarrekin definitzeko gaitasuna badago eta horrez gain ekimena gizarte eragileetatik badator, gure ikuspegitik, balio demokratiko handiagoa du sare gobernantzak. Sarritan, partaidetzarako espazioak eremu instituzionaletik definitzen baitira, gerora parte hartuko duten eragileen ahotsa kontuan hartu gabe. Horrekin batera, partaidetza maila ekimenaren jatorriarekin ere erabat lotuta dagoelakoan gaude. Gizarte eragileen premietatik definituko balitz espazio horrek zentzu politiko handiagoa hartuko luke. Komunitatearen edota gizarte eragileen beharretatik abiatuko balitz, espazio horrek zentzu politiko handiagoa hartuko luke, gizarte premia bati erantzungo liokeelako, eta, era berean, partaidetza espazioaren bizitasuna eta iraupena baldintzatuko lukeelakoan gaude.

Bestalde, hirugarren dimentsioan, hau da, baliabideen banaketa eta joko-arauen azterketan ere hainbat moldaketa gehitu ditugu. Batetik, barne eta kanpoko botere harremanak aztertu nahi izan ditugu, eta horretarako bi elementu nagusietan zentratu gara: gatazken sorrera eta horiek kudeatzeko estrategiak, eta, bestetik, eragileen malgutasuna eta sarearen egokitzapenerako gaitasuna. Gatazkek duten funtzio demokratizatzailea kontuan izanik, iruditzen zaigu posizioen arteko konfrontazioak eta horren kudeaketak sakontasun demokratiko handia ematen diola gobernantza sareari, eta, bestetik, hirugarren dimentsio honetan, teknikarien, politikarien zein mugimenduetako kideen ikuspegitik, lankidetzaren eremua ahuldu eta indartu duten faktoreak era bildu nahi izan ditugu.

Laugarren dimentsiora jotzen badugu, ingurunea eraldatzeko edo bertan eragiteko ahalmena neurtzea ere garrantzitsua deritzogu. Eragina bi norabideetan zehaztu daiteke, batetik, administrazioaren funtzionamendua edota politika publikoen diseinua egiterako momentuan; alegia, erakundeen logika burokratiko humanizatzearen gai izan den edo ez ikusi. Lan egiteko kultura horizontalagoa eta irekiagoa sortzeko ahalmena neurtu. Eta bestetik, komunitatean partaidetza politikoaren kultura indartzeko eta autoeraketa sustatzeko baliagarria den edo ez ikusi, edo kontrako norabidean, gizarte eragileak ahultzeko modu bat izan den. Bigarren kasu hau emango balitz, agerikoa da gobernantza horren sakontasun demokratikoa txikia izango litzatekeela.

2.3.2. Herritarren parte-hartzea politika publikoetan

Orain arte ikusi dugu gobernantzak zein gobernantza sareak politika publikoen eremuan, gobernu-gintza tradizionala gainditzen lagundu ahal duten antolaketa moldeak izan daitezkeela, edota beste hitz batzuekin esanda, barnebiltzen dituela herritar, gizarte eragile eta erakundeen arteko harremana demokratikoagoa izateko kontuan hartu beharrezko dimentsioak. Badirudi, gaur egun, gobernantzak erakunde publikoen jardunbideen itsasargi gisa funtzionatzen duela. Bestalde, uste dugu, gobernuen antolaketa, kudeaketa eta erabakiak hartzeko eremua eraldatzeko ahalegina egiten duten esperientzietatik zer ikasia badagoela. Molde berri horietan partaidetza nola eta nondik eraikitzen den aztertzea ere beharrezkoa ikusten da. Horretarako, Politika Publikoen Analiaren perspektiba baliagarria izan daiteke, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Aurrera egin aurretik, definitu dezagun lehenik Politika Publikoen kontzeptua. Era askotara definitu daiteke, baina kasu honetan, Subirats, Parés eta Blancok (2009:379) aipatzen dutena jasoko dugu. Lemieux-ena (1995:7) aipatzen dute eurek, beste batzuen artean eta honela dio:

«Una política pública esta conformada por actividades orientadas hacia la solución de problemas públicos en un determinado entorno y en ella intervienen actores políticos y sociales con interacciones más o menos estructuradas y que evolucionan a lo largo del tiempo» (Lemieux, 1995:7, aipatua Subirats, Parés eta Blanco, 2009:379)

Definizioetatik haratago, agerikoa da politika publikoek agenda politikoan ageri den arazo bati irteera emateko sortzen diren neurri multzoak direla. Arazoaren definizioan eta hura bideratzeko hartuko diren erabakietan zein moduetan leudeke desadostasunak definizioen artean. Partaidetzaren dimentsioak prozesu guzti horiei egingo die erreferentzia jarraian ikusiko dugun moduan.

Bestalde, marko teoriko honen lehenengo atalean esan bezala, parte hartzea gobernantza sarearekin batera, demokraziaren ikuspegi kritikoarekin bat egingo luke, eta begirada horren arabera, demokrazia prozesu irekia litzateke, uneoro aldatzen edota garatzen doana. Kasu honetan, erakundeak ez lirateke antolaketa eredu itxiak, demokratizaziorako abiapuntua baizik, bereziki gizarte mugimenduen bultzadarekin eta sare kritikoak burutzen dituen aldarrien aitortza eta kudeaketarekin. Estatu eta komunitatea, beraz, demokratizatu beharra dagoela diote (Santos, 2005; Adamovsky, Aguiton, Berliguer, Calle. et al., 2007), eredu instituzional burokratiko eta hierarkikoa aldarazteko. Arestian aipatu ditugun demokrazia ordezkatzaillearen krisiak hauspotu ditu ezkerreko gobernuen politikak sustatzeko eta erabakitzeko moduen birpentsatze-lanak.

Gauzak horrela, partaidetza instituzionalean murgildu aurretik, parte-hartze politikoaz aipamen bat egin nahi genuke. Izan ere, lehenik, begirada zabaltzea ezinbestekoa dela uste dugu; eremu instituzionaletik harago bestelako parte-hartze ez konbentzionala gogoan izatea garrantzitsua dela deritzogu. Horrek eraldaketa soziala helburu duten espazio autonomoak sortuko ditu, non gizartean ematen diren zapalkuntza ezberdinei erantzun kolektiboak ematen saiatuko den (Parés et al. 2009:18). Era berean, ekintza politikoaren aktoreek bide berriak zabaltzen dituzte, eta alternatibak erakusten eta eraikitzen dihardute etengabe. Espazio eta molde horiei duten garrantzia aitortu behar zaie. Rauberrek (2006) dioen moduan, prozesu askatzaileek ezinbestean bi parte-hartze erak uztartu beharko lituzkete: behetik gora eraikiko direnak eta gobernuen edo administrazioaren eremutik abiatuko direnak. Bi eremuen garrantzia aitortu ondoren, jarraian, esparru instituzionalean kokatzen den partaidetzari heldu nahi diogu.

2.3.2.1. Herritarren partaidetza eremu instituzionalean txertatzeko sakoneko helburuak

Hasteko, partaidetza instituzionalaren sakoneko helburuetara edo jatorrira jo nahi genuke; hau da, eremu instituzionalean partaidetza mekanismoak inplementatzen direnean, zergatik eta zertarako abiatzen diren galderari erantzuteko. Blasek eta Ibarrek (2006) sei⁴² arrazoibide aipatzen dituzte, gerora Telleriak (2012) hirutan laburbildu dituenak: batetik, legitimazioarena, bestetik, kudeaketa publikoaren hobekuntza, eta, hirugarrenik, eraldaketa sozialarena edota demokratizazioarena.

Legitimazioa bilatuko dutenek ez dute inolako aldaketarik nahi, aldez aurretik hartuta dauden helburu politikoaren zilegitasuna handitzea bilatuko baitute. Gai gatazkatsuak edota zalaparta sortu duten esku-hartze publikoei lotuta doazen prozesuak dira autore hauen esanetan. Sakonean ez dago asmo demokratizazailerik edota herritarren boteretzeko politikorako asmorik. Finean, itxurakeriaz ariko ginateke. Sarritan, parte-hartzea erakunde baten irudia eta legitimitatea hobetzeko tresna edo adostasun baztertzailerik sortzeko estrategia bihurtu da gure inguruan.

42 Blasek eta Ibarrek sakoneko zazpi arrazoi egon daitezkeela diote: legitimazioa, eraginkortasuna, herritartasuna, demokrazia, berdintasuna eta interes orokorra. Ibarra eta Blas, Hegoako koadernoak, (2006:7)


Bestetik, kudeaketa publikoaren hobekuntzari dagokionez, eraginkortasun politikoaren ikuspegitik, administrazioaren eta herritarren arteko urruntzea eman dela aitortuko dute eta horrek politika publikoen eragiteko ahalmena kaltetu duela diote. Telleriaren esanentan (2012), planteamendu honek ez du auzitan jartzen erakunde publikoen sistema bera, baina bai hobetzen duela boterearen erabilera, eta herritarren ahotsari garrantzi handiagoa emango zaio, euren bizitzetan eragina izango duten erabaki politikoe-tan edo gaitan bederen.

Azkenik, eraldaketa soziala bilatzen duen partaidetza genduke. Planteamendu honen arabera, gizarte sek-tore baztertuen baldintzak leudeke jomugan. Politikagintzan eragiteko ahalmenik ez dutenak. Parte-har-tzea ezberdintasun politiko horien aitortzatik eratoritzen da. Botere-harreman zapaltzaileak eraldatzeko borondatearekin abiatuko lirateke partaidetza politikak, hirugarren ikuspegi honen arabera. Menderakun-tzaren aurrean eta aukera berdintasunaren alde lerratzeke helburua dutenak:

«Herritarren sektore guztietara hurbilduz eta aniztasun guztia kontuan hartuz, herritar sektore ezberdin horiek duten jakintzari balioa eman, eta eztabaida irekia piztu komunitatearen beharrez eta egiturazko arazo nagusiak zeintzuk diren modu demokratikoan definitzeko» (Martínez, 2008:130)

Beraz, partaidetza mekanismoen abiapuntua nondik eta zertarako diseinatzen den kontuan izan behar dugu. Aipatu ditugun hiru ikuspegi horietan erabat ezberdina litzateke sakoneko helburua eta horrek era-gina izango luke partaidetzaren bilakaeran zein emaitzetan.

9. irudia: **Eremu instituzionalean partaidetza lantzeko sakoneko helburuak**



Iturria: Egileak berak egin

Gure kasuan, gehien bat interesatzen zaiguna hirugarren ikuspegia litzateke. Elkarlanerako molde horien bitartez, botere esparruetatik urrun dauden gizarte sektore baztertuen ahots eta premiei erantzuteko asmoa baitu. Azken batean, bat egiten du Estatuaren demokratizazioaren bide orriekin.

2.3.2.2. Partaidetzaren sustatzaileak ezaugarrituz

Parte-hartze prozesua nondik edo nola abiatzen den aztertzen badugu, bi modu bereizi litezke: partaidetza oldarkorra eta gonbidapenezkoa (Blas eta Ibarra 2006:16). Lehenengo kasuan, herritarrak eta herri mugimenduak lirakeke espazio publikoan espontaneoki sartuko direnak. Euren parte-hartze prozedurak onartzea eskatuko dute, jada hartuta dauden erabaki politikoen aurka erantzuteko. Gonbidapenezkoan, ordea, hitzak berak dioen moduan, tokian tokiko erakunde publikoetako ordezkariak lirakeke, herritarrei gonbitea luzatuko lieketenak, prozesuan parte har dezaten.

Partaidetzaren protagonisten izaeran sakontzen badugu, hiru aktore nagusi bereiziko lituzkete Ajangizek eta Blasek (2008:22): alderdi politikoa, presio taldeak eta herritarrak zein herri mugimenduak. Erdigunean alderdi politikoa leudeke; herritarren ordezkari gisa jardungo dutenak erakunde publikoetan, izan ere, politikariak politika publikoan arduradun nagusiak direla esan daiteke. Azpimarragarria da egun, aktore politiko hauek bizi duten zilegitasun maila eskasa, eta 2017an, Jaurlaritzako Euskal Soziometroak⁴³ argitaratu berri duen ikerketaren datuak begiratzea besterik ez dugu horretaz ohartzeko. Gehienbat, herritarrek emandako erantzunak aztertzen baditugu, alderdi politikokoekiko duten sinpatia maila baloratzea eskatzen zaienean. Bigarren kapituluaren jorratu dugun analisia gogora ekarriz, alderdien ordezkagarritasunaren krisiak eragin du gizarte eragileek bitartekaritzaren funtzioa indartzea edo hauspotzea. Izan ere, mugimenduen egitekoa, gizarte demokraziaren alde mugiarazteko lana alderdi politikoen eta sindikatuen bidez egiten zen garai batean; gaur egun aldiz, geroz eta gehiago, zeregin hori mugimenduen esku uzten da, alderdien legitimazio soziala eta atxikimenduen galeragatik.

Bestetik, baditugu ere politikagintzan zuzenean parte hartzen dutenak, presio taldeak hain zuzen. Talde hauek interes partikularra defendatuko dute, eta ez dira hain agerikoak izango. Dowse eta Hughes-en (1986) arabera, gobernuaren beren interesen alde eragin izatean datza presio taldeen lan jarduna (aipatua Larrinaga eta Barcena, 2004:120). Helburu argiak dituzten erakunde formalak dira eta askotan ez dira ezagunak edo agerikoak:

«Presio-taldeek harreman pertsonalen bidez eta eragiteko duten gaitasun ekonomiko, politiko edota sozialaren bidez, erakundeetako botere zirkuluetara sarbide pribilegiatua dute, horregatik, beti parte hartzen dute botere instituzionalean. Adibidez, presio-talde ekonomikoen kontra-botereak ez du inoiz deskantsurik hartzen, indartsua da eta horregatik, itzalpean presionatu eta "aholkatu" egiten ditu gobernuak egunero» (Blas, 2012)

Presio taldeak alderdiak ez bezala, ez dira hauteskundeetara aurkezten, ez dute botere politikoaren zuzeneko kudeaketarik egingo, eta ez dute barne funtzionamendua kudeatzeko partaidetza mekanismorik edota aukeraketa prozesurik. Horiek dira, interes edo presio taldeak alderdi politikoen bitartez bereizten dituztenak.

43 Zerotik hamarrera doan eskala batean, EAEko alderdi nagusien balorazioetan, hauek dira EAEko alderdi nagusiek jasotzen dituzten emaitzak: EAJ 4.9, Elkarrekin Podemos 3.8, EH Bildu 3.7, PSE-EE 3.3 eta PP 1.5. Beraz, esan bezala, zalantzarik gabe, gobernarritasunaren krisiaren jatorrian, beste faktoreen artean, alderdien sinesgarritasun ezarekin topo egiten dugu. Datuetan gehiago sakontzeko ikus: <<http://www.euskadi.eus/euskal-soziometroak/web01-s1lehike/eu>>

Eta azkenik, herritarrak eta herri mugimenduak ditugu. Presio taldeek interes zehatz eta partikularrak ordezkatzen dituzten bitartean, azken hauek interes orokorraren defentsan jardungo dira. Mobilizazio eta protesta ezberdinen bitartez, agenda politikoa baldintzatu nahi izango dute. Bigarren kapituluaren jasota daude gizarte mugimenduen inguruko xehetasunak.

12. taula: **Sistemak dituen hiru aktoreen eragiteko moldeak**

	PRESIO TALDEAK	ALDERDI POLITIKOAK	HERRITARRAK ETA GIZARTE MUGIMENDUAK
Parte-hartze informaleko erreperitorioa	Harreman pertsonalen bidez, eta eragiteko gaitasun ekonomiko, politiko edota sozialaren bidez botere zirkuluetara sarbide pribilegiatua	Erakundeen esparruetatik kanpo burutzen diren alderdien arteko negoziaketa eta akordioak	Mobilizazioa eta protesta
Parte-hartze formaleko erreperitorioa	Kontseiluak eta negoziazio mahaia	Hauteskundea: herritarren ordezkariak bideratzen dute organo legegile/araugile eta botere exekutiboan	Herritarren parte-hartze mekanismoak, bilerak eta negoziatorako espazioak

Iturria: Ajangiz eta Blas, 2008.

Larrinaga eta Barcenaren esanetan (2004:122), hiru talde hauen artean dauden ezberdintasunak agerikoak dira. Botere politikoaren orientazioari dagokionez, esaterako, diote alderdien helburua argia dela, boterea eskuratu nahi baitute. Mugimenduek, ordea, ez dute boterera heltzeko asmorik. Jendartean dauden botere harremanak eraldatu nahiko dituzte —abantailak edota pribilegioak gutxitu daitezkeen—, eta erakunde publikoak eraldatu beharreko beste eremu bat gehiago litzateke, mugimenduen ikuspuntutik. Presio taldeak, bestalde, ez dute botere instituzionala eskuratu nahi, itzaletik eragin nahi izango dute.

Eragile bakoitzak era ezberdinean ulertuko du partaidetza, joko zelai zein helburu zehatzera mugatuz. Nolanahi ere, badirudi eragile ekonomikoek politika publikoetan parte hartzeko erraztasun handiak ditzutela, eta herritarrek zein herri mugimenduek, aldiz, geroz eta zailago dute. Horren adierazle bat litzateke 2015eko martxoaren 4an, Estatu Espainiarrean onartutako Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoa, gerora, *Mozal Lege* gisa izendatua izan dena. Herri mugimendu askoren esanetan⁴⁴ azken urteotako eskubide zibil eta politikoen murrizketen adierazlea litzateke *Mozal Legea*. Izan ere, herri mugimenduek antolatutako protesta sozialetan egon ohi diren jarduerak auzitan jartzen baitira: besteak beste, komunikatu gabeko elkarretaratzeak eta manifestaldiak; instalazio publikoak, erakundeen egoitzak edo eraikin artistikoak okupatzea; horiek eskalatzea eta aldarrikapenentarako erabiltzea edo sarrera zein irteera oztopatzea; langile publikoak iraintzea, batik bat Indar Armatuak eta Estatu Segurtasun Indarrak; ekitaldi publiko eta ofizialak oztopatu edo baldintzatzea. Donatella Della Portari berriki egindako elkarrizketa batean halaxe deskribatzen du Espainiar Estatuaren egoera: «Estatu autoritario askotan dago mugatuta oposizioa adierazteko eskubidea, baina demokratikotzat jotzen diren Estatu askotan ere gero eta tolerantzia txikiagoa zaio desadostasunari. Espainia da horietako bat, bertan ikusten ari baikara jazarpen politi-

44 Eleak Libre, Bizitza da Handiena, Antiepezistak eta beste hainbat taldeen protestak zigortuak izan dira Mozal Legearen bitartez. Hala Bedi irratia ren arabera, EAEko herritarrek 1.286.974,64 euro ordaindu dituzte isunetan. Informazio gehiago ikus: <<https://halabedi.eus/2018/11/07/la-ley-mordaza-sale-rentable-en-araba>>

ken garapen handi bat; esaterako, Kataluniako independentzia erreferendumean. Karitate ekintzat jotzen daitezen ere kriminalizatzen ari dira, immigrantei eta iheslariari emandako laguntza giza trafikotzat jota.» (Berria, 2018ko abuztuak 16)⁴⁵.

Beraz, erabaki politiko ugari, goitik behera abian jarriko dira, eztabaida sozialik gabe eta presio taldeen eraginpean. Azken batean, geroz eta nabarmenagoa da erakunde publikoen funtzionamendua birsortze-ko estrategiak inoiz baino beharrezkoagoak direla, gehiengoaren interesaren zerbitzura jartzeko, eta ez gutxiengo pribilegiatuen interesetara.

2.3.2.3. Parte-hartzea politika publikoen fase ezberdinetan

Parte-hartzea, hortaz, gobernatzeko modu ireki eta komunitarioak gauzatzeko baliabide garrantzitsu bihurtu da, eta aurrez esan bezala, gizartearen demokratizaziorako ere baliagarria izan daitekeena. Dena dela, gogoan izan behar dugu herritarren eta gizarte eragileen inplikazioak ez duela zertan izan behar helburu edo funtzio eraldatzailea⁴⁶.

Bestalde, politika publikoen dimentsioetan sakondu aurretik, garrantzitsua litzateke parte-hartze prozesuak eta momentuak ezberdintzea, aldea nabarmena baita lehenengoaren eta bigarrenaren artean. Ajan-giz eta Blasek esan bezala (2008), mekanismoek une bat baino ez dute aurreikusten; hau da, eztabaida eta elkarrekintzarako espazioak ez dira erdigunean egongo, eta iraungitzea data dute. Mekanismoen artean aipa ditzakegu NIP/IGPak edo hirigintzaren inguruko kontsulta zehatzak. Prozesuetan, berriz, partaidetzarako eta eztabaidarako momentu ugari aurreikusiko dira, eta denboran luzeagoak izateaz gain, deliberaziorako eta adostasunak hartzeko espazioak ahalbidetuko dira. Bigarren multzo honetan, komunitate planak edo partaidetzazko aurrekontuak leudeke.

Atal honen hasieran esan dugu Politika Publikoen Analisia baliagarri izango zaigula partaidetzaren nondik norakoetan sakontzeko. Bereziki jarraian ikusi dugun moduan, politika publikoen dimentsio ezberdinetan. Izan ere, politika publikoetan herritar eta gizarte eragileen presentzia momentu eta prozesuen bitartez gauzatu daiteke. Zentzu horretan, politika publikoen analisirako, Ibarrek, Martik eta Gomak (2003) proposatzen dizkiguten dimentsioak aproposak iruditzen zaizkigu: dimentsio sinboliko edo diskurtsiboa, dimentsio substantiboa eta dimentsio operatiboa. Jarraian horien azalpena jasotzen da.

Dimentsio sinbolikoaren baitan topa daitezke: arazoaren interpretazioa, eskaeren formulazioa eta diskurtsoen eraikuntza, balio eta sinesmen multzo ezberdinen arabera eraikia. Azken batean, politika publikoaren xedea definitzeko darabilgun marko ideologikoa eta normatiboa litzateke. Beste hitz batzuekin esanda, *Zergatik eta zertarako?* galderei erantzuneko dien dimentsioa. Gobernantza sarearen baitan aztertu dugun hasierako jarrerak edo kokapenak erreferentzia egingo lioke dimentsio honi.

Dimentsio substantiboa, berriz, edukietan jarriko du begirada; hau da, formulazioa eta erabakiek inportatu litzateke. Bitarte horretan, parte-hartzeari lotutako ekintzak, jarduerak eta bestelako neurriak egin behar dira. Eremu honetan, politika publikoaren edukia eta aukera ezberdinak negoziatuko lirateke, non, estrategia zein mekanismo parte-hartzaileen sorrera zehaztuko litzatekeen. Laburbilduz, Zer galderei erantzuneko lioke dimentsio substantiboa.

45 Berria egunkarian egindako elkarrizketa. Jon O. Urain. 2018ko abuztuak 16ean. Berreskuratua: <https://www.berria.eus/paperekoa/1864/006/001/2018-08-16/garrantzitsua_da_protesta_molde_alternatiboak_garatzia.htm>

46 Partaidetzaren sakoneko helburuak aipatu ditugunean, arrazoi ezberdinei egiten diogu erreferentzia. Sarritan marketing politikarako tresna gisa erabiltzen baita. Azken urteotan, partaidetza mekanismo eta prozesuak ugaltu diren neurrian, horien gaineko kritikak ere ugartu egin dira.

Azkenik, dimentsio operatiboa, inplementazio fasean kokatzen diren joko-arauekin lotuko genuke. Gobernantza sareak arautuko lituzkeen funtzionamendu arauak. Kasu honetan, eragileen arteko elkarrekintza aztertuko genuke: zeintzuk diren aktoreen arteko desorekak eta botere harremanak, eta guzti hori nola kudeatu den ikusi. Beraz, hirugarren dimentsio honek, politika publikoen *Nola eta nortzuk?* galderari egiten dio erreferentzia.

13. taula: **Parte-hartzearen eta sakontasun demokratikoaren bereizgarriak**

<p>DIMENTSIO SINBOLIKO-DISKURTSIBOA Zergatik eta zertarako?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Politika publikoa ardazten duten balioak demokratikoak dira. • Eztabaida irekia ematen da balio, marko kognitibo eta arazoaren definizioaren inguruan.
<p>DIMENTSIO SUBSTANTIBOA Zer?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Agenda politikoa herritarren interesen arabera eraikiko da. • Parte-hartzeak politika publikoen edukia baldintzatuko du. • Politikak eragindako eraldaketak parte-hartzearen emaitza izango dira, aurrez identifikatutako arazoei aurre eginaz.
<p>DIMENTSIO INSTITUZIONAL OPERATIBOA Nortzuk eta nola?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Politika ezaugarritzen da gobernantza sare parte-hartzaile eta demokratikoen bitartez.

Iturria: Subirats et al. 2009:394

Marsh eta Smithen diotenez, hiru dimentsioek euren artean elkarrekintzan dihardute une oro, hau da, politika publikoen osieran harreman dialektikoa izango dute (aipatua Subirats et al. 2009:393). Eta honenbestez, gobernantza sareetan nagusitzen diren balio eta diskurtsoetan inguruabar zehatzen joko-arauek eragina izango dute, eragile batzuen parte-hartzea hauspotuz edo ahulduz. Era berean, dimentsio substantiboak ere aktore edo sarearen osaketan ondorioak izan ditzake. Azken batean, interesatzen zaiguna da, partaidetzak dimentsio bakoitzean jokatzeko duen rola ezagutu, eta horien sakontasun demokratikoa aztertzea. Hau da, demokratizaziorako baliagarriak diren ikustea. Horretarako, aztertu beharko genuke, politika publikoaren balioak zein neurrian diren demokratizatzaileak, eta gizarte sektore baztertuei sistema politikoan eragiteko aukerak ahalbidetzen dizkien. Esan daiteke, hortaz, politika publiko baten sakontasun demokratikoa handia izango dela, hiru dimentsio horien definizioan herritarrak eta gizarte eragileen begiradak kontuan hartzen badira eta horretarako neurriak zein baliabideak eskaintzen badira.

Parte-hartzea politika publikoaren dimentsio ezberdinetan integratu daitekeela ikusi dugu orain arte, baina aletu ditzagun gehiago politika publikoaren fase nagusiak. Izan ere, momentu ezberdinetan txertatu daitezke ahots ezberdinak. Nagusiki, bost fase ezberdinak litezke:

10. irudia: **Partaidetzaren agerpena politika publikoen fase ezberdinetan**

Iturria: Egileak berak egina, Subirats et. al (2008), Jone (1970), Mény eta Thoeing (1989), 2009:388) oinarri hartuta.

Beraz, Subirats, Parés eta Blancoren (2009:389) esanetan, ondoko fase nagusi hauek bereizten dira: arazoaren sorrera, agenda politikoan txertatzea, programa politikoaren formulazioa edo egokitzapena, politikaren inplementazioa eta ebaluazio politikoa. Lehenengo fasean, partaidetzaren dimentsioa neurtzeko aztertu beharko litzateke arazoaren idenfitikazioa nola suertatu den; ea herritarrek eraginik izan duten prozesu horretan eta komunitatearen behar bati erantzuten dion. Bigarren fasean, aztertu beharko litzateke gobernuak arazo horren aurrean neurriak hartzeko faktoreak zeintzuk izan diren, hau da, gizarte eragileek eta herritarrek zenbateraino eragin duten jarrera aldaketa horretan. Eta era berean, ea berdintasun egoera batean eman den edo botere harremanen ondorioz eman diren. Hirugarren fasea programa politikoaren formulazioa edo egokitzapena litzateke. Oraingo honetan, arazoaren aurrean formulatu diren soluziobideetan parte-hartzeak izan duen presentzia izango genuke aztergai, politika publikoa nola eta zenbateraino baldintzatu duen soluziobideen diseinuan. Azken-bigarren fasean, inplementazioan, alegia, alde aurretik hartutako erabakia bete diren edo ez ikusi beharko da, eta inplementazio fasean eragileen parte-hartzea zer nolakoa izan den. Azkenik, bosgarren fasean, politikaren ebaluazioa izango genuke. Kasu honetan, aurreko fase guztien ebaluazioa egingo litzateke, baina lan-prozesuan parte hartu duten eragile guztien ikuspegitik.

2.3.2.4. Eremu instituzionalean askotariko begiradak barnebiltzeko ibilbide orriak

Herritar eta eragileen partaidetzarako mekanismoek edota prozesuek, Pindadoren esanetan (2005) plangintza oso bat eskatzen dute, eta horrekin batera erakundearen funtzionamendua moldatzea ere beharrezko jotzen da. Ajangizek, Blasek eta Susok (d.g.) dioten moduan partaidetza politikak sarritan abian jarri ohi dira, aurre gogoetarik gabe, horrek dituen mugak eta ondorioak aztertu gabe, alegia. Aurreplangintza edo gogoe-tarik gabe parte-hartze politikak ondorio ez desiragarriak dakartzate. Era berean, eremu instituzionalean maila politikoa eta teknikoa bereiztu beharrean gaude, parte-hartze politikoak aztertzerako orduan, ardura eta zeregin ezberdinak baitituzte batzuek eta besteek. Ordezkaritza politikoen borondate politikoa da prozesuaren oinarritzeko osagaia, eta horrekin batera aurretiazko gogoeta edo Pindadok azpimarratzen duen plangintza. Lidergotza politikoaren eskutik barneratzen joan dira berrikuntza demokratikorako mekanismoak, eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kideen esanetan, hauteskundearen logikatik kanpo erein beharreko eremua da.

«En definitiva, la falta de acuerdo en el seno del partido político gobernante, entre los partidos de la coalición gobernante, o entre el equipo de gobierno y la oposición, mina radicalmente las posibilidades de desarrollo fructífero de una

participación ciudadana que no entiende de periodos legislativos y mucho menos de enfrentamientos partidistas; y ello porque su lógica es muy otra: la búsqueda de consensos en el seno de la ciudadanía y la continuidad en el tiempo de su participación influyente.» (Ajangiz, Blas eta Suso, d.g.:9)

Beraz, badirudi oinarrizko adostasun politikoa beharrezkoa dela gobernuan eta bertatik kanpo egongo diren alderdien artean. Izan ere, erakundeen zilegitasuna dago jokoan, eta baita herritarren itzaropena, denbora eta dedikazioa ere. Zeharkako adostasunak lantzea tresna baliagarria dela azpimarratuko dute, ziklo politikoen gainetik parte-hartze prozesuak eta mekanismoa bermatu ahal izateko. Borondatea, bul-tzada eta lidergotza lirake partaidetza politikoa eremu politikoaren aldetik eskatzen dituen baldintzak. Horiek ezean, bestelako inertziak gailenduko lirake. Lidergotza politikoa jarraitzen ditugun teknikarien erresistentziak eraldatzeko ezinbestekoa dela aipatzen da.

Eremu teknikoari dagokio, aldiz, borondate politiko horren inplementazio lana, eta horretarako, araudi eta lan egiteko molde berriak martxan jarri behar dira. Kasu askotan, enpresa ezberdinei esleitzen zaizkie parte-hartze prozesuen kudeaketa eta ardura, eta Ajangiz, Blas eta Susoren arabera, argi utzi behar dira enpresa edo kontsultoria horrek prozesuan izango dituen ardurak, eta egokiena litzateke udalak pixkanaka ardura horiek bere egiten joatea. Prozesu horretan teknikari formakuntza ezinbestekoa da:

«Se puede afirmar que es ineludible la formación inicial del personal técnico que va a tener que incorporar la participación ciudadana en su gestión cotidiana. Una formación dirigida a incorporar habilidades específicas y modificar actitudes, a aprender cómo hacer participación y, al mismo tiempo crear grupo, equipo de participación, que la participación no sea asunto de personas concretas sino de toda la institución» (Ajangiz et al.:35)

Azken batean, administrazio publikoaren gestio ereduen aldaketak logika burokratiko eta departamentalizatuak alboratzea eskatuko luke. Norabide beretik dihardu Martínezek (2014) dioenean arlo publikoaren birpentsatze demokratikoak bestelako gobernugintza eta administrazio irekia eraikitzea dakarrela; hau da, tokian tokiko ehundura sozialetik hurbilago egongo den administrazioa, hain zuzen ere. Gizarte sektore zapalduak erakunde lan jardunaren erdigunean jarri behar dira lirakeela dio, eta horrez gain, herri mugimenduekin bestelako hartu-eman eta elkarlan mota bat garatzeko gai izango dena. Erakunde funtzionamendu aldaketa aipatzen denean, barrura begirako lanaz dihardu; halaxe dio Martínezek (2014:25): «Administrazioaren baitan nagusi diren joera normatibistak eta parte-hartzea oztopatzen duten bestelako trabak (batetik, alderdikeriak erdigunean egotea eta, bestetik, administrazioaren errekerimendu formak, juridikoak, papaleoak, teknifikazioak...) eraldatuz joatea, sinplifikatzea eta erraztea».

Finean, erakunde ezohiko lan egiteko moduak integratzeko, langile eta teknikarien rola birformulatzea ezinbestekoa litzateke; erakunde publikoetan ohikoak diren diagnosiak, planak eta proposamenak partaidetzaren bitartez sortzea proposatuko da, eta ondorioz, teknikari eta erakunde lana erraztaile lana litzateke herritar eta gizarte eragileekin adostu beharreko diagnosi eta ekintza planetan. Zeharkakotasunak eta harremanen dimentsioak erabateko garrantzia hartuko dute parte-hartze politikak garatzen direnean erakundeetan.

«La transversalidad es un concepto que asegura el compromiso efectivo de toda la organización para trabajar, desde cualquier especialización sectorial, en un ámbito, visión, enfoque, problema público... y por unos objetivos que no se pueden asumir por una sola de las estructuras organizativas sectoriales. Y la

transversalidad es también un instrumento organizativo que pretende desarrollar estrategias, herramientas e instrumentos que, dentro de la estructura organizativa sectorial, permitan adaptarse mejor a las exigencias de una realidad muy compleja. Así, entendemos que la transversalidad, siendo conscientes de su naturaleza multidimensional, se centra en dos aspectos principales: 1) Focalizar la atención de la organización en un tema e intensificar la actuación sobre él. 2) Mejorar la consistencia y la coherencia de la estrategia y actuación de la organización en relación con el tema en cuestión.» (Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, d.g.:19)

Los Nudos de la participación ikerketa-lanaren arabera eremu teknikoan parte-hartze politikoak integrazeko bide ezberdinak daude; zehazki zazpi aukera aipatzen dira:

14. taula: **Partaidetza politikak eremu teknikoan txertatzeko ibilbide orriak**

IBILBIDEAK	EZAUGARRIAK	ARRISKUAK
Partaidetza araudi edo erreglamendu bat abian jartzea.	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko eskubideak aitortzen dira: informazioa, eskaerak, audientziak eta abar. Partaidetzarako egitura tradizionalen balioztatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da partaidetza motorra izango. Inplikaturako eragileentzako ez oso motibagarria.
Uretara bota eta igeri egiten ikastea.	<ul style="list-style-type: none"> Berrikuntza eta sormena elikatzeko egokia. Ikasketa-prozesu gisa formulatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Aurre gogoetarik ez egitea edo plagintza falta.
Kanpoko laguntza kontratatzea aholkularitza zerbitzu baten bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> Aholkularien bitartez gauzatzea; beti ere muga batekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Kanpoko aholkularitzaren eskuetan uztean, barne mailako eragin mugatua.
Partaidetza bulegoa edo zerbitzua sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetzaren ardura hartuko duten pertsonak izendatzea. Pertsona horien zeregina esperientziak abian jartzeko baldintzak argitzea. Beste departamentuekin harremanetan eta horien zerbitzura. 	<ul style="list-style-type: none"> Departamentalizazioa Baliabide ekonomikorik ez izatea.
Aurretik egondako partaidetza esperientzien memoria osatu eta partaidetza plan intuitiboa sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> Barrura begira jarri eta partaidetzaren barne mailako autodiagnosia egitea. Ebaluazio zintzo eta operatiboa. 	<ul style="list-style-type: none"> Erresistentziak administrazioaren autoebaluazioa egiteko ohitura faltagatik.
Formakuntza eta argitasuna hiru eremuetan.	<ul style="list-style-type: none"> Jarrera eta gaitasun zehatzak lantzeko formazioa abian jartzea. Ekipoa sortzea. Politikariak formazioan parte hartzea. Formakuntza iraunkorra eta tokian tokiko beharren arabera. 	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetza pertsona solte batzuen ardura izatea.
Talde sustatzailearen sorrera.	<ul style="list-style-type: none"> Talde sustatzailea sortu: teknikari, politikari eta herritarrekin. Prozesuaren dinamizatzailea izan daiteke. 	<ul style="list-style-type: none"> Profilen arteko desoreka.

Iturria: Egileak berak egina Ajangiz, Blas eta Suso, d.g.: 25 oinarri hartuta

Koadroan agertzen den bezala, partaidetza politikak abian jartzeko oso modu ezberdinak daude. Tokian tokiko errealitateak baldintzatuko du ibilbide bakoitzaren garapena eta partaitza politiken inplementazioa.

Bestalde, parte-hartzea eremu instituzionalean jorratu dutenek diote (Parés, 2009; Martínez-Palacios, 2018; Martínez, 2017) erakundeek barne mailako eraldaketekin batera, herri ekimena, auzolana eta autoeraketa komunitarioa sustatu beharko lituzketela. Herri ekimenez abiatzen diren esperientziek erakundeen babes juridikoa, ekonomikoa eta publikoa jaso beharko lukete. Beti ere, herri ekimenaren edota mugimenduen autonomia errespetatuz. Norabide horretan, aipatzekoa da Bartzelonako Diputazioak 2015ean argituratutako dokumentua, *Repensant la participació de la ciutadania al món local*⁴⁷, Marc Parések, Carola Castellàk eta María García Brugadak koordinatu dutena. Azken urteotan, tokiko administrazioan partaidetza ibilbidearen analisiarekin batera, aurrerantzean formulatu beharreko erronkak aipatzen dituzte, eta dokumentuan bertan, azpimarra berezia egingo zaie, erakundeetatik kanpo sortzen diren dinamika parte-hartzaileei. Horiek guztiak erakundeek errespetatu eta zaindu behar dituztela diote, eta beharrezkoa den kasuetan, instituzioek euren baliabideak dinamika horien zerbitzura jarri beharko lituzketela. Alegia, komunitatearen logika sustatu eta indartzeaz dihardute, ekintza kolektiboaren dimentsioa aitortuz eta horren zaintza azpimarratuz.

2.3.2.5. Ikerketak ekintza parte-hartzailea eta prozesuen dimentsio metodologikoa

Arestian aipatu bezala, erakundeek orain arteko lan jarduna eraldatzea planteatzen da, partaidetza politiken bitartez. Lan egiteko estilo berriak⁴⁸ inplementatzea proposatuko dute, eta herritarren partaidetza zein herri mugimenduen protagonismoa politikaren erdigunean jartzea. Antolakuntza aldaketarekin batera, orain arte aipatu ditugun partaidetza prozesuak, lan metodologiak eta dinamikak garrantzitsutzat jotzen dira. Beti ere, parte-hartze prozesuak abiatu aurretik baldintza egokiak bermatu beharko lirakeke, eta horri begira, aipatu dugun moduan proposamen ezberdinak egiten dira.

Norabide horretan aipagarria iruditzen zaigu ere, Parte Hartuz ikerketa talde kontsolidatuak sorreratik gaur arte jorratu duena; Martínezen (2016) esanetan gobernatzeko modu irekiak eta komunitarioak abian jartzeko, ikerketa ekintza parte-hartzailearen (IEP) (Martí, 2002) eta herri eskolatik (Freire, 2008; Corol, 2010) eratortzen diren tresnak eta baliabide pedagogikoak aintzat hartu behar dira. Bi ikuspegi horien arabera, elkarriketa eta eztabaida kolektiboaren bitartez, egunerokoan ematen diren zailtasun eta bazterketa egoerak aztertuko dira, autokonfiantza eta ahalduntze prozesuak elikatuz. Modu horretan bakarrik abian jar daitezke herri partaidetzarako ekimenak eta alternatiba burujabeak. Bide batez, bazterketa egoeran dauden gizarte sektoreak subjektu kolektibo gisa osa litezke, gaur egungo asimetria eta zapalkuntza ezberdinei aurre egiteko. Beraz, bai Ikerketa Ekintzak zein pedagogia askatzaileak parte-hartze prozesuetarako eta mekanismoetarako baliagarriak dira, eta era berean, autoeraketa eta ahalduntzea elikatzen duten proposamenak direla esan daiteke. Hurrengo lerroetan, gobernantza sareetan oro har, eta partaidetza prozesuen plangintza lanetan zehazki, kontuan har daitezkeen baliabide pedagogiko eta metodologikoak laburbiltzen dira.

Lehenik, arestian aipatutako Ikerketa Ekintza Parte Hartzailearen (IEPH) ikuspegia kokatu nahi genuke. Izan ere, Orlando Fals Borda⁴⁹ (1925-2008) dugu ikuspegi honen sustatzaile nagusia dugu, eta ikerketa

47 Bartzelonako diputazioa (2015). *Repensant la participació de la ciutadania al món local*. Col·lecció Documents de Treball. Sèrie Igualtat i Ciutadania, 21.

48 Aipagarria iruditzen zaigu ere 2011ko legegintzaldian Oñatiko udalean K2K zuzenduta eremu instituzionala birpentsatzeko abian jarri zen prozesua. Ez dugu esperientziaren sistematizazio lanik topatu, baina ondorengo loturan prozesuaren berri ematen da: <<https://goiena.eus/oinati/1386609445634-harremant-estilo-berriarekin-saiakera-egin-du-onatiko-udalak>>


49 Fals Borda, Orlando et al. (1993) «Investigación-Acción-Participativa». *Documentación Social*, 92. zbk.

konbentzionalen ikuspegiarekin apurtu nahi izango du. Nagusiki, bi norabidetan proposatuko ditu aldaketak: batetik, ikerketan parte hartuko duten pertsonak dio ez direla ikerketa objektuak izango, subjektuak baizik; eta, bestetik, ikerketa prozesua ez dela soilik analisi eta diagnosira mugatuko, parte-hartzerako plan eta ekintzak sustatuko direla. Ikertzaileek erraztaile rola (Martínez, 2017) izango dute prozesuan, eta, honenbestez, eragile gisa arituko dira, eta ingurua era sistematikoan aztertuko dute. Ikerketa paradigma honen perspektiba partaidetzarako baliagarria zaigu batik bat ondoren jasotzen diren aspektu metodologikoei dagokionez. Jarraian, erakunde publikoetatik sustatzen diren prozesuen diseinuei begira baliagarriak diren IEPHren (Martínez, 2008; Martí, 2000) hainbat elementu nabarmentzen ditugu:

- **Ekimen Adostua:** Hasierako proposamena, lan prozesua edota politika publikoaren formulazioaren baitan osatuko den parte-hartze prozesua, eragileekin birdefinitu eta negoziatu beharko litzateke. Izan ere, herritar, herri mugimendu eta teknikarien ekarpenekin abiapuntua aberastu egiten da. Ez lirateke adostu beharko soilik jorratuko diren gaiak, eta lortu nahi diren helburuak. Ezinbestekoa da hasieratik argi izatea prozesua zergatik, zertarako eta norentzako jarriko den abian. Ahalik eta eragile edota pertsona gehienekin adostu beharko litzateke eta motibazio eta atxikimendu ahalik eta zabalena lortu.
- **Harreman moduak eta sareak erdigunean:** Prozesuek eragile eta pertsonen arteko sinergiak eta elkarlanerako jarrerak sustatu beharko dituzte. Errealitatearen begirada ezberdinak barnebiduko dituen diagnosa eta neurriak elkarrekin adostea ezinbesteko dugu, beraz.
- **Ikasketa-prozesu kolektiboak eta erraztatzailearen rola:** Aniztasunak egoera konplexuago bihurtu arren, begirada ezberdinen arteko lankidetzaren esparruek ikasteko aukera asko zabaltzen dituzte. Eztabaida eta adostasunetara heltzeko metodologia ezberdinak erabili beharko dira, korapiloak identifikatuz eta aliantza estrategikoak landuz. Norabide horretan, prozesuen erraztaileen lana ezinbestekoa da; izan ere, rol honen bitartez, kolektiboek dituzten prozesuen zaintza⁵⁰ bermatu ahal izango genuke. Zaintza hiru norabideetan emango litzateke: batetik, prozesuen helburu politikoen eremuan; bestetik, pertsonen arloan pertsonen premia zein errotmoak prozesuaren helburuekin orekatzeko gai izango dena; eta, azkenik, prozesuaren zaintzan, talde dinamiken baitan gertatu ohi diren fenomeno lanketari erreferentzia egiten diona (boterearen eta arduren banaketa, komunikazioa eta abar). Fasilitazioak, hiru alor horietan jarriko du arreta berezia, parte-hartzearen funtzionamendua hobetu eta espazio horien bizitza jasangarria izan dadin.
- **Irekiera eta itxiera faseak:** Parte-hartze prozesuen diseinuetarako baliagarriak izan ohi da, ikerketa ekintza parte-hartzaileak proposatzen dizkigun fase edo urrats ezberdinak.
- **Esku-hartze zehatzak gauzatzea:** Prozesuan aurrera egin ahala, esku-hartze zehatzak gauzatzea komenigarria da, lan dinamikari sinesgarritasuna emateko eta parte hartzen duten eragileen konpromisoa eta motibazioa indartzeko.
- **Prozesuaren ebaluaketa:** Prozesua etengabe ebaluatuko bagenu, une bakoitzean sor litezkeen zailtasun eta erronkei era egokiago batean aurre egingo litzaioke, hau da, errealitatearen ikuspegi osatua goa elikatzen joango litzateke.

50 Instituto de facilitación y cambio (2014). *El grupo. Seres humanos seres sociales*. Taldeen fasilitazioa ikastaroaren lan koadernoak. <<http://www.facilitacion.org>>

11. irudia: **Prozesuen faseak eta erantzun beharreko galderak**



Iturria: Martínez (2012)

Bestalde, arestian aipatu bezala, IEPHarekin batera pedagogia askatzaileei erreferentzia egin nahi genioke. Pedagogia horietatik eratorritzen diren tresnak ere aplikatu baitaitezke gobernantza sareetan eta partehartze prozesuetan, diagnosi zein ekintza planen diseinuan, adibidez. Pedagogia askatzaileen erreferente nagusia da Paulo Freire (1921-1997). Herri eskola korrontearen sortzaileetako bat, hain zuzen. Ikuspegi honen ardatza, ezagutzen arteko elkarrizketa ez hierarkikoan eta eraldaketa sozialean oinarritzen da; aldi berean, ikasketa dialogikoaren (Freire, 2006) bidez gauzatuko dena. Beraz, entzuketa aktiboan, elkarrizketan, eztabaida kolektiboan eta parte-hartzean oinarrituko den pedagogiak bat egingo du eraldaketaren edota demokratizazioaren alde formulatzen den parte-hartze politika publikoekin, eta honenbestez, demokratizazioa sustatu nahiko duten gobernantza sareekin.

Plangintza eta baliabide pedagogiko hauen guztien helburua da, finean, berdinen arteko lankidetzaren sustatzea eta komunitatea osatzen duten pertsonen eta taldeen gaitasunak, premiak eta ekimenak elkarlanean jartzea. Horretarako, ordezkari politiko eta erakunde publikoetako teknikarien rola kudeatzaile eta erraztailearengandik (Ajangiz, Blas, eta Suso; d.g.) hurbilago egongo da, ordezkartzatik eta funtzio betearazletik baino.

Bestalde, erraztaile rola mikro politiken ikuspegia presente izatea eskatzen du, eragile ezberdinen arteko lankidetzaren ahalbidetzeko eta suertatu daitezkeen gatazka edo gora beherak kudeatu ahal izateko. Izan ere, kontuan hartu behar da, eremu ezberdinetako profilak elkarlanean arituko liratekeela parte-hartze prozesuetan eta lan dinamika horietan partaideen arteko harremanak kudeatzea zaila izan ohi da Vercauteren, Crabbé eta Muillerren (2010) esanetan:

«La perspectiva micro política nos recuerda esta evidencia: no nos metemos en un proyecto por pura abnegación, movidos exclusivamente por la conciencia. A un proyecto uno lleva también su historia, su cultura, su lengua, sus relaciones con los poderes y los aprendizajes, sus fantasmas y sus deseos. Éstos no son, propiamente hablando, individuales o privados, sino que se inscriben en una multitud de relaciones geográficas, sociales, económicas, familiares... que impregnan con mayor o menor fuerza nuestros cuerpos» (Vercauteren, P., Crabbé, O. Muiller, T., 2010:135)

Era berean, parte-hartze politikorako espazioak biziak dira, taldean aritzen baikara. Eta Apodakaren (2012) esanetan, taldean fenomeno ugari gertatu ohi direnez, horrek guztiak eragina izango du, nahitaez, partaideen emozioetan, harremanetan eta prozesuetan. Komenigarria litzateke prozesuei, helburuei eta bestelako lan-jardunei eskaintzen diegun denbora eta arreta berbera eskaintzea emozioei eta harremanei.

15. taula: **Parte-hartzearen lan arloak: zer aztertu talde batean?**

TALDE-IDENTITATEA, BOTERE-HARREMANAK ETA JARDUERA	
Arlo sozioemozionala:	Lanaren arloa:
<ul style="list-style-type: none"> • Identitateak • Emozioak eta sentimenduak: identifikatu-ulertu-kudeatu • Ingurune fisikoa eta pertsonala: <ul style="list-style-type: none"> · taldeko giroa · elkarren zaintza eta gatazkak • Parte-hartzaileen ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none"> · norbere esperientzia · bizi-zikloa · sexua, generoa, adina, jatorria... • Elkarrekintza eta komunikazio-estiloa • Eduki sinbolikoa: estereotipoak, aurreiritziak 	<ul style="list-style-type: none"> • Helburuak eta emaitzak: proiektua eta produktuak • Egiturak: antolatze sistema • Baliabideak: ekonomikoak, pertsonalak, guneak... • Talde-kultura: <ul style="list-style-type: none"> · Arau, balio eta pentsamoldeen multzoa · Botore-, antolaketa- eta kontrol-egiturak · Rolak: <ul style="list-style-type: none"> · Talde-integrazioa eta mantentzea errazten dutenak · Taldearen oreka eta lana oztopatzen dituzten rolak · Taldearen lana eta proiektua errazten dituzten rolak • Lan-metodoak

Iturria: Marije Apodakak egina. (2012:6). Auzolana eta herrigintza. Talde Harremanak. UEUko ikastaroa.

Bestetik, parte-hartze prozesuen funtzionamenduan taldekide guztiek ezagutzen dituzten helburuak, egiturak, arauak, funtzioak eta erantzukizunak daude, lan egiteko moduak, hain zuzen ere. Orain arte, lan arloak parte-hartzearen jardunean era kontzienteagoan jorratu direla dio Apodakak (ibid.:7), eta sarritan prozesuaren helburu politikoak lehenetsi izan dira pertsonen ongizatearen gainetik. Bileretan zein erabaki-prozesuetan berdintasunez parte-hartzea edota informazio, zeregin eta arduren banaketa orekatua izatea, ez da soilik borondate politiko ona edukitzearen ondorio. Harremanak eta lan egiteko moduak, hortaz, kontu politiko garrantzitsuak ditugu. Taldeko barne funtzionamendu egokia topatzeko, harremanen eta lan egiteko moduek zein metodologiak aintzat hartu beharko lukete ere taldeko jardunaren arlo emozionala.

Bestalde, erraztailearen figura oso garrantzitsua izango da parte-hartze prozesuetan, partaideen artean eman ohi diren asimetriak eta tirabirik behar bezala kudeatzeko. Norabide horretan, *prozesuen lanak* eta *demokrazia sakonak* (Mindell, 2014) baliabide ugari eskaintzen dizkigute, talde prozesua era egokian kudeatzeko:

«El conocimiento de los procesos grupales y de las dinámicas subyacentes a toda realidad grupal, especialmente en situaciones invisibles de abuso o en el uso del liderazgo, y el aprendizaje de habilidades y técnicas que ayuden a mejorar la comunicación, intervenir eficientemente en caso de conflicto, tomar decisiones que todos pueden apoyar y, en última instancia, invocar el espíritu grupal y hacerlo manifiesto a través de estructuras y acciones que conduzcan realmente al grupo a la realización de sus objetivos y visión, son algunos de los aspectos que trata la facilitación de grupos, en su función de crear comunidad y profundizar en la democracia.» (Escorihuela, 2011:4)

Parte-hartze prozesuetan partaideen bizi esperientzia edota ezagutza kontuan hartzen da, tokian tokiko errealitatea aztertu eta bertan eragiteko ahalmena indartzeko asmoz. Prozesu horietan, ahalduz pertsonal zein kolektiboa sustatu beharra dagoela dio Martínezek (2015:289), gizarte sektore ezberdinen premiei erantzuteko eta testuinguru zehatzetan eragiteko. Azken finean, herritarren partaidetza botere asimetrietan eragiteko tresna bat dela dirudi, hau da, botere harremanak demokratizatzeko baliabide bat.

Atal honekin amaitzeko, partaidetzaren instituzionalizazioa eta profesionalizazioaren arriskuak aipatu nahi genituzke. Izan ere, Martínez-Palacios (2018) burututako ikerketa baten arabera, partaidetza eremu instituzionalean garatu den neurian 70eko hamarkadatik gaurdaino, arrisku ugari azalaratu joan dira. Partaidetza eta justizia sozialaren ideiak urrunduz joan direla dio, partaidetzaren desnaturalizazioari bide emanaz. Berrikuntza demokratikorako mekanismoen interpretazio markoak aztertu ondoren, agerian gelditu da partaidetzaren ideologizazio eza:

«En dicho estudio detecto evidencias empíricas de la rebaja en la radicalidad de los marcos interpretativos. Sirva de muestra que, de las 62 guías estudiadas y codificadas, únicamente 4 implican explícitamente un marco que alude a la búsqueda de una mayor justicia social a través de la participación, y sólo 6 hacen referencia a las ideas de redistribución del poder político y/o de desactivación de las relaciones de dominación a través de la participación.» (Martínez Palacios, 2018:4)

Partaidetza politikoaren diskurtsoak jatorrian zuen erradikalotasuna, hortaz, pixkanaka gutxitzen joango da, eta sakontasun demokratikorako tresna izatetik politika publikoen eraginkortasuna hobetzeko bali-

bide izatera pasako da. Gestio Publiko Berriaren filosofiak bereganatuko du, eraldaketa sozialaren helburuetatik urrunduz.

2.3.2.6. Partaidetza politikak eta herri mugimenduak

Politika publikoen eremuan zabaldu diren partaidetza mekanismoak herri mugimenduentzako eta bereziki euren aldarrientzako aukera bat diren ala ez eztabaidagai izan da azken urteotan. Della Portak eta Dianik diote (2011:300) era honetako mekanismoek herri mugimenduak bideratzen dituztela onartzera gatazka kaleko eremutik eurentzako arrotzagoak diren eremuetara igarotzea. Ez hori bakarrik, azpimarratzen dute prozedura berritzaile horiek mugimenduetako kideen balizko kooptaziorako eta oinarri sozialak desaktibatzeke ere baliagarriak izan daitezkeela.

Herri mugimenduek esperientzia horiekiko dituzten arriskuak mahai gainean jarri nahiko dituzte, nahiz eta horietan guztietan eraginkortasuna eta demokratizaziorako ahalmena aldakorra dela aitortzen duten, esperientzia batetik bestera emaitza ezberdinak baitira. Izan ere, hasieran aipatu dugun moduan, parte-hartzearen sakoneko helburuak ezberdinak dira, eta horrek esperientzia bakoitza baldintzatuko du. Nabarmenduko dute, sarritan, gizarte sektore baztertuenak prozesu hauetatik kanpo gelditzen direla, eta ez dutela izango erabakitzeko ahalmenik. Erakundeekin lan egitera ohituta daudenak edota erraztasunak dituzten herritarren profilaik soilik parte hartu ohi duela nabarmenduko dute.

Bestalde, gogorarazten digute, sarritan herri mugimenduen aldarriei esker, erakunde publikoen erabakitzeko moduak auzitan jarri direla, eta ohiko eskaera izan dela erabaki prozesu gardenagoak eta zabalagoak burutzea. Eskaera hauek guztiek ere, beraz, sistema politikorako sarbidea ahalbidetzen dute, eta partaidetza esperientzia ugari zabaldu dira herri mugimenduen aldarriei edo protestei esker:

«A finales del Novecientos, los movimientos sociales fueron capaces de introducir cambios en la dirección de un mayor control de las instituciones públicas por parte de la base. En muchos países europeos, la descentralización administrativa ha tenido lugar a partir de la década de 1970 con la creación de nuevos canales de acceso quienes toman decisiones. (...) Los movimientos sociales han traído una pluralización de las formas en las que se adoptan las decisiones políticas, empujada por la insatisfacción cíclica en relación a la democracia representativa, centralizada y burocratizada.» (Ibid.:296)

Beraz, autore hauen esanetan, herri mugimenduek eragin zuzena izango dute eremu instituzionaleko partaidetza mekanismoen hedapenean. Aktore politiko horiek zalantzan jarriko dituzte hainbat eta hainbat erabaki politiko; eta mobilizazioaren bitartez, erabaki prozesu irekiak eta gardenagoak sustatzen saiatuko dira. Beste kontu bat litzateke, arestian aipatu dugun profesionalizazioak eta instituzionalizazioak eragindako desideologizazioa edo justizia sozialean sakontzeko sortu mekanismo eta prozesuak eraginkortasunerantz emandako bilakaera, Martínez-Palaciosek (2018) aipatzen duen moduan.

Aurrez aipatu ditugun arriskuak aintzat hartuta, bi autore hauek gobernugintza eredu berritzaileetan partaidetza mekanismoen integrazioak ere bere alde ona duela onartzen dute, herritarren ahotsaren aitortzari eta bizi kalitatearen hobekuntzari begira, bederen. Zenbait borroka espezifikotan ere parte-hartze esperientziak emaitza onak eman dituztela mahaigaineratuko dute Della Portak eta Dianik:

«Ampliar la participación de los ciudadanos en el diseño de políticas públicas —en forma de auditorías, jurados populares, etc.— contribuyen a menudo a resolver los

problemas planteados por la oposición local al uso no deseado de la tierra (LULU, siglas del inglés *locally unwanted land use*). » (ibid.:302)

Era berean, dioskute herri mugimenduek euren mobilizazioen bitartez, eskubide zibil eta politiko ugari lortu dituztela, hala nola, emakumeen eta beltzen sufragioa, dibortzioa edota aborturako eskubidea, besteak beste.

Azken batean, bere arrisku eta aukerekin, herri mugimenduek elikatu dute politika publikoetan parte-hartzearen rola edo presentzia, eta erakunde publikoen funtzionamendua eraldatzeko ahalegina ere euren da, neurri batean; gehien bat demokrazia ordezkatzailaren hutsune eta gabezien aurrean. Izan ere, erakundeetatik sustatu diren esperientzia ugari herri mugimenduen aldarrikapenetatik jaio dira.

Gurera ekarrita, adibide modura aipa daitezke mugimendu ekologistak edo antimilitaristak Euskal Herrian burututako protestak eragindako demokratizazioa. Mugimendu ekologistaren kasuan, batik bat, azpiegitura handietan (Lemoizko zentral nuklearra, Leitzarango autobidea, Abiadura Handiko Trena, eta beste hainbat). Kasuak hurbiletik aztertu dituzte Ibarak, Barcenak eta Zubiagak (1998:63), eta mugimenduen protestak marko demokratikoei egindako ekarpena aipatzen dute:

«El carácter decididamente político del movimiento ecologista vasco ha determinado mayores éxitos democratizadores en el ámbito de los cauces de participación política, el pluralismo y la multiplicación de actores decisorios. El mejor ejemplo de tal efecto democratizador es el impacto producido por la resolución consensuada del conflicto de la autovía de Leizarán en los sistemas decisorios de ciertas políticas públicas.»

Mugimendu antimilitaristari ere aitortuko diote espazio politikoan eragiteko eta erabakitze ahalmena agenda publikoan, eta bereziki zerbitzu militarren amaierarekin:

«La multiplicación de actores colectivos alrededor del tema antimilitarista, y su presencia en la diversas instancias políticas, son una clara señal de ampliación del pluralismo y la poliarquía en el contexto vasco» (Ibarra et al. 1998:64)

Beraz, ikerketa-lan honek agerian uzten du herri mugimenduek ere mekanismo eta parte-hartze prozesuen irekieran izandako eragina. Sistema politikoaren sarbide berrien sustatzaileak direla aitortzen dute, eta horrekin batera, demokraziaren kontzeptu zabalago bati erreferentzia egiten diotela esan daiteke. Erabakitze prozesuen eremua eta hartzeko modua eraldatzea bilatuko dute herri mugimenduek, eta aldaketa prozesu horietan herritarrek erantzunkizun eta konpromiso zuzena izango lukete politika publikoen eremuan. Horretarako, aurrez aipatu bezala erakundeen deszentralizazioa ezinbesteko da, erabakia hartzeko unea herritarren egunerokotik hurbil egon dadin. Ajangiz, Blas eta Susoren (dg:54) esanetan, partaidetzak eremu instituzionalaren eraldaketa eskatzen du, besteak beste zeharkakotasuna lantzea eta antolaketa, kudeaketa zein erabaki publikoen eredu aldaketa. Azken aldaketa horren inguruan hauxe diote:

«La administración pública tiene que cambiar mucho para acoger con naturalidad y eficacia las demandas globales y transversales a las que tiene que dar respuesta. Muchas administraciones públicas siguen siendo fieles al modelo burocrático, con

departamentos estancos, estructuras verticales y procedimientos más bien lentos y hasta rígidos. Y lo que la sociedad y los tiempos demandan es una administración relacional, con procedimientos sencillos e inteligentes, rápida adaptación a un entorno cambiante y glocal, proximidad y descentralización, transversalidad y participación ciudadana.» (Ajangiz, Blas eta Suso, d.g.:62)

Parte-hartze mekanismo eta prozesuek, era berean, herritar arduratsu eta konprometitua eskatzen du eta jokamolde hori indartzeko herri mugimenduen lana lagungarria dela diote Della Porta eta Dianik (2015:304), tokian tokiko ehundura sozialak elikatu baitezake herritarren konpromisoa inguruarekiko. Gizarte mugimenduen partaidetzarekin batera, partaidetza politikorako forma berriak (Ajangiz et.al, d.g.:87) ere kontuan hartu behar dira. Taldeetatik kanpo edo era ez hain egituratuan ematen direnak, bereziki gazteen artean.

Bestalde, Jablonskiren esanetan (2007) parte-hartze prozesuen dimentsio hezitzaileak ere herritarren konpromiso eta ardura hauspotu lezake; halaxe dio argentinarrak:

«En la medida en que la comunidad sienta el proceso como propio, moviliza energías y esfuerzos, al mismo tiempo que asume conscientemente la protección de sus logros. Se crean así condiciones para el desarrollo de un aprendizaje y de ejercitación comunitarios en el planteamiento y la gestión conjunta de soluciones consensuadas. La participación comunitaria en todas las etapas de un proyecto, partiendo de los valores culturales y del registro de las necesidades y recursos propios, potencia el autoestima individual y colectiva» (2007:63)

Era berean, herri mugimenduak politikagintzaren molde tradizionalak ezbaian jartzearekin batera, herritarren partaidetza politikoa indartzeko espazioak ere badirela dirudi. Herritarren konpromisoa sustatzeaz gain, eragile politiko nagusien, alegia, alderdi eta sindikatuen demokratizazioan sakonduko dute. Azken batean, eragileon mobilizazioak eta partaidetza politikoak partaidetzazko demokraziaren ikusmoldearekin bat egingo luke:

«Los movimientos sociales ayudan a la democratización de los regímenes autoritarios, pero, además, contribuyen al empleo de enfoques más participativos en las democracias representativas.» (Della Porta eta Diani, 2011:312)

Demokratizazio horren adibide ditugu Porto Alegren 1988ko udal hauteskundeetan Brasilgo Langileen Alderdiaren garaipenaren ostean abian jarri ziren partaidetzazko aurrekontuak eta gerora bertan ospatu ziren Mundu mailako Foro Sozialak. Esperientzia berritzaile hura, herritarren erabakitze ahalmena irudikatzeaz gain, herri mugimenduen garapenerako agertoki politikoak zela diote.

2.3.3. Parte hartzearen mugak eta arriskuak

Lehenengo atalean aipatu ditugun bezala, hiru pentsamendu arautzaileen ikuspegietatik —liberalismoa, neoerrepublikanismoa eta autonomia— eratorzen dira demokrazia eredu ezberdinak: ordezkatzaila, parte-hartzailea eta zuzena. Horietako bakoitzak, herritarren eta gizarte eragileen partaidetza politikoa era ezberdinean ikusiko du, hau da, partaidetzaren aukerak eta mugak aldatu egingo dira agertoki bati bestera.

Gaur egun, Estatu liberal ordezkatzaila da nagusi, eta erakunde publikoen agintaritzaren ordezkagarritasunaren logikaren arabera legitimatzen da. Ordezkaritzaren nagusitasunak zaildu egiten ditu nabarmen demokrazia parte-hartzailearen ikuspegitik egin diren ahalegin ezberdinak (esate baterako, partaidetzazko aurrekontuak, herri kontsultak, komunitate garapenak edota kontseiluak), azkeneko hitza sarritan ordezkari politikoen baita. Eta muga horiek zaildu egiten dute parte-hartze prozesuen eragin demokratizatzailea. Halaxe dio Parés-ek:

«Esa disyuntiva entre las dos formas de legitimidad hace difícil la complementariedad entre la participación y la representación, pues el participante constantemente se está preguntando si su participación va a servir para alguna cosa, va a ser tomada en cuenta o si, por el contrario, los políticos electos tomarán la decisión que más les convenga, si no la tienen tomada ya de antemano» (Parés, 2009:446)

Autore honek nabarmenduko du, prozesu hauetan gakoa eragiteko ahalmenean dagoela. Beraz, parte-hartze prozesuak komunitatearentzako garrantzitsuak badira, eta eragiteko ahalmena badute, orduan ordezkagarritasuna eta parte-hartzea osagarriak izango dira. Baldintza horiek eman ezean, arrisku handi baten aurrean geundeke, beharbada azken hamarkadetan gorpuztuz doan joera: demokrazia parte-hartzailearen ekimenak gaitzuste edota frustraziorako esperientzia bilakatzea. Aipatutako erresistentzietatik ondorioztatzen da, parte-hartze instituzionaletik harago doan partaidetza politikoa ezinbestekoa dela, demokrazia ordezkatzailen eredu mugatzailea gainditzeko; alegia, herri mugimendu eta gizarte zibil antolatuen ekintza kolektiboaren bitartez, demokraziaren erradikalizaziotik hurbilago geundeke. Izan ere, berrikuntza sozial gehien atzetik, edota erreforma instituzional aurrerakoien jatorrian eraldaketa helburu duten talde eta mugimendu antolatuen mobilizazio olatuekin topo egiten dugu. Ukaezina da, mugimendu ekologisten, mugimendu feministen, langile mugimenduen, antimilitaristen eta abarren presioak eta mobilizazio zikloek paper esanguratsua jokatu dutela eskubide zibil eta politikoen aitortzan zein prozesu demokratizatzaileetan.

Orain arte bildutako ahotsen arabera, badirudi erakunde publikoen erronka litzatekeela erabat autonomoak diren ekimen eta jarduerak indartzea, eta, era berean, baliabide publikoak, ekonomikoak zein giza baliabideak, merkatuaren logika lehiakorretik eta erakunde publikoen logika burokratikoetik aldentzen diren dinamika kolektiboen zerbitzura jartzea.

Kontuan izan behar dugu, bestetik, demokrazia ordezkatzailaren mugez gaindi, parte-hartzearen instituzionalizazioak eta profesionalizazioak (Martínez-Palacios, 2018) ondorio ez positiboak dakartzatela, eta politika publikoetan duten eraldaketarako ahalmena txikia izan daitekeela, sarritan partaideen erabakitze esparrua gehiegi mugatzen delako, edo deliberaziorik gabeko prozesuak direlako. Hori horrela izanik, edozein prozesu abiatu aurretik, baldintzak ematen diren kontuan hartu beharko litzateke. Aurrez aipatutako arriskuak ez erortzeko. Eta horri begira, interesgarria da Pindadok (2005) aipatzen duena, Oscar Rebollo eta Joel Martíren hitzei erreferentzia eginez, «partaidetza ez da inprobisatzen. Teknika multzo baten diseinua eskatzen du, erregelamendu administratiboetatik haratago. Plan estrategiko baten diseinua eskatzen du, non ikuspegi metodologiko baten bitartez, esku-hartzeak era malgu eta ordenatuan diseinatuko diren eta testuinguru bakoitzean sortuko diren eraginaz baliatuko garen» (2005:15). Ildo beretik, gogoeta antzekoa mahaigaineratzen dute Ajangiz, Blas eta Susok (d.g.) Euskal Herriko 26 udaletxe eta Estatu mailako beste 13tan oinarritzen den ikerketa lanean.

Bestalde, etorkizuneko beste erronka aipagarri bat ere jaso behar dugu jarraian, jada, atal honetan behin baino gehiagotan aipatu duguna. Administrazio publikoaren eremua birsortzeko estrategiena, hain zuzen

ere. Botere publikoak herritarren gehiengoaren interesaren arabera funtziona dezan, eta ez gutxiengo pribilegiatu baten zerbitzura:

**«Urgentea baita erakunde publikoak gobernatzeko modu burokratizatuak eta elitistak gainditzea, eta gobernatzeko modua irekiak eta komunitarioak sortzea. Horretarako inplikazio kolektiboa eta herritarren parte hartze zuzena eta iraunkorra bideratuko dituzten prozesuak eta mekanismoak behar ditugu»
(Martínez, 2008:142)**

Administrazioaren logika burokratikoa eraldatzeko, beharrezkoa da geldialdia egitea eta funtzionamendu arauak berrikustea. Esaterako, sailen arteko elkarlana sustatu, zeharkakotasunari⁵¹ garrantzia eman, langile publikoaren profila berrikusi; azken batean, herritarren premietara gehiago hurbiltzeko, eta, horretarako, teknikari, politikari eta herritarrak zein kolektiboak elkarrekin hausnartzen jarri, hobetu beharreko dimentsioak identifikatu eta inplementatzeko. Azken batean, administrazioaren lan egiteko modu berriak abian jartzeko.

Bide batetik zein bestetik, helburua da komunitatea antolatzea, eta erakunde publikoen funtzionamendua hobetzea eta herritarren premiei erantzutea. Ez bakarrik tokian tokiko politikan, baita urrunago ditugun erabakiguneetan ere, horietan eztabaida politikorik gabeko erabakiak hartzen baitira usu. Behetik gorako erabakitzeko aukera berriak zabaltzea proposatzen da, hortaz.

51 Gaian sakontzeko ikusi: Gasteizeko udala (d.g.). *La transversalidad como elemento de mejora en el ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz*. Resultados de una reflexión compartida. Colección temas municipales.

3. Azalpen metodologikoa

3.1. Diseinu metodologikoaren abiapuntua

Jarraian tesi honen atal metodologikoaren nondik norakoak azalduko ditugu. Horretarako, lehenik eta behin, ikerketaren aukera epistemologikoaz arituko gara, hau da, lan hau ardazten duten ezagutza printzipioei erreferentzia egingo diegu. Bigarrenik, gure ikerketa helburuei erantzuteko aukeratu dugun metodologiaren deskribapena jasotzen da, eta, azkenik, erabili ditugun ikerketa tekniken argibideak aipatzen dira, landa-lanaren ezaugarritzearekin batera.

Ikerlan honen orientazio epistemologikoa diogunean, analisiaren perspektibaz ari gara; hau da, Zabaletak (1997) dioen moduan, gizarte errealitatea eta ikerlariaren arteko harremana eta horrek dituen ondorioei buruz, hain zuzen. Norabide horretan, esan daiteke beharrezkoa dela ikerlarion begirada zein den azaltzea, aztertzen dugun testuinguru politiko eta sozialetik baldintzatuta baikaude. Beraz, Haraway-k (1995) formulatzen duen «ezagutza kokatuaren» ikuspegiarekin bat egingo genuke; izan ere, autore honen esanetan, ikerlariaren rola eta kokapenak eragin zuzena du, ez soilik ekoizten den ezagutzan, baita ikertzen den eremuan bertan ere. Geroz eta ahots gehiago entzuten dira, batik bat epistemologia feministaren eskutik, ikerlariaren posizioa azaltzea ezinbestekoa dela diotenak. Horren adibidea ere dugu Sandra Harding-en (1996) gogoeta. Filosofo honek zioen ikerlariaren ahotsa agerikoa egin behar dela «ez ahots ikusezin eta anonimo gisa, gizabanako erreal, historiko gisa baizik, interes zehatz eta partikulara» (aipatua Barrau, 2011:120). Beraz, ikerketa honen hasierako kokapena edo testuingurua mahaigaineratzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.

Azken batean, epistemologia feministaren bitartez, nabarmentzen da gure ikuspegia edota objektibotasuna uneoro zeharkatzen gaituzten kategoria sozial ezberdinek osatzen duten hainbat subjektibotasunetan eraikitzen dela; hau da, norberaren klase sozialak, arrazak, etniak, generoak, orientazio sexualak eta baita gure ingurukoekin ditugun harreman sareek ere gure mundu ikuskeran eta sinesmenetan eragin zuzena duela. Horrek ez du esanahi, Martínezek, Strunzak eta Casadok (2014) dioskuten bezala, posizio hori legitimoa ez denik:

«Esa mirada situada, parcial y limitada es, por supuesto, legítima a la hora de producir conocimiento; también es más reflexiva y compleja a la hora de mitigar sus limitaciones si se reconoce como tal mirada situada y parcial. Renunciando a situarse en una atalaya (un lugar supuestamente no marcado por la clase social, por el género o por la identidad étnico-lingüística) y considerarse así en posesión del conocimiento verdadero, objetivo y neutral.» (2014:10)

Azken finean, ikerketa prozesuetan teoria, analisia, ontologia, epistemologia eta metodologiaren kontzeptuak topatu daitezke; eta Denzin-ek eta Lincoln-ek (2012) dioten moduan, datu hauen atzean ikerlariaren biografia pertsonala aurkitzen da, ikuspegi zehatz batetik hitz egingo duena:

«Desde este posicionamiento multicultural y de género, el investigador vuelve su mirada sobre el mundo con un conjunto de ideas, un cierto marco (la teoría, la ontología) que especifica una serie de interrogantes (la epistemología), que examina de un modo específico (la metodología, el análisis). Es decir recaba el material empírico relacionado con el problema, y luego produce análisis y escritura sobre ese material.» (Denzin eta Lincoln, 2012:81)

Ikerlari bakoitzak, hortaz, interpretaziorako komunitate zehatz batetik dihardu, eta ikerketa honen kasuan, esan dezakegu, posizio eta asmo zehatz batetik burutu dugula. Ikuspegi hori, gaur egungo hierarkia eta zapalkuntza ezberdinak ezbaian jarri nahi dituen begirada litzateke. Ezagutza ezberdinak barnebiduko dituen ikuspegi interseksionala⁵², hau da, askotariko zapalkuntzen bidegurutzeta, eta, era berean, subjektu politikoaren hausnarketa sustatu nahi izango duena. Azken batean, nolabaiteko zapalkuntza pairatzen duten gizarte sektoreen aitortza abiapuntu duen ikuspegitik orientatu dugu ikerlan hau. Gizarte asimetriek sortzen dituzten hierarkia sozialak, pribilegioak eta aukera ezberdintasunak desnaturalizatzeko, eta, honenbestez, prozesu historiko politikoak bezala agertzeko.

Bestalde, ikerketa prozesuari dagokionez, aipatu nahi genuke, epistemologia feministatik oso hurbil dagoen Ikerketa Ekintza Parte Hartzailearen (IEPH) ikuspegia. Izan ere, IEPHk bi haustura lerro leharke ohiko ikerketarekin: batetik, ikerketa prozesuak analisia eta ekintza uztartzen saiatuko dira, eta, bestetik, ikerketa subjektu-objektuaren logika eraldatu nahi izango da, guztiok ezagutza-subjektu eta ekintza-subjektu gairela aitortuz. Azken batean, rolen birdefinizioa proposatzen da, eta horren arabera, ikertzailearen rola esku hartzen ari den eragile edo erraztaile litzateke, eta, ezagutza subjektuak, hau da, herritarrak eta herri eragileak, euren errealitatea aztertzen ari diren protagonistak. Beraz, ikerketa paradigma horren arabera, parte-hartzea ikasketa-prozesu eraldatzaile gisa planteatzen da; beti ere, jakintza mota ezberdinen zilegitasuna onartuz —herritarra, akademikoa, eragile sozialena eta abar— eta adostasuna zein desadostasunak prozesuaren logika baten baitan kokatuz. Zentzu horretan, ezagutza-subjektuen ahalmena goraiapatuko da hausnarketa eta ekintza-prozesu kolektiboen bidez, ezagutza sortzeko, jakintzaren hierarkizazioa saihesteko eta merkatu logiketatik kanpo dauden prozesuak eraikitzeko (Pereda eta Prada, 2015:14). IEPHtik diseinatu eta inplementatu izan dira 2007tik gaurdaino parte hartu dudana askotariko prozesuak. Hori dela eta, marko teorikoaren hirugarren kapituluan ere jaso dugu.

Orientazio epistemologikoarekin amaitzeko, aipamen berezia egin nahi diogu Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa taldeari⁵³, arestian aipatutako IEPHren bitartez, begirada kritikoa elikatzen eta zabaltzen lagundu duen taldea baita, eta errealitatea aztertzeko eta bertan kokatzeko baliabideak eskaini baitizkigu:

«Abiapuntuko filosofia erabat berriztatzailea da. IEPk ez du ikerketarako objekturik definitzen; beste ikerketa arrunt batzuetan horrela definituko lirakeenak, subjektu dira IEPn. Ikertuak dira ikerketaren egileak, parte hartzen dutenez gero dira subjektuak, eta horregatik, ikerketa guztia antolatuko da horiek indartzeko eta horien errealitatea ezagutu eta eraldatzeko. Helburu horrekin, Ikerkuntza Ekintza Parte-hartzaileak ez du gaitzetsiko teknika kuantitatiboen edo kualitatiboen erabilera, behaketan oinarritzen direnak.» (Blas, 2008:95)

52 Interseksionalitatea honela definitzen du Itziar Gandariasek: «El concepto de interseccionalidad permite analizar la relación en que distintos ejes de categorización y diferenciación como el género, la etnicidad, la sexualidad, la clase, la posición de ciudadanía, la diversidad funcional, la edad o el nivel de formación entre otros están imbricados de manera compleja en los procesos de dominación. Es un enfoque que subraya cómo las categorías sociales, lejos de ser “naturales” o “biológicas” son construidas y están interrelacionadas entre sí y supone un cuestionamiento de las relaciones de poder y de cómo se articula el privilegio (Platero, 2012)» (Gandarias, 2017:74)

53 Parte Hartuz ikerketa taldea: (euskeratu) Parte Hartuz, es un Grupo de Investigación Consolidado del Gobierno Vasco (IT-300-10) adscrito Departamento de Ciencia Política de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU). El interés principal de este grupo de investigación ha sido, desde su creación en el año 2003, el de observar los diferentes procesos de la democracia desde una doble perspectiva: por un lado, la crisis del paradigma de lo político y su cristalización en las nuevas formas de gobernanza local; y por otro, los procesos de empoderamiento ciudadano, los movimientos sociales y su impacto en las políticas públicas.

Esan dezakegu, Parte Hartuz taldeak ikerketa aplikatuaren⁵⁴ (ibid.:21) eremuan urratutako bideak ere baldintzatu duela, neurri handi batean, tesi honen ikerketa gaia eta lan egiteko modua. Ikerketa lan honetan, IEPHren metodologia aplikatu ez arren, oinarrizko printzipioak aintzat hartzen saiatu garela esan dezakegu. Izan ere, nire kokapenari dagokionez, aipatu nahi nuke ikerketa taldeak izan duen jardunarekin lotura duela. Alabaina, ikerketa taldeak antolatzen zuen graduondoaren –Partaidetzazko Demokraziarako Metodologia eta Prozesuetan Aditua– lehenengo edizioa egin ostean, taldean aritu nintzen hainbat urtetan, eta bertan Ikerketa Ekintza Parte-hartzaile ezberdinetan lanean jarduteko aukera izan nuen, bai eremu instituzionalean abian jarritako prozesuetan zein herri mugimenduek sustatutakoetan. Esperientziak horrek jarraipena izan zuen Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegian. Bi urtez izan nintzen bertan lanean. Bi esperientzia horietan aukera izan dut, partaidetza prozesu eta ikerketa lan ezberdinetan jarduteko: Arrigorriagako Abusu auzoan⁵⁵, Irurtzungo partaidetzazko aurrekontuetan⁵⁶, Gernikako Astran⁵⁷, Arrasateko Azoka biziberritzeko prozesuan⁵⁸, Otxandioko Nagusi⁵⁹ ekimenean eta beste hamaika prozesuetan. Esperientzia horietatik guztietatik eta bertan sortutako oztopo eta kezketatik sortzen dira doktorego tesi honen sakoneko ikerketaren galderak.

Arean ere, askotariko partaidetza prozesuen diseinuan, inplementazio eta sistematizazioan aritu ostean, kezka ugari sortu zitzaizkidan edo zitzaizkigun komunitatea eta eremu instituzionala uztartzen dituen esperientzia horien inguruan. Sarritan, bi eremuen arteko lankidetzak komunitatearen logika indargabetu duela uste dugulako edota eremu instituzionala eraldatzeko erresistentziak agerian gelditu direlako. Ez hori bakarrik, bidean sortutako beste kezka bat izan da: partaidetza prozesuen instituzionalizazioak zapalkuntza ezberdinen problematizazioan laguntzen duen, hau da, demokratizaziorako baliagarriak diren edo eraldaketarako gaitasuna apalduz joan den urtetik urtera. Doktorego tesiarekin abiatu nintzenenean, sinistuta nengoen eremu instituzionaletik abian jartzen diren prozesuek kultura politiko demokratikoan sakontzeko mekanismo edo dispositibo baliagarriak zirela, eta orduan genero ikuspegi eta partaidetza prozesuen arteko uztarketa ikertzen hasi nintzen; tesina horren inguruan egin nuen. Baina urteak joan ahala premia handiagoa sentitu dut, eremu komunitario eta instituzionalaren arteko harremanaren sakoneko helburuei erreparatzeko, eta ondorengo galdera hau formulatzeko jakinmina sortu zaigu: demokratizazio prozesuetan sakontzeko, zer nolako instituzionalitatea sortu beharko litzateke? Edo beste era batera esanda, nola artikulatzen da aktore horien arteko ekintza politikoa, ahalik eta praktika eraldatzaileena edo demokratizatzaileena izan dadin, eta aldi berean, herri mugimenduen eta komunitatearen logika desitxuratu gabe?

54 Asier Blasen arabera, ikerketa aplikatuaren definizioa hauze litzateke: «ikerketa aplikatuaren asmoa da behar, arazo edo gabezia sozial, politiko edota ekonomiko bati erantzutea. Hori da ikerketaren motorra, errealitatea konpontzea, matxuratzea edo eraldatzea, edo bestela behar bati erantzutea. Hitzak berak dioten moduan, ikerketak eduki nahi ditu aplikazioa eta erabilgarritasuna. Horregatik, oso garrantzitsua izaten da ondorioen atala; izan ere, horren bidez gomendioak eta proposamenak aurkeztuko dira esku hartu nahi den errealitate edo fenomenorako» (2008:21)

55 Esperientzia honen berri izateko, ikusi ondorengo lotura: <<https://docplayer.es/35082581-La-pena-abusu-en-arrigorriaga-hacia-una-definicion-participativa-de-un-horizonte-de-futuro-comun-para-el-barrio-abril-2008.html>>

56 Irurtzungo partaidetzazko aurrekontuen ekimenean sakontzeko, ikusi: <<http://irurtzuntomapartehar.galeon.com/quienessomoseusk.htm>>

57 Gernikako Astra ekimenean egindako lanean sakontzeko: <<https://aufop.blogspot.com/2014/08/astra-gernika-de-fabrica-de-armas.html>>

58 Partaidetza esperientzia honetan sakontzeko, ikusi: <<https://www.mondragon.edu/eu/ikerketa-transferentzia/kooperatibagintza/ikerketa-transferentzia-talde/-/mu-inv-mapping/talde/lanki-kooperatibismoaren-ikertegia>>

59 Otxandioko Udalak eta Lanki ikertegiak lankidetzan abian jarritako ekimena: <http://www.otxandio.eus/eu-ES/Albisteak/Orrialdeak/20121220_ConsejodeCiudadanosProcesonagusi.aspx>

Atal honekin amaitzeko esan genero, klase eta kidesun linguistiko kulturalaren arabera daukadan koparen sozialaz gain, ibilbide esperientzia eta hautu teoriko ideologiko horietatik burutu dudala ikerketa lan hau. Eta ondorioz, baldintzanpen horiek ezarri dizkidaten muga eta aukeretatik eraikitzen joan naiz ikergaiaren gogoeta eta analisia.

3.2. Aztergaiaren kokapena

Bigarrenik, ikerketa helburuei erantzuteko erabili dugun metodologia deskribatuko dugu. Arestian aipatu bezala, lan honen xede nagusia da ezkerreko alderdiek gidatutako gobernuen eta gizarte mugimenduen artean ematen diren lan dinamikak aztertzea; eta, horretarako, 2011n, Gipuzkoako Foru Aldundian eman zen esperientzia hurbiletik ikertzeko hautua egin dugu; hau da, bi subjektu politikoen arteko praktiken sakontasun demokratikoan arreta berezia jarri nahi izan dugu. Azken batean, gobernantza sareak nola, nondik eta zertarako sortu ziren, eta, zehazki, praktika horien demokratizaziorako gaitasuna edo kalitate demokratikoa xehatu nahi izan dugu.

Hori dela eta, bizipen horiek guztiak aztertzeko, metodologia kualitatiboa hautatzea erabaki dugu. Bilduren koalizioaren agintaldian parte hartu zuten eragileen kontakizuna zein izan zen jakiteko egokiena dela uste baitugu. Gizarte eragileek, teknikariek eta politikariek bizitakoaz egiten duten irakurketa jasotzeko aproposena delakoan gaude.

Metodologia kualitatiboa era honetan definitzen dute Denzin eta Lincoln-ek: «ikerketa kualitatiboa jarduera kokatua da, behatzailea munduan finkatzen duena. Interpretaziorako praktika zehatzen bitartez, ikerlariak mundua ikusgai egiten dute eta baita eraldatu ere. Irudikapen ezberdinetan bilakatzen dute elkarrizketa, behaketa, grabaketa eta bestelako teknikei esker» (2012:48). Beraz, ikerketa ikuspegi horrek gertaerak agertoki beretik aztertzea eskatzen du, protagonistek ematen dioten zentzua eta esanahia ulertu, aztertu eta interpretatzeko. Eta horixe da, azken batean, ikerketa honetan bilatzen duguna. Gipuzkoan, 2011 eta 2015 urte bitartean, Bilduk osatutako gobernuaren eta herri mugimenduen arteko elkarlan dinamiketan parte hartu zuten protagonistek esperientzia hura nola bizi izan zuten aztertzea eta interpretatzea. Hari beretik, esan dezakegu, ikerkuntza kualitatiboak errealitatearen eraikuntza soziala nabarmentzen duela, ikerlariaren eta ikertzen duenaren arteko harremana estua izanik:

«Los investigadores cualitativos hacen énfasis en la naturaleza esencial y valorativa de la investigación. Formulan preguntas y construyen respuestas que permitan destacar el modo en que la experiencia social es creada y dotada de sentido» (ibidem.:62)

3.3. Erabilitako teknikak

Ikerketa-lan honetan, testuinguru zehatz batean ziharduten eragileen posizioak, jarrerak eta diskurtsoak aztertzea goaz, eta, horretarako, metodologia kualitatiboak eskaintzen dizkigun tekniken artean sakoneko elkarrizketena aukeratzea erabaki dugu. Izan ere, politikari, teknikari eta ekintzaileek garai hartan zuten ikuspegia birsortu nahi da, orduko gertaerei eurak ematen zioten esanahiari erreparatu, bakoitzaren informazio esanguratsuena lortzeko:

«Elkarrizketatuarentzat garrantzitsua den eta adierazgarriena den horretan erreparatu nahi dugu, haren ikuskera subjektiboak eta azalpenek dute protagonismo osoa. Gure asmoa izan daiteke ezagutzea nola ikusten duen mundua elkarrizketatuak, nola sailkatzen duen eta zein rol esperimendatzen duen. Eta horretarako, aztertzen diren gaien arrazoiak, zergatiak edota ondorioak sakonean ezagutzeko eta informazio aberatsa lortzeko aukera ematen du sakoneko elkarrizketak.» (Blas, 2008:114)

Sakoneko elkarrizketa, hortaz, gure ikerketaren helburuak zeintzuk diren kontuan izanda, egokiena dela uste dugu. Teknika honen bitartez, eragileen arteko elkarlanaren arrazoiak, zergatiak, gatazkak, mesfidantzak edota ondorioak sakonean ezagutzeko aukera emango digu. Horrela, 2011ko legegintzaldian emandako gertaeretara hurbiltzeko modu egokiena litzateke. Edonola ere, aipatu behar dugu denboraren desabantaila, hiru urte pasa baitira ordutik, eta hainbat elkarrizketaturi kostatzen zaie orduko gertaerak zehaztasunez, gogora ekartzea.

Bestalde, Juaristik dioen moduan (2003:141), sakoneko elkarrizketak era askotan sailka daitezke. Kasu honetan, batetik, elkarrizketak fokatuak izan dira, gai bakarrik sakonean aztertu baita, eta, bestetik, elkarrizketaren norabidea eta edukiak guk aldeztu aurretik zehaztu ditugunez⁶⁰, zuzenduak ere izan direla esan dezakegu. Elkarrizketatuen laginketari dagokionez, lankidetzaren esparruetan protagonistek izan duten ardura eta inplikazio mailaren arabera aukeratu ditugu; beraz, iritzi laginketa (Blas, 2008:84) litzateke gurea. Elkarrizketa gehienak elkarrizketatuen hurbileko espazioetan burutu dira —etxean, lantokian edo liburutegian—, pertsona horien erositutasuna bermatze aldera eta konfiantzako giroa ahalbidetzeko.

Jarraian, landa-laneko elkarrizketen sintesia jaso dugu. Ikertutako esperientzian informatzaile estrategikoak aukeratu ditugu, orduan zuten ardura postua, inplikazio maila, generoa eta aniztasuna kontuan izanda. Aldagai horien arabera, hiru taldetan sailkatu ditugu: batetik, politikariak eta euren aholkulariak; bestetik, teknikariak; eta azkenik, herri mugimenduetako kideak. Hiru profil horiek ezberdindu ditugu, herri mugimenduen eta erakundeen arteko harremana aztergai dugulako, eta eremu bakoitzaren ardurak edota zereginak oso bestelakoak direlako. Hurrengo koadroan sakoneko elkarrizketen xehetasunak bildu ditugu:

60 Sakoneko elkarrizketen gidioak eranskinean jaso ditugu.

16. taula: **Berdintasun Zuzendaritza**

POLITIKARI, AHOLKULARI, TEKNIKARI ETA HERRI MUGIMENDUETAKO KIDEEN ELKARRIZKETAK		
Kodea	Profila	
Politikariak		
ELP1	Berdintasun Zuzendaritzan ardura politikoa	Emakumezkoa*
ELA8	Berdintasun Zuzendaritzan ardura politikoa	Emakumezkoa*
Teknikariak⁶⁴		
ELT2	Idazkaritza teknikoa	Emakumezkoa*
ELT3	Idazkaritza teknikoa	Emakumezkoa*
ELT9	Idazkaritza teknikoa	Emakumezkoa*
ELT10	Idazkaritza teknikoa	Emakumezkoa*
Herri mugimenduetako kideak⁶⁵		
ELM4	Plazandreak	Emakumezkoa*
ELM5	Malen Etxea	Emakumezkoa*
ELM6	Arrats	Emakumezkoa*
ELM7	Bilgune Feminista	Emakumezkoa*

Iturria: Egileak berak egina

- 61 Elkarrizketatu ditugun berdintasun teknikari guztiak Aldundiak kontratatutako enpresetako langileak dira. Izan ere, agintaldien hasieran Zuzendaritzak oso langile gutxi zituen; legegintzaldian zehar, oposaketen bitartez, sortu ziren lan postu berriak, baina agintaldian azken fasean sartu ziren. Partaidetza gunek, beraz, kanpo kontratazio bidez kudeatu behar izan zituzten.
- 62 2012ko uztailaren 6an, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako arduraduna eta diputatuaren kontrako zentsura mozioa onartu zen, Eusko Alderdi Jeltzalea, Euskadiko Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularraren bozekin. Hori dela eta, bi Ingurumen diputatu izan ziren eta biak elkarrizketatu ditugu

17. taula: **Ingurumen politikak**

POLITIKARI, TEKNIKARI ETA HERRI MUGIMENDUETAKO KIDEEN ELKARRIZKETAK		
Kodea	Profila	
Kazetaria		
ELKAZ1	Kazetaria eta ingurumen gaietan aditua	Gizonezkoa*
Politikaria		
ELPI2	Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua (1)	Gizonezkoa*
ELPI3	Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua (2) ²	Gizonezkoa*
ELPI4	Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakaria	Emakumezkoa*
ELPI5	Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakari ordea	Gizonezkoa*
Teknikaria		
ELT6	Aldundiko teknikaria ⁶⁶	Emakumezkoa*
ELT7	Aldundiko teknikaria	Emakumezkoa*
Herri mugimendu eta kontramugimenduko kideak		
ELIM8	Erraustegiaren kontrako mugimendua	Emakumezkoa*
ELIM13	Erraustegiaren kontrako mugimendua	Gizonezkoa*
ELIM9	Zero Zabor	Emakumezkoa*
ELIM10	Gipuzkoa Garbia	Gizonezkoa*
ELIM11	Eguzki	Gizonezkoa*
ELIM12	Emaus	Emakumezkoa*

Iturria: Egileak berak egina

63 Zailtasunak izan ditugu 2011 eta 2015 agintaldian lanean ibili ziren teknikariak elkarrizketatzeko.

3.4. Laginaren aukeraketa

Ondoren, lagina aukeratzeko kontuan hartu ditugun irizpideak azaldu nahi ditugu. Kasuen hautaketa egiteko, ondorengo bi galdera hauek hartu ditugu kontuan:

1. Zergatik aukeratu dugu, 2011tik 2015era doan Bildu koalizioaren Gipuzkoako Foru Aldundiko legegintzaldia, ezkerreko gobernuen eta herri mugimenduen arteko lankidetzaz aztertzeko?
2. Zer dela eta, aukeratu ditugu Berdintasuneko Zuzendaritza eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua eta ez beste eremuak?

Lehenik eta behin, aipatu nahi dugu Bildu koalizioa 2011ko maiatzeko hauteskundeetara aurkeztu zen koalizioa izan zela. Ezker Abertzalearen ilegalizazio fase⁶⁴ baten osteko testuinguruan kokatzen gara. Koalizioa honako alderdiok osatzen zuten: Eusko Alkartasuna, Alternatiba eta legez kanporatua izan den Batasuna —Aralar alderdia ere gerora gehitu zen—. Bestalde, aurrez aipatutako lehenengo galdeari erantzuteko, hauxe nabarmendu nahi genuke: batetik, Hego Euskal Herriko ezkerreko alderdi guztien artean (Euskadiko Alderdi Sozialista, Aralar, Alternatiba, Ezker Batua-Berdeak) Bildu aukeratu dugu arrazoi ezberdinengatik. Batetik, Bildu koalizioa osatzen duen Ezker Abertzalea sindikatu, komunikabide, gazte erakunde, amnistia-eremuen, ekologismoaren, internazionalismoaren edota feminismoaren alde lanean ziharduten eragileekin harremana izan duen tradizio politiko batetik datorrelako. Era berean esan behar dugu, gaur egun, Sortu alderdiak —Bildu koalizioa osatzen zuen kide nagusiak Hego Euskal Herrian— bereziki LAB sindikatuarekin eta Ernai gazte erakundearekin duela harreman estua. Atzean gelditu da, 1980ko hamarkadaz geroztik Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduen (ENAM) baitan, alderdi eta mugimenduen arteko harreman sarea. Edonola ere, aipatu nahi dugu *Abian* barne gogoeta prozesuan, 2012an martxan jarri zena, guk aztertutako legegintzaldiaren bitartean gorpuztutakoa, gizarte mugimenduei eta herrigintzari honako aitortza egingo zaiela:

«Mugimendu feminista, sindikalgintza, euskalgintza, hezkuntza eragileak, aldaketa sozialaren aldekoak, ikasle eta gazte mugimendua, ekologismoa edota internazionalismoa, besteak beste, aliatu estrategikotzat jotzen ditu Ezker Abertzaleak. Balio estrategikoa dute, halaber, elikadura burujabetzarako sareak edota energia kooperatibak bezalako egitasmoek. Beren autonomiarekiko erabateko errespetutik abiatuta, herri mugimendu eta egitasmoak sustatzea izango da Ezker Abertzalearen eginkizun eta lehentasun. Euskal Sozialismoaren egitasmo estrategikoaren norabidean, herrigintzan diharduen komunitatea izan behar du Ezker Abertzaleak.» (Euskal Herria Zutik eta Abian, 2016:25)

Gogoeta prozesuaren ostean, beraz, gizarte mugimenduen garrantzia agerikoa egiten da, eta alderdiaren zein mugimenduen arteko solaskidetzaren premiari azpimarra berezia egingo zaio.

Bestalde, Alternatiba eta Aralar alderdiek ere gizarte mugimenduekin izan duten harremanari eman izan dioten garrantzia aipatu nahi genuke. Alternatiba Eraikitzen Alderdia 2008ko abenduaren 13an sortu zen, Ezker Batua Berdeak alderdiaren zatiketa batetik zetorren. Bi helburu hauen bitartez definitzen dute euren burua:

64 2003ko martxoan, Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdiak ilegalizatuta zituen Estatu Espainoleko Auzitegi Gorenak.

«Batetik, Euskal Herrian ezker alternatiboak—politikoak zein sozialak— batera lan egin dezan berrosatze prozesuan parte hartzeko gogoia eta konpromisoa ditugu. Ezker alternatibotzat dugu egungo menpekotasun sistemak —patriarkatua, kapitalismoa, produktibismoa, inperialismoa, demokrazia liberala, kultura homogenizazioa— gainditu nahi dituen ezkerra, pertsona zein herri guztien eskubideak bermaturiko gizartearen alde egingo duena. Bestetik, esandakoa lortzeko, ezker eraldatzaileak —euskal ezkerak kasu honetan— bere burua birpentsatu behar duela uste dugu. Paradigma berri honek gai izan beharko du ikuspegi anitzeko politika egitaraua sortzeko —aipatu ditugun borrokak modu orekatuan barneratuko dituen—, eta proposatzen denarekin koherentea izango den antolamendu erakunde berriak sortzeko —alderdi eta gizarte mugimenduen arteko elkarlana garatuko dutenak—» (Alternatiba, d.g.: Nortzuk gara?)⁶⁵

Definizioan jasotzen den moduan, gizarte mugimenduekin elkarlanean garatzeko asmo politikoa azaltzen dute, eta oinarri politikoetan ere ildo beretik hauxe diote:

«Gure estrategia ikuspegi honekin bat datozen hainbat espazio politikorekin elkartzen joatea da bai alderdi politikoak bai herri mugimenduak. Horretarako, aliantzak osatzea eta mugimenduetan zein mugimenduekin batera lan egitea Alternatibako pertsonen lehentasuna da.» (Ibid.:d.g.)

Aralar, berriz, Euskal Herriko alderdi independentista eta ezkertiar gisa definitu izan dena, 90eko hamarkadan sortu zen, Herri Batasunaren baitan zegoen sektore kritiko gisa. 2002an egin zuten kongresu eratzailera. Alderdi horrek ere herri mugimenduekin harremana izango du, eta norabide horretan, tradizio politiko beretik datoz.

Eusko Alkartasunaren (EA) kasua litzateke hurbiltasun horretatik gehien urruntzen den alderdia. 1986. urtean sortu zen euskal alderdi politikoa da, Eusko Alderdi Jeltzalearen zatiketa batetik dator. Eak alderdi sozialdemokrata, abertzale, independentista eta europeista gisa definitzen du bere burua, eta 2011n bat egiten du beste alderdiekin batera Bildu koalizioan. Edonola ere, kasuen testuinguratze atalean, gehiago sakonduko dugu gai horretan.

Bestetik, testuinguru politikoak zituen berezitasunengatik, aipatu nahi ditugu, lau hilabete lehenago, 2011ko urtarrilaren 10ean, Euskadi Ta Askatasunak (ETA), su eten iraunkor, orokor eta egiaztagarria aldarrikatu zuela, eta urte bereko urriaren 20an, borroka armatuaren behin betiko amaiera iragartzen dela. Inguruabar horretan, Bildu 2011ko maiatzeko Udal eta Foru hauteskundeetan, Gipuzkoako lehenengo indar politikoa bilakatzen da, eta lehenengo aldiz, Gipuzkoako Aldundian gobernatzeko aukera izango du.

Eta azkenik, partaidetza politikak Bilduren programan eta asmo politikoetan zuen presentziagatik ere aukeratu dugu kasua. Izan ere, hauteskunde kanpainian eta agintaldiaren hasieran gobernugintza irekiago bat martxan jartzeko asmoa azaldu zuten, eta horren beste adierazle bat litzateke. Ordura arte ez zegoen Partaidetza Zuzendaritzarik; agintaldi honetan sortu zuten eta Aldundiko organigraman kabinetepan kokatu zutena. 2015eko Foru Hauteskundearen Programan horrela jasotzen da 2011ko agintaldian herritarren partaidetzak izan zuen presentzia:

65 Alternatibako web-orria: <<http://alternatiba.net/eu/nortzuk-gara>>

«2011n herrialdeko erakunde gehienak kudeatzera iritsi ginenean, politika publikoetan herritarren partaidetza anekdotikoa zen Gipuzkoan. EH Bilduk, berriz, hasieratik herritarren parte hartzea ildo estrategiko bezala hartu zuen eta legealdi osoan zehar, pausoz pauso, ekimenak proposatu eta gauzatu ditugu norabide horretan. Adibidez, Igeldoko herritarrei udalerrria izateko nahiaren inguruan galdetu genien. Horrez gainera, ugari eta askotarikoak izan dira gure ekimenak, ehunka, eta demokrazia zuzena arautzeko proposamenak ere egiten ari gara udaletan. EH Bilduren ikuspuntutik, herritarren parte hartzearen ondorio zuzena herritarrek boterea eskuratzea izan behar du, hau da, norbanako eta komunitate askeagoak eraikitzeko tresna da parte hartze politika.» (EH Bilduko hauteskunde programa, 2015:35)

Hortaz, abagune historiko baten aurrean gaudela esan daiteke, ezkerreko indar politiko anitz batek Foru Gobernuia zuzentzen duen lehenengo aldia baita. Ordura arte, soilik zenbait udalerritan gobernatzeko aukera izan baitzuen; 2003an legez kanporatua⁶⁶ izan zen eta orduztik hainbat udalerritan ezin izan du hauteskundeetara aurkeztu.

Bestalde, bigarren galderari erantzunaz, alegia, zer dela eta aukeratu dugun Berdintasun Zuzendaritza eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua, esan behar dugu, batetik, Berdintasun Zuzendaritzaren kasuan, batik bat inplementatu zirela gobernantza sare ezberdinak, zeinetan herrialdeko eragile sozialei, elkarteei eta teknikariei parte-hartzeko eta intzidentzia politikorako espazio berriak zabaldu zitzaizkien. Berdintasun Zuzendaritza Diputatu nagusiaren alorraren baitan zegoen, estrategikotzat baitzituzten, Euskara, Migrazioa eta Aniztasuna, Herritarren Parte-hartzea, Lurralde Garapena, Komunikazioa eta Giza Eskubide eta Oroimen Historikoarekin batera. Berdintasunaren eremuan, partaidetzarako bi eremu nagusi zabaldu ziren: batetik, II. Berdintasun Planaren diseinurako prozesua, eta bestetik, Gunea, mugimendu feminista eta emakumeen elkarten intzidentzia politikorako espazioa. Horrela jasotzen du GFAko berdintasun zuzendariak:

«En nuestro caso, se hizo a través de dos procesos participativos: la elaboración del II Plan para la igualdad de mujeres y hombres y la creación y regulación de GUNEA –Espacio de participación e interlocución para la igualdad– entre el movimiento feminista y asociativo de mujeres por la igualdad y la DFG. En ambos procesos, considerados conjuntamente, se emplearon 3 años.» (Gómez, 2015:145)

Era beran, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren kasua aukeratu dugu, eremu horretan, Hiri Hondakinen Kudeaketak sortu zituen gatazkak zirela eta. Aurrerago aipatzen dugun moduan, departamentu horrek gizarte mugimenduetatik zetorren erraustegia geldiarazteko aldarriarekin bat egin zuen, eta aldaketa horrek kudeaketa mailan mugimenduen partaidetzarako aukera berriak sortu zituen, atal enpirikoan ikusiko dugun moduan; bestalde, konfrontazio egoera sortu zen hiri hondakinen bilketa sistemaren ondorioz. Hori dela eta, interesgarria iruditu zaigu eremu gatazkatsua zelako eta mugimenduen presentzia handia zegoelako agintaldiaren hasieran.

66 Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalerritan zerrendak ez ziren ilegalizatu, eta jakin badakigu horietan marka ezberdinekin hauteskundeetan parte hartu zutela. Horren adibide dugu Usurbilgo udala, izan ere, 2007an, EHAK edo ANV agintera iritsi ziren eta Errausketaren kontrako borrokan paper garrantzitsu bat jokatu zuten, atez ateko sistema ezartzen lehenak izan baitziren.

3.5. Dokumentazio lana

Amaitzeko, ikerketa honetan egin dugun dokumentazio lana aipatu nahi dugu. Izan ere, sakoneko elkarrizketen analisiarekin eta bilaketa bibliografikoarekin batera, bi esperientzien inguruan sistematizatu diren hainbat barne dokumentu aztertu ditugu. Bereziki, baliagarriak suertatu zaizkigu gobernantza sareen baitan antolatu diren bileren aktak, araudiak, memoriak eta dokumentuak.

Bestalde, egunkari ezberdinetako berriak ere kontuan hartu ditugu. Bereziki, legegintzaldian zehar eman diren urratsak eta gertaerak kontrastatzeko eta osatzeko. Bereziki, Berria eta Gara egunkarietako informazioa bildu da. Egunkari horiek aukeratu ditugu, agintaldiari egindako jarraipenagatik eta hizkuntzagatik.

Hauek dira lan honetarako kontuan hartu ditugun txostenak:

18. taula: **Ikerketa honetan aztertu ditugu txosten eta memoriak**

BERDINTASUN ZUZENDARITZA
Gipuzkoako Foru Aldundia (2012): <i>Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020</i>
Farapi S.L. (2013): <i>Reflexionando: 1. Fase el Proceso de creación del Dispositivo foral de Gobernanza para la igualdad: Aproximación a la participación socio-política y al tejido asociativo de mujeres de Gipuzkoa y retos para la creación de un órgano foral de interlocución política en igualdad</i>
Farapi S.L. (2013): <i>Informes sobre las sesiones de contraste. Proceso de creación del dispositivo foral de gobernanza para la igualdad.</i>
Farapi S.L. (2013): <i>Acta del I. Taller de co-creacion</i>
Farapi S.L. (2013): <i>Acta del II. Taller de co-creacion</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): <i>GUNEA** Sortzeko batzar nagusiaren akta. Berdintasunerako partaidetza eta elkarrizketa gunea Gipuzkoan</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): <i>Gunearen barne arautegia</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): <i>9/2014 FORU DEKRETUA, martxo aren 18koa, GUNEA: Gipuzkoako berdintasunerako partaidetza eta elkarrizketa espazioa sortzeko.</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): <i>Batzar nagusi eratzaillearen I. akta</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): <i>Batzar nagusi eratzaillearen III. akta</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): <i>Batzar nagusi eratzaillearen IV. akta</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2014): <i>Batzar nagusi eratzaillearen V. akta</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2013): <i>Berdintasuna webgunean Berriak atalean jasotzen diren artikulua. <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/fr/berriak></i>
Likadi (2014): <i>Implementación de la estrategia de mainstreaming de género o transversalidad en el ámbito municipal del territorio histórico de Gipuzkoa.</i>

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAKETA DEPARTAMENTUA
Gipuzkoako Foru Aldundia (2002) <i>Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorra.</i>
Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Departamentua (2012): <i>8/2012 Foru Dekretua. Gipuzkoako Hiri Hondakin Prebentzio eta Kudeaketarako Kontseilua sortu, egitekoak zehaztu eta funtzionamendu arauak ezartzen dituena.</i>
Gipuzkoako Foru Aldundia (2010): Herritarren partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 FORU ARAUA.
Gipuzkoako Foru Aldundia (2011): 2011ko urtarrilaren 14ko R- 3/2011 FORU DEKRETUA, Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan inskribatzeko jarraibideak ematen dituena.
Donostiako Udala (2007): 2007ko urtarrilaren 30eko udalbatzarreko gai ordena
Gipuzkoako Foru Aldundia (d.g.): Aurrerapen dokumentuaren garapenerako estrategia 2008-2016
Gipuzkoako Foru Aldundia (2008): 7/2008 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorren aurrerapen agiria (2008-2016) onartzen duena.
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua (2013): Gipuzkoako Hiri Hondakin Prebentzio eta Kudeaketarako Kontseilua. Bertaratuen sinadurak.
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua (2013): 4. akta. Gipuzkoako Hiri Hondakin Prebentziorako eta Kudeaketarako Kontseiluaren batzarrena.
Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2008/98/EB Zuzentaraua, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzko eta hainbat zuzentarau indargabetu dituena.
Conclusiones del simposium médico sobre la incineración y salud (2004).

Iturria: Egileak berak egina

Dokumentazio lana egiterako orduan, zenbait zailtasun izan ditugu gobernantza espazioen aktak eta txostenak jasotzeko. Izan ere, hainbat urte igaro dira legegintzaldi hartatik, eta Aldundiaren atari digitaletan, nagusiki, legegintzaldi berriko dokumentazioa ageri da.

4. Ikerketa kasuak

Herri mugimenduen eta erakunde publikoen arteko gobernantza sarea: Gipuzkoako Aldundiaren Berdintasun Zuzendaritza eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua (2011-2015)

4.1. Gipuzkoari begiratu bat

Sarreran aipatu bezala, gure azterketa kasua Gipuzkoan kokatzen da, 2011 eta 2015 bitarteko testuinguruan, herrialde historiko honetako Foru Aldundiaren eta herri mugimenduen arteko harremanaren eremuan, alegia. Gobernantza parte-hartzailearen ikuspegitik, Aldundiko ezkerreko gobernuak inguruko sare kritikoarekin —eta alderantziz—, izandako hartu emanean arreta jarri dugu. Halere, eremu honen analisi enpirikoan murgildu aurretik, halabeharrezko marko orokor bat marrazteko beharra atzeman dugu; egiazki, aurrerago sakonduko dugun analisiak, hasierako kokapena beharrezkoa baitu. Era berean, esan dezakegu ondoren jaso dugun ezaugarritzea orokortasunetik egina dagoela. Gipuzkoako oinarritzko adierazle soziopolitiko zein ekonomikoak bildu ditugu, ikergaiarekin zerikusia dutelakoan, eta berau kokatzen lagunduko gaituelakoan. Izan ere, lurralde historikoaren argazki partziala bada ere, oinarri gisa jasotzea beharrezkoa deritzogu. Beraz, ikergaiaren konplexutasuna hobeto atzeman asmoz, Gipuzkoako errealitatearen hurbilketa ondorengo atal zehatza goetara bideratu dugu, lehenik:

- Gipuzkoara hurbilketa orokor bat: adierazle nagusien sintesia
- Gipuzkoako kultura parte-hartzailearen eta herri mugimenduen argazkia
- Foru Aldundiaren ibilbidearen sintesia: nola heldu zen Bildu gobernura?

4.1.1. Gipuzkoako herrialdearen testuingurua

Gipuzkoa Euskal Herriko zazpi herrialdeetako bat da, eta 1.813 km² ditu. 2016ko urtarrilean, 710.699 biztanle zituen erroldaturik (Eustat, 2016); horietatik, 347.755 gizonetzko eta 362.944 emakumezko. Biztanleriaren laurdena Donostian bizi da, 180.000 biztanle inguru, hain zuzen ere. Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Lapurdirekin muga dagoen herrialdeak 88⁶⁷ udalerrri eta 11 euskualde ditu, eta lurralde historikoa lau hauteskunde barrutitan banatzen da: Donostialdea, Bidasoa-Oiartzun, Oria eta Deba-Urola.

67 Gogoratu nahi dugu, Bilduren legegintzaldian, zehazki 2013ko abenduaren 17an, Donostiako Igeldo auzoa herri izatera pasa zela. Urteetako aldarrikapen historikoa izan arren, Donostiako udalak errekurtsio bat aurkeztu zuen segregazioaren aurka, eta Euskal Autonomi Erkidegoko Epaitegi Gorenak, behin-behinean, bertan behera utzi zuen izendapena. (Berria, 2013ko abenduaren 17an) 2016ko urtarrilaren 25eko epaiak banaketa indargabetzea berretsi zuen; eta, beraz, udalerrri izaera galdu zuen. Ezkiok eta Itziarrek ere urteak daramatzate udalerrri izan nahian, oztopo politiko eta juridikoengatik ez dute oraindik estatus juridikoa lortu. Aipatzekoa da ere Itsasoren kasua, Igeldoren ibilbide berbera izan baitu; herri kontsulten babesarekin eta aldundiaren laguntzaz udalerrri bilakatzeko tramite guztiak egin ondoren, epaitegiek atzera bota dute, Ezkioren kasuan Estatuko epaitegien aldetik. Hortaz, esan dezakegu, herritarren partaidetzarako funtsezko tresna den herri kontsulten emaitzak aintzat hartuz, eta epaitegiek aitortu ez arren, Gipuzkoak 91 udalerrri dituela.

19. taula: **Gipuzkoako biztanleria eskualdeka, 2014an**

ESKUALDEA	BIZTANLERIA	BIZTANLERIAREN BANAKETA	BIZTANLERIAREN BATEZ BESTEKO ADINA	LANGABEZI ERREGISTRATUA
Bidasoa-Behera	78.426	%10,94	43,2	%11,73
Debarrena	55.752	%7,77	44,5	%10,9
Debagoiena	62.720	%8,75	44,2	%9
Donostialdea	327.992	%45,75	44,3	%10,13
Goierri	68.234	%9,52	43	%9,08
Tolosaldea	48.797	%6,81	42,2	%10,1
Urola Kosta	74.913	%10,45	41,6	%9,93

Iturria: Egileak berak egina Gaindegiako www.gipuzkoakoatlasa.net-eko datuekin

Datu ekonomikoei dagokionez, Gipuzkoako hiru sektoreen errebaso azkar bat egiten badugu, lehenengo sektoretik hasita, eremurik kaltetuenetarikoa dela frogatzen dute nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzan lan egiten dutenen urtez urteko lanpostuen galerak. Izan ere, Gaindegiak 2013an argitaratutako datuen arabera, 2008tik 2012rako epean, 6.949 lanpostu desagertu ziren Euskal Herri osoan, eta Gipuzkoan eman zen galera handiena, 4.775 galdu baitziren (Gaindegia, 2013). Datuen arabera, hortaz, badirudi sektoreak krisi sakona bizi duela aspaldidanik, eta bideragarritasun ekonomikorako zailtasunak geroz eta handiagoak direla.

Bigarren sektorean, aldiz, Orkestrako 2015eko lehiakortasun txostenaren (Orkestra, 2015: 139) arabera, Gipuzkoan sektore industrialaren ekoizpena altua da oraindik ere, eta ondorengo produktuetan dago espezializatua: metalurgia eta produktu metalikoak, makinaria eta ekipoak, papera, ekipo elektronikoa eta produktu informatiko eta elektronikoa. Gipuzkoako kooperatiben presentzia ere esanguratsua da, 1.393 baitaude egun erregistraturik (Soto eta Morandeira, 2016:24). Horien guztien artean, azpimarragarria litzateke, 1956. urtean Debagoienan jaio zen Mondragon Taldearen bilakaera. Izan ere, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia mundu mailako erreferentziako errealitate kooperatiboa dela esan daiteke.

«Errealitate kooperatibo horretan berrogei mila lagun baino gehiagok dihardute lanean Euskal Herrian. Gaur egun, Debagoiena da –hirurogei mila biztanlerekin– kooperatiba dentsitate eta dibertsitate handiena duen eskualdea munduan. Gipuzkoako industriaren sektorean bereziki aipagarria da industria kooperatiben presentzia, eta bertako balio erantsia –energiaren eta uraren sektorea barne– %17,8ra iristen da» (Altuna, 2011:19)

Azkenik, hirugarren sektorea egongo litzateke; handituz doaz zerbitzu eta turismoaren sektoreak Gipuzkoan, Kostaldean bereziki. Industriak pisu handia izan arren, zerbitzu sektorean lanpostu berri gehiago sortu dira azken urteotan, Gaindegiak 2007an argitaratutako Euskal Herriko Egitura Adierazleak ikerketa txostenak diotenaren arabera.

Gipuzkoako Gizarte Behatokia⁶⁸, berriz, errealitate sozialaren inguruko bestelako datuak topatzen ditugu. Izan ere, herrialdeak 2015ean, % 11,82ko langabezia tasa zuen. Herritartasun atzerritarra zuten pertsonak % 6,49 ziren; premia sozialen datuei erreparatuz gero, biztanleriaren % 5,3 pobrezia larrian zegoen, eta ezberdintasun sozialaren adierazlea da % 26,3 da (Gini koefizientea⁶⁹). Gainera, 15.077 pertsonak jaso zuten, 2015ean, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren diru laguntza.

Beraz, aipatutako adierazle sozioekonomikoaren arabera, Gipuzkoan, Hego Euskal Herrian bezala, urtetik urtera aberats eta txiroen arteko tarte zabaltzen ari dela dirudi. Geroz eta herritar gehiago bizi dira pobrezia mugatik behera, eta aberastasuna pilatzen diharduen gutxiengo bat salbuetsiz. Egoera horren hainbat adierazle, Nekane Jurado (2018:14) ekonomialariak egindako ikerketan (*Situación económica y social tras una década de gran recesión: los presupuestos 2008-2017 en Hego Euskal Herria, profundizando la desigualdad, 2018*) aipatzen dira:

- EAEko industria, 1975ean, BPGren %48,8 sortzetik erdira jaitsi da 2015ean, %24ra.
- Langile industrialak 355.400 izatetik 181.041 izatera jaitsi dira.
- 2008tik 142.000 lanpostu deuseztatu dira.
- EAEn egindako kontratuen %93,5 aldi baterakoak dira, batez beste, bi hilabetetik beherakoak.
- Erregistratutako 176.217 langabeterekin itxi du 2016a Hego Euskal Herriak erregistratu gabeak gehitu behar zaizkio horri.
- 2009an langabeen %68,7k jasotzen zuen prestazioa; egun, %37,5ek.
- Langabezia prestazioa jasotzen duen pertsona bakoitzarekin egiten den batez besteko gastua %19 jaitsi da 2009tik 2016ra.
- Egun 44 urtetik beherako gazteen %39,4 gurasoen etxean bizi da; 2008an %34,4 ziren.
- 2009 eta 2014 urte bitartean arrazoi ekonomikoengatik 14.300 gaztek migratu behar izan dute atzerrira.
- 2009-2014 bitartean 1.328 pertsonak egin dute beren buruaz beste: 296 Nafarroan, 1.032 EAEn. Astean 4 suizidio.

Bestalde, aldagai kulturaletan arreta jartzen badugu, Mondragon Unibertsitateko Sorguneak ikerketa taldeak 2009an argitaratu zuen, *Gipuzkoako kultura bizitzaren azterketa kualitatiboa* ikerlanaren arabera, herrialde guztietatik Gipuzkoa euskaldunena dela diote, bai mapa fisikoari begira zein eremu soziokulturalean ere. Ikerketak jasotzen dituen datuen arabera: euskaldunak %49,1 dira –291.000–, EAEko euskaldun guztien %26a (557.700 lagun). Euskaldun pasiboak, berriz, %15,6 dira, (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008). Gauzak horrela, euskaldun-dentsitate handiena duelako, euskal kulturaren kontsumoa handiagoa dela diote. Alegia, zifra absolutuetan, Gipuzkoa litzateke euskarazko produkzio gunerik indartsuena eta sortzaile zein kontsumitzaile kopururik handiena duena. Euskararen erabilerari dagokionez, VI. Inkestak Soziolinguistikaren arabera, Gipuzkoako herritarren %50,6 elebiduna da. EAEko beste herrialdeekin alderatuz gero, Gipuzkoak du euskaldunen ehunekorik handiena % 50,6, Bizkaiak euskaldunen ehuneko txikiagoa du % 27,6 eta, azkenik, Arabak du ehunekorik txikiena % 19,2 (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2016:4).

68 *Gipuzkoako Gizarte Behatokia* Gipuzkoako zerbitzu eta premia sozialen errealitatearen inguruko difusio eta azterketarako gune bat. Behatokiaren atariaren oinarriko helburua da informazio garrantzitsu, sistematizatu eta eguneratua eskaintzea biztanleria gipuzkoarraren bizi-baldintza, ongizate eta lurraldean eskaintzen diren gizarte-zerbitzuen inguruan, ikus: <<http://www.behagi.eus/eu/adierazleak/adierazle-nagusiak/p-1>>


69 Gini koefizientea errentaren desberdintasunaren neurketarako eta beste aldagaien kontzentrazioa neurtzen duen koefizientea da.

4.1.2. Gipuzkoako antolaketa instituzionala

Gipuzkoako antolaketa instituzionalari dagokionez, esan behar dugu Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketarako Foru Arauak aitortu zituela herrialdeko egitura instituzional gisa Batzar Nagusiak eta Gipuzkoako Foru Aldundia⁷⁰. 1977an, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiek berrazarri zuten Batzar nagusien aldi garaikidearen genealogia (Barandiaran eta Korta, 2011:125):

- 1978ko konstituzioaren ostean, Batzar Nagusien ahalmenak eta aukeratzeko prozedura arautzen dira Batzar Nagusien Errege Dekretuaren bitartez.
- 1979ko Foru Hauteskundeen ostean, Gipuzkoako lehen Batzar Nagusiak osatu zituzten.
- 1979ko abenduaren 18an, Gernikako Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoaren bitartez, hiru Lurralde Historikoen antolaketa gaitasuna berretsi zen.
- 1981ean, 1937an baliogabetutako kontzertu ekonomikoaren erregimena berreskuratu zen.
- 1983ko otsailaren 26an, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketarako Foru Araua onartu zen.
- 2005ean, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 6/2005 Foru Araua onartu zuten. Horren arabera, Batzar Nagusiak ordekaritzarako Foru Organoak dira, eta Foru Aldundia Lurralde Historikoaren Foru Organo betearazlea.
- 2006ko uztailaren 2an, egun indarrean dagoen Gipuzkoako Batzar Nagusien Araudia onartu zuten.

12. irudia: **Batzar nagusietako eskuduntzak**



Iturria: Egileak berak egina, Barandiaran eta Korta, 2011:126 oinarri hartuta.

⁷⁰ Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrekari instituzionalak ezagutzeko, XIV. mendera jo behar dugu. Erakunde horren historia hiru garai ezberdinetan banatzen da: Erdi Aroa, XIV. mendetik XVI. mendera; garai modernoa, XVII. mendetik XVIII.era; eta, azkenik, garaikidea, 1808tik 1979ra. Jatorri historikoan sakontzeko, ikusi Gipuzkoako Batzar Nagusien webgunea: <<http://w390w.gipuzkoa.net//WAS/CORP/DJGPortalWEB/index.jsp>>

Gipuzkoako Foru Aldundiko legegintzaldiei dagokienez, 1979ko hauteskundeetatik gaur artekoak aztertzen baditugu, esan dezakegu Eusko Alderdi Jeltzalea nagusitu dela. Hamaika agintaldietatik zortzitan euren irabazi dituzte hauteskundeak eta gobernua osatu dute. Eusko Alkartasunak bi agintalditan gobernatu du, 1985tik 1987ra eta 1987tik 1991ra doazenetan, Imanol Murua Arregi buru zela. Bildu 2011tik 2015erako legegintzaldian soilik izan da Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuburu.

20. taula: **Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuen bilakaera**

	LEGEGINTZALDIA	LEHENDAKARIA	ALDERDIA
1	1979-1983	Xabier Aizarna Azula	EAJ
2	1983-1985	Jose Antonio Ardanza Garro	EAJ
3	1985-1987	Imanol Murua Arregi	EA
4	1987-1991	Imanol Murua Arregi	EA
5	1991-1995	Eli Galdos Zubia	EAJ
6	1995-1999	Roman Sudupe Olaizola	EAJ
7	1999-2003	Roman Sudupe Olaizola	EAJ
8	2003-2007	Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda	EAJ
9	2007-2011	Markel Olano Arrese	EAJ
10	2011-2015	Martin Garitano Larrañaga	Bildu
11	2015-2019	Markel Olano Arrese	EAJ

Iturria: Egileak berak egina

Aurrerago ikusiko dugu zeintzuk izan ziren 2011ko foru eta udal hauteskundearen emaitzak.

4.2. Herri mugimenduak eta parte hartzearen kultura

Gipuzkoako herri mugimenduak eta parte hartzearen kultura aztertzeke, ezinbestekoa dugu Hego Euskal Herrian izan den mugimenduen inguruan aritzea, horrela, Gipuzkoan emandako garapena testuinguru zabalago batean kokatu eta errazago ulertu ahal izango baitugu. Izan ere, Hego Euskal Herrian, gaurdaino heldu diren gatazkek etengabeko mobilizazio dinamikak eragin dituzte. Horren froga argiena litzateke, 60 eta 70eko hamarkadatik hona suertatu diren mobilizazio independentistak, langile mugimenduarenak, feministak, antimilitaristak, antikapitalistak, euskaltzaleak, ekologistak eta bestelakoak). Langile klasearen mobilizazioetatik Euskal herriko herri mugimenduen eremua ikertu dutenek diote gure kultura politikoaren bereizgarrietako bat izan zela eta gaur egun ere badela partaidetza politiko eta gizarte mobilizazioak eragindako protesta maila (Ajangiz eta Barcena, 2001; Zubiaga, 2013). Erro sakonak dituzten gatazkei soluziobiderik ez topatzeak, etengabeko mobilizazio dinamikak eragin ditu. Euskal gizartea, hortaz, *'mugimenduen gizarte'* (Casquete, 1998) gisa definitu izan da, ehundura kolektiboen esku-hartze politikoak etengabea baita. Gizarte zibil antolatua ez da soilik kolektibo ezberdinen batuketa izango; herri ekimenak, herritarren jarrera aktiboak eta parte hartzaileak ere gizarte zibilaren osagai erabakigarriak lirateke.

Horrez gain, Ajangiz eta Barcenak diote (2001) inguruko herrialdeekin alderatuz, Euskal Herriko herri mugimenduen antolatzeke gaitasuna, mobilizaziorako bultzada ahalmena, eta kulturaren, gizartean zein politikan eragiteke gaitasun handiagoa dutela. «Mendebaldeko gizarte guztietan gertatu den herri antolakuntzaren fenomeno horrek Euskal Herrian izan duen bilakaera askoz ikusgarriagoa izan da, eta hori dela eta gizarte zibil anitz eta dinamikoa sortu da, erakunde politikoekin, tokikoetatik hasi eta orokorrenetaraino, etengabeko eztabaidan murgildua, eta ezker alternatiboaren berdintasun eta askatasun balioak, batez beste, presentzia handiagoa dutela» (2001:49)

Bestalde, aipatzekoa da ere Euskal Herri osoan, garai batean, erabat zabaldua zegoen auzolanaren kultura. Azken finean, beharizan kolektibitatean asetzeko joera historiko horrek eragina izan du Euskal Herriko autoeraketa eta herri mugimenduen kultura politikoan. Jasone Mitxeloren (2011) historialariak dioenez, auzolana herritarren betebeharrak bat zen, eta 1960ko hamarkadatik hona zeregin horrek indarra galdu du:

«Auzolanak herritarren betebeharrak gisa funtzionatu du duela zenbait hamarkada arte, eta hala izaten segitzen du hainbat herritan. Herrietako azpiegitura komunak zaindu, moldatu edo eraikitzeke antolatzen dira auzolanak; urteke egun jakinetan, edo maiztasun batekin, lanek eskatutakoaren arabera. Horiez gainera, larrialdi uneetan ere deitu zitezkeen auzolanak» (2011:22)

Etxalarko ekintzailearen arabera, elkarlana, elkartasuna, autoantolakuntzarako gaitasuna eta ardura kolektiboa euskal gizartean bizirik dirauten balioak dira, eta beste hainbat herrialdetan bezala, euskal jendartearen ondare. Auzolanaren adierazle instituzionalak ditugu Nafarroa eta Araban bizirik dirauten Kontzejuak⁷¹ eta Batzarreak.

71 Kontzejuak lurralde izaerako toki erakunde bat da, nortasun juridikoa eta jarduteke gaitasuna dituen, eta bere interesak kudeatzeko autonomia duena. Informazio gehiago nahi izanez gero: <<http://www.acoa-ake.org/sitio/index.php>>

Bestalde, Zubiagak, 2002an, Joxemi Zumalabe Fundazioaren⁷² baitan abiatu zuen ikerketaren arabera, euskal gizarte zibilaren ezaugarri nagusiak hauek lirateke:

- Jarrera kritikoa gizarte errealitatearen aurrean
- Ekintza kolektibo zuzena lehenetsiko duena
- Gizartean eraldaketa soziala helburu duena
- Antolaketa molde lausoa, malgua, porotsua eta ez hierarkikoa izango duena.

Behetik gora eraikitzen diren mugimenduok, izaera irekia eta lan egiteko molde parte hartzaileengatik be-
reizten dira. Parte hartu nahi duen edonork aukera izango luke taldeetan jarduteko. Elkarrekin ezber-
dinek osatuko dute Euskal Herriko gizarte zibil antolatua, bai eraldaketa sozialarekin, oro har, bat egingo
dutenak, eta baita helburu edo premia zehatzagoen bueltan eraikiko direnak ere (Parte Hartuz, 2003).
Izan ere, kontuan hartzen baditugu mundu mailako aldaketa sozioekonomikoen eta merkantilizazioak
eragindako individualismo eta lehiak, bizitzaren sostengarritasunarekin lotura duten gai espezifikoek al-
darriak areagotuko dira.

Garapen historikoari begira jarriz gero, esan genezake 60 eta 70eko hamarkadak euskal gizarte zibilaren
susperraldi garaiak kontsideratzen direla. Faktore ezberdinak kokatzen dira loratze horren atzean: bate-
tik, nazioarte mailako eraldaketa prozesuak eta askapen mugimendu nazionalak; bestetik, eta batik bat,
espaniar Estatuko diktaduraren kontra artikulatu ziren mugimendu aurrerakoiak; horietatik hainbat, nazio
ikuspegitik abiatzen zirenak, orduko Euskal Herrian, Francoren kontrako mugimenduak indar handia bai-
tzuen. Aipagarriak dira, euskara eta euskal kulturaren alde osatu ziren taldeak (AEK, Argia, Euskaldunon
egunkaria, Topagunea eta abar) eta nola ez, euskarak frankismo garaian bizi izandako errepresioari aurre
egiteko antolatu zen ikastolen mugimendua, zeina gizarte-ekimenez titularrak aurrean gurasoak zirelarik
eta irakasleek eta herritarrek lagunduta abiatu zen euskara berreskuratzeko eta eskola ezberdina eraiki-
tzeko asmoz (Iza, 2010:36). Eta beste hainbat haustura lerroetan kokatzen direnak, hala nola, mugimen-
du antimilitarista (MOC-KEM, Bilboko Talde Antimilitarista) 1977an sortu zena; urte berean abian jartzen
da mugimendu antinuklearra Euskal Herrian. Bestalde, langile mugimenduaren presentzia ere azpima-
rregarria da. 70ko hamarkadan suertatu ziren grebak protesta ziklo horien adierazle dira; besteak beste
oinarrizko elikagaien garestitzeen kontra egin zirenak Nafarroan (Mendiola, 2002:216), Gipuzkoan edo
Bizkaian. 60ko hamarkadan abian jarri ziren Langile Batzordeak (1963an Bizkaiko Langile Batzordea sortu
zen)⁷³, 1966ko hauteskunde sindikalen ostean ilegalizatu zituztenak, Langileen grebak (1973ko martxo-
aren 3an Gasteizen); 1977an ere ospatu ziren mugimendu feministarentzat mugarri izan ziren Leioako To-
paketak. 70eko hamarkadan sustatu ziren hainbat borroka etorkizun zeharo ezberdin baten sinesmenak
bultzatuta eman ziren (Beorlegui, 2017:53).

80ko hamarkadan, aldiz, pixkanaka-pixkanaka demokrazia ordezkatzailaren instituzionalizazio prozesua-
rekin batera, tokiko administrazioen ezarpenak delegaziorako joera elikatu zuen; adibide gisa aipatzen da
(Ajangiz eta Barcena 2002), 1979ko udal hauteskundeetan auzo mugimenduetako hainbat ordezkari ezke-

72 Euskal Herrian eraldaketa sozialean lanean ari diren Herri Mugimenduen kultura indartzea helburu duen eragilea da Joxemi Zumalabe Fundazioa. Herri Mugimenduen ekarpena jaso eta balioan jartzea du helburu. Euskal Herriko talde eta mugimendu ugari egiten duen lanari behar duen errekonozimendua aitortu eta memoria kolektiboa lantzea da Fundazioaren egiteko nagusia. Informazio gehiago nahi izanez gero: <<http://joxemizumalabe.eus>>

73 Langile-mugimendua (2011). In Eusko Ikaskuntza. 2018ko azaroaren 3an berreskuratua. <<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/langile-mugimendua/ar-96725>>

rreko alderdietako buruzagi izatera pasa zirela. Ajangizek eta Blasek (2003) diotenaren arabera, erakunde publikoek herri mugimenduen diskurtsoak bereganatuko dituzte progresiboki, eta horrek gizarte zibilaren eremukako banaketa eta sektorializazioa dakar «honenbestez, 80ko hamarkadako bizipenak ez dira jada mugimendu herrikoienak, baizik eta talde atomizatu eta espezializatuenak» (Ajangiz et al. 2003:110).

Bestalde, 90eko hamarkadan, herri mugimenduen indargabetzea emango da, sarean lan egiteko kontzientzia areagotuz; horren adibide dugu mugimendu ekologistaren baitan, 1990eko abuztuan, zenbait talde ekologistek elkarlanerako eta koordinaziorako neurriak zehaztu izana. 90eko hamarkadan, aurrekoekin alderatuz, taldeak anitzagoak eta txikiagoak izango dira, eta mobilizazioak ez dira aurrekoan bezain jendetsuak izango. Euskal nazioaren gatazkari aurre egiteko eraikitako errepresioak eta eskubide zibil eta politikoen murrizketak eragin zuen ahultze prozesuan. Finean, salbuespen legediek eta etengabeko kriminalizazioak baldintzatu dute aktibismo politikoa, eta batik bat, Ezker Abertzalearen eremuan.

Ikerketa edo begirada gaurkotuagoei erreferentzia eginez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012an abiatu zuen *Dialogo de Saberes y Movimientos de Euskal Herria* gogoeta espazioaren sistematizazio lanen arabera, gaur egun, herri mugimenduak agertoki berri baten atarian leudeke, zeinean ETaren borroka armatuaren etenaren, errepresio gogor baten osteko ajearen eta krisi ekonomikoen ondorioz, praktika politikoa eta borroka estrategien berrasmatze lanetan diharduten. Talde ezberdinen artean burututako gogoetan bi lan ildo nagusi bereiz daitezke: batetik, militantzia ereduaren lanketa (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014) eta, bestetik, borroka tresnen berrikusketa (*Dialogo de Saberes*, 2012:15). Era honetan definitzen du Lurralde Askea taldeak gaur egun bizi dugun egoera:

«Nazio gatazkaren parametroak errotik aldatu dira eta euskal jendartean eraldaketa sakonak eragin ditu. Are sakonagoak agian ezkerrean eta herri mugimenduetan. Herri normalizatuagoa gara, ametsak inausi ditugu eta demokrazia formalaren mugak eta moduak barrurago sartu zaizkigu. Indar handiko borroka esperientzia ederrik ere bada, baina ez, momentuz bederen, joera orokorra eraldatzeko gai denik» (Lurralde askea, 2017:3).

Bestetik, Ipar Hegoa Fundazioak argitaratzen duen ikusmira aldizkarian⁷⁴, adibidez, 2014 eta 2015eko dinamika sozialaren gertaera esanguratsuenak biltzen dira, eta hauek dira Fundazioaren arabera aipagarrienak: presoaren eskubideen aldeko mugimendua; erabakitze eskubidearena; lan gatazka eta prekarietatearen aurkako protesten baitan, aipamen berezia egingo zaio Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren prozesuari; mugimendu feministari, mugimendu ekologistari, etorkinen eta aniztasunaren inguruko dinamikari, euskalgintzari eta hezkuntzaren eremuan, Lomce-ren kontrako plataformari. Azken eremu honekin lotuta, ezagunak dira nazio identitatearen haustura lerroak sortutako aurkaritza politikoak (Masteos, Zabalo, Larrinaga, Mila, 2016:68), eta hortik eratortzen diren protesta molde anitzak.

Laburbiltzeko, esan genezake azken 50 urteetako protestak txikituz joan direla, nahiz eta gizarte mugimenduen eragiteko gaitasuna, oraindik ere, handia den. Herri mugimenduen eremuz eremu sustatu dituzten mobilizazio kultural, sozial, ekonomiko eta politikoen bitartez, antolakuntza sare zabal eta oparoa sortu da. Era berean, administrazioetan azken hamarkadetan zabalduak diren sailak —euskarara, berdintasuna, ingurugiroa, parte-hartzea eta abar— protesta ziklo ezberdinen isla direla esan daiteke.

74 Ipar Hegoa (2014) Ikusmiran egoeraren azterketa. Ipar Hegoa prestakuntza politiko eta sindikalerako fundazioa da, eta Ikusmira izenburu duen argitalpenetan, mugimendu edo gertaera ekonomiko eta politikoen irakurketa burutzen du. Modu analitikoan eremua antolatzen ditu argitalpenaren edukia: *Bilakaera azkarra, Eremuaren irakurketa eta Ondorioak*. Ikus: <<http://iparhegoa.eus/index.php/es/ikusmiran-2/69-ikusmiran-2014-iraila-martxoa-2015>>

Gipuzkoako herri mugimendu eta elkarteetako xehetasunak jaso nahi ditugu jarraian. Erreferentzia gutxi topatu ditugu Gipuzkoako herri mugimenduen bereizgarriak jasotzen dituztenak. Halere, esan genezake aurrez aipatutako ziklo eta ezaugarriak bat datozela herrialde historiko honetan eman den bilakaerarekin. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Elkarten erregistrora jotzen badugu, 2017an, 7.292 elkarte erregistraturik zeuden. Galletebeitiaren (2015) esanetan, azpimarragarria da lurralde historiko honen elkarte sarea. Zubiagak (2002), bestalde, Gipuzkoako lurralde historikoa aipatzen duenean dio, batetik, hiriburua, beste herrialdeetan ez bezala, ez dela herri mugimenduen erreferentzia gune bilakatu, kontsumo eta turismo produkzioaren logikak nagusitu baitira. Bestetik, Zubiagak gizarte zibilaren sektore eragileenek ghetto bilakatzeko arriskuaz ohartarazten gaitu; izan ere, herri mugimenduen aldeko gizarte babes handia izateak, desaktibazioaren arriskua edota eremuetako itxitasuna eragin baitezake. Halaber, Gipuzkoa Sarean Proiektuak argitaratutako ikerketa baten arabera, Euskal Autonomia Elkartearen %31,5 (EUSTAT, 2010) Gipuzkoan zeuden 2009an. Kutur eremuan kokatzen diren elkarteak dira gehienak, guztietatik %57,07. Arlo politiko eta sozioekonomikoko elkarteak lirarteke bigarrenak zerrendan.

21. taula: **Gipuzkoako elkarten izaera**

EAEKO ELKARTE KOPURUA (2009)	GIPUZKOAKO ELKARTE KOPURUA (2009)	KULTURA OROKORRA	KULTURA ESPEZIFIKOA	ARLO POLITIKOA	GURASO ELKARTEAK	BIZILAGUN ELKARTEAK
19.150	6.038	%50,5	%7,1	%15,3	%6,6	%5,5

Iturria: Egileak berak egina Barandiaran eta Korta, 2011:132 oinarri hartuta.

Arestian aipatutako datuak Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010ean egindako azterlan baten bitartez osatu ziren, elkarten jardura eremua eta kide kopurua aztertuz. Datu hauek bildu ziren:

22. taula: **Eremuaren arabera sailkapena**

GIPUZKOAKO ELKARTE KOPURUA (2009)	UDAL ELKARTEAK	GIPUZKOAZ GAINDI JARDUTEN DUTENAK	LURRALDE HISTORIKOAN JARDUTEN DUTENAK
6.038	%37,6	% 29,9	%24,3

Iturria: Egileak berak egina Barandiaran eta Korta, 2011:132 oinarri hartuta.

Ikerketa horren arabera, 6.038 elkarteetatik %28,7 azken hamar urteetan sortutakoak dira, eta horietatik %26,2k hogeita hamar urte baino gutxiago dauzkate. Azkenik, elkarteetako kide kopurari dagokionez, gehienek 50-60 bazkide dauzkatela jasotzen da ikerketan.

Amaitzeko, errealitate konplexu eta zabal horretan, argi fokua feminismoan eta, ekologismoaren baitan, Erraustegiaren Kontrako Mugimenduan jarri nahi genuke. Horiexek baitira gure ikergaiarekin lotura duten mugimenduak. Beraz, sakondu dezagun zertxobait gehiago Gipuzkoako mugimendu feministaren eremuan eta erraustegiaren kontrako mugimenduan.

4.2.1. Mugimendu feministaren bilakaera Gipuzkoan

Feminismoa praktika eta ikusmolde ezberdinak barnebiltzen dituen pentsamolde politikoa dela esan genezake. Azken hamarkadotan, tokian tokiko testuinguruetatik abiatu dena eta forma zein jarraibide ezberdinak gorpuztu dituena. Euskal Herriko mugimendu feministaren lehen urratsak 1973tik aurrera eman ziren, Iparraldeko hainbat emakumek antolatzeari ekin zioten; Baionan sortu ziren lehen talde autonomoak (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015). Hegoaldeko mugimenduaren genealogian, aldiz, Mari Luz Estebanek (2016) dioten moduan, 1977an Leioan ospatu ziren jardunaldi feministek ezarriko dute lehen mugarrria; hiru mila emakume bildu ziren bertan eta horiei esker auzo eta herri mailako asanblada zein talde feministak ugartuz joan ziren, eta halaxe gertatu zen Gipuzkoan ere; Jardunaldietan gai ugari jorratu ziren: homosexualitatea, abortoa, mugimenduaren antolaketa eta egituraketa, militantzia-ereduak eta abar (Epelde et al., 2015; Zabala, 2008). 1976an, Bilbon probintzia mailako lehen asanbladak ospatu ziren, eta pixkanak Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministaren egituratuz joan zen (Zabala, 2008). Hortaz, talde feministak auzo eta herri ezberdinetan hedatu ziren. Gipuzkoako eragileen zerrenda luzea da: Oreteta, Arrasate, Zarautz, Hernani, Tolosa, Oiartzun, Zumaia, Orío, Beasain, Oñati eta abar. Era berean, Gipuzkoako koordinazio gunea ere eratu zen. Badirudi Gipuzkoa osoan zehar hedaturik zeuden emakume asanbladek Donostian koordinatzeko ohitura zutela.

Estebanek (2017) mugimenduaren bi aro bereizten ditu: batetik, XX. mende amaierakoa, eta XXI. mende hasieratik gaur artekoa, bestetik. Lehenengo fasean, bigarren eta hirugarren jardunaldi feministak ospatu zituzten; bigarrenean, Euskadiko Emakumeen Asanbladak eta Aizan-ek antolatuko dituzte, eta ordura arte bateratua zen mugimendua talde ezberdinez eta anitzez egituratzen hasi zen. Horrekin batera, emakumeen kontrako indarkeriaren eztabaidek indar handia hartu zuten (Riberas, Arbelaitz eta Ormazabal, 2012). 1994an, III. Jardunaldi feministetan, berriz, nagusiki bi gai jorratu ziren: mugimendu feministaren egoerari erreferentzia egingo ziona, batetik, eta, bestetik, boterea eta feminismoaren inguruko gogoetak. Estebanek (2017) horrela ezaugarritzen du XX. mende amaierako feminismoa: mugimendu unitarioa, herritarra, berdinzale/horizontala eta antisistemikoa. 80ko hamarkadan hedatze eta sendotze prozesua bizi bazen, 90eko hamarkadatik aurrera mugimenduaren gainbehera dator (Epelde et al., 2015). Orduantxe desagertu zen Gipuzkoako Emakumeen Asanblada.

Bestalde, bigarren aroa, XXI. mendearen hasieratik gaur arte luzatuko da; ordura arte indarrean zegoen lan arloen aniztasuna sakonduz joango dela diote, eta jarduera feminista lau eremutan antolatuko litzaiteke (Esteban, 2017): elkartegintza-herri mugimenduak, feminismo instituzionala, profesionalizazioa eta hezkuntza eta ikerkuntza. Aipagarriak dira mende berriarekin batera, 2000. urtetik bost urtean behin antolatu den Emakumeen Mundu Martxa eta 2008. urtean, Portugaleten ospatu ziren jardunaldiak: «Emakumeok, gure identitateak eta gure gorputz intsumituak» izenburupean. Bertan, 1500 emakume bildu ziren.

Ondorengo taulan, *Gure genealogia feministak* liburuan (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2005) jasotzen diren Gipuzkoako hainbat talde feministaren kronologia bildu dugu:

23. taula: **Gipuzkoako talde feministen kronologia**

1975	Asociacion de Mujeres Separadas de Gipuzkoa Euskal Emakumeak Borrokan Oreretako Emakumeen Asanblada
1976	Arrasateko Emakumeen Asanblada Emakumearen Askatasunaren Mugimendua Gipuzkoako Feministen Talde Autonomoa
1978	Eibarko Emakume Taldea Donostiako Emakume Asanblada KAS Emakumeak
1979	Donostiako Emakume Independenteen Taldea
1980	Oreretako Emakume Gazteen Komisia
1981	Aizan!
1983	Egizan
1985	Lesbiana Feministen Kolektiboak
1987	Zaldibiako Emakume Taldea Ermuako Emakume Gazteok Ermuko Emakumeen Hautagai Zerrenda
1988	Kaxiopea Elkartea
1993	Plazandreok, Emakumeen Plataforma Politikoa
1994	Bidasoako Emakumeak
2000	Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako Plataforma Euskal Herriko Bilgune Feminista Medeak

Iturria: Egileak berak egina, Epelde et al. 2015 oinarrituta

Gaur egun, aldiz, Euskal Herriko Mugimendu feministak susperraldi garaia bizi duela diote askok (Zabala, 2010; Maldona eta Sanz, 2011), bereziki, mobilizazio dinamiketan parte hartzen duten pertsona kopuruari begiratzen badiogu; horren adierazle dira, urtetik urtera handituz joan diren Martxoak 8ko mobilizazio jendetsuak.

Era berean, esan daiteke, gaur egun, mugimendu feministaren baitan ere, herri mugimenduen eta instituzioen arteko harremanak kezka eragin duela. Estebanen esanetan (2017) hainbat arrisku identifikatzen ditu *Instituzionalizazioa eta profesionalizazioa* izenburu duen atalean: batetik, espezializazioak dakarren jakinduriaren hierarkizazioaz ohartarazten gaitu; bigarrenik, soldatapeko lana eta militantziaren arteko desoreka aipatzen du. Herri mugimenduetara zabaldu den kezka dugu honako hau, liberatuen eta militanten arteko harremanaren arteko mihiztaketa zaila gertatzen baita sarritan; eta, hirugarrenik, berdintasun politikak, administrazioaren funtzionamendu logikari jarraiki, goitik behera eraikitzen diren planak direla, eta eraldaketa sozialaren zerbitzura bainoago administrazioaren logika burokratikoetara moldatzen diren jarraibide bilakatzen direla. Estebanek luzatzen duen galdera hau ekarri nahi genuke gurera:

Noraino kentzen die indarra herri mugimenduei instituzioekin edo instituzioetarako lan egiteak? Eta guk beste hau gehitu nahi izan dugu: zeintzuk izan beharko lirakeke prozesu demokratizatzaileak edo askatzailak sustatu nahi dituzten gobernuen praktikak (eredu instituzional ideala)? Zer aldatu beharko litzateke? Eta zer indartu? Zein harreman izan beharko lukete herri mugimenduekin?

4.2.2. Mugimendu ekologista Gipuzkoan

Mugimendu ekologistari dagokionez, aipatu behar dugu gure kasu analisia bereziki hiri hondakinen kudeaketa planaren eremuan kokatzen dela, eta batik bat erraustegiaren kontrako mugimenduetako kideen partaidetzan sakondu dugula, nahiz eta hortik kanpo dauden taldeak ere elkarrizketatu ditugun. Hori dela eta, atal honetan, Gipuzkoako mugimendu ekologistaren genealogia egin beharrean, erraustegiaren kontrako mugimenduaren bilakaera deskribatzea pentsatu dugu. Edonola ere, eremu horren xehetasunetan sartu aurretik Gipuzkoako mugimendu ekologistaren inguruko kokapena egitea ere beharrezkoa ikusi dugu.

Euskal Herriko mugimendu ekologistaren sorrera 1970ko hamarkadan kokatzen da. Zentral nuklearren kontrako borrokarekin gorpuztuz joan zela esan daiteke; izan ere, 1977an, euskal lurraldean 7 erreaktore nuklear jartzeko asmoa azaldu zuten erakunde publikoetako agintari frankistek eta Iberduero enpresak —horietako bi Gipuzkoan, Punta Endatan, Itziar-Deba herrietan— (Ajangiz eta Barcena, 2010). Era berean, mugimendu anti-nuklearraren eta ekologistaren jaiotza eta bilakaera ezkerreko alderdi eta sindikatuuekin lotura handia izan du, bereziki ezker abertzalearekin eta horrek neurri batean baldintzatuko du mugimenduaren hedapena.

Bestalde, mugimenduaren protesta ziklorik esanguratsuenak Beorlegiren (2009) hitzetan hauek izan dira: Lemoizko zentral nuklearraren aurkakoa, Leitzarango autobidearen borroka 1990-1992 artean, 1995ean Itozko urtegiaren kontrako protesta, Abiadura Handiko Trenaren aurkakoa, eta erraustegiaren kontrako mugimendua, tokian tokiko beste hainbat borrokekin batera. Bestalde, Barcenak, Borjak, Larrinagak eta Martínez-Palacioesek ere, Espainiar Estatuan eman diren bestelako protestek Prestigena kasu Euskal Herrian izandako oihartzuna ere izan dute aztergai (aipatua Itçaina eta Weisbein, 2011:153); (Ajangiz eta Barcena, 2001:36) aldarrikapen eta mobilizazio horien guztien bitartez, erakunde publikoetatik sustatu diren hainbat proiektu baldintzatzeko gai izan dira, guztion ongizatearen eta jasangarritasunaren defentsan. Eta era berean, erakundeak eta enpresak ingurugiroarekiko errespetuzko arazoibideak eta prozedurak erabiltzen hasi direla esan daiteke (Barcena, Ibarra eta Zubiaga, 1998).

Gipuzkoako Erraustegiaren Kontrako Mugimenduaren genealogia aztertzeko, 2002ko abenduaren 17ra jo behar dugu, orduan onartu baitzuten Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontseiluan, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorra⁷⁵. Urte bete beranduago 2003ko urriaren 16an, Roman Sodupe (EAJ), San Marko Mankomunitateko lehendakariak, erraustegia Urnietan jarriko zela jakinarazi zuen; bi aste beranduago sortuko zen Arnasa plataforma Urnietan. 2004an, aldiz, iragarri zen bigarren erruste plantaren kokapen geografikoa: Hondarribia. Iragarpen horren ostean ere, berehala forma hartuko zuen Txingudi Bizirik Plataformak (Petxarroman, 2012:31). Ekimen horrekin batera, urte berean, Erraustegia eta Osasuna Ikerketa Taldea (OEIT) sortuko zen eta manifestu bat sinatuko zuten osasun eremuko 500 medikuk eta erizainek. Osasunaren arloan antolatutako taldeak oihartzun mediatiko handia izan zuen, eta errauste planten inguruko biztanleria eta bertako langileengan aurkitutako osasunerako arriskuak agerian uzten zituen ikerketa txostena argitaratu zuten. 2004ko azaroan, erraustegia eta osasunaren inguruko simposiuma antolatu zen Gipuzkoako sendagileen elkargo ofizialen egoitzan:

«El simposium ratifica y complementa el Manifiesto que firmamos más de 500 profesionales de la salud. Avala la revisión bibliográfica sobre la que se redactó aquel escrito y aporta más argumentos a las conclusiones que se citan en ese documento.» (Conclusiones del simposium Médico sobre incineración y salud, 2004:1)

Donostian ere sortuko zen Erraustegiaren kontrako mugimenduan 2004an. Eta denbora gutxian, tokian tokiko plataformekin batera, forma hartu du Gipuzkoako Erraustetaren Aurkako Plataformen Koordinadorak.

Alderdien arteko tirabira ugariaren ostean, 2007an, Donostiako udalbatzak Odon Elorza alkate zela, erraustegia Zubietan jartzea erabaki zuen. Kokapen honek ere erraustegiaren kontrako nodo berriak sortu zituen, horien artean Usurbil Bizirik Plataforma. Usurbilgo udalak eta herritarrek protagonismo berezia izan zuten protesta ziklo luze honetan, berehala hasi baiziren hiri hondakinen bilketa sistamarako alternatibak lantzen. Jakin zuten Katalunian bazegoela bilketa-sistema alternatibo bat; Usurbilgo Udala San Markos Mankomunitatean zegoenez, handik antolatu zuten bisita gidatu bat Kataluniako herrietara, hango sistema ikusteko, eta herri-mugimenduetako zenbait kidek ere joateko aukera izan zuten, 2008an. Eredu ezberdinak aztertu ostean, atez ateko sistema Usurbilera ekar zitekeela ikusi zuten; hala, 2009an, atez ateko bilketa-sistema jarri zen. Eta, hor, Usurbil Bizirik plataformak parte aktiboa izan zuen. Horrela, alternatibak baino gehiago, bilketa-sistema eredu eraginkor bat garatzea lortu zen. Eta hortik abiatuta, 2010ean, bigarren bidaia bat egin zen, Italiara. Beste jauzi bat eman zen. Ordurako, erreferentzia gisa zuten Zero Waste Europe (Europa mailako «Zero Zabor» mugimendua), eta irteera horretatik itzuli eta bi egunera, 2010eko ekainean, Donostiako Gipuzkoa plazan, Aldundiaren aurrean —hor baitago Gipuzkoako 0 km-a—, Gipuzkoa Zero Zabor talde gisa eratu zen. Hor hasiko litzateke Zero Zabor mugimenduaren lehen pausoa.

Amaitzeko esan nahi dugu, Gipuzkoa Zutik eta Gurasos erraustegiaren kontrako erreferentziatzko beste bi mugimendu direla, baina Bilduren legegintzaldiaren ostean sortu ziren, eta horregatik ez ditugu atal honetan sartu.

75 Aurrerago sakonduko dugu Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorren xehetasunetan.

4.3. Ezkerreko koalizioa gobernuan

1979tik 2011ra arte, Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) nagusitu da Gipuzkoako Foru Aldundian. Bigarren eta hirugarren legegintzaldiak salbu, Eusko Alkartasunaren (EA) ardurapean izan zirela, beste guztietan EAJ izan da nagusi. 2011an, joera nagusi horrekin apurtu, eta Bildu koalizioa nagusitu zen batzar nagusietan, gutxiengoan gobernatu zuen 2015era arte luzatuko zen agintaldian.

Esan bezala, 2011n, Bildu koalizioak Gipuzkoako foru hauteskundeak irabazi zituen, 119.084 herritarrek emandako babesari esker. Batzar nagusietako 51 eserlekuetatik 22 lortu zituen. Gehiengo osorako lau batzarkideen premia izan arren, gutxiengoan osatu zuen gobernu, botoen %34,56rekin (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011).

24. taula: **2011ko Foru Hauteskundeek emaitzak**

	ALDERDIA	BOTOAK	%	BATZARKIDEAK	+/-
	Bildu	119.084	35,43	22	15
	EAJ-PNV	80.838	24,05	14	2
	PSOE-EE (PSOE)	58.947	17,54	10	6
	PP	34.210	10,18	4	2
	ARALAR	17.223	5,12	1	1
	EB-B	9.012	2,68	0	4
	Gainerakoak		0,00	0	
	Zuriak	7.529	2,18		
Errolda: 554.878 Abstentzioa: 207.092 (%37,32)					

Iturria: Egileak berak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiko webgunean azaltzen diren datuetan oinarrituta.

Indar politiko ezberdinek osatuko dute Bildu koalizio ezkertiar eta abertzalea, Hego Euskal Herrian: Alternatibak, Eusko Alkartasunak, Araba Bai-k (Arabako Aralarren banaketa) eta Herritarron Garaiak (legez kanporatua zegoen ezker abertzaleko hurbileko plataforma). 2011. urtean izenpetutako bi akordiotan oinarritzen da: lehenik, Batasunak Eusko Alkartasunarekin Lortu Arte izeneko hitzarmena, eta, bestetik, geroa Alternatibarekin Euskal Herria Ezkerretik izenburu zuena. Urte bereko udal eta foru hauteskundeetan emango da Hego Euskal Herriko koalizioaren lehen parte-hartze edo agerraldi politikoa.

Bestalde, alderdien ezaugarritze politikora jotzen badugu, izaera eta ibilbidea ezberdinak topatuko ditugu sigla hauen atzean. Alternatiba, adibidez, 2009. urtean sortutako alderdia da, eta *ezkertiar*, *subiranista*, *feminista* eta *ekologista* gisa definitzen du bere burua (Alternatiba, 2018). 2008an, Ezker Batua-Berdeak alderdiaren baitan eman zen zatiketa baten ondorioz sortuko da Alternatiba. Eusko Alkartasuna ere 1986. urtean eman zen apurketa batetik jaioko den alderdia dugu. Eusko Alderdi Jeltzalearen banaketa baten ondorioz, hain zuzen. *Sozialdemokrazian*, *independentismoan* eta *abertzaletasunean* datza Eusko Alkartasunaren oinarri ideologikoa (Eusko Alkartasuna, 2018). Bestalde, Batasuna edota gaur egungo Sortu alderdia legoke, koalizioaren baitan pisu handiena duen alderdia. Urte hartan, legez kanpo zegoen, *ezkertiar* eta *independentista* gisa autodefinitu izan zen indar politikoa.

Metodologiaren atalean aipatu dugun moduan, Bildu koalizioa ingurumari historiko batean sortzen da; izan ere, 2011ko urtarrilaren 10ean Euskadi Ta Askatasuna (ETA) talde armatuak su eten iraunkor eta egiaztagarria iragarri baitzuen. Euskal Gatazkaren jatorrizko arazoek bere horretan jarraitzen duten arren, ezkerreko eta independentziaren aldeko indar politikoentzako ziklo berri bat zabaltzen da. Eten armatuak 2011ko testuinguru politikoa erabat baldintzatuko du, bai alderdien arteko hitzarmenari dagokionez, zein maiatzeko udal eta foru hauteskundearen emaitzei begira ere. Alabaina, Bildu lehenengo indar politikoa bilakatuko da, bai udalerriei dagokionez, zein aldundiko barrutietan ere, Aldundiko aginte politikoa alderdien artean banatuz. 2011ko uztailaren 1ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuaren osatzen duten diputatuaren izenak. Lau emakume eta lau gizon. Hurrengo koaldian, diputatuaren eta karguen datuak jasotzen dira:

25. taula: **2011-2015 GFaren legegintzaldiaren organigrama**

2011-2015 LEGEGINTZALDIA		
DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA	Martin Garitano Larrañaga	Ezker Abertzalea
Diputatu nagusiaren kabinetea	Agurne Barruso Lazkano	Ezker Abertzalea
Euskara	Zigor Etxaburu Urbizu	Ezker Abertzalea
Berdintasuna	Laura Gomez Hernandez	Alternatiba
Migrazioa eta aniztasuna	Itziar Pildain Larrañaga	Ezker Abertzalea
Herritarren Parte Hartzea	Arantxa Ruiz de Larrinaga Olaizola	Ezker Abertzalea
Komunikazioa	Xabier Lekuona Barreras	Ezker Abertzalea
Giza Eskubide eta Oroimen Historikoa	Marina Bidasoro Arocena	Eusko Alkartasuna
Lurralde Garapena	Pedro Iturbe Gonzalez de Audikana	Ezker Abertzalea
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua	Ikerne Badiola Garciandia	Eusko Alkartasuna
Gizarte Politikako Departamentua	Ander Rodriguez Lejarza	Alternatiba
Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentua	Garbiñe Errekondo Salsamendi	Ezker Abertzalea
Ogasun eta Finantza Departamentua	Helena Franco Ibarzabal	Ezker Abertzalea
Berrikuntza Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua	Jon Peli Uriguen Ansola	Eusko Alkartasuna
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua	Iñaki Errazkin Vitoria	Ezker Abertzalea
Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua	Larraitz Ugarte Zubizarreta	Ezker Abertzalea

Iturria: Egileak berak egina Gipuzkoako Foru Aldundiko web-gunean eskuratutako datuak oinarri hartuta.

Taulan jasotzen den moduan, koalizioa osatzen duten alderdien artean banatuko dira gobernuarentzat «zeharkakoak» diren arloak: Euskara, Migrazioa, Berdintasuna eta Parte hartzea (Berria, 2011.07.01). Gobernuaren hasierako agerraldi publikoetan Bilduren jardunbide nagusiak azaldu zituzten, asmo edo erronka aurrerakoi gisa definitu ditugunak: bakea, normalizazioa eta eskubide zibil eta politiko guztiak onartuak izango diren egoera baten eraikuntza sustatzea; krisi ekonomikoari irtenbide soziala ematea; emakume eta gizonen berdintasunerako politikak garatzea, eta Gipuzkoako herritarrengana demokrazia zabaldu eta instituzioak irekitzea (Berria, 2011.09.16). Martin Garitano ahaldun nagusiak, gobernu osatu bezain laster, era honetan definitu zuen agintaldiaren hasiera:

«Aldaketaren gobernua izango da gurea, irekia den jokaleku berria finkatzeko lanari ekingo diogu. Bilduk alderdi guztiekin eta udal handi nahiz txikiekin lan egiteko prestutasun osoa du, gipuzkoar guztientzat eta gipuzkoar guztiekin gobernatuko dugu; horretarako, bultzatuko dugu herritarren parte-hartze zuzena» (Berria, 2011.07.02)

Adierazpenotan gobernuaren asmo nagusietan *aldaketak politikoak* eta *herri partaidetzak* —eremu diskurtsiboan bederen— zuten garrantzia ikus dezakegu.

4.4. Berdintasun Zuzendaritzaren gobernantza sarearen ezinak eta eginak

Hemendik aurrera, eragile politiko ezberdinen arteko hartu-emanak izango dugu hizpide. Izan ere, Chávezek (2004) dioen moduan politikaren gakoetako bat da politika ulertzea harreman prozesu gisa, non aktore politiko guztiek ez diren soilik eratuko izan nahiko luketenaren arabera, baizik eta, batzuek eta besteek dituzten eraginak baldintzatuta jardungo dute; eta, beraz, norabide anitzeko zentzua duen harreman sistema moduan begiratu behar dugu sistema politikoa. Horixe izan da, hain zuzen ere, gurean aztertuko duguna, eragile politiko ezberdinen harremana, eta ez hainbeste bakoitzaren bereizgarriak eta ibilbideak. Nahitaez, harreman ekosistema hori testuinguru politiko zehatz batean kokatu behar dugu, eta gurean, Bildu koalizioaren Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) legegintzaldia zedarritu dugu.

Bilduk 2011n hauteskundeak irabazi eta gobernua osatu zuenean, eragile politiko ezberdinen arteko hartu-emanari azpimarra berezia egin zion, batik bat, erakunde eta herritarren artekoari. Hauxe da, esate baterako, hauteskundearen garaipenaren ostean iragarri zuena Gipuzkoako ahaldun nagusiak: «Ez ditugu nahi herritar pasiboak. Erakundeek jardunean parte hartze aktiboa behar dute izan, eta bitartekoak jarri behar ditugu horretarako» (Berria. 2011.05.17); hau da, parte hartze politikoa bilakatu zen besteak beste, legegintzaldi hasieran behin eta berriro aipatu zen lelo politikoetako bat. Berdintasuna Foru gobernuaren lehentasunetako bat zela azpimarratzen zuen gobernu taldeak. Berdintasun politikari zeharkakotasun izaera eman nahi zioten:

«Nuestro planteamiento de política pública de igualdad no era una política social, ni solo –aunque también– una política sectorial con una agenda específica. Era una de las «políticas faro» que debía guiar la acción del gobierno: una política transversal que sirve de linterna al resto de las políticas públicas en el tránsito hacia otro modelo. Debía haber sido el plan de un gobierno pero no lo fue. Y aunque así hubiera sido, una política de igualdad no puede diluirse en un plan de gobierno. Una política de igualdad exige una posición simbólica, funcional y material propia, así como unas estructuras de organización interna adecuadas dentro de la institución pública para dotarse de una capacidad real de guiar e incidir.» (Gómez, 2016:141)

Berdintasun Zuzendaritzako arduradun politikoak, legegintzaldiaren hasieran argitara eman zituen agintaldiaren helburu edo ildo estrategikoak. Aurrez aipatutako itsas-argiren funtzioari, ildo zehatzak ere gehitu zizkieten berdintasun eremuari:

«Impulsar que las políticas públicas de la DFG para el territorio incorporen la perspectiva de género. Crear las condiciones para impulsar el desarrollo de las políticas de igualdad a nivel local y el fortalecimiento de las ya existentes, atendiendo a la diversidad de las realidades locales en cuanto a necesidades, intereses o recursos.

Impulsar y apoyar la creación de las condiciones para el fortalecimiento del movimiento feminista y asociativo de mujeres a través del impulso de actuaciones que faciliten el empoderamiento, la participación socio-política de las mujeres y la construcción de agendas políticas feministas de carácter internacional.

Luchar contra la violencia hacia las mujeres desde una perspectiva integral, que aborde la prevención y mejora de la atención e intervención que se presta a las mujeres, así como de la coordinación interinstitucional en la materia

Poner en marcha líneas de trabajo estratégicas que nos permitan ir creando las condiciones para transitar hacia otro modelo de organización social y económica, donde el cuidado de la vida esté en su centro.» (Gipuzkoako Foru Aldundia, Berdintasuna 6zk., 2011)

Ildo estrategiko horietan, agerian gelditzen da emakume antolatuei emango zaion garrantzia, eta, horregatik, gerora lankidetzarako espazioak zabaldu eta espazio horien kudeaketarako baliabideak jarri zituzten. Esanenezake, neurri handi batean, Berdintasun Zuzendaritzaren kasuan, parte hartzearen logikaren arabera eraiki zirela gobernanta sareak, Tarrow-ek (1997) dioen moduan, sare kritikoen eragina baldintzatzeko asmoarekin, maila sinbolikoan bederen.

Erakundeen eta mugimendu feminista zein emakumeen elkarten arteko elkarlana aztertu aurretik, ordea, koka ditzagun Berdintasun Sailaren bereizgarri nagusiak. Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Berdintasun Zuzendaritza (BZ), 2011-2015 legealdian, arestian aipatu bezala, partaidetza politikekin batera, gobernu berriak hauspotu nahi zituen ildoetarikoa bat zen. Hori horrela izanik, BZ Diputatu Nagusiaren alorrean kokatuko da; ordura arte, Lankidetzeta eta Giza Eskubideek osatzen zuten zuzendaritzaren baitan baitzegoen, Kirol eta Kanpo Ekintzaren Departamentuaren barruan (II. Foru Plana, 2012:18). Era berean, urte horietan, Berdintasun Sailaren aurrekontua %192 handitu zen. GFaren aurrekontu osoaren % 0,24 izanik. Bilduren agintaldiaren amaieran, teknikari gehiago kontratatu ziren; bi pertsona izatetik, bostera pasa ziren, eta Berdintasunerako 2/2015 Foru Araua onartu zen martxoaren 9an:

«La Norma Foral 2/2015 para la Igualdad de mujeres y hombres que elevaba a rango legal no solo el enfoque feminista de sostenibilidad de la vida sino que establecía el compromiso de la DFG para crear las condiciones estructurales para que la política de igualdad pudiera guiar desde éste al conjunto de la institución. Así, entre otras cosas, asumía la necesidad de alcanzar el 1% del presupuesto para las políticas de igualdad en un marco temporal de seis años (2021)» (Gómez, 2015:143)

Bildu GFARA heldu aurretik, Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) buru zela, aurrekontu osoaren % 0,07 zuen berdintasunak, eta sailaren helburu nagusiak ziren: gutxieneko egitura batez hornitzea eta I Foru Plana 2008-2011 osatzea. 2011ra arte, parte-hartze espazio bakarra zegoen, Berdintasun Foroa izena zuena eta Gipuzkoako emakumeen elkarteek osatzen zuten; formaziorako eta bilgune espazio gisa planteatzen zen. Mugimendu feministak ez zuen espazio hartan parte hartuko.

26. taula: **Berdintasun eremua Aldundiko legegintzaldietan**

BERDINTASUN EREMUA	EAJ 2007-2011	BILDU 2011-2015
Aldundiko organigrama	Kirol eta kanpo ekintzaren departamentuan	Diputatu nagusiaren alorrean
Aurrekontua osoan zuen pisua	% 0,06	% 0,2
Teknikariak	2 teknikari	5 teknikari
Parte-hartzerako espazioak	Foroa	Gunea eta II Plana
Parte-hartzerako espazioen helburuak	Bilgunea eta formazioa	Parte hartzea planean eta interlokuzio politikoa

Iturria: Egileak berak egina.

Jarraian, 2011tik 2015erako legegintzaldian zehar, eremu horretan zabaldu ziren espazioak eta lankidetzarako lan ildo nagusiak deskribatuko nahi genituzke. Esan bezala, orduan, parte-hartzerako aukera eta espazio ugari zabaldu baitziren; arduradun politikoaren hitzetan bi lirateke elkargune nagusiak:

«Los procesos de construcción de agenda común exigen crear confianzas y crear condiciones estructurales que la aterricen. En nuestro caso, se hizo a través de dos procesos participativos: la elaboración del II Plan para la igualdad de mujeres y hombres y la creación y regulación de GUNEA –Espacio de participación e interlocución para la igualdad– entre el movimiento feminista y asociativo de mujeres por la igualdad y la DFG. En ambos procesos, considerados conjuntamente, se emplearon 3 años.» (Gómez, 2015:145)

Ikerketa honetan, bereziki bi eremu aztertu ditugu: batetik, 2012-2018 II. Berdintasun Planaren diseinua, eta bestetik, urtebeteko gogoeta prozesu baten ostean abiatu zen Gunearena, Gipuzkoako berdintasunerako partaidetza eta solaskidetzaren espazio gisa definitu zena. Bi lan ildo horietan, erakundearen eta emakume antolatuen arteko hartu-emanerako espazio eta momentuak ugariak izan ziren.

Emakumeen eta gizonen II. Berdintasun Planari (2012-2020) dagokionez, esan behar dugu, lehenbizi, Berdintasun Zuzendaritza hiru enpresarekin harremanetan jarri zela: *Oreka Sarea*⁷⁶, *Enfuga*⁷⁷ eta *Likadi*⁷⁸. Hiru rek berdintasun politiken alorrean lanean ziharduten. *Orekak* planaren osaketaren diseinua eta koordinazioa burutu zuen; *Enfugak*, Amaia Perez Orozco ekonomialaria buru zela, berdintasun planaren gogoeta markoa ezarri zuen, eta, azkenik, *Likadi* administrazioaren barne inplementazioari begirako lanez arduratzen zen.

Legegintzaldiaren lehenengo bi urteak eman ziren gogoeta espazio ezberdinetatik proposatzen zena jasotzen eta lantzen. Sorreratik, Zuzendaritzak ahalik eta begirada gehien bildu nahi zituen: bai, erakunde publikoaren baitan, zein hortik kanpo zeuden emakume elkarte eta mugimendu feministaren iritziak. Asmo politiko hauek bat egiten dute, demokrazia parte-hartzaileraren ikuspegiarekin. Izan ere, herritarren eta gizarte zibil antolatuen inplikazioa ahalbidetzen dituzten politika publikoak sakontasun demokratiko handiagoa izango dute (Subirats et al. 2009).

Berdintasun planaren kronologia eta elkarlanerako espazioetan arreta jartzen badugu, hauek dira ekarpenak eta gogoetak ahalbidetu zituzten uneak, II Berdintasun planean jasota daudenak:

- Lurraldeko berdintasun teknikariek espresuki sei lan-saio egin ziren, planaren norabidea era bateratuan adosteko eta elkartruke espazioa sortzeko.
- Emakumeen elkarteekin lantzeko, ordura arte abian zen Foroa baliatu zuten, Foroaren VI. Topaketen bidez. Bertan, planaren filosofia eta lan plangintza aurkezteaz gain, ikuspegi feminista batetik bizitzaren zaintzaz gogoetatu zen.

76 *Oreka Sarea* berdintasun-politikekin, herritarren partaidetzarekin, garapenerako lankidetzarekin eta bakearen kulturarekin zertik duten eremuetan lan egiten duen aholkularitza enpresa da. Generoaren ikuspegi batetik, aldaketa planifikatzen eta kudeatzen ezagutza espezializatua eskaintzen du. (*Oreka Sarea*ren web gunetik hartutako informazioa: <<https://www.orekasarea.com/eu/oreka/se-2>>)

77 *Enfuga* Amaia Perez Orozco zuzentzen zuen Madrileko kooperatiba talde bat da.

78 *Likadi* enpresa administrazio publikoarekin eta gizarte eragileekin lan egiten duen aholkularitza enpresa bat da. Hauek dira jorratzen dituzten lan eremu nagusiak: genero berdintasunerako politikak eta enplegu aktiborako eta ezagutzaren kudeaketa politikak. (*Likadi* aholkularitza enpresaren web gunetik eskuratu den informazioa: <<http://www.likadi.com>>)

- Mugimendu feministaren eta Aldundiaren arteko elkarrizketa politiko iraunkorra sortzeko helburuarekin topaketa bat egin zen, eta, bertan, plana gauzatzeko diseinatu zen prozesua kontrastatu zen.
- Aldundiaren baitan, teknikari eta politikariekin bilera bat egin zen, planaren lan ildoen berri eman, eta ekarpenak jasotzeko tarte zabaldu zen.
- Planaren hedatze fasean, aintzakotzat hartu ziren emakumeen elkarteak eta mugimendu feminista, udaletako berdintasun teknikariak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak zein Foru Gobernuako kontrol ganbera.

Espazio horietatik guztietatik, parte hartu zuten emakumeen elkarteak eta mugimendu feministako kideak soilik hartu ditugu kontuan gure azterketa eremuan.

Bestetik, *Guneari* dagokionez, legegintzaldia abian zela diseinatzen hasi ziren prozesua eta espazioa. Aurrez esan bezala, Berdintasun Zuzendaritzak, Gipuzkoako berdintasunerako partaidetza eta solaskidetzarako espazioa sortu nahi zuen, eta, horretarako, 2013. urtean zehar, parte-hartze prozesu bat martxan jarriko du, espazioaren ezaugarri nagusiak adosteko. Farapi kooperatibako teknikariak izan ziren aurreko fasea gidatu zutenak, eta Gunearen bilakaeran idazkaritza lanetan aritu zirenak. Gogoeta prozesuak fase ezberdinak zituen, eta lau atal nagusitan banatzen zen:

27. taula: **Gunearen aurre prozesuaren diseinua**

HAUSNARTZEN: LAN DOKUMENTALA ETA IKUS- ENTZUNEZKOA	Emakumeen parte-hartze politikoaren espazioen inguruko hausnarketarekin batera, berdintasun kontseiluen erronkak identifikatzeko saiakera egin zen.
SARETZEN: ESKUALDEKAKO EZTABAIDA	Gogoetarako 8 saio egin ziren eskualde ezberdinetan, eta 100 bat emakumek eta 41 elkartetan parte hartu zuten. Bidasoa, Irun. 10 emakume: 6 elkarte + alderdi politiko bat Debabarrena, Eibar. 19 emakume: 8 elkarte + emakume ez antolatuta bat Debagoiena, Arrasate. 4 emakume: 2 elkarte Donostialdea, Donostia. 20 emakume: 12 elkarte Goierri, Ordizia. 3 emakume: elkarte 1 Oarsoaldea, Errenteria. 21 emakume: 10 elkarte + 2 berdintasun teknikari Tolosaldea, Tolosa. 3 emakume: elkarte 1 + 2 berdintasun teknikari Urola Kosta, Zarautz. 3 emakume: elkarte 1 + 2 berdintasun teknikari
ELKARREKIN SORTZEN: DISEINU FASEA	Bi saio egin ziren emakume elkarteetako eta mugimendu feministako kideekin. Era berean, saretze fasean egindako ekarpenak foru dekretuan integratu ziren.
BATERATZEA	Begoña San Jose adituarekin, edukiak bateratzeko lan-saio bat burutu zen.
SORTZE PROZESUAREN ITXIERA	Gunearen sorrera aurkezteko saio bat egin zen, non foru dekretua kontrastatu eta aurrerantzean izango zuen ibilbidea adosteko aukera eman zen.

Iturria: Egileak berak egina, Farapiren GUNEA** Sortzeko batzar nagusiaren akta oinarri hartuta.

Aurreko taulan jasotzen den moduan, lurralde osoko emakume elkarteetako eta mugimendu feministako kideak izan ziren parte-hartze prozesu horren protagonista nagusiak. Bertan, eztabaidatu eta adostu ziren Gunearen helburuak, funtzioak, antolaketa, parte-hartzaileak eta espazioaren izena bera ere. Hasierako

fase horretan, eztabaida ugari eman ziren; aipagarria da eztabaida horietan, autonomiari eta iraunkortasunari eman zitzaion garrantzia, eta zentzu horretan, partaideek proposatu zuten espazio horren zuzendaria mugimenduko edo elkarteetako kide bat izatea, eta zuzendari ordea, berriz, erakundearen ordezkari egokitu zitzaien. Eta horrela jasotzen da, Sortze prozesuan gauzatu zen II. Tailerraren aktan:

«Las participantes coincidieron en la pertinencia de que la directora de igualdad no sea la directora del Dispositivo y de la Comisión gobernanza, en aras a garantizar la autonomía funcional del Dispositivo (que el movimiento tenga capacidad de convocar reuniones, posicionarse públicamente en contra de la dirección...). Por otro lado, se consideraba necesario que la directora estuviera representada tanto en la Comisión Permanente como en las Asambleas Generales, de forma que se garantizara la interlocución. Por lo tanto, la propuesta de la co-dirección tuvo buena acogida.» (Elkarrekin sortzen II tailerraren akta, 2013:2)

Bestelako kezken artean aipatzen ziren, batetik, tokian tokiko kontseilu eta Gunearen beraren arteko uztarketa nola egin zitekeen, bereziki lurraldearen aniztasuna eta ikuspegia jasota gera zedin; bestetik, Guneak autonomia eta izaera juridikoa izan beharko lukeela proposatu zen; forma juridikoaz gainetik aipatzen zen emakumeen inplikazioa eta partaidetza zirela espazio horren funtzionamendurako bermerik garrantzitsuena. Arduradun politikoak era honetan deskribatzen du dimentsio horri lotutako prozesua:

«Se trató de buscar a través de la co-dirección una forma de autonomía que no pasara por crear una estructura administrativa que, al menos, tenía dos problemas: no garantizaba la autonomía per sé y creaba una estructura administrativa cuya burocratización podía absorber hasta el extremo los tiempos de las organizaciones feministas limitando su capacidad de acción y sus tiempos para otros espacios, fueran autónomos o no.» (ELPII)

Urtebeteko lan dinamika baten ostean, beraz, Gunea sortzeko batzar nagusia 2014ko otsailaren 15ean izan zen. Jarraian, berdintasuneko web gunean jasota dauden helburuak⁷⁹ aipatzen dira:

- Foru erakundea elikatzea Gipuzkoako berdintasunaren aldeko mugimendu feministak eta emakumeen elkarte mugimenduak egindako jarduera proposamenekin, proposamen horiek benetako eragina izan dezaten foru erakundearen agenda politikoan.
- Erakunde partaideen ekintza kolektiboa sendotzea.
- Parte-hartze jabe-arazlea ahalbidetuko duten baldintzak sortzea.

Lehenengo sortze-batzar horretan, hirurogei emakume bildu ziren, hogeita hamalau elkarte ezberdinetatik zetozenak. Bertan, Gunearen Kudeaketa Batzordea osatu zen; zazpi emakumek osatutako lan talde horrek, zeregin ezberdinak zituen:

- Gunearen barne arautegiaren zirriborroa egitea.
- Emakumeen elkarteak eta talde feministak Gunean sartzeko mekanismoak martxan jartzea.
- Gunearen lehenengo batzar orokorraren gai ordena adostea.

79 Gipuzkoako Foru Aldundiko web guneetik jasoa. <<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/helburuak-eta-zereginak>>

Gunearen lehenengo batzar eratzailera, 2014ko ekainaren 21ean ospatu zen, eta kudeaketa batzordea orduantxe desegin zen. Ordura arte, talde horren ardura nagusiak hauek izan ziren: batetik, Gunearen barne araudia eta Foru Dekretua –Gunearen legezko erreferentzia izango zena– lantzea. Era berean, aurretik kudeaketa batzordea osatu zutenek euren burua aurkeztu zuten, gobernantza batzordeko kide izateko, eta asanbladak onartu egin zuen. Elkarre huetako ordezkariak osatu zuten taldea: Bidez Bidez, Plazandreek, Bidasoaldeko Elkarre Feminista, Asade, Arrats eta Safa. Batzorde horren zeregin nagusia zen: berdintasun politiken jarraipena egitea eta erakundeekin zuten interlokuzio politikoan emakumeen elkarre eta mugimendu feminista ordezkatzeko. Era honetan azaldu zuen berdintasun zuzendariak, batzordearen zeregin eta lan ildo nagusiak, Gunearen batzar eratzailera:


«Arduradun politikoak azaldu du GUNEAREN funtzionamendurako proposamena. Gobernantza Batzordea arduratuko da urteko jarduketara planak prestatzeko eta lan batzordeen jarduerak bultzatu, dinamizatu eta koordinatzeko. Lan batzordeek, bere aldetik, behin eratu eta gero, lan proposamenak prestatuko dituzte, idazkaritza teknikoaren laguntzarekin, eta horien berri emango diote Gobernantza Batzordeari.

Halaber, GUNEA gidatu behar duten printzipioak aipatu ditu: erantzukizun partekatua partaidetza gunearekiko (erakundeak jartzen ditu bitarteko ekonomikoak, epeak eta elkarrizketa lana, baina gobernuaren kanpoko aldeak definitu behar du zertan egin behar den lana eta abian jarriko ditu definitutako ekintzak), eta ahaleginak eta denborak neurtzeko beharra, mugimendu autonomoa beste gune batzuetan egiten ari dena errepikatu ez dadin.» (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014)

Horrez gain, bost lan batzorde osatu ziren, erabat autonomoak zirenak:

- Jaiak, indarkeria eta brigada. Lan-talde honen arabera, ikuspegi feminista batetik aztertu behar ziren jaietan sexismoari aurre egiteko egiten ziren jarduerak eta jaien testuinguruan egingo zen mapa bat egitea proposatzen zuten. Esperientziak ezagutzeko eta elkartrukerako jardunaldi batzuen premia zegoela zioten.
- Zainketak, desberdintasunak eta bazterketa. Lan talde honen arabera, zainketak ezberdintasun terminoetan ulertu behar ziren, aberastasunaren sorrera ezin baita oinarritu generoaren ezberdintasunarekin. Eta II. berdintasun planari jarraiki, arrazakeria, kapitalismo eta matxismoak gabeko Gipuzkoa irudikatzen zuten.
- Emakumeen etxeen sarea. Batzorde honek Gipuzkoako Emakumeen Etxeen sare bat egitea proposatu zuen, etxe berrien sorrera sustatzeko.
- Sexismoa sare sozialetan eta hedabideen gaia landuko zuen laugarren batzordeak; sexismoaren sustatutara jo nahi zuen, sare sozialetatik, komunikabideetatik eta hizkuntzatik.
- Gizarte bazterketa. Emakume baztertuen ikusezintasuna landu nahi zuen batzorde honek. Indarkeria emakumeen biktimizaziotik bainoago, eskubideen perspektibatik landu behar zela planteatzen dute.

Esan bezala, batzordeak erabat autonomoak ziren, eta lan dinamika propioa zuten, talde kideen interes eta konpromiso mailaren arabera.

13. Irudia: **Berdintasun Zuzendaritzaren gobernantza sarea****4.4.1. Gobernantza sarearen sakontasun demokratikoa aztergai**

Hurrengo atalean, alde aurretik aipatu ditugun parte-hartzerako espazioen baitan gorpuztu diren harremanak aztertuko ditugu. Horretarako, gobernantza sarearen analisirako darabilgun aldagaien eskema jarraitu dugu. Honekin esan nahi da gure azterketa eremuak nagusiki bost atal nagusi izan dituela. Aztertu ditugun dimentsioak eta aldagaiak biltzen dira bertan, eta aipatu bezala, Subirtas, Parés eta Blancok (2009:376) gobernantza sarearen sakontasun edo kalitate demokratikoa neurtzeko erabiltzen duten tresnan oinarritzen gara nagusiki. Batetik, hasierako kokapena eta eragile ezberdinen elkarlanerako kultura aztertu dugu; hau da, parte hartzen hasi aurretik agintaldiarekiko eragile bakoitzaren jarrera zein den ikusiko dugu. Horretarako, elkarlanerako irekitasuna eta elkarlana ulertzeko moduz arituko gara. Bigarrenik, gobernantza sarearen osaketa eta bilakaera aztertu dugu; bigarren atal nagusi honetan, aktoreen dentsitatea, espazioaren nolakotasuna eta sarean osaketa izango ditugu xede. Hirugarren atalean, partaidetzaren joko arauak, botere harremanak eta baliabideen banaketa neurtzeko ahalegina egin dugu. Lau garren atalean, gobernantza sareak komunitatean eta erakundeetan izandako eraginei arreta jarriko diegu, eta, azkenik, sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa elikatzeko aldagai berriak txertatu nahi izan ditugu: batetik, hasierako kokapenean (1), elkarlanerako irekitasuna, elkarrekikotasuna, aliantzak eta elkarlana ulertzeko modua. Sarearen osaketaren aurreko egoera edo abianputua aztertzeari garrantzia eman diogu. Batik bat, eremu instituzionalak ehundura kolektiboari ematen dion aitortza eta bi eragileen arteko irekitasunari. Bestalde, sarearen osaketaren (2) baitan, ekimenaren jatorria ere barnebildu dugu,

hau da, eremu instituzionaletik eta herri mugimenduetatik abiatzen den ikusi. Elkarlanaren joko arauen dimentsioan (3), gatazkak eta aniztasuna kudeatzeko tresnak eta lankidetzak ahuldu eta indartu zuten faktoreak ere barnebidu ditugu. Azkenik, komunitatea eta erakunde publikoen funtzionamendua demokratizatzeko (4) gaitasuna ere aipatzen da, sare horren inpaktuak ikusarazteko. Sekuentzia honi jarraiki, atal bakoitzean politikari, teknikari eta elkarte zein mugimenduetako militanteen begirada ezberdinak harikaltu ditugu, dokumentazio lanarekin batera.

28. taula: **Gobernantza sareen analisirako tresna**

GOBERNANTZA SAREAN AZTERTU BEHARREKO DIMENTSIOAK	ALDAGAIK
1. Agertoki berri baten abiapuntua eta elkarrekiko irekitasuna	1.1. Elkarrekikotasuna edo elkarren aitortza 1.2. Elkarlanerako irekitasuna 1.3. Elkarlana ulertzeko modua 1.4. Aliantzak
2. Gobernantza sarearen osaketa	2.1. Sarearen sustatzailea edo ekimenaren jatorria 2.2. Informazio eta espazioen definiziorako gaitasuna 2.3. Aktoreen dentsitatea eta aniztasuna 2.4. Harremanen sakontasun maila
3. Partaidetza espazioen eta elkarlanaren joko arauak: botere harremanak eta baliabideen banaketa	3.1. Elkarlanaren joko arauak eta botere harremanak eta baliabideak 3.1.1. Gatazkak eta aniztasuna kudeatzeko tresnak 3.1.2. Lankidetzak indartu eta ahuldu zuten faktoreak 3.2. Baliabideen banaketa
4. Komunitatea eta administrazioa eraldatzeko/demokratizatzeko gaitasuna	4.1. Administrazioaren eremuan: 4.1.1. Politika publikoetan eragiteko gaitasuna 4.1.2. Erakundearen funtzionamendu burokratizatuak eraldatzeko gaitasuna 4.2. Eremu komunitarioan: 4.2.1. Herri mugimenduak eta komunitatea indartzeko gaitasuna 4.2.2. Eragileen arteko elkar ezagutza areagotzeko ahalmena 4.3. Eragin mediatikoa

Iturria: Egileak berak egina

4.4.2. Agertoki berri baten abiapuntua eta elkarrekiko aitortza

Aldaketarako itxaropen garaia zabaldu zuela esan dezakegu Bildu koalizioaren garaipenak, 2011ko Foru hau-teskundeetan. Elkarrizketatuen arabera, bereziki ezkerreko ikuspegi batetik, eraldaketa sozialerako agertoki berri baten aurrean zeudela azpimarratzen dute gehienek. Ilusio partekatua garaia zela diote. Batik bat feminismoarekin lotzen dira Berdintasun Zuzendaritza berriaren izendapena eta hastapen urratsak. Gizarte eragileek oso modu positiboan baloratu zuten, bereziki arduradun politikoek feminismoarekin zuten atxi-kimendu eta ezagutza mailagatik. Alegia, mugimendu feministarekiko aitortza eta hurbiltasuna da gehien azpimarratzen dutena. Era berean, esan daiteke Berdintasun Zuzendaritzako arduradun politikoek ekintza kolektiboaren eremua aintzatesten zutela, eta elkarren arteko aitortza agintaldiaren hasieran oso ageriko zela. Helburu politikoak zehaztu aurretik ere, arduradun politikoen izendapenak elkarrekikotasuna ahalbide-tu zuen bi norabideetan. Itxaropen eta aldaketarako giroa testuinguru politikoarekin ere lotzen dugu. Arestian aipatu bezala, lehenengo aldia zen ezkerreko indar politiko bat Aldundira heltzen dela, eta aldaketak, oro har, espektatiba handiak sortu zituen. Hortaz, irekiera fase honetan, herrialdeko sare kritikoak begi onez ikusi zuen aldaketa. Politika publikoetan feminismoak eragiteko aroa zabaltzen zela zirudien. Hau da, aukera politikorako egitura (Ibarra et al. 2002) argia zen. Horren erakusgarri, ondoko aipamenak ditugu:

«Para nosotras fue muy positiva. Lo recibimos con mucha alegría, sobre todo porque la directora que se nombró era feminista, y eso es básico» (ELM4: mugimenduetako kidea)

«Bildu enseguida mostro las cartas, en igualdad íbamos a hablar de feminismo. Yo creo que ahí nos sentimos convocadas» (ELM5: mugimenduetako kidea)

«Guretzako pozgarria izan zen, feminismoaren ildo lantzeko aukera berriak zabaltzen zituen» (ELM7: mugimenduetako kidea)

Mugimendu eta elkarteetako testigantza hauek agerian uzten dute berdintasunaren alorrean izendatutako arduradun politikoek mugimenduaren aitortza zutela. Teknikariak⁸⁰ ere horrela bizi izan zuten, eta lehenengo momentutik, itxarobide handiko garaia zela diote, fase berri bati hasiera emango ziona. Posizio horren isla, ondoko pasartea:

«Ni nengoen emozionatuta, me hacía más la emoción que el sentido común. Mundua aldatuko genuela pentsatzen nuen. Nire partetik hasieran ilusio handia zegoen. Beldurra baita ere, baina ilusioak beldurra estaltzen zuen». (ELT10: teknikaria)

Arduradun politikoak ere aukera historiko gisa definitzen du legeintzaldiaren hasiera. Feminismoaren alorrean erroka berriak esperimentatzeko aukera zabaltzen zen, eta ilusio partekatua zela nabarmentzen du:

«Lo vivo como una posibilidad histórica para las feministas para nosotras de poder hacer cosas dentro de las instituciones que hasta ahora siempre hemos soñado, pero que nunca hemos tenido la posibilidad de hacer por los márgenes en los que

80 Teknikariak ez ziren Aldundiko langileak, Berdintasun Zuzendaritzak kontratatu zituen kanpoko enpresak baizik. Arestian aipatu bezala, kasu honetan, hiru izan ziren kontratatuak: Oreka Sarean, Farapi eta Likadi. Ildo politiko berriak —Berdintasun Plana, Gunea eta abar— kanpo teknikarien laguntzaz gauzatu ziren, giza baliabide faltagatik.

nos movemos para poder hacer. Y creo además, que fue una ilusión compartida por mucha gente». (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Beraz, esan dezakegu, oro har, gobernu aldaketa oso modu positiboan baloratu zutela gizarte eragileek, legegintzaldi berrian parte hartu zuten teknikariek⁸¹ eta zuzendaritza berriak. Konplizitate handia zegoela dirudi hasieratik. Eragileen ikuspegitik, oso azpimarragarria da Zuzendaritzak azaldu zuen gertutasuna, eta baita begirada feminista erakundeetan txertatzeko egin nahi zen hasierako ahalegina ere. Arreta berezia jarri nahi dugu elkarren aitortzan, eta batik bat eremu instituzionalak ekintza kolektiboari hasieratik eskaintzen ziona. Izan ere, eremu instituzionalak mugimendu zein elkartei garrantzi sinboliko eta politikoa esleitzen zion, neurri batean arduraren politikoen eremu horrekin zuten lotura eta harremanagatik, legegintzaldiaren aurretik espazio ugari partekatu izan baitzituzten mugimenduekin. Elkar ezagutzak eta aurretiazko elkarlanak ahalbidetu zuen solaskidetzarako aitortza eta irekitasuna.

Politikari, eragile eta teknikarien jarrera irekia zela esan daiteke eta espektatiba berriak zabaldu zirela. Eremu instituzionalaren markoa demokratizatzeko espazio gisa irudikatzen zuten elkarrizketatu ditugun arduradun politikoen, teknikariek eta mugimendu feministako kideek. Aukera hori Bildurekin identifikatzen ez ziren berriemaileek ere ikusten zuten:

«Hay muchas expectativas de que haya cambio y se tenga más en cuenta, se supone además que era una de las grandes banderas de Bildu; todo el tema social y todo el tema de transformación social y tal...» (ELM6: mugimenduetako kidea)

Mugimendu eta elkarteetako kideen gehiengoak irekitasuna espero zuten Aldundiaren Berdintasun politikei dagokienez eta barne funtzionamenduaren aldetik ere. Elkarren arteko aintzatespena bi faktore nagusitan oinarritzen dela esango genuke: batetik, Bilduren programa politikoan feminismoak zuen presentziagatik eta hortik eratorritako diskurtsoengatik; bigarrenik, arduraren politikoa zutenek —arduradun eta aholkulari politikoak— feminismoarekiko zuen posizionamendu zein konpromiso politikoagatik, eta, hirugarrenik, agintaldiaren aurretik mugimenduekin partekatu zituzten espazio zein bizipen ezberdinengatik. Aholkulariaren kasuan bereziki, mugimendu feministako militantea zen; horrez gain, mugimendu eta erakundeen arteko elkarrizketa ahalbidetzeko funtzioa ere esleitu zitzaion bere zereginen artean. Arduradun politikoen hasieratik azalduko du mugimendu feministako eta emakumeen elkarteetako kideekin jarduteko borondate politikoa. Ez bakarrik dimentsio sinbolikoaren ikuspegitik, substantibo edo funtsezko eta operatiboan ere (Subirats, Parés, Blanco, 2009:394) urratsak eman ziren, eta horretarako partaidetza politikorako mekanismoen bitartez, eremu instituzionala eta ekintza politikoarena elkarlanean jarri behar zirela ulertzen zuelako. Ildo horren erakusgarri dugu politikariak berak esperientzia honen inguruan idatzitako artikuluan jasotako ondoko pasarteak:

«Fuimos una Dirección de Igualdad que se hizo eco de las preguntas y de los análisis sobre la crisis provenientes del movimiento feminista y de otros agentes sociales de cambio. Además, nuestro planteamiento partía de la necesidad de reforzar sus capacidades así como de construir, al mismo tiempo, una agenda común ampliada. Solo esto ya implicaba una enmienda a la totalidad de la propia institución. Entendimos que había que reconocer de dónde veníamos. Que muchas veces era preciso colocar la institución en un segundo plano para poder escuchar las voces de la calle.» (Gómez, 2016:141)

81 Arestian aipatu bezala, kasu honetan, teknikariak ez zire Aldundiko langileak. Zuzendaritzak kontratatuko enpresak. Une hartan, berdintasunaren alorrak oso langile gutxi zituen, eta horregatik jo zen kanpo enpresen kontrataziora.

Hala eta guztiz ere, zuzendariak borondate politiko guztia izan arren, kezka ere presente zeuden Bildu koalizioa alderdi ezberdinek osatzen zutelako, eta barne mailan gai horrekiko erresistentziak egon zitezkeelako. Diskurtsoetatik harago neurri zehatzak formulatzen zirenean, alderdien aldetik zailtasunak aurrerikusten ziren, aurrerago ikusiko dugun moduan.

«Hasieran bai, baina esan behar dut baneukala susmo bat, han joaten zan jendea ez zan erakundeetan egondako jendea; ez zan esperientzia horretatik zegoen jendea. Koalizioa gainera Eusko Alkartasunarekin txertatua egoteak... Batzuk udalean lan egin dugu, eta badakigu zer dan EArekin egotea. Edo politikoki batzuetan ondo baina... Niri beldurra ematen zidan. Banekien globoa puztuko genuela, baina espektatibak esaten zidaten uffa!! Ez daukagu hor behar zen jende guztia. Esaten genuen feministak zeudela, baina ez zegoen apustu bat feministengatik, koalizioaren baitan. Eta hori presente nuen. Bilduk irabazi zuen leku guztietan lehenengo hilabeteetan, adibidez Donostian eta, konfliktuak izan ziren. Emakumeen etxean adibidez kriston gatazka sortu zuten. Ez zituzten departamentuak ezagutzen, deskofidantza bat zegoen... Eta gero konfirmatu egin zen» (ELA8: politikariaren aholkularia)

Beraz, aldaketarako fasea aurrerikusten bazen ere, ardura sentitzen duten gobernuaren baitan egon zitezkeen barne tentsioengatik eta berezitasunengatik. Alderdien arteko lankidetzak eta alderdien baitan feminismoak zuen presentzia ahulaz ohartzen zirela esan dezakegu. Horrekin batera, espektatiba handiak zabaltzen ari zirela ikusi zuten, eta horrek ere ezinegona sortu zuen ardura politikoa zutenen aldetik.

Bestetik, elkarlanerako kulturari dagokionez, esan behar dugu, eremu instituzionalean ordura arte partaidetzarako zegoen dispositibo edo espazio bakarra Berdintasun Foroa zela, eta, beraz, aurreko legegintzaldian lankidetzarako aukera mugatua zela. Bildu koalizioaren legegintzaldiak, eremu honetan, aldiz, partaidetzarako igarobide berriak zabaldu zituen. Mugimendu eta elkarteei elkarlanerako irekitasunaz eta kulturaz galdegin diegunean, maila eta tradizio ezberdinekin topo egin dugu. Baziren Aldundiarekin harremana zutenak batik bat diru laguntzen bitartez, eta horien irekitasuna zein elkartasunerako prestutasuna erabatekoa zen. Eta bestetik, eremu instituzionalarekin elkarlanean aritzeko erresistentziak zituzten kolektiboak zeuden; arrazoi ezberdinengatik –kasu batzuetan aurreko esperientziengatik, besteetan posizionamendu ideologikoagatik– lankidetzara horren aurrean, kritikoak zirenak (Zibechi, 2007; Holloway, 2005) topatu ditugu. Alegia, eremu instituzionaletik at aritzeko posizionamendua zutenak, eta autonomiaren alde lerrotatzen zirenak. Eta beraz, elkarlanerako irekitasun eta kultura maila ezberdinak bereizi behar ditugu. Ondorengo irudian posizio horiek guztiak irudikatzen saiatu gara:

14. irudia: **Mugimendu eta elkarteen portaera politikoa Aldundiarekiko**



Iturria: Egileak berak egina

Edonola ere, lehenengo dimentsio honekin amaitzeko, esan behar dugu emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan ziharduten eragileekiko aitortza erabatekoa zela, irekitasuna eta konplizitate maila handia zegoela mugimendu eta arduradun politikoen artean. Hori horrela izanda ere, agintaldiaren hasieran ez zen eman aliantza formalik bi eremu horien artean. II Planean abian jarritako gogoeta saioek, aurrerago sor zitezkeen aliantzen aurre baldintzak lantzeko baliatu ziren. Bidea pixkanaka urratuz joan ziren.

Finean, eremu instituzionalak komunitarioa aitortzen zuen eta alderantziz. Politikari, teknikari zein eragileen aldetik irekitasun maila handia zegoen, eta hasieratik elkarren beharra azpimarratuko dute batzuek zein besteek.

4.4.3. Gobernantza sarearen osaketa eta elkarlanerako disposizioa: ertzetatik erdigunera

Hurrengo atal honetan, sarearen osaketa aztertzeko lau aldagai edo aspektu aztertuko ditugu: batetik, lankidetzaren esparruaren jatorria (1), alegia, nondik abiatzen den; bigarrenik, espazioa elkarrekin definitzeko gaitasuna edo moldagarritasuna (2); hirugarrenik, sarea osatzen zuten aktoreen dentsitate maila eta aniztasuna (3), eta, azkenik, parte-hartze eremuetan ematen den harremanen sakontasun maila (4), hau da, une zehaztutara mugatzen den edo egonkorrak diren.

Arestian aipatu bezala, arduradun politikoez mugimendu feminista zein emakumeen elkarrean parte-hartzerako eta elkarlan politikorako bi ildo nagusi jarri zituzten martxan: batetik, II. Berdintasun Foru Planaren prozesua, non momentu parte hartzaile (Ajangiz eta Blas, 2008) ezberdinak zabaldu ziren, ekarpenak jasotzeko eta kontrasterako, gehien bat, eta, bigarrenik, Gunearen sorrera, interlokuzio politikorako espazioa izango zena. Zuzendaritzak hasieratik argi zuen elkarrean eta mugimenduekin bide orri edo agenda komun bat eta bereziki lankidetzara horren bitartez, berdintasun politika publikoetan eragin nahi zuela, eremu horretan zeuden emakumeen premiei erantzuteko. Elkarlan espazio horretarako aurrez baldintzak sortu behar zirela diote arduradun politikoez, aurretik eremu instituzionalean lan egin baitzuten, eta bazekiten bi eremuak uztartuko zituen gobernantza sarea sortzea zaila izango zela. Era berean, ordura arte Berdintasun Foroan⁸² parte hartzen zuten elkarrean partaidetza ere mantendu nahi zuten. Jarrera horren isla arduradun politikoen ondoko hitzak ditugu:

«Erakunde publiko gisa, mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak indartzeko baldintzak sortu behar ditugu; izan ere, egun eskubide jakin batzuk baditugu, beraien borrokari esker da. Ez dugu sinesten herritarrei bizkar ematen dieten eta beraiekin lau urtean behin besterik gogoratzen ez diren ordezkari politikoen ordezkartzako demokrazia eredu. Horregatik, Gunea sortu dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin parte hartzeko espazioa. Foro honetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatu eta haren alde borroka egiten duten herritarrek erakundearekin hitz egiteko espazio formala aurkituko dute.» (Hirian.com 2014.03.15)

Bi lan ildo hauek —Gunea eta II. Berdintasun plana— era ezberdin batean gobernatzeko borondate politikoaren isla dira. Alegia, Subiratsek (2009) dioen moduan, parte-hartze mekanismoak eta berrikuntza de-

82 Aurreko legegintzalditik abian zegoen espazioa. Gipuzkoako hainbat emakume elkarreentako kideek parte hartzen zuten; ez zen interlokuziorako gunea, formazio eta bilgunerako baizik. Espazioaren izaeragatik mugimendu feministak ez du bertan parte hartzen.

mokratikorako neurriak gobernantza sarearen osaketarako tresnak ziren, hain zuzen ere. Eta esperientzia honetan, hasieratik azaltzen da elkarlanean aritzeko edo gobernantza sarearen arabera jarduteko borondate politikoa. Erakundeen eta herritarren arteko harremana, elkarrizketa eta elkarlanaren bidetik irudikatzen zen. Demokrazia liberalaren hutsuneei aurre egingo zien harreman eredu ireki eta parte-hartzaileagoan (Fraser, 2010) sinesten zuten erabaki guneetatik urrun zeuden gizarte sektore baztertuak barnebilduko zuena.

Hortaz, bi lan eremu nagusi horietan sortuko diren partaidetzarako momentuak zein prozesuak eremu instituzionaletik abiatzen ziren. Erakundeetako arduradun politikoei sustatu zituzten. Partaidetza politikorako espazioen jatorria edo sustatzaile nagusia Berdintasun Zuzendaritza izan zen. Hortaz, gonbidapenezko partaidetza (Blas eta Ibarra, 2006) litzateke, eremu instituzionalak emakume elkarteei eta mugimendu feministari zuzendua. Berdintasun Planari dagokionez, elkarlanerako sarea eremu instituzionalean ere landu nahi izan zen, eta herrialde mailako teknikariekin egin zen lan hura.


Hasieratik, eragileek —bai planean zein *Gunean*— kolaboratzeko disposizioa azaldu zuten. Elkarlanerako borondatea zegoen eragile gehienek aldetik. Parte-hartzearen dimentsio diskurtsibotik begiratuta, esan daiteke gehiengo batek partaidetza bultzatzeko asmo politikoei bat zetorrela. Sarearen osaketa eremu aztertzen badugu, Berdintasun planari dagokionez, esan behar dugu, sarearen aniztasuna eta dentsitatea sakontasun handikoa izan zela, parte-hartze eremu hauetara zabaldu baitzen: Gipuzkoa osoko berdintasun teknikariak, aurreko legegintzalditik abian zegoen Foroa osatzen zuten emakumeen elkarteko kideak, Gipuzkoako mugimendu feminista eta Aldundiko Departamentu ezberdinetako teknikariak. Ikusten den moduan, bai eremu instituzionalean zein ekintza kolektibokoaren ere jende ugariaren ahotsa bildu nahi izan zen. Espazio ezberdin horiek sortu izanak, sarearen aniztasuna bilatzen zela baieztatzen garamatza, baina era berean esan behar dugu eragileen arteko harremanen sakontasun mailari dagokionez —herrialdeko teknikariena salbu—, nahiko ahula izan zela. Ezagutza ezberdinen arteko elkarrizketari espazio eta denbora gutxi eskaini zitzaion. Momentu zehatz batean soilik biltzen baitira guztiak, ezagutza eremu ezberdinak gurutzatzeko; horietan sakontzeko espazio gutxi zeuden. Arduradun politikoei diote Plana bera agertoki berri baterako trantsizio gisa irudikatzen zela:

«El proceso del plan fue de alguna manera el medio para crear esos espacios de discusión, y problematizar los espacios existentes que nos permitieran empezar a pensar en transitarlos a otros espacios, entendidos con otros papeles y otra composición» (ELPI: Aldundiko arduradun politikoa)

Alegia, legegintzaldiaren abiapuntu bezala, eztabaida espazioen baldintzak sortzeko ere baliatu zutela. Halere, prozesu horien arteko begirada ezberdinen falta sumatzen da. Kasu honetan, azpimarragarriak dira Udal eta Aldundiaren arteko elkarlanerako espazioak, bereziki udalerrin osoko berdintasun teknikarien sarearen begirada txertatu nahi izan zelako. Gobernantzaren dimentsio instituzionalean sakondu zela esan daiteke, sarearen osaketan. Edonola ere, Berdintasun politiken garatze instituzionala eta saretze prozesuaren arteko harreman estuak berrikuntza demokratiko gisa definitu daitezke, herrialdeko tokiko administrazioaren presentzia handitzen delako, Gipuzkoa mailako Berdintasun Politiken definizioan. Dimentsio honi azpimarra berezia egin nahi genioke, tokiko agente maila ezberdinen arteko harremana saretzen eta trinkotzen saiatzen delako. Herrialde osoko berdintasun teknikarien deliberazio espazioak sortuz eta berdintasun politikak elikatuko zituzten espazioak harilkatuz. Gobernantzaren beste dimentsio batekin lotzen da, barne mailako amaraun instituzionalarekin, hain zuzen. Antolaketaren birpentsatze demokratikoarekin edo Martínez-Palaciosen (2017) esanetan, berrikuntza demokratiko feministarekin lotu litezke era honetako espazioak. Era berean, partaidetza espazioen definizioarako eta moldagarritasunarekin gaitasuna mugatua zen, Berdintasun Planaren definizioak zituen eskakizun formalengatik.

Gunearen kasuan, aldiz, bai eragileen aniztasunari dagokionez zein harremanen sakontasuna aintzat hartzen badugu, sarearen osaketaren kalitate edo sakontasun maila handiagoa dela esan dezakegu. *Gunea* bera osatzeko abian jarri zen parte-hartze prozesua ere horren bermatzailea izan zela uste dugu. Alegia, *Gunearen* helburu politiko nagusiak definituta egon arren, parte-hartze prozesuaren bitartez, espazio horren definizioan bertan eragiteko aukera izan zuten Gipuzkoa osoko mugimendu feministak zein tokian tokiko emakume elkarteetako kideek. Alabaina, gogoeta prozesuan, ahalegin berezia egin zen eskualdekako emakumeen partaidetza ahalbidetzeko. Ez zedin guztia hiriburuan zentralizatu. Eta herrialdearen bereizgarriak kontuan har zitezten. Hasiera batean, espazio horren gakoak⁸³ (sareak eta aliantzak, ordezkagarritasunaren auzia, autonomia, zeharkakotasuna eta abar) identifikatu ziren, eta, ondoren, gakoak eskualdeetara eramango zituzten. Eskualdeko kontraste saioen txostenaren arabera (Farapi, 2013:5), 8 eskualdetan banatu ziren 8 tailer egin ziren. 110 elkarteri deialdia zabaldu zitzaizen, baina 41lek parte hartu zuten, guztira 78 emakume. Kasu honetan, Berdintasun Planean ez bezala, partaidetza mekanismoaren ezaugarriak definitzeko aukera izan zuten herrialdeko eragile feminista eta emakumeen elkartetako kideek. Hauek izan ziren prozesuaren urrats nagusiak:

15. Irudia: **Berdintasunerako gobernantza espazioaren aurre prozesua**



Iturria: Egileak berak egin

Gunearen sorrera aurretik garatutako prozesuan, gobernantza espazioaren nolakotasuna elkarrekin adostu arren, gizarte eragileen aldetik parte-hartze prozesuekiko mesfidantza atzeman da elkarrizketetan. Nagusiki hasierako fasean bi kezka nabarmentzen dira: batetik, batzuentzat parte-hartzeko baldintza egoikiak sortzea beharrezkoa zela zirudien; hau da, zalantza asko zeuden mekanismo eta prozesuen gaineko eraginkortasunaren inguruan. Parések (2009) ohartarazten gaituen moduan, parte-hartze instituzionalen ahultasunek sinesgarritasun falta sorrarazten dute sarritan. Martínez-Palacioesek (2018) ere partaidetzaren profesionalizazioak eta burokratizazioak eragin dituen ondorioekin lotzen du, gizarte eragileek kasu honetan azaltzen duten jarrera. Eremu instituzionalaren eraginkortasuna ere zalantzan jartzen zen eta prozesuak gobernantza espazioaren sorrera atzeratu zuen. Ondorengo adierazpenok horren adierazle dira:

83 Hasierako gakoak bideo baten bitartez jorratu zituzten. Aurre prozesuaren memorian horrela jasotzen da txostenaren inguruko lanketa: «El principal objetivo del análisis documental ha sido el de indagar y reflexionar sobre las diferentes formas de gobernabilidad y participación llevadas a cabo hasta ahora en las políticas de Igualdad y en otros ámbitos de la Diputación Foral. Por medio del trabajo documental se ha pretendido conocer en profundidad, por un lado, el resto de consejos forales del territorio, y por otro, otras experiencias de interlocución en el ámbito de la igualdad existentes en el Estado y la Comunidad Autónoma Vasca. Además, se ha analizado el borrador del Consejo Vasco de Mujeres para la Igualdad. Ésta ha sido la iniciativa de creación de un consejo de gran dimensión más cercano, a pesar de que todavía no se haya puesto en marcha.» (Farapi, 2013:4) <<https://www.youtube.com/watch?v=zznKDvUdgrI>>

«Aurretik beste kontseiluetan parte hartzen genuen, baina beti geneukan gatazka hori, jendea kexu zen: *joaten gara eta ez du ezertarako balio*; eta guk horregatik uste genuen hasieratik baldintza batzuk izatea ezinbestekoa zela. Hau da, kontseiluetan parte hartzeko prest geunden, baldin eta erabakiak lotesleak baziren, baldin eta mugimendu feministak aitortza bat lortuko bazuen, eta abar». (ELM7: mugimenduetako kidea)

Gunearen sortze prozesuan erraztaile lanetan ziharduen teknikariak era honetan deskribatzen du gizarte eragileek zuten sentsazioa:

«Gero zer egingo da honekin? Guk lan handia egiten dugu eta instituzioak hortaz baliatuko dira, helburu politiko eta alderdikierietarako.» (ELT3: teknikaria)

Beraz, testigantza hauetan ikus daiteke nola parte-hartze politiko instituzionalaren inguruko mesfidantza eta zalantza ugari dauden, aurrez bizitako beste esperientziengatik. Erakundeen funtzionamendua eta mugimenduen logiken arteko urruntasuna aipatzen dute elkarrizketatzaileek, partaidetza espazioen eraginkortasun politikoa auzitan jartzeraino. Mugimendu feministaren baitan, zenbait talderen posizioa autonomiarantz (Machado eta Zibechi, 2016) lerrokatu zirela esan dezakegu. Bestetik, Gunearen kasuan, espazioa definitzeko, urte beteko parte-hartze prozesua proposatzen zen, eta hori eragile batzuentzako denbora tarte luzeegia zen; zenbait eragileren arabera, ez zen beharrezkoa hasierako aurre-prozesua:

«Desde nuestro punto de vista, se tardo muchísimo en poner en marcha el órgano de participación. Se organizaron como unas sesiones preparatorias. Bueno, hubo un tiempo de preparación, pero fue demasiado largo.» (ELM4: mugimenduetako kidea)

Prozesuaren gidaritzan lanetan aritu zen teknikariaren aburuz, prozesua neketsua izan zen, eta espazioa abian jartzeko unean ez zegoen indar handirik; era berean, higadura ehundura sozialaren indar politikoa-
ren adierazlea dela esan daiteke:

«Gunearen sorrera neketsua izan zen. Desgastea izan zuen prozesuak berak, eta gero zailtasunak etorri ziren martxan jartzerako momentuan. Ez zen energiarik egon martxan jartzeko. Mugimendu feministako zenbait kide desilusionatzen joan ziren eta prozesua amaitzean, nahiago zuten beste toki batzuetan egon hemen baino». (ELT3: teknikaria)

Hortaz, kasu honetan esan daiteke dispositiboaren sakontasun demokratikoa bermatu zezakeen aurretiazko prozesuak dispositiboaren beraren eraginkortasuna politikoa ahuldu zuela. Eremu komunitarioa eta administratiboaren arteko talka agerikoa egiten da hemen.

Aitzitik, zailtasunak zailtasun, eragileek aitortzen dute, Aldundiaren jarrera, aurreko legegintzaldiekin alderatuz, hurbilagoa zela, eta hasierako kezkak izan arren, lankidetzan esparruan landu beharrekoak zirela; are gehiago, parte-hartze politikorako baldintza egokiak eta eraginkorrak sortzea guztiei zegokiela diote, eta, horri begira, lanean jarduteko prest azaldu ziren. Berdintasun Planaren osaketa prozesua gonbidapenezko (Blas eta Ibarra, 2006) parte-hartze momentuek osatzen zuten, baina Gunearen kasuak, bietatik duela esan daiteke: nagusiki, gonbidapenezkoa, baina badu ere bat-batekoa edo oldartzezkotik zerbait; izan ere, interlokuziorako espazioaren sorrera mugimendu feministako hainbat sektoreen aspaldiko es-

kaera bat zen, eta hortik dator ere aurrez egin zuten parte-hartze prozesuarekiko kritika, baina aldi be-rean, Aldundiak berak planifikatu eta diseinatutako lan dinamikaren emaitza litzateke:

«Espazioak berak demanda historiko bati erantzuten zion. Orduan, sentsazioa zen marko egoki bat zegoela demanda horri erantzuteko, Foru Aldundian bazegoela alderdi bat, eta pertsona konkrituak, eta une hartan lan talde bat zegoela oso prest eta oso irekia elkarlanerako marko egoki bat sortzeko.» (ELT3: teknikaria)

«Berdintasun kontseilu bat martxan jarri nahi genuen hasiera hasieratik, eta adibidez, Plazandreok uste zuen, hori egin behar zela bi egunetan, eta egin behar zela eta punto. *Ellas quieren empezar a funcionar*, eta guk esaten genien, dago beste mugimendu bat kontseiluetaz jada nazkatuta dagoena, esate baterako. Eta lanketa bat egin behar da» (ELA8: arduradun politikoaren aholkularia)

Hortaz, Gunearen sorrera bera mugimendu feministaren hainbat talderen aldarrikapen historikoa zen; dena dela, mugimenduaren baitan posizio ezberdinak zeuden interlokuziorako espazio horren inguruan. Euskal Herriko udal askotan zeuden era horretarako partaidetza espazioak edo berdintasun kontseiluak, eta horien eraginkortasun politikoa mugimenduaren barne eztabaidetako bat zen. Alegia, elkarrizketatu ditugun mugimenduen artean interlokuzio eremu honekiko posizionamendu ezberdinak topa ditugu, aldekoak izan eta berehala sortu behar zela diotenetatik, espazioa bera zalantzan jarriko zutenera arte.

Gunearen prestaketa fasean, eragileen aniztasuna aldatzen joan zen dispositiboan abian jarri zenean, be-reziki gobeantza batzordearen baitan sortu zen kezka. Edonola ere, aniztasun handiko sarea zela esan dezakegu, horren erakusle dugu ondorengo koadroan jasotzen diren partaideen profilak:

29. taula: **Gunearen partaideen aniztasuna**

GUNEAREN DISEINURAKO PROZESUA	GUNEA ABIAN JARTZEN DENEAN
<ul style="list-style-type: none"> • Guztira 10 lan-saio: 8 eskualdeetan eta bi mugimendu feministarekin. • 100 bat emakumeren partaidetza • 49 kolektibo 	<p>BOST BATZORDE</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Jaiak, indarkeria eta brigada feministak: 7 emakume*. Taldeak: Jaizkibel konpania, Alardezaleak, Bidasoaldeko Elkarte Feminista, Bilgune Feminista eta Donostiako Emakumeen Etxea. 2. Zainketak, desberdintasunak eta bazterketa: 8 emakume*. Taldeak: Bidez bide, Asade, Malen Etxea, Bidasoaldeko Elkarte Feminista, Safa eta Dandai. 3. Emakumeen Etxeen Sarea: 5 emakume*. Taldeak: Plazandreok, Donostiako Emakumeen Etxea, Bidez Bide, Bidasoaldeko Elkarte Feminista eta Killirikupe. 4. Sexismoa eta gauza bihurtzea komunikabideetan: 6 emakume*. Taldeak: Malen Etxea, Gaurko Andreak eta Killirikupe. 5. Gizarte Bazterketa: 7 emakume*. Taldeak: Arrats, La Vía Láctea, Bidasoaldeko Elkarte Feminista, Gaurko Andreak, Bidez bide eta Sim Romi Elkartea. 6. Gobeantza Batzordea: 6 emakume*. Taldeak: Bidez bide, Plazandreok, Arrats, Bidasoaldeko Elkarte Feminista, Asade eta Safa. <p>Guztira: 39 emakume eta 16 kolektibo.</p>

Iturria: Egileak berak egin.

Gunearen sortze prozesua deskribatzen duen dokumentuan termino hauetan jasotzen da espazioaren ordezkagarritasuna eta aniztasuna:

«El Dispositivo debe asegurar que el tejido asociativo de mujeres y feminista del territorio esté representado, integrando a los colectivos con más dificultades para la participación. Uno de los retos más importantes que enfrenta los consejos es asegurar la diversidad. (...) El propio proceso participativo de creación del Dispositivo servirá para contactar a los grupos de mujeres activas en el territorio y mostrarles la iniciativa del mismo.» (Farapi, Informe Reflexionando. 2013:16)

Laburbilduz, gobernantza sarearen osaketa ezberdina izan zen Berdintasun Planaren kasuan eta Gunean. Lehenbizikoan, eremu instituzionaletik egindako gonbidapenezko momentu ezberdinek osatzen dute prozesua, eta askotariko profileen parte hartu arren, harremanen intentsitateari begiratzen badiogu, esan behar dugu mugatua izan zela eta espazioak nahiko zehaztuta zeudela eragileen soslaiani eta lan eremuari dagokienez. *Gunearen* aurre prozesuaren kasuan, aldiz, aipatu dugu espazio horren sorrera mugimendu feministaren sektore baten aldarrikapen historiko bat zela, eta aurrez abian jarritako prozesua espazio horren aniztasunaren eta osaketaren berme izateko diseinatu eta garatu zela; dena dela, espazioa bera eragileekin batera definitzeko aukera egon arren, dispositiboan martxan jartzeko zeuden indarrak ahuldu zituela esan daiteke. Finean, parte hartzeko espazioa bera herrialdeko begirada ezberdinetatik eraiki zen, baina aurrerago ikusiko dugun moduan, higadura handia sortu zuen gizarte eragileen artean.


4.4.4. Parte-hartze espazioen eta elkarlanaren joko arauak: botere harremanak eta baliabideen banaketa

Analisiaren dimentsio honetan, gobernantza sarearen osaketa nola gauzatu zen ikusi ondoren, lankidetzaren eremuetan sakonago begiratu nahi dugu. Parte hartze espazioetako emergentzia eta gabeziatik harago, ezberdinen arteko elkarreaginaren nolakotasuna izango dugu ardatz, hau da, lan baldintza egokiak baziren edo barne eta kanpoko botere harremanek baldintzatu ote zuten elkarlan sarea. Horretarako, gatazkak, horien kudeaketarako estrategiak eta harreman sareak indartu edota ahuldu dituzten faktoreak bildu nahi izan ditugu. Beti ere sare horietan parte hartu zutenek adierazitako testigantzen analisitik.

Parte-hartze espazioen lan baldintzei dagokionez, oraingo honetan ere, bereizi behar ditugu, Berdintasun Planerako egin ziren lan-saioak eta Gunearenak. Planari dagokionez, agintaldiaren hasieran kontratatu ziren hiru enpresek diseinatu eta bideratu zuten lan prozesua: Oreka Sarean, planaren koordinazioaz arduratu zen; En Fugak, Amaia Perez Orozcoren⁸⁴ lidergotzarekin, planaren analisirako marko teoriko-politiko eskainiko zuen; eta Likadik, aldiz, planaren adierazle eta sailen arteko elkarriketa koordinatuko zuen. Teknikari batek deskribatzen duen moduan, Planaren kasuan, elkarlana mugimendu feminista eta emakume elkarteekin oso mugatua izan zen. Aurreko atalean aipatu bezala, ez litzateke izango deliberazioan oinarritutako partaidetza prozesu bat, kasu honetan, momentu parte-hartzaileez osatutako lan dinamika baizik (Blas eta Ibarra, 2006).

84 Amaia Perez Orozco ekonomialari feminista da eta Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakasle doktorea da. Bizitzaren sustengarritasuna behar material eta afektiboaren ikuspegitik lantzen du eta ikerketa lerro horrekin lotuta liburu eta artikulugari argiratu ditu.

16. Irudia: **Berdintasun Plana diseinatzeko gogoeta prozesuaren urratsak**



Iturria: Egileak berak egin

Esanguratsua da, Aldundiaren Plana izanik, Gipuzkoa osoko berdintasun teknikarien begirada lantzeko egin zen ahalegina, sei lan saio egin baitziren haiekin. Berdintasun Planaren kasuan, beraz, eremu instituzionalean bereziki teknikoki gehiago landu zela esan dezakegu gizarte eragileekin baino. Mugimendu feminista eta emakumeen elkarteetako kideen begirada txertatu zen, era mugatuago batean, eta bertan jasotzen ziren neurriak kasu batzuetan teorikoegiak zirela aipatzen da elkarrizketatu baten aldetik; ehundura sozialaren galbahetik pasatzeko denbora eta espazio falta izan zela azpimarratzen da:

«Zuek ari zarete aztertzen berdintasun plana, *que es como el proyecto estrella* nire ustez; askoz ere rolo intelektualagoa da, super pretencioso bat, egin zan geihago pentsalariarekin, pertsonarekin baino, momentu batean, nahiz eta pertsonarekin ere egin zen. Behar zen jendea sentitu zan sartua, lan egin genuen kanpoko enpresekin, teknikari eta mugimenduetarekin ba askotan departamentuetara jeitsi baino lehenago. Kanpokaldekoekin egin zan, ziren gure super esperto majoak, teknikariak eta mugimendua, horiek ziren adarrak. Eta gero jeitsi zan sailletara; zuk hartzen duzu berdintasun plana eta esaten duzu: elkarteetatik zeinek irakurri du?» (ELA8: arduradun politikoaren aholkularia)

Planaren lan bilerak administrazioaren lan orduetan ziren eta horrek zaildu zuen mugimenduen partaide-tza. Horrez gain, erakundeekiko mesfidantza eta desgastea ere bazegoela dio, Planaren gogoeta saioak dinamizatu zituen teknikariak:

«Egia da baita ere, espektatiben arabera, nor eskaini dezake informazioa gai zehatzen inguruan, horrela ere bideratu zala. Ze askotan, gune horiek parte hartzerako guneak sortzen ditugunean, bada, plana egitea erakundearen beharra da eta ez eragileena. 'Behar dugu helburua eta gero hortik eratorri behar dira ekintzak' eta ziurrenik askok pentsatzen zuten 'antzarrak ferratzera joan zaitez, zu zaude

kobratzen plana egiteagatik, eta ni ez zoratu, *yo te digo mi vida, lo que me parece,* eta nik uste dut hori horrela egin zala, eta hori zala eskatzen zana.» (ELT2: teknikaria)

Lan baldintzak, oro har, administrazioko langileentzako askoz egokiagoak —ordutegiak, hizkuntza, formulazioa e.a.— ziren gizarte eragileentzat baino. Dena dela, mugimendu eta emakume elkarteetako kideei zuzendutako espazioetan hizkuntza eta ekarpena jasotzeko modua zaindu zen. Hau da, saiatu ziren hurbildu ziren pertsonen profilen lan kulturatik hurbil zeuden moduak eta hizkuntz erregistroa erabiltzen. Ahalegin hori aurrerago ikusiko dugun moduan gobernatza sarea indartu zuten faktoreen artean aurkitzen da.

Botere harremanei dagokienez, esan behar dugu desoreka handiena Planaren diseinuan, Aldundiaren barne kontraste bileretan izan zela. Aldundiko beste Departamentuetako arduradunekin lanketa egitean, erresistentzia ugari sortu ziren, eta botere esparruen arteko borroka azaldu zirela esan dezakegu. Berziki zeharkakotasuna (Ajangiz, Blas eta Suso, d.g.) landu nahi zutelako eta, ondorioz, beste esparruei eragiten zielako. Gatazken atalean sakonduko dugu gehiago gai honetan, baina oso deigarria da Departamentuetako kontraste bilera horietan lanean ziharduen teknikariak dioskuna:

«Denbora guztian, ahalegina egin zen, gainera lan ildoen izenak, planteamenduak zaurgarritasunaren inguruan, barruko kontrasteak izan ziren izugarriak; ni ohituta nago udaleko teknikariek. Pertsona normalak. Harrituta geldituko zinateke Foru Aldundian ze jende dagoen. Unibertsitatean *habrá gurus, pero en la Diputación*. Ez zitzaien ezer ulertzen. Ta hor eduki genituen; foro bat sortu zen, kontrastatzeko neurriak, foro birtual bat, eta denetarik entzun behar izan genuen. Eta gainera da “hau ez da zure gaia”, “ikuspegi politikoa zuk ez duzu”, “ez da foroa eztabaidarako”.» (ELT2: teknikaria)

Erakundearen baitan zeuden botere harremanak ageri dira teknikariaren deskribapenean. Planean jasotzen ziren neurriek berdintasuna ez zen beste eremuei eragiten zieten, eta lankidetzaz esparru horretan zailtasun ugari azaldu ziren. Agerian gelditzen da, hortaz, eremu instituzionalean zeharkakotasuna lantzeko zeuden erresistentziak nagusiki teknikarien aldetik ematen zirela, eta azpimarragarria iruditzen zaigu eurek arduradun politikoen gainetik zuten eragiteko ahalmena. Planaren diseinurako kontratatatu zituzten teknikariek administrazioaren egitura zurruneekin eta departamentalizazioarekin topo egin zuten. Tokiko administrazioan zeharkakotasuna lantzeko dokumentu bat osatu zuten, *'Implementación de la estrategia de mainstreaming de género o transversalidad en el ámbito municipal del territorio histórico de Gipuzkoa'* (Likadi, 2017) izenburu zuena, eta berdintasun teknikariek eskaria izan zena. Dokumentuan ere erreferentzia egiten zaio administrazioak barne mailan zituen arazoi:

«Se añade a esto, la escasa cultura participativa y el hecho de que la Administración, espacio de acogida de la estrategia, es un medio con una estructura jerárquica, compartimentada y con 5 escasa coordinación y comunicación entre las diferentes Áreas. Por ello, esta estrategia basada en la horizontalidad y la corresponsabilidad de todas las Áreas genera, en algunos casos, la aparición de resistencias al cambio, incomprensión del propio papel de las áreas, intentos de que sea sólo el Área de igualdad la implicada y ciertos conflictos competenciales que progresivamente se van subsanando.» (Likadi, 2017:4)

Zailtasunak zailtasun, udaletako berdintasun teknikariek aukera politiko gisa definitzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak zuen bisio politikoa, eta norabide horretan eman zituen urra-

tsak (berdintasun teknikariak kontratatzeko diru laguntzak, finantziario lerro berriak, teknikarien saretik sortu ziren lan ildoak eta beste hainbat neurri).

Gunearen kasuan, aldiz, urtebeteko gogoeta prozesua garatu zuten, espazioa bera definitzeko. Eredu instituzionalaren eta mugimendu zein elkartearen arteko interlokuzio gunearen osaketan ahots ezbedinek parte hartu zuten. Esan dezakegu, beraz, dispositiboaren nolakotasunean eragiteko aukera herrialde oso-ra zabaldu zela, eta prozesu horretan batik bat mugimendu eta elkarteetako kideek parte hartu zuten. Elkarlanerako espazioa, mugimendu batzuen aldetik kritikatu izan arren, gobernantza espazioaren sarkotasun demokratikoaren ikuspegitik, egokia izan zela uste dugu. Prozesu horren memoria —*Informe REFLEXIONANDO: 1. Fase el Proceso de creación del Dispositivo foral de Gobernanza para la Igualdad (Farapi, 2013)*— aztertzen badugu, ikus dezakegu nola gogoeta prozesu hartan, emakumeen partaidetzarako kontseilu egonkorren inguruko zalantzak azaleratzen diren hasieratik. Txostenak hala dio:

«Los consejos de igualdad en Euskadi han tenido un impacto muy limitado a la hora de establecer una interlocución formal real con la institución y fomentar el empoderamiento de las mujeres. Y es que los Consejos de Igualdad se han limitado a trasladar la información y realizar consultas y sugerencias, pero no han conseguido la participación real en la definición y elaboración de las políticas públicas, y aún menos, más allá del área de igualdad. Además, en algunos casos los partidos políticos han utilizado los consejos para legitimar sus decisiones políticas y estos se han demostrado ser muy vulnerables a los cambios políticos. Estas cuestiones, sumadas a las dinámicas propias de los consejos que no resultan atractivas para parte del movimiento, han llevado a la frustración y el desgaste de algunas de sus miembros y a no considerar la participación política mediante los consejos como una prioridad en la que invertir su tiempo y energías.» (Farapi, Informe Reflexionando, 2013:10)

Dokumentuak, oro har, eta pasarte horrek zehazki agerian uzten du, interlokuzio espazioaren inguruko zalantzak zeudela, eta aurre prozesuaren gogoeta egokia zela, sortzera zihoazen espazioaren mugak eta funtzioak zehazteko. Beharbada indarrak neurtu, eta aurre-prozesua laburragoa izan behar zela pentsa daiteke. Prozesu hartatik atera ziren emaitza nagusien artean, ondorengo ondorioak daude:

«Reflexión en torno a las participantes: Ha habido bastante unanimidad en este aspecto, que podría resumirse en la siguiente manera: los hombres y los partidos políticos quedarían fuera del Dispositivo (sus miembros podrían participar a título individual); las mujeres a título individual, las organizaciones compuestas por hombres y mujeres y los sindicatos (los que trabajan específicamente los derechos de las mujeres como EBEL y ASADE) podrían participar estableciendo una serie de criterios; y sería interesante pensar en fórmulas para articularse con los Consejos municipales de Igualdad, las Escuelas de Empoderamiento y las Casas de Mujeres.

Dificultades de participación: Es de destacar que en general, no han aparecido mujeres jóvenes y miembros del movimiento feminista más alejado históricamente de las instituciones a las sesiones de contraste. Por otro lado, la sesión de Donostia coincidió con otra charla a la misma hora en la Casa de las Mujeres y el día anterior había sido la reunión del Consejo local. Esto pone de manifiesto los problemas de la sobre-participación, la necesidad de coordinación y de poner medidas para no duplicar espacios.

Diferencias en el territorio: La respuesta a las sesiones ha sido muy diferente en el territorio. Eibar, Renteria, Donostia e Irún fueron las que atrajeron a más miembros del tejido asociativo de sus comarcas, la mayoría participantes también de las Mesas locales de Igualdad. En las de Arrasate, Ordizia, Tolosa y Zarautz, sin embargo, no asistieron más de 5 personas, y varias de ellas, en calidad de técnicas de igualdad. Esta realidad nos lleva a pensar en un Dispositivo que se adapte a diferentes ritmos, niveles de implicación e intereses » (Farapi, Informe sobre las sesiones de contraste, d.g.: 13)»

Aurre-prozesuan, beraz, agerian gelditu zen mugimendu feministaren inplikazioa mugatua izan zela, eta parte-hartze espazioen inguruko kezka zeudela. Eragile ezberdinen erritmoak, inplikazio mailak eta interes anitzak integratzeko beharra azpimarratzen dute. Arestian aipatutako partaidetzarako zailtasunen artean, hainbat faktore aipatzen dira: batetik, partaidetza instituzionalaren teilakatzea ematen zela, eta zailtasun hori aipatu arren, ez zen proposamen zehatzik egin bikoizketa saihesteko; emakume gazteen partaidetza eza ere aipatzen da, eta euren gaitasuna hurbiltzeko zeuden zailtasunak; eta bestetik, Berdintasun Kontseiluen eraginkortasun politikoa ere ezbaian jarriko da gogoeta prozesuan.

Fase honetan, sortze arazoak zegoen espazioaren izaera juridikoarekin eta autonomiaren eztabaida sortu zen. Aitu ezberdinen aldetik parte-hartze guneak izaera juridikoa izan behar zuela azpimarratzen zuten, eta Gunearen sorreraren kontura eztabaida ugari sortu ziren Bilduren baitan. Kabinetean gai honen inguruko eztabaidak eman ziren. Horren erakusle dugu ondoko testigantza:

«Arazoak gehiago hazten ziren, niretzako, Zuzendaritzatik gora, eta negoziazio horretan oso gatazka garrantzitsua izan zen: pertsonalitate juridikoarena. Hasieratik zegoen mahai gainean, bideoa egin genuenean denek eskatzen zuten organo autonomo bat, eta horrek zaildu zuen dena. Nik borrokatu nuen azkeneko prozesuan, Begoña San Joserekin hitz egin ostean. Sortzen dira lan taldeak, eta hasten dira negoziatzen. Begoña ekartzen dugu, eta grabatu genuen Madrilen gainera. Bideo zoragarria, eta horrek esan zigun *“tiene que tener personalidad jurídica aunque el movimiento no lo pidiera, es una traición sacar el consejo sin personalidad jurídica”*. Hor kriston kraka eman zen proiektuan. Kabinetetik ez dute ikusten, ez dute ikusten partaidetza modelo horrek enkajatzten duenik. (...) Izaera juridikoak babestu egin du, ematen dio izaera propioa. Kontseiluko zuzendariak manejatzen du kontseilua, eta ez berdintasun zuzendariak. Eta ez da behar beste borrokatu.» (ELA8: ardurdadun politikoaen aholkularia)

«Una de las complejidades fue la discusión de Gunea con régimen jurídico. Régimen jurídico no veía para nada lo que estábamos planteando, le parecía un escándalo. Eran muy garantistas. (...) La discusión estaba vinculada con el enfoque cooperativo, con la redistribución del poder institución-movimiento, etc., que obligaban a pensar en un aterrizaje jurídico de Gunea en el que la resolución de los problemas obligaba al diálogo y a la negociación en un órgano que legalmente sólo podía ser consultivo. Para Régimen jurídico esta mirada debilitaba el poder de la institución (obviamente) y creían que era fuente de conflictos futuros. Ni veían que tuviera personalidad jurídica propia, ni veían el tipo de estructura que se creó vía decreto, posteriormente.» (ELP1:Aldundiko ardurdadun politikoa)

Partaidetza espazioaren autonomia bermatuko zuen izaera eztabaidatu eta proposatu nahi zuten, baina barne mailan ez zegoen adostasunik, eta Gunea sortu zen izaera juridikorik gabe. Edonola ere, arduradun politikoak aipatzen duen moduan, zuzendaritza ez da Aldundiarena soilik izango. Gunearen lehendakaritza mugimenduarena zen, eta bilera deialdiak egiteko ahalmena zuen erakundeekin kontatu gabe. Hortaz, kogestio eredutik hurbil zegoela esan daiteke. Horrela deskribatzen du arduradun politikoak kudeaketa eredua:

«Nos guiamos un poco por el principio de subsidiaridad, que tiene que ver la institución pone recursos al servicio de los procesos. No podíamos decir que era un espacio autogestionado, pero tampoco podemos decir que era un espacio dirigido por la institución, porque se ponen mecanismos como la presidencia o momentos en las que Gunea puede tener, puede hacer reuniones sin que este la directora. Se regulan, para que puedan conformar la voluntad del movimiento para luego hacer la interlocución con la institución y se establece que tiene que tener unos recursos económicos y demás. Y que la Comisión Gobernanza va a ser el espacio donde eso se va a decidir.» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Subsidiaritasun printzipioaren presentziak kogestiorako borondate politikoa zegoela adierazten du. Sarea osatuko zutenekin partekatu nahi zen erabakitze eskumena. Eta ikuspegi hori zinez demokratizatzailea iruditzen zaigu. Sarea osatuko zuten eragileen eragiteko ahalmena bermatu nahi zen, lehenik, izaera juridikoarekin; eta horren ostean, Gunearen funtzionamendua arautegiarekin eta lehendakaritza mugimenduaren esku uzteak, frogatzen du arduradun politikoen aldetik gizarte eragileekiko zegoen erre-konozimendua eta elkarrekikotasuna.

17. Irudia: **Gunearen lan eremuak**



Iturria: Egileak berak egina

Kontraste fasearen ostean, 2014ko otsailaren 15ean ospatu zen lehenbiziko batzar eratzaila. Eta ordurako parte hartzearen baldintzak eztabaidatuta eta adostuta zeudela esan dezakegu. Ikuspegi politiko batek helburu hauek esleitzen zitzaizkion espazio horri:

«Gunea tenía dos patas o dos grandes objetivos: por un lado, fortalecer los procesos de empoderamiento individuales y colectivos y al propio movimiento, y, por otro lado, la interlocución con la institución» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Bi helburuetarako, aurreko atalean deskribatzen den moduan, azpi-talde ezberdinak antolatu zituzten. Batetik, ikerketa honen helburuen ikuspegitik, interesgarriena, gobernantza batzordea litzatekeena. Interlokuzio politikoaren zuek helburu, eta, beraz, politika publikoetan eragiten eta agenda komun bat sortzen ziharduen. Eta bestetik, lan taldeak osatu ziren. Horietako bakoitzak gai bat jorratu zuen, eta erabat autonomoak ziren. Momentu hartan, mugimenduko zenbait kidek dinamikan jarraitzeko zailtasunengatik, Gunearen definizioan parte hartu bazuten ere, prozesua uztea erabaki zuten. Mugimendu feministaren nekea, zalantzak edota indar falta sumatzen hasi zen, eta elkarlanerako espazioa ez zen erakargarria zenbait kiderentzako:

«Nik sumatzen nuen mugimendu feministarekiko esfortzu berezi bat egon zela, une oro, eta gure beharra bazegoela, baina guk ezin genuen, garai horretan topera geunden eta norbait bidaltzeko zaitasunak genituen». (ELM7: mugimenduetako kidea)

Beraz, bidean hainbat taldek ezin izan zioten eutsi elkarlan dinamikari. Denborak aurrera egin ahala, Gunearen espazioa ahulduz joan zen, batik batik, mugimendu feministaren ordezkarietara dagokienez. Aipatzen diren arrazoi nagusien artean: batetik, euren lan ildoetan murgilduta zeudela, kasu batzuetan interlokuzio instituzionala ez baitzen haien lehenetsia; eta, bestetik, zioten zaila zela norbait topatzea, lankidetzaren eremu horretan parte hartzeko motibatua zegoena. Erakundeekin lan egiteko ohitura handiagoa zutenek, berriz, parte hartzen jarraitu zuten. Partaidetza instituzionalarekiko dauden posizio ezberdinak azaleratzen dira, ikusten dugunagatik. Aurreko prozesuan aipatzen ziren baldintzak mantentzeko —erritmoak, nahiak eta interesak errespetatzea— zailtasun handiak egon zirela.

Hasieratik, elkarlanerako lan-baldintzak, bereziki gobernantza espazioarenak, administrazioaren logika arautzaileak baldintzatu zituen. Berehala, mahai gaineratu ziren hainbat zailtasun; aipatueneren artean: ordutegiak (bilerak askotan goizez ziren, eta horrek zailtzen zuen batzuen parte-hartzea); garraioaren gastuak (partaideen garraio gastuak ordaintzea proposatu zen); lan dinamikaren erritmoak eta gai ordenak behin baino gehiagotan azaltzen dira:

«Los horarios son siempre horarios de trabajo. En general esa es la tónica de las instituciones, las cosas no suelen ser a partir de las 19:00 de la tarde. Se han intentado adaptarse más a los horarios en este caso, pero siempre es una gran dificultad» (ELM4: mugimenduetako kidea)

«Era complicado porque claro todo esto era voluntario y una persona no tenía pasta para venir a las reuniones y se pedía que se le pagaran los viajes, pero claro es que es el monstruo de la institución, que ahí da igual que sea de izquierdas o derechas, es muy difícil mover ese engranaje» (ELM6: mugimenduetako kidea)

«Gai ordenak ere oso luzeak ziren, gauza asko zeuden. Berdintasun politiken jarraipena egitea kriston lana da. Zenbat irakurri behar duzun, zenbat eztabaidatu behar da horri ekarpenak egiteko, kriston lana da. Eta orduan ez zegoen denborarik» (ELT3: teknikaria)

Oro har, esan daiteke administrazioaren lan egiteko moduak –tempusak, ordutegiak, hizkuntza erregistroa eta abar– ez zetozeela bat mugimendu feministaren eta emakumeen elkarteetako funtzionamenduekin. Lan egiteko logikak zeharo ezberdinak zirela esan daiteke, beraz. Batetik, administrazioaren funtzionamendu arautu eta burokratikoa, prozeduraz jositakoa, eta, bestetik, ehundura sozialarena, askoz ere arinagoa, errealitate sozialarekin lotura zuzenagoa duena (Martínez, 2008; Della Porta eta Diani; 2011). Zuzendaritza zailtasun horien jabe zen, eta neurri batean oztopoak saihesteko ahaleginak egin zirela nabarmentzen dute elkarrizketatuek, nahiz eta zaila izan. Horrela jasotzen da bai Planean egin ziren saio ezberdinetan zein Gunearen beraren kudeaketan. Norabide horretan, egin ziren saiakerak oso modu positiboan baloratzen dituzte, bereziki ehundura sozialeko kideek:

«Ni eroso sentitu nintzen, gogoan dut bilera batzuk Emakumeen Etxean egin zirela, eta iruditzen zait hori erakundeen aldetik badela zerbait, ez deitzea gu erakunde publikoetarako joateko, baizik eta gure espazioetara, bueno nahiz eta hibrido bat izan Emakumeen Etxea» (ELM7: mugimenduetako kidea)

Planaren zein Gunearen kasuan, kontratatu ziren teknikariek oso presente zuten parte-hartzea erraztu egin behar zela, teknizismoetatik urrunduz eta partaideen ekarpenak integratuz:

«Ez zen kontraste bat dokumentu itxiarekin. Guk jasotzen genituen iritziak eta gero hortik egituratzen genituen ekintzak. Haiek marko orokorra jartzen zuten, eta gero guk planaren elaborazioan horien lanketa egiten genuen» (ELT2: teknikaria)

«Oso konplexua da instituzioen funtzionamendua eta herri mugimenduetatik ez dakigu nola funtzionatzen duten. Gu saiatzen ginen sinplifikatzen, adibidez, dekretuaren laburpen bat egiten 60 orrialdeko txosten bat ez irakurri behar izateko.» (ELT3: teknikaria)

«Zuzendaritzak Aldundiaren burokratizazio maila apur bat gainditzen lagundu zigun. Alegia, berak esaten zigun: zuek esan, eta gero hori diseinatzeko bagaude gu, eta bagaude teknikariak eta badaude adituak erakundeetan zuen ideiei forma emateko. Dena den, uste dut, burokratizazio maila Bilduk ez zuela gainditu, hori lau urteetan egitea ezinezkoa baita». (ELM7: mugimenduetako kidea)

Elkarlan prozesu osoan zehar, bi eremuen arteko talka nabarmentzen da esperientzia honen protagonisten ahotsetan, erakundeen logikak mugimendu eta elkarten lan-jarduna ahalik eta gutxien baldintzatze-ko kezka etengabe azaltzen baita, ikuspegi politikoaren aldetik ere.

«Intentábamos facilitar mucho y no agotarlas. Para eso, el cuidado de la metodología, el lenguaje y los tiempos estuvieron en el centro del planteamiento todo el rato» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Esan bezala, alde batean zein bestean zeudenek bazekiten erakundeen joko zelaian zihardutela, eta zailtasun horien guztien jabe ziren, teknikari, politikari eta taldeetako kideak. Eredu instituzional eta herri mugimenduaren arteko desoreka lantzeko teknikariak eta zuzendariaren aholkulariak rol garrantzitsu bat jokatu zuten. Botere-asimetria horien lanketa gobernantza espazioen metodologietan islatzen da. Harremanen dimentsioa asko landu zuten. Halere, esan behar dugu administrazioaren logika eraldatzeko zailtasunak eta erresistentziak handiak zirela, eta horien gaineko begirada egon arren, oso zaila zela bestelako logiketan aritzea. Bereziki gobernantza batzordean. Espazio horren funtzioek administrazioaren logika ulertzea zekarrelako eta horietan eragitea. Arduradun politikoaren esanetan elkarlan eremuak gehiago mugatu behar ziren eraginkortasunaren mesedean:

«Por eso creo que la única solución es reducir los temas objeto de interlocución y los grupos de trabajo temáticos, para poder ir experimentando y acompañándonos sin ahogarnos. Creo que fuimos aprendiendo en el proceso y ellas también.» (ELPII)

4.4.5. Gobernantza sareen gatazkak eta botere harremanak kudeatzeko tresnak

Bestalde, lankidetzaren esparruaren gatazkak eta erresistentziak aztertzerako orduan, eremuz eremu identifikatzen joango gara, izaera eta jatorri ezberdineko zailtasunekin topo egin baitugu. Orokorrean, esan dezakegu lau eremu ezberdinetan eragoz zirela interes edo posizio ezberdinen arteko talkak:

18. Irudia: **Lankidetzaren esparruetatik sortutako gatazka eremuak**



Iturria: Egileak berak egina

Erakundearen baitan, planari dagokionez, arestian aipatu bezala, bereziki zeharkakotasuna lantzeko zailtasunek eragindako gatazkak egon zirela diote teknikariek eta arduradun politikoei. Berdintasun planaren garapenean, oztopo eta muga ugari sortu ziren lankidetzarako espazioetan. Administrazioen funtzionamendua oso departamentalizatuta dago, eta eskema hori gainditzeko erresistentzia ugari zeuden. Ikuspegiaren arteko kontrakotasun horien erakusgarri dugu ondorengo pasarte hau:

«Nik uste dut Aldundi barruan egon zirela gatazka handienak. Planaren prozesua maila teknikoan zabaldu zenean, Aldundia oso makroa da, eta proposatzen ziren hainbat neurri apurtzaileak ziren. Jendeak esaten zuen: *hau zer da?*» (ELT2: teknikaria)

Departamentalizazioarekin batera, ikuspegi politikoarekin ere erresistentziak zeudela esan dezakegu. Berdintasun Zuzendaritzak zekarren ikuspegi feminista integratzeko ezintasunak nabarmentzen dira. Zailtasunak agerikoak ziren baita planaren prozeduran ere; batik bat arloen arteko lankidetzaren eremuan. Horren erakusle dugu planaren lankidetzaren arduratzen zen teknikariaren hurrengo testigantza:

«Barne maila arazoak egon ziren, enpatia gutxi zegoen. Gogoia ematen zidan esateko *zuk norbaitekin kontrastatzen duzu zure lan jarduna? Ez, ezta? Ba, egiten duenari erraztu bidea apur bat!* Gatazka handiak zeuden zeharkakotasunaren ideiarekin lan egiteko. Zenbaitzuk jarrera hau azaltzen zuten: *hau ez da berdintasunaren ardura, beraz, bakoitzak har ditzala bereak eta kitto!*» (ELT2: teknikaria)

Bestalde, politikariaren ikuspegitik, aipatzen da sailen arteko zailtasun horiei aurre egiteko gakoak zirela: lidergotza politikoa argia izatea, teknikarien ezagutza balioan jartzea eta elkarrekin lan egitea. Finean, barne prozesuaren logika ulertzea zekarren lehenik, eta antolaketa kulturaren aldaketarako langileen begirada kontuan hartzea eskatzen zuen:

«En muchas ocasiones, teníamos que hacer una reunión política, específicamente solo para poder abordar como sumar a nuestros equipos y solucionar lo que nuestros equipos técnicos tenían. Primero tienes que compartir mucho la visión y el hacia donde, para que la parte política pueda trasladarla a sus equipos y pueda sumarlos a un trabajo común, sino ellos van a estar planteando técnicamente problemas y es difícil luego articular cosas conjuntamente» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Politikariak dio Aldundiko Zuzendaritzek, oro har, funtzio exekutibo handia dutela, eta ezinbestekoa dela politika publikoen ezagutza minimo bat izatea; gehien bat teknikariek duten boterea ez nagusitzeko edo baldintzatzeko. Izan ere, teknikariek informazio handia dute, prozedura administratiboen inguruan gehien bat, eta aldeko edo kontrako jarrerak erabat baldintza ditzakete hasierako asmo politikoak.

Bigarren gatazka eta erresistentzia multzoa, alderdien arteko eremu politikoan kokatzen da. Zuzendaritzak koalizioaren barruan ere zailtasunak izan zituen zenbait asmo garatzeko; adibidez, langileen kontratazioak eta aurrekontuak eztabaida sortu zuten barne mailan. Sailen arteko lankidetzak gutxi zegoen, bakoitzak bere eremutik jardun zuen:

«Creo que nadie cuestionaba que la política de igualdad y de participación eran relevantes, pero en la práctica el discurso se diluía, cuando se le estaba dando

prioridad a otras políticas. Creo que funcionábamos como burbujas aisladas, donde nunca se pensó, que estas políticas guiarían la acción conjunta de gobierno. Nosotras, cuando entramos a la Diputación, hicimos un planteamiento de crecimiento presupuestario, de personal y hasta el tercer año no se materializo» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Bildu koalizioa osatzen zuten alderdien artean, beraz, ikuspegi ezberdinak zeuden Berdintasun Politiken norabidearen inguruan, eta ez zen lehenasunezko gaia. Horrek lidergotza politikoa konplexuagoa bilakatzeko zuten, eta alderdien artean gaiarekiko konplizitate gutxi zegoen. Eredu honetan interes gatazka horiek kudeatzeko bitarteko gutxi jarri ziren. Alderdien arteko konfluentzia lantzeko denbora eta baliabide falta sumatzen da.

Hirugarrenik, herri mugimenduen eta erakundeen arteko gatazka gisa izendatu duguna legoke. Hasieratik, teknikarien eta zuzendaritzaren arabera, lankidetzaren espazioetan, Gunearen Gobernantza Batzordearen kasuan, konfrontazio logika nagusi zen, eta ez lankidetzarena. Hau da, elkarrekin eta mugimenduen aldetik parte hartzeko jarrera eta markoa adostua izan arren, jarrera eta moduak konfrontaziotik hurbilago zeuden elkarlanerako disposiziotik baino.

«Bilera horietan, irudikatzen zen Aldundia eta mugimendu arteko konfrontazioa. Batzuetan mugimenduaren kritikak ez zeuden hain argudiatuta, posizionamendu bat zen gehiago.» (ELT3: teknikaria)

«Se trataba de pasar de la lógica de la confrontación a la lógica de construcción, fue un proceso muy complicado. Fue ir viéndonos, reconocernos, ir construyendo alianzas que nos permitiera construir juntas. Pero olvidándonos de tú eres institución, tú eres movimiento, y a mí me toca este papel. Fue complicado.» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Zenbait eragilek lankidetzaren esparruaren agenda politikotik haratago zihoazen kezkek zituzten, eta gai horiek jorrazteko premia zuten; adibide gisa aipatzen da, gatazka handia zegoela orduan pertsona nagusien egoitzetako langileen lan baldintzen inguruan, eta politika sozialetako arduradun politikoa interpelatu nahi zutela. Une berean, gai guztiak jorrazteko zailtasunak zeuden, lan handia eskatzen baitzuen, eta Berdintasun Zuzendaritzatik beste eremuetan eragiteko eragozpenak zeuden. Erresistentzia multzo honen baitan ere kokatu behar dugu, momentu zehatz batean, Gunea kudeatzen zuten teknikariek eman zen gatazka. Ez dago oso argi gatazkaren jatorria, baina badirudi momentu batean, behin Gunea martxan jartzeko denean, teknikariek ez zutela eragileen aitortzarik eta zilegitasuna galdu zutela. Teknikariek diote une gogorrek bizi izan zituztela:

«Gunearen gobernantza batzordea funtzionatzen hasi zenean, gure zilegitasuna erabat galdu genuen, laguntza tekniko moduan. Tentsio momentuak egon ziren. Gobernantza batzordea abian jarri zenean, gure parte-hartze dinamikak planteatzen genituen, erabakiak hartzeko, hausnarketak errazteko eta parte-hartzea orekatzeko; alegia, bilerak orekatzeko eta hobeto funtzionatzeko, eta ezezkoa jaso genuen. Batzuen erantzuna izan zen: *zu mugatu zaitetz aktak hartzera*. Ez zen arazotzat ikusten adibidez, pertsona bakar batek hitz egitea, oihukatzea, gai ordena saltatzea...» (ELT2: teknikaria)

Legegintzaldiaren amaieran, arduradun politikoak eta teknikariak kezkatuta zeuden, Gobernantza Batzordeak zenbait momentuetan hartu zuen joeragatik. Interlokuziorako espazio politiko gisa sortu bazen ere, Gune osotzen zuten guztien ikuspegiaren ordezkagarritasuna zalantzan zegoela zirudien. Badirudi, hainbat taldek botere handia hartu zutela, eta oinarriarekin izan beharko luketen lotura galtzen ari zirela pixkanaka. Hau da, mugimendu feministaren eta emakumeen elkarleen ahotsa ez zegoela guztiz ordezkatuta bertan, eta aniztasuna falta zela. Norabide horretan, momentu batean, jende berria sartzeko ahalgina egin zuten, baina zaila zen abian zegoen talde batean partaide berriak integratzea:

«La comisión de gobernanza se encargaba de la interlocución con la institución. El problema fue que no nos dio tiempo, porque se quiere construir desde abajo, pero al mismo tiempo tiene que haber un órgano de representación del movimiento y al final va a acabar reproduciendo los problemas que sabemos que siempre tiene la representación, pero que intentamos ir solventándolo con mucho diálogo.» (ELP1: Arduradun politikoak)

«Hainbat sektorek sekulako boterea hartu zuten, eta gainera, haien arteko harremana ere tirabiratsua zen; momentu batzuetan saiatu ginen taldea indartzen jende berriarekin, baina ez zuen funtzionatu. Oso zaila zen, batzuek ez zuten uzten eta gu oso ahulduta sentitu ginen. Hortik ateratzen ziren gauzak, ez ziren kontsentsu bidez ateratzen.» (ELT3: teknikaria)

«Creo que también hay organizaciones que pueden hacer uso de la institución al servicio de sus propios intereses particulares, y eso en realidad también había que leerlo y neutralizarlo. A lo mejor son organizaciones que en algún momento se presentan a contratos o subvenciones públicas y eso no es baladí. Y hay que leerlo también, porque luego desde ahí se van tejiendo los clientelismos políticos y ese tipo de cosas.» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoak)

Esanguratsua da arduradun politikoak adierazten duen kezka. Erakunde eta mugimenduen artean sor zitezkeen interesen arteko gatazka edo 'klientelismo politiko'. Lankidetzaren eremuan arrisku baten aurrean egongo ginateke. Zenbait elkarteren aldetik egon litezkeen interes politikoek elkarlanaren izaera demokratizatzailea ahulduko lukete erabat. Arrisku horren aurrean, mugimendu eta elkarleen demokratizazioaren beharraz jardun beharko genuke. Santosek (2005) dioten moduan, kasu horretan, komunitatea eta erakundearen eremua birsartzeko logika demokratizatzaileak eta bien arteko aliantzak etengabe landu beharko liriateke.

Gatazkekin eta horiek kudeatzeko tresnekin amaitzeko, eragileen artekoak ere aipatu direla esan behar dugu. Hau da, parte hartze eremuetan eragileen arteko tentsioak eta gora beherekin ere presentzia izan zutela. Bai, planean zabaldu ziren momentuetan, baita Gunean ere. Norabide horretan, espazio horietan eragileen arteko botere harremanaz mintzo dira. Kideen arteko gatazkak presente egon dira prozesuan zehar, eta botere asimetriei erreferentzia egin zaie talka horien jatorrian.

«Egia da mugimendu feministak baduela, edota feministok orokorrean badugula joera sailkatzeko: lehenengo lerroan egon direnak, bigarrean eta hirugarrenean.. *Somos un poco monárquicas*» (ELT2: teknikaria)

«Gogoan dut lan-saio batean, tirabira bat izan zela; emakume bat hasi zen azaltzen indarkeriaren inguruko bere esperientzia, eta taldeko batek erantzun zion: *ni ez nator hona inoren esperientzia pertsonala entzutera!*. Eta emakume hura ari zen haren esperientzia kontatzen, zerbitzu ezberdinekin bizitakoa, eta mingarria izan zen. Pentsatu nuen, utziozu hamar minutu, kontatzeko beharra zuen, eta gainera hortik ere informazio asko jasotzen dugu. Azkenean, zergatik eman behar diogu balore gehiago ezagutza zehatz batzuei? Zer da jakintza, lizentziatua izatea edo bizi esperientzia itzela izatea? Mugimenduko betiko hierarkizazioa.» (ELT2: teknikaria)

«Bazegoen batzuen artean mesfidantza moduko bat, taldeen izaeragatik edota lan egiteko moduagatik, baina egia da batzuk baztertuak sentitzen zirela, nik hori sumatu nuen, baita berbalizatu ere. Ez dakit oso ondo zergatik zen, baina hor tentsioa zegoen.» (ELM7: mugimenduetako kidea)

Taldeen arteko ezagutzaz eta ibilbideen gaineko hierarkizazioaz (Esteban, 2017) jardun dira zenbait elkarriketatu. Badirudi eztabaida eta gogoetarako espazioetan aniztasunetik aritzeko zailtasunak zeudela. Partaidetza guneetan kideen arteko zaintzaren garrantzia azpimarratzen da. Fasilitazioaren ikuspegitik zailtasunak zeuden prozesuaren, kideen eta egitasmoaren arteko oreka mantentzeko (Escorihuela, 2013). Eremu honetan ere eman ziren gatazken konponbiderako ahaleginak egin arren, baliabide eta denbora gehiago behar zela agerian gelditzen da.

4.4.6. Lankidetzaren indartu eta ahuldu zuten faktoreak

Ondorengo lerrootan, gobernantza sarea indartu eta ahuldu zuten faktoreak aztertuko ditugu. Horretarako, begirada ezberdinak hartu ditugu kontuan: politikariena, herri mugimenduetako militanteena eta teknikariena. Hiru profilen elkarriketen aipamenetatik eta dokumentuen edukien analisitik abiatu gara lankidetzaren esparruen gora-beherak aletzeko.

Elkarlan sarea indartu zuten faktoreei dagokienez, aldaketa politikoak sortu zuen agertokia dela azpimarratzen dute, teknikari, politikari eta mugimenduetako kideek. Aukera politikorako egituraren arabera, kasu honetan, lidergotza politikoa eta eragileen arteko hurbiltasuna edo sintonia oso handia zen, eta parte-hartze mekanismo berriek mugimenduen eta euren aldarrikapenen sarbidea handituko zuten. Norabide politiko partekatutako erailtzeko baldintzak ematen zirela esan dezakegu. Ordura arte eman ez zena, eragileen arabera. Zuzendaritza politikoa osatzen zuten pertsonen profilak eta borondate politikoak hurbiltasun hori baldintzatu zuten, herri mugimenduetako kideek euren posizionamendu politikoak ordezkatzuta ikusiko baitzituzten. Alegia, batetik, Berdintasun Zuzendaritza feministatik abiatzea, eta aldaketak sustatzeko energia eta gogoia zutela ikustea.

Lankidetzaren esparruan zabaldu ziren espazioak eta prozedurak ere esperientzia honen elementu garrantzitsuak zirela aipatzen da etengabe. Ez soilik diskurtsiboki formulatzen ziren hurbiltasun keinuegantik, baita borondate politiko horren gorpuzketa lanek zabaldu zituzten espazio berriengatik ere.

Aukera politiko berri bat irudikatzen zuten, berdintasun politiketan eragiteko; sarritan 'paradigma aldaketa' gisa definitua izan zena, eragile eta politikarien ikuspegitik. Anbizio politikoa zegoen, eta berdintasun politikak ordura arte izan zuten perspektibetatik harago joan nahi zuten. Ikuspegi aldaketa horren isla, arduradun politikoaren ondoko adierazpenak:

«Guk dioguna da berdintasuna nahi dugula, bizitzea merezi duen bizitza bat bizitzeko. Bilatzen dugun gizarte horretan, bizitzeko lan egingo dugu, eta ez alderantziz. Horrela, lan merkatuari eskaintzen diogun denboraz gain, autoerrealizazioa lortzen lagunduko digun hori egiteko denbora izango dugu. Ez dugu berdintasunik nahi banketxean preferenteak saltzen dituen zuzendari baten lanari gaixoak zaintzen dituenaren lanari baino balio handiagoa ematen dion eredu batean. Horregatik, eredu sozial baterantz egiteaz hitz egiten dugu, historikoki emakumeek egin duten hori lehenesten duen eredurantz: bizitzaren sostengua, biziera ona lortzera bideratutako baldintzak sortzea. Eredu horrek bizitza duina bermatuko die pertsona guztiei, eta babesgabezia, bazterkeria edo pobrezia inplikatzeko duen baliabide-banaketa oro deslegitimizatuko du. Gure proposamena da akordio sozial berriak eraikitzea, jendartea aldatu ahal izateko. Premia bizia dugu.» (Hirian.com. 2014.03.10)

Adierazpenok azpimarratzen dute, berdintasun politiken eremuan, ordura arte nagusitzen zen ikuspegi eraldatzeko borondatea. Feminismoak berdintasun plana zipriztindu zuen. Batzuentzat inflexio puntu bat izan zen, erakunde publikoetan nagusi ziren berdintasun politikoei dagokienez. Zuzendaria eta aholkularia berdintasun teknikariak izan ziren Aldundian egon aurretik, eta eremua ondo ezagutzen zuten. Horrez gain, aholkulariak mugimendu feministan parte hartzen zuten.

Ikuspegi politikoaz gain, begirada ezberdinen —teknikoa, politikoa, mugimendu zein elkarreana— artean lan egiteko eraiki ziren espazioek ere koherentzia emango zioten aurrez aipatutako ikuspegi politikoari. Lan egiteko prozedura, beraz, beste elkarlan sarea indartu zuten beste faktore bat izan zen. Zer egin eta nola egin maila politiko berean zeudela esan dezakegu. Ikuspegi horren erakusle dugu arduradun politikoaren ondorengo hitzak:

«Para mí fue muy importante, que todos esos procesos sirvieran para que de alguna manera compartiéramos un diagnóstico común de la realidad que vivíamos. Que compartiéramos la lectura de los problemas y de cómo habíamos llegado aquí: que había una crisis de cuidados, que había un crisis de reproducción social, que había gente que tenía dificultades para sacar su vida adelante. Y ver cuáles podrían ser las líneas de acción para dar respuesta a esos problemas. Que suponían en realidad un cambio de paradigma, que teníamos que reorganizar socialmente todo esto. Implicaba muchas cosas. Para mi compartir todo eso, permitió que nos corresponsabilizáramos, en distintos planos para acompañar las cosas que se iban haciendo. Y sentir que cada cual era parte de ese proceso, y que cada cual desde la posición que ocupa busca cómo dar solución al problema deliberando y diagnosticando juntas.» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Aholkulari politikoak, arestian aipatu bezala, mugimendu eta erakundeen arteko bisagra edo zubigintza lana egiten zuten, eta harremanen intentsitate maila altua izan zen. Logika zeharo ezberdinak ziren eremuen artean lankidetzara esparrua sortzeko, oinarriak eraiki behar ziren alde aurretik. Eta zubigintza lana beharrezkoa zen. Beraz, errekonozimenduak, aitortzak eta elkarentzuteak paper garrantzitsua jokatu zuten gobernantza sarean esparruen aurretik eta bitartean:

«Jendea kontutan izan, modu parte-hartzailean, jendea zaindu egin behar da, jendeak ez du sinesten, zainketa estrategia ugari egin behar dira. Joan behar zara batekin,

besterekin kafetxo bat hartu, konbentzitu. Lan piloa egiten duzu egun batean, eta etortzen dira hiru eta beste batean 30, eta desoreka eskualde ezberdinetan, baina jendearekin egotea, mugimendu feministaren aldarrikapen historikoa ezagutzea eta eragileak zeintzuk diren ikustea. Beste indar-gune politikoa izan zen, elkarte eta mugimenduaren artean.» (ELA8: arduradun politikoaren aholkularia)

Teknikari gisa aritu zirenek azpimarratzen dute, eraiki ziren espazioek potentzial handia zutela, erakunde barruan eragiteko aukerak zabaltzen zituztelako; dena dela, aurrerago ikusiko dugun moduan, partaide-tza politiko horrek erakundeen funtzionamendua baldintzatzeko zailtasun ugari izan zituen. Lan kultura berritzaile baten ernamuina zela esan daiteke. Posizio horren isla:

«Nik uste Guneak lortu zuela legitimitate bat, Aldundi barrura sartzea lortu zuen eta interlokuziorako espazio iraunkor bat zabaltzen berdintasun sailarekin, eta nire ustez horrek badu potentzialitatea, baita berdintasun sailatik haratago joateko ere.» (ELT3: teknikaria)

Lan egiteko estilo ezberdina inplementatu nahi zen hasieratik:

«Prestutasun bat zegoen maila politikoan, bai baliabideak emateko, bai ekonomikoak zein metodologikoak eskaintzeko. Nik uste ikusgarria izan zela, erabaki potente batzuetan, uste dut benetan marko hori osatu zela interlokuziorako politiketan» (ELT3: teknikaria)

Mugimenduko kideek ere aukera politiko gisa irudikatzen dute, bai Berdintasun Plana bera, baita Gunea ere. Mugimenduetako kideek arduradun politikoaren eta berarekin lanean ziharduten aholkulari eta teknikarie diskurtso politikoarekin bat egin zuten. Bereziki aipagarria da Amaia Perez Orozkok mugimendu feministako hainbat sektoreren aldetik duen aitortza eta hark ekonomiaren alorrean egindako ekarpen teoriko zein ideologikoa. Ehundura sozialeko kideek gertutasuna oso ondo baloratzen zuten. Interlokuziorako Aldundiaren atek zabaltzen zirela diote:

«Plana egiteko modua baino emaitza bera izan zen interesgarria; esan nahi dut, beharbada Estatu mailako erreferentzia gehiegi landu ziren eta Gipuzkoan lur hartzea falta zen. Dena den, proposamen batzuk oso interesgarriak izan ziren, Emakunderen marko horretatik ateratzea lortu zuen. Ekarpene handia zen *buen gobierno* eta *buen vivir* bezalako ideiak integratzea. Diru-laguntzetan ere aldaketak eman ziren eta baliabide gehiago izan ziren. Eta asko eskertzen da gertutasuna, bai zuzendariaren aldetik zein bertako teknikariena ere, sentitzen nuen Aldundira joaten nintzela *como pedro por su casa*, eta han sartzen nintzela, eta gainontzekoa munstro bat zen, baina berdintasunean sartzen nintzen eta zen espazio bat nire ere sentitu nezakeena. Lasaia, eroso.» (ELM7: mugimenduetako kidea)

«Parecía que podíamos hablar con la institución. Que las instituciones y organizaciones estábamos a un nivel más igualitario, sabiendo hasta donde podíamos llegar. Había otro ambiente de trabajo» (ELM6: mugimenduetako kidea)

Gobernantza batzordearen interlokuzio lanez gain, lan taldeetan emandako urratsak ere aspektu positibo gisa baloratu ziren. Kide batek, adibidez, Emakumeen Etxeen eta Txokoen saretze lana azpimarratzen du. Lurralde mailan zeuden espazioekin harremanetan jarri ziren eta esperientzien bilduma jasotzen zuen dokumentua egin zuten. Dokumentu hori beste esperientziei laguntzeko tresna bat zela zioten, gida moduko bat horrelako ekimen bat abian jarri nahi zutenentzat, hain zuzen. Badirudi eremu ezberdinetako praktikak eta eragileak saretzeko balio izan zuela. Hau da, eremu instituzionaletik sortu ziren lan esparruetatik harago, mugimendu eta emakumeen elkarrekin saretze bat ere eman zela espazio berrien sorrerarekin. Agintaldi horren ostean, esan behar dugu Hernanin eta Erreterian Emakumeen Etxeak sortzeko egitasmoak abiatu direla; aztertzeko dago Guneren bitartez eremu horretan eman zen saretze lanak zer eragin izan duen ekimen horien sorreran.

Aldundiak gonbidapenez zabalduetako espazioek erantzun zabala jaso zuten, bai aniztasunaren ikuspegitik, zein kopuruari dagokionez, eta espazioak berak komunitatea saretzeko baliagarria izan zela esan dezakegu.

Bestalde, gobernantza sarea ahuldu zuten faktoreei dagokionez, batzuk aipatu ditugu jada gatazken atalean, adibidez, teknikariek izan zirenak. Dena den, arriskuak edo ahulguneak identifikatzerako garaian, administrazioaren erritmo eta funtzionamendu burokratizatuak eragin zituen zailtasunez gain, mugimendu feministaren eta emakumeen elkarrekin ahultasuna aipatzen da, behin baino gehiagotan. Politikari, teknikari eta mugimenduetako kideek bat egiten dute diotenean indar gutxi zegoela, eta, beraz, eragiteko ahalmena ere mugatua zela:

«En cuanto a los riesgos y debilidades en la articulación conjunta, había muchos problemas que tenían que ver con las fortalezas y debilidades del propio movimiento. De alguna manera el propio movimiento reconozca sus propias limitaciones para liderar y acompañar procesos, incluso para tener capacidad de incidencia en la institución, porque tienes que tener mucho conocimiento; hablar por ejemplo de política fiscal y reforma de impuesto de beneficio de las sociedades es complicado. Creo que el movimiento tiene menos fortalezas de las que aparentemente podía tener para liderar procesos colectivos súper complejos» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Mugimenduak berak ere aitortzen zuen bere ahultasuna. Arrazoi ezberdinengatik, hainbat taldek jarraipena egiteari utzi zioten, eta horrek ahuldu egin zuen eragin edo aukera politikorako agertokia (Tarrow, 1997):

«Nik sentitzen nuen zailtasuna genuela lur hartzeko eremu horretan, gai horri buelta batzuk eman behar genizkiola. Inklusio sentitzen dut ez genuela talla eman. Egia da gure kasuan, ez dugula horrelako aukerarik izan eta oso berde ginala.» (ELM7: mugimenduetako kidea)

Mugimendu feministaren ahuldadea lidergotza faltarekin ere lotzen da. Horren erakusgarri dugu ondorengo aipua. Indar korrelazioa, hortaz, ez zen maila berekoa. Eremu komunitarioaren mugak agerian gelditu ziren eta eremu instituzionalean eragiteko aukera politikoa ahuldu egin zen:

«Había falta de liderazgo en el movimiento que les permitiera aglutinar y cohesionar. No había un liderazgo claro, no había nadie que hiciera ese papel y eso nos obligaba a intervenir y yo no quería tomar ese papel, pero la presidenta de Gunea necesitaba ayuda y no la encontró.» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Gizarte mugimenduaren unibertsoaren adierazlea dugu honako ahulgunea. Aktore kolektiboen berezko ezaugarriei egiten die erreferentzia horrek. Protesta zikloetan neurtzen diren indarrak ez dira elkar-lan dinamikak eskatzen zituenak. Eta dikurtso politikoaren sintonizazioak ere eragin zuen, agian, apaltze prozesu horretan. Edotan Donatella eta Della Portak (2011) dioten moduan, joko zelai eremuak hain dira ezberdinak, eremu instituzionalean aritzeko zailtasunak handiak direla mugimenduen kasuan.

Edonola ere, esperientzia honetan, esango genuke ez dela eman Estebanek (2017) aipatzen duen mugimenduaren instituzionalizazioa, mugimenduko zenbait talde ez baitira lan dinamika instituzionalean integratuko, eta euren lan ildoak lehenetsiko dituzte. Ahulguneen artean, ordea, bai aipatzen direla ja-kinduriaren hierarkizazioarekiko eta parte-hartzearen eraginkortasunarekiko (Parés, 2009) kezka ugari. Teknikariak jasotzen duten moduan, erakundeak mugimenduaz eta elkartean ezagutzaz baliatzen direla diote, eta, sarritan, gero ez dira espektatibak betetzen. Era berean, esan bezala, Gipuzkoako mugimenduaren errepasoan aipatu bezala, mugimendu feministaren protestak jendetsuak izan arren, badirudi erakunde instituzionalean iraunkorki eragiteko zailtasunak dituela.

«Mesfidantza ere bazegoen. Askok galdetzen zuten: Gero zer egingo da honekin? Guk lan handia egiten dugu eta instituzioak baliatuko dira horrekin, helburu politiko eta alderdikoetarako.» (ELT3: teknikariak)

Espektatiba handiak zabaldu ziren. Momentu batetik aurrera mugimendu eta elkartearen dedikazioaren erabilera politikoa kezka iturri bilakatu zen mugimenduko kideentzat. Administrazioak euren lana bereganatzeko arriskua ikusten zuten, sakoneko aldaketarik eman gabe.

Ahulguneetan ere, gatazkei aurre egitea kosta egin zitzaiela aipatzen dute teknikariak. Bereziki, Gunearen gobernantza batzordearen bilakaeran eta baita planak aldundiaren barne mailan egin zuen ibilbidean. Posizioen arteko talkei eta tentsioei aurre egiteko baliabide gehiago behar zituztela nabarmentzen dute. Batetik, Gunearen kasuan, espazio horren kudeaketarako adostu ziren oinarriak eta balioak —errespetua, aitortza, ordezkarritasuna eta abar— lan dinamikan zehar indarrean mantentzeko zailtasunak egon ziren. Mikro politikek (Vercauteren et al. 2010; Apodaka 2012) eragindako botere harremanek espazioa baldintzatu zuten:

«Gunearekin ez dakit non galdu genuen norabidea. Ez dakit, ez ginen gai izan gatazkei erantzuteko, gatazka egoera batean geunden galduta. Kosta egiten zait identifikatzea ze aurre baldintzen bitartez, ekidin zitekeen egoera» (ELT3: teknikariak)

«Las organizaciones no fuimos capaces ni de ver, ni de prever, ni entender. Nadie va a poder identificar en qué momento comenzó el desastre. No hubo capacidad política de las organizaciones para prever» (ELM5:mugimenduetako kidea)

Bestetik, planaren kasuan ere, Berdintasuna ez zen beste arloetako teknikarien erresistentzia eta botereari aurre egiteko ezagutza, eta baliabide gehiago behar zirela diote. Administrazioaren konplexutasunak handiak ziren, Aldundiak zituen dimentsio eta konpetentziak kontuan hartuta.

«Aldundia makro erakunde bat da eta horrek niri pertsonalki gainezka egiten zidan, gehien bat sumatzen nuen ezagutza falta gainontzeko sailekiko; momentu hartan batzuk ez ziren aliatuak eta niretzako gogorrena kontraste teknikoak izan ziren. Txikitu egiten nintzen zuzendarien aurrean.» (ELT2: teknikaria)

Ahulguneen artean, elkarrizketatuei galdetu diegunean ea esperientzia honek herri mugimenduen autonomia edo lan jarduna baldintzatu zuen, ez ditugu erantzun argiak jaso. Oro har, badirudi ez zutela mugimenduen autonomia kolokan jarri; hori bai, gobernantza batzordea osatzen zutenek lan zama handia zuten, eta adierazi dute sarritan ez zutela denborarik dokumentazio guztia irakurri, landu eta taldeekin kontrastatzeko. Gutxi batzuen lan dinamika —lan taldea gutxi batzuek osatzen zuten—, beraz, baldintzatu zuela esan daiteke:

«Sin duda condicionaba mucho. Yo de hecho no pude participar en el grupo de trabajo que llevaba todo lo que me hubiera gustado, porque el resto de gente estaba muy ocupada y yo la verdad es que no me daba ya mucho la vida. Sí que hay dificultades, a veces para participar por parte de las organizaciones, porque tenemos que hacer mil cosas.» (ELM6: mugimenduetako kidea)

30. taula: **Berdintasun Zuzendaritzaren gobernantza sareen sakontasun demokratikoa**

GOBERNANTZA SAREA	ALDAGAIK
1. Hasierako kokapena eta elkarlanerako aukerak	<p>1.1.Elkarlanerako irekitasuna</p> <p>1.2.Elkarrekikotasuna edota elkarren aitortza</p> <p>1.3. Elkarlana ulertzeko modua</p>
2. Sarearen osaketa	<p>2.1. Eragileen dentsitatea eta aniztasuna</p> <p>2.2. Informazioa eta espazioaren definiziorako gaitasuna</p> <p>2.3. Sarearen sustatzailea edo ekimenaren jatorria</p> <p>2.4. Harremanaren sakontasun maila.</p>
3. Partaidetza espazioen eta elkarlanaren joko arauak, botere harremanak eta baliabideen banaketa	<p>3.1. Elkarlanerako joko arauak eta botere harremanak</p> <p>3.1.1. Gatazkak eta aniztasuna kudeatzeko tresnak</p> <p>3.1.2. Lankidetzaren indartu eta ahuldu zuten faktoreak</p> <p>3.2. Baliabideen banaketa</p>
4. Komunitatea eta administrazioa eraldatzeko gaitasuna	<p>4.1. Administrazioaren eremuan</p> <p>4.1.1. Politika publikoetan eragiteko gaitasuna</p> <p>4.1.2. Erakundeen funtzionamendu burokratizatuak eraldatzeko gaitasuna</p> <p>4.2. Ereku komunitarioan</p> <p>4.2.1. Herri mugimenduen sarea eta partaidetza kultura indartzeko gaitasuna</p> <p>4.2.2. Eragileen arteko ezagutza areagotzeko ahalmena</p> <p>4.3. Eragin mediatikoa</p>

«Yo creo que ni debilitaron, ni fortalecieron al movimiento. Lo único que si se pudo crear una mayor conciencia de que es interesante participar, porque consiguió convertir el foro que existía en un órgano de participación.» (ELM4: mugimenduetako kidea)

«Creo que una de las crisis tenía que ver con que no se podía abordar todo y creo que es difícil acompañar procesos colectivos y luego que ellas también tengan herramientas para poder hacerlo.» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Parte hartzeari utzi ziotenek ez dute inolako baldintzapenik ikusten, bai, ordea, lan dinamikan buru belarri ibili zirenen aldetik. Ez hainbeste ikuspegia ideologikoan. Aipatzen dira gehien bat lan zamari eta eskuragarritasunari zegozkien ezintasunak.

SAKONTASUN DEMOKRATIKO TXIKIA	SAKONTASUN DEMOKRATIKO HANDIA	PARTE HARTZEAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK
	<p>1.1. Elkarlanerako irekitasun handia</p> <p>1.2. Erabatekoa. Politikarien profila nabarmentzen da.</p> <p>1.3. Elkarlana ulertzeko modu irekia eta predisposizio handia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Eremu instituzionalak mugimendu eta elkartearen eremua aitortzen zuen eta alderantziz. Aldundiaren aurretiazko elkarlana forora mugatzen zen. Lankidetzarako aukera berriak.
<p>2.2. Planaren prozesuan sektorekako eremuak eta ezagutzak elkartrukatzeko aukera gutxi.</p> <p>2.3. Sarearen sustatzailea, Planaren kasuan Aldundia; eta Gunean ere, baina aldarri historiko bati erantzunaz.</p>	<p>2.1. sare anitzak planean eta Gunean. 40 inguru. Emakumeen elkartegintza eta mugimendu feminista.</p> <p>2.4. Gunean sarearen sakontasun maila handia, Planean ez horrenbeste.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Sarea osatzeko lan handia egin zen Gunearen kasuan. Lurraldetasuna aintzat hartu zen eta emakumeen elkarte zein mugimendu feminista barnebiltzeko ahalegina egin zen. Gunea sortzeko aurre prozesuak indarrak ahuldu zituen
<p>3.1. Botere harremanak ez oso simetrikoak</p> <p>3.1.1. Erresistentzia ugari zeharkakotasuna lantzerako orduan.</p> <p>3.1.2. Gobernantza batzordearen asimetriak kudeatzeko zailtasunak eta denborak.</p> <p>3.1.2. Administrazioaren funtzionamendua sinplifikatzeko zailtasunak</p>	<p>3.1. Gunearen joko arauak partaidetza prozesuaren bidez adosteko aukera</p> <p>3.1.1. Aniztasuna presente egoteko ahalegin berezia</p> <p>3.2. Baliabide ekonomikoak bideratu ziren mugimendu eta elkartegintzaren ekimenetara.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Mugimenduaren eta Zuzendaritzaren arteko elkarriketa etengabea. Gunean talde eta lan ildo ugari zeuden. Erakundearen baitan zeharkakotasuna lantzeko erresistentziak zeuden. Lidergotza politiko argia. Mugimenduaren eta erakundearen arteko bitartekaritza lana egiteko figura.
<p>4.1.2. Erakundearen funtzionamendu burokratizatu eraldatzeko zailtasunak.</p> <p>4.1.2. Berdintasun Zuzendaritzako teknikariak agintaldi erdian sartu ziren.</p> <p>4.3. Eragin mediatiko mugatua, nahiz eta saiakera berezia egin telebista eta sare sozialetatik zabaltzeko.</p>	<p>4.1.1. Aldundiko beste sailekin elkarlana sustatzeko aukerak zabaltzea lortu zuten</p> <p>4.2.1 Mugimendu feminista eta emakumeen elkartearen arteko elkarrekotasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> Kanpoko teknikarien partaidetzak marko politikoa txertatzen lagundu zuen, baina beste sailekin lan egiteko zailtasun handiak izan zituzten. Zeharkakotasuna lantzeko ahalegin berezia egin zen. Mugimenduek zailtasuna izan zituzten gobernantza sarean eragiteko. Balibaideen bitartez hainbat ekimen babestu ziren. Gipuzkoa mailako saretze lana egin zen.

Iturria: Egileak berak egin.

4.4.7. Ingurunea –administrazioa eta komunitatea– eraldatzeko gaitasuna

Ondorengo atal honetan, agintaldian zehar eman ziren lankidetzak esperientziak ingurunean izandako eragina aztertuko dugu. Bi norabideetan: batetik, eremu instituzionalean, ea politika publikoetan edota administrazioaren funtzionamendu logika eraldatzeko gaitasunik izan ote zuten ikusiko dugu. Eta bigarrenik, eremu komunitarioan, ea mugimendu eta elkartegintza indartzeko edo kontrako eragina sortu duen aztertzen saiatuko gara. Gobernantza sareek komunikabideetan ere izandako eragina kontuan hartuko dugu, atal honetan.

Gobernantza sareek administrazioaren eremuan, eta zehazki politika publikoetan eragiteko ahalmena izan zuten edo ez aztertzerako momentuan, intelokuziorako espazioek baino, lidergotza politikoak eragin handiagoa izan zutela uste dugu. II. Berdintasun Plana ziprztintzen duen pentsamendu politiko feminista azpimarratuko dute elkarrizketatu gehienek, eta ikuspegi edo bisio politiko hori eragile ezberdinek elikatu zutela esan daiteke; ikuspegi politiko batetik berritzailea izan zen. Ordura arte, berdintasun eremuan zeuden politiken ikuspegia eraldatuko ditu erabat.

«Taldeen baino, feminismoak eragin zuen, arduradun politikoa feminista izatea, bere aholkularia mugimendu feministako aktiboa izatea, teknikariak feministak, izatea. Ikuspegi feministak indar handiagoa zuten taldeen baino» (ELM7: mugimenduetako kidea)

«Oso posizionamendu politiko zehatzetatik egiten dela, nik uste dut profesional bezala berdintasun alorrean ari garenontzat izan zela, uffa, zaintza, bizia... Guzti hori izan zela la izugarria, emozionatzen naiz orain ere!» (ELT2: teknikaria)

Ikuspegi politikoak bat egiten zuen bizitza erdigunean jartzeko aldarriarekin. Ekonomia feministatik (Orozco, 2011; Carrasco, 2006) zetozten perspektiba politiko eraldatzaileak txertatu nahi izan ziren Berdintasun Planean. Ikuspegi berritzailea erakunde instituzionalen eremuan, erabat.

Halere, ikuspegi politiko hori txertatzeak Aldundiko beste alor guztiei eragiten zien, eta alde zuzenetik aipatu bezala, departamentalizazioak eta burokratizazioak bidea zaildu zuen. Politikoki beste eremuetan eragiten ari zen, eta ez zegoen kabinetearen lehentasunen artean. Alegia, Zuzendaritzak zuen bisioa politikoa ez zetorren bat beste alderdietatik ardura politikoa zutenekin:

«Zuzendaria da erdi politikari teknokrata bat, figura hori. Eta gero daude diputatuak; diputatuak dira zure defendatzaile politikoak, eta horiek joan behar dira partidura eta borrokatu egin behar dute. Berdintasuneko bazara, borrokatu behar duzu zure eremua beste guztien aurrean. (ELA8: arduradun politikoaren aholkularia)

Beraz, eremu instituzionalean plano politikoan eta administratiboan eragiteko zailtasunak nabarmenak izan ziren. Politikarien aginte lerroan, lehentasun politikoaren artean ez zegoelako, eta eremu instituzionalean, berdintasun planaren kasuan, beste eremuetan suposatzen zituen aldaketengatik, eta bestela ere erakundearen logika arautzaile eta zurrunagatik:

«Nik uste sekulako ez-egagutza dagoela instituzioen funtzionamenduen inguruan, pentsatzen dugu erraza dela, eta exijenteak gara, eta nik ulertzen dut; ni ere herri

mugimenduetatik natorrelako, eta nahi dugu erakundeak gure aginduetara edo gure nahien menpe egotea, uste dudalako neurri handi batean haien lana dela. Baina gero hor zaudenean oso konplexua da instituzioen funtzionamendua eta herri mugimenduetatik ez dakigu nola funtzionatzen duen eta oso zorrotzak gara. Nahi dugu orain, horrela eta gainera esfortzurik gabe.» (ELT3: teknikaria)

Norabide horretan, instituzioaren mugak alde aurretik zeintzuk diren argi azaldu behar direla diote, frustrazioak saihesteko. Eta era berean, parte-hartze instituzionalaren mugak ere alde aurretik bistaratzea ezinbestekoa dela azpimarratuko dute askok. Edonola ere, arduradun politikoen arabera, eremu instituzionalaren zailtasunak zailtasun, lan egiteko kultura demokratizatzaile baterako oinarriak ezarri zirela, eraldaketarako gaitasuna zuena:

«Tengo la sensación de que la experiencia ha servido para poner en valor que hay otro paradigma desde el que trabajar desde las instituciones y que se pueden poner al servicio de otro modelo. Creo que las políticas de igualdad nunca han incidido en todas las cuestiones de redistribución de la riqueza por ejemplo. Y que habría que mirarlas también desde esa óptica, para contribuir a otra organización social a través de las políticas públicas». (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Eremu komunitariora salto egiten badugu, eraldaketa eremua indartzeko ere baliagarria izan zen. Baliabide ekonomikoaren bitartez, mugimenduen hainbat lan-ildo indartzeko aukera zabaldu zen, hala nola, Aldundiak mugimendu feministak sustatu zuen *Gure Genealogia Feministak*⁸⁵ (2015) liburuaren argitaratze lanetan lagundu zuen. Diru-laguntzen partida ere zabaldu eta handitu egin zen. Halaxe zioen mugimendu feministako kideak, baliabide ekonomikoaren inguruan: «Diru-laguntzak eta baliabideena ere aipatuko nuke. Gurekin egin zen inbertsioa orduan idazten ari ginen kronikarekin» (ELM7: mugimenduetako kidea). Finean, ekonomikoki arduradun politikoak aipatzen duen subsidiaritate printzipio horren arabera, Administrazioaren baliabideak emakumeen elkarrekin eta mugimendu feministan ziharduten lan ildoak babesteko ahalegina ere egin zen.

19. irudia: ***Gure genealogia feministak* liburuaren azala eta liburuaren aurkezpenarekin batera antolatatu zen erakusketaren aurkezpena**



Iturria: Diario Vasco 2015.04.29)

85 *Gure Genealogia Feministak* (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015) liburua Aldundiaren laguntza ekonomikoa jaso zuen. Hitzarmen baten bitartez, proiektua babestu zen eta artxibategi feminista ere sortzeko asmoa zegoen. Argitalpenarekin lotutako ikerketa lana Koldo Mitxelena liburutegian erakusketa iraunkor batean ikusgai egon zen.

Bestetik, interlokuziorako espazioetan mugimendu eta elkarteen arteko elkar aitortzarako ere baliagarria izan zela aipatzen dute askok. Artikulaziorako modu bat izan zen, neurri handi batean, nahiz eta eremu instituzionalaren norabidean izan, Aldundiak deialdi zabalak egiten zituen, eta sarearen dentsitateak eta aniztasunak ere komunitatearen nortasuna eta elkarrekikotasuna indartu zuen. Ikuspegi horren erakusle dugu ondorengo pasartea:

«Que las organizaciones podemos trabajar conjuntamente, creo que a veces nos faltan espacios o no sabemos organizarnos.» (ELM6: mugimenduetako kidea)

Eragileen arteko aliantzarako eta konplizitate sare berriak sortzeko ere baliagarria izan zen. Mugimenduen arteko konplizitateari, teknikariena eta politikariena ere gehitzen zitzaizkion.

«Alianzas con otras organizaciones, es para lo que sirven estas cosas. Conoces a otros grupos y ya te intentas organizar fuera de las instituciones». (ELM6: mugimenduetako kidea)

«Nos permitió conocer y trabajar espacios comunes, con organización que antes por ejemplo no habíamos visto. Y desde ahí mantenemos una relación con otros grupos» (ELM5: mugimenduetako kidea)

Taldeen arteko aliantzak eta konplizitateak eremu komunitarioa indartu zuela aipatzen dute mugimenduetako kideek. Konspirazio politikorako gune gisa definitzen dute hainbatek. Mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak elkarrekin aritzeak pluraltasun politikoaren bisioa sakondu zuen. Horrekin batera, emakumeen parte-hartze politikoari ikusgarritasun handiagoa eman zitzaion, eta partaideek ere horren kontzientzia hartzeko baliatu zutela esan daiteke. Hau da, komunitatean partaidetzaren dimentsio sinbolikoa trinkotu zela:

«Sirvió para que algunos grupos de mujeres vieran la necesidad de crear un espacio de participación de mujeres» (ELM4: mugimenduetako kidea).

Halaber, esperimentaziorako gune gisa ere definitu dezakegu. Ordura arte, Gipuzkoako Foru Aldundian zabaldu ez ziren dispositiboak eta lan egiteko modu berriak inplementatu ziren. Esperientzia bera ikasketa prozesu bat izan dela dio arduradun politiko batek:

«La cuestión era también como íbamos buscando juntas la manera de ir dando respuesta a los problemas al tiempo que íbamos aprendiendo de ellos. Y con la tranquilidad de decir estamos en proceso, hay que ir haciendo ajustes, no pasa nada, vamos aprender de todo esto.» (ELP1: Aldundiko arduradun politikoa)

Azkenik, atal honekin amaitzeko, gobernantza sareek komunikabideetan izan zuten eragina aztertuko dugu. Aldundiak oihartzun mediatiko handia izan zuen, aldaketa politikoaren ondorioz, eta berdintasunaren interlokuzio espazioen sorrerak eragina izan zuen komunikabideetan, baina ez agenda politikoa baldintzatzeko beste. Interesgarria da komunikatiboki Berdintasun Zuzendaritzak abiatu zuen ildoak. Aldundiaren domeinuekin atal⁸⁶ berri bat sortu zen, komunikatiboki lanketa berezia egin

86 Aldundiaren lan jardueraren berri emango zuen gunea zen, bertan prozesuen lan dokumentuez gain, berriak eta bideo laburrak jasoko dira: <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/fr/gunea-berriak/-/journal_content/56/73267/147193?refererPId=73605>

zen, eta horretarako kazetari baten laguntza izan zuten. Euskarri ezberdinak abian jarri zituzten: telebista kanal bat —gerora itxi egin behar izan zutena—, bideo labur ugari sortu ziren, baita Berdintasun Zuzendaritzaren *branding* edo marka politikoa. Dimentsio komunikatiboaren lanketak ere arazo ugari izan zituen barne mailan; estrategia komunikatiboaren diseinua hurbila eta dinamikoa egin nahi zuten, baina ez zen ondo ikusten horretarako bideratzen ari ziren baliabideak.

«Beste gatazka bat komunikaziokoa: web gunea atera behar genuenean eman zena. Kazetari bati eta Bartzelonako komunikazio talde bati laguntza eskatu zitzaion eta prestatu zuen web gunea, eta hor zegoen tentsio bat, zerrri eman ahotsa web gune horretan, eta kazetariari ezetz esan zioten eta utzi egin zuen. Hor izan zen beste gatazka bat. Eta telebista hasi zenean ere... Eta azkenean kazetariak utzi egin zuen. “Twit bat bidaltzeko pasa behar diot pertsona bati orrialde batean, jarriko ditudan twitak” eta kazetariak ez zuen horrela lan egin nahi.» (ELA8: arduradun politikoaren aholkaria)

Edonola ere, berdintasunaren eremuko gobernantza sareek presentzia mediatiko altua izan zutenik ezin dugu esan. Beste eremuek ez bezala, dimentsio komunikatiboa bereziki jorratu zuten barnetik eta horren erakusle dugu aurrez aipatu dugun Aldundiko atari digitala. *Branding* politikoa eraikitzeko ahalegin gisa definitu daiteke. Bertan, gobernantza sareen berriak, aktak eta ikus-entzunezkoak jasotzen dira. Erakusle hori emakumeen partaidetza sarea zabaltzeko tresna ere izan zela uste dugu. Alegia, abian zeuden elkarlan dinamikak ikusarazteko eta emakumeen parte-hartzea balioan jartzeko modua zen.

«Berdintasuna telebista⁸⁷, adibidez. Material pila bat egin genuen, hori gero konfliktu bat izan zen. Departamentuak komunikazioan diru pila bat gastatzen zuelako. Eta Aldundiko komunikazioa dioena da, daukagu departamentua komunikazioarena eta zuek gastatzen ari zarete diru pila bat komunikazioan, eta ya baina zuek ez duzue komunikatzen guk behar duguna. Guk komunikazioa dirua sartzea zan marka bat sortzea, baina ez ziguten utzi, telebista bat genuen eta moztu egin ziguten. Moztu zuten dena, eta guk momentu guztian bai telebistarekin, komunikazioan geunden.» (ELA8: arduradun politikoaren aholkularia)

Ahalegin berezia egin zen, Berdintasun Zuzendaritzaren orduko lan jarduna herritarrengana hurbiltzeko, eta, bestetik, emakumeen partaidetzarekin eta feminismoarekin lotura zuten gaiak sozializatzeke.

4.4.8. Sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa elikatzen jarraitzeko desafioak

Analisiarekin amaitzeko, sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa elikatu dezaketen aldagaiak bildu nahi izan ditugu. Neurri batean, oraingoan, lankidetzaren esparruen desafio nagusiak zeintzuk diren identifikatzeko ahalegina egin dugu. Hortaz, hurrengo lerrootan, ikuspegi politiko, tekniko zein militante baretik, aurrera begira, demokratizazio prozesuetarako baliagarriak izan daitezkeen aspektuak biltzen dira.

Herri mugimenduetatik etengabe gailendu den desafioa litzateke euren lana gehiago aitortu beharko luketela, ezkerreko gobernuak eta baita indar politikoak ere. Demokratizatorako estrategikoak (McA-

87 Hauxe da sortu zen Berdintasuna telebistaren lotura: <<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/fr/tv>> Bertan, feminismoarekin eta Berdintasun Zuzendaritzak egiten zituen jarduerak jasotzen dira.

dam, Tarrow eta Tilly, 2005) diren neurrian, gobernuek entzuketa aktiborako neurrietan edo dispositiboetan gehiago sakondu behar dutela, eta mugimenduaren lanaren aitortzarekin batera, euren lan jarduna babestea eta laguntzea ezinbestekoa dela, baliabide ekonomiko zein bestelakoen bitartez. Era berean, mugimenduetako kideek ezkerriari ausardia politiko handiagoa eskatzen diote, eraldaketarako irmotasun eta konpromiso handiagoa, bai eremu instituzionalean jorratu beharreko lan ildoetan, zein oposizio politikoaren konfrontazioaren aurrean. Erakundeen funtzionamendua formaz aldatu baino, sakoneko funtzionamendua eraldatzeko ahalegin handiagoa egin beharra dagoela aipatzen da:


«Nik uste dut edozein politika bermatu ahal izateko ezkerreko gobernuak hasi behar direla pentsatzen normalean denbora gutxirako heltzen direla gobernura eta orduan *tienen que estar pensando en el rearme*. (...) Gipuzkoan pasa dena da lotsagarria, egon den eraso biolentoa, eta horri erantzun behar zaio. Kontraerasoan pentsatu beharra dago.» (ELT2: teknikaria)

«A veces me parecían inocentes. Creo que les ha faltado un poco mas de valentía. Yo creo que tenían miedo.» (ELM6: mugimenduetako kidea)

«En Ermua, el movimiento era fuerte, la técnica era feminista y la concejala también, y ahí se consiguió la primera casa de mujeres de Euskal Herria. Realmente cuando se conjugan las tres instancias, se consiguen avances importantísimos.» (ELM4: mugimenduetako kidea)

Azpirarratzekoa iruditu zaigu mugimendu feministako kide batek azken aipu horretan dioena. Azken batean, demokratizazioan sakontzeko baldintzarik egokienak, mugimendu indartsu bat, aldeko lidergotza instituzional argia eta alor teknikoaren arteko sintonia eta lankidetzaz litzatekeela elkarlan eremurik emankorrena, kasu honetan, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean politikoki eraginkorrak izateko.

20. irudia: **Sakontasun handiko demokratizaziorako aurre baldintzak**



Iturria: Egileak berak egina

Bestalde, modu esanguratsuan ere jaso dugu elkarrizketatu hainbaten kezka, erakundeen eraldaketarako duten gaitasuna zalantzan jartzen duena. Hau da, batzuen arabera, erakundeek demokratizazioarako aukera gutxi eskaintzen dituzte, eremu horren izaera arautzaileagatik eta funtzionatzeko molde zurrungatik. Esperientzia honek agerian uzten ditu araututako prozeduretatik harago dauden inputak barnebiltzeko zailtasunak eta lan moldeak eraldatzeko dauden erresistentziak. Ondoko diskurtsoa dugu ildo horren erakusgarri:

«Nik egia esanda, uste dut, instituzioek aukera gutxi ematen dutela eraldaketarako, esperientzia ikusita, oso mugatua dela esango nuke. Agian tristea da hau esatea, baina bizitakoa bizi ondoren. Beste nonbaitetik etorri behar dira eraldaketa sozialak, eta arriskutsua da oso herri mugimenduak ezkerreko gobernuari begira egotea edo gure indarrak bolkatzea haiei demandak egiten neurri batean. Ze benetan, bide horretatik gutxi lortu daiteke. Nik benetan ikusi dudala zuzendariak ahal zuena eta dena emanda ere, erakundeen zurruntasuna apurtu eta behar batzuei erantzutea oso zaila dela.» (ELT3: teknikaria)

Alegia, ikuspegi horren arabera, gobernantza sareen balio demokratizatzailea zalantzan jarriko da, administrazioaren logikak zaildu egiten baitu partaidetza politikoaren bidea. Ikuspegi honen arabera, demokratizazioa batik bat, ekintza kolektibotik dator eta ez hainbeste erakundeetatik.

Ordezkarri politikoen aldetik, ordea, bestelako begirada bat proposatzen da, ibilbide instituzionala beste era batean jorratzearen aldekoa. Horretarako, zenbait gako identifikatu ditugu, aurrera begira landu litezkeenak. Batetik, komunitatearen eta administrazioaren arteko elkarlana demokratizatzailea izateko, eraldaketa prozesuen bidelagun izan beharko luketela aipatzen da, eta horretarako, ezinbestean agenda komun bat adostu beharko litzateke. Alegia, herri mugimenduen lehentasunak aintzat hartuko dituen agenda instituzionala eraikitzea proposatzen da. Agenda adostu horrek elkarrekiko aitortza eta etengabeko elkarrizketa eskatzen du. Norabide horretan egindako ekarpenak ugariak izan dira elkarrizketatuen artean:

«Yo creo que un gobierno de izquierdas tiene que pensar en cómo acompañar los procesos de cambio social con los movimientos sociales. Y eso no es de la política de igualdad, eso forma parte de un gobierno en su conjunto. Creo que eso ya en sí mismo es un reto. Y que no se construye la agenda solo en el gobierno, sino que se construye antes. Que el propio trabajo de un partido que quiere ser un movimiento, no una parte de la sociedad, sin un movimiento de cambio que aglutine. Creo que hay que pactar cual va a ser esa agenda de trabajo común y cuál va a ser el acompañamiento de cada cual para hacer los procesos. Para poderse comprender cada cual en su lugar y hacerlo desde la corresponsabilidad.» (ELP1: arduran politikoa)

Elkarlanerako baldintzak sortu behar direla dio begirada honek, eta horretarako konfiantzatik eta elkarrekiko aitortzatik abiatzeko jarraibideetan egingo dute azpimarra. Ezkerreko alderdien eta herri mugimenduen arteko harremanari ere egiten zaio erreferentzia. Elkarreragina edota elkar elikatzea, gobernugintzatik kanpo ere sustatu beharko litzatekeela uste dugu. Bestalde, konfrontazioaren logikatik eraikuntzaren logikara salto egitea oinarritzakoa da, eta eztabaida hori zabaltzea erronka handia litzateke, eta beharrezkoa eremu horretan.

Perspektiba honen baitan korapilo bat atzematen da, oso lotuta dagoena Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoarekin, eta baita ezker abertzaleak bizi izan duen *apartheid* politikoarekin «Oso garai zailetatik

gentozen, ilegalizazioak utzitako ajea handia baitzen. Ilegalizazio garaian ez genuen zubi handirik erakundeekin eta ez zegoen nola bideratu oso modu errazean»(ELM7: mugimenduetako kidea). Hala jasotzen dute teknikari, politikari eta mugimenduko kideek ere:

«Euskal Herrian ilegalizazio fase batetik gatoz eta bat-batean elkarrekin lan egin behar genuen, orduan iruditzen zait izan zela *como un elefante en una cacharrería*. Guk ez genuen ezagutzen instituzioa eta herri mugimenduek ezta ere, eta lan egiteko markoa oso arrotza zen» (ELT3: teknikaria)

«¿Dónde nos vamos a situar como movimiento? Yo creo que es un poco abrir la caja de pandora. Es un súper reto abrir esa discusión. Yo creo que hay una parte del movimiento en Euskal Herria que se ha construido desde la autonomía de las instituciones, pero creo que hay que abrir ese debate para ver qué papel se quiere tener en el diálogo con las instituciones» (ELP1: arduradun politikoa)

Eztabaida horretan ere herri mugimenduaren lan jardunari ere zeregin batzuk esleitzen zaizkio, hau da, elkarlanaren alde daudenen artean, politika publikoen eremuan, non eta zertan eragin daitekeen aztertzea, helburu zehatzera ekartzeko. Norabide honetatik, proposatzen da elkarte eta mugimenduen parte-hartzeari dagokionez, demokratizazioarako ildo politiko nagusiak elkarrekin eztabaidatzeko aukera:

«Herri mugimenduen erronka ere bada lurreratzea gauzak urtez urte, eta ez hainbeste ideia orokorretatik, baizik eta proposamen zehatzak egitera: bueno, aurten hau lortu nahi dugu, ba goazen... Gauzak neurgarriagoak, iruditzen zaidalako era horretan hobeto ulertuko garela. Alegia, estrategia partekatua lau urteetarako.» (ELM7: mugimenduetako kidea)

«El papel de los movimientos debe ser observar, apoyar y criticar. Creo que tiene que ser las tres cosas. Combinadas.» (ELM5: mugimenduetako kidea)

«Herri mugimenduetako kideoi badagokigula demandak egitea eta exijitzea, baina horrek ez du suposatzen energia asko. Izan ere, benetan ez da hor daudenak ez dutelako kontuan hartuko, baizik eta markoak berak ez du ahalbidetzen, benetan gure ahotsa presente egotea energia kostu gutxirekin.» (ELT3: teknikaria)

Erakunde eta gizarte ehunduraren arteko elkarlanaren aldeko posizioa mantentzen dutenen artean, instituzioen logika eraldatzeko beharraz ere aritu dira. Begirada horien aburuz, erakunde publikoen zurruntasunak, erritmoak eta prozedurek ez dute batere laguntzen bi eremuen arteko lankidetzara esparruetan «Lanerako bi eremu zeharo ezberdinak dira, eta lan egiteko oso modu ezberdinak dituzte, askotan ezjakintasun horrek mesfidantza sortzen du» (ELT2); eta, beraz, instituzionalitate berri baten premia dagoela azpimarratuko dute:

«Creo que habría que reinventar toda la institucionalidad, pero claro habría que plantear una transición, porque no puedes cambiar una institución súper jerárquica y muy burocratizada de un día para otro. A lo mejor es más factible, si sabemos un poco hacia donde, empezar a implementar desde ahí, tanto a nivel organizativo como de prácticas de las formas de hacer las cosas.» (ELP1: arduradun politikoa)

«Hor dago lan ildo bat *'cambio organizacional'*, beharrezkoa dena. Moldatu behar dira departamentuak, denak izan behar gara transbertsalak, eta funtzionatzen dugu atomizatuta, bakoitzak daki bere gaiez eta ez du nahi bestea sartzerik. Batzuetan gauza gehiegi egiten ditugu, eta horregatik behar du jendea sartzen dena kirolean, berdintasun teknikariak IBEFetik, hor dugu masterra eta sartu departamentuetan, badare lan unitateak, baina horiek dira burokratikoak. *Les encanta con un decreto buenisimo, y un lenguaje como los romanos ostia, es un horror... No hay por donde cogerlo*, behar dugu beste hizkuntza bat. Benetan.» (ELA8: aholkulari politikoa)

Agerian gelditu da esperientzia honen bitartez, administrazioaren antolaketa eta kudeaketa ereduak eraldatu beharra dagoela, ikuspegi burokratikoetatik aldendu eta bestelako lan kultura bat ezartzeko. Sare gobernantzak zeharkakotasuna osagarri gisa ezinbestean behar du.

Finean, instituzioen logika prozesu hauen zerbitzura jartzeak, orain arte identifikatu diren zailtasun eta erresistentzien berrikusketa lekarke. Eta halaxe azaltzen dute erakundearen barne funtzionamendua gertutik bizi izan dutenek.

21. Irudia: **Erakunde eta sare kritikoaren elkarlanaren baitan agertu diren posizioak**



Iturria: Egileak berak egina

4.5. Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren gobernantza sarearen ezinak eta eginak

Jarraian, ikerketa honen bigarren kasua aztertzea goaz. Bertan, 2011an abiatu zen legegintzaldiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua izango dugu aztergai, eta batik bat bertatik garatu ziren elkarlanerako eta partaidetzarako espazioak; nagusiki, hiri hondakinen kudeaketa eremua aukeratu dugu, Departamentuaren baitan partaidetzarako espazioetan ugariena izan zelako. Gure asmoa da aipatutako gaiaren alorrean ziharduten herri mugimenduen, teknikarien eta arduradun politikoen arteko hartu-emanak sakonki aztertzea, edo beste era batera esanda, partaidetza mekanismoen sakontasun demokratikoa xehetzea. Ingurumen eta Lurralde Antolaketaren eremuak, Berdintasun Zuzendaritzak ez bezala, eztabaida handia sortu zuen. Eremu gatazkatsu bat izan zela esan dezakegu, Bilduren gobernuak aurreko legegintzaldietatik zetorren azpiegitura bat geldiarazi baitzuen, erraustegiarena⁸⁸, hain zuzen ere, eta erabaki horrekin batera Gipuzkoako hainbat udalerritan atez ateko⁸⁹ hondakinen bilketa-sistema ezarri zuten. Bilduren 2011ko udal eta foru hauteskundeetako programak zioen hiri hondakinak gutxitzea, berrerabiltzea, birziklatzea eta errauste plantari atzerapen bat ezartzeko asmoa zegoela. Petxarromanek dioen moduan (2012:97), neurri horrek bi gauza hauek agerian uzten zituen: batetik, birziklatze tasarik onenak emango zituen sistemaren aldeko apustua egingo zutela, eta, bestetik, errauste plantaren proiektuari atzerapena ezarriko ziotela. Azpiegituraren atzerapena bat zetorren hainbat mugimendu ekologisten aldarriarekin, erraustegia geldiaraztearen asmo politikorekin, hain zuzen. Izan ere, 2002aren abenduaren 17an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diputatuen kontseiluan, Eusko Alderdi Jeltzaleak onartu zuen Hiri Hondakinen Plan Nagusia (GHHKPO euskaraz, eta PIGRUG⁹⁰ gazteleraz), eta planak errauste plantak abian jartzea zekarren:

«2002ko PIGRUGean bi edo hiru erraustegi aurreikusten ziren. Bat Donostialdean eta bestea Txingudin. Lehenengo proiektua edo kokalekua aipatu zuten Urnietan izango zela eta hor jada sortu zen errauste plantaren kontrako lehenengo plataforma, Arnasa. Urnietatik, segituan pasa zuten Aritzetara. Kokalekuaren bueltan mugimendu ugari sortu ziren, eta horiekin batera errausketaren kontrako plataforma». (ELKAZI:kazetaria)

Beraz, esan daiteke Bilduren programak, eta hortik eratorriko ziren gaikako hondakinen bilketa sistemak errauste plantaren kontrako mugimenduen aldarriari erantzuten ziola. Arestian aipatu bezala, errausketa plantak izan duen genealogia jaso dugu hurrengo lerrootan, kasu analisia testuingurutzeko.

Elkarlan eta partaidetza espazioen analisiarekin abiatu aurretik, hiri hondakinen gaiak izan zuen bilakaera labur azaltzea beharrezkoa ikusten dugu. Gure bigarren kasu analisiaren bilakaera oso baldintzatuta baitator aurreko legegintzaldietan adostutako Hiri Hondakinen Plan Nagusitik. Hortaz, lehenik, erraustegiaren nondik norakoak bere hastapenetatik aztertuko ditugu, gatazka honen osotasuna kontuan hartzeko. Horretarako, aurreko legegintzaldira jo behar dugu.

88 Erraustegia hiri hondakinak erretzeko labe instalazioa da.

89 Atez ateko hondakinen sistema, hondakinak biltzeko modu bat da, non herritar bakoitzak etxean bereizten ditu hondakinak —organikoa, papera, plastikoa eta bestelako materialak—, eta egutegi zehatz baten arabera, atez ate biltzen da zaborra gaika sailkatuta. Petxarromanen (2011:108) arabera, atez ateko sistema bilketa Usurbil, Oiartzun eta Hernanin abian jarri zutenetik, % 20 birziklatzetik % 80ra igaro dira.

90 Gipuzkoako Foru Aldundiak 2002an onartu zuen Hiri Hondakinaren Plana. Laburdurak gaztelerazko izenari egiten dio erreferentzia. Halaxe jaso eta aipatzen da, ikerketa lan honetan jasotako dokumentazio eta elkarrizketetan. PIGRUG: Plan integral de Gestión de Residuos Urbanos.

Aurrez aipatu bezala, 2002ko abenduaren 17an onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak 2002-2016 Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Nagusia⁹¹; plan hartan jaso zen erraustegiak egiteko helburua. Hasieran batean Urnietan jarriko zela iragarri zuten, eta, ondoren, Txingundin. Halaxe dio Planak:

«Masa hondakinen, HUAko lohien eta hondarren energia berreskuratzen duen errausketarako energia balorizatzeko bi (2) instalazio, errausketa prozesuetan sortutako errauskak egonkortzeko instalazio bana barne. Instalazio bat (1) Donostialdea-Tolosaldea korridorean kokatuko litzateke, eta San Markos Mankomunitatearen masa hondakinak eta HUAko lohik zein Gipuzkoako Mendebaldeko AMBko instalazioaren hondakinetatik deribatutako erregaia (HDE) tratatuko lituzke; bestea (1) Txingudi inguruan kokatuko litzateke, eta Txingudiko Mankomunitatearen nahiz Hendaiko Udalerriaren masa hondakinak eta HUAko lohik tratatuko lituzke.» (Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorra, 2002:172)

Azpiegituraren kokaleku ezberdinek eztabaida handia piztu zuten. Izan ere, espazio horietan berehala sortu zen azpiegitura horren kontrako jarrera, ez soilik mugimenduen aldetik —orduan sortu baitziren adibidez erraustegiaren kontrako Arnasa edo Txingudi plataformak—, tokiko udal ordezkariak ere berehala azaldu zuten euren oposizioa; horietan lehenengoetarikoa, adibidez, litzateke Maite Pagazartundua Urnietako Euskadiko Alderdi Sozialistaren zinegotzia (Petxarroman, 2012:31). Kokalekuaren eztabaidarekin batera, arestian aipatu bezala, bi erraustegi⁹² egiteko asmoa zutela iragarri zuten: bata, Hondarribian eta, bestea, Urnietan. Luis Mari Oiartzabal izan zen 2003tik 2007ra Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko diputatua. Gaia ikertu duen kazetariaren arabera arabera —gaia ikertu duen Berriako kazetaria—, kokalekuaren kudeaketa traketsak errauste plantaren kontrako plataformak ugaritu zituen. Urnietako kokapena alde batera utziko zen, eta gerora balizko bederatzik kokaleku aipatu ziren.

Nimby efektua aipatzen da (*Not In My Back Yard*- ez nire etxeko baratzean edo patioan, euskaraz) hondakinen kudeaketaren politikak eragin zituen erantzunak aztertzerako orduan. Alegia, azpiegituren kontrako jarrera nagusitu zela, baina sakoneko irtenbiderik gabekoa. Dena dela, interesgarria iruditzen zaigu ere aipatzea, sozio-ingurumen gatazka⁹³ gisa (Martínez-Palacios, 2011) ere interpretatu eta aztertu daitekeela, demokratizaziorako eta parte-hartze kultura indartzeko fenomeno moduan ulertuta. Aztertu dugun kasua gehiago hurbiltzen da bigarren ikuspegi honetara, aurrerago ikusiko dugun moduan. Zenbait alderdien jarrera edo posizionamendua hurbilago legoke *Nimby* fenomenotik, tokian tokiko gizarte eragileek izan zutena baino. Alabaina, herri mugimenduek erraustegiaren kontrako jarrerarekin batera, hondakinen kudeaketarako alternatibak landu zituzten, eta gaikako bilketa-sistema testuinguru horretan kokatzen da. Erraustegiaren alternatiba gisa, hain justu.

91 Planaren xehetasunak ikusteko: <http://www4.gipuzkoa.net/medioambiente/dpro/doc/es/O9txostena_aurretiako_kontsultak_eus.pdf>

92 Erraustegiaren kokapenak sortu zuen tirabirak eta era horretako bi azpiegiturek behar zuten zabor kopuru handia ikusita, Txingundin bigarrena kokatzeko aukera baztertu egin zen denborarekin.

93 Interesgarria da norabide horretan, Jone Martínez Palaciosen 2011an egindako tesian jasotzen duen definizioa eta sailkapena. Halaxe dio hark: «Gatazkek oro har, eta sozio-ingurumen gatazkek zehazki, demokraziaren izaera itxiarekin eta zehaztuarekin haustura bat suposatzen dute. Lehen esan bezala, pluralismoaren erakustaldiak dira eta zentzu horretan demokraziaren ibilbide berrietan sakontzeko eta jorrazteko abagunea da. Mekanismo parte-hartzaileak sortzeko eta herritarren parte-hartzea litzateko, demokrazia saretzeko eta sakontzeko —aktoreen arteko harremanak sortzeko; instituzio-hiritar; hiritar-hiritar, e.a.—, zoriz, ibilbide demokratikoaren sakontasuna eraikitzeko.» (2011:59)

Hondakinen kudeaketan arduradun politikoen aginte lerroetara jotzen badugu, erraustegiaren kokapena adostea Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Jarraipen Batzordeari zegokion, eta 2004an, Aritzetan jartzea erabaki zuen. Kokalekuak eztabaida ugari sortu zituen udalerrri, Mankomunitate eta Aldundiaren ordezkarien artean, bereziki Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren artean. EAJko Roman Suduperen (San Marko Mankomunitateko lehendakaria) eta orduko Donostiako alkatea zen Odon Elorzaren⁹⁴ arteko konfrontazioaren ostean, Luis Mari Oiarbidek (EAJ) Gipuzkoako Garapen Iraunkorreko diputatu nagusiak, Aritzetako kokalekua zalantzan jarri zuen. Azkenean, tirabira askoren ostean, 2007ko urtarrilaren 30ean, Donostiako udalbatzak onartu zuen errauste planta Zubietan jartzea. Udalbatza hura, aurretik iragarri gabe zegoen eta premiazko prozeduraz eraman zuten. Orduko udalbatzako gai ordenaren dokumentuan, gai zerrendatik kanpo jasotzen zen. Horren erakusle ondorengo pasartea:

«Aprobación del Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián y las Mancomunidades de Debagoiena, Debabarrena, San Markos, Sasieta, Urola-erdia, Urola-kosta y Tolosaldea para la definición del futuro de la gestión de los residuos urbanos de Gipuzkoa.»
(Donostiako Udal Batzarreko Gai zerrenda, 2007:4)

Errauste plantaren kokalekuen ibilbide liskartsuak kontrako mugimendu ugari sortu zituen —Urnieta, Donostia, Txingudi, Lasarte eta abar—, eta horiek guztiek erraustegiaren aurrean alternatiba bat jarri zuten mahai gainean, atez ateko bilketa sistemarena. Usurbil udalerrria izan zen, sistema berri horren lanketan eta inplementazioan aitzindari. Alternatiba hori, gaur egun, 1.800 hiri eta herritan (Petxarroman, 2011:110) zabaldua dago, eta 18 miloi biztanleen hondakinak kudeatzen dira sistema horren arabera. Kasu guztietan, % 70etik gorako birziklatze tasa ematen da. Eztabaida eremu horretan, erreferentzia gisa etengabe aipatzen da hondakinei buruzko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentaraua⁹⁵, (espainiar araubide juridikoan jasota dagoena); horren esanetan, hondakinen prebentzio eta gestiorako politikak eta legeria gauzatzeko momentuan, hurrenkera hau hobetsiko da hondakin politikak garatzekoan:

22. irudia: **Hiri hondakinen politikarako kudeaketa ereduak**



Iturria: Egileak berak egina, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentarauaren 4. artikulua oinarri hartuta

94 Odon Elorza Donostiako alkatea izan zen 1991etik eta 2011ra, PSE-EE alderdiko kide gisa. Erraustegiaren auzian, jarrera ezberdinak izan zituen; hasiera batean kontraktasuna azaldu zuen, 2006an, El País egunkarian, *Errauste planta eta inkisizioa* iritzi artikuluan azaltzen den moduan. Denborarekin, jarrera aldatu egin zuen, erraustegiaren kokalekuaren negoziazioan parte hartuz. (Pexarroman, 2011:95)

95 Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE zuzentaraua: <<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32008L0098>>

Europar Parlamentuko eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentaratuak kudeaketa printzipioen hierarkiarekin batera, horien aplikapenaren nolakotasuna era honetara zehazten du:

«Cuando se aplique la jerarquía de residuos contemplada en apartado 1, los Estados miembros adoptarán medidas para estimular las opciones que proporcionen el mejor resultado medioambiental global. Ello puede requerir que determinados flujos de residuos se aparten de la jerarquía, cuando esté justificado por un enfoque de ciclo de vida sobre los impactos globales de la generación y gestión de dichos residuos.

Los Estados miembros garantizarán que el desarrollo de la legislación y política de residuos sea un proceso plenamente transparente, en el que se observen las normas nacionales relativas a la consulta y participación de los ciudadanos y las partes interesadas.

Los Estados miembros tendrán en cuenta los principios generales de precaución y sostenibilidad en el ámbito de la protección medioambiental, viabilidad técnica y económica, protección de los recursos, así como el conjunto de impactos medioambientales, sobre la salud humana, económicos y sociales, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 1 y 13.» (Europar Parlamentuko eta kontseiluaren 2008/98/CE zuzentaratua, 2008:8)

Beraz, zuzentarau horren arabera, prebentzioa litzateke praktikarik egokiena; jarraian, berrerabilera eta birziklapena, eta, azkenik, balorizazioa eta deuseztea. Erraustegietan azken biak egingo lirateke. Era berean, hiri hondakinen politika publikoen definizioan gardentasuna eta partaidetzaren bermea ere aipatzen dira.

Jarraian, erraustegia abian jartzeko eman ziren urrats nagusiak laburbitzen saiatu gara, aurrerago jorratuko ditugun dimentsioak hobeto kokatzeko lagungarriak direla uste baitugu:

31. taula: **Erraustegiaren inplementaziorako eman ziren urrats instituzionalak**

2002ko abenduak 17	GFA kontseiluak Hiri Hondakinen Plan Nagusia onartu zuen.
2003ko hauteskundeak	Autodeterminazioaren Biltzarrak eta herri plataformak legez kanpo ⁹⁶ .
2003ko urriak 16	Urnietan erraustegia jartzeko erabaki politikoa publiko egiten du Roman Sodupek.
2004ko otsailak 4	bigarren errauste planta Hondarribiko Zaldunbordan jarriko dutela iragartzen da.
2004ko azaroak 26	Roman Sodupek San Markoko Mankomunitateko kargua uzten du. PSE-EEko eta Donostiako alkatearekin, Odon Elorzarekin, tirabira ugari izan ostean.
2005	Odon Elorza errauste planta ez den beste alternatiba baten alde azutzen da publikoki.
2006ko ekainak 20	Donostiako alkateak errauste plantaren kokaleku berria aurkeztu zuen: Landarbaso.
2006	Hernani, Astigarraga eta Errenteriako udal ordezkariak Landarbasoan jartzearen kontra azaldu ziren.
2007ko urtarrilak 30	Donostiako udalbatzak onartzen du erraustegia Zubietan jartzea.
2007ko martxoak 13	Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa eratzeko konpromisoa hartzen da.
2007ko maiatzak 27	Udal eta foru hauteskundeak.
2007ko maiatza	Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Donostiako Udalean aurkeztutako EAE-ANV zerrendak baliogabetu zituzten.
2007	EAJko Markel Olanok hartzen du diputatu nagusiaren kargua.
2007ko udal hauteskundeak	Hernani, Pasaia, Oiartzun eta Lezo ezker abertzaleak lehengo indarra izatea lortu zuen, eta San Marko Mankomunitatean errauste plantaren aurkako alderdiek gehiago zuten.
2007ko irailak 5	San Marko Mankomunitateko lehendakaria Ricardo Ortega (Ezke Batua), eta lehendakari ordea Imanol Azpiroz (EAE-ANV). Erraustegiaren kontrako mugimenduetan ibilitakoak.
2007ko urriak 8	GHK osatu zen egunean errauste plantaren tramitazioari hasiera eman zitzaion.
2008ko maiatzak 5	Gipuzkoako Batzar Nagusiak atez ateko sistema ezarri ote daitekeen ikustearen alde.
2008	Hondakinen Plana berri zuten.
2008ko urriak 13	San Markoko ⁹⁷ zabortegia itxi zen.
2009ko martxoak 16	Usurbilen atez ateko sistema ezarri zen. Erreferenduma egin zen herrian, % 56 alde.
2009	Urtebetean, birziklatze tasa % 28tik % 76,08ra pasa zen Usurbilen.
2010eko maiatza	Hernanin jarri zen atez atekoa.
2010	Oiartzunen ezarriko da atez atekoa.
2010eko uztailak 5	Debagoienako mankomunitateak aho batez erabaki zuen atez atekoa jartzea udalerrri hauetan: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati.
2010eko udazkena	Juan Carlos Merinok (PSE-EE) hartzen du San Marko mankomunitateko lehendakaritza, ordura arte zeudenak kaleratuz.
2011ko otsailaren hasiera	Europako inbertsio bankuekin 195 miloi euroko mailegua adosten dute.
2011an martxoak 7	Antzuolan martxan jarri zen atez atekoa.
2011ko maiatza	Udal eta foru hauteskundeak.

Iturria: Egileak berak egina Petxarroman, 2012 oinarri hartuta.

96 Ezker Batua eta Aralarrekin batera, errauste plantaren kontra zeuden indar politikoak. Ilegalizazioaren ostean, ezker abertzalea ordezkari politikorik gabe gelditzen da udal eta mankomunitate askotan. (Pexarroman, 2012:30)

97 San Markoko zabortegia Gipuzkoako zabortegirik handiena zen, 24 hektareako eremuan 3 milioi tona zabor metatu zituen. Iturria: <<https://www.argia.eus/blogak/zero-zabor/2013/12/21/san-markoko-zabortegia-zifratzen>>

Aurreko kronologiari jarraiki, hondakinen kudeaketa sistemak gatazka politiko ugari sortu zituen zenbait udalerrri eta Aldundiko alderdi zein mugimenduen artean. Errauste plantak, beraz, zeresan handia eman zuten iragarri zinetik, eta konfrontazio logika nagusitu izan da orduztik.

2011ko udal eta foru hauteskundearen ostean, Gipuzkoako agertoki politiko instituzionala erabat aldatu zen. Bilduk Aldundiko gobernu osoa osatu zuen gutxiengoan, eta mankomunitatean eta hondakinen partzuegoan ere indar politiko nagusia ziren. Panorama politiko horren aldaketa emanda zegoela, 2011ko urriaren 31an, PSE-EEk eta EAJk Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko ez ohiko bilera batean, errauste plantako eraikitzaileei kalte-ordainak handitzea adosten dute (Petxarroman, 2012:98), jakinda Bildu errauste plantaren kontra zegoela; aldaketa horren bidez proiektua gelditzea zaildu nahi zutela dirudi. 2012an, Aldundiko aurrekontuak onartzeko EAJ eta Bildu akordioa⁹⁸ sinatu zuten. Akordio horretan hiri hondakinen kudeaketa-planaren moratoria ezartzen zen. Horrela, errauste planta sei hilabetez etetea adosten dute alderdiek. Moratorio hura gerora bi urtez atzeratuko zen, eta sinatu eta gutxira sortu zen jarraian azalduko dugun Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Aholku Batzordea; gainera, 2012ko otsailaren 4an, 34 udalek atez ateko gaikako hondakinen bilketa sistema sustatzeko konpromisoa hartu zuten. 2012ko ekainaren 4ean, 50 herritako alkateek errauste planta ez zutela finantzatzeko adierazi zuten (Berria, 2012ko ekaina 4).

23. irudia: **Gipuzkoako 50 herrietako alkateen agerraldia**



Iturria: Berria (2012ko ekainaren 4a)

Ondoren, 2011ko maiatzetik aurrera, herri mugimenduen eta erakundeen arteko partaidetzarako sortu ziren espazioak aletuko ditugu. Lehena eta nagusia, aurrez esan bazala, Bilduren legegintzaldia abian jarri zena, 2012ko maiatzaren 9an: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Aholku Batzordea. Bilduko arduradun politikoak horrela deskribatzen du espazio horren sorrera:

98 EAJ eta Bilduren arteko akordioak horrela dio (Petxarroman, 2012:100):

«2.2 Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Batzordeak, Araudiaren 161.2 artikulua diotenean jarraiki, Hiri Hondakinen kudeaketaren plagintzaren inguruan erakunde honetan hartu diren erabakien azterketa eta jarraipena egingo du.

2.3 Era berean, Batzordeak ezagutu eta aztertuko ditu, kasuan Foru Aldundiak indarrean dagoen Foru Araua (abenduaren 23ko 7/2008 Foru araua Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorren aurrerapen agiria (2008-2016) onartzen duen) aldatzeko Batzar Nagusietara igor ditzakeen proposamenak.

2.4 Batzorde honek 2012ko ekainaren 30a baino lehenago hartuko du erabakia.

2.5 Bitarte horretan (ekainaren 30a bitartean) Bildu koalizioak ordezkari nagusitasuna duen inongo erakunde edo/eta entitatek ez du inolako erabakirik hartuko orain arte aurreikusita eta onartuta dauden Hiri Hondakinen kudeaketarako azpiegituren gauzatea eragotzi edo oztopatuko duenik.»

«Aurreko legealdiaren planak aurreikusita zeukan, baina martxan jarri gabe, Hondakinen Aholku Batzordea, eta guk definitu genuen, zenbatek osatzen zuten, zeintzuk osatzen eta abar. Erakunde oso pluralak ziren. Esparru askotariko jendea bildu nahi izan genuen. Erakundeak, bai udalak, mankomunitateak, batzar nagusietako alderdiak, baina gero batez ere nahi genuen hondakinen sorkuntzan eta kudeaketarekin lotutako eragileak, talde ekologistak, dendari elkarteak eta abar.» (ELPI2: politikaria)

Batzordea 8/2012 Foru Dekretuaren bitartez arautuko da. 7/2008 Foru Arauak zekarren espazio horren sorrera, baina garatu gabe zegoen. Bertan, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako Kontseiluaren egitekoak zehaztu eta funtzionamendu arauak ezartzen dira. Dekretuak halaxe dio, organoaren xedeaz diharduenean:

«Kontseiluaren xedea honako hau izango da: Hiri hondakinen prebentzio eta kudeaketa arloko ekintzei dagokienez, aholkularitza eskaintzea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari, batetik; eta, bestetik, ekintza horiei dagokienez, gizartearen eta erakundeen parte hartzea lortzea.» (8/2012 Foru Dekretua, 2012:2)

Eginkizunen artean, herritarren partaidetzari erreferentzia egingo zaio modu honetan: *Erantzunkizun partekatuen printzipioa eraginkor bilatzea eta hondakinen kudeaketaren gaian gizarte osoaren atxikimendua bilatzea*. Kideen osaketa ere arautu egingo da, 6. artikulua bitartez. Aholku Batzordeko lehendakaria hiri hondakinetan eskumenak dituen departamentuko foru diputatuari egokituko zaio; lehendakariordea, aldiz, Foru Aldundian gaiaren eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularra izango da, edo hark bere orde zuzendatutakoa. Idazkaritza zerbitzu teknikoaren arduradunari zegokion. Bestelako kideen osaketa honela zehazten zen foru dekretuan:

- Kide bat, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari den talde politiko bakoitzaren izenean.
- Kide bat, hondakinen kudeaketaz arduratzen den Gipuzkoako mankomunitate bakoitzaren izenean.
- Bi kide, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren izenean.
- Lau kide, 1.000 biztanletik beherako udalen izenean.
- Bi kide, 20.000 biztanletik gorako udalen izenean.
- Bi kide, 1.000 eta 20.000 biztanle arteko udalen izenean.
- Bi kide, hondakinen gaikako bilketan eskarmentua handia duten udalen izenean.
- Kide bat, ingurumen eta hondakinen kudeaketan eskumena duen Eusko Jurlaritzako sailaren izenean.
- Bi kide, Gipuzkoan ordezkari den handieneko sindikatuen izenean.
- Bi kide, Gipuzkoan ordezkari den handieneko nekazarien sindikatuen izenean.
- Bi kide, enpresa erakundearen izenean.
- Bi kide, merkatarien eta ostalarien elkarten izenean.
- Bi kide, unibertsitatearen izenean.
- Bi kide, hondakinen kudeaketaren alorrean lan egiten duten diru irabazi asmorik gabeko elkarten izenean.
- Bi kide ingurumenarekin eta biodibertsitatearekin lotura duten irabazi asmorik gabeko elkarten izenean.
- Bi kide, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarten izenean.
- Kide bat, ekologiarekin eta ingurumena zaintzarekin lotura duten irabazi asmorik gabeko elkarten izenean.

Batzordeak 2015era arte iraun zuen, udal eta foru hauteskunde berriekin bertan behera gelditu baitzen. Hauxe zen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Aholku Batzordearen osaketa:

32. taula: **Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Aholku Batzordearen osaketa**

DIPUTATUA ETA ZUZENDARIAK
Juan Karlos Alduntzin (Ingurumen eta Lurralde Antolamendu diputatua)
Ainhoa Iraola (Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendaria) Obra Hidraulikoetako zuzendaria
BATZAR NAGUSIETAKO ORDEZKARIAK
Iñaki Azkarete (Bildu) Xabier Ezeizabarrena (EAJ) Denis Itxaso (PSOE) Jose Maria Murgiondo (PP) Rebeka Ubera (Aralar)
MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIAK
Jose Antonio Santano (Txingudi) Ainhoa Intxaurrendieta (San Marko) Ainhoa Ugalde (Tolosaldea) Azeari Andonegi (Sasieta) Leire Egaña (Debagoiena) Arcadio Benitez (Debabarrena) Leire Etxaniz (Urola Erdia) Amaia Gurutzeta (Urola Kosta)
GIZARTE ERAGILEAK
Patxi Sasigain (Adegiko ordezkaria) Ainara Plazaola (ELA) Galder Sierra (LAB) Jesus Uriarte (Dendaratean elkarte) Kino Martínez (Ostalaritza elkarte)
BESTELAKO ERAGILEAK
Udaletako ordezkariak Eusko Jaurlaritza Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa EHU Zero Zabor Ingurumenarekin zerikusia zuten eragileak

Iturria: Egileak berak egina, Gipuzkoako Zero Zabor taldearen barne dokumentuan oinarrituta.

Aholku Batzordearen zeregin nagusiak era honetan laburbildu daitezke: batetik, hondakinen kudeaketa lurraldearen premietara egokitzea, hau da, abian zegoen plangintza interpretatzea, eta egiten ari zen bilketa guztia aztertzea, bai plangintza orokorrari dagokionean, bai kudeaketarako hartzen ziren erabakiei dagokienean; bigarrenik, hondakinen kudeaketa orokorraren alorreko politiken analisisa, beti ere, udalek hartuko zituzten erabakiak aintzat hartuta; eta, azkenik, hauek ziren jaso zituen bestelako helburu zehatzak: arautegi aurreproiektuei, planei eta proiektuei proposamenak egitea, hondakinen kudeaketari buruzko iritzia ematea, planei eta programei buruzko aholkuak ematea, garapen iraunkorrari eta hezkuntzari buruzko neurriak proposatzea eta herritarren partaidetza sustatzea⁹⁹.

Gipuzkoako Hiri Hondakinak prebenitzeko eta Kudeatzeko Aholku Batzordea 2012ko maiatzean sortu zen, eta 2015era arte iraun zuen. Urtean behin edo bitan batzen zen. Aholku batzordea partaidetza politikorako sistema egonkorren (Parés eta Resende, 2009:80) baitan kokatzen dugu, hau da, erakunde publikoetan ohikoak diren partaidetza organoa litzateke, non herritar, gizarte eragile, sindikatu eta bestelakoek bertan eztabaidatzeko eta deliberatzeko aukera izango zuten; kontuan izan behar dugu ere, kasu gehienetan bertan adostutakoa ez dela loteslea izango. Hondakinen Kudeaketarako Aholku Batzordea gobernantza sarearen (Blanco eta Gomá, 2002:372) eremuetako bat izan zen. Aldundiak herrialde mailan zabaldu zuen partaidetzarako espazioaren erreferentzia nagusia litzateke. Baina horrekin batera, gizarte eragile eta erakundeen arteko lankidetzaren edo harremana beste bi eremutan ere gorpuztu zela esan dezakegu: batetik, Aldundi eta udalen arteko lankidetzaren eremua, udalerrri askotan parte-hartze prozesu ugari abian jarri ziren Aldundiaren laguntza ekonomikoarekin¹⁰⁰, hondakinen kudeaketa ereduaren jorratzeko, eta horren erakusle dugu Aldundiak berak argitaratu zuen *Herritarrekin Parte Hartzeko Esperientziak Gipuzkoan (2011-2013)* (Azkue, 2013) liburua; bertan jasotzen dira, besteak beste, hondakinen gaiari lotutako prozesuak. Hurrengo koadroan bildu dira esperientzia horien inguruko datuak:

99 Zero Zabor taldeak jasotako barne txostena. Behatokiak izenburu duena.

100 Partaidetza Zuzendaritzak diru laguntza lerro bat zabaldu zuen udaletatik abian jarritako partaidetza prozesuak laguntzeko.

33. taula: **Udalerrietan hondakinen bilketa sistemarekin zerikusia zuten prozesuak**

UDALERRIAK	PROZESUA IZENDATZEKO MODUA	PROZESUAREN XEHETASUNAK
Astigarraga	Hondakinak biltzeko sistema berria	Udalak hondakin bilketa sistema aldatu zuen eta prozesua abian jarri zuen, herritarrei horren berri emateko.
Mutriku	Hondakinen kudeaketa	Hondakinak kudeatzeko beste moduak jorratzen hasteko prozesua.
Arrasate	Hondakinak kudeatzeko oinarriak	Prozesu honen bitartez, Arrasateko udalak etorkizuneko hondakinen sistema bilketarako oinarriak ezarri nahi zituen.
Bergara	Hondakinen problematika	Atez atekoa ezartzeko erabakia hartu zuen udalak eta gaia jorratzeko prozesua abian jarri zuen.
Eskoriatza	Eskoriatza zero zabor norabide kanpaina	Hondakinak kudeatzeko sistema berria jartzeko asmoa zuen udalak eta asmoa eta kezka argitzeko prozesua zabaldu zuen.
Arama	Hondakinen kudeaketa	Hondakinen kudeaketaz prozesua jarri zen abian.
Ezkio-Itsaso	Hondakinak biltzeko sistema aukeratzea	Udalak hondakinen bilketa sistema aldatzeko asmoa zeukan eta aukerak aztertzeko prozesua zabaldu zuen.
Legazpi	Atez atekoa ezartzea	Atez atekoaren alde egin zuen udalak, eta ereduaren diseinua eztabaidatzeko prozesua martxan jarri zuen.
Ordizia	Atez atekoa martxan jartzeko prozesua	Atez ateko sistema herritarrekin batera definitzeko prozesua. Guztira 28 saio: 4 batzar ireki, 12 batzar auzoka, 10 saio sektoreka eta bi goizetan irekiak.
Segura	Atez atekoa ezartzea eta autokonposta bultzatzea	Prozesuak bi helburu zituen: segurarrek sistema berria martxan jartzea eta segimenduan aktiboki parte hartzea
Zerain	Hondakinen kudeaketa	Galdetegi baten bidez, udalak herritarrei iritzia eskatu zien. Galdetegia loteslea zen.
Pasaia	Pasai Donibane atez ate	Atez atekoa ezarriko zela erabaki ostean, hondakinak, noiz, non eta nola bilduko ziren herritarrekin eztabaidatzeko prozesua abian jarri zuen.
Albiztur	Hondakinen prozesuak	Hondakinak kudeatzeko eredu berria ezartzeko prozesua.
Amezketza	Hondakinen kudeaketa berria	Herritarren zalantzak, kezka eta galderak jasotzeko prozesua.
Azpeitia	Hondakinen inguruko parte hartzeko prozesua	Hondakinak beste era batera kudeatzeko etorkizuneko lehen urratsak definitzeko prozesua martxan jarri zen.
GUZTIRA: 5.547 BIZTANLE		

DATUAK
Guztira 25 batzar 9 auzoetan eta sektoreka, bi txandatan. Bileretan: 496 lagun; 268 emakumezko 228 gizonezko.
Lantalde bat eratu zen eta horrek hainbat ekintza landu zituen.
30 lagun inguru saio bakoitzean: 19 emakumezko, 11 gizonezko
591 lagun: 378 emakumezko eta 213 gizonezko
200 lagun
22 lagun: 10 emakumezko eta 12 gizonezko
6-8 lagun bilera bakoitzean Udaletxean egin zen bileran: 25 lagun
937 lagun: % 58 emakumezkoak eta % 42 gizonezkoak, gehi etxe-atarietako bileretan parte hartu zutenak.
Parte hartzaileak: 1307 lagun; 764 emakumezko, 543 gizonezko.
389 lagun: 204 emakumezko, 185 gizonezko
107 lagun: erroldako 227 lagunetatik.
Lehen errondan: 400 lagun Bigarren errondan: 200 lagun Batzar nagusian: 60 lagun; 34 emakumezko eta 26 gizonezko.
Ez da jasotzen daturik
150 lagun
Batzarretan: 300 lagun Ikastaroetan: 357 familia ordezkari

Iturria: Egileak berak egin a Herritarrekin (Azkue, 2013) oinarri hartuta

Esperientzien taulan ikusten dugun moduan, parte-hartze prozesu ugari jarri ziren martxan, eta hondakinen bilketa sistemarekin lotuta, udalerrri askotan eztabaidarako eta deliberaziorako guneez osatuta ziren. Taulan jasotzen diren partaidetza prozesuak gonbidapenezkoak (Blas eta Ibarra, 2006:16) dira guztiak, hau da, tokiko erakundeetako ordezkariak herritarrei gonbitea luzatuko diete prozesuetan parte-hartzeko. Zerrenda luze horretan ikus dezakegu, prozesu gehienetan atez ateko sistema ezartzeko erabaki politikoa hartu ondoren jartzen dela martxan, eta horrek gure ustez partaidetza prozesuen sakontasun demokratikoa baldintzatuko du. Besteetan, aldiz, hondakinen gaia jorratzen hasteko gogoeta prozesu gisa formulatu ziren. Kuantitatibo eta kualitatiboki, esan dezakegu lurralde osora zabaldu zirela gaia jorratzeko partaidetza espazioak. Erabakitze guneez markoen demokratizazioa sustatu zela dirudien arren, esan behar dugu hainbat kasutan Hiri Hondakinen bilketa sistema zehatz batetik abiatutako partaidetza prozesuak zirela, hau da, erabaki politikoa baten gainean eraiki zirela; partaidetza prozesuak, hortaz, politika publiko zehatz baten inplementazio fasera bideratu zirela, eta ez hainbeste erabaki politikoa hartzera eta horren garapenera. Hori dela eta, diogu partaidetza prozesuen sakontasun edo kalitate demokratikoa baldintzatuta zegoela hasieratik.

Bestalde, lankidetzaren eremuetara bueltatuz, instituzioen eta gizarte eragile zein bestelako adituen arteko lan hitzarmenak ere zabaldu ziren; horien bitartez, lan jarduerak zehaztuz sakontzeko aukera egon zen; horien artean, esanguratsuenak lirake: Zero Zabor filosofia garatzeko sinatu ziren hitzarmenak, hainbat ikastetxeekin; Basque Culinary Center-ekin erakundearen eraikina «zero zabor» politikekin abian jartzeko; Kilometroetako antolatzaileekin, edota 2015ean Usurbilen, *Zero Waste Europe* mugimenduari batera antolatutako jardunaldiak ere elkarlan horren isla dira. Lankidetzaren sare horretan ere leudeke Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren aurrekontuen berri emateko antolatu ziren bilera informatiboak edo kontraste bilerak. Horrela deskribatzen ditu gizarte eragileetako kide batek:

«Bestetik, espazio gehiago antolatu ziren. Azken bi urteetan, eragileoi deitu ziguten, Eguzkiri, Errausketaren Kontrako Koordinakundeari, Kalapie... hainbati, eta aurrekontuak zuzenean aurkeztu zizkiguten. Aurrekontuak bere orokortasunean, baina ideia gehiago enfokatuta ingurumen-gaietarako eta abar ze partida zeuden, zergatik... Hori guztia azaltzeko eta partekatzeko bilerak egin ziren, baina oso puntuala izan zen hori.» (ELIM9)

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan (GHK) ere herri mugimenduen modu egonkor batean parte-hartzeko aukera izan zuten; ordura arte ez zuten bertan egoteko aukerarik izan. Kontsortzioan hartuko dira Gipuzkoa mailako hondakinekin zerikusia duten erabaki garrantzitsuenak, eta bertako administrazio kontseiluan parte hartuko dute herri mugimenduetako kideek.

2008ra atzera eginez, Eusko Alderdi Jeltzalea buru zela, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak GHK SAU¹⁰¹ Merkataritza Sozietatea sortu zuen. Erakundearen beraren web gunean aipatzen den moduan, sozietate horrek kudeatuko lituzke partzuergoaren zerbitzuak, eta enpresa sortuko da Aldundiko defizit publikoa ez 'aintzateste'ko'.

101 Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak sortutako Merkataritza Sozietatearen sorrera horrela jasotzen da erakundearen web gunean: «Sozietate horren funtzio nagusia bere lurralde-eremuaren barnean hiri-hondakinen goi-kudeaketa egitea da. Jarduera horren barnean sartzen dira mankomunitateei emateko zerbitzu guztiak eta horretarako behar diren azpiegiturak sortu eta horien ustiapena gauzatzeko. Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.-ren helburu sozialak bat egiten du Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak duenarekin. Gipuzkoako hiri-hondakin guztien goi-kudeaketa GHK sozietateari dagokio 2009ko uztailaren 17az geroztik.» Berreskuratua: <<http://www.ghk.eus/aurkezpena.htm>>

«Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak 2008an merkataritza sozietate bat eratu zuen Gipuzkoako hondakinen goi-kudeaketarako zerbitzuaren jarduera ekonomikoa burutzeko. Sozietate hori Partzuergoaren baitakoa da bertako Estatutuen arabera. Eraketa horren helburua da sor daitezkeen zorrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren defizit publiko gisa ez aintzatestea. Modu horretan, Sozietatea Partzuergoaren zerbitzua zuzenenean kudeatzeko tresna litzateke, eta bere kapital sozialaren % 100 Partzuergoaren titulartasun publikokoa izatea ezartzen da. Horrenbestez, 2008ko otsailean Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak egindako batzar orokorrean kide bakarreko sozietate anonimoa behin betikoz onartzea adostu zen. Sozietate horren izena Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa S.A.U. da.» (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren atari digitala)

Bilduko arduradun politikoaren arabera, Merkataritza Sozietatea sortuko zen administrazioaren tempusak mantsoegiak zirelako, eta errausketaren lizitazioak arinago egin nahi zituztelako. Administrazio kontseilu horretan GHK-ko lehendakariak aukeratzen duen pertsona egon daiteke. Eta hura arduratuko da errauste planta eraikitzeke kontratuaz.

«*Sociedad Instrumental* bat da, eta GHK-ak sortzen du GHK SAU (*Sociedad Anónima Unipersonal*). Eta hor dozena bat pertsona dago administrazio-kontseiluan. Administrazio-kontseilu horretan egon daiteke GHK-ko lehendakariak aukeratzen duen pertsona. Hau da, hor, ez da udaletako ordezkariarik egon behar, ez baduzu nahi. Eta, bueno, hori da azkenean sortu zutena. Sortu zute, eta berak egiten ditu kontratazioak, berak egiten ditu errauste-planta eraikitzeke kontratua, edo TMBak, edo garraiatzeko hondakinak eta abar. Azkenean, Kontsortzioa da, gero, berez, OK eman behar diona GHK-ko administrazio-kontseiluak hartutako erabakiei, baina funtzionamendua azkarrago izateko eta diru publikoarekin pribatua balitz bezala funtzionatzeko, sortzen dute GHK SAU. Horrelako asko dago. Horrelako gestio asko.» (ELPI4)

Bestalde, ondorengo koadroan jasoko dira GHK osatzen zuten ordezkariak:

34. taula: **Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren osaketa**


MANKOMUNITATEAK	ERAKUNDEEN PARTE HARTZE MAILA
Gipuzkoako Foru Aldundia	%33
Debarrena eskualdeko Mankomunitatea	%7
Debagoieneko Mankomunitatea	%6
San Markos Mankomunitatea	%29
Sasieta Mankomunitatea	%6
Tolosaldeko Mankomunitatea	%5
Txingudiko Zerbitzuak	%7
Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea	%3
Urola Kostako Udal Elkartea	%4
Herri mugimenduak	Bozkarik gabeko partaidetza
GUZTIRA	% 100

Iturria: Egileak berak egina Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko web guneko datuak oinarri hartuta

Guk aztertutako legegintzaldian (2011-2015), herri mugimenduetako kideek Kontsortzian ez dute bozkarik izango; kontsortzioa eratuta zegoen, eta aukera horrek arautegia aldatzea zekarren. Norabide horretan ez zen urratsik eman. GHK-ko administrazio kontseiluan bat gehiago zirela diote ordezkari politikoek eta mugimenduetako kideek. GHK-ko elkarlan dinamika Hiri Hondakinen Aholku Batzordearena baino exijenteagoa edo sakonagoa zen, bai bileren maiztasunagatik zein zereginengatik.

Hurrengo orrialdean jasotzen dugun irudian, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren elkarlanerako espazio nagusiak irudikatu nahi izan ditugu.

24. irudia: **Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren gobernantza sarea**



Iturria: Egileak berak egina

4.5.1. Elkarlanaren analisisia eta gobernantza sarearen sakontasun demokratikoa aztergai

Ondorengo koadroan, ikerketa lan honen bigarren kasuaren analisirako erabili dugun tresna jaso dugu. Aztertu ditugun dimentsioak eta aldagaiak biltzen dira bertan, eta aipatu bezala, Subirtas, Parés eta Blancok (2009:376) sare gobernantzaren kalitate demokratikoa neurtzeko erabiltzen duten tresnan oinarritzen gara. Bi kasuen analisirako abiapuntu hori hartuta, zenbait dimentsio gehitu eta proposatzen ziren batzuk moldatu ditugu. Berdintasun Zuzendaritzarako ere darabilgun bera da.

35. taula: **Gobernantza sareen analisirako tresna**

GOBERNANTZA SAREA AZTERTU BEHARREKO DIMENTSIOAK	ALDAGAIAK
1. Agertoki berri baterako abiapuntua eta elkarrekiko aitortza	1.1. Elkarlarrekikotasuna edo elkarren aitortza 1.2. Elkarlanerako irekitasuna 1.3. Elkarlana ulertzeko modua 1.4. Aliantzak (mugimenduen artean edo mugimendu eta ordezkarien artean)
2. Gobernantza Sarearen osaketa	2.1. Sarearen sustatzailea edo jatorria 2.2. Informazioa eta espazioaren definiziorako gaitasuna 2.3. Aktoreen dentsitatea eta aniztasuna (genero ikuspegitik) 2.4. Harremanen sakontasun maila
3. Partaidetza espazioen eta elkarlanaren joko arauak: botere harremanak eta baliabideen banaketa	3.1. Elkarlanerako joko arauak, botere harremanak eta baliabideak 3.2. Barne eta kanpoko botere harremanak 3.2.1. Gatazka eremuak eta horiek kudeatzeko tresnak 3.2.2. Lankidetzaren ahuldu eta indartu duten faktoreak 3.3. Baliabideen banaketa
4. Komunitatea eta administrazioa eraldatzeko/demokratizatze gaitasuna	4.1. Administrazioaren eremuan: 4.1.1. Politika publikoetan eragiteko ahalmena 4.1.2. Erakundearen funtzionamendu burokratizatua komunitariora eraldatzeko gaitasuna 4.2. Arlo komunitarioan: 4.2.1. Herri mugimenduen jarduna elikatu, saretu eta indartzeko gaitasuna 4.2.2. Partaidetza kultura indartu 4.3. Eragin mediatikoa

Iturria: Egileak berak egina, Subirtas, Parés eta Blancok (2009:376) oinarri hartuta

4.5.2. Hasierako kokapena eta elkarlanerako aukerak: bide orri argirik gabeko lankidetzak

Atal honetan, eragile ezberdinek –politikari, teknikari eta mugimenduetako kideek– legegintzaldiaren hasieran izan zuten jarrera eta posizioak aztertuko ditugu; beraz, elkarlanerako jarrera eta erakunde zein gizarte eragileen (edo herritarren) arteko gobernugintza ulertzeko moldeak izango ditugu mintzagai. Neurri batean, eragile bakoitzaren lankidetzarako irekitasuna eta grina aletuko ditugu, eta baita hura ulertzeko modua ere. Elkarreaginaren beharra non eta nola irudikatzen zuten legegintzaldiaren hasierako momentuan. Partaidetzarako espazioak eta gobernugintzarako asmoak dimentsio sinbolikoaren (Subirats et al., 2009:394) eremuan aztertuko ditugu, eta horretarako, aspektu zehatz hauetan jarri dugu argi fokua: (1) erakunde eta mugimendu edo herritarren arteko elkarrekikotasuna, (2) profil ezberdinek lankidetzarekiko zuten irekitasun maila, (3) elkarlana ulertzeko modua, eta (4) mugimendu zein erakundeen arteko aliantzen presentzia.

Lehenik eta behin, esanguratsua iruditu zaigu eremu honetan lanean ziharduten eragileek momentua definitzeko duten modua; izan ere, ardura politikoa zuten kideek eta hainbat mugimenduetakoek aldaketa garaia eta arnagune bat zabaldu zela aipatzen dute, behin eta berriro. Elkarriketatuen aburuz, ilusioa eta espektatiba berriak sortu zituen alternantzia politikoak. Mugimendu ekologistako kideek, eta, bereziki, Erraustegiaren Kontrako Mugimenduko eta Zero Zaborreko militanteek diote lasaitasuna eta esperantzarako ate bat zabaldu zela. Horren erakusle lirateke mugimendu ekologistako aktibista hauen testigantzak:

«Aldaketa espero genuen. Oso espektatiba handiak zeuden. Handiegiak, beharbada, eta horretaz ere batzuk, behintzat, kontziente ginen. Baina gauza bat da kontziente izatea eta beste bat epel eta eszeptikoaren bihotzean ere euforia puntu bat bazegoela ukatzea» (ELIM11: mugimenduetako kidea)

«Ba, hainbeste borrokatu duzun zure helburu bat gauzatu dezakeena edo nahi duela adierazten duen alderdia gobernura iristen denean, noski, poza lehenengo gauza. Nahi dut esan, oso garbi ikusten genuen Bilduk bere kanpainan zehar errauste-planta gai zentral gisa erabili zuela, eta Garitanoren ahotik behin eta berriz entzuten zen, eta gero gainera itxiko zela ikusirik, nolabait esperantzarako ate bat irekitzen zela ikusten genuen, batez ere errauste planta “zero zabor” helburu horretara iristeko oztopo handi bat den heinean, hori gelditzeak ikaragarritzko arnagunea eskainiko zigula beste gauza batzuk garatu ahal izateko. Orduan, lehenengo sentsazioa lasaitasuna eta poza.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

Neurri batean, adierazpen hauen bitartez, esan dezakegu herri mugimenduetako kideek espero zutela euren aldarrikapenek oihartzuna eta babesa izatea, eremu instituzionalean; hau da, sistema politikoak eremu komunitarioaren *inputak* (Easton, 1969) jasoko zituela pentsatzen zuten, urteetako konfrontazio garai luze baten ostean. Ordura arte gatazka iturri bilakatu zen azpiegituraren kontrako eskaerei bide eman-go zitzaielakoan zeuden. Mugimenduek erakundearen gobernugintzarekiko zuten jarrera irekia zela esan daiteke, eta elkar eragiteko ahalmena egingarria ikusten zuten. Agenda politikoa, finean, herritar sektore baten aldarriari eta premiei erantzuteko jarrera nagusia dela esan daiteke. Kasu honetan, partaidetzaren dimentsio sinboliko edo diskurtsiboa (Subirats, 2009:394) presente dago, hau da, eztabaida zabaltzeko eta balio demokratikoen presentzia agerikoa da elkarriketatuen ahotsetan. Herri mugimenduek azken batean euren eragiteko eta erabakitze ahalmena indartuko zutela espero zuten. Bilduren hauteskunde

kanpainak eragileen espektatibak elikatu zituen. Diskurtsiboki partaidetzazko demokraziatik askoz hurbilago zeudela adierazten dute orduko adierazpenek ordezkartzazko demokraziatik baino. Herritarren partaidetza erakundeen demokratizaziorako tresna gisa irudikatuko dute. Horren adierazleetako bat litzateke diputatu nagusiaren alorraren baitan sortu zen zuzendaritza berria, Herritarren Partaidetza zuena izena eta Arantxa Ruiz de Larrinaga Olaizolak zuzendu zuena eta hark arestian aipatutako udalerrietako prozesuetara bideratutako baliabideak.

Bestalde, 2011 eta 2015 arteko legegintzaldi hartan ardura politikoa zutenen aldetik, baikortasuna eta aldaketarako itxaropena zutela esan daiteke, baina baita erantzukizun handiko zama sentitzen zutela ere adierazten dute. Urduritasuna eta zailtasunak nabarmentzen dira arduradun politikoen ahotan, lehen aldia baitzen horrelako aginte esparru bat eskuratzen zuela Ezker Abertzaleak eta Alternatibak¹⁰². Hauek dira orduko politikarien testigantzak:

**«Zaila, momentu zaila zen, ardura handiak hartzera gindoazen, ordura arte maila horretan ibili gabeko esparru batean, ez hainbeste maila lokalean»
(ELPI2: Aldundiko arduradun politikoa)**

«Bueno, gau hartan, lehenengo etorri zitzaidana: buffa... Hau da marroia daukaguna honi erantzuteko, ez? Poztasun handia zegoen, baina kontziente nintzen baita horri denari aurre egiteko, egundoko esfortzua eskatuko zuela. (...) Aukera asko irekitzen ziren, baina neurri handi batean, bertigoa ere bai! Ze horri erantzun behar zitzaioan, eta nire burua ikusten nuen erronka horri aurre egiten edo egin nahian.» (ELPI3)

Arduradun politikoen esanetan, espektatiba handiak zeuden agintaldi berriarekin, eta eragile ezberdinen nahiak eta aldarriak era batean edo bestean txertatzeko borondate politikoa praktikara eramateko ardura sentitzen zutela diote. Esanguratsua da Aldundi mailako aginte lerroan lehenbiziko aldiz aritzeak sortu zuen kezka eta ardura, politikarien artean. Badirudi ez zutela espero Aldundian agintzeko aukera izango zutenik, eta esperientzia ezak hasiera batean ziurgabetasuna sortu zuen. Edonola ere, hasieratik herri mugimenduen espektatibez jabe ziren eta eremu gatazkatsua kudeatzea zegokiela ikusteak ere kezka sortu zuen arduradun politikoen artean.

Aurreko agintaldietatik urrunduko zen aldaketaren beharra da jasotzen den beste posizioetako bat. Era berean, garai berezia zela ere aitortzen dute, bereziki urte hartan eman ziren gertaera politiko ezberdinetatik: 2010eko irailaren 5ean, ETA erakundeak iragarritako su eten iraunkorra, orokorra eta egiaztagarria, Bilduren legalizazioa, Estatu mailatik bereziki zetorren M15 mugimenduaren protesta uholdeak. Testuinguru politikoak ere eragina izan zuen, beraz, bai hauteskunde emaitzetan eta baita garai politikoa definitzerako momentuan ere. Era berean, politikariek hurbiltasun handia sentitzen zuten herri mugimenduekiko, ondorengo testigantzan jasotzen den bezala; horietatik hainbat herrigintzatik zetozen. Hurbiltasun ideologikoaz gain, hortaz, bestelako hurbiltasuna ere bazegoen. Horren erakusle ondorengo pasarteak:

«Bilduko zerrendak egiten direnean, herri mugimenduetan aritu diren askorengana jotzen da, eta hori dela ta, elkar ezagutzen ginen» (ELPI4: arduradun politikoa)

¹⁰² Eusko Alkartasunak Aldundiko 1985 eta 1987ko legegintzaldietan gobernatu zuen, Imanol Murua Arregi diputatu nagusi zela (ikusi, 19. taula). Beraz, alde aurretik maila horretan esperientzia zuen bakarra zen koalizioaren baitan.

«Ni San Markora sartu nintzenean, horko lehendakariordea, adibidez, ba gazteen herri mugimenduetatik zetorren, zuzenean. Zero Zabor Mugimenduetatik zetorren, Errausketaren Kontrako Plataformatik» (ELPI4: arduradun politikoa)

Herri mugimenduen eta alderdi politikoaren arteko hurbiltasuna edo elkarlanerako joera adierazpen honen bitartez azaldu liteke: «Bilduren zerrendak mugimenduetako hainbat kideek osatzen zuten» (ELPI4). Alderdi eta mugimenduen arteko iragazkortasunaz edo kaptazioaz ere hitz egin daiteke, kasu honetan. Della Portak eta Dianik (2011) dioten moduan, ezkerreko alderdiak oposizioan daudenean herri mugimenduen aldarrietatik elikatzen dira, guk aztertuko kasuan, ez bakarrik maila diskurtsiboan Erraustegiaren posizioari dagokionez, baizik eta baita zerrenden osaketan ere. Hainbat arduran politiko, hortaz, herri mugimenduetatik oso hurbil sentitzen ziren, eta horrek elkarrekikotasuna ahalbidetu zuen.

Elkarrizketatuek elkarreraginaz dihardute sarritan, baina ez dago hain argi erakundeetan sare gobernantza abian jartzeko planteamendu argirik zegoenik. Hau da, maila sinbolikoan elkarren beharra zegoela adieraziko dute, elkarlan hori zer nolako espazioetan osatu eta landu behar zen, ordea, definitu gabe zuten. Horren erakusle dira ere politikarien ondorengo hitzak:

«Bazegoen behar bat, Gipuzkoako gizartearen aldetik, oso nabarmena zan Gipuzkoa eliteek gobernatua zutela, eta bere ibilbide osoan eta piztu zen baita ere ilusio bat. Beste modu bat egiteko politika, herritarrekin. Hurbilago egongo zen politika batean aldeko ilusio eta mugimendua egon zen. Irudikatzen zen fase politiko berri bat, politika egiteko beste modu bat.» (ELPI2: arduradun politikoa)

Bestalde, ardura politikoa hartu zutenek -berdintasun alorrean bezala-, hainbat herri mugimenduen aitortza zuten. Fase berri bati irekiera ematea espero zutela nabarmendu dute elkarrizketatu gehienek, nahiz eta, aurrerago ikusiko dugun moduan, espektatibak ez ziren guztiz bete. Haustekundeen emaitzen aurrean, maila diskurtsibo edo sinbolikoan esan genezake nabarmena zela, politika instituzionalaren eta herritarren arteko harremana hurbiltzea espero zela partaidetzazko demokraziak barnebiltzen dituen ezaugarriak azaleratzen dira orduko protagonisten diskurtsoetan, gobernu aldaketa demokratizazioarako aukera gisa irudikatzen dela esan daiteke. Izan ere, zelai demokratikoa birsortzeko (Ibarra, 2011) edota erakundeen eta komunitatearen arteko artikulazio berri (Santos, 2005) bat bistaratzen da, eragile politiko gehienek hasierako sentipenak eta balorazioak aztertzen ditugunean.

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi, ekintza kolektiboen zihardutenek aitortzen duten erreakzio bat edo legegintzaldiaren hasieran suertatu zen joera: mugimendua momentu batean ere erlaxatu egin zela. Hau da, gobernu aldaketak elkarlanerako jarrera aktibatu bainoago, kasu batzuetan, komunitate antolatua zertxobait ahuldu zuela, delegazionismorako hartu zuten jarreragatik. Elkarrizketatu batek adibidez dio Erraustegiaren Aurkako talde bat desagertu egin zela. Aipatutako joera hori bat dator Della Porta eta Dianik (2011:276) diotenarekin, hau da, ohikoa dela ezkerreko gobernuen agintaldian zuzeneko presioa areagotzea, baina protesta eta mobilizazio maila ahuldu ohi dela. Aurrerago, gobernantza sarea ahuldu zuten faktoreez dihardugunean, gehiago sakonduko dugu atal honetan, baina Erraustegiaren Kontrako Mugimenduko kide batek era honetan deskribatzen du taldearen baitan bizi izan zuten apaltze prozesurako joera:

«Estos me decían: “ya nos disolvemos, lo dejamos..”; y yo: “quietos parados. Que no; que esto no va a tirar para adelante. Que va haber reacción.” (ELIM8: mugimenduetako kidea)»

Makalaldia, hala eta guztiz ere, ez da elkarrizketatu ditugun mugimendu guztietara orokortu daitekeen diskurtsoa; izan ere, Zero Zaborreko kide batek dio lan jarduera mantendu zutela, baina egoerak gehiago eskatzen zuela, eta exijentzia hori betetzeko indarra eta denbora falta izan zitzaizela. Hau da, aldaketa politikoak mugimenduei gehiago eskatzen zuela, baina erantzuteko zailtasunak izan zituztela. Halaxe dio taldeko kideak:

«Erlaxatu, ez dut uste herri mugimendua gisa erlaxatu ginenik, baina askoz gehiago egin genezakeen agintean zegoen gobernu hartzen ari zen hainbat erabaki babesteko eta herritarren beharrak gertuago sentitu ahal izateko. Seguru aski, bai. Edo hainbat udal ataka larrian zeudenean, diskurtso bat garatzeko, bai, nik uste dut hor herri mugimenduok muga oso handiak ditugula, azkenean, pertsonen borondatearen menpe gaudelako, nekagarria delako. Momentu hartako erronkak, gaiak zuen tentsioak eskatzen zuen herri mugimendu oso indartsu bat, eta Gipuzkoako panorama ikusten bazenuen, batetik zeuden Errausketaren Kontrako Taldeak, Eguzki, Ekologistak Martxan, GreenPeace, gero ginen gu Zero Zabor, baina izen asko, baina horien atzetik nolabait jende bolondresa, bitarteko ekonomiko ia hutsekin eta denbora borondatezkoarekin. Beraz, horrelako erronka bati, hainbeste erasori aurre egiteko indarra falta izan zen.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

Interesgarria da norabide horretan elkarrizketatuak aipatzen duena. Azken finean, mugimenduen hurbileko indar politikoek gobernu osatzen dutenean, eragileen ekintza kolektiboak presentzia handia izan behar duela dio elkarrizketatuak, eta protesta zikloak gehiago elikatu behar direla; beste hainbat elkarrizketatuen esanetan, aldiz, aztergai dugun agintaldian mobilizazioak eta kaleko jarduerak zenbait sektoretan bigarren maila batean gelditu ziren.

Bestalde, nabarmendu nahi dugu ere elkarrizketatuei galdegin zaienean eragileen eta erakundeen arteko aliantzen inguruan, aho betez diotela legegintzaldiaren hasieran ez zela eragileen arteko aliantzarik eraiki. Ez erakundeetako arduraren politiko eta herri mugimenduen artean, ezta azken horien artean ere. Saiakerarik edo horretarako aukerarik ez zen formulatu. Hurbiltasuna sentitu arren, ez zen bilera edo espazio formalik eman helburu politiko antzekoa zuten aktoreen partetik. Beraz, ez zen artikulazio politiko berri baterako planteamendu argirik egon, sare kritikoko distantzia oso txikia izanda ere. Chávezen (2004) aburuz ezkerrean balizko agertoki idealaren aurrean geundeke, non ezkerreko gobernuaren eta herri mugimenduen presentziek hurbileko helburu politikoetan bat egiten zuten, baina ez zen artikulazio formal eta adostu bat gorpuztu, erakundeen demokratizaziorako gaitasuna elikatu zezakeena. Horixe baita autore honek planteatzen duena, ezkerreko indar politikoaren arteko aliantza edo artikulazioaren sistema politikoaren demokratizaziorako.

Lehenengo atal honekin amaitzeko, esan behar dugu dimentsio sinbolikoari dagokionez, bazirudiela gizarte eragileak eta herritarrak barnebilduko zituen gobernugintza abian jartzeko borondatea zegoela. Politikariak eta hainbat gizarte mugimendutako kidek hori azpimarratzen dute euren diskurtsoetan. Agintea ulertzeko beste modu bat espero zutela. Eta herritarren partaidetzak eta eremu horretan ordura arte eraikitako dinamika sozial ezberdinek ahotsa izango zutela hurrengo lau urteetan. Espektatibak irekitasun horren norabidean eraiki arren, aipatu behar dugu ez zegoela oso argi elkarlan hori nola eta non gauzatuko zen. Elkarlanerako eta partaidetza sustatzeko borondate politikoa agerian zegoen, baina bideorria ez zegoen batere argi, hau da, asmo horien inguruko planteamendu zehatzik ez zen aipatzen. Horren adierazlea ere izan daiteke gizarte eragileen partaidetzarako mekanismo nagusia izango zena, Hondakinen Aholku Batzordea ez zela legegintzaldiaren hasieran abian jarriko, 2012ko maiatzaren 9an, sortu baizen, hauteskundeak irabazi eta urte betera.

Dena dela, hasierako kokapenari dagokionez, herri mugimenduen eta gobernugintzaren arteko hurbiltasuna pertsonetan eta diskurtsoetan agerikoa zen, bereziki Erraustegiaren Aurkako eta Zero Zabor mugimenduen aldetik. Labur esanda, hurbileko aktore politikoen artean elkarlanerako irekitasuna zegoen, lankidetzaz edo gobernatza sareen inguruko planteamendu argirik gabe eta aliantzen edo artikulazio politiko berri baten aukera ez zen inongo momentuan hitzez azaldu. Kontuan hartu behar dugu, kasuaren tesuinguratzean aipatu bezala, erraustegien inguruko mugimendua Aldundiaren arteko konfrontazio logika indartsu batetik zetozela, eta konfrontazio jarrera hauteskunderen panorama politikoaren aldaketaren ostean erabat aldatu zela; aldaketak eragile ezberdinen arteko aitortza politikoa erraztu zuen, eta elkar ulertzeko borondatea agerikoa zen.

4.5.3. Sarearen osaketa: konfrontazio logiketatik elkarlanera.

Atal honetan, lau dimentsio nagusi aztertuko ditugu: batetik, lankidetzaz esparruen jatorria nondik abiatzen den ikusiko dugu, hau da, ea erakundeetatik edo herri mugimenduetatik zetorren; bestetik, eremu horretan zeuden deliberaziorako espazioak definitzeko edo egokitzeko gaitasuna; hirugarrenik, partaidetzaz espazioetako aktoreen dentsitatea eta aniztasun maila, eta azkenik, erakunde eta eragileen arteko harremanen sakontasun maila.

Elkarrizketatu gehienek elkarlanerako prestutasuna azaldu zutela diote; bereziki, politikari zein aktibistek. Gizarte eragileetako aktibistek zenbait politikaririkiko sentitzen zuten hurbiltasuna ere sarritan aipatzen da. Bildu gobernura heldu eta berehala hitzordua eskatzeko eta euren aldarriak transmititzeko erraztasuna zutela diote gehienek. Ondorengo testigantzak Della Porta eta Dianik (2011) aipatzen duten presio zuzenaren adibide argia lirateke:

«Yo conocía al alcalde, entonces fuimos a la toma de posesión y yo cuando lo vi le dije: ya me estás dando una reunión. Y dijo él: déjame una semana. Y le dije: vale, una semana; ni un día más» (...) «Una vez en una exposición que hubo en Pasaia, en un edificio que tienen allí medio abandonado, que hicieron un acto, pillamos al diputado allí y sabíamos que iba a crear un grupo de residuos y le dijimos que nosotros queremos tomar parte ahí.» (ELIM8: mugimenduetako kidea)

Elkarlanerako disposizioa egon arren, parte hartzeko sare edo espazio formal gutxi sortu ziren, eta sortu zirenak eremu instituzionalaren ekimenez jarri ziren martxan. Oraingoan ere, Berdintasun Zuzendaritzan bezala, gonbidapenezko partaidetzaz kasu baten aurrean gaude, eta ez bat bateko partaidetzaz edo oldarkorra (Blas eta Ibarra, 2006). Arestian aipatu bezala, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako lan ildo politiko nagusiak ez ziren eragileekin eztabaidatu. Halere, hondakinen kudeaketa planari dagokionez, antzekotasun handiak zeuden Bilduren asmo politikoen eta gizarte mugimenduen formulatzen zituztenen artean. Horren erakusgarri dugu talde bateko kideak aipatutakoa:

«Nik uste bakoitza bere bidetik joan zela, baina bide nahiko antzekoak ziren; hau da, guk ezer gutxi esan geniezaiokeen Aldundiari errauste planta nola geratu behar zuen, ez baikenekien. Baina bazekien hori zela gure eskaera, etengabe. Aurrera begira zer estrategia egingo ziren eta abar adostu, berriz, ez. Gure aldetik joan ginen, eta, zorionez, nahiko analisi antzekoak egiten genituen.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

Erraustegiarekin zuzenean lotura ez zuten eragileen aldetik ere hurbiltasuna eta irekitasuna nabarmen-tzen zuten:

«El acercamiento fue muy grato, nos apoyaron para crear un *Ecocenter*. Nos apoyaron a crear eso, y la verdad es que vinieron, estuvieron en la inauguración, aquello fue muy calido.» (ELIM 12: mugimenduetako kidea)

Politikarien aldetik ere herri mugimenduen hurbiltasuna ere aipatzen da. Presio gisa ere izendatzen dena hainbat momentutan, baina batik bat aukera moduan irudikatzen dute: «aukera bat zen urteetako hainbat borroka, eta herri mugimenduetatik eta sozialki izan zirenak, ba sartu ahal izateko. Eta gainera gai konkre-tuekin lotuta: erraustegia, Aralarreko pista, eta abar.» (ELPI3: arduradun politikoa)

Departamentuak lan eremu ezberdinak izan zituen. Kasu analisi honen sarreran aipatu dugun moduan, elkarlanerako espazioak eta dinamika ezberdinetatik letra lodiz daudenak aukeratu dira. Espazioen iraun-kortasun eta lan dinamiken sakontasun mailagatik:

- **Hiri Hondakinen Aholku Batzordea**
- **Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa**
- Elkarlanerako hitzarmenak
- Udaletxeekin sortu zen elkarlana
- Aurrekontuen bilera informatiboak

Aztertutako horietatik Hiri Hondakinen Aholku batzordea eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan parte hartzeko aukera eremu instituzionalaren ekimenez sustatu ziren, eta aurrerago ikusiko dugun mo-duan, espazio mugatuak edo sakontasun demokratiko gutxikoak. Batik bat bigarrena. Eremu instituziona-lak baldintzatu zituen erabat bi guneok. Espazioren helburuak eta funtzionamendu arauak, bertatik ezarri ziren, eta partaideek ez zuten gaitasun handirik izan horiek moldatzeko edo berregiteko.

Elkarlanerako espazio horietatik egonkorrena eta nagusiena Hiri Hondakinen Kudeaketarako Aholku Batzordea zen; bertan, herri mugimenduekin eta bestelako eragile instituzional eta ekonomikoekin¹⁰³ biltzen ziren, eta haren funtzio nagusiak hauek ziren: Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren analisia eta ebaluazioa, hondakinen kudeaketarako politikak aztertzea, eta gaiarekin lotura zuten proposamenak egitea. Partaidetza gune horren osaketarako aldebiko bilera ugari egin zirela diote orduko arduradun politikoei. Hortaz, espazioren sorreran mugimendu eta eragile ezberdinekin lanketa egin zen, eta espazioa eremu instituzionaletik baldintzatu arren, sortze prozesuan partaideen ikuspegia entzuteko eta kontuan hartzeko bidea zabaldu zen. Era honetan aurkeztu zuten medioen aurrean:

«Aholku batzordea sortzeko erabakia atzo hartu zuen Diputazioko gobernu kontseiluak, eta martxo bukaerarako prozesua bukatzea espero du. Diputazioko Ingurumen Departamentuko ordezkariak, Batzar Nagusietan ordezkari-tza duten talde politikoetakoek, mankomunitateetakoek eta hondakinen partzuergoek osatuko dute taldea. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eta Gipuzkoako udalek ere lekua izango dute. (...) Juan Karlos Alduntzin Ingurumen diputatuak astelehenean azaldu zuen hondakinen kudeaketa planak zehaztutakoa baino

103 Aholku batzordearen osaketan aurrez jasota dago.

hondakin gutxiago sortzen ari direla Gipuzkoan, eta, beraz, plana berrikusi behar litzatekeela. Aholku batzordearen zereginetako bat horretan datza. Plangintza interpretatzea, hondakinen bilketa aztertzea, hondakinen kudeaketa politiken jarraipena egitea eta, oro har, hondakinen kudeaketaren gaineko azterketak eta proposamenak egitea izango da batzordearen funtzioa. «Batzorde honek zubi lana egingo du planifikatzailearen, kudeaketa egiten duenaren eta gizartearen artean», azaldu du aldundiak.» (Mikel Peruarena, 2012ko otsailaren 29a. Berria)

Sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa (Ibarra, 2002, Blanco eta Gomá, 2002) aztertzeko, sarearen osaketa neurtu ohi da. Kasu honetan, Aholku Batzordearen eragile kopurua eta horien aniztasuna edota jatorria aztertzen badugu, kalitate edo sakontasun demokratiko handikoa dela esan daiteke. 45 partaidek osatzen zuten eta batzar nagusietako ordezkari politiko guztiekin batera, mankomunitate guztiak, ordezkari sindikalak eta ingurumenarekin zerikusia zuten herri mugimenduek ere parte hartu zuten. Gonbidatuen zerrenda ikusita esan dezakegu Aldundiak ahalegin berezia egin zuela, espazio anitza bezain zabala izateko.

Lanerako kopuru handia zen, eta bileren maiztasuna, aldiz, oso txikia. Agintaldian oso bilera gutxi egin ziren, eta elkarlan dinamika esturik ez zen garatu. Neurri batean, horrek guztiak lankidetzara esparrua zaildu zuen. Beraz, esan dezakegu, sakontasun demokratikoaren ikuspegitik hondakinen kudeaketaren eremuen zeuden eragile edo posizio ugari bildu zirela, baina elkarlana dinamika ez zela oso estua izan. Lan jarduna ahula izan zen. Beharbada Berdintasun Zuzendaritzan Gunearekin egin zuten bezala, lan ildoak edo batzordearen zereginak azpibaldeetan banatu zitekeen. Kasu honetan ez zen horrelako dinamikarik abiatu. Gobernantza espazio nagusia aholku batzordea zen eta hortik harago ez ziren lan ildo zehatzen araberako azpibaldeak osatu. Gure ustez, kasu honetan kopuruak ere partaidetza espazioa baldintzatu zuela esan daiteke. Eta sarearen dentsitate altuak elkarlan dinamikaren prozedura fintzea zekarren. Dena dela, dimentsio hori hurrengo atalean sakonki aztertuko dugu.

Hortaz, aktoreen dentsitate maila altua ez zetorren bat harremanaren intentsitatearekin. Legegintzaldien lehenengo urtean, hiru aldiz bildu zen batzordea, eta gerora urtean bitan bildu zen. Subirats, Parés eta Blancok (2009:376) harremanen intentsitatea neurtzerako momentuan puntuala edo zehatza eta sistematikoa den aztertzen dute, sakontasun handia edo txikia duen esateko. Aholku batzordea sakontasun gutxikoa izan zela esan dezakegu. Deliberazio eta partaidetza espazioek denbora behar baitute, eta kasu honetan, ez zaigu iruditzen sistematikoa dela urtean bi edo hiruko bilera maiztasuna. Are gehiago, ikusita gaiak hartu zuen dimentsioa.

Eragileek, ordea, modu positiboan baloratzen zuten, mugimendu eta arduradun politikoak ezagutzeko aukera zabaldu zitzaielako. Honela dio mugimendu ekologistako kide batek: «Beraz, eremu horrek aukera asko eskaini zizkigun gaiarekin lan egiten zutenekiko harremanak indartzeko: konfidantza, ezagutza... eta guri behintzat ate asko ireki zitzaizkigun». (ELIM9: mugimenduetako kidea)

Bigarren espaziora jotzen badugu, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioarena, egia da ez zela partaidetzarako mekanismo gisa sortu; jada martxan zegoen partzuergoa, eta bertako administrazio kontseiluan parte hartzeko aukera eskaini zitzaizen herri mugimenduei. Beraz, Aldundiko ekimena izan zen espazio horren irekiera, hau da, ez zuten eragileek eskatu, eta aktoreen kopurua ezarria zetorren. Administrazio Kontseiluko kide gisa sartu ziren, eta taldeak oso era positiboan baloratu zuen horrelako espazioetara gonbidatzea. Hiri hondakinen azpiegituren kudeaketarako erabakigune garrantzitsuenetarikoak baitzen, ez bazen garrantzitsuena. Espazio horren irekiera mugatua dela esan behar dugu, erakundearen izaeragatik soilik:

«Bilduk proposatu zigun ea eragile gisa nahiko genukeen ahotsa izan GHK-ko partzuergoko administrazio kontseiluan. 2011 bukaeratik 2015.urteko bukaera aldera arte han egon ginen. Aukera hori eskaintzea interesgarria iruditu zitzaigun, batez ere, hor informazio asko zegoelako azpiegitura dagokionean, datuei dagokionean, gestioari buruz, hau da, udalak bildu ondoren hori guztia kudeatu egin behar da, eta bideratu. Beraz, interesgarria iruditu zitzaigun horrelako esparru batean herri mugimenduari ahotsa emateko aukera eskaintzea, eta bertan ere iritziak plazaratu ahal izatea.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

«Lau-bost kide egongo ziren GHKn parte hartuko zutenak. Eta gero, administrazio kontseiluan, GHK-ko administrazio kontseiluan ere bertan zeuden. Lehendakariak erabaki zuen beraiek egon behar zutela, eta GHKko administrazio kontseiluan ere.» (ELPI4: Aldundiko arduradun politikoa)

Kasu honetan, espazioaren partaidetzaren nolakotasunean eragiteko ahalmena mugatua izan zen, eragileen aldetik, eta ez zuten bozkatzeko aukerarik. Hitza Mankomunitate eta Aldundiarena zen. Eragileei eskaintzen zitzaien informazioa eta bertan zeuden ordezkarien ezagutzagatik soilik, oso ondo baloratua izan zen. Kasu honetan, beraz, aurrekoan ez bezala, eragile kopurua mugatua zen, baina lan dinamika zorrotzagoa. Bileren maiztasuna handiagoa zen, eta harremanaren intentsitatea altua:

«Administrazio kontseiluan egoteak ahalbidetu zigun beste hainbat mankomunitateetako arduradunekin harremana indartzea, eta Aldundia zubi izatetik, azkenean puenteatzera pasatzea» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

«Bozka kontsurtzioan ez zuten, ezin zutelako izan, Kontsurtzioa eratuta zegoelako, bai udal ordezkariak edukitzeko bozka, baina GHK-ko administrazio kontseiluan bat gehiago ziren, bozkarekin eta, noski.» (ELPI4: arduradun politikoa)

GHKn gizarte eragileen eta bertan zeuden hainbat teknikari eta politikarien arteko harremanaren intentsitatea handia izan zen. Erabakitzeko gaitasunik ez zuten, baina harremanek eragiteko ahalmena handitu zuten, eta dokumentazioa lortzeko egoera pribilegiatu batean zeuden. Eragileen ahotsa politikarien aldetik aintzat hartzen zela adierazi digute berriemaileek.

Kasu honetan, Berdintasunean ez bezala, Aldundiko langileek parte hartu zuten Aholku Batzordean, baina haien esanetan, ez zuten dispositiboaren diseinuan ekarpena egiteko aukerarik izan. Politikari eta teknikarien artean tentsioa zegoela sumatu dugu. Era honetan deskribatzen du elkarrizketatu batek:

«No se conto con mi opinión. Y las pocas veces se hizo por escrito. No hubo una conexión entre el plano técnico y político. Había una gestión política y no técnica.» (ELT6: teknikaria)

Pasarte honetan, argi ikusten da eremu tekniko eta politikoaren arteko arrakala. Ezin dugu esan sentsazio hori orokorra zenik, baina agerikoa da tentsioa zegoela arduradun politiko eta hainbat teknikarien artean. Eta gobernantza sarean teknikarien begirada ez zegoela oso presente.

Azpiatal honekin amaitzeko, aipatu nahiko genuke Aldundiak udalekin elkarlanean aritzeko ahalegin berezia egin zuela. Gobernantza maila anizkoitz gisa definitu daitekeena. Izan ere, hiri hondakinen kudeaketa

udalen eskumena¹⁰⁴ da, nahiz eta hondakinen azpiegituren kudeaketa udalen eskumenetik kanpo¹⁰⁵ egon. Aldundiak udalekin harremana estutu zuen, eta antolaketa eredu bertikaletatik urruntzeko eta horizonta-lera hurbiltzeko saiakera politikoa egin zela ikusi dugu:

«Ahalegin berezia egin genuen udalekin eta Jaurlaritzarekin, baina bereziki udalekin. (...) Ordurako egindako bidean eta baita ere nahiz eta gero bestelakorik irudikatu den, guk oso garbi genuen Diputazioak gobernutik hondakinen kudeaketa ez zela Diputazioaren eskumena. Eta oso garbi utzi nahi izan genuen hasieratik, guk gehiago zentratu nahi genuela, hondakinen filosofian.» (ELPI2: arduradun politikoa)

Beraz, Udal eta Aldundiaren arteko elkarlana sustatu zutela, eta era berean tokiko administrazio ezberdinen arteko elkarlan sarea elikatu zela esan daiteke. Mankomunitateek ere paper garrantzitsu bat jokatu zuten. Udal askotan Hondakinen Kudeaketarako jarraipen batzordeak sortu ziren, eta bertatik parte-hartze prozesu ugari jarri ziren martxan. Horietako asko GFAko Herritarren Partaidetzarako zuzendaritzak diruz lagundu zituen, udal mailan gogoeta eta eztabaidarako espazioak zabaldu zitezten. «Lezon kriston lanketa egin zen hondakinen bilketarekin. Eta auzoz auzo joan ginen, auzo guztietara bi alditan; nik ez dut ezagutu herrian horrelako parte-hartze prozesu bat». (ELPI 4: arduradun politikoa)

Era batean, Aldundiak abiatu zuen bidea, gerora udalek ere martxan jarri zuten, kasu honetan intentsitate handiagoarekin. Aurrerago hobeto aztertuko dugun gatazkak konfrontazioa ekarri baitzuen udalerritan, eta tentsio handiko gaia bihurtu zen udal pleno askotan eta baita kalean ere. Horren erakusle ditugu hainbat udalerritan, etxeetako balkoietan eskegi ziren zabor poltsak.

25. Irudia: **Oñatiko irudia, atez atekoaren kontrako protesta**



Iturria: Diario Vasco (2011.03.11)

104 Eskuduntza horren araudiak honela dio: «Espainiako Toki Erregimeneko Oinarrietako 7/1985 Legearen arabera, Udalek dute Hiri Hondakin Solidoak kudeatzeko eskuduntza/ardura, eta hor barruan sartzen da bilketa eta ondorengo tratamendua». (Petxarroman, 2012:56)

105 Hiri Hondakinen eskumena jatorrian udalena izan arren, Petxarromanek dioskun moduan (2012:56) Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki bereganatuko du Gipuzkoako Hondakinen Kontsartzioaren bitartez. Izan ere, mankomunitateek hondakinen azpiegiturak kudeatzeko ardura partzuergoari eman diote, eta bertan era honetan banatzean da aginte kuota: %67 udal eta mankomunitateek eta %33a aldundiak.

Aztertzeko dago udaletan sortu ziren hondakinak kudeatzeko jarraipen batzordeen sakontasun demokratikoa, eta eragileen elkareragiteko ahalmena. Baina jakin badakigu parte-hartze prozesu ugari jarri zirela martxan —Bergara, Arrasate, Tolosa, Mutriku, Lezo eta beste hainbat— eta kasu batzuetan bilketa sistema hondakinen mahai edo batzordeetan eztabaidatu eta adostu zela.

Laburbilduz, esan dezakegu partaidetza espazio bakoitzak baldintzatu dituela sarearen osaketa, eta espazio horien sakoneko helburuak elkarrekin definitzeko aukera gutxi egon direla. Deliberazio eremuan sustaizailen nagusiak arduradun politikoak izan ziren, eta mugimenduetatik ez zen eskaerarik egon parte-hartze espazio berriak sortzeko. Halaber, harreman sarea mugatua dela esateko datuak ditugun arren, elkarriketatuek oso modu positiboan baloratzen dute, eta horrek ere udal mailako parte-hartze prozesuei atea zabaldu zien, mugimendu ekologistaren eta Gipuzkoa mailako udalerrien arteko harremana elikatuz. Beste era batera esanda, zenbait mugimenduren lan jarduna eta eragiteko ahalmena lurralde osora zabaldu ziren.

Hala eta guztiz ere, hondakinen kudeaketak aurreko legegintzaldietatik eta honetan bertan sortu zuen konfrontazio mailagatik, partaidetzarako zeuden espazioak beharbada oso baldintzatuta zeuden testuinguru politikoagatik, eta guneak murriztegiak zirela uste dugu. Aholku Batzordearen kasuan, sarearen osaketa zabala eta anitza izan zen, baina lan dinamikan, jarraian ikusiko dugun moduan, ahula.

4.5.4. Parte-hartze espazioaren joko arauak eta botere harremanak

Analisiaren bigarren atal honetan, sarearen osaketa behin aztertuta, lankidetzaren eremuan zeuden harremanei begiratuko diegu. Arantza eta bertuteetatik harago harremanen dimentsioan sakonduko dugu, ezberdinen arteko elkarreaginak nolakoak izan diren, hau da, lan baldintzak egokiak baziren edo barne zein kanpoko botere harremanek baldintzatu ote zuten elkarlan sarea. Horretarako, gatazkak, eta horien kudeaketarako estrategiak eta harreman sareen indargune zein ahulguneak bildu nahi izan ditugu. Beti ere sare horietan parte hartu zutenek adierazitako testigantzen analisitik. Xehetasunetan sartu aurretik, esan partaidetzarako espazioak anitzak diren neurrian, halabeharrez gatazkatsuek¹⁰⁶ ere badirela, eta horiek sakontasun demokratikoaren adierazle gisa darabiltzagu, baita berauek kudeatzeko diseinatu eta bidean sortu ziren estrategiak ere.

Gogorarazi nahi dugu, lehenik, Departamentuak eskuduntza zabala zuela, baina guk nagusiki hondakinen inguruan abian jarritako espazioak izan ditugula aztergai. Arestian azaltzen den 24. irudian ikusten den moduan. Hondakinen kudeaketaren eremuan, gizarte eragileentzako bi espazio egonkor eta bestelako elkarlan dinamikak sortu ziren. Herralde mailan kokatzen zen Hondakinen Kudeaketarako aholku batzordea eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa (GHK) lirateke gune nagusiak¹⁰⁷. Bi espazio horietaz gain, lan ildo espezifikoetan ere elkarlan dinamikak zabaldu ziren: hitzarmen edo diru laguntzen bidezkoak (Zero Zaborrekin, Emausekin...), aurrekontuen inguruko kontraste bilerak eta jardunaldiak lirateke elkarriketatuek gehien aipatu dizkigutenak.

Hondakinen Aholku Batzordearen kasuan, berdinetik berdineraren parte hartzeko aukera zegoela nabarmentzen dute zenbait eragilek. Konfrontazio egoera batetik, elkarlanerako saltoa eman zela diote, bai politikariek eta batik batik gizarte eragileetako kideek. Aholku Batzordearen joko arauak hasieratik oso zehaztuta

¹⁰⁶ Gogora ekarri nahi dugu, oraingoan ere sozioingurumen gatazkek (Martínez, 2011) demokratizazioarako eskaintzen dituzten aukerak. Eta ikuspegi horretatik jorratu ditugu.

¹⁰⁷ Bigarren honetan, eragileen partaidetza integratuko da bertako zuzendaritza batzordean. Ez da gogoretarako eta partaidetzarako espresuki sortutako espazioa.

zeuden, arautegi baten bitartez, eta izenak dioen moduan, ez zen espazio loteslea, kontsultiboa baizik. Aurrez aipatu dugun moduan, bileren maiztasuna txikia zen, eta elkarlan dinamika sakonagoa eskatzen zuen gaiak eta legegintzaldi osoan zehar egon ziren gatazkek, ibilbide horretan sortzen ziren gora beherak bertan jorratu eta landu ahal izateko. Horren erakusle ditugu ondorengo testigantzak:

«Batetik, aholku batzordea: urtean behin edo bitan elkartu zen, baina sortu zenerako berandu samar zen. 2012ko maiatzean sortu zen, eta hiru urte iraun zituen, gutxi gorabehera.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

«Nik parte hartu nuen aholku batzordean, eta hor bazeuden Gipuzkoako sindikatu, eragile guztiak bertan zeuden. Baina, hori zen... ez zuen funtzionatzen behar zuen maiztasunaz, nik uste dut. Zen gehiago aholku batzorde bat zen. Biltzen zen maiztasun eskasarekin; eta izan beharko lukeena ba eztabaida gune bat, edo parte hartze gune bat, zen gehiago informazio trasbase gunea edo, gehiago, ez? Behintzat nik parte hartu nuenetan, ez zen horrela eztabaida luzerik eman, edo gaiak zuen seriotasunak merezi zuen, nik uste dut, ba ez dakit, hausnarketa sakonagoa behar zela. Eta nik ez nuen ikusi bertan egin zenik horrelakorik.» (ELPI4: arduradun politikoa)

Nahiz eta espazio loteslea ez izan. Herrialde mailan biltzen ziren eragileen aniztasunak eta perspektibak, gatazken kudeaketak eta bestela ere politika publikoen inplementazioan eragiteko potentziala izan zeza ketela uste dugu. Eragiteko ahalmenak, halere, lan dinamika egonkor eta sakonagoa eskatzen zuen. Eta badirudi norabide horretan urratsak emateko zailtasunak egon zirela.

Elkarrizketatuek dioten moduan, espazio informatiboa zen eta ez hainbeste gogoetarako, eztabaidarako eta hondakinen politikaren norabidea markatzeko. Zentzu horretan sakontasun gutxiko espazioa zela esan daiteke. Sinbolikoki aldaketa esanguratsua da, kontuan hartzen badugu ordura arte Aldundiak ez zuela partaidetzarako eta deliberaziorako espaziorik sortu, baina edukiei eta politikei begira oso mugatua zen. Hortaz, harremanen intentsitateari dagokionez, sakontasun gutxiko espazioa zen Aholku Batzordea. Alabaina, harremanen ikuspegitik, eta aintzat hartuta gaiak ordura arte sortu zituen aurkakotasun eta tirabirak, posizio ezberdinak mantenduko zituzten eragileek mahaiaren bueltan esertzeko aukera izan zuten, eta eragile guztiei –izan politikari, eragile ekonomiko edo mugimenduak– parez pare elkar entzuteko aukera eskaini zitzairen. Bereziki aipagarria da eremu instituzionalean ordura arte ahotsik izan ez zutenei parte hartzeko aukera zabaldu zitzaizela, herri mugimenduei, hain zuzen.

Aldundiko teknikarien esanetan, batzordeak ez zuen funtzionatu. Prozedurarik gabeko plangintza baten baitan kokatzen zelako, eta erakundeak ezarrita dituen araubideak albo batera utzi zituelako.

«No llego a nada, porque ese foro era una manera de intentar dar procedimiento a una planificación que no llego a buen puerto, porque no se tramito ningún procedimiento, no se evaluó ambientalmente. Entonces desde ese punto de vista no tuvo mucha virtualidad, mucha efectividad. ¿Qué como herramienta era válida? Por supuesto, un foro en el que están representadas grupos junteros, UPV, asociaciones amas de casa, sindicatos... es un poco la misma composición que estamos haciendo ahora en nuestras planificaciones. Pero si luego no se plasma en nada no sirvió para mucho. Entonces yo tengo esa visión final, pues tanto que se hizo, no sirvió para

mucho... bueno eso pasa mucho en la administración pública. Había una estrategia de planificación, pero que no fue aprobado por ningún órgano, ni político, ni en juntas generales, no se hacía una evaluación sobre algo sólido. Era algo suelto, no tenía, era voluntarista pero no se insertaba en nada.» (ELT6: teknikaria)

Plagintza politikoak babes gutxi zuen alderdien aldetik eta ez zen batzar nagusietan onartu. Gogorarazi behar dugu, legegintzaldiaren hasieran, EAJk, Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak Ingurumen diputuari zentsura mozio bat ezarri ziotela, eta diputatua kargutik kendu zutela. Gertaera horrek agerian uzten du batzar nagusietako liskarraldia, eta eremu honetan bizi zen gatazka giroa. Nahitaez gertaera haiek aholku batzordean ere eragina izan zuten. Horrela jasotzen da orduko berri paperetan zentsura mozioaren gertakaria:

«Gaur bozkatu da Juan Carlos Alduntzin Gipuzkoako Ingurumen diputatuaren aurkako zentsura mozioa. PP, PSE eta EAJren aldeko botoekin aurrera aterata da. Goizeko 9:30etatik aritu dira batzarkideak eztabaidatzen, Gipuzkoako Foru Gobernuaren hondakinak kudeatzeko plana ardatz hartuta.» (Argia, 2012ko uztailearen 6a)

Bestalde, GHKri dagokionez, aurretik zetorren kudeaketarako gunea zela esan dugu jada, baina arduradun politikoez erabakitzen dute herri mugimenduek ere bertan parte hartu behar zutela, eta administrazio kontseiluan ahotsa izango dute. Euren partaidetza kasu horretan ere ez zen loteslea, baina bertan zeuden politikariek eta mugimenduetako kideek diote kontuan hartzen zutela.

Bestalde, eragileen aburuz, oso gune baliagarria izan zen. Norabide horretan bereziki bi arrazoi aipatzen dituzte: batetik, mankomunitate guztietako ordezkariak zeudela eta harreman sarea handitzeko baliagarria izan zitzaiela, eta, bigarrenik, informazioa lortzeko modua ere bazela. Hortaz, oso baldintza mugatuetan aritu baziren ere, oso era positiboan baloratzen dute bertan parte hartu zuten eragileek:

«Bilduk proposatu zigun ea eragile gisa nahiko genukeen ahotsa izan GHKko partzuegoko administrazio kontseiluan. Horrek ikaragarritzko lana suposatzen zuen, ze inolako ezagutzarik ez duzun eremu batean sartzea zen, txostenak irakurtzea, oso juridikoa, teknikoa... baina, bueno, ados egon ginen eta baietz esan genion. 2011ko bukaeratik edo 2012ko hasieratik 2015eko bukaera aldera arte administrazio kontseiluan egon ginen. Aukera hori eskaintzea interesgarria iruditu zitzaigun, batez ere, hor informazio asko zegoelako azpiegiturei dagokionez, datuei dagokionean, hau da, udalak bildu ondoren hori dena kudeatu egin behar da, eta bideratu. Beraz, interesgarria iruditu zitzaigun horrelako esparru batean herri mugimenduari ahotsa emateko aukera eskaintzea, eta bertan ere iritziak plazaratu ahal izatea.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

Ikusten den moduan, GHKn zeuden eragileetako batek aipatzen du botere harremana nahiko desorekatuta eta partaidetza oso baldintzatuta zegoela. Hala eta guztiz ere, euren lan jardunerako baliagarria izan zen. Administrazio kontseiluan egoteak lehen aipatutako arduradun politikoekin harremana landu eta indartzeaz gain, informazio ugari lortzeko aukera izan zuten, eta mugimenduaren lan jardunerako erabilgarria suertatu zitzaien bertatik lortutako dokumentazioa eta politikoki zein teknikoki nola antolatu, kudeatu eta erabakitzen zen ikustea. Botere harreman asimetricoak ziren, baina ez ziren mugatzen

baliabide materialen banaketara, baliabide erlazionalek pisu handia izango dute, eta beraz, sakontasun demokratikoaren (Subirats et. al, 2009:377) ikuspegitik egokiagoak dira. Administrazioaren barne funtzionamendua ezagutzeko aukera izan zuten, bere dimentsio tekniko zein politikoan, eta horrek ate asko ireki zizkiela diote.

Finean, harremanetarako dentsitate handiko espazioa bilakatu zen, hainbat kolektibo eta udal ordezkariaren artean. Hortaz, espazio honetan ere bozkarik gabe baina ahotsarekin sartu zirela esan daiteke. Politikariek ere aitortzen dute, GHKren kasua oso zaila zela herri mugimenduen partaidetza ahalbidetuko zuen espazio berria sortzeko edo berregiteko. Halaxe zioen arduradun politiko batek:

**«Kontsortzioa eratuta zegoen helburu batekin, eta da erraustegia egitea. Kontsortzioaren markoa, beraz, oso hertsia da. Kontsortzioak gero sortzen du enpresa bat GHK SAU (Sociedad Anonima Unipersonal-ak direnak), eta hor daude hainbeste kontseiluetako kideak, eta horrek kudeatzen du. Gu han ginen enpresako kontseiluko kide. Orduan, klaro, marko horretan nola sortzen duzu elkarlana...»
(ELPI3: arduradun politiko)**

Azken batean, espazioaren joko arauak nahiko markatuta zetozen eta gobernantza sarearen gune gisa definitu badugu ere, argi dago oso hertsia zela eta botere asimetriak markatuta zeudela. Osaketa araututa zegoen eta azpiegituren kudeaketara bideratuta. Haatik, gure ustez nabarmentzekoa da gune itxi horren irekierarako emandako urratsak. Aurreko legegintzaldietan sortutako espazioa zen, eta hondakinen azpiegituren politikan botere gune garrantzitsua zen.

Bestalde, botere asimetria kasu batzuetan, teknikarien aldetik ere eman zirela aipatu nahiko genuke. Teknikarien jarrera oso lotuta zegoen aurreko agintaldiarekin, eta erresistentzia handiak zituzten arduradun berriekin lan egiteko. Halaxe deskribatzen du mugimenduko kide batek harremana:

«Hasieran, lehenengo urtean, GHKn zeuden idazkari eta aholkulari juridikoa aurreko legegintzalditik zetozenak ziren, eta haien mehatxua zen gaur egun Katalunian parlamentuan gertatu den bera; alegia, letratuak esaten zien erabaki hori ezin zela hartu eta abar; gu ere gauza bera: aurreko legegintzaldiko teknikariek momentu oro sentiarazi ziguten gure ondasunak jokoan jarriko genituela hartzen genituen erabakiekin.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

GHKren baitan, agintaldiaren hasieran bereziki, botere harremanak oso markatuta zeuden, aurreko legegintzaldian erraustegiaren aldeko posizio politikoagatik, eta gerora, gaur egun ikusten dugun moduan, mehatxu horiek egi bihurtu dira. GHK-ko lehendakaria, eta Ingurumen diputatua, euren ardura politikoagatik edo hobe esanda, erraustegiaren proiektua gelditzeagatik eta zehazki horrek sortu zituen kalte ordainengatik epaitu dituzte Madrilgo Kontu Auzitegian¹⁰⁸; 2018ko azaroaren 11n argitaratu zen epaiketaren ebazpenak errugabe jo ditu bi arduradun politikoak.

Esanguratsua da kasu honetan eragile ekonomikoek presio talde gisa —bankuek eta hondakinen kudeaketaz arduratzen diren zerbitzu enpresek— izan duten eragina eta azpiegituraren finantziatorako nego-

¹⁰⁸ Proiektua eteteak sortu zituen kalte ordainengatik epaitu dituzte. 45 milioi euro, horietatik 36,3 aurreko agintarietako sinatutako *swap*engatik, kreditu toxikoengatik. Iraola (2018ko apirilaren 12a) Intxaurrandieta: «Azpiegitura egiteak oraindik ere ondorio ekonomiko larriagoak eragingo lituzke». Berria. Eskuratuta: <https://www.berria.eus/albisteak/150727/intxaurrandieta_azpiegitura_egiteak_oraindik_ere_ondorio_ekonomiko_larriagoak_eragingo_lituzke.htm>

ziazio prozesuan jokatu zuten papera. Blasek (2012) dioen moduan, erakundeetako botere zirkuluetara sarbide pribilegiatua izan ohi dute. Beste ikerketa lerro interesgarri bat zabaldu liteke eremu horretan. Gure kasuan, horien presentzia azaldu da GHKn bereziki. Eragile ekonomikoen eta alderdien arteko gobernantza sareaz ariko ginateke kasu horretan. Herrigintza ardatz duen gobernantza publikotik baino eragile pribatuetatik saretzen den gobernu gintzatik hurbilago legoke.

Bestetik, arestian aipatu bezala, gobernantza sarearen analisisan ez ohiko espazio informal gisa definitu daitezkeen momentuak zeuden; tresna analitikoetik harago dauden momentuak lirarteke, baina guretzako esanguratsuak direnak. Izan ere, Ingurumen Departamentuko ordezkari politikoek aurrekontuak kontrastatzeko bilerak ere egin zituzten gizarte mugimenduekin. Hauek ere botere harremanen ikuspegitik desorekatuak, informatiboak izan baitziren soilik. Mugimenduek, era batean, aurrekontuak gainbegiratzeko aukera izan zuten. Bilera horiek legegintzaldiaren azken bi urteetan egin ziren. Hainbat eragileri —Eguzki, Errausketaren kontrako plataforma, Kalapie eta abar— azaldu zitzaizen zeintzuk ziren diru partidak, bereziki, ingurumen gaietarako bideratzen zirenak eta zergatik. Hori guztia azaltzeko eta partekatzeko bilerok, dimentsio erlazionalaren ikuspegitik, uste dugu sare gobernantzaren eremuak ere badirela, oso espazio ahulak eta ezegonkorrak izan arren. Bereziki, herritarren partaidetzaren sakoneko helburuetatik hurbil daudelako. Herritarren sektore antolatuen jakintzari balioa eman eta eztabaida irekia sustatzeko edota komunitatearen beharrianak bistaratzeko modu demokratikoagoak direlako (Martínez, 2008:130). Baina kasu honetan, sakontasun demokratiko gutxiokoa. Izan ere, aipatu bezala, oso kontu zehatzetarako eta norabide bakarrean gauzatzen ziren komunikazio espazioak baitziren.

Elkarrizketatu ditugun gizarte eragileen artean, Zero Zaborrek eta Emausek nabarmentzen dute elkarlan dinamika emankorra izan zutela, batik bat lehenbizikoek. Hondakinen kudeaketarako hitzarmen ugari sinatu zituzten, besteak beste: ikastetxeekin —kafe makinekin—, Basque Culinary Center-ekin —eraikina «zero zabor» politikekin martxan jartzeko—, 2015ean Usurbilen ospatu zen Kilometroak festarekin, eta abar. Emausek, bestalde, Arrasaten abian jarritako *Ecocenterra* erakitzeko babesak jaso zuen Aldundiaren aldetik; horrekin batera, fundazioaren lan jardunak ere aitortza instituzionala izan zuela nabarmentzen du elkarrizketatu batek. Halaxe dio:

«En la época de Errazkin nos dieron un premio por trabajar en pos del “residuo cero”. Y bueno ese reconocimiento me parece que era justo, que estuvo bien, y es de agradecer, la verdad.» (ELIM12: mugimenduetako kidea)

Hitzarmen zehatz hauek baliabideen banaketarekin azterketa-eremuarekin lotzen ditugu. Hau da, baliabideen materialen banaketarekin, materialak eta erlazionalak uztartzen direla iruditzen zaigu. Neurri batean, eragileen lanaren aitortza esplizitua ere egin zelako. Azken batean, finantziario lerro bat zabaldu zela esan daiteke, hondakinen prebentzioan eta birziklapenaren alde zeuden eragileekin. Eta batzuentzat, Arrasateko *Ecocenterra* kasu, euren lan jarduna indartzeko balio izan zuen. Egia da baliabideen banaketa hau ez zela partaidetza espazioekin lotzen, baina elkarlan dinamikaren baitan kokatzea egokia dela uste dugu. Mugimenduen identitate kolektiboa indartzeko baliagarria izan zelako. Eta euren diskurtsoetan hori sarritan agertzen da. Nahiz eta aurrerago ikusiko dugun moduan, kontrako joerarako arriskua ere egon zen.

«Gauzak proposatzeko aukera izan genuen, adibidez, Kilometroak 2015ean Usurbilen, geuk eta Usurbilgo Ikastolak planteatu genion gaia Aldundiari, arropa saltzeko poltsen inguruan, plastikoaren ordez bestelakoak erabiltzeko... Hainbat ideia proposatu genituen, eta ondo hartu zituzten, aztertu egin zituzten, zenbait onartu egin zituzten eta, gainera, diruz lagundu.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

Berdintasun Zuzendaritzaren kasuan bezala, oraingo honetan ere, administrazioaren lan baldintzak ezarri ziren. Administrazioaren lan egiteko moduak, alegia, erritmoa, hizkuntza eta ikuspegia nagusitzen zen gune ezberdinetan. Eta horrek herri mugimenduen ekarpena eta lan jarduna zailtzen zituela diote. Hemen ikus dezakegu nola administrazio publikoa birsortzeko (Martínez, 2008) neurri zehatzik ez zen inplementatu. Partaidetza hauspotzeko oztopo bat zen logika administratibora egokitu behar izatea. Lan orduetan biltzen zen GHK, eta Aholku Batzordea, aldiz, arratsalde. GHKn parte hartu zuen kide batek horrela deskribatzen du bertako lan dinamika:

«Guretzat, lan egiteko moduak zailak ziren. Administrazio kontseiluan parte hartzeak, adibidez, asko eskatzen zuen, txostenak irakurtzeko, dedikazio bat eskaini behar zenion» (ELIM9)

Oro har, bai politikari zein militanteen ikuspegitik, elkarlanerako espazioen baldintzak ez ziren egokiak, administrazioaren logika burokratikoak gailentzen baitziren. Norabide horretan, aipatu nahi genuke gobernantza sareen lanerako moldeak ez zirela berritzaileak izan. Berrikuntza demokratiko gutxi eman zen maila horretan. Gune eta sarbide berrietarako urratsak eman ziren, baina eragileen arteko lankidetzaren saretzeko eta administrazioaren logika gainditzeko eta funtzionamendua humanizatzeko ez ziren baliabideak jarri. Partaidetza espazioetan botere harremanak orekatzeko tresnak ez ziren inplementatu. Berdintasun Zuzendaritzan ez bezala, eremu honetan, erabakiak hartzeko erraztailaren figura ez zegoen. Alegia, sare gobernantzaren ikuspegi mikroa ez zen aintzat hartu, eta partaidetza espazioen dimentsio sozio emozionala (Apodaka, 2012), ikusezin bilakatu zen, lan eremua lehenetsiz.

Beraz, partaidetzaren joko arauen analisiarekin amaitzeko, esan dezakegu gobernantza sarearen espazioak mugatuak eta sakontasun demokratiko gutxiak izan zirela. Borondate politikoa zegoen herri mugimenduekin elkarlanean aritzeko, baina eskaintzen zituzten espazioak mugatuegiak ziren sare gobernantzaren ikuspegitik, eta sarritan harremana eremu informalean eta maila informatiboan garatu zen. Hondakinen gaiak sortu zuen liskaraldia eta harrabots mediatikoaren ondorioz, lanerako baldintzak zaildu egin ziren. Partaidetza espazioek ez ziren testuinguruan ematen ziren gertaerara egokitu. Adierazgarria da, herri mugimenduen aldarriarekin bat egin arren, asmo politiko horien gauzapenean elkarrekin eta bestelako eragileekin lan egiteko zailtasun handiak egon zirela. Botere harreman asimetrikoak agerikoak izan ziren, bai Aholku Batzordean, zein GHK edota legegintzaldian zehar egin ziren bilera ezberdinetan. Ez ohiko aktoreak zeuden erabaki politikoak hartzen ziren tokietan, baina eragiteko oso ahalmen txikiarekin, eta sarritan soilik maila informatiboan geratzen zen. Baliabide ekonomikoak dagokienez, aldiz, hitzarmen ezberdinen bidez ekimen ugari babestu eta hauspotu izan ziren. Hau da, hainbat herri ekimen babestu ziren, eta proiektu ugari garatu ziren Aldundiaren laguntzarekin.

4.6. Gatazka eremuak eta horiek kudeatzeko tresnak

Jarraian, hasieran aipatu bezala, eremu honetan sortu ziren gatazkek aztertuko ditugu. Aldez aurretik argitu nahi genuke, parte-hartze espazioetatik kanpo eta barnean sortutako konfrontazioa izango dugula hizpide. Alegia, testuinguru politikoak eragindako tirabirek zipriztinduko dituztela elkarlan espazioak eta ez alderantziz. Fokua, hortaz, zabaltzeko beharra ikusi dugu. Aztergai izan ditugun gatazkek oso lotuta baitaude lankidetzaren esparruetatik kanpo suertatu ziren gertaera politikoekin. Kontuan hartu behar dugu erraustegiaren azpiegitura abian jartzeko erabakia hartuta zegoenean aurreko legegintzaldiaren amaieran, Bilduk erabaki hura bertan behera uztea erabaki zuela, eta hortik eratorriko ziren posizioak –atez ateko sistema inplementatzeko asmoak– zalaparta handia sortu zutela. Horrez gain, arduradun politikoaren arabera, erraustegiaren obraren esleipena hauteskundeak baino astebete lehenago sinatzen da. Horren erakusle dugu ondorengo pasartea:

«Maiatzeko hauteskundeetan Bilduk irabazten du. Ekainean, aldaketa ematen da instituzio guztietan, Diputazioan eta udaletan. Ingurumeneko diputatua berria da, baina GHKn oraindik aldaketa ez da ematen, ze GHKn udaleko ordezkariak osatzen dituzte mankomunitateak; mankomunitateetako ordezkariak kontsortzioa; eta kontsortziotik, GHK. Orduan, nahiz eta udaletan aldaketa eman den, oraindik hilabete bat barru arte ez da izendatzen mankomunitateko ordezkariak zeintzuk diren. Gero, mankomunitatea eratzen da, mankomunitate berria. Eta mankomunitate berriak ordezkari berriak izendatu behar ditu kontsortziorako. Orduan, Bilduko arduradun politikoak esan zion EAJkoari, jardunean dagoenari esaten dio: “Bale, aurkeztu dutenak ez du balio, bertan behera utzi. Herrialdea egoera ezberdin batean dago. Aztertu behar dugu zer egoeratan dagoen hondakinen zera, eta erabaki batzuk hartu beharko ditugu. Orduan, utzi bertan behera, eta kito”.» (ELPI4: arduradun politikoa)

Gatazka irudikatu beharko bagenu, alde batean leudeke Erraustegia alde batera utzi eta hondakinen gainkako bilketa sistemaren alde zeudenak, eta beste muturrean, atez atekoaren sistemaren kontra zeudenak eta erraustegiaren alde kokatzen zirenak. Hiri hondakinen kudeaketa sistemak oihartzun handia izan zuen komunikabideetan. Gaia ikertu duen kazetariak dioen moduan, komunikabideek ere konfrontazio hori hauspotu zuten. Bereziki, Diario Vasco egunkaria eta Euskal Irrati Telebistak. Gaia ikertu eta elkarriketatu dugun kazetariak, halaxe dio:

«Hor Diario Vasco batez ere, bueno ez bakarrik. Hau nik ikusten dudana esperientziagatik, Gipuzkoan oso enblematikoa bihurtu da; hor nik uste badagoela nolabait uff...badaude proiektu batzuk estrategikoak. Normalean estrategiko izenordea jartzen dietenak agintari edo *statu quo*ak eta orduan horren aurka mugitzen den guztia, bihurtzen da zea, gatazkatsu, eta kasu honetan, hau izan da enblematikoa, hau EAJren apustua izan da hasiera hasieratik, nik uste nahiko nabarmen gelditu dela Gipuzkoan proiektu hau gabe, lasai asko jun zitekeela bestelako hondakinen kudeaketa batekin, baina momentu batean, bihurtu zen nolabait arerio politikoa gidatzeko tresna bat oso izugarria ez, eta hor 2011 2015eko urte horietan, batez ere, nire ustez bilduk hartu zuen linea bat hondakinen bilketari begira, bueno pues nolabait esateko ematen zuten aukera handia, manipulaziorako eta jendea edo herriko jendea pixka bat aztoratzeko, eta hori oso ondo ikus zuten

EAJk eta mediatikoki ere, eta beste medioekin batera erabili zuten Bildu eta ezker abertzalea desgastatzeko. Eta bai, oso niretzako paradigmaticoa izan zan, batez ere Diario Vasco eta EITBko taldeak ere bai, ein zuten lan oso handia gai horretan. Gipuzkoan.» (ELKAZ1: kazetaria)

Legegintzaldi hartan hondakinen kudeaketaren eremuan ardura politikoa zuten elkarrizketatuek aho batez azpimarratzen dute, erraustegia bertan behera uzteak sortu zituen erreakzioak bortitzak izan zirela eta erasotuak sentitu zirela. Horren erakusle ondoko testigantza dugu:

«Nahiko desgastea zen, ikaragarria. Erasoa izan zen potentea, eta nik uste dut hondakinen gaiarekin sartu ginenean, atez atekoarekin sartu ginenean, eta errauste planta gelditzeko intentzioarekin sartu ginenean, ez genuen neurtu zer nolakoa izango zen erasoa. Nik uste ez zela aurreikusten horrelako eraso bortitza. Hostiak zetozen leku guztietatik.» (ELPI4: arduradun politikoa)

Arestian aipatu bezala, 2012ko ekainaren 22an, Juan Karlos Alduntzinek kontrako zentsura mozioa jaso zuen. Egoera liskartsuaren beste adierazle bat zela esan dezakegu. Diputatua kargutik kentzeko mozioa Markel Olanok (EAJ), Rafaela Romerok (PSE) eta Juan Carlos Canok (PP) aurkeztu zuten batzar nagusietan. Arduradun politikoak zioen ez zegoela modurik, ordezkarik asko borroka politikora begira zeudela, eta ezberdinen arteko elkarlan dinamika egonkorra sortzeko zailtasunak zeudela. Alderdien arteko desgasterako tresna bilakatu zela, eta komunikabideek zalaparta hori elikatu zutela esan daiteke, ezberdinen arteko elkarlana zailduz.

Politikarien arteko liskar mediatikoa, eremu askotan zegoen presente. Zenbait teknikariren jarrera ere oztopo gisa identifikatzen da hainbat elkarrizketaturen aldetik, bai politikari zein herri mugimenduen ikuspegitik. Batik bat, erraustegiaren inplementazioarekin zerikusia zutenen artean. Aurreko legegintzaldiko EAJko ordezkarik politikoeikiko nolabaiteko 'morrontza' zegoela diote. Eta horiekin lan egitea oso zaila izan zela nabarmentzen da. GHK-ko kasua da gehien aipatzen dena, elkarrizketatuen artean.

«Nik bai nabaritu nuela, udalekin alderatuta kuriozosa egin zitzaidan, morrontza handia politikoekiko eta horrek harritu minduen.»(ELPI4: arduradun politikoa).

«Sekula ezin da orokortu, ez? Hor teknikari asko dago, oso finak izan zirenak, baina nik beti esaten dut gu Aldundian edo Kontsorzioan geundenean, gobernuan geunden baina ez genuen boterea. Kontraboterean geunden. Bertako teknikariak eta nik ere nabaritu nuen. GHK SAU-en nabaritu nuen teknikariek lagundu baino, oztopoak jartzen zituztela. Eta askotan, guk hartu behar izaten genituen teknikarien rola. Guk eta bueno, ba kanpoko laguntza tekniko eskatu behar izaten genuen askotan, bertakoen laguntza ez genuelako. Azkenean, oztopatu egiten zuten lagundu baino.» (ELPI5: arduradun politikoa).

«Kontsorzioan tekniko asko zeudela kontratatuta beste objetibo batzuk aurrera ateratzeko. Eta beraz, horiek ateratzeko badaude, nolabait horren aldeko joerako teknikariak ziren baita.» (ELPI3: arduradun politikoa).

GHK-ko lehendakariaren arabera, irregulartasun ugari egon ziren, aurreko legegintzalditik zetozenak, eta ordura arteko kudeaketaren xehetasunak aztertzen pasa zuten denbora tarte bat. Teknikarierik ordura arte eman ziren urratsen informazio eskaerak egin zitzaizkien, baina zailtasun ugari topatu zituzten azpiegitu-

rarekin lotura zuten dokumentazioa topatzeko –horien artean Eusko Jaurlaritzak ematen zituen baimen bateratuak–. Halaxe deskribatzen du egoera arduradun politikoak:

«Irregularitasunak egon dira, kontratua gaizki sinatu da, eta ez dugu ezer ordaindu behar, ondorio horretara heldu ginen. Eta horrela ari ginela, bilera ezberdinak egin genituen GHK-ko teknikariekin, bilera horietan egon ziren GHK-ko teknikariekin, eta ea informazioa nondik ateratzen zen, edo zer zegoen, ez? Eta lehen aipatu dizudan teknikari horrekin egin genituen hiru bilera: 2013ko ekaina, uztaila eta abuztuaren. Eta pixka bat zen frogak nondik atera, edo nola lortu, ez? Ze guk bagenekien proiektu horrek ez zituela betetzen Jaurlaritzak ematen zituen baimen bateratuaren baldintzak. Ez zituen betetzen. PTSa da Aldundiak jartzen duen beste zera, arau batzuk; hori ere ez zuen betetzen. Orduan, gure galdera zen: “Bueno, eta jakitun ziren Jaurlaritzan? Jakitun ziren Aldundian PTSa eta Ingurumen Baimen Bateratua ez zela betetzen, eta horren kontra zihoala proiektua?”. Eta: “Bai”. Eta: “Bueno, eta zer erantzun eman zizuten? Jaurlaritzak onartu zuen Ingurumen Baimen Bateratua ez betetzea? Ze hori da ingurumena babesteko jartzen diren arauak. Orduan, baldintza horiek ez betetzea...”. Eta: “Bai, bueno, baina hitz egin genuen haiekin, eta esan ziguten: bueno, egin, eta gero aldatuko genuela. Geroago martxan jarriko zela baimena, baimenaren modifikazioa eta abar”. “Eta bueno, eta bilera horietako aktak eta... ze orain artxiboetan ez daude, eta...”» (ELPI4: arduradun politikoa).

Arduradun politikoak aipatzen duen irregularitasun orokortu ezin bada ere, larria dela uste dugu. Bereziki administrazio maila ezberdinen kontrol eta jarraipenari egiten diola erreferentzia. Elkarrizketatuek diote, teknikarien rola maiz erraztu bainoago zaildu egiten zuela eragile eta administrazioaren arteko elkarlana, batik bat erraustegiaren eta hondakinekin lotuta. Irregularitasun hauek erakundeek azken urteetan bizi duten desdemokratizazioarako (Tilly, 2007:13) joerarekin bat datorrela iruditzen zaigu edo Ibarrek (2011) aipatzen duen gobernagarritasunaren krisiarekin. Merkatuaren logikatik hurbilago egon litekeela pentsatzen dugu, Estatuaren logika arautzaitetik baino. Herritarren interesen defentsa, enpresa eta bankuen interesekin kontrajartzen da. Irregularitasunez gain, azpimarra berezia egiten zaio administrazioaren funtzionamendu burokratikoari; hortaz, erritmo, hizkuntza eta lan egiteko modu ezberdinen arteko lankidetzan erresistentzia ugari identifikatzen dira sarritan, batik bat eremu instituzionalaren aldetik berea gainjartzeko joera baitago.

Bestalde, politikarien esanetan, alderdien eremuan ere gatazkak sortu ziren. Koalizioa osatzen zutenen eta ordezkari politikoen eta alderdien artekoak. Hondakinen bilketa, arestian aipatu bezala, udalen eskumena zen, eta, horren harira, Aldundiak harreman estua egin zuen hainbat udaletxe eta mankomunitaterekin. Erraustegia geldiarazteak, eta azpiegiturari moratoria jarri izanak halabeharrez zekarren hondakinen bilketarako bestelako sistema bat abian jartzea, eta horretarako hainbat bilera izan ziren atez ateko sistemaren kudeaketa lantzeko. Alternatibaren premiak, prozesua azkartu zuen eta Bilduko udalek 2012ko otsailaren 22an, prentsurreko baten bidez iragarri¹⁰⁹ zuten atez ateko sistema indarrean jartzeko konpromisoa zutela, eta urte bereko ekainaren 4an, errauste planta ez finantzatzeko konpromisoa hartu zuten 50 herritako alkateek¹¹⁰.

109 Berria egunkarian horrela jaso da prentsurrekoaren agerraldia: «Bilduk gobernatzen du 34 herrietan. Koalizioko udal ordezkari ugari agerraldi bat egin zuten atzo, Donostiako Miramar jauregian, asmoaren berri emateko. *Gipuzkoarrok ongi egiten dugu* leloa atzean zutela, xehetasunak eman zituzten.» Berria. 2012ko otsailaren 23an <https://www.berria.eus/paperekoa/002/001/2012-02-23/Hamar_gipuzkoarretik_ia_lauk_atez_ateko_hondakin_bilketa_izango_dute_2013rako.htm>

110 23. irudian jasotzen da agerraldia (202. orrialdean)

Bitarte horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko parlamentuko hauteskundeak¹¹¹ izan ziren, eta desgaste politikoa antzematen hasi zen Bildu koalizioaren baitan. Esanguratsua da hauteskundeekin lotuta mugimendu bateko kideak dioena: «beldur elektorak sartu aurretik, guk esandakoak oso kontuan hartzen zituztela sentitu izan dugu.» (ELIM9: mugimenduetako kidea). Alegia, gaiak desgaste elektorala zekarrela ikusten hasi zirenean, norabide aldaketa bat egon zen, hondakinen bilketa sistemari dagokionez. Erraus-egia ez zen hondakin-bilketarako sistemaren definizioan, erritmoa apaldu egin zen.

Legegintzaldiaren bigarren urtean, beraz, oposizioa neurri horien kontra azaldu zen, eztabaida mediatiko handia sortuz. Testuinguru horretan, atez atekoaren aurkako kontramugimendu¹¹² bat sortu zen Gipuzkoa Garbia delakoa —bereziki, Tolosa, Legazpi, Ormaiztegi, Lezo, Legorreta, Villabona eta beste hainbat udalerritan—. Udalerrri horietako zenbaitzutan herri kontsultak antolatu zituzten, hondakin sistema ezberdinen iritzia jasotzeko, nagusiki atez atekoa eta bosgarren edukiontzia jarri edo ez erabakitzeko. Gertaera horien ostean eta bitartean, hondakinen kudeaketak hartu zuen dimentsio konfrontatibo mediatikoren ondorioz, atez atekoaren sistemaren inplementazioan norabide politikoaren aldaketa eman zen; tokian tokiko hondakinen kudeaketarako jarraipen batzordeen esku gelditzen da sistema ereduaren hautaketa. Horrek alderdien markoan, koalizioaren baitan, eztabaida eta tentsio ugari sortu zuen. Eta horren erakusgarri dira ondoko iritziak:

«Prensaurrekoa akats bat izan zen. Ez dakit zeinek erabaki zuen. Nik prentsan irakurri nuen. Adostuta zegoen prensaurrekoa egitera zihoazela, baina zer esatera ez. Orduan gaia lehertzen da, eta badaukagu esparrua nahi ez genuen tokian» (ELPI2: arduradun politikoa).

«Aurrena denak norabide batean joan ginen, eta gero aldatu egin zen. Hasieran, teorian, hondakinen politika eta gidaritzza eman beharreko pertsona nintzen. Baina zu norabide batean baldin bazoaz, eta gero birajea baldin badago, eta zu lehenengo noraidean bazoaz, pues... Benetan inportantea zen gauzetan energia jarri orde, askotan etxe barruko suak itzaltzen energia pila eta pila joan zen» (ELPI5: arduradun politikoa).

«Gaiak hartzen duen transzendentziaren baitan, alderdiko marko desberdinetan nolabait aktuatzea erabakitzen da. Bueno, aurretik ere bai. Edo aktuazioa aldatzea edo zerak daude, nolabait, egoera horrek tirabirak sortzen ditu. Eta hor Bildu eta ezker abertzalearen artean zurrumbilo horretan gora behera asko egon ziren.» (ELPI3: arduradun politikoa).

Berdintasun Zuzendaritzan bezala, oraingoan ere koalizioaren baitan tentsioak sortu ziren, norabide politikoaren inguruan. Alderdien funtzionamendu 'klasikoak' edo goitik beherakoak (Monedero, 2011:175) nagusitu zirela esan dezakegu. Barne demokrazia zalantzan jartzeraino. Della Portak eta Dianik (2011) dioten moduan, ezkerreko alderdietan ere profesionalizazioa eta eredu hierarkikoak indartuz joan dira. Gobernantza sarea eta partaidetza ereduetatik aldendu zirela esan daiteke, beraz. Krisi egoera hartan alderdien zuzendaritza politikoa zeramatenek erabakia hartu zuten eta orduan ezaguna egin zen esaldi hau erabili

111 2012ko urriaren 21an Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren. Hauteskundeak 2013an ospatzekoak ziren, baina Patxi Lopezek aurreratu egin zituen, PSE eta PPren arteko akordioa apurtu egin baitzen. (Berria, 2012ko urriaren 21a) <https://www.berria.eus/albisteak/69276/eusko_legebiltzarrerako_hauteskundeak_urriaren_21ean.htm>

112 Kontramugimendua definitzeko, Verdúren (2006:136) honako erreferentzia hau erabiliko dugu: «También cabe hablar de "contramovimientos sociales", entendiendo por tales aquellos que desarrollan acciones colectivas destinadas a impedir y oponerse a los cambios y a las demandas procedentes de diferentes movimientos sociales.»

zen aldaketa argudiatzeko: «nos han dado en la línea de flotación» (ELPI3). Esaldi horrek adierazten duena da, atez atekoaren kontrako kanpainak bere ondorioak izan zituela, eta estrategia politikoaren arduradunen esanetan, erritmoa moteldu beharra zegoela. Beraz, gatazkak sare gobernantza espazioetatik harago sortu ziren; parte-hartze espazioetan presente bazeuden, Bilduk ez zituen gobernantzarako espazio berriak sortu edo zeudenak intentsifikatu, gatazkaren kudeaketari begira. Ez hori bakarrik, Bildu koalizioak Gipuzkoa Garbiak antolatu zituen herri kontsulten kontrako jarrera azaldu zuen. Partaidetza mekanismo horiei atea itxi zien. Kontraesankorra erabat bere lerro diskurtsiboarekin eta praktikan abian jartzen ari zen gobernugintza sare ezberdinekin. Herritarrek gaiaren inguruan zuten iritzia jasotzeko mekanismo horren kontra azaldu ziren, eta eztabaidarako zenbait herritan posizioak gotortu ziren. Gobernantza sareen eta partaidetza politiken kontrako norabidea hartu zuten kasu honetan.

Bestalde, Gipuzkoa Garbiaren sorrera aztertzen badugu, elkarrizketatuen arabera, EAJ alderdiak sustatu zuen mugimendua izan zen. Halaxe jasotzen da ere Gipuzkoa Garbia mugimenduaren prentsa agerraldietan¹¹³. Horren erakusgarri da mugimenduko kideari egindako elkarrizketa. Era honetan deskribatzen du elkarrizketatuak euren kolektiboaren sorrera:

«Deitzen didate oposizioan zeuden EAJko bi politikaririk¹¹⁴: “aizu, zaborren kontu honekin arazo bat dago”. Errauskailua geldituko da, eta hauek esaten dutena da jarriko dutela herri guztietan atez atekoa. Eta hemen gertatuko da beti bezala alderdiak sartzen baldin bagara a *saco* hemen, egingo da dena atrintxeratu, eta honek ez du aurrera egingo. Eta orduan, arazoa gero eta gehiago zikinduko da.» (ELIM10: mugimenduetako kidea).

Kontramugimendua ez da partaidetza sarean integratzen, Aldundiko parte-hartze gunetatik ez da ahaleginik egiten elkarrizketa bideak zabaltzeko edota euren aldarrikapenak integratzeko. Eta Gipuzkoa Garbiak ere ez du asmo argirik azaltzen elkarlan dinamika abian jartzeko. Era batean edo bestean, esan daiteke, sare gobernantzaren logika baino alderdien artekoa nagusitzen dela auzi honi dagokionez. Konfrontazio logika honen baitan, aipatu nahi genituzke Gipuzkoa Garbiak antolatu zituen herri kontsultak, eta Bilduk horiekiko hartutako jarrera. 2013an udalerrri askotan antolatu ziren: lehenengo Legazpin, apirilaren 20 eta 21ean, eta ondoren Anoetan, Iruran, Ordizian eta Villabonan eta herritarren %30-40k¹¹⁵ (Berria, 2013.07.02) hartu zuen parte. Galdeteketak egiteko moduen inguruan, mugimendua eta Bildu bera kontra azaldu ziren. Irre-

113 Oñatin adibidez Gipuzkoa Garbiak egindako prentsa agerraldia, EAJren web gunean horrela jasotzen da: «Los representantes municipales y de las Juntas Generales de EAJ-PNV de Gipuzkoa, ante el intenso debate suscitado sobre la gestión de los residuos en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, y la imposición por parte de la Izquierda Abertzale del PAP como sistema de recogida de la basura de nuestras calles, sin dar la palabra a la ciudadanía, presentamos ante la sociedad guipuzcoana un nueva iniciativa denominada Gipuzkoa Garbia comprometida con los siguientes principios:...» Eskuratua: <<https://eajpnvonati.wordpress.com/2012/06/08/el-pnv-presenta-la-plataforma-gipuzkoa-garbia-contra-el-puerta-a-puerta-y-las-imposiciones>>

114 Biak Eusko Alderdi Jeltzaleko kideak eta kargu publikoak zutenak. Batak, Gipuzkoako udalerrri bateko zinegotzia zen eta bestea senataria.

115 Gipuzkoa Garbiak emandako datuen arabera, hauek izan ziren zenbait kontsultaren emaitzak: «Plataformak emandako datuen arabera, Anoetan 498 herritarrek eman zuten botoa, deituta zeudenen %35ek. Horietatik 493 bosgarren edukiontzia alde agertu ziren, eta hiru, atez atekoaren alde. Boto zuri bat egon zen, eta beste bat baliogabea. Aukera zutenen %40k eman zuten botoa Iruran: 464k. Bosgarren edukiontzia alde agertu ziren 457, eta atez atekoaren alde, bost. Boto zuri bat egon zen, eta beste bat, baliogabea. 2.838 boto jaso zituzten Ordizian: deituta zeuden % 40 ingururenak. Bosgarren edukiontzia aldekoak izan ziren gehien-gehienak: 2.765. Atez atekoaren alde egin zuten 40 herritarrek. 30 boto jo zituzten baliogabeketat, eta hiru herritarrek zuri bozkatu zuten. Villabonan aukera zutenen % 36k eman zuten iritzia. 1.625 boto bildu zituzten. 1.613k bosgarren edukiontzia alde egin zuten, eta bederatzik, atez atekoaren alde.» Ainara Arratibe Gascon. 2013ko uztailearen 2an. *Plataformak «presioei» egotzi die atez atekoaren aurkako botoak gutxitzea*, 2018ko ekainaren 30ean berreskuratuta: <<https://www.berria.eus/paperekoa/1532/013/001/2013-07-02/plataformak-presioei-egotzi-die-atez-atekoaren-aurkako-botoak-gutxitzea.htm>>

gulartasun —eroldari eta bozka sistemari dagokionez— ugari egon zirela salatu zuten. Gatazkak, finean, herritarren parte-hartzea zabaltzeko bideak mahai gainean jarri zituen. Irregularitasunak egon arren, aukera berriak zabaldu zitezkeen, baina herritarren partaidetza eskatzen zuten galdeketa ekimen hauen kontra azaltzeak, gobernugintzaren sakontasun demokratiko ahula adierazten duela deritzogu. Bilduren posizionamendua kasu honetan ez zen herritarren partaidetzaren aldekoa, kontsulten kontra azaldu baitzen. Herri kontsultek tentsio maila areagotu zuten eta Bilduren diskurtsoarekin kontraesankorra zen erabat.

Gatazken azpi-atala laburbiltzeko, aipatu nahi dugu eremua gatazkatsua zela jatorrian, eta sozioingurumen gatazka gisa definitu daitekeela kasua, 2002tik gaur arte. Konfrontazio maila handia zegoela bereziki eremu hauetan:

26. irudia: **Gobernantza sarearen gatazka eremuak**



Iturria: Egileak berak egina

Koadroan aipatzen den moduan, deskribatu ditugun gatazka eremuak ez dira hainbeste izango gizarte eragileen eta administrazioaren arteko elkarlan eremuetan. Horietatik kanpo gorpuztuko dira konfrontazio logikak. Konfrontazio maila horrek, hala eta guztiz ere, partaidetzarako eta eztabaida politikorako aukerak zabaldu zituela uste dugu. Martínez-Palaciosek dioen (2011:57) demokrazian sakontzeko aukerak zabaldu zituen gatazkak. Aurrerago sakonduko dugu gehiago begirada honetan.

4.6.1. Lankidetzaren indartze eta ahuldu zuten faktoreak

Jarraian, gobernantza sarearen indar-gune eta ahulguneak aztertuko ditugu. Horretarako, begirada ezberdinak hartu ditugu kontuan: politikariena, herri mugimenduetako militanteena eta teknikariena. Hiru profilek elkarriketetan aipatutako edukien analitika abiatu gara elkarlanaren puntu indartsuak eta ahulak aztertzeko.

Ardura politikoa zutenen ikuspegitik, elkarrengandik ikasteko eta elkar elikatzeko egon ziren aukerak azpimarratzen dituzte. Mota ezberdinetako eragileekin elkarlanean aritu ziren —Unibertsitatea, herri mugimenduak, sindikatuak, enpresarien elkarteak eta abar— eta horrek potentzial handia zuela aipatzen dute. Aktoreen dentsitatea eta aniztasuna identifikatzen dute indargune gisa. Hondakinen politika publikoen diseinuan, gobernantza sarea osatzen zuten espazio formal eta informalak kontuan hartuz, ikuspegi oso ezberdinetatik aztertu eta gogoetatu zela diote. Unibertsitateko adituek, nazioarte mailako gizarte mugimenduek, Estatu mailako beste udalerrietako esperientziak, eremua aztertzeko perspektiba ugari eskaini zituzten eta elkarriketatuek indar handiz aipatzen duten elementua da. Horren erakusle dira ondorengo pasarteak:

«Batetik, elkarreagina, elkar elikatzea inportante bat ematen da. Aukera ematen digu guztioi, elkarrengandik edo bakoitzak ekartzeko daukana jartzeko mahai gainean eta besteak ikasteko, ematen digu aukera baita ere beste herrialdeetako errealitateak ezagutzeko, Europako norabideak garbi adierazteko eta ez “Europar erraustegia dago, beraz, onartu behar da”. Gipuzkoa orduan zegoen erabaki momentu batean, eta guk planteatzen dugu goazen elkarrekin egitera. Gipuzkoan hiru gai zeuden estrategikoak zirenak: AHTa, Erraustegia eta Pasaiaiko portua. Nola da posible estrategikoak eta herritarrek ezin dute parte hartu? Horri buelta ematen saiatu ginen. Gure indargune nagusia hauxe izan zen: jende askorekin lan egin izana, jendeak ikustea eta errespetatzea besteen iritziak, lanerako oso esparru zaila baitzen.» (ELPI3: arduradun politikoa).

Aukera berriak sortu ziren, beraz, eremu ezberdinetatik zetozen eragileen arteko elkarrikeria politikora, eta, ondorioz, elkar eragiteko aukerak zabaldu zituen. Azken batean, begirada ezberdineko espazioa eskaini zela, jakinda hondakinen gaia aspalditik zetorren eremu gatazkatsua zela. Kasu honetan, mugimenduen aurretiazko protestek marko demokratikoan eragina izan zutela esan dezakegu, eta irekiera hori bat dator Euskal Herriko mugimendu ekologistak hainbat unetan —Leitzarango autobidea kasu— lortu dituen arrakasta demokratizatzaileekin (Zubiaga eta Barcenak, 1998).

Gizarte eragileek esandakoak aztertzen badugu, aldiz, hondakinen birziklapenak eta berrerabilpenak Gipuzkoako lurraldean izan zuten hedapena, zero zabor politiken norabidean emandako urratsak herrialde osoa zabaldu baitziren. Zero Zabor taldeko kideak aipatzen du, Europa osoan ez dela horrelako kasurik eman, eta kontzientzia maila asko zabaldu zela lau urteetan, bai maila instituzioanalean, teknikoan, zein herritarrenean ere.

«Jauzi handi bat ematen da azken bost urteetan: 2008an, pentsaezina zen Gipuzkoan birziklapenak eta haren inguruko gaiak hain barneratuta egongo zirenik, eta gatazka egon arren, ate atekoa bai/ez, alderdi politiko guztiek herritarrei eman dieten mezua izan da organikoa bereizi egin behar dutela, bosgarren edukiontzia erekin edo atez atekoarekin, baina bereizi egin behar dela. Hori gizartean barneratuta dago, eta Europatik, Zero Waste Europatik esan digute, urte gutxitan inongo herrialdeetan ez dela halako bilakaerarik gertatu, eta hemen nolabait oinarria ondo jarrita dagoela. Horregatik, askotan ikusten dugunean gatazka hau eta zenbait alderdi politikoren zuzendaritzatik lotu izan denean boto galera hondakinen kudeaketari, guk ikusten dugun hemendik bost urteetara atzera begiratu eta ikusiko dugula urte haiek ze arrasto utzi duten.» (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Arduradun politikoak ere halaxe zioen:

«Gipuzkoan azken urteetan, gai baten inguruan potente landu baldin bada —agian berdintasunarekin batera edo badaude beste batzuk-, baina esango nuke sektorial bat edo, -egia da gero fondo handia daukala-, baina hondakinena da. Gehiena hor egin dugu. Eta bataila handiena hor planteatu dugu. Nire uste dudarik gabe.» (ELPI3: arduradun politikoa).

Pasarte honen arabera, ondoriozta dezakegu gatazka berak elikatu zuela gaiarekiko hedapena eta kasu batzuetan kontzientzia maila. Beraz, nahiz eta profil ezberdinen aburuz, konfrontazioa elementu negatibo gisa definitu, agerikoa da posizioen arteko liskarrak ere prozesua zabaldu zuela.

Bestalde, hainbat mugimenduk hartu zuten erreferentzialtasuna tokiko administrazioan zein politikagintzan zein arlo komunitarioan ere esanguratsua da. Herri mugimenduek politikagintzan eragiteko ahalmena handitu zutela esan daiteke. Alderdi ezberdinen ordezkari eta herri mugimenduen baitan ere erreferentzialtasun handia lortu zuten, eremu instituzionalean bereziki:

«Alkate batek baino gehiagok jo izan du gugana iritzi eske, Elkarrekin Podemosek ere eskatu izan digute mintegi bat emateko, gaiari buruzko iritzia ezagutzeko. Sentitu dugu erreferente-edo izan garela, esaten dugunean kontuan hartzen zela, batez ere, Zero Waste elkartearekin harremana genuelako. Gaur egun oraindik, Josu Juaristi europarlamentariaren lan talde batean oso harreman ona dugu.» (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Bestalde, lankidetzaren sareak ahuldu zuten faktoreak aztertzerako momentuan, arestian aipatu dugun fenomeno azaltzen da berriz ere, komunitatearen eta hainbat gizarte mugimenduren partaidetza politikoaren indar falta. Bildutik hurbil sentitzen ziren mugimendu eta militanteen aldetik delegaziorako joera bat eman zen, parte-hartze sareak ahulduz. Desaktibazio hori era edo modu ezberdinetan bizi eta irakurtzen da. Bereziki aurrez aipatu dugun protesta zikloaren eremuan.

«Hor gertatu zena zen herri mugimenduan ibili ginen jende bat, instituzioetan sartu ginela; herri mugimendua pixkat geratu zen... Hustu bezala egin zen. Hustu bakarrik ez; egin zen erlaxatu: “Buf, egingo dute. Orain, instituzioetan daudela, egingo dute”. Eta hori akatsa da. Hori akatsa da, instituzioetan dagoenak ere babesa behar duelako. Bestela, nahiko lan badauka, urte horietan enpresa horiek sortu duten azpiegitura-sare hori, hasi funtzionarioetatik, hor dagoen sare hori —ezin da sinistu zer dagoen hor—.» (ELPI5, arduradun politikoa)

Gaia ikertu duen kazetariak ere bat egiten du mugimenduko kideek diotenarekin:

«Bildu sartu zen eta kaleko dinamika jeitsi egin zen. Herri mugimendua 2011ko buelta horretan nahiko geldirik zegoela eta erakundeetara heltzeak are eta gehiago ahuldu zun. Bilduk erabaki batzuk hartu zituen oso potenteak eta herri mugimendua zegoela nahiko flojo. Hor dialektika hori ematen denean herri mugimendu sendoa izatea eta babestea instituzioetan dauden horiek, bestela etortzen da statu quo eta...» (ELKAZ1: kazetaria).

Gobernantza sareek eta abian jarri ziren partaidetza dinamika ezberdinek ez zuten erantzun handia izan, herritarrak mobilizatzeko eta parte hartzeko zailtasun handiak egon ziren. Apaltze horren faktoreen artean aipatzen da, ardua politikoak izatera salto egiten zuten artean horietako asko herri mugimenduetatik zetozela, eta neurri batean herri mugimenduen hainbat sektore deskapitalizatu egin zirela edo ahuldu zirela, Bilduk hauteskundeak irabazi zituenean:

«Kaleak hustu genituen instituzioak betetzeko. Hau da, kalean mugitzen ginenak, kalean ordezkari ginenak, herri mugimenduetako ordezkari ginenak, instituzioetara joan ginen; eta kalea gelditu zen pixkat bat hutsik. Kaleak hustu genituen instituzioak betetzeko» (ELPI4: politikaria).

«Yo considero que Bildu no consiguió movilizar suficiente gente para apoyar su proyecto político. Pero no me estoy refiriendo a la incineradora. Yo me acuerdo,

-joe yo siempre he sido de la izquierda abertzale, para que nos vamos a engañar-, entonces, "Dios aquí, mecauen sos, todo el mundo tenemos que arrimar el ascua, y todos tenemos que trabajar, porque tal" y no me estoy refiriendo a la incineradora, me estoy refiriendo a cualquier tema. Y luego joder. Pfff .». (ELIM8: mugimenduetako kidea).

Ahulgune honek ezkerreko alderdiek herri mugimenduekin dituzten harremani egiten die erreferentzia. Kasu honetan, ezin dugu aipatu gabe utzi Ezker Abertzalearen ilegalizazio prozesuak izan duen eragina hau-teskundeen zerrenden osaketan. Izan ere, aurreko legegintzaldietan zerrenda ugari legez kanpo gelditu ziren, eta jende berria sartzeko ahalegina egin zen Bilduko hautagaitzak aurkeztu zirenean. Era berean aipatu behar dugu, elkarrizketatuen sentsazioa ere bada, ezker abertzaleko militantzia ez zela gehiegi inplikatu eremu honetan, eta herri mugimenduetako hainbat kidek babes eta partaidetza hori faltan bota zutela.

Herri mugimenduen eremuko ahulguneekin amaitzeko, esanguratsua suertatu zaigun alderdi bat aipatu nahi genuke. Partaidetza guneeetan buru belarri ibili zirenek aitortzen dute, erabaki guneeetan egoteak ere ondorioak zekarzkiela eta beharbada ez zirela gai izan hori berbideratzeko. Ondorioz, zituzten indarrak parte-hartze eremuetara bideratzen ari zirela, eta kaleko dinamikan eragiteko indarrak ez zutela. Azken finean, instituzionalizatzeko joera nabarmendu zen, batik bat, Zero Zabor taldearen kasuan, GHKn parte hartzeko ardurak eta dedikazioak oso altuak izan zirelako; hori neurri batean ere ahulgune gisa identifikatzen dute eurek. Herri mugimenduen egitura eta estrategiak zein baliabideak, hainbat kolektiboren kasuan, eremu instituzionalera mugatu ziren, horrek guztiak zituen ondorioekin. Horrela dio taldeko kide batek:

«Arriskua zen azkenean lan estilo batean sartzea, oso instituzionala. Alegia, informazio hori kudeatzea oso ondo dago, informazio hori beharrezkoa da, pribilegio bat da eskura izatea, gero beste gauza asko ulertzeko. Baina badu arrisku bat: hain gutxi ginenez zuzendaritzan, gure jarduna gehiegi enfokatzeko horretara, gehiegi instituzionalizatzea, eta gure esparrua izan behar lukeena (kalean eragitea, norabide egokia plazaratzea...) bigarren maila batean gelditzea. (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Neurri batean diote hori gertatu zitzaizela aurreko legegintzaldian, 2007tik 2011ra arte, ez zutelako inolako harremanik izan erakundeekin, euren lan jarduna kalekoa izan zen erabat. Aldiz, 2011tik 2015era, esparru horretan lan egiteko aukerak zabaldu zitzaizkiela eta, gehiago mugatu ziren politikak zuzenak ziren edo ez aztertzeraz, eta horiek babestera edo hauspotzera. Gobernantza sarean diote partaidetza oso baliagarria suertatu zitzaizela hausnarketa publikoak egiteko, datu asko baitzituzten, baina kaleko eremua hanka-motz gelditu zitzaizela. Eremu instituzionalean eta protesta edo mobilizazio eremuan aktiboki egotea oso zaila zela ondorioztatzen dugu testigantza hauetatik. Herri mugimenduen gihar politikoak bi eremuetan aktiboki parte hartzeko zailtasunak zituen.

Eta norabide horretan interesgarria da, mugimendu ekologistako kide batek dioskuna. Erakundeek dituzten mugetatik harago, herri mugimenduenak ere agerian gelditu zirela dio. Honela zioen:

«Instituzioek ezarritako muga ebidenteetatik harago, taldeok berok, geure ahulezitik, muga nabariak ditugula. Eta, nire ustez, muga horien kontziente izateak apal jokatzera eramane behar gaitu. (...) Gobernu alternatibo bat osatzen bada edo, hobeto esanda, gobernu alternatibo berri bat osatzen denean, herri mugimenduek ere heldutasun gehiago erakustea espero dut. » (ELIM11: mugimenduetako kidea).

Ahulgune honek parte-hartze sareen ondorioak ere kontuan hartzeraz garrantzitsua. Aurrerago sakonduko dugu gehiago espazio horiek duten eragina mugimendu antolatuetan.

Bestalde, eremu instituzionalaren ahulguneak nabarmenak ziren, gobernantza sarea zabaltzeko zailtasunetatik hasita, alderdien logikak pisu handiegia hartu baitzuen, komunitatearen eta eragile ezberdinen ahotsa entzuteko zabaldu ziren espazioetan. Bi faktore aipatzen dira etengabe, presa eta prozedura. Batetik, presa erraustegia geldiarazteak¹¹⁶ bestelako politika bat lantzea zekarrelako, eta aldaketa abian jarri nahi zen legegintzaldi hartan. Eta bestetik, prozedurarekin ere zituzten zalantzak azaltzen dira:

«Akats handietako bat presa izan da. Presak Bildu behartu zuen erabaki batzuk hartzera, bere oinarri soziala eta herritarrak prestatu gabe zeudelarik. Ez zituen erabaki okerrak hartu, gehienak erabaki zuzenak ziren. Errauste-plantaren eraikuntzaren datak eta hori gelditu beharrak erabaki azkarregi eta drastikoegi batzuk hartzera behartu zituen hainbat agintari. Nire ustez herritar asko ez zeuden prest, agintari askok ez zuten nahikoa bitartekorik herritarrak prestatzeko, eta zenbaitek inposaketa baten moduan hartu zuten, eta horrez gain, egon dira komunikabide eta alderdi batzuk hori hauspotu dutenak eta interesa ikusi dutenak arrakala bat sortzen eta hori aprobetxatzen.» (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Prozedurari dagokionez, esan bezala, kezka mahaigaineratzen dira. Presak eraginda, askoren ahotan aipatzen da horrelako aldaketa bat egiteko denbora behar zela. Bereziki kontuan izanda sortu ziren kontraktotasunak eta erresistentziak. Herritarren partaidetzarako espazioak zabaldu behar zirela, herri kontsulten bidez edo bestela, ez Gipuzkoa Garbiak formulatu zituen moduan, baizik eta hondakinen gaikako bilketa sistema ezberdinen artean aukeratzeko eta baita erraustegiaren inguruko iritzia zein zen ezagutzeko:

«Egokiena litzateke, atez atekoaz gain, beste bilketa sistema bat eskuartean izatea eta udaletan galdeketak egin ahal izatea. Horrek nolabait ahalbideratuko luke herritarrak kontuan hartzea eta haiek aukeratzea.» (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Hondakinen kudeaketa sistemaren inguruan jardunaldi eta parte-hartze prozesu ugari¹¹⁷ egin arren, kezka orokor bat badago aldundiek eta udalek zerabilten prozedurarekin lotuta. Azken batean, gobernugintzarekin lotu genitzake aipatutako kezka. Era honetan definitzen du mugimendu ekologistako kide batek:

«Mekanismoak badaude, hemendik hona joan behar baduzu, kolpez joan beharrean mailaka. Aldiz, Gipuzkoan, errauste plantaren mehatxuak horrela joatera behartu gaitu, eta horrek sortu ditu halako barne gatazkak agintean zeudenen artean, eta hori oso ondo erabili dute aurkako alderdiek eta komunikabideek egunero hauspotu dituzte atez atekoaren alde txarrak» (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Ordezkarri politiko eta eragile askoren ahotan azaltzen da, hondakinen sistema aldaketak sortutako harribotsaren aurrean, tenpusak moteltzea zekarrela, eta batik bat herritarrekin gehiago lantzea. Dena dela, aztertu dugun moduan ikuspegi hau kontrajutzen da herrialdeko udalerrri ezberdinetan martxan jarri ziren prozesu kopuruekin eta parte hartu zuten herritarrekin. Imanol Azkuek (2013) jasotako datuen arabera, eremu honetan 5.547 biztanle baino gehiagok parte hartu zuten Gipuzkoa osoan. Beharbada, liburuan

116 Gogoan izan behar dugu aldundiko 2012ko aurrekontuak onartzeko EAJ eta Bilduren arteko akordioa sinatzen dela, eta bertan erraustegiaren sei hilabeteetako moratoria adostuko dute. Gerora bi urtez luzatuko zena.

117 Ikusi kasu analisiaren testuinguratzean jaso dugun taula. Guztira hondakinekin lotura zuten 14 parte hartze prozesu kontatu ditugu, 2013an, Imanol Azkue Ibarbiak argitaratutako Herritarrekin liburuan.

jasotzen diren esperientzia guztiekin alderatuta, gai sektorialik jorratuena eta landuena izan zen eskualde guztietan. Dena dela, Aldundiko teknikarien aburuz, partaidetza guneak prozedura instituzionalean txer-tatzeko zailtasunak egon ziren, alderdien indar korrelazioagatik. Horren erakusle dugu ondoren pasartea:

«Había una estrategia de planificación pero que no fue aprobado por ningún órgano, ni político ni en juntas generales no se hacía una evaluación sobre algo solido. Era algo suelto, no tenía, era voluntarista pero no se insertaba en nada.»(ELT6, teknikaria)

Beraz, esan dezakegu alderdien arteko talkak gobernantza sarearen prozedura zaildu zuela, eta partaide-tzaren logika erabat baldintzatuta egon zela logika elektorlagatik.

4.6.2. Ingurunea –komunitatea eta administrazioa– eraldatzeko gaitasuna

Jarraian, 2011tik 2015era arte iraun zuen legegintzaldian gorpuztu ziren elkarlan dinamiken eraginak bildu eta aztertu ditugu. Eraginak bi eremu nagusitan: batetik, eremu instituzionalean, politika publikoetan eta administrazioaren logika burokratikoetan eragiteko ahalmena aztertzeke, eta, bigarrenik, eremu komunitarioan, herri mugimenduen lan jarduna eta partaidetza indartu edo ahuldu zuen ikusteko; aldi berean, eragileen autonomia baldintzatu ote zen aztertuko dugu. Azkenik, gobernantzaren iragazkortasuna eta medioen eraginak ea parte-hartze eremua zabaldu eta mugatu zuten.

Eremu instituzionalera jotzen badugu, politika publikoetan eragiteko gaitasuna egon zen edo ez ikusteko, erraustegia gelditu eta bestelako hondakinen bilketa sistema ezartzeak adierazten dute gizarte eragileek eragina izan zutela erabaki politikoetan eta eremu horretako politika publikoetan, baina ez hainbeste gobernantza sare edo espazioengatik. Horrek, neurri handi batean, alde zuzeneko zegoena indartu egin zuen, erraustegiak zekarren konfrontazio logikatik eta mobilizazio protesta zikloari esker esan nahi dugu. Erabaki horrekin batera, esanguratsua da mugimenduetako kideek erabaki politikoetan hartu zuten presentzia emaitza gisa identifikatzen dutela, eta eragile ezberdinek osatutako espazioa zabaldu zela:

«Gure ikuspegitik, oso garrantzitsua da jakitea enpresetako administrazio kontseiluetan egon gintezkeela agintean zeudenekin, eta ahotsa eduki genezakeela, eta etorkizunean ere hala izan beharko lukeela» (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Aurreko ataletan mintzagai izan ditugun hitzarmenek Emaus, Zero Zabor eta bestelako eragileekin, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren politiketan eragina izan zuten, birziklatze eta berrera-bilpenaren bideetan sakonduko duten ekimen ugari jarri baitziren martxan. Beste eremu instituzionalekin sarea eraikitzeke baliagarriak izan ziren, Unibertsitate eta Herrialde Katalanetako hainbat udaletxerekin harreman estua egin zen. Administrazioaren *input*ak nabarmen handitu zirela esan daiteke, beraz.

Elkarlan horretatik ere eragile zein politikariek diote identifikatzen duten eragina dela, hondakinen gaikoko bilketan eman diren urratsak, eta gairekiko sentsibilitate zein ezagutza maila. Horrela, elkarrizketatuek guzti hori balioan jarri behar dela azpimarratzen dute:

«Gipuzkoak zenbat aurreratu duen azken urteetan, batez ere 2011tik 2014ra, Europa mailan fenomeno bat da, aztertzeke modukoa; Europan esaten digute eredu garria dela, Gipuzkoan martxan jarritako ereduarengatik, lortutako emaitzengatik

eta azkartasunagatik, eta, batez ere, gizarte mugimenduengatik, nahiz eta guk hutsunea ikusi jende aldetik eta abar. Europan asko baloratzen da hemen herri mugimenduak zer pisu daukan. Hala, nik uste dut gauza asko egin direla urte gutxitan. Egia da ez dela dena legegintzaldira mugatzen, lehenagotik datorrela 2007-2008tik.» (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Beraz, hondakinen gaikako bilketan oso urte gutxitan urrats ugari eta oso bizkor eman zirela ondorioztatzen da. Eremu inestuzionalean, norabide politikoan eta hortik eratoritzen ziren politika publikoetan eragin zela esan daiteke. Hala eta guztiz ere, administrazioaren funtzionamendu molde burokratikoak eraldatzeko gaitasuna aztertzerako momentuan, aldiz, esan behar dugu, aldaketa ez dela inondik inora aurrekoan bezain handia izan. Espazio berriak zabaldu ziren eta herri mugimenduen zein herritarren ahotsa entzuteko aukera eskaini zitzaion, baina horrek guztiak ez zituen berrikuntza demokratikorako neurri berriak sortu, lan egiteko logikari dagokionez; alegia, hizkuntza administratiboa, langileen ordutegiak, departamentuen fragmentazioa, hierarkizazioa, eta teknokrazia ezaugarritzen dituzten beste hainbeste osagai eraldatzeko gaitasunik ez zen egon, ez herri mugimenduen aldetik ezta orduko ordezkari politikoen aldetik ere. Beraz, dimentsio inestuzional operatiboa (Subirats, 2009:394) aztertzen badugu, inestuzionalitate demokratizatzailea oso neurri apalean inplementatu zen Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren barne funtzionamenduan. Norabide horretan urrats gutxi eman ziren. Administrazio publikoa antolatzeko, kudeatzeko eta erabakitze moduen birpentsatzeko ahalegin gutxi egin ziren. Bestalde, teknikarien inertiak eta morrontza politikoak ere oztopo gisa identifikatu daitezke, asmo politiko berriak inplementatzeko erresistentzia ugari jarri baitzituzten.

Bestalde, gaian hainbeste aurreratu izanak ere desgaste handia ekarri zuela aipatzen dute, hau da, dedikazio maila altua eskaini zitzaioela gaiari; gatazken ondorioz nekea eta etsipena ere sortu zela azpimarratzen dute, bai orduko ordezkari politikoen aldetik, zein herri mugimenduen kasuan ere. Eta jende asko bidean erre egin zela. Ikuspegi honen erakusgarri, ondoko iritzia har dezakegu:

«Usurbilen abiatu zen, herri honek asko eskaini du, ordu asko, jende askok osasuna utzi du gai honetan, familia, bizitza pertsonala...Eta orain, mehatxua beti hori ikusteak min handia ematen du. Baina harro egon beharko genuke egin den ekarpenarekin, bestela ez ginateke hemen egongo parte hartzeari buruz hitz egiten» (ELIM9: mugimenduetako kidea).

Aipatu nahi dugu ere sakoneko elkarrizketak egiterako momentuan frogatu ahal izan dugula, orduan ardurara politikoa izandako eta mugimenduetan ibilitako askok, etsipen eta tristura handia transmititzen dutela. Hitz egiteko behar handia zutela esan dezakegu, —elkarrizketak zenbaitetan oso luzeak izan dira— eta desgaste pertsonal handia suposatu diela adierazi digute askok.

Erakundearen funtzionamenduaren mugekin lotuta, aipatzen dira ikusten ez diren botere faktikoen presentzia eta eragina, sarri erakundeetako ordezkariena baino handiagoa izan ohi dena. Izan ere, politikarien ahotik behin eta berriro entzun duguna izan da: '*erakundeetan agintzeak ez du esan nahi boterea duzunik*'. Botere guneak beste toki batzuetan daudela nabarmentzen dute, eta gune horiek enpresa munduarekin eta komunikabideekin lotzen dituzte. Beste eremu horietan dagoen boterearen kontra aritzea oso zaila dela azpimarratzen da. Kasu honetan, erraustegiaren bueltan zeuden interes ekonomikoak auzitan jarri eta alternatiba lantzeko bidean oharatu ziren, erabaki politiko horren atzean zeuden bestelako eragin ahalmen eta botere guneen indarrak. Ildo horren erakusle dira elkarrizketatuen ondorengo bi pasarteak:

«Azkenean, nik garbi ikusi dudana, boterea enpresak daukate, enpresek, bankuek, hori da boterea, eta gero daude beste txontxogilo batzuk. Txontxogilo batzuk alderdi politikoekin dabilzanak, eta botereak jartzen ditu horiek (...) Orduan, enpresa publikoa sortu genuen –Garbitania– eta horrek bai eman ziela beldurra horko enpresei. Hori zabaltzen bazen, kinka larrian jar zitezkeen Gipuzkoako bilketa asko. Eta gu inozoak izan ginen, eta igual, bada, azkarregi hezurra ukitu genuen. (...) Orduan, konturatzen zara teknikoki ere gauza asko nola egin behar diren, non egiten dituzten, ze presio dagoen hori ez egiteko, zeinek agintzen duen, erraustegiaren lobby-ek zer indar daukaten, eta, azken finean, horien morrontzapean nola dabilzan zer asko; nola ingenierien artean ez dagoen libre inor.» (ELPI5: arduradun politikoak).

«GHK-n bilerak arratsaldean egin behar izaten genituen, teknikariak tartean bazeuden, ba Diario Vascon ateratzen zen guk bileran hitz egindakoa. Orduan, bilerak egiten genituen beraiek jai zutenean.» (ELPI4: arduradun politikoak).

Lobby ekonomikoek eta komunikabideek auzi honetan presiorako ahalmen handia izan zutela azpimarratzen da. Funtzionamendu gerentzial eta merkatu logikatik oso hurbil dagoen publikotasunaz ari gara, eta araututa ez dauden erabaki guztiak liriateke horiek. Harreman informal eta interesen arabera dihardutenak. Ikuspegi honek bat egiten du bete betean Harneckerrek (2013) Hego Ameriketako ezkerreko gobernuen ibilbidea aztertzerako momentuan, asmo demokratizatzaileek sarritan topatzen dituzten erresistentzia guztiak. Estatu edo administrazioaren logika eta merkatuarena bereizteko beharra geroz eta nabarmenagoa dela diote. Gipuzkoako Foru Aldundiko esperientziak ere neurri batean frogatzen du, ezkerreko gobernuak eta hainbat herri mugimenduk ez zutela indar nahikorik administrazio publikoa sakonki demokratizatzeke (Santos, 2005).

Eremu komunitarioa jotzen badugu, elkarrizketen edukien analisiaren arabera, esan dezakegu ekintza kolektiboaren kapital soziala¹¹⁸ ez zela indartu, kasu batzuetan kontrakoa baizik. Herritarren parte-hartze prozesuekin lotuta 'loraldi' bat bizi izan zela, egin ziren guztiengatik –tokiko administrazioek sustatu zituztenak-, baina ez zuen partaidetzaren kultura eta autoeraketa (Martínez, 2014) indartu. Mugimenduen indarra eta giharra ez zen areagotu. Sare komunitarioa legegintzaldian zehar eta amaieran trinkoagoa zenik ezin dugu esan, beraz. Aurrez aipatu dugun Zero Zaborren dinamika, adibidez, legegintzaldiaren amaierarako ahuldu egin zen, nahiz eta legegintzaldi hasieran gorakada moduko bat ere bizi zuen, herri askotan talde berriak sortu zirelako. Legegintzaldi amaieran, ordea, egoera bestelakoa zen:

«Ez dugu lortu Zero Zabor mugimendua indartzea, erakargarria dela ikusaraztea eta horretan asko eragin digu gatazka giro horrek, asko erretzen baitu, eta Zero Zabor mugimenduko izatea badirudi askorentzat alderdi jakin baten aldekoa izatea dela. Guk zailtasuna horiek izan ditugu gure mugimendua indartzeko, eta pena da ze baldintzarik egokienak zeuden momentuan hasi ginen gainbeheran.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

Bestalde, arlo komunitarioan izan zuen eragin positibo gisa aipatzen da, baliabide publikoak jarri ahal izan zirela, herri mugimenduen egitasmoak laguntzeko eta aurrera ateratzeko, eta Administrazio Publikoak norabide horretan gehiago sakondu beharko lukeela uste dute mugimenduetako kideek. Azken finean,

118 Kapital sozialaren hainbat definizio daude, gure kasuan, hauxe aukeratu dugu: «Kapital sozialaren funtsezko hiru alderdiak: arauak, konfiantza eta harremanen sarea. Alegia: kapital sozialak esparru estruktural bat dauka, hau da, pertsona instituzio eta erakundeek dauzkaten harreman objektiboen sarea.» (Barandiaran eta Korta, 2004:12)

eremu komunitarioa erakundeetatik ere indartu daitekeela aipatzen da, eta instituzioen laguntza ere kasu askotan beharrezkoa dela. Bereziki praktika demokratizatzaileetan sakondu nahi bada, elkarrekin aritzeak eragina biderkatzen baitu, elkarrizketatuen esanetan. Eragin positibo honen atzean egin den gogoeta bat dator, ezkerreko gobernu, ezkerreko alderdi eta mugimenduen arteko artikulazio (Chávez, 2008; Harnecker, 2013; Rauber, 2010; Ibarra, 2011) berrien esperimenduzko behararekin. Finean, eremu komunitario edo auto antolatua eta eremu publikoaren arteko harremana garrantzitsua dela diote, eta norabide berean lan eginez gero, praktika eraldatzaileagoak jorratu litezkeela. Ezkerreko gobernuen jarduna soilik ulertu daitekeela gobernantza sare trinko eta zabal baten bitartez, eta ekintza kolektiboetako eragileekin lantzen bada. Eta kontrako norabidean ere harremanaren beharra aipatzen da, hau da, herri mugimenduek ere gobernu demokratizatzaileen beharra dutela. Horren erakusle dira ondorengo testigantzak:

«Aliantzak oso garrantzitsuak dira, herri sektoreekin herri mugimenduekin, eta gauzak jendearekin egin behar dira. Garrantzitsua da edukitzea gobernatzeko modu alternatibo bat. Ezkerreko proiektu bat hortik elikatu behar da, herritik. Baztertuta dauden gizarte sektoreetatik» (ELKAZI: kazetaria)

«Alderdiak gobernu osatzera iristen direnean kalea ez dutela ahaztu behar. Bestalde, herri mugimenduak ere heldutasun gehiago erakutsi behar dute. Dena eta edozer hil ala biziko balitz bezala ez jokatzeke; zero minututik "denak berdinak dira" esaka ez aritzea; memoria pixkat izatea, alegia. Zenbait kasutan, apalago jokatzerara ere nahi nuke. Zuk zeuk sustatutako aldaketa progresistak 'kalean' defendatzeko gauza ez zarenean. (...) Zenbait sektoretan 'kalea' goستن da. Kalea omen da aukera bakarra politiko guztiak berdintzen dituzten instituzioen besaulkien alde. Baina kalean urte batzuk daramatzagunok ondo asko dakigu: bat, kalean ez dabilela hainbeste jende eta, bi, kalean hotz handia egiten duela. Esaterako, kaletik, edo kaletik bakarrik, ez genuen erraustegia geldiarazi. Mugimenduek ere instituzioetan ere aliatuak behar dituzte. Instituzioek muga nabarmenak dituzten, baina kaleak ere bai». (ELIM11: mugimenduetako kidea)

«Ni bai konturatu nintzen herri mugimenduetatik lan asko egin zitekeela, baina momentu batean, herri mugimendutik bakarrik ezinezkoa zela horrelako proiektua gelditzea. Nahitaezkoa da herri mugimendua, baina behar beharrezkoa da instituzioetan dagoen jendearekin batera lan egitea; bestela, ezinezkoa da. Horrek bultzatu zidan hauteskundeetara aurkeztera.» (ELPI5. arduradun politikoa)

Gobernantza sareek duten garrantzia aipatzeaz gain, lankidetzara horren norabidea ere aipatzen da demokratizazioa hauspotzeko. Ikuspegi honetatik irudikatzen dute askok hartu-eman sarea:

«Nire irakaspena da, pixkat, herri-mugimenduak beti aktibo egon behar duela; beti modu independentean lan egin behar duela; beti egon behar duela bere lana egiten, eta politikoki kontrako jendea dagoenean, eta aldekoa dagoenean ere, jakin egin behar duela nola lan egin behar duen, ez du berdin lan egin behar kontrako dagoenean edo aldeko jendea dagoenean. Instituzioetan dagoen jendeak ere behar du herri-mugimenduen beharra, behar du. Gauza batzuk, paperak banatu behar dira. Batek egon behar du, zer paper nahi den herri-mugimendutik egitea, zer paper nahi den instituzioetatik egitea, helburu batera iristeko. Helburua

aurrena jarri behar da, eta banatu behar da atzetik nola iritsi helburu hartara. Herri-mugimenduari lanean utzi behar zaio; baina modu asko daude zuk nahi duzun helburu hura lortzeko. Hori ez baldin badago, ez baldin badago lan hori, atzetik egiten den hori, behin ere ez dugu lortuko botereari heltzea.» (ELPI5)

Bestalde, eragin mediatiko edo elkarlan sareek komunikabideetan izandako iragazkortasuna aztertzen badugu, esan behar dugu komunikabideek eremu honetan oso modu aktiboan parte hartu zutela. Parte-hartze espazio ezberdinek oihartzun mediatikoa handia izan zuten¹¹⁹, eta baita antolatu ziren kontsul-tek ere, baina iragazkortasun hori ez zen izan espazio horiek zuten eragiteko gaitasunagatik, bereziki izan zen konfrontazio logika horren erakusleho garrantzitsu bat bilakatu zirelako. Are gehiago, esan dezakegu neurri batean elkarlanerako dinamikak ere baldintzatu zituztela neurri txikian bada ere, gaia etengabe zegoelako komunikabideetan eta ondorioz, desgaste moduko bat ere bazegoen dimentsio mediatiko horrekiko, eta ikuspegi polarizatuak birsortzen lagundu zuela esan daiteke.

Interesgarria iruditu zaigu elkarrizketatu batek aipatzen duen ondoko ideia: *mass mediaren* interbentzioaren aurrean, bestelako komunikazio espazioak nabarmentzeko beharra. Aurrez aurreko komunikazioa, hain zuzen. Gobernantza sarearen informazio bide eta lan egiteko moduetatik hurbilago egon daitekeena. Horrela dio ardura politikoa izan zuen elkarrizketatu batek:

«Instituzioetan dabilena kalera jaitsi behar da. Niri erakutsi didana gehien atez atekoak izan da hori: zenbat hitzaldi eman izan ditudan; azkenean, gu jaitsi gara kalera. Eta gu joan gara jendearengana. Eta ni sartzen nintzenez areto batean, kristoren jende pila, kontrako jendea zegoenez, eta konturatzen nintzen nola, hasieran, denak oilategia bezala, dena builaka; eta han hasten zinen, pixkanaka-pixkanaka, eta, azkenean, bukatzen zenuen: "bueno habrá que probar". Hori ikusi egiten zuten beraiek.» (ELPI5: arduradun politikoa).

«2011 eta 2015eko urte horietan, batez ere nire ustez, Bilduk hartu zuen linea bat hondakinen bilketari begira, bueno pues nolabait esateko ematen zuten aukera handia, manipulaziorako eta jendea edo herriko jendea pixka bat aztoratzeko eta hori oso ondo ikusi zuten EAJk eta mediatikoki ere, eta beste medioekin batera erabili zuten Bildu eta ezker abertzalea desgastatzeko. Eta bai, niretzako oso paradigmatikoa izan zen, batera ere Diario Vasco eta EITBko taldeak ere, egin zuten lan oso handia gai horretan, Gipuzkoan.» (ELKAZI: kazetaria)

Eragin mediatikoak, finean, kasu honetan sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa elikatzeko eta indartzeko baina, kontrako eragina izan zuela esan daiteke. Interes handia piztu zen alderdien aldetik eta horrek neurri handi batean alderdien logika elektoralerako gai bilakatu zuen.

Azkenik atal honekin amaitzeko, esan behar dugu 2015eko udal eta foru hauteskundeetan EAJk hauteskundeak irabazi zituela eta gobernu aldaketarekin ez zela Hiri Hondakinen Kudeaketa eta Prebentziorako aholku batzordea mantendu. Espazio hori aurreko legegintzaldiarekin desegin zen eta Markel Olanok zuzentzen duen agintaldi berri honetan, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako Behatokia martxan jarri du.

119 Komunikabideetan izan zuen oihartzunaren adibide ditugu, ondorengo loturetan agertzen diren berriak: <https://www.berria.eus/paperekoa/1535/013/001/2012-02-29/aholku_batzorde_bat_sortu_du_gipuzkoako_diputazioak_zaborren_politika_aztertzeako.htm> <<https://www.argia.eus/blogak/zero-zabor/2012/05/09/gipuzkoako-hondakinen-aholku-batzordea-gaur-aurkeztuko-dute-donostian>>

36. taula: **Ingurumen eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren gobernantza sareen sakontasun demokratikoa**

GOBERNANTZA SAREA	ALDAGAIK
1. Hasierako kokapena eta elkarlanerako aukerak	1.1. Elkarlanerako irekitasuna 1.2. Elkarrekikotasuna eta edo elkarren aitortza 1.3. Elkarlana ulertzeko modua
2. Sarearen osaketa	2.1. Eragileen dentsitatea eta aniztasuna 2.2. Informazio eta espazioaren definiziorako gaitasuna 2.3. Sarearen sustatzailea edo ekimenaren jatorria 2.4. Harremanaren sakontasun maila.
3. Partaidetza espazioen eta elkarlanaren joko arauak, botere harremanak eta baliabideen banaketa	3.1. Elkarlanerako joko arauak eta botere harremanak 3.1.1. Gatazkak eta aniztasuna kudeatzeko tresnak 3.1.2. Lankidetzaren indartze eta ahuldu zuten faktoreak 3.2. Baliabideen banaketa
4. Komunitatea eta administrazioaren eraldatzeko gaitasuna	4.1. Administrazioaren eremuan 4.1.1. Politika publikoetan eragiteko gaitasuna 4.1.2. Erakundearen funtzionamendu burokratizatuak eraldatzeko gaitasuna 4.2. Eremu komunitarioan 4.2.1. Herri mugimenduen sarea eta partaidetza kultura indartzeko gaitasuna 4.2.2. Eragileen arteko ezagutza areagotzeko ahalmena 4.3. Eragin mediatikoa 4.4. Espazioaren iragazkortasuna

SAKONTASUN DEMOKRATIKOA TXIKIA	SAKONTASUN DEMOKRATIKO HANDIA	PARTE HARTZEAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK
<p>1.1. Espazio gutxi. Hiri Hondakinen Aholku Batzordea eta GHKko zuzendaritza batzordean</p> <p>1.3. Ideia edo proposamen argirik gabe</p>	<p>1.2. Sinbolikoki elkarrekikotasun maila handia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herri mugimenduen lanaren aitortza, baina sare gobernantzarako oso espazio gutxi eta oso mugatuak.
<p>2.2. Espazioa definitzeko gaitasun gutxi. Erakundeak gainordezkaritza.</p> <p>2.3. Ekimen instituzionala. Agintaldia abian zegoela martxan jarri zen.</p> <p>2.4. Bilera maiztasun txikia.</p>	<p>2.1. Aholku Batzordean dentsitate eta aniztasun maila handia. Amaraun instituzionalaren ordezkariak. Sare gobernantza batetik bat instituzionala</p> <p>GHKn mugimenduaren presentzia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Guztira lau bilera legegintzaldi osoan. Aholku Batzordearen bilera maiztasuna oso txikia zen. • Eragile asko ziren eta lanerako zailtasunak • Guztira 38 partaide.
<p>3.1. Desoreka handia mugimendu eta instituzioen artean.</p> <p>3.1.1. Gatazkak kudeatzeko zailtasunak</p> <p>3.1.2. Alderdien presentzia handiegia eta lehia politikoaren logikaren nagusitasuna.</p>	<p>3.1. Bide formaletatik haragoko komunikazio eta kontrasterako bilerak.</p> <p>3.1.1. Konfrontazio maila handia</p> <p>3.2. Baliabideen banaketa hitzarmen zein egitasmoen babesa.</p> <p>3.2. Tokiko partaidetza prozesu ugari</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mugimenduen eta eragileen arteko konfrontazio fase batetik zetozen eta elkarlanerako espazioetan hori birsortzeko arriskua handia zen. • Alderdien arteko lehiak asko zaildu zuen elkarlanerako espazioa • Administrazioak erraztaile lanak egiteko zailtasun handiak zituen.
<p>4.1.1. Sareetatik adostutakoa politika publikoetan eragiteko gaitasun mugatua.</p> <p>4.1.2. Erakundeen funtzionamendua eraldatzeko gaitasun gutxi.</p> <p>4.2.2. Eragileen arteko ezagutza gutxi</p> <p>4.3. Gaia mediatizatuta erabat</p> <p>4.4. Espazioaren iragazkortasun oso mugatua</p>	<p>4.2. Herrialdean partaidetza prozesu ugari hiri hondakinen gaiarekin lotuta.</p> <p>4.2.2. Zenbait mugimendu eta erakunderen arteko solaskidetza zuzena.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioaren funtzionamendua eraldatzeko oso gaitasun gutxi. Erakunde ezberdinen arteko elkarrizketa handiagoa eragile eta mugimenduen artekoa baino. • Zenbait mugimendu ahulduta atera ziren eremu instituzionalean hartutako inplikazio mailagatik. • Komunikabideak gobernantzarako oztopo, alderdien arteko konfrontazio logikan asko zentratu zirelako. • Espazioak iragazkortasun gutxi erakundeen funtzionamenduengatik.

4.6.3. Sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa elikatzen jarraitzeko desafioak

Ondorengo atal honetan, sare gobernantzaren sakontasun demokratikoa indartzen jarraitzeko dimentsio berriak bildu ditugu. Horretarako esperientzia honetan parte hartu duten eragile ezberdinen bizipenen analisia egin dugu. Horiek guztiak hiru eremutan sailkatu ditugu: eremu instituzionalari dagokiona, herri mugimenduen eta, azkenik, bien arteko elkarlan dinamika biltzen duena. Guztietan presentzia gehien izan duen horretatik abiatuko gara, dimentsio instituzionalarena, hain zuzen.

Erakundeen eremuan, ezkerren lidergotza instituzionalari ezaugarri espezifiko batzuk eranstean dizkiote elkarriketatuek, hau da, ezkerreko alderdiak erakundeetara heltzen direnean, barne mailan zein kanpoan bestelako funtzionamendu bat ezarri beharko luketela pentsatzen dute, bai politikari zein gizarte eragileetako kideek. Administrazio publikoaren barruko funtzionamenduari dagokionez, lan egiteko era burokratikoak eta gerentzialak eraldatzeko asmoarekin gobernatu beharko luketela diote, eta merkatuaren logikatik urrundu eta logika komunitarioa ezarri. Administrazio publikotik sortutako formula enpresariak erakundeetan ez luketela tokirik izan behar aipatzen da. Azken batean, administrazio publikoaren demokratizazioaren norabidean neurri gehiago inplementatu beharko liratekeela uste dute. Horren erakusle ditugu ondoko iritziak:

«Nik uste dut, lehenengo eta behin, hor dauden Sociedad Instrumental eta guzti horiek desagertu behar direla. Erabat. Ezin da diru publikoarekin enpresa pribatu baten moduan funtzionatu. Eta hori desagertu behar da. Ezin du egon jendeak lanean instituzioetarako, diru publikoa kobratzen soldata moduan, eta alderdi politikoei aukeratuak.» (ELPI4: arduradun politikoa)

Irregularitasunetatik harago enpresa gisa funtzionatzeko moduak ezarri direla diote, Administrazioaren izaera merkatuaren logikarekin uztartuz. Erakundeen funtzionamendu logika elitista izatetik logika komunitarioantze norabidetu beharko lukete ezker gisa definitzen diren indar politikoei. Eta eraldaketa horretan teknikarien parte-hartzea garrantzitsua dela diote, komunitatearekin elkarlanean eraikitzeko erabakigarriak izango baitira euren lan egiteko moduak eta jarrerak. Logika komunitario horren baitan, maiz aipatuko da elkarlana eta dentsitate erlazionalaren garrantzia, norabide eta maila ezberdinetan. Erakundeen baitan, departamentu eta maila ezberdinen arteko *—maila askotariko gobernu—* harremanari dagokionez, baina baita ere barne eta kanpoko eragileen arteko harremanari dagokionez, eta eremu horretan, gizarte mugimenduen protagonismo berezia izatea garrantzitsua dela diote esperientzia honetan parte hartu dutenek.

«Nire ustez, oro har, hausnarketa bat egin behar da: agintariak herri mugimenduen beharra dute, eta alderantziz. Biak uztartuta doaz. Gaur egungo agintariak publikoa izan behar du, komunitarioa. Baina agintariak ere kontziente izan behar dute herri mugimenduen zer zailtasun dituzten bizirauteko, eta eragitea nahi bada, ez dakit nola, baina bilatu behar da formula esparru bat horretan benetan lan egin nahi duen orok horretarako baliabideak izan ditzan.» (ELIM9: mugimenduetako kidea)

«Consideró que debería haber mas participación. Más espacios para la reflexión y el debate, frente a la burocracia que existe en las instituciones. Los tiempos de la Administración y de la gente son muy diferentes.» (ELIM8: mugimenduetako kidea)

Elkarlan horrek ezaugarrituko luke behin eta berriro nabarmentzen den 'gauzak egiteko beste era bat' aipatzen dutenean. Gizarte sektore baztertuei zuzendutako politika publikoak sustatzeko, bestelako politikak ezartzeko garrantzitsua jotzen da herri mugimenduen eta instituzioen arteko aliantzak:

«Eliteentzako gobernatu beharrean gobernatu behar da herritarrentzako eta horretarako aliantzak herri mugimenduekin oso garrantzitsuak dira. Garrantzitsuena da edukitzea da gobernatzeko modu alternatibo bat.» (ELKAZI: kazetaria)

Aliantzen begirada herri mugimenduen eta erakundeen ikuspegi erlazionalarekin lotzen da, hau da, bata zein bestea era isolatuan ezin dela ulertu, eta elkar eraginaren garrantzia azpimarratzen da, bereziki merkatuaren eta administrazioaren arteko elkarlana nagusitu ez dadin. Demokratizazio prozesuetarako garrantzitsuak jotzen dira, hortaz, ezkerreko alderdiek zuzendutako erakunde eta gizarte eragileen arteko akordio eta adostasunak, lan ildo edo lan eremu ezberdinetan jokatu arren. Begirada sinergikoa txertatzeko beharra identifikatzen da hainbat kasutan. Ildo horren erakusle, ondoko iritzia har dezakegu:

«Epe luzeagoarekin, eta, legealdi bat hasten denean, zein den helburua lau urteetan bete beharrekoa, bi urteetan bete beharrekoa, zer nahi dugun hemendik lau urtera edo hamar urtera, nola, non egon nahi genukeen... Eta guzti hori lortzeko, zer egin behar dugun. Zenbat pauso egin behar ditugun hori guztia antolatzeko. Hori horrela egin ordez, Diario Vasco hartu eta horren portadaren arabera, egiten duzun bitartean, pues emaitza izan behar dena. Eta, gaur egun, berdin-berdin.» (ELPI5: arduradun politikoa).

Agintaldien hasieran norabide politikoa elkarrekin adostearen beharra irudikatzen da etorkizunean. Helburu politiko zehatzen baita oinarritutako aliantzek izango baitute eraldaketarako eta demokratizatorako indar nahikoa. Bereziki, administrazioarekin elkarlanean diharduten enpresen interesen aurka diharduzunean. Horrela interpretatzen dute orduko hainbat ordezkariak. Eta garrantzi handia ematen diote hasierako asmo politikoak partekatu eta definitzeko momentuari.

Bestalde, elkarlan horretan, parte-hartze politikek aipamen berezia izango dute, baina arrisku handiz ikusten dira, ez badira ikuspegi politiko eraldatzaileekin lantzen. Izan ere, parte-hartze politikek legitimaziorako joko edo marketin politiko (Blas eta Ibarra, 2006) gisa funtzionatu dezakete eta arrisku horren aurrean sakoneko helburuen ikuspegia lantzea litzateke proposamena. Mugimendu ekologistako kide batek halaxe dio:

«Sarri, parte-hartze prozesuak beraien politikak legitimatzeko bideak baino ez dira, ez gaitzezen engaina. Egia da erantzukizuna haiena dela eta ez beste inorena. Onerako eta txarrerako.» (ELIM 11: mugimenduetako kidea)

Esanguratsua da ere norabide horretan elkarrizketatuko politikari batek dioena. Legegintzaldiaren hasieran ardura politikoa izan zuen batek dioskuna:

«Oso erraza da partaidetzaz hitz egitea, oso erraza bihurtzen ari da, denek egiten dute. Arazoa da zertarako egin nahi duzun. Ni orain honea kotxez nator eta irratian entzuten dituzu erakundeen aldetik kanpainak eta dena da etorkizuna eraiki, ez dakit zer, parte hartu... Zertarako? Ez dago benetako ahalduntzerik, ez didazu uzten,

makilaje hutsa da, ezin dut erabaki, zuk erabakitzen duzu. Galdetu egiten didazu, baina badakizu zuk erabakitzen duzu. Hori ezin da, hori askotan, ze proiektuen alde egingo duzu: aukera ezazu bat. Bai eta zer, ama edo aita, baina nik eraiki? Noiz eraiki dezaket? Noiz hasieratik elkarlanean?». (ELPI3: arduradun politikoa)

Partaidetzaren sakoneko helburuei egiten diete erreferentzia arestian aipatutako bi pasarteek. Zergatik eta zertarako¹²⁰ parte-hartze politikak. Gizarte sektore baztertuen ahalduntzea eta erabakitzeko ahalmena areagotzeko ikuspegiarekin landu behar direla uste dute esperientzia bizi izan duten hainbat kidek. Bestela, marketin politikorako tresna bilakatzeko arriskua baitago. Partaidetza politikei eta gobernantza sareari zentzu politiko bat ematea ezinbestekoa da zenbait elkarriketaturen arabera. Ezberdintasun sozialekin eta botere harremanen eraldaketarekin lotzen dute.

Dena dela, demokratizazioan sakontzeko aipatzen da aldaetok inplementatzeko beharrezkoa den denbora. Administrazioaren tempusak kaleko dinamikak baino askoz geldoagoak dira, eta horrek sarritan elkarlan dinamikak zailtzen ditu. Bi eremuetako batena gailentzen delako, kasu honetan administrazioarena. Elkarlanerako erritmoetan tarteko puntua topatu beharko litzatekeela uste dugu. Alegia, administrazioako arindu desburokratizazioaren bitartez, eta komunitatearenak uztargarri izateko tresnak ezarri behar dira. Edo gutxienik bi tempusen arteko elkarriketa eman daiteke tokian tokiko elkarlan dinamikien negoziazio prozesuan.

Hasieran esan dugu moduan, azken atal honetan bi eremutan bereizi ditugu. Orain arte eremu instituzionalaren ikuspegitik aritu gara, eta jarraian herri mugimenduen ikuspegitik jorratuko ditugu.

Eremu instituzionalean demokratizazioa sustatzeko, herri mugimenduen lan jardunak garrantzi handia duela kontsideratzen dute elkarriketatu ditugunek. Eta hurbileko indar politikoek gobernua lortzen dutenean ere euren tokia ez galtzea ezinbestekotzat jotzen da. Are gehiago, herri mugimenduen presentzia handia beharko litzatekeela aipatzen dute hainbat ordezkari. Ekintza kolektiboaren sustatzaileen presentzia indar handiagoz ikusarazi behar dela pentsatzen da. Mugimenduetatik jaso dugun beste diskurtso batek dio alternatiba eraikitzeke mugimenduek ere erantzukizunez eta arduraz jokatu behar dutela, mugimenduen mugek ere 'apal' jokatzera eraman behar dituztela.

«Nik uste dut hurrengo legegintzaldian gu bertan baldin bagaude, zaindu behar dugun gauza bat dela, herri mugimenduen presentzia; eta hori nik uste dut nahitaezkoa dela, ez? Azkenean, batzuetan, bazirudien gu ari ginela guztien kontra. Eta guk atzera begiratzen genuen, eta falta zen jendea. Bakarrik sentitu ginen. (...) "Waterloo-n gaude. Kristoren bataila, etsaia, armak, denak hor...Atzera begiratzen dugu, eta kaben dio, ez dago inor, bakarrik gaude, ez?". Instituzioek, gu bagaude, noski, herritarren edo herri mugimenduen ahotsa eramango dugu instituzioetara; baina herri mugimenduen ahotsa entzun egin behar da kalean. Ez bakarrik instituzioetan.» (ELPI4: arduradun politikoa)

«Mugimenduek instituzioetan ere aliatuak behar dituzte. Instituzioek muga nabarmenak dituzte, baina kaleak ere.» (ELIM11: mugimenduetako kidea)

¹²⁰ Sakoneko helburuek parte hartzearen arrazoibideei egiten diete erreferentzia. Norabide horretan, gogora ekarri nahi dugu Asier Blasek eta Pedro Ibarrak (2006:10) *La participación: estado de la cuestión*, argitalpenean aipatzen dituzten sakoneko kezkek. Autore hauek zazpi aipatzen dituzte testuan —besteak beste legitimazioarena, kudeaketa publikoaren hobekuntza eta eraldaketa sozialarena edo demokratizazioarena— elkarriketatuek azken honi egiten diote erreferentzia.

Beraz, herri mugimenduen jarduna erakundeen lan jarduna bezain garrantzitsua dela dirudi, bata bestea-rekin osagarritu daitekeela azpimarratzen baitute askok. Demokratizatorako eta eraldaketarako urratsak emango dira, baldin eta bi norabideetan –ipar konpartituarekin– lan egiten bada. Eragileen aldetik ere aipatzen da ikuspegi ezberdinak daudela eta euren arteko harremana ere hobetu beharko luketela. Elkar ezagutza eta elkarlaguntza sustatzea litzateke, hortaz, aipatzen den beste erronketako bat.

«Me parece interesante que nos conociéramos muchísimo más a fondo todas la organizaciones sociales. Y así, podamos trabajar entre diferentes y podamos adquirir mayor protagonismo. Entre algunas organizaciones existe mala relación.»
(ELIM12: mugimenduetako kidea)

Eta era berean, elkarlanak ez ditzala mugimenduak irentsi, kontrakoa baizik, indartzeko edo gutxienik gehiago ez ahultzeko balio beharko lukete gobernantza sareek. Zenbait kasutan, kontrakoa eman baita, hau da, talde gisa indartu beharrean, ahuldu egin ditu parte-hartze instituzionalak. Ildo honetatik, esperientzia honek ere agerian uzten du, erakunde instituzionalek herri mugimenduen lana aitortu dezaketela eta lan jardun hori babesteko baliabideak eta laguntzak eskaini ditzakeela. Azken batean, administrazioaren baliabideak autoeraketa prozesuen mesedetan ere jar daitezkeela.

Amaitzeko, elkarlanaren nolakotasunean jarri nahiko genuke arreta. Izan ere, logika ezberdinen arteko lankidetzak esparruak ahalbidetzeko, bai parte-hartze politikoetan, sare gobernantzan zein bestelako elkarlanerako espazioetan lana nola egiten den ere garrantzitsua dela diote, eta espazio berrien eraikuntzan lanerako molde berriak sortu beharko lirakeela azpimarratzen dute. Molde erakargarriak, jasangarriak eta ahuldu baino indartzeko baliagarriak izango direnak. Horrekin lotuta dator Apodakak (2012) partaide-tza politikoan edota edozein prozesu kolektibotan kontuan hartu beharrekoa den arlo emozionalaren eta talde prozesuen zaintzaren –kohesioa, konplizitateak eta akordioak eraikitze tresnak– garrantzia, lan arloak sarritan beste hori ikusezin bihurtzen baitu.

5. Ondorioak

ARRAZA **IRABAZIA**

ERRO **ERRO**

Ikerketa lan honen hasieran aipatu bezala, demokrazia eredu bakoitzaren —ordezkatzaillearen, partehar-tzaillearen edo erradikalaren (Parés, 2009:442)— arabera, herritarren partaidetza aktiboagoa edo ahu-lagoa irudikatu daiteke. Merkatuaren logika hegemonikoari aurre egitearen alde dauden ahotsak, ordea, komunitatearen presentzia indartu beharra dagoela diote, Estatuaren funtzio arautzailearekin batera (Santos, 2005). Bi eremuen arteko zubigintza aztergai duten lanetatik eratorzen dira eztabaidagai izan ditugun proposamenak. Era berean, ezkerreko indar politikoen eremuan kokatu dugu ikerketa lana. Az-tertutako kasuak sinbolikoki edo diskurtsiboki, bederen, hurbileko posizioetan kokatzen dira.

Inguruabar horretan, herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko elkarlan sarearen sakontasun demokratikoa zein eraldaketarako gaitasuna izan ditugu aztergai; zehazki, 2011n Bildu koalizioaren agin-taldian, batetik, Berdintasun Zuzendaritza eta Gipuzkoako emakume elkartearen zein mugimendu femi-nistaren artean, eta bestetik, Ingurumen Departamentuaren eta mugimendu ekologistaren artean izan zuten hartu emana. Legegintzaldi hartan, mugimendu, elkarte zein herritarrek era ezberdinean parte har-tzeko aukera izan zuten, koalizioak abiatutako ekimen instituzionaletan (Azkue, 2013:270). Berdintasun Zuzendaritzak eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak ere ahalegina egin zuten, eremu bakoitzean politika publikoak definitzeko interlokuzio politikorako espazio berrien ekarpenekin. Izan ere, antzeko kasuak aztertu dituzten pentsalarien esanetan (Chávez, 2008; Harnecker, 2013), gizar-te eragileek erakunde instituzionalekin duten elkarrekintza bera, erabakigarria izan daiteke, ez bakarrik erakundeen funtzionamendurako, eta horren gidaritzak estrategikorako, baita ere herri mugimenduen boterea eta haren gaitasunak elikatzeko; finean, merkatuko elite ekonomikoen eta multinazionalen bo-tere korporatiboen aurrean beste indar korrelazio bat eraikitzeko. Alta, kasu analisietan ikusiko dugun moduan, administrazioaren eremuak eta gizarte eragileenak logika, erritmo eta filosofia ezberdinen ara-bera funtzionatzen dute, eta bien arteko hartu-emana sustatzeko bidea konplexua da, beti ere mugimen-duaren autonomia galdu gabe, bien arteko elkarlana ahalik eta eraginkorrena izatea nahi bada, ezkerreko helburu politikoak erdiesteko.

Ondoren, norabide horretan, doktorego tesi honetatik eratorzen diren ondorioak bildu ditugu. Horretar-ako, ikerketa lanaren hasieran zehaztu genituen galderei erantzungo diegu jarraian.

2011ko maiatzeko udal eta foru hauteskundeetan, Bilduk Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuak eskuratu zuenean, herri mugimenduen eta Bilduren arteko elkar aitortzarik bazegoen? Mugimenduen jokamoldea aldatu egin zen? Koalizioaren eta gizarte mugimenduen aldetik elkarlanerako borondaterik bazegoen? Finean, nola bizi izan zuten Bilduren garaipen politikoa bi eremuetako politikariek, teknikariek eta mugimenduek?

Hasteko, esan behar dugu, aldaketa politikoaren unean, hau da, legegintzaldiaren hasieran, itxaropena eta ilusio handia zabaldu zela elkarrizketatutako eragileen artean. Fase itxaropentsu gisa definitu daiteke, arduradun politikoen eta hainbat gizarte eragilearen testigantzak aztertzerakoan. Espektatiba handiak za-baldu ziren, orduan. Herri mugimenduek aldaketa politikoa espero zuten. Itxaropen handia zegoen alda-keta instituzionalean. Bai Ingurumenaren alorrean zein Berdintasunean, eraldaketa sozialerako sinemes-na nahiko orokorra da eragileen artean; konplizitate politiko handia dago zuzendaritzaren eta mugimendu feministako zenbait kideren artean, eta baita Ingurumen diputatuaren eta erraustegiaren kontrako akti-bisten kasuan ere. Gertutasun horrek, ordea, ez zuen eragileen eta erakundeen arteko aliantza formalik ahalbidetu, ez baitziren legegintzaldiaren hasierako ildo estrategikoak elkarrekin eztabaidatu edo kon-

trastatu. Beharbada Berdintasunaren kasuan, II. Plana diseinatzeko antolatu ziren gogoeta espazioek ildo politikoak eztabaidatzeko baliatu ziren, eta helburuak partekatzeke aukera izan zuten. Sintonia politiko handia sumatzen zen mugimendu eta arduradun politikoen artean. Azpimarragarria da Berdintasunaren kasuan bi eremuen arteko bitartekaritza lanetan egin ziren ahaleginak. Zubigintza lana alde zuzenetik bisualizatu eta landu zen Berdintasunaren kasuan. Bestalde, programa politikoan zeuden neurriak doitzeko edo hasierako asmoak hobesteko espazioak faltan bota ditugu. Era berean, kontuan hartu behar dugun ere, lehenengo aldia zela Gipuzkoa Foru Aldundian, Bildu¹²¹ koalizioa agintean zegoela, eta gutxiengoan gobernatu zuela; esperientzi ezak erakundearen funtzionamendua ulertzeko eta kokatzeko denbora eskatu zuten. Esan bezala, agertoki politiko berriak espektatiba handiak zabaldu zituen. Handiegiak beharbada. Itxaropen orokortuaren aurrean, helburu politikoen eztabaidarako espazioak espektatibak doitzeko baliagarriak izan zitezkeela uste dugu. Sintonia politikoa antzeman arren, ondorengo frustrazioak saihesteko modu bat izan zitekeelakoan gaude, eta bereziki balizko elkarlanaren nondik norakoak eztabaidatzeko edo gutxienik kontrastatzeko momentu egokia zen.

Bestalde, esan beharra dago ere, mugimendu feministak zein ekologistak ere ez zuela elkarrekin inolako estrategia bateratua diseinatzeko bide orri zehatzik formulatu, «Nik momentu batean esaten nuen, zergatik ez gara biltzen gu? Gero Gunera joan eta... Adibidez, aliantza hori edo konplizitate hori ez zegoen gero taldeen artean» (ELM7: mugimenduetako kidea). Erraustegiaren kontrako mugimenduen aldetik ere ez zen urrats zehatzik eman, zabalitzen zen fase politiko berriaren aurrean. Artikulazio politikorako bide-orri argirik ez zegoen, beraz, mugimenduen aldetik. Aldundiaren politika publikoetan eragiteko ahalmena areagotu zitekeela uste zen, baina ez zen norabide horretan lan ildo zehatzik diseinatu. Legegintzaldiaren hasiera une politiko estrategikoa izan daiteke, aurrerantzean abian jarri nahi diren asmoak eta neurriak partekatzeke eta konfluentziarako espazioak elkarrekin eztabaidatzeko. Edonola ere, lankidetzara hori sustatzeko oinarria dela dirudi ezkerreko alderdiek gobernura heldu aurretik herri mugimenduekin duten harremana. Nolabaiteko interlokuzioa eta helburu politikoen eztabaidarako espazioak beharrezkoa dira, gerora distantzia hain handia izan ez dadin; mugimenduen eta alderdien arteko aurretiazko solaskidetzak erakundeetatik abian jartzen diren partaidetza guneen eraginkortasunean eragingo luke, demokratizazio prozesuen mesederako. Eta arduradun politikoak herri mugimenduetatik instituzioetara salto eman arren, horrek ez du bermatzen bi eremuen arteko zubigintza lana emango denik, ez eta ezkerreko indar politikoen artikulazioa sustatuko denik.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatuek gizarte eragileen eta herritarren partaidetzarekiko gertutasun eta irekitasuna azaldu zuten agintaldiaren hasieran. Beste era batera esanda, sinbolikoki herrialdeko gizarte eragileen ekarpenak erakunde publikoaren funtzionamenduan integratzeko borondate agerikoa da euren posizionamenduetan, eta horrela izan zela ere diote gizarte eragileen zein teknikarien testigantzak. Hortaz, herritarren partaidetza politikoen alde lerokatu zirela esan dezakegu, era nabarmenean Berdintasun Zuzendaritzaren kasuan. Horren erakusle dira abian jarri ziren prozesu eta mekanismoak. Adierazgarria da hasieratik aktore politiko gehienek elkarlanerako azaldu zuten jarrera. Berdintasun Zuzendaritza eta mugimendu feministaren artekoa batik bat. Era berean, arduradun politikoek gizarte eragileen lan jarduna aitortzen zuten, eta eragileen espektatibei erantzuteko premia edota presioa ere bazutela antzeman dugu. Irekitasun horrek, ordea, partaidetza politiken plangintza baten eskutik helduta zihola ezin dugu esan; Berdintasun Zuzendaritzak Ingurumen Sailak baino arreta eta denbora gehiago dedikatu zion irekitasun horretatik abiatuko ziren partaidetza espazioen diseinu eta gogoetari.

121 Gogorarazi behar dugu, Bildu koalizioa alderdi ezberdinek osatzen dutela: ilegalizatutako Batasuna, Eusko Alkartasuna eta Alternatiba —Aralar beranduago batu zen—. Eusko Alkartasuna da aurreko legegintzaldietan agintean egon den indar politiko bakarra.

Zeintzuk izan ziren herri mugimenduen partaidetzarako eta gobernantza sareetarako abian jarri ziren espazio eta lan baldintzak? Nondik eta nola sortu ziren? Mekanismoen izaera eta funtzioak elkarrekin adosteko aukera eman zen? Nortzuk ziren partaidetza instituzionalean jardun ziren gizarte eragileak?

Aztertu ditugun bi eremuetan, abian jarri ziren interlokuziorako espazioak nagusiki eremu instituzionalaren ekimenetik sortu ziren; Gunea izan zen salbuespena, mugimendu feministaren aldarrikapen historiko batetik baitzetozen. Bertatik —erakundeetatik— eta bertako egituretara oso zuzenduta. Gizarte mugimenduen logika, tenpusak, hizkuntza eta lan kulturatik oso urrun. Berdintasun Zuzendaritzak ahalegin handia egin zuen partaidetzarako espazioak sortzeko, eta Ingurumenaren alorrean, beharbada, Aldundiaren lan jardunean, tokiko hautetsientzako elkarlanerako espazio gehiago zabaldu ziren, gizarte eragileentzako baino. Azken kasu honetan, bizitako sozio-ingurumen gatazkak, interlokuziorako eta deliberaziorako espazio gehiago eskatzen zituela uste dugu. Hiri Hondakinen Aholku Batzordea eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa espazio mugatuegiak ziren, une hartan bizi zen posizioen arteko talka eta tentsio maila zein zen kontuan izanda. Gainera, kontuan hartu behar dugu eremu horretan konfrontazio ziklo luze batetik zetozela, eta Erraustegia geldiarazteak alderdien arteko posizioak tenkatuarazi zituela. Hasierako lan baldintzak alderdien logika elektroaletik hurbilago zeuden logika komunitariotik baino. Posizio gotortuek ez zuten partaidetzaren bidea urratzen lagundu.

Orobat, abian jarritako espazio gehienek gizarte eragileen ahotsa instituzioetan integratzeko helburuarekin sortu ziren, eremu instituzionalaren joko zelaia demokratizatzeke asmo politikoarekin, alegia, baina berrikuntza demokratikoei dagokionez, Gunearen espazioa izan ezik, beste guztiak mekanismo klasikoetatik oso hurbil zeudela uste dugu, eta beharbada erakundeen funtzionamendua eraldatzeko neurri gehiago eta berritzaileagoak behar zirelakoan gaude. Gunearen kasua ezberdina dela diogu, mugimendu feministaren aldarrikapen historiko bat baitzen lurralde mailako berdintasun kontseilu bat sortzea, eta espazio horren osaketarako parte-hartze prozesu bat abian jarri zen, baldintzak eta ezaugarri nagusiak eragileekin batera definitzeko. Kasu horretan, ahalegin berezia egin zen interlokuzio espazioan parte hartuko zutenen begirada eta premiak integratzeko. Beste esperientzia edo mekanismoetan, aldiz, ez zen hainbesteko ahaleginik egin. Berrikuntza demokratiko gisa ere aipatu nahi genuke, ez prozeduragatik baina bai ikuspegi politikoagatik, Berdintasun Zuzendaritzak osatu zuen Emakumeen eta Gizonen II. Berdintasun Plana (2012-2020). Atal enpirikoan aipatu bezala, begirada ezberdinekin osatuz joan zen, eta erakundeen barne funtzionamenduan eragiteko bokazioa zeukan. Kasu honetan, eragileen ekarpena, ordea, mugatuagoa izan zen, Gunearen prozesuarekin alderatzen badugu. Dena dela, lurralde osoko berdintasun teknikarien begirada integratzeko saiakera azpimarratu nahi genuke; beste udalerrietako errealitatea kontuan hartzeko ahalegin honek agerian uzten du, Zuzendaritzak gobernugintza maila ezberdinetatik eraikitzeke borondate politikoa zuela. Behetik gorako logikara hurbiltzeko asmoa antzematen da. Antolaketa, kudeaketa eta erabaki publikoak modu horizontalago batean birsortu nahi ziren, finean.

Espazioak nondik eta nola sortzen diren ikusita, ondorioztatzen dugu begirada instituzionaletik bereziki landu zirela, eta elkarlan dinamikaren eremuak eta baldintzak elkarrekin adostea garrantzitsua dela, bereziki eremu horien eraginkortasunari eta jarraikortasunari begira. Hurbil sentitzen ziren eragileak, eta eremu oso ezberdinetan ziharduten; beharbada, espazioen negoziaketa edota definizioa artikulazioen beste katebegi bat izan daiteke. Horren erakusle dugu adibidez, berdintasunaren alorrean eman zena. Izan ere, hainbat talde feministarentzat ez zen lehentasunezkoa erakundeekin lankidetzan aritzea, eta, ondorioz, ez ziren elkarlan dinamikan erabat integratuko; esate baterako, Bilgune Feminista, Medeak, Garaipen bezalako taldeek, kasu batzuetan, intentsitate baxuko parte-hartzea izan zuten. Halaber, militante batzuen testigantzek diote, une hartan ez zutela indar nahikorik erakundeak interpelatzeko. Eta eragiteko prest zeudenetatik zenbaitek jarrera mesfidatia zuten, eta konfrontaziotik lankidetzara salto egitea kostatu zitzaion.

Bestalde, elkarlanerako espazioen sorrerarekin batera, atal enpirikoan jasota dagoen beste aspektu bat aipatu nahi genuke, diru-laguntza eta babes instituzionalarena. Izan ere, hainbat gizarte eragileren lan jarduna ekonomikoki eta sinbolikoki babestu zela agerian gelditu da, eta eremu komunitarioa indartzeko beste modu bat ere bada, dispositiboetatik harago doana. Eta kasu askotan euren lan jarduan indartzeko edota balioan jartzeko modua izan zena. Erakundeetatik eremu komunitarioa indartzeko modua dela esan daiteke, beraz, beti ere analisisian aipatzen den 'klientelismo politikoa' saihestuz. Erakundeetan mugimenduen partaidetza indartu baino, erakundeek mugimenduak indartzeko egin dezaketenaz go-goetazera eramaten gaitu ikuspegi honek. Euskal Herriko Genealogia Feministen (2015) argitalpena eta horrekin batera abian jarri nahi zen artxibo feminista, Emausen Arrasateko *Econcenterra* sortzeko babes ekonomikoa edota Gipuzkoa Zero Zaborrekin sinatutako hitzarmenak ere logika komunitarioa indartzeko oso baliagarriak izan dira, elkarlanerako espazioa bezain besteko pisua dutela uste dugu.

Partaidetza eta lankidetzarako espazioek sakontasun demokratikoa sustatu zutela esan daiteke? Espazio horien iragazkortasun demokratikoa nolakoa izan zen? Hau da, herri mugimenduen eragiteko ahalmena areagotu egin zen? Nola kudeatu ziren botere harremanak eta elkarlan espazioetan sortutako gatazkak?

Gobernantza sarearen sakontasun demokratikoari begira jarrita uste dugu aktoreen dentsitate eta aniztasunari dagokionez, kalitate demokratiko handiko sareak izan zirela, ikuspegi ezberdinez elikatu zirenak; harremanen sakontasunari erreparatzen badiogu, ordea, espazio batetik bestera hartu-eman asko aldatzen zela ondorioztatzen da. Berdintasunaren eremuan, Gobernantza Batzordean eta Gunean, oro har, eragileekin elkarrizketa espazioak intentsitate maila altukoak zirela uste dugu. Mugimendua eta emakume elkarten arteko elkar aitortza, ezagutza eta saretze lanean urratsak eman ziren. Herrialde mailako aniztasuna ikusgai egin zen, eta partaidetza guneen lan jarduna demokratizatzailea izan zen; ehundura soziala sartzeko ahalegina ageriko da Gunearen esperientzian, eta horri esker, eremu instituzionalean ahots politiko ugari ikusgarriago egin ziren.

Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Antolaketaren kasuan, ordea, baldintza horiek soilik Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan eman ziren, eta Hiri Hondakinen Aholku batzordean bileren maiztasuna oso txikia zen. Eta kontsortzioaren lan eremua oso mugatuta zegoen erakunde horrek berezkoa duen lan jardunera. Hortaz, kasu honetan sakontasun demokratikoa eremu instituzionalean askoz txikiagoa izan zen, harremanen intentsitate maila azalekoagoa zelako, batik bat Aholku Batzordean.

Partaidetza espazioen lan baldintzetan arreta jartzen badugu, agerikoa da, gobernantza sarearen sakontasun demokratikoa oztopatzen duten zailtasun eta erresistentzia ugari eman zirela, norabide ezberdinetan: eremu instituzionalean, alderdi politikoen eremuan, zein eragileenean. Zailtasunez jositako ibilbidea izan da Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Gora behera handikoa eta gatazkatsua. Erresistentzia nagusien artean aipatuko genuke, lehenik eta behin, instituzioen baitan eman zena. Erakunde publikoen funtzionamenduak ez du zerikusirik gizarte ehundurak duenarekin. Lan egiteko bi logika zeharo ezberdinak dira, eta, ondorioz, zurruntasunak eta prozedurek neurri handi batean, lankidetzaren eremua oztopatu zutela esan daiteke. Zenbait teknikarien aldetik ere erresistentzia ugari egon ziren, erakundeen ordura arteko lan estiloak eraldatzeko, eta aurreko legegintzaldietako inertziak pisu handia zuten. Eta euren konfiantza eta konplizitatea ezinbestekoa da lan kultura eraldatu nahi bada. Lidergotza politiko indartsu batekin batera, teknikarien jarrera determinantea izan da dispositibo berrien sorreran.

Bestalde, logika burokratiko eta herrigintzarena elkarlanean jartzean, agerian gelditu zen administrazioaren lan egiteko modua gailendu zela, eta horren adibide argiena dugu Gunearen gobernantza batzordearen bilakaera edo Gipuzkoako Hondakin Kontsortzioaren lan dinamika. Sare gobernantzak lan eremu ezberdinetan diharduten eragileak eremu komun batean elkarrekin aritzea eskatzen du, eta gure ustez, ahalegin horrek ere lan baldintzen edo joko arauen berrikusketa bat ere badakar. Alegia, administrazioaren logika moldagarriagoa izan beharko litzateke. Bestela, logika bakarra nagusituko da, beste eragileen lan dinamika erabat baldintzatuz, eta aniztasuna arriskuan jarritz. Partaidetza politikoa eremu instituzionalean integratzen denean, partaidetza politikak zeharkakotasunaren ikuspegitik lan egitea dakar, eta erakundeen antolaketa egituraren aldaketa eskatuko du; horrez gain, departamentalizazioa gainditzea eta proiektu disziplinarreko elkarlana sustatzea. Ajangizek, Blasek, eta Susok (s.f.:32) dioten moduan, antolaketa ereduaren aldaketa ezinbestekoa da partaidetza politika eraginkorrak inplementatu nahi badira. Prozesu horietan, teknikarien begirada aintzat hartu behar da, eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa esperientzian, batetik, erresistentzia ugari egon ziren hainbat teknikarien aldetik eta, bestetik, arduradun politikoek (Aldundian batik bat) ez zituzten teknikarien lan egiteko moldeak birpentsatzeko baldintzak sortu; antolaketa kultura aldatzeko teknikarien borondatea eta euren ezagutza oinarrizko osagaiak dira, eta elkarlanerako konfindatzazko espazio gutxi izan ziren politikari eta teknikarien arteko lankidetzak sustatzeko. Berdintasun Zuzendaritzaren kasuan, norabide horretan lan handia egin zen, eta lidergotza politiko indartsuak eta teknikariekin lan egiteko landu ziren konfindatzazko bideak ahalbeditu zuten zeharkakotasuna praktikan jartzea. Kasu honetan, teknikariak gehienak kanpoko enpresa edota kooperatibak ziren, eta begirada politikoa berehala integratu zuten euren lan jardunean. Kanpoko aholkularitza enpresa edota kooperatiben bitartez egiteak askatasun politiko handiagoa eskaintzen zuela uste dugu, baina era berean erakundeen prozeduren baitan txertatzean zailtasunak ugari egin ziren, teknikarien arteko lankidetzak eremuetan erresistentziak desaktibatzeke baliabide gutxiago zituztelako edo alde aurretik barne funtzionamenduaren begirada ez zutelako.

Sakontasun demokratikoa oztopatzen duten beste erresistentzia multzoa, alderdien egiturekin eta koalizioen baitan zeuden aniztasunaren kudeaketarekin lotzen dugu. Alderdi politikoen funtzionamendua ere, profesionalizazioarekin batera, geroz eta bertikalagoa bilakatzen ari da, eta zuzendaritza politikoen esku kontzentratzen dira erabaki nagusiak. Bai Berdintasunaren eremuan zein Ingurumenean gatazka ugari eman ziren koalizioaren eta ezker abertzalearen baitan. Gobernantza sareak abian jartzen direnean, alderdi politikoen egitura malgutzea eskatzen du, erabaki politikoak parte-hartze guneen eremuan kokatzen direlako sarritan. Are gehiago kokapen ideologiko hurbileko gizarte eragileekin lanean diharduzunean. Hortaz, gobernantza sareek ere agerian utzi zituzten gobernuaren zeuden alderdien eta koalizioaren funtzionamendu logika hierarkiko eta elektoralistak. Hondakinen bilketa sistemarekin oso nabarmena egin zen aipatzen dugun joera.

Eta azkenik, gizarte eragileen aldetik ere gobernantza sarean parte hartzeko eta politika publikoetan eragiteko zailtasunak egon zirela aipatu behar dugu. Berdintasunaren eremuan, mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek intzidentzia politikorako izan dituzten barne zailtasunak aipatuko genituzke. Hots, sare kritikoek berdintasun politiketan eragiteko indar falta atzeman da, garai hauetan; honek zera erakusten digu, talde ugari egon arren, zehazki hogeita bostetik gora, gobernantza batzordean zeudenak ez zirela gai izan erakunde publikoen praktika baldintzatzeko.

Ingurumenaren alorrean ere antzeko zerbait gertatu zen; Bilduren garaipenak hasiera batean mugimendua baretzea ekarri zuen, eta ondorioz, eragiteko indar politikoa mantsotu egin zen, bereziki, erraustegia gelditzeko urratsak ematen hasi zirenean. Bestalde, moratoriaren ondorioz, hiri hondakinen kudeaketarako presazko alternatiba inplementatzeko premia areagotu zuen, eta herri askotan Zero Zabor taldeak sortu ziren. Gobernuak ere momentu zehatz batean, atez atekoa martxan jartzeko hasiera batean zuen norabidea aldatu egin zen, kontramugimenduaren sorrerarekin desgaste elektorala sor zitekeela ikusi zenean. Hautakundearen logika gailendu zela esan dezakegu, eta horrek ere ardura politikoak zituztenen eta alderdiaren

artean tentsio momentuak sortu zituen. Mugimenduaren eragina beharbada agintaldi aurreko fasean nabarmenagoa da agintaldian baino. Ehundura soziala eta erakundeek politikoki bat egin zuten helburuetan, eta erakundeen norabide aldatzeko gai izan ziren, baina ez zen parte hartze mekanismoen bitartez gauzatu.

Erresistentzietekin amaitzeko, aipatu nahi genuke, lankidetzaren prozesuen posizioen arteko talkak, interesak eta botere harremanen kudeaketak, zaildu egin zutela kasu batzuetan lan dinamika, eta mugimendu eta elkarrekin eragiteko ahalmena. Horren adibidea litzateke Gobernantza batzordearena, Gunearekin zuen lotura ahuldu egin baitzen. Elkarlan espazioetan ezin ditugu bistatik galdu parte-hartze marko hauen baldintzak eta joko arauak, eta, bereziki, pertsonak, prozesua eta helburu politikoak zainduko dituen perspektiba. Beraz, derrigorrezkoa dela dirudi bileretan zein erabaki-prozesutan berdintasunez parte-hartzea edota informazio, zeregin eta arduren banaketa orekatua izatea. Harremanak eta lan egiteko moduak, kontu politiko garrantzitsuak dira. Lankidetzaren erabat baldintzatu dezaketanak. Elkarlanaren barne funtzionamendu egokia topatzeko, lan tresnak eta metodologiak ere aintzat hartu beharko lukete taldeko jardunaren arlo emozionala. Dimentsio horiek guztiak kontuan hartzen diren neurrian, gobernantza sareen sakontasun demokratikoa areagotu egingo da, eta eraldaketarako gaitasuna handitu. Izan ere, deliberazio gunea demokratizatzailea izan dadin, aniztasuna kudeatzea dakar, eta baita ikusezina egin ohi den arlo sozial eta emozionala agerikoa egitea.

Zeintzuk izan ziren herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko lankidetzaren espazioen emaitzak? Elkarlanak eraginik izan al zuen administrazioaren logika burokratikoetan? Elkarlanerako espazioek ehundura soziala indartu edo ahuldu zuten? Partaidetza kultura indartu zela esan daiteke? Espazio horietan parte hartu dutenak gai izan dira erakundearen funtzionamendua baldintzatzeko eta eraldaketa prozesuen zerbitzura jartzeko? Gobernugintza irekiagoa eta komunitariagoa izan zen, bi eremuetan sortu ziren partaidetza politikorako dispositiboaren bitartez?

Elkarlan dinamikaren emaitzak edota inpaktua aztertzen baditugu, bi eremu ezberdinetan jarri behar dugu arreta: eremu instituzionalean eta komunitatean edo herritar antolatuean. Oraingoan ere, aztertutako ditugun bi kasuak ere ezberdindu beharko genituzke. Berdintasunaren alorretik hasita, esan behar dugu, gidaritzaren politiko feminista indartsu batek abian jarri zuela Berdintasun Zuzendaritzaren fase berria, erakunde publikoetan feminismotik aritzeko asmo politiko argia zegoelako, lehenengo leerro politikoan zeudenak feminismotik baitzetozen. Lidergotza politiko indartsu horrek berdintasun politikei astindu bat emateko asmo irmoa zuen, erakundearen funtzionamendua errotik eraldatu nahi izango zuena. Paradigma aldaketaz hitz egiten da zenbait momentutan. Berdintasun politiketan inflexio puntu bat markatzen dela esan daiteke, analisirako markoa ekonomia feministatik eratorritzen zelako, bizitza duina erdigunean (Orozco, 2011) jartzeko eman beharreko eraldaketa prozesuei bide emanez. Azpimarragarria da beste sailekin —ogasunarekin adibidez— izandako lankidetzaren. Berrikuntza demokratiko ugari eman ziren sail honetan, eta ikertzeko dago agintaldiaren aldaketarekin neurri horiek izandako eraginak, Aldunditik harago¹²².

Halere, lidergotza politiko horri mugimenduaren interpelazioa eta presioa falta zitzaizkion, Aldundiaren lan jardunean eragiteko eta Administrazioa ikuspegi feminista batetik, ezberdintasun sozialen eraldaketa prozesuen zerbitzura jartzeko. Eremu politikoak, teknikoarekin eta gizarte mugimenduekin lerrotzeko di-

¹²² Gipuzkoako udalerrri askotan —Errenteria, Hernani eta Tolosan— Emakumeen etxeak sortzen ari dira agintaldi honetan. Gunearen baitan, Emakumeen Etxeen lan taldeak norabide horretan izan zuen eragina ikertzea interesgarria litzateke.

renean, aukera politikoak biderkatu egiten dira; kasu honetan, teknikarien eta arduradun politikoaren arteko sintonia erabatekoa zen, baina zeharkakotasuna lantzeko erresistentziak egon ziren eta mugimenduen eragiteko gaitasuna ahula izan zen. Beharbada, interesgarria izan zitekeen legegintzaldiaren hasieran, Gipuzkoako mugimendu feministarentzat eta emakumeen elkarreentzat, estrategikoak ziren lan ildoak hasieratik elkarrekin definitzea eta hortik aurrera bakoitzak bere bideari eustea; hau da, elkarlana mugatu zitekeen gutxienik Aldundiak jorratuko zituen lan ildoak komunean pentsatu eta ebaluatzea edota gutxieneko jarraipena egitera. Besta aukera bat izan zitekeen elkarlana eremu txikiagoetara mugatzea, indarrak neurtzeko eta eragiteko ahalmena handitzeko.

Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Departamentuaren kasuan, erraustegia geldiarazteko erabaki politikoak herri mugimenduen aldarrien ondorio direla esan dezakegu, hau da, Bilduk bat egin zuen 2003tik aurrera erraustegiaren kontra azaldu ziren mugimendu ekologistekin eta hiri hondakinak kudeatzeko bestelako alternatibekin. Lerrotatze horrek ondorio argiak utzi zituen Hiri Hondakinen politiken eremuan; gaikako bilketa abiadura bizian zabaldu zen lurralde osoan, eta mugimendu ekologistaren diskurtsoak oso denbora laburrean udalerrri hainbaten hondakinen politika baldintzatu zuen, eta gai horrekin lotuta ekimen eta prozesu ugari abian jarri ziren. Hondakinen bilketa sistemaren gaia herrialde osora zabaldu zen, eta eremu asko zipriztindu zituen. Edonola ere, hiri hondakinen politikak ordura arte zuten norabidea erabat aldatu zen, zuzendaritza politikoa eta herri mugimenduen ikuspegi politikoa norabide beretik zihozelako. Sintonia handia zegoen eremu horretan, bereziki erraustegiari dagokionez. Lerrotatze politikoak urrats handiak ematea ahalbidetu zuelakoan gaude. Oso denbora laburrean, norabidea erabat aldatu baitzen eta hondakinen bilketa erdigunean egon zen. Mugimendu ekologista indartuta atera zenik ezin dugu esan, ordea. Desgaste politiko handiko garaia izan zen, kontramugimendua, oposizio politikoa eta komunikabideen jarraipena zela-eta; gainera, gobernantza espazioak mugatuak izan arren, kasu batzuetan zenbait mugimenduren lan jarduna eremu instituzionalean zentratu zen, eta gerora horrek ondorio kaltegarriak izan ditu mugimenduaren bilakaeran. Zero Zabor taldearena da adibiderik argiena. Gerora sortu diren mugimendu berriek Gipuzkoa Zutik edo Gurasos ziklo horren ostean jaioko dira, eta pentsa daiteke, aurreko legegintzaldiak ere eragina izan zuela talde berrien sorreran.

Bestalde, mugimenduaren baldintzatzeko gaitasunari dagokionez, Aldundiko esperientziaren lan jardunean arreta jartzen badugu, mugimenduaren eragina mugatua eta aldakorra izan zela esan daiteke eremu batetik bestera. Berdintasunaren alorrean, mugimendu feministak eta emakume elkarrekin ez zuten aldundiaren funtzionamendua baldintzatu; borondate politiko argia zegoen, eremu instituzionala ikuspegi feminista batetik baldintzatzeko, baina zuzendaritza politikoarena zen soilik, eta horrez gain, agerikoa da borondate politikoa ez dela nahikoa asmo eraldatzaile horiek guztiak gauzatzeko. Zailtasunak indar metaketa beharrezkoa dela ohartarazten gaituzte, politikariak euren kabuz oso zaila baitute erakundearen funtzionamendu logika eraldatzeko. Horretarako, eragileen arteko aliantzak eta lankidetzak ezinbestekoak dira, baina, beti ere, mugimendua indargabetu edo ahuldu gabe. Mugimendu ekologistak eta bereziki Errausketaren Aurkako mugimenduak, Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa politiken norabidea baldintzatzeko gai izan ziren hasiera batean; ez dugu ahaztu behar protesta ziklo luze batetik zetozela. Bilduk erraustegia gelditzeko konpromisoa hartu zuen, mugimenduen lan jarduna aitortuz, baina hortik aurrera mugimenduaren eragiteko ahalmena ahulduz joan zen, eta hauteskunde logika gailendu zen.

Mugimendua ahula denean, uste dugu indarrak neurtzea komenigarria dela, eta sarritan elkarlan hori ez dela posible. Kasu horietan, ikuspegi politikoa elkarrekin definitzera mugatu liteke lankidetzaren esparrua, alegia, ikuspegi estrategikoa edota hasierako lan ildoak elkarrekin eztabaidatu eta definitzera, eta hortik aurrera, inplikazioa eta partaidetza ondo neurtu beharko lirake. Ezin dira etengabe, mugimenduak logika administratiboak eskatzen duen hizkuntza eta prozeduraren erritmoetara moldarazi. Seguru asko, bide horretatik jarraituz gero, euren lan jarduna eta autonomia zalantzan jarriko litzatekeelako. Herri mu-

gimenduak egiturazko zapalkuntza anitzei erantzuteko ezinbesteko subjektuak diren neurrian, kontu handiz ibili behar da elkarlanerako espazioak eta aliantzak formulatzen direnean. Mugimenduen eta herri-tarren partaidetza abian jarri aurretik, baldintzak ematen diren aztertu beharra dago, edo gutxienik aurre baldintzak landu; eta kasu honetan, horren inguruko sentsibilitatea izan arren, ez zitzaion behar besteko arreta eta denbora eskaini baldintzen lanketari.

Horrez gain, uste dugu lan handia dagoela ezkerreko indar politikoen ikuspegitik erakunde funtzionatzeko moduak birpentsatu eta berrasmatzeko. Erakunde publikoen oinarriko funtzionamendu logikak eraldatu ezean, zaila izango da elkarlan eremu emankorrak sortzea. Eta lan hori gobernura heldu aurretik egitea garrantzitsua dela uste dugu. Bestela, administrazioaren eguneroko logikak irentsi egiten du arduradun politikoen lan jarduna. Ezkerreko indar politikoa oposizioan daudenean edo bestela ere, sakonago pentsatu beharko lukete nola egon nahi duten erakundeetan eta zeintzuk dira administrazioa desburokratizatzeko eta humanizatzeko bideak.

Eta erakunde publikoen berrasmatze lanek eskatzen dute, ikerketa honen analisisian identifikatu diren oztopo guztiei aurre egitea eta eraldatzea. Azken batean, lanerako erritmoak, hizkuntza, espazioak, lan ordutegiak, departamentalizazioa, oztopo legalak, hierarkizazioa eta bestelako logika arautzaileek ez dute batere laguntzen, eta sakontasun demokratikoa bilatzen duten gobernantza ereduak, erakunde publikoen funtzionamendua beste klabe batzuetan jartzeko estrategiak lantzea eskatzen dute. Finean, administrazioaren desburokratizazio eta humanizazioaz prozesuaz ari gara. Demokratizazio prozesuen zerbitzura egongo dena, enpresen botere korporatiboaren aurrean.

Dudarik gabe, eremu instituzionalen martxan jartzen diren berrikuntza demokratiko guztiek, lidergotza politiko indartsua izatea eskatzen dute, eta lidergotza estilo zehatz bat, egungo alderdien profesionalizazio eredutik aldentzen dena. Alderdiek historikoki izan duten bitartekaritza funtzioa presenteago egitea eta erabaki politiko transbertsalak ahalbidetuko dituena. Bereziki, ezker eraldatzaileen koordinatu ideologikoetan kokatzen diren alderdien aldetik. Izan ere, lehenik eremu instituzionalaren baitan gobernugintza irekiagoak jorratzeko baldintzak sortzeko lan handia dago aurretik egiteko, eta bestetik, gizarte eragileekin batera lan egiteko prestutasuna izan behar da, eremu instituzionalaren eta herrigintzaren arteko artikulazio planifikatua eta ebaluagarria eman dadin.

Azkenik, aurrera begira, demokratizazio prozesuetan sakontzeko zeintzuk dira ezkerreko gobernuen eta herri mugimenduen arteko elkarlanaren desafioak? Zer nolako instituzionalitatea sortu beharko litzateke eta zein izan beharko litzateke herri mugimenduen funtzioa agertoki horietan? Eta herri mugimenduen partaidetza non eta zertan gauzatu behar da gobernu aurrekoia izan dadin?

Azkenik, ondorioen atalarekin amaitzeko, aurrera begira, gobernantza sareen desafioak edo erronka nagusien sintesia egin dugu; bertan, erakundeetatik zein mugimenduen ikuspegitik jorratu litezkeen ildo nagusiak laburbiltzen saiatu gara.

Lehenik eta behin, aipatu nahi genuke, ezkerreko gobernuak ez dituztela gehiegi garatu lidergotza kolektiboak edo partekatutakoak; Berdintasun Zuzendaritzaren esperientzia Aldundiko bakarrenetarikoa da. Eta praktika erreferente gisa definitzen duguna. Ezkerreko alderdien eta herri mugimenduen artean partekatutako eta adostutako hausnarketa estrategikorik nekez topa daiteke inguruan. Ezkerrek bere gobernantza sareak

ezaugarritu beharko lituzke; hau da, erakundeen eraldaketa programen eremuan bisio partekatua garatzeko espazioa eta denbora hartu, gobernuen asmo eraldatzaileak edo demokratizatzaileak elkarrekin eztabaiatzeko, bederen. Horrela eginez gero, hurbileko indar politikoen arteko artikulazioak ahalbidetuko liriateke. Ariketa horrek nahitaz eskatzen du herri mugimenduen eta ezkerreko alderdien arteko solaskidetzaren indartzea. Finean, herri mugimenduek ezaugarrituko dituzten ezkerreko alderdiak eraikitzea, eta ezbaian jarri beharko litzateke gaur egungo alderdi klasikoaren egitura: alderdia, sindikatu eta gazte erakundera mugatzen dena. Hiruki horrek ez du bermatzen ezkerreko gobernuak eraldaketa programak garatzeko beharrezkoa duten ausardia eta indar politikoa. Ezkerreko alderdien eta mugimenduen arteko harremana eremu instituzionaletik harago landu beharra dagoela uste dugu; alderdiak herri mugimenduen aldarri eta gogoetatik hornitzen dira sarritan, eta bien arteko elkarrizketa eremu instituzionalen baitan eta hortik kanpo jorratu beharko litzateke: agintaldien aurretik, bitartean eta ondoren. Aktore politiko hauen arteko zubiak hauspotu behar dira, lankidetzan oinarritu nahi diren gobernugintzak edo gobernantza sareak sustatu nahi badira.

Administrazioaren humanizazioa eta demokratizazioa erabakigarriak dira, erakunde publikoen baliabide ekonomikoak eta bestelakoak jarri nahi baditugu, komunitatearen premietara eta zapalkuntza zein bazterketa anitzei aurre egiten diharduten prozesu sozialen zerbitzura. Instituzioen logika birpentsatu eta berrasmatu beharra dago, prozesu zabalagoetan erraztaile rola garatzeko eta bideratzaile gaitasunak lantzeko. Norabide horretan, interesgarria litzateke harreman estilo berriak inplementatzeko egin ziren ahaleginak bistaratzea eta horietan gehiago sakontzea. Halaber, erakunde publikoen lan erritmoak, zurruntasunak, sailen arteko banaketak, hierarkiak, ordutegiak, hizkuntzak, eta abar luze bat moldatzen lagunduko duten prozesuak zabaltea premiazkoa litzateke. Edota zeharkakotasunean sakondu eta lan egiteko molde berri edo humanoagoetan esperimentatzea.

Aurreko ideiarekin loturik dago, jarraian azalduko dugun hau. Ezkerrak gobernatzen dituen erakunde publikoak, herri ekimenez garatzen diren eraldaketa prozesuak babestu, hauspotu eta indartu beharko lituzke nahitaz, baliabide ekonomikoaren bitartez, edo bestela ere, erakunde publikoen azpiegiturak eta giza baliabideak horien mesedeetara jarri. Izan ere, autoeraketa autonomoa funtsezkoa da eraldaketa sozialerako eta administrazioaren demokratizatorako. Gipuzkoako Berdintasun Zuzendaritzak eta Ingarumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak norabide horretan emandako urratsak (diru-laguntzak, hitzarmenak eta abar) erronka honen erakusleho direla esan dezakegu.

Politika publikoak modu komunitarioan garatzeko, erakundeek partaidetzarako espazioak eta metodologiak garatu behar dituzte. Parte-hartze instituzionalean sakontzen jarraitu beharra dagoela uste dugu, baina beti ere kalitatezko praktikak eskainiz eta ondo planifikatuz. Zergatik, zertarako, nozentzat eta nola galderari erantzun behar diegu alde aurretik, frustrazioak, etsipenak edo gaitzusteak saihesteko. Gobernuen irekierak, elkarlan anitzak eta berdintasunean oinarritutako deliberazioek, praktika politikoen sakontasun demokratikoa handiagotuko lukete. Baina horretarako alde aurretik bestelako instituzionalitatea lantzeko bideorriak birpentsatu behar dira. Hortaz, berrikuntza demokratikoaren bideak urratzea, begi bat eremu instituzionalean eta bestea eremu komunitarioan izatea eskatzen du. Batean zein bestean bizi diren errealitateak aintzat hartzea, bertatik eraiki behar baitira lankidetzaren eremuak; eta ahalik eta eraldatzaileena izateko desorekak edo botere asimetriak orekatzeko baldintzak landu.

Amaitzeko, herri mugimenduen eremuan jarri nahi dugu arreta. Izan ere, eragileok ondo baino hobeto pentsatu beharko dute, gizarte egitura dominanteak desafiatzen dituen neurrian, nondik eta nola eragin nahi duten ezkerreko gobernuetan, hau da, zein rol jokatu nahi duten, euren izaera eraldatzailea ez indargabetzeko edo desitxuratzeko, baina era berean komunitate logika indartzeko. Alde aurretik gehiago gogoetatuko balitz, kooptazioa, zatiketa, burokratizazioa eta bestelako arriskuei aurre egiteko neurriak hartzeko moduan egongo liriateke.

6. Erreferentziak

1. [Gaztelako Erregeriaren Erreferentzia](#)

2. [Gaztelako Erregeriaren Erreferentzia](#)

3. [Gaztelako Erregeriaren Erreferentzia](#)

4. [Gaztelako Erregeriaren Erreferentzia](#)

Liburuak

AHEDO, I. eta IBARRA, P. (2007) *Democracia participativa y desarrollo humano*. Madril: Dykinson. Instituto Internacional de Sociología Jurídica de Oñati.

AHEDO, I. eta GOROSTIDI, I. (2012) *Política integral*. Iruñea: Universitas.

AJANGIZ, R. eta BLAS, A. (2008) *Mapa de mecanismos y experiencias de participación ciudadana del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones Gobierno Vasco.

AJANGIZ, R. eta BARCENA, I. (2001) *Euskal herriko gizarte mugimenduak*. Giza eskubideak. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

ALBERTI, G. eta VILLENA, H. (2014) *Movimientos e instituciones y calidad de la democracia. Análisis de casos en América Latina y la Unión Europea*. Barcelona: Octaedro.

ALTUNA, L. (2011) *Arrasateko kooperatiba esperientzia. Sintesi orokorra*. Oñati: LANKI lankidetzaren ikertegia.

ALVAREZ, P. (2012) *Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en Euskadi. Emakunde*. Hemendik eskuratua: <http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/eu_def/adjuntos/B-3_2011.pdf>

AMORÓS, C. eta DE MIGUEL, A. (ed.) (2007) *Teoría feminista: de la ilustración a la globalización. Del feminismo liberal a la posmodernidad*. Madril: Minerva ediciones.

AMORÓS, C. eta DE MIGUEL, A. (2007) *Teoría feminista: de la Ilustración a la globalización. Del feminismo liberal a la posmodernidad 2*. Madril: Minerva Ediciones.

ARBELAITZ, M., ORMAZABAL, A. eta RIVERAS, A. (2012) *Ondarroako emakumeak herriko partaidetza politikoan eta sozialean: emakumeen asoziazionismoaren eta mugimendu feministaren bilakaera eta horien eragina emakumeen boteretzean (1978-2006)*. Ondarroako Udaleko Berdintasun saila. 2-54 or.

AVEDAÑO, M. (2010) «La paridad participativa en la obra de Nancy Fraser». *Aequalitas: Revista jurídica de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*, 26. zk., 58-70 or.

AZKUE, I. (2013) *Herritarrekin. Parte Hartzeko Esperientziak Gipuzkoan (2011-2013)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia

BARANDIARAN, X. eta KORTA, K. (2011) *Gizarte Kapitala eta balioak Gipuzkoan*. Zarautz. Gipuzkoako Foru Aldundia.

BARCENA, I., IBARRA, P. eta ZUBIAGA, M. (1995) *Nacionalismo y ecología. Conflicto e institucionalización en el movimiento ecologista vasco*. Madril: Libro de la Catarata.

BARCENA, I. (2005) *Democracia participativa + Desarrollo Sostenible= Democracia ambiental?. En Democracia Ecológica, formas y experiencias de participación*. Bilbao, Parte Hartuz y Betiko Fundazioa.

BARRAU, M.I. (2011) *De epistemología feminista. Como generar conocimiento científico. Investigación y género, logros y retos: III Congreso Universitario Nacional Investigación y Género, [liburuen akta]. (118-128 or.)*

BARTOLO, A. (2015) Radicalización democrática y hegemonía VS nuevas territorialidades y poderes no estatales: una aproximación teórica a las diferentes estrategias dentro de los movimientos radicales. <https://kutxikotxokotxikitxutik.files.wordpress.com/2016/01/andrea-bartolo_komunikazioa-_radicalizac3b3n-democrc3a1tica-y-hegemonc3ada_.pdf>

BATZORDE IKUSEZINA (2007) *Heldu den matxinada*. Tafalla: Txalaparta.

BEORLEGI, D. (2009) Los nuevos movimientos sociales en Euskal Herria: los movimientos ecologista, pacifistas y antimilitaristas desde la transición hasta el cambio de siglo. *Sancho el Sabio* 30. zk., 161-185 or.

BEORLEGUI, D. (2017) *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986)*. Madril: Postmetropolis Editorial.

BERGANTINOS, N., IBARRA, P. eta MARTÍNEZ, J. (2011) *Participación, cultura política y sostenibilidad*. Bartzelona: Hacer editorial.

BESSETTE, J. (1980) *Deliberative Democracy: The Majority Principle in Republican Government*

BIGLIA, B., CUIEL, O. eta ESTEBAN, M.L. (2015) Ikerkuntza feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak. *Bi Lan Koadernoak*, 67.zk. Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Tituluak.

BLANCO, I. eta GOMÁ, R. (koord.) (2002) *Gobiernos locales y Redes Participativas*. Bartzelona: Ariel.

BLAS, A. (2009) *Politika eta administrazio analisirako metodologia eta teknikak*. Bilbo: UEU.

BLAS, A. eta IBARRA, P. (2006) *La participación: Estado de la cuestión*. Hegoak-eko koadernoak, 39 zk., 1-44 or. Bilbao.

BLAS, A. (2005) *Demokrazia parte hartzailea: ezkerren helburu berria?* Uztaro Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria. 53. zk., 119-129 or.

BLAS, A. (2012) Herritar xeheen kontra-boterearen beharraz. Manu Robles Arangiz Fundazioa. Enbata 2220 zk. 5-6 or.

BOBBIO, N. (1993) *Igualdad y libertad*. Bartzelona: Paidós.

BOBBIO, N. (1995) *Derecha e izquierda. Razones y significados de la distinción política*. Madril: Taurus.

BOBBIO, N. (2008) *Demokraziaren etorkizuna*. Madril: Klasikoak.

BOOKCHIN, M. (2003) «An overview of the roots of social ecology». *Harbinger, A journal of Social Ecology*, 3(1)zk., 6-11 or.

BORON, A. (2006) Crisis de las democracias y movimientos sociales en América Latina: Notas para una discusión. Observatorio Social de América Latina. CLACSO. Año VII, mayo/agosto.

BOSSETI, G. (1996) *Izquierda punto cero*. Bartzelona: Paidós estado y sociedad.

BRINGEL, B. (2009) Acción colectiva y democracia: la contribución de Charles Tilly para el debate sobre el ensanchamiento del campo democrático. Ponencia presentada en las jornadas: Homenaje a Charles Tilly.

CALLE, A. (2005) *Nuevos Movimientos Globales. Hacia la radicalidad de la democrática*. Madril: Editorial Popular.

CALLE, A. (2010) «El estudio del impacto de los movimientos sociales. Una perspectiva global». *REIS* 120º/07, 133-153 or.

CALLE, A. eta VILAREGUT, R. (2015) *Territorios en democracia. El municipalismo a debate*. Bartzelona: Icaria, Mas Madera.

CASQUETTE, J. (1998) *Política, cultura y movimientos sociales*. Bilbao: Bakeaz.

CHÁVEZ, D. eta GOLDFRANK, B. (2004) *La izquierda en la ciudad*. Bartzelona: Icaria, Antrazyt.

CHÁVEZ, D., RODRÍGUEZ, C., BARRET, P. (2008) *La nueva izquierda en América Latina*. Madril: Catarata.

CHIHU, A. eta LOPEZ, A. (2007) «La construcción de la identidad colectiva en Alberto Melucci». *Polis* 2 lib. ,1 zk, 125-159 or.

CHOMSKY, N. (1995) *Como nos venden la moto*. Madril: Icaria Mas madera

CLAUS, O. (1988) *Partidos políticos y movimientos sociales*. Editorial Sismtea. Madril: Colección politeia.

COLECTIVO POLÍTICA EN RED, (2007) *Repensar la política en la era de movimientos y de las redes*. Bartzelona: Icaria Mas Madera.

COROL, C. (2010) *Feminismos populares y pedagogías políticas*. Buenos Aires: Chirimbote.

DARGATZ A. eta ZUAZO M. (ed.) (2012) «Democracia en transformación ¿Qué hay de nuevo en los nuevos Estados andinos?» *FES*, La Paz, 329-346 or.

DEL PILAR, A. (2015) «Gobierno de los movimientos sociales, "otra democracia" e intelectuales en Bolivia». *Revista Digital de Ciencias Sociales/2*. lib. 3.zk, 173-197 or.

DELLA PORTA, D. (2017) *Democracias. Participación, deliberación y movimientos sociales*. Buenos Aires: Prometeo.

DELLA PORTA, D. eta DIANI, M. (2011) *Los movimientos sociales*. Madril: Centro de investigaciones Sociológicas.

DENTE, B. eta SUBIRATS, J. (2013) *Decisiones públicas. Análisis y estudio de los procesos de decisión en políticas públicas*. Bartzelona: Ariel.

DENZIN, N.K. eta LINCOLN, Y.S. (2012) *El campo de la investigación cualitativa*. Bartzelona: Gedisa.

DHAL, R. A. (1992) *La democracia y sus críticos*. Bartzelona: Paidós.

DOWSE, R. eta HUGHES, J. (1986) *Sociología Política*. Madril: Alianza.

DUVERGER, M. (1981) *Los partidos políticos*. Mexiko: Fondo de cultura económica.

- EASTON, D. (1969)** *Enfoques sobre teoría política*, 221. or., Buenos Aires: Amorrortu .
- EMAGIN (2018)** *Ezagutzaren matazak*. Lisipe. Susa.
- ENCINA, J. eta BARCENA, I. (2004)** *Democracia Ecológica. Formas y experiencias de participación en la crisis ambiental. Democracias participativas 3*. Sevilla: Atrapasueños.
- ENCINA, J. DOMINGUEZ, M, ÁNGELES, M. eta ALCÓN, R. (2004)** *Del dicho al hecho andando es estrecho. Participación, comunicación y desarrollo comunitario*. Sevilla: Atrapasueños.
- EPELDE, E., ARANGUREN, M. eta RETOLAZA, I. (2015)** *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Kronika bat*. Emagin dokumentazio zentroa eta Ikerkuntza Zentro Feminista.
- ESCORIHUELA, J.L. (2003)** *Foros ciudadanos. Una herramienta para profundizar en la democracia social*. Ed. Selva Vida Sostenible
- ESPIAU, M, SAILLARD, D. eta AJANGIZ, R. (2005)** «Género en la participación. Un camino por recorrer». Cuadernos Bakeaz 67.zk.
- ESTEBAN, M. (2017)** *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Iruñea: Lisipe.
- ESTENSORO, M., LARREA, M. eta ZURBANO, M. (2011)** *Tokiko ekonomia-gobernantza berrikuntza sozialaren ikuspegitik. Uztaro 77, 23-41 or.*
- FERNÁNDEZ ORTIZ DE ZARATE, G. (2015)** *EH Bildu y Podemos: ¿Asalto a los cielos o travesía en el desierto?* Viento Sur. Maiatzak 27. <<http://vientosur.info/spip.php?article10439>>
- FISHKIN, J. (1997)** *The voice of the people*. New Haven, CT: Yale University Press.
- FONT, J. (1996)** Los núcleos de intervención participativa: análisis de experiencias. Gestión y publica y política. vol. V, núm. 1, Mexiko. 5-6. Enero-agosto, 143-150 or.
- FONT, J. (ed.) (2001)** *Ciudadanos y decisiones públicas*. Bartzelona: Ariel.
- FORONI, N. (2014)** «Erakundeak eta parte hartzea: paradigma berri bat elkarrekin eraikiz?» *Jakin/203*, 31-48 orr.
- FRASER, N. (1992)** «Rethinking the Public Sphere: A Contribution to the Critique of Actually Existing Democracy», en Calhoun, Craig (ed.). *Habermas and the Public Sphere*. MIT Press. Cambridge, MA.
- FRASER, N. (2000)** «¿De la redistribución al reconocimiento? Dilemas de la justicia en la era 'post-socialista'», *New Left Review*, Pensamiento crítico contra la dominación, 0, 126-155 or.
- FRASER, N. (2008)** «La justicia social en la era de la política de identidad: redistribución, reconocimiento y participación». *Revista de trabajo*, 4. urtea, 6.zk, 83-99 or.
- FRASER, N. (2011)** *Repensando la esfera pública*. Dilemas de la justicia en el siglo XXI: género y globalización / coord. por Nancy Fraser, María Antonia Carbonero Gamundí, Joaquín Valdivielso, 139-176 or.
- FRASER, N. (2015)** *Fortunas del feminismo*. Madril: Traficante de sueños.

FREIRE, P. (2006) *Pedagogía del oprimido*. Bueno Aires: Siglo XXI.

FREIRE, P. (2008) *Pedagogia de la esperanza. Un Reencuentro con la Pedagogía del Oprimido*. Buenos Aires: Siglo XXI.

GALCERÁN, M.; DEL RE, A.; BRICEÑO, Y. ETA PEREZ OROZCO, A.; CASASSAS, D.; FLORES, J.; GÓMEZ, L. eta VILA, N. (2012) *Hacia nuevas instituciones democráticas. Diferencia, sostenimiento de la vida y políticas públicas*. Villatuerta: Traficantes de sueños útiles.

GAMSON, W. (1988) *Political Discourse and Collective Action*, en KLANDERMANS, Bert; KRIESI, Hanspeter y SIDNEY Tarrow (compiladores), *International Social Movement Research: Structure to Action*. Greenwich, Connecticut: JAI Press.

GANDARIAS, I. (2017) ¿Un neologismo a la moda?: Repensar la interseccionalidad como herramienta para la articulación política feminista. *Investigaciones Feministas*. Ediciones Complutense. 73-93 or.

GARCÍA, A. (2016) *Democracia Estado Revolución*. Antología de textos políticos. Tafalla: Txalparta.

GARCÍA, A., PARDA, R., TAPIA, L. eta VEGA, O. (2010) *El estado. Campo de lucha*. Clasco coediciones.

GOIKOETXEA, J. (2017) *Demokraziaren pribatizazioa*. Elkar.

GOMÀ, R. ETA BLANCO, I. (2012) *Gobiernos locales y redes participativas: retos e innovaciones* Institut de Govern i Polítiques Públiques (Universitat Autònoma de Barcelona)

GÓMEZ, L. (2015) *Sobre las instituciones públicas como instrumentos feministas emancipadores para un mundo en transición*. *Lan Harremanak*/33 zk., 126-149 or.

GÓMEZ, L. (2017) Cuando las feministas sueñan con democratizar las instituciones: por una protección social sin dominación. 173-208 or. Martínez-Palacios (koord.) *Participar desde los feminismos*. Bartzelona: Icaria.

GRAU-SOLÉS, M., ÍÑIGUEZ-RUEDA, L. eta SUBIRATS, J. (2011) «¿Cómo gobernar la complejidad? Invitación a una gobernanza urbana híbrida y relacional». *Athenea Digital* -11(1): 63-84 or.

GUTIERREZ, R. (2016) *Horizontes comunitario-populares. Producción de lo común más allá de las políticas estado-céntricas*. Madril: Traficantes de Sueños

HABERMAS, J. (1987) *Teoría de la acción comunicativa I. Racionalidad de la acción y racionalización social*. Madril: Taurus.

HABERMAS, J. (1998): «Política deliberativa: un concepto procedimental de democracia», cap. VII de *Facticidad y validez*, Madril: Trotta, 363-406 or.t

HABERMAS, J. (2005): «Tres modelos de democracia: sobre el concepto de la política deliberativa», *Polis: Revista académica de la Universidad Bolivariana*, 10.

HARAWAY, D. (1995) *Ciencia, cyborg y mujeres. La reinviación de la naturaleza*. Madril: Ediciones Cátedra.

- HARDT, M eta NEGRI, A. (2004)** *Multitud. Guerra y democracia en la era del Imperio*. Bartzelona: Debate.
- HARDING, S. (1996)** *Ciencia y Feminismo*. Madril: Morata.
- HARNECKER, M. (2013)** *Un mundo a construir. Nuevos Caminos*. España: El viejo topo.
- HARNECKER, M. (1999)** *La izquierda en el umbral del siglo XXI. Haciendo posible lo imposible*. Madril: Siglo Veintiuno de España.
- HECLO, H. (2010)** *Pensar institucionalmente*. Madril: Paidós.
- HELD, D. (1997)** *La democracia y el orden global. Del estado moderno al gobierno cosmopolita*. Bartzelona: Paidós Estado y Sociedad.
- HELD, D. (1987)** *Models of democracy*. Polity Press. Cambridge
- HOLLOWAY, J. (2005)** *Como cambiar el mundo sin tomar el poder*. Venezuela: Editorial Melvin.
- IBARRA, P. (2005)** *Manual de sociedad civil y movimientos sociales*. Madril: Editorial Síntesis.
- IBARRA, P. (2011)** *Democracia relacional*. Madril: Centro de estudios políticos e institucionales.
- IBARRA, P. (2000)** «Los estudios sobre los movimientos sociales: estado de la cuestión», *Revista española de Ciencia Política*, 1(2), 271-290 or.
- IBARRA, P, MARTÍ, S. eta GOMÁ, R. (2002)** *Creadores de democracia radical. Movimientos sociales y redes de políticas públicas*. Bartzelona: Icaria.
- IBARRA, P. eta TEJERINA, B. (1998)** *Los movimientos transformaciones políticas sociales y cambio cultural*. Madril: Editorial Trotta.
- IBARRA, P., SALVADOR, M. eta GOMÁ, R. (2002)** *Creadores de democracia radical. Movimientos sociales y redes de políticas públicas*. Bartzelona: Icaria.
- IBARRA, P., CORTINA, M., MARTÍ I PUIG, S. eta SRIBMAN, A. (2018)** *Nuevos movimientos sociales. De la calle a los ayuntamientos*. Bartzelona: Icaria.
- IBARRA, P., ZUBIAGA, M. eta BARCENA, I. (1995)** «Mugimendu sozialak eta demokrazia Euskal Herrian: intsumisioa eta ekologismoa», *Uztaro* 14., 99-125 or.
- ITÇAINA, X. eta WEISBEIN, J. (2011)** *Mareés noires et politique Gestion et contestation de la pollution du Prestige en France et Espagne*. Paris: L'Harmattan
- ITÇAINA, X. (2011)** «Eskualdeen Europeanizazioa», *Eleria* 21., 33-42 or.
- IZA, I. (2010)** *Ikastola mugimendua dabilen herria. Ikastola-eredua 1960-2010*. Bilbo: Jagon saila, Euskaltzaindia.
- JABLKOWSKI, R. (2007)** *Participación y ciudadanía: implicaciones psicológicas en los procesos de*

participación. 57-77 or.; Ahedo e Ibarra, *Democracia participativa y desarrollo comunitario*.

JESSOP, B. (2009) *El futuro del estado capitalista*. Madril: Catarata.

JESSOP, B. (2010) ¿Narrando el futuro de la economía nacional y el estado nacional. Versión en español del trabajo: «Narrating the Future of the National Economy and the National State? Remarks». 7-39 orr., publicado por el Department of Sociology, Lancaster University, Lancaster LA1 4YN, <<http://www.comp.lancs.ac.uk/sociology/papers/Jessop>>

JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA (2014) *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontal-tasunaz hausnartzen*. Bilbo: Joxemi Zumalabe Fundazioa.

JUARISTI, P. (2003) *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

KATZ, R. eta MAIR, P. (1995) «Changing Models of Party Organization and Party Democracy: The Emergence of the Cartel Party», *Party Politics*, 1, 1995, 5-28 or.

KOOIMAN, J. (1993) *Modern governance*, Londres: Sage.

KRIESI, H. (1992) «El contexto político de los nuevos movimientos sociales en Europa Occidental», en Benedicto, Jorge y Fernando Reinares (ed.), *Las transformaciones de lo político*. Madril: Alianza.

LACLAU, E. eta MOUFFE, C. (2001) *Hegemonía y estrategia socialista. Hacia una radicalización de la democracia*. Madril: Siglo XXI.

LARAÑA, E. (1999) *La construcción de los movimientos sociales*. Madril: Alianza.

LARRINAGA, A. eta AMURRIO, M (2013) «Género y estructura de oportunidad política local», *Revista Mexicana de Sociología*, 75. zk., 201-223 or.

LARRINAGA, A. eta AMURRIO, M. (2017) *Movimientos sociales, participación y dominación*. Barcelona: Icaria. 145-172 or.

LARRINAGA, A. eta BARCENA, I. (2004) *Politika eta gizartea. Oinarrizko ikasgaiak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

LETAMENDIA, A. (2015) *La forma social de la protesta en Euskal Herria. 1980-2013*. Doktorego Tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

LIJPHART, A. (2000) *Modelos de democracia: Formas de gobierno y su evolución en treinta y seis países*. Barcelona: Ariel.

LIPSET, S. M. (1995) *The Encyclopedia of Democracy*. CQ Press

LOIS, M. eta ALONSO, A. (koord.) (2014) *Ciencia Política con perspectiva de género*. Madril: Akal.

LORENZO, A. eta MARTÍNEZ, M. (2001) *Asambleas y reuniones. Metodologías de la autoorganización*. Madril. Traficantes de sueños.

- LURRALDE ASKEA (2017)** *Ongi bizitzeko 100 Konpromiso*. Komunikazio Biziagoa - Argia
- LUXAN, M., ORMAZABAL, A., DAÑOBEITIA, O. eta TXURRUKA, U. (2014)** «Metamilitantzia. Herri Mugimenduen baitatik gogoeta». *Jakin/203*, 93-107 or.
- MACHADO, D. eta ZIBECHI, R. (2016)** *Cambiar el mundo desde arriba. Los límites del progresismo*. Malaga: Baladre y Zambra.
- MALDONADO, T. eta SANZ, A. (2011)** Feminismo siglo XXI: notas para un balance y perspectivas. *Fundación Betiko*. Hemendik eskuratua: <<http://fundacionbetiko.org/wp-content/uploads/2012/11/feminismo-siglo-xxi-notas-para-un-lbalance-y-perspectivasr.pdf>>
- MANDUJANO, M. (2013)** «La reinención del Estado como movimientos social». *Iberoamérica social: revista red de estudios sociales*, l. 53-68 or.
- MARKOFF, J. (1996)** *Olas de democracia*. Madril: Tecnos.
- MARTALIS, S. (2015)** *Situación y perspectivas de los movimientos sociales tras la victoria de Syriza*. Viento Sur 139. <http://cdn.vientosur.info/VS-139/Articulos/VS139_S_Martalis_Situacion_y_perspectivas_movimientos_sociales_victoria_Syriza.pdf>
- MARTÍ I PUIG, S. (2002)** *El movimiento antiglobalización. Explicat als meus pares*. Bartzelona: Columna.
- MARTÍNEZ-PALACIOS, J. (2014)** «Euskal Berrikuntza demokratikoak eta feminismoak. Emakumeen biografia politikoetatik begiratu bat». *Jakin/203*, 49-66 or.
- MARTÍNEZ-PALACIOS, J. (2015)** *¿Le importa el sexo a la democracia?* Revista de estudios políticos 168. zk. 151-174 or.
- MARTÍNEZ-PALACIOS J. (koord.) (2017)** *Participar desde los feminismos: Ausencias expulsiones y resistencias*. Bartzelona: Icaria.
- MARTÍNEZ-PALACIOS, J. (2017)** «Problemas de la institucionalización y la profesionalización de la participación en contextos de profundización democrática». *Revista internacional de sociología*. vol. 76 (1), e089, enero-marzo, 1-8 or.
- MARTÍNEZ-PALACIOS, J. (koord.) (2018)** *Innovaciones democráticas feministas*. Madril: Dykinson.
- MARTÍNEZ SOSPEDRA, M. (1996)**: *Introducción a los Partidos Políticos*. Bartzelona: Ariel.
- MARTÍNEZ, M. (1996)** *Introducción a los partidos políticos*. Bartzelona: Ariel Derecho.
- MARTÍNEZ, Z. (2014)** *Botere politikoa eta herri ekimena indartze prozesuak*. *Jakin 203*. zk., 11-31 or.
- MARTÍNEZ, Z., CASADO, B. eta IBARRA, P. (2012)** «Jendarte mugimendua eta prozesu askatzai-leak». *Hegoa Lan koaderno*. 57. zk., 7-37 or.
- MARTÍNEZ, Z. eta CASADO, B. (2013)** «Acerca de opresiones luchas y resistencias: movimientos sociales y luchas emancipadora». *Hegoa Lan koaderno*. 60. zk., 7-63 or.

MARTÍNEZ, Z., STRONZAKE, J. eta CASADO, B. (2014) 290 Línea Temática 4 Red de Escuelas Campesinas en América Latina: Una experiencia en construcción protagonizada por La Vía Campesina e El Alba de Los Movimientos Sociales. Congreso: Cambiar la educación para cambiar el mundo. Comunicaciones.

MARTÍNEZ, Z. ETA BLAS, A. (koord.) (2008) *Poder político y participación. Demokrazia: ogi gogorri hagin zorrotza*. Construyendo ciudadanía /11. Erandio: Eusko Jaurlaritzza.

MATEOS, S. (1999) *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: Ikastolenpublikazioa*. (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco, Bilbo.

MATEOS, T., ZABALO, J. eta LARRINAGA, A. (2016) «Pluralidad política y diversidad cultural. Discursos sobre la educación para la ciudadanía en la sociedad vasca». *Papers Revista Sociologica*. 51-77 or.

MCADAM, D., TARROW, S. eta TILLY, C. (2005) *Dinámica de la contienda política*. Bartzelona: Editorial Hacer.

MCCHARTY, J., ZALD, N. eta MCADAM, D. (EDS.) (1996, 1999) *Movimientos Sociales. Perspectivas Comparadas*. Madril: Istmo.

MELUCCI, A. (1999) *Acción, colectiva, vida cotidiana y democracia*. Mexiko: El colegio de México.

MELUCCI, A (1996) *Challenging codes. Collective action in the information age*. Cambridge: Cambridge University Press.

MENDIA, I., LUXAN, M., LEGARRETA, M., GUZMAN, G., ZIRION, I. eta AZPIAZU, J. (2014) *Otras Formas de (Re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea. Hegoa. SIMRF. Seminario Interdisciplinar de metodología de recerca feminista.

MENDIGUREN, X. (1972) *Europako ezker berria*. Bilbo: Etor.

MENDIOLA, F. (2002) «Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)» *Geronimo de Uztariz*. 17-18 zk., 211-250 or.

MEJÍA, O. eta JIMENEZ, C. (2005) *Nuevas teorías de la democracia*. Colombia internacional 62.zk., 12-31 or.

MILLET, K. (2010) «Teoría de la política sexual» *Política Sexual* liburuan. Madril: Cátedra.

MINDELL, A. (2014) *La democracia profunda de los foros abiertos. Pasos prácticos para la prevención y resolución de conflictos, laborales y mundiales*. Bartzelona: Deep Democracy Exchange.

MIYARES, A. (2003) *Democracia feminista. Feminismos*. Bartzelona: Ediciones Cátedra.

MONEDERO, J.C. (2011) *El gobierno de las palabras. Política en tiempos de confusión*. Madril: Fondo de Cultura Económica de España.

MONEDERO, J.C., JEREZ, A. eta FERNÁNDEZ, J. F. (2013) *Participación ciudadana y Democracia. Una revisión de las mejores experiencias Iberoamericanas*. ICEI working papers

- MONTERO, J.R. eta MORLINO, L. (1993)** «Legitimidad y democracia en el sur de Europa». *Reis* 64. zk, 7-40 or.
- MOUFFE, C. (2003)** *La paradoja de la democracia*. Bartzelona: Gedisa.
- MOUFFE, C. (1999)** *En retorno de lo político*. Bartzelona: Paidós estado y sociedad.
- OFFE, C. (1992)** *Partidos políticos y nuevos movimientos sociales*. Madril: Editorial Sistema. Colección Politeia.
- OLSON, M. (1992)** *La lógica de la acción colectiva. Bienes públicos y teoría de grupos*. Buenos Aires: Noriega Editores
- OÑATE, P. (2005)** «Participación política, partidos y nuevos movimientos sociales». *Revista mexicana de ciencias políticas y sociales*, 194 zk., 103-136 or.
- OROZCO, A. (2011)** Crisis multidimensional y sostenibilidad. *Investigaciones feministas: papeles de estudios de mujeres, feministas y de género*. 2 zk., 29-53 or.
- OROZCO, A. (2015)** Políticas al servicio de la vida: ¿políticas en transición? en Galderan, M. et. al. *Hacia nuevas instituciones democráticas. Diferencia, sostenimiento de la vida y políticas públicas*. Madril: Traficantes de sueños.
- ORZAIZ, I. eta SENAR, J. (2016)** *Orain ala inoiz ez*. Iruñea: Aleka.
- PANEBIANCO, A. (1995)** *Modelos de partido*. Madril: Alianza.
- PARÉS, M. (koord.) (2009)** *Participación y calidad democrática. Evaluando las nuevas formas de democracia participativa*. Bartzelona: Ariel Ciencia Política.
- PASTOR, J (2006)** «Los movimientos sociales. De la crítica de la modernidad a la denuncia de la globalización». *Intervención Psicosocial*, vol. 15, 2 zk., 133-147 or.
- PATEMAN, C. (1995)** *El contrato sexual*. Bartzelona: Anthropos.
- PATEMAN, C. (1970)** *Participation and Democratic Theory*. Cambridge: Cambridge University Press.
- PEREDA, C. eta PRADA, M.A. (2014)** «Investigación acción participativa y perspectiva dialectiva». *Arius*, 31. zk., 57-68. or.
- PETTIT, P. (1999)** *Republicanism: una teoría sobre la libertad y el gobierno*. Madril: Paidós
- PETXARROMAN, I. (2011)** *Lurra, zorua bailitzan*. Tafalla: Txalaparta.
- PETXARROMAN, I. (2012)** Su haietatik ke hauek. Gipuzkoa: Errausketatik Zero Zaborrerantz. Tafalla: Txalaparta
- PHILLIPS, A. (1991)** *Engendering Democracy*. Oxford: Polity Press.
- PHILLIPS, A. (1991)** «Feminism and democracy» in: *Engendering Democracy*. Oxford: Polity Press.

PHILLIPS, A. (1996) Género y teoría democrática. Mexiko: Universidad Autónoma de México. Instituto de Investigaciones Sociales y Programa Universitario de Estudios de Género, 1996. 183 p. Traducción de Isabel Vericat

PHILLIPS, A. (1996) «¿Deben las feministas abandonar la democracia liberal?» En: Castells, C.. Barcelona: Paidós.

PINDADO, F. (2005) *La participación no se improvisa*. Revista de estudios locales. Madril: Num. 87 noviembre-diciembre.

PLATERO, L. (2015) Las políticas públicas de igualdad en el Estado Español frente a los retos actuales. *Galde*. Hemendik eskuratua: <<http://www.galde.eu/es/las-politicas-publicas-de-igualdad-en-el-estado-espanol-frente-a-los-retos-actuales>>

RAUBER, I. (2006) *Sujetos Políticos. Rumbos estrategias y tareas actuales de los movimientos sociales y políticos*. Santo Domingo: Pasado y presente XXI.

RAUBER, I. (2009) *Siglo XXI: Tiempo de revoluciones desde abajo*. Biblioteca virtual Omegalfa. 1-28 or.

RAUBER, I. (2010) *Dos pasos adelante, uno atras*. Caracas: Ediciones desde abajo.

RAUBER, I. (2015) «Necia, irreverente, revolucionaria». *Revista Tesis* 11, 113 zk., 1-6 or.

RIECHMAN, J. (2001) *Redes que dan libertad: introducción a los movimientos sociales*. Bartzelona: Paidós.

RODRÍGUEZ G. eta AJANGIZ, R. (2007) «Descentralización municipal y participación ciudadana: evaluación de una experiencia consolidada» *Revista Española de Ciencia Política* 17. zk., 181-197 or.

RUIZ, J.I., (2009) *Metodología de la investigación cualitativa*. Bilbao: Universidad de Deusto

SADER, E. (2014) *Lula y Dilma diez años de gobiernos posneoliberales en Brasil*. Madril: Traficantes de Sueños.

SALVADOR, M. (2004) «Los movimientos sociales en un mundo globalizado: ¿Alguna novedad?» *América Latina hoy*, 36. zk., 79-100 or.

SALVADOR, M. (2014) *Introducción: movilización y protesta en el mundo global interconectado*. Revista CIBOD d'Afers Internacionals, 105. zk, 7-18 or.

SANTOS, B. (koord.) (2002) *Democratizar la democracia. Los caminos de la democracia participativa*. Mexiko: FCE.

SANTOS, B. (2005) *El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política*. Madril: Trotta/Ilsa.

SANTOS, B. (2005) *Reinventar la democracia. Reinventar el Estado*. Buenos Aires: Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales.

SANTOS, B. (2010) *Descolonizar el saber, reinventar el poder*. Montevideo: Ediciones Trilce.

SARATXAGA, K. (2007) *Harreman-estilo berri bat. Egiteko dagoen organizazioen aldaketarako*. Donostia: Elkar.

- SARTORI, G. (1987)** *The theory of Democracy Revisited*. Chatham House Publishers: New Jersey.
- SARTORI, G. (1988)** *Teoría de la democracia. 1. Debate contemporáneo*. Madril: Alianza.
- SCHUMPETER, J. (1976)** *Capitalism, Socialism and Democracy*. London: Allen and Unwin.
- SERRANO, P. (2010)** *Traficantes de información: la historia oculta de los grupos de información españoles*. Madril: Akal.
- SKINNER, Q (1995)** *Milton and Republicanism*. Cambridge: University Press
- SORENSEN, E. eta TORFING, J. (2009)** «Making governance networks effective and democratic through metagovernance», *Public Administration* 87(2): 234-258 or.
- STOKER, G. (1998)** *El buen gobierno como teoría: cinco propuestas*. Revista Internacional de Ciencias Sociales.
- STUART MILL, J. eta TAYLOR, H. (2001)** *Ensayos sobre la igualdad sexual*. Madril: Cátedra.
- SUBIRATS, J. (1992)** Análisis de políticas públicas y eficacia en la administración. Madril: Administración general.
- SUBIRATS, J. (2005)** «Democracia, Participación, y transformación social». *Polis Revista Latinoamericana*, 12. zk, 1-11 or.
- SUBIRATS, J. (2012)** «¿Qué democracia tenemos? ¿Qué democracia queremos?» *Historia Actual Online*, 26. zk, 115-132 or.
- SUBIRATS, J. eta BLANCO, I. (2009)** «¿Todo lo urbano es social y todo lo social urbano? Dinámicas urbanas y dilemas de política públicas». *Medio Ambiente y Urbanización*, 70(1), 3-13 or.
- SUBIRATS, J., PARÉS, M. eta BLANCO, I. (2008)** «Calidad democrática y redes de gobernanza: evaluar la participación desde el Análisis de las Políticas Públicas» en Parés, M. (coord) *Participación y calidad democrática. Evaluando las nuevas formas de democracia participativa*. Bartzelona: Ariel.
- SUBIRATS, J. eta RENDUELES, C. (2016)** *Los (bienes) comunes. ¿Oportunidad o espejismo?*. Bartzelona: Icaria. Más Madera en profundidad.
- TARROW, S. (1997)** *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*. Madril: Alianza Universal.
- TEJERINA, B. (1998)** «Los movimientos sociales y la acción colectiva. De la producción simbólica al cambio de valores», en Ibarra, P. y Benjamin, T. (eds.) *Movimientos sociales, transformaciones políticas y cambio cultural*. Madril: Trotta.
- TELLERIA, I. (2010)** Komunitatea berreskuratutako ikuspegi demokratikotik. Jarduera komunitarioa argituz eta saretuz, Gizarte Lagintzako III. jardunaldia. 29-39.rr.
- TELLERIA, I. (2012)** Los movimientos urbanos como impulsores de la gestión democrática en la ciudad. Tesis doctoral. Leioa: EHU.

TELLERIA, I. eta AHEDO, I. (2016) «Movimientos urbanos y democratización en la ciudad: una propuesta de análisis». *Revista Española de Ciencia Política*, 40:91-115 or.

TILLY, C. (2007) *Contienda política y democracia en Europa 1650-2000*. Bartzelona: Hacer editorial.

TILLY, C. (2007) *Democracia*. Madril: Akal.

TILLY, C. eta WOOD, L. (2009) *Los movimientos sociales 1768-2008. Desde sus orígenes a facebook*. Editorial Crítica.

TOURAINE, A. (2011) *Movimientos sociales hoy*. Madril: Hacer.

TUHIWAI, L. (2017) *A descolonizar las metodologías. Investigación y pueblos indígenas*. Navarra: Txalaparta.

UHARTE, L. eta VAZQUEZ, U. (2015) *Herri Borrokei begirada analitikoa. Irabazitako hamarkada Latinoameriketan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

VALCÁRCEL, A. (2008) *La política de las mujeres*. Madril: Cátedra.

VALVERDE, C. (2015) *De la necropolítica neoliberal a la empatía radical. Violencia discreta, cuerpos excluidos y repolitización*. Bartzelona: Icaria Más Madera.

VERCAUTEREN, D., CRABBÉ, O. eta MÜLLER, T. (2010) *Micropolítica de los grupos. Para una ecología de la práctica de los grupos*. Madril: Traficantes de sueños.

VIEJO, R. MARTÍ-COSTA M, PARÉS M., RESENDE, P. eta VILAREGUT, R. (2009) «La participación ciudadana en la esfera pública: enfoques teóricos-normativos y modelos de democracia». En Parés, M. (coord.) *Participación y calidad democrática. Evaluando las nuevas formas de democracia participativa*. Bartzelona: Ariel.

VILLASANTE, T. R. eta MARTÍ, J. (2000) *La Investigación social participativa. Construyendo ciudadanía 1*; Madril: El Viejo Topo.

VILLASANTE, T. R., MONTAÑES, M. eta MARTÍ, J. (2000) *La investigación social participativa: Construyendo ciudadanía*. El viejo Topo.

VILLASANTE, T. R., MONTAÑES, M. eta MARTÍN, P. (2000) *Prácticas locales de creatividad social. Construyendo ciudadanía/2*; Madril: El Viejo Topo

WEBER, M. (1992) *La ciencia como profesión. La política como profesión*. Madril: Espasa.

WOLLSTONECRAFT, M. (2005) *Vindicación de los derechos de la mujer*. Madril: Istmo.

ZABALA, B. (2008): *Movimiento de mujeres, mujeres en movimiento*. Tafalla: Txalaparta.

ZABALA, B. (2010): Un feminismo para construir ciudadanía. *Hegoa*. Hemendik eskuratua: <http://www.feminismos.hegoa.info/entry/content/189/ponencia_Bego_a_Zabala.pdf>

ZABALETA, I. (1997) *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia. Metodo enpirikoak eta interpreta-tzaileak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

ZAPATA-BARRERO, R. eta SANCHEZ-MONTIJANO, E. (2011) *Manual de investigación cualitativa en la ciencia política*. Madril: Tecnos.

ZIBECHI, R. (2003) «Los movimientos sociales latinoamericanos: tendencias y desafíos». *Observatorio Social de América Latina*. 9.zk, 185-189 or.

ZIBECHI, R. (2007) *Dispersar el poder*. Madril: Traficantes de sueños.

ZIBECHI, R. (2007) *Autonomías y emancipaciones*. Peru: Fondo editorial de las Ciencias Sociales. Universidad nacional mayor de San Marcos.

ZIBECHI, R. (2008) *Territorios en resistencia. Cartografía política de las periferias urbanas en resistencia*. Madril: Traficantes de sueños.

ZIBECHI, R. (2012) *Movimientos sociales y acción colectiva en América Latina*.

ZUAZO, M. (2010) «¿Los movimientos sociales en el poder? El gobierno de MAS en Bolivia». *Nueva sociedad*, 227. zk, 120-135 or.

ZUBIAGA, M. (2002) *Euskal gizarte zibilaren ahotsa eta egungo ezaugarriak*. Joxemi Zumalabe Fundazioa. 479-488. or.

ZUBIAGA, M. (2007) *Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina/Maltzagako liskarretan*. Doktorego Tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

ZUBIAGA, M. (2008) *Gizarte mugimenduen jarduera demokratizatzailea. Poder político y participación. Demokrazia: ogi gogorrari hagin zorrotza*. Construyendo ciudadanía /11. Erandio: Eusko Jaurlaritza.

ZUBIAGA, M. (2012) *Contingencia y articulación*. Ahedo, I. eta Gorostidi, I. (coord) *Política integral*. Iruñea: Universitas.

Txostenak eta ikerketak

AJANGIZ, R., BLAS, A. eta SUSO, A. (d.g.) Los Nudos de la participación. Innovasque y Parte Hartuz.

ALTERNATIBA. (d.g.) Nortzuk gara? Eskuragarri: <<http://alternatiba.net/nortzuk-gara>>

APODAKA, M. (2012) Auzolana eta herrigintza. Talde Harremanak. Ikasmateriala. Udako Euskal Unibertsitatea.

AYUNTAMIENTO DE GASTEIZ (d.g.) La transversalidad como elemento de mejora en el ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Resultado de una reflexión compartida. Colección temas municipales.

BILGUNE FEMINISTA (2017) Feminismoak egiten gaitu herri: Gorputzak, lurraldeak eta erakundeak. Mintegiaren itzulera dokumentua. Baiona.

CONCLUSIONES DEL SIMPOSIUM MÉDICO SOBRE INCINERACIÓN Y SALUD (2004) Eskuragarri: <<https://es.slideshare.net/ZeroZabor/conclusiones-simposium-medico-incineracion-y-salud-gipuzkoa-2004>>

DIPUTACIÓ BARCELONA (2015) *Repensant la participació de la ciutadania al món local*. Col·lecció Documents de Treball Sèrie Igualtat i Ciutadania, 21

EUSKAL HERRIA BILDU (2015) Hauteskunde Programa. Eskuragarri: <<http://ehbildu.eus/es/elecciones/elecciones-forales-y-municipales-2015/programas/159-hauteskundeak/udal-eta-foru-hauteskundeak-2015>>

EUSKO JAURLARITZA (2008, 2010 ETA 2017) Prospekzio soziologikoen gabinetea. 37. Soziometroa, 42. Soziometroa eta 46. Soziometroa.

EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA eta EEP (2016) *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa.*

EUSTAT (2016) Euskal AEko biztanleria jaiotze urteari jarraiki, Lurralde Historiko eta sexuaren arabera. Eskuragarri: <http://eu.eustat.eus/elementos/ele0008400/Euskal_AEko_biztanleria_jaiotze_urteari_jarraiki_Lurralde_Historiko_eta_sexuaren_arabera/tbl0008457_e.html>

EUSTAT (2017) Elkarteen erregistroa, elkarte motaren eta lurralde historikoaren arabara. <http://eu.eustat.eus/ci_ci/elementos/Elkarteen_erregistroa_elkarte_motaren_eta_lurralde_historikoaren_arabara_e.html#x1Wfe>

EZKER ABERTZALEA (2010) Zutik Euskal Herria. Eskuragarri: <<http://www.ezkerabertzalea.info/doku/zutikeuskalherria-eu.pdf>>

FARAPI (2013) *Informes sobre las sesiones de contraste. Proceso de creación del dispositivo foral de gobernanza para la igualdad.*

FARAPI (2013) *Reflexionando: 1. Fase el Proceso de creación del Dispositivo foral de Gobernanza para la Igualdad. Aproximación a la participación socio-política y al tejido asociativo de mujeres de Gipuzkoa y retos para la creación de un órgano foral de interlocución política en igualdad.* Gipuzkoako Foru Aldundia.

GAINDEGIA (2013) Lan merkatuaren egoera, Euskal Herria 2013. Eskuragarri: <https://www.gaindegia.eus/sites/gaindegia.eus/files/argitalpen-eranskin/2_gdg_tx_mn_lan_merkatua.pdf>

GAINDEGIA (2014) Demografia Eskualdeka. Eskuragarri: <<http://www.atlasa.eus/demografia/eskualde>>

GALLETEBEITIA (koord). (2015) Partaidetza Foru Arauaren Ebaluazioa. Hiru kasu oinarritzat hartuta. Parte Hartuz Ikerketa Taldea.

GILES, J.C., DAGUERRE, A., HOETMER, R., FORONI, N. eta FUNDACIÓN JOXEMI ZUMALABE, (2015) Diálogo de saberes y movimientos de Euskal Herria. Mugimenduak Elkarriketan. Gipuzkoa Berria. PDTG.

GILES, J.; DAGUERRE, A.; HOETMER, R.; FORONI, N. eta FUNDACIÓN JOXEMI ZUMALABE (2012) Diálogo de saberes y movimientos de Euskal Herria. *Sistematización (2012-2013)*

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2012) *Gipuzkoako emakume eta gizonen berdintasunerako II. Foru Plana (2013-2020)*. (<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/berdintasunerako-ii.-foru-plana>)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2013) *Acta del I. taller de cocreación.*

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2013) *Acta del II. taller de cocreación.*

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2014) *Gunea sortzeko batzar nagusiaren akta. Berdintasunerako partaidetza eta elkarriketa gunea Gipuzkoan.*

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2015) *Emakume eta gizonen berdintasunerako foru araua 2/2015. (GBO n 50º, 16-03-2015)*. <<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/142073/Emakumeen+eta+gizonen+berdintasunerako+Foru+Araua/e8b05e53-7751-4f4e-9492-817271463afd>>

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA eta ORKESTRA. LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUA (2015) Gipuzkoa Sarean Bidean.

GIPUZKOAKO GIZARTE BEHATEGIA. (2015) Datuen azterketa. Eskuragarri: <http://www.behagi.eus/files/informes/behagiO2_eus.pdf>

HIRIAN (2014.03.15) Queremos un modelo social dirigido a conseguir el mantenimiento de la vida y el buen vivir. Eskuragarri: <http://berdintasuna.gipuzkoa.net/es/sakonean-detalle/-/journal_content/56_INSTANCE_9BuQpDVJQP9H/73267/117816/74084#.XB4kA_I7nIU>

IPAR HEGOA (2015) *Egoeraren azterketa*. 2014 iraila-2015 martxoa. 1-65 or.

JURADO, N. (2017) *Situación económica y social tras una década de gran recesión: Los presupuestos 2008-2017 en Hego Euskal Herria profundizando la desigualdad.*

MITXELTORENA, J. (2012) *Auzolana eta herrigintza. Bizimodu komunitarioak berpiztuz*. UEUko udako ikastaroaren itzulera dokumentua.

ORKESTRA. (2015) *Euskal Autonomi Erkidegogo Lehiakortasun txostena. Ekoizpen eraldaketa praktikan*. Deustuko unibertsitatea.

REBOLLO, O. eta PINDADO, F. (2015) Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarren partaidetzari buruzko foru arauaren eta politikaren ebaluazioa. 2011-2015 legealdia.

SORGUNEAK (2008) *Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan*. Mondragon Unibertsitatea.

SOTO, A. eta MORANDEIRA, J. (2017) Euskal Gizarte Ekonomiaren egoera txostena 2016 urtea. Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia. Eskuragarri: <http://www.oves-geeb.com/uploads/2017_Txostena_Egoera_Bfinala_EUS.pdf>

TELLERIA, I. eta BLAS, A. (2016) *Donostia-San Sebastián: Estructuras de gobernanza y acción colectiva ante la crisis*. TRANSGOB Report Series, Julio 2016: Número 4, Donostia-San Sebastián.

Erreferentziak

Gatazka eremuak eta horiek kudeatzeko tresnak

Berriak

AGURTZANE, S. (2004ko azaroaren 30a) Euskalkiak. Berria, 16.or.

ARBELAITZ, L. (2017ko apirilaren 2a) *Euskal Oasia Sutan*. Argia, 34-38. or.

BERRIA (2011ko maiatzaren 17a) Herritarrek parte hartzeko bi arau iragarri ditu Bilduk. Eskuragarri: <https://www.berria.eus/paperekoa/1697/002/002/2011-05-17/herritarrek_parte_hartzeko_bi_arau_iragarri_ditu_bilduk.htm>

BERRIA (2011ko uztailaren 2a) Bakea eta normalizazioa helburu dituen gobernu» aurkeztu du Garitanok. Eskuragarri: <https://www.berria.eus/paperekoa/012/001/2011-07-02/bakea_eta_normalizazioa_helburu_dituen_gobernu_aurkeztu_du_garitanok.htm>

BERRIA (2011ko irailaren 16a) Garitanok dio akordioak egiteko «gaitasuna» erakutsi dutela. Eskuragarri: <https://www.berria.eus/paperekoa/1611/012/002/2011-10-01/garitanok_dio_akordioak_egiteko_gaitasuna_erakutsi_dutela.htm>

BERRIA (2011ko irailaren 20a) Garitano: «Sakondu egingo dugu geuk marraztutako estrategian». Berria.

EIZAGIRRE, E. (2017ko otsaila) Mobilizazioa desmobilizazioa. Nola lortu jendeok kalera ateratzea. Argia, 1-16 or.

EUSKO IKASKUNTZA, (1998) Hiritarren partaidetza hirigintz plangintzan. N.I.P. Itziar Izurza. Eusko-news. 9. zenbakia

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2011) Berdintasuna 06 zenbakia.

HALABEDI (2018ko abuztuaren 18a) La Ley Mordaza en Araba: números que crecen sin parar tres años después

HARNECKER, M. (2015eko urriaren 30a) Movimientos sociales y gobiernos progresistas: construyendo una nueva relación. Rebelion.

KARYOTIS, T. (2015eko martxoaren 7a) «La encrucijada de los movimientos ante el Gobierno de Siria». *Diagonal* aldizkaria.

NEGRI, T. (2017ko otsailaren 21a) Impresiones de una visita a Brasil. Lobo suelto.

SAGARZAZU, J. (2011ko maiatzaren 23a) *Bilduk irabazi du, eta gehiengoa indar abertzaleek izango dute*. Berria.

SAGARZAZU, J. (2011ko irailaren 28a) *Gizarte instituzioen aurretik*. Berria.

SAGARZAZU, J. (2011ko urriaren 16a) *Garai berriko erronkak*. Berria.

URAIN, J. (2018ko abuztuaren 16a) Garrantzitsua da protesta molde alternatiboak garatzea.

Z. MARTA. (2016ko urriaren 15a) El día que el zapatismo volvió a proponer cambiar el mundo.

7. Eranskina

Elkarrizketen gidoia



Sakoneko elkarrizketarako gidoi orokorra (Herri mugimenduei zuzendua)

1. Hasierako diskurtsoen eta espektatiben analisia

- Azaldu iezadazu, oro har, nola eta noiztik parte hartzen duzun zure mugimenduan?
- Zeintzuk dira taldearen lan eremu eta helburu nagusiak?
- Bildu gorberrura heldu aurretik nolako harremanak zenituzten aldundiarekin? Eta Bildurekin?
- Ze balorazio egin zenu(t)en, 2011ean Bildu koalizioa Aldundiko gobernura heldu zenean? Zer espero zenuten?

2. Gobernantza sareen osaketa, joko arauak eta arriskuak

2.1. Elkarlanerako disposizioa eta sarearen osaketa

- Taldean elkarlanerako disposiziorik bazegoen? Taldearen jarreran sakondu
- Legegintzaldian zehar elkarlanerako aukerarik edo harremanik izan al zen? Zein eremuetan? Nola abiatu zen elkarlana? Aliantzarik?
- Gobernuaren hasierako asmo edo helburu politikoetan eragiteko aukerarik izan zenuten?

2.2. Partaidetzaren joko arauak eta elkarlanerako baldintzak

- Harremanaren maiztasuna edo intentsitate maila deskribatu. Ezberdindu politikari eta teknikariek.
- Informazio eta komunikazio bide formalik sortu al zen?
- Zeintzuk ziren elkarlanerako zehaztu ziren baldintza nagusiak? Elkarrekin adostu zenituzten?
- Abiatu zen elkarlan dinamikan desorekarik sumatzen al zenuen? Botere harremanen nolakotasuna.
- Lan egiteko moduak egokiak zirela esango zenuke? Metodologiaren, informazioaren balorazioa.
- Teknikarien rola zein zen eta eurekin zenuten harremana zein zen? Nola baloratzen duzue?

2.3. Elkarlan dinamikan izandako gatazkak eta korapilo nagusiak

- Gatazka edo muturreko posizioak azaldu ziren elkarlan dinamikan zehar? Zeintzuk eremuetan? Nola kudeatu ziren? Gatazka ekidin ahal izan zen? Zein terminoetan?
- Zeintzuk ziren erresistentzia edota ahulgune nagusiak? Nondik zetozen, teknikari, politikari edota herri mugimenduetatik?
- Gatazkak bideratzeko baliabideak.

2.4. Herri mugimenduen parte hartzearen aukera eta indar guneak

- Zeintzuk izan ziren elkarlan prozesuaren indargune nagusiak?
- Lan egiteko modu berriak zabaldu zirela esango zenuke?
- Arduradun politikoen eta teknikarien lan jardunari dagokionez aukera edo indarguneak identifikatu.

2.5. Arriskuak eta marra gorriak

- Prozesuan edo elkarlan zehatzeta arriskurik identifikatu al zenu(t)en?
- Zeintzuk ziren zuen partaidetzarako muga nagusiak?
- Zuen lan jarduna baldintzatu zuela esango zenuke? Nola/Zertan? Eta instituzioen lan jarduna baldintzatu duzuela esan daiteke? (taldearen autonomia)
- Taldearen autonomia arriskuan ikusi zenuten? Taldearen ikuspegia edota proiektua aldatu da elkarlan horren bitartez?

3. Herri mugimenduen partaidetza eta elkarlanaren emaitzak eta irakaspén nagusiak

- Zeintzuk izan dira elkarlan dinamikak (puntual edo egonkorak) emandako emaitzak?
- Zer ikasi edo zein ondorio atera zenituzten prozesu honetatik? Zuen espektatibak eta helburuak bete ziren?
- Elkarrekin egindako bidearen bitartez, eta bestela ere, partaidetza kultura eta herri mugimenduen sarea indartu dela esan daiteke? Politika publikoak beste era batean eraiki zirela esango zenuke?

4. Gobernantza sareen desafioak

- Zeintzuk dira aurrera begira ezkerreko gobernuari begira formulatuko zenituzkeen erronka nagusiak? Eta herri mugimenduei dagokionez?
- Zeintzuk izan beharko lirateke eraldaketa prozesua askatzaileak sustatu nahi dituzten gobernuen praktikak (eredu instituzionala ideala: plano teknikoan zein politikoan)? Zer aldatu beharko litzateke? Eta zer indartu?
- Zer paper jokatu behar dute herri mugimenduek ezkerreko gobernuen eraldaketa programean? Zein harreman izan beharko lukete herri mugimenduekin?

Sakoneko elkarrizketarako gidoi orokorra (Erakundeetako ordezkari politikoei zuzendua)

1. Hasierako diskurtsoen eta espektatiben analisia

- Azaldu iezadazu nola heldu zinen ordezkarietarako hautagai izatera? Noiztik parte hartzen zenuen Bildu koalizioan?
- Aurretik herri mugimendu edota talderen batean parte hartzen zenuen?
- Zein zen instituzioen lan jardunaren inguruan zenuen ikuspegia Aldundira sartu aurretik?
- Bildu herri mugimenduekin harremanetan zegoen gobernura heldu aurretik.
- Ze balorazio egin zenuen Bilduk hauteskundeak irabazi zituenean? Zeintzuk ziren orduan zenituen espektatibak?

2. Herri mugimenduen parte hartzea ezkerreko gobernuaren asmo eraldatzaileetan:

2.1. Elkarlanerako disposizioa eta sarearen osaketa

- Ardura politikoa hartu zenuen, nola landu zenituen zure eremuari zegozkion lan ildo nagusiak? Herri mugimenduekin adostu zenituen?
- Bildun, oro har, eta zure sailean espresuki, taldeekin lan egiteko disposiziorik eta gogorik bazegoen? Zeintzuk ziren hasierako asmoak eragile sozialekiko?
- Zein izan zen elkarlanaren abiapuntua? Informazio eta komunikazio bide formalik sortu al zen? Non eta nola hasi zineten?
- Ze espero zenuten herri mugimenduetatik?
- Harremanaren maiztasuna edo intentsitate maila deskribatu. Ezberdindu politikari eta teknikariek.

2.2. Partaidetzaren joko arauak eta elkarlanerako baldintzak

- Zeintzuk ziren elkarlanaren joko arauak? Zein esparruetan eta nola parte hartzen zenuten?
- Abiatu zen elkarlan dinamikan desorekarik sumatzen al zenuen? Botere harremanen nolakotasuna.
- Parte hartzeko mekanismoaren gaineko balorazioa. Helburuak, Informazioa, metodologia, edukiak...
- Zein zen teknikarien rola? Egokia zela esango zenuke?

2.3. Elkarlanaren gatazkak eta horiek kudeatzeko tresnak

- Posizio ezberdinak azaldu ziren elkarlan dinamika edo prozesuan zehar? Nola kudeatu ziren? Gatazkarik egon al zen? Gatazka ekidin zitekeen? Zein terminoetan?

- Zeintzuk ziren elkarlanaren erresistentzia edo ahulgune nagusiak (teknikoki, politikoki eta herri mugimenduen aldetik)?
- Gatazkak bideratzeko baliabideak.
- Zein irakaspen atera dituzue gatazka horietatik?

2.4. Partaidetzaren aukera eta indargune nagusiak

- Zeintzuk izan ziren elkarlanaren indargune nagusiak?
- Lan egiteko eta politika publiko ezberdinak sortzeko aukera egon zela esango zenuke?
- Elkarlan horri esker aldundiaren lan jarduna baldintzatu zenutela esango zenuke? Nola/Zertan?
- Aldundia barrutik eraldatzeko aukera izan zenuten?

2.5. Arriskuak

- Prozesuan zehar arriskurik identifikatu al zenu(t)en? Zeintzuk ziren partaidetzaren muga nagusiak?
- Prozesu osoan zehar, taldeen autonomia mantendu dela esango zenuke? Baldintzatu duen kasuetan sakondu. Nola eta zertan?

3. Herri mugimenduen partaidetza eta elkarlanaren dinamikaren emaitzak eta irakaspen nagusiak

- Zeintzuk izan dira elkarlan dinamika emandako emaitzak? Ikusgarriak (baliabideak, espazioak, prozesuak...) Eta ez hain ikusgarriak (aliantzak, ezagutza, aitortza...)
- Zuen helburuak bete direla esango zenuke? Eta zuekin batera aritu ziren taldeenak?
- Bildu indartu edo ahuldu zen dinamika horren bitartez?
- Egindako bideak partaidetza kulturaren eta elkarte sarea indartu dutela esango zenuke?
- Eta instituzioen lan egiteko modua eraldatu dela esan daiteke? Nola eta zertan?
- Prozesuaren edo lan dinamikaren ebaluazioa egin zen. Zeintzuk izan ziren atera zenituzten ondorio eta irakaspen nagusiak?

4. Gobernantza sareen desafioak

- Zeintzuk dira aurrera begira ezkerreko gobernuari begira formulatuko zenituzkeen erronka nagusiak? Eta herri mugimenduei dagokionez?
- Zeintzuk izan beharko lirateke eraldaketa prozesua askatzaileak sustatu nahi dituzten gobernuen praktikak (eredu instituzionala ideala)? Zer aldatu beharko litzateke? Eta zer indartu?
- Zer paper jolastu behar dute herri mugimenduek ezkerreko gobernuen eraldaketa programetan? Zein harreman izan beharko lukete herri mugimenduekin?
- Sakoneko elkarrizketarako gidoi orokorra: (Erraztatzaileei/teknikariei zuzendua)

Sakoneko elkarrizketarako gidoi orokorra (Erraztatzaileei/teknikariei zuzendua)

1. Hasierako zereginen eta espektatiben analisia

- Azaldu iezadazu, oro har, berdintasun sailean zein espazioetan aritu zireten lanean eta nola ematen da hasierako eskaera instituzioen aldetik? Zer da zehazki aldundiak eskatzen dizuena? Eskaera negoziatzeko beharra ikusi zenuten?
- Aurretik Aldundiarekin lan egin zenuten? Zein prozesuetan?
- Zeintzuk ziren zuen hasierako espektatibak abiatu ziren ekimenetan?
- Ze balorazio egin zenuen Bilduk GFAko hauteskundeak irabazi eta gobernura heldu zenean? Zeintzuk ziren orduan zenituen espektatibak?

2. Gobernantza sareen osaketa, joko arauak eta arriskuak

2.1. Elkarlanerako disposizioa eta sarearen osaketa

- Zuek abiatu zenuten ekimenean, taldeekin lan egiteko dispoziziorik bazegoela esango zenuke? Zeintzuk ziren zure ustez sailak zituen hasierako asmoak elkarlanarekiko?
- Zein izan zen elkarlanaren abiapuntua? Informazio eta komunikazio bide formalik sortu al zen? Non eta nola hasi zireten?
- Ze espero zenuten zen elkarlan espazio horietatik?
- Harremanaren maiztasuna edo intentsitate maila deskribatu. Ezberdindu politikari eta teknikariek.

2.2. Partaidetzaren joko arauak eta elkarlanerako baldintzak

- Zeintzuk ziren elkarlanaren joko arauak?
- Abiatu zen elkarlan dinamikan desorekarik sumatzen al zenuen? Botere harremanen nolakotasuna.
- Parte hartzeko mekanismoaren gaineko balorazioa. Helburuak, Informazioa, metodologia, edukiak...
- Metodologiak zein garrantzi izan zuen prozesuan?
- Zein zen teknikarien rola? Egokia zela esango zenuke?
- Zeharkakotasunaz

2.3. Elkarlanaren gatazkak eta erresistentzia nagusiak

- Posizio ezberdinak azaldu ziren elkarlan dinamika edo prozesuan zehar? Nola kudeatu ziren? Gatazkarik egon al zen?
- Zeintzuk ziren elkarlanaren erresistentzia edo ahulgune nagusiak (teknikoki, politikoki eta herri mugimenduen aldetik)?

- Gatazkak bideratzeko baliabideak.
- Zein irakaspen atera dituzue gatazka horietatik?

2.4. Partaidetzaren aukera eta indargune nagusiak

- Zeintzuk izan ziren elkarlanaren indargune nagusiak?
- Lan egiteko eta politika publiko ezberdinak sortzeko aukera egon zela esango zenuke?
- Elkarlan horren bitartez aldundiaren lan jarduna baldintzatu zela esango zenuke? Nola/Zertan? Aldundia barrutik eraldatzeko aukera izan zenuten?

2.5. Arriskuak

- Prozesuan zehar arriskurik identifikatu al zenu(t)en? Zeintzuk ziren partaidetzaren muga nagusiak?
- Bilduren hasierako asmoak aldatu zirela esango zenuke elkarlan horren ondorioz? Hoberako edo kalterako?

3. Herri mugimenduen partaidetza eta elkarlanaren dinamikaren emaitzak eta irakaspen nagusiak

- Zeintzuk izan dira elkarlan dinamikak emandako emaitzak?
- Helburuak bete zirela esango zenuke?
- Egindako bideak partaidetza kulturaren eta elkarte sarea indartu dutela esango zenuke?
- Eta instituzioen lan egiteko modua eraldatu dela esan daiteke? Nola eta zertan?
- Prozesuaren edo lan dinamikaren ebaluazioa egin zen. Zeintzuk izan ziren atera zenituzten ondorio eta irakaspen nagusiak?

4. Gobernantza sareen desafioak

- Zeintzuk dira aurrera begira ezkerreko gobernuari begira formulatuko zenituzkeen erronka nagusiak? Eta herri mugimenduei dagokionez?
- Zeintzuk izan beharko lirateke demokratizazio prozesuak sustatu nahi dituzten gobernuen praktikak (eredu instituzionala ideala)? Zer aldatu beharko litzateke? Eta zer indartu?
- Ze paper jolastu behar dute herri mugimenduek ezkerreko gobernuen eraldaketa programetan? Zein harreman izan beharko lukete herri mugimenduekin?
- Partaidetza mekanismoen ikuspegitik zeintzuk dira erronka nagusiak?

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea